- *Restos de fauna*: se han acumulado algo más de medio millar de fragmentos óseos siendo importante la participación de la microfauna.



Atxosteko estratigrafia.

Estratigrafía de Atxoste.

*VIII. maila:* aurreko mailaren azpian kokaturik, ia erabat antzua da honakoa, bertan bereizten diren material urriak desplazamenduen ondorio baitira. Lur buzintintsuak dira, kolorez laranja eta hori tonu ezberdinetakoak; induskatutako erdi-tailetan legarrak ugari dira, zenbaitetan garbi-garbiak; kasu hauetan hezeak dira eta trinkotuta atera daitezke. -510 kotaraino induskatu genuen eta ez ginen oinariraino iritsi. Gure ustetan, aldagaiak aldagai, Berron ibaiaren ohanzeraino iristen dira.

Jarraian adierazten dugun bezala, benetan eskasa da maila honetan bereiziriko materiala:

- *Harrizko tresnak:* oso bilduma txikia da. Taila hondakin 6 eta dorso bat besterik ez.
- *Fauna hondakinak:* 45 hezur zatiki, zein espezieri dagozkion jakiteko oso aukera gutxiarekin. Tartean mikrofaunari dagozkion hezur txiki batzuk.

2005. urtean berreskuratutako guztia batuta, 6.830etik gora lagun bildu ditugu, hezurrezkoa 6.555 (bildumaren %96) eta 275 osagai silizeo (%4).

Oro har kanpaina honek aldaketa gutxi eskaintzen ditu aurrekoaren aldean, sedimentu egitura antzekoak aztertu baitira aurtengoan. Indusketaren erdialdean material arkeologiko gutxi berreskuratu ditugu, baina oso esanguratsuak dira horiek Paleolitos aroaren amaierakok direlako, Euskal Herriko hegoaldeko isurialdean guztiz ezezaguna. Egitura espeleologikoak, bere aldetik, informazio paleontologiko guztiz aberatsa eskaintzen jarraitzen du, nahiz eta aurtengoa bereizitako xafra estalagmitikoak, estratigrafiaren garapen normala eteten duenak, edukia murrizten duen.

Hasiera batean aztarnategiaren maila sakonetan maila antzuek bereizi direnez, etorkizuneko lan arkeologikoak helburu mugatuak izango ditu: egitura espeleologikoa erabat induskatu beharra dago -gutxienez VIII. mailaraino iritsi arte-; mendebaldeko perfilaren gaineko sekuentzia estratigrafikoa aztertu behar da -Y eta X zerrenden arteko mugan-; eta zundaketa mugatu bat bururatu behar da VIII. mailaren azpitik, osotasunaren izaera ez antropikoa bermatzearren.

Arabako Arkeologia Museoko teknikarien harremanetan jarrita, aztarnategia kontserbazteko modurik egokiena ari gara aztertzen. Amaitu dugu itxitura bertikala, metalezko egitura zurruna paratu dugu, sarrera-atearekin, eta haren gainean teilatu bat egokituko dugu blokeak behera etor ez daitezen eta finkamendua eurietatik babestuta gera dadin: gisa honetan deposituko mendebaldeko ebaki handitik elementuak behera etortzeko arriskua gutxienera eramango da. Era osagarri batez aipatutako fronte estratigrafikoa finkatzeko modua eskainiko duen sistemaren bat egokituko da -dagoeneko alternatiba batzuk ari gara aztertzen- pedagogiaren, zientziaren eta ondare ikuspegitik halako interesa duelako: izan ere, Atxosten erregistratutako kulturaren bilakaeraren berri emango duten azalpen-panel batzuk paratuko dira.

*Nivel VIII:* inmediatamente subyacente al anterior es prácticamente estéril, sus escasos materiales parecen productos de desplazamientos. Se tratan de tierras arcillosas de coloraciones en gamas de naranjas y amarillos, con participación, según semitallas de excavación de abundante grava, aunque en ocasiones se presentan puras, entonces son húmedas, extrayéndose compactadamente. Se ha rebajado hasta la cota de -510 sin llegar hasta su base -sospechando que, con las variantes que fuera, llegan hasta el lecho actual del Berrón.

Como exponemos la relación material es realmente pobre:

- *Industria lítica:* la colección es muy pequeña. Tan sólo 6 restos de talla y un dorso.
- *Restos de fauna:* 45 fragmentos óseos con pocas posibilidades de diagnóstico a nivel de especie. Se incluye algunos huesecillos de microfauna

Haciendo el recuento total de lo rescatado en 2005 nos salen más de 6.830 evidencias, correspondiendo a restos óseos 6.555 (el 96% de la colección) y a componentes silíceos 275 (el 4%).

Pocas variaciones, en lo genérico, se ofrecen en la presente campaña respecto a la anterior, dado que se han «atacado» similares estructuras sedimentarias. En el área central de la excavación ha sido escaso el material arqueológico rescatado, pero significativo por pertenecer a una entidad, de finales del paleolítico, prácticamente inédito en la vertiente meridional del País Vasco. La estructura espeleológica, por su parte, viene entregando una riquísima información paleontológica, si bien este año la detección de una placa estalagmítica, que interrumpe el desarrollo normal de la estratigrafía, ha mermado este año su contenido.

Dado que, en principio, se han localizado los niveles estériles inferiores del yacimiento, el futuro trabajo arqueológico tendrá objetivos limitados: el vaciado completo de la estructura espeleológica -al menos hasta alcanzar el nivel VIII-; la revisión de la secuencia estratigráfica sobre el perfil oeste -límite entre la banda Y y X-; y el sondeo limitado para garantizar el carácter no antrópico en la integridad y por debajo del horizonte VIII.

En contacto con los técnicos del Museo de Arqueología de Álava se está estudiando la mejor forma de conservación del yacimiento. Se ha terminado el cierre vertical del mismo levantando una estructura metálica rígida, con puerta de entrada, sobre la que se prevé apoyar una techumbre que impida la caída de bloques y proteja al campamento de las precipitaciones: de esta manera se minimizará el desprendimiento del gran corte occidental del depósito. Complementariamente se habilitará algún sistema que permita la fijación de dicho frente estratigráfico -ya se barajan algunas alternativas- dado su interés pedagógico, científico y patrimonial: de hecho se instalarán paneles explicativos de la evolución cultural registrada en Atxoste.

Atxosteko indusketak gutxi gora-behera hamar mila urteko kultura eta tresna izaerako informazioa eskaintzen du; bertara egindako bisitaldiek ez zuten ia etenik izan –abandonatzealdi oso laburrak izan ezik– eta horrek informazio oso aberatsa eskaini du. Izan ere milaka dira landutako harrizko objektuak, hamarka mila taila hondakin; era berean milaka eta milaka dira animalia espezie askori (oreina, orkatza, behiaren familiakoak, sarrioa, ahuntza, basurdea, otsoa, azkonarraren familiakoak, dortoka,...); kalitate handiko zeramikazko zatikiak, arte higigarriko objektuak, eta nahikoa ikatz kopuru; horiek guztiek, aztertu beharreko zutabe polinikoarekin batera, garai ezberdinetako paisaia berrosatzeko aukera emango digute. Material sorta hau guztia ondo egituratuta dago unitate stratigrafiko txikitik, erradiokronologiari esker ondo mugatuta dagoena. Azken glaziazioaldiko kulturak eta Holozenoaldiko aurrenekoak batzen dira Neolitos aroaren hasierara arte, eta hileta izaerako egitura berantiarrek ematen dio amaiera kultura garapen honi. Laburbilduta eta aurkikuntzen ordenari jarraiki, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

1. Hamarren bat gizabanakori dagozkien ehorzketak: hezurrek ez zuten inolako lotura anatomikorik ageri, behartutako eta elkarren artean kaxatutako fetu jarreraren zeuden bi eta beste etzan bat. Ez da deigarria horien ondoan utzitako arrea: zeramika ez bikaina eta sukarran edo ofitan landutako objektu batzuk.
2. Lehenengo okupazio maila hein batean nahasita dago goiko ehorzketa mailarekin; Neolitos aroan kokatzen dugu behin-behinekoz.
3. Oso lodia da Neolitos zaharrari –IIa eta IIIB mailak– dagokion geruza stratigrafikoa. Bertan bereizitako zeramikak apaingari ugari ditu: lokarriak, titi-buruak eta hatz-markak –non bokike izeneko teknikaren erabilera aipagarri den, alde honetako beste lekuetan bereiziriko elementuetan bezala–. Sukarrian lantzerka bikoitzeko segmentuak dira aipagarri; hauek, logikoa denez, azpi-geruzako elementuekin batera ageri dira, baita aho zuzeneko xafra sorta garrantzitsuarekin eta dortso-puntekin ere. Fauna eta floraren gaineko ebaluazioak egiteke daude, baina landare produktuen kontsumoan duten interesaren zeharkako dokumentazio gisa, esan dezagun errota handi eta pisutsu bat, objektu ez mugikorra, aurkitu genuela.
4. Hurrengo bi geruzak, IIIb2. eta IV. maila deituak, Mesolitos aroko aldi geometrikoaren erakusgarri dira: armadura hauek –trapezio eta triangulu itxurakoak, ukitu latzen erabilerarekin– dortsoek –xaflak eta puntak–, mikrozeleak eta geruzako elementu ugari osatutako bilduma eskaintzen dute. Jatorri askotako sukarraren erabilerak eta itsas maskorren presentziak –baita Mediterraneo aldekoak ere– harpean egokitutako biztanleek zeuzkaten lurraldez gairik harremanen erakusgarri dira. Erosoago egoteko xedean, harpeari atxikiriko etxola bat prestatu zuten, bertan

La excavación de Atxoste viene proporcionando una información cultural-industrial de unos diez mil años: fueron visitas prácticamente interrumpidas –salvo por algún abandono menor–, que, lógicamente ha suministrado una ingente cantidad de información derivada de: los miles de objetos líticos tallados y las decenas de miles de restos de talla; también decenas de miles de fragmentos óseos pertenecientes a muy diversas especies animales (ciervo, corzo, bóvido, sarrío, cabra, jabalí, lobo, mustélidos, tortuga...); fragmentos cerámicos de alta calidad, objetos de arte mueble, bastantes carbones que permitirán, junto a la columna polínica objeto de análisis, para la reconstrucción del medio paisajístico... El conjunto está bien dispuesto en unidades estratigráficas menores que la radiocronología viene encuadrando sin contradicciones. Empalma a las últimas culturas del tardiglacial con las primeras del Holoceno hasta los inicios de la neolitización, culminando su desarrollo cultural un dispositivo funerario tardío. En resumen, siguiendo el orden de descubrimiento, tenemos:

1. Inhumaciones pertenecientes a una decena de individuos: los huesos carecían de conexión anatómica salvo dos en posición fetal forzada y encajados entre sí y otro tumbado. No es llamativo el ajuar dispuesto junto a ellos: cerámica poso sobresaliente y algunos objetos líticos en sílex u ofita.
2. El primer nivel de ocupación está parcialmente mezclado con el superior funerario, aunque provisionalmente sugerimos su encuadre neolítico.
3. Es amplia la potencia estratigráfica correspondiente al neolítico antiguo –horizontes IIIa y IIIB–. La cerámica destaca por el uso decorativo de cordones, pezones y juegos de impresiones –donde destaca con personalidad propia el uso de la técnica boquique que encuentra buenos paralelos en otros conjuntos de la zona–. En el sílex la novedad está representada por los segmentos de doble bisel, que, lógicamente, conviven con elementos de substrato y un elenco importante de láminas de filos rectilíneos y huellas de uso más puntas de dorso. Faltan las evaluaciones de fauna y flora, pero como documentación indirecta del interés en el consumo de productos vegetales, debe señalarse la presencia de un molino de grandes dimensiones y peso apreciable –objeto no móvil–.
4. Los dos estratos siguientes, dichos como IIIb2 y IV, son buenos representantes del mesolítico geométrico: estas armaduras –de formas trapeziales y triangulares y con el recurso del retoque abrupto– organizan una colección compuesta también por dorsos –láminas y puntas–, microburiles y abundantes elementos de substrato. El recurso a sílex de diversas procedencias, el acceso de conchas marinas –incluso de ambiente mediterráneo– son muestras de las relaciones supraterritoriales que mantiene la población asentada en el abrigo. Para su mejor acomodo dis-

bereiziriko eustorma txiki batek eta paldoa egokitzeko zuloak adierazten duten bezala.

5. Aurrekoaren azpian Mesolitos aroko beste okupazio batzuk, koxkak eta dentikulatuak deituak, bereizten dira. Teknologia arloko aldaketa erabatekoa da, xaflen bidezko tresnen ordez laskak erabiltzen dituzte, ukitutako objektuen neurriak eta lodierak handiagoak dira, eta garbiak ez diren ukitu ezkatadunak baliatzen dituzte; horiek guztiak ondo egokitzen dira «Mesolitos aroko molde edo tradizio» deituari. Horiexek dira V. eta Cl. mailen ezaugarri nagusiak, tresna gehienak zura lantzeko erabiliko zituzten, eta basoak nagusi ziren aldi bati dagokio: dortoka baten aurkikuntzak berretsi egiten ditu aldi honi begira aurrekusten ditugun ezaugarri hezeak.
6. Atxostek, gainera, Mesolitos aroari dagokion azken unitate bat eskaintzen du, Vib mailan berezia, tresnen ezaugarriak eta harrizko bildumak kontuan harturik, mikroxafren aroa deitua dena. Dortso txikiak, zorrotzak eta kamutsak, eta harraskailuek, batzuk mikrolitikoak, eskaintzen dute informazio gehiena, eta agerian uzten dute finkamenduko biztanleak aldi honetan ehiztariak zirela eta bertan animaliak laurdenkatzeko lanak bururatzen zituztela. Maila honen osuera garai hartan harpeko estalkia behera etorri zen aldikoa bada ere –azalera handia hartuko zuen lur jotakoak–, inguruak eskaintzen zituen aukerak nahikoa erakargarriak izango ziren gizakia berriro ere bertara itzultzeko.
7. Estratigrafiako beheko geruzen multzoak –sedimentuen ezaugarriak bestelakoak izaki izen ezberdinak jaso baitituzte (VII, VIIb1, VIIb2, VIIr, VIIc)–, glaziazioaren azken garaiko okupazioaren arrastoak gordetzen ditu. Talde zorrotzetatik Madeleine aldira, eta hemen agerian geratzen denez, ez zuten soilik Euskal Herriko Kantauri aldean okupatzen; izan ere, lurralde hori gainditu eta barruko lurrek eskaintzen zituzten aukerak esploratzen hasi ziren klima aski zorrotza zen garai batean. Harrizko tresnen artean dortsoak dira nagusi, eta horiekin batera harraskailu eta kolpekari batzuk eta hezurrezko elementu landu gutxi batzuk.

## *Etorkizuneko lanen aurreko ikuspegia*

Atxosteko harpearen azterketa kulturaren ikuspegiatik eta geografikoki hurbil dauden garai bereko beste erregistro batzuen azterketen osagarria da: honen bestez, finkamendu baten barrunbean objektu arkeologikoak berreskuratzeko ekimen hutsa baino asko ere gehiago da hemen bideratzen duguna. Esan gabe doa harpean gordetzen den informazioaren kalitateak, kopuru handiak eta antolamenduak Holozeno aldiko kul-

pusieron, además, una cabaña adosada, de la que se aisló un pequeño murete de sustentación y un agujero de poste.

5. Justamente por debajo dos episodios sedimentario dan cobijo sendas ocupaciones del mesolítico de muescas y denticulados. El viraje industrial es muy neto por el abandono del utillaje laminar a favor del lascar, la tendencia a aumentar el tamaño y grosor de los objetos retocados y el recurso a retoques poco limpios, escamosos, todo lo cual se adecua bien a lo que se denomina «modos o tradiciones campañoides». Es lo propio de los estratos V y VI, pensando que buena parte del utillaje tenía como fin el trabajo de la madera, y se corresponde con un periodo de gran cobertura forestal: el hallazgo de restos de tortuga afianza los caracteres húmedos que se suponen al episodio.
6. Atxoste cuenta además con un último episodio correspondiente al mesolítico, el VIb, aquel que, genéricamente, atendiendo a la estructura industrial de las colecciones líticas se denomina microlaminar. Pequeños dorsos, apuntados o no, y raspadores, algunos microlíticos, acumulan el grueso de la información, abundando en el carácter cazadero del campamento así como en la tareas de descuartizamiento llevadas a cabo en el lugar. A pesar de que su formación se corresponde con el momento de derrumbe de la visera original del abrigo, que debió cubrir una amplia superficie, las posibilidades que ofrecía el entorno, fue suficiente atractivo para el regreso de las poblaciones.
7. El conjunto inferior de la estratigrafía, que por los caracteres desiguales de su composición sedimentaria viene recibiendo distintos nombres (VII, VIIb1, VIIb2, VIIr, VIIc) guarda los vestigios de ocupaciones de finales del tardiglaciario. De grupos afiliados al magdaleniense que, como se demuestra aquí, no sólo ocupan el sector cantábrico del País Vasco, sino que desbordando aquella área empiezan a interesarse, y explotar, los recursos que ofrecen las tierras interiores, en unos momentos de cierta rigurosidad climática. Los dorsos siguen dominando la industria lítica complementada con algunos raspadores, percutores y escasos elementos óseos manipulados.

## *Perspectivas de trabajo futuro*

Englobamos el estudio de Atxoste en complementariedad con otros registros que le son contemporáneos, idénticos en lo cultural y cercanos geográficamente: por lo tanto lo observamos como bastante más que el mero rescate de objetos arqueológicos en el interior de un campamento. Obviamente la cantidad, calidad y organización interna de la información arqueológica que guarda lo convierten en uno de los

turak aztertzeo funtsezko aztarnategi bihurtzen dutela honakoa, okupazio finopleistozenikoen aurrekariak baititu eta oso interesgarria baita Neolitos aroko formetara nola iritsi ziren ulertzeo.

2005. urteko kanpainan giza okupazioaren azpiko mailetara iritsi nahi genuen, eta lortu dugu, hau da, VIII. maila deitura iritsi gara; dokumentu urri batzuk alboratu zitzaizkiz, maila antzua dela esan behar dugu. Aldi berean, lurra ateratzen jarraitu dugu egitura espeleologotik, baina lanak oso motel joan dira galeria oso estua delako: VI. mailara iritsita, artean asko geratzen da egiteko: objektu arkeologikoen kopuruaren gutxitzeak eta xafra estalagmitiko baten presentziak nabari baldintzatu duten bertan garatutako lana.

Horregatik guztiagatik, heldu den urtean egitura espeleologikoa erabat hustu nahiko genuke, geruza antzuetara mugatutako zundaketa bat egin nahi genuke –aztarnategiko oinarria dela egiaztatzeo–, eta mendealdeko perfilaren gaineko sekuentzia estratigrafikoa aztertu nahi genuke. Bestalde, aztarnategia kontserbatzeo lanak aurreratu nahiko genituzke, gorago azaldu tako ekimenen arabera.

Laburbilduta, esan dezagun Atxosteko edukiak historiaurreko –Kalkolitos arotik azken Goi Paleolitos aldira arteko– unitateei dagozkien ondoz ondoko maila estratigrafiko lodia erakusten duela, eta horrek item arkeologikoen kopuru handi eta anitza eskaintzen duela. Espero dezagun adituen esku hartzearekin Holozeno aldi hasierako geure iragana argitzeo modua izatea, horietatik baitira Arabako lurraldeetako aitzindariak.

yacimientos claves en el estudio de las culturas holocénicas, con el antecedente de las ocupaciones finopleistocénicas, y de interés para comprender el acceso a las formas neolíticas.

La campaña del 2005 pretendía, y consiguió, alcanzar los niveles infrapuestos a los de ocupación humana, aquellos que hemos denominado como VIII y que, salvo por escasos documentos, percibimos como estériles. A su vez hemos ido retirando las tierras de la estructura espeleológica, lo que resulta ser un trabajo lento por lo angosto de la galería: llegados hasta el nivel VI queda aún bastante trabajo por desarrollar: el descenso en el número de objetos arqueológicos, y la presencia de una placa estalagmítica han condicionado el trabajo desarrollado en ella.

Por lo expresado, cara al año que viene, sólo restaría el vaciado completo de la estructura espeleológica, un sondeo limitado sobre las capas estériles, para asegurar que se trata de la base del yacimiento, más revisiones de la secuencia estratigráfica sobre el perfil oeste y su preparación para labores de conservación –en el sentido anteriormente transcrito–.

En resumen retenemos del contenido de Atxoste la potente sucesión de niveles estratigráficos correspondientes a diversas unidades prehistóricas –del Calcolítico al Paleolítico Superior final– que ofrecen una amplísima cantidad, y muy variada, de ítems arqueológicos que, con participación de diversos especialistas, permitirá el desciframiento de nuestro pasado en los inicios del Holoceno, los cuales representan la de puesta en marcha de las tierras alavesas.

*Alfonso Alday Ruiz*

### B.1.1.2. **Los Husos II harpea (Bilar)**

III. kanpaina  
Zuzendaritza: Javier Fernández Eraso  
Diru-laguntza emalea: Envíos y  
Distribuciones Araba S.L.,  
Arabako Foru Aldundia eta  
Euskal Herriko Unibertsitatea

### B.1.1.2. **Abrigo de Los Husos II (Elvillar)**

III Campaña  
Dirección: Javier Fernández Eraso  
Subvención: Envíos y Distribuciones  
Araba S.L.,  
Diputación Foral de Álava y Universidad  
del País Vasco

*During the 2005 season level V and part of level VI were excavated*

*Both are of Neolithic chronology. Level V contains an assemblage of smooth ceramics, osseous burins and lithic industry with segments of circles worked with a rough retouch. A household structure was discovered in Level VI.*

*The assemblage is made up of smooth ceramics and other ceramics decorated with incisions and impressions, osseous burins and segments of circles in double bevel in the lithic section. This year it was possible to move on to the dating of the samples gathered during this season and during previous ones.*

*The most striking result is the dating of level IV composed exclusively of ashes and which has provided a chronology within the Final Neolithic.*

## **Aurrekariak**

Los Husos II harpeko aztarnategia Juan María Apéllaniz jaun doktoreak iragan mendeko 60. hamarraldiaren amaieran eta 70. hamarraldiaren hasieran ondoko Los Husos I harpean bideratu zituen indusketa lanetan zehar ezagutu zuen. Interbentzio hartan zundaketa bat bideratu zuen eta izaera antropikoko hondakin arkeologikoak geratu ziren agerian. Gaur egun ez dakigu zein leku zehatzetan bururatu zuen aipatutako zundaketa, eta ez dakigu interbentzio hartan berreskuratutako materialak non dauden.

2001. urteko udan zehar, txosten hau izenpetzen duenaren zuzendaritzapean Los Husos I harpea berriro ere induskatzeko lanetan ari zirela, zundaketa handi bat egin zen, eta Neolitos aroko, Kalkolitos aroko eta Erromatarren garaiko mailak zituen sedimentuzko betegarri garrantzitsu bat bereizi zen.

2003ko udan 5 metro koadroko hedadura zuen eremu batean bururatu zen lehenengo indusketa kanpaina. Erromatarren garaiko mailak induskatu ziren eta tresneria garrantzitsua berreskuratu zen, besteak beste, erromatarren azken garaiko sigillata grisaxkak, palmondo eta giza silueteekin inpresioz apainduak, beste batzuk gorrixkak eta zirkulu handiekin apainduak, zeramika arruntak, jakiak gordetzeko ontzi handiak, metalzko hainbat objektu eta ohol zabal eta egur erre ugari. Era berean, Kalkolitos aroko materialak berreskuratu ziren, gezi mutur bat, tresna geometriko pare bat, sukarran landutako xafla ugari, kondera ale bat eta zeramikak, azken hauen artean aipagarri pastilla deituriko zatiki bat. Lan eremu osoan errauts maila homogeenaren maila iritsi arte induskatu zen kanpaina hartan.

Hurrengo urtean aurrera jarraitu genuen indusketa lanekin. Induskatutako eremuaren ekialdean hobi bat aurkitu izanak behartu egin gintuen indusketa eremua bi metro koadroa zabaltzea. Halatan, kanpaina hartan zehar, erromatarren garaiko mailak induskatu genituen,

## **Antecedentes**

El yacimiento del abrigo de Los Husos II fue descubierto durante las excavaciones que, entre finales de los años 60 y comienzos de los 70 del pasado siglo, realizó el Dr. D. Juan María Apéllaniz en el vecino abrigo de Los Husos I. Ese reconocimiento se hizo mediante una cata que puso al descubierto restos arqueológicos de carácter antrópico. Hoy en día se desconoce tanto el lugar concreto en el que se efectuó dicha cata, así como la ubicación de los materiales exhumados en ella.

Durante el verano del año 2001, en el transcurso los trabajos de reexcavación en el abrigo de Los Husos I que se llevaban a cabo bajo la dirección de quien esto suscribe, se efectuó un amplio sondeo mediante el cual se localizó un importante relleno sedimentario con niveles del Neolítico, Calcolítico y de época romana.

En el verano de 2003 se realizó la primera campaña de excavaciones en una zona de 5 metros cuadrados de extensión. Se excavaron niveles de época romana recuperando un importante ajuar formado por sigillatas grisáceas de época tardía con decoraciones impresas de palmas y siluetas humanas, otras rojizas decoradas con grandes círculos, cerámicas comunes, grandes vasijas de almacenamiento, varios objetos metálicos y abundantes tablones y maderas quemadas. Se exhumaron de igual modo materiales de época calcolítica consistentes en una punta de flecha, un par de instrumentos geométricos, abundantes láminas de sílex, una cuenta de collar y cerámicas entre las que destaca un fragmento de las denominadas de pastilla. Se excavó hasta alcanzar un nivel de cenizas homogéneo por todo el campo de trabajo.

Al año siguiente se continuaron los trabajos de excavación. La localización de un hoyo de enterramiento en el lado este del campo excavado obligó a la ampliación del mismo en dos metros cuadrados. Así, du-



eta bertan tresneria kopuru garrantzitsua bereizi genuen, sigillatazko zeramikak palmondo eta giza silueteekin inpresioz apainduak, eta zeramika arrunteko ontziak. Hobian helduen eta haurren giza hezurrik bereizten ziren, erabat kiskalita denak, baita hosto itxurako puntak, hezurrian landutako espatula bat, zintzilikario gisara zulatutako tribia bat eta pastilla deituriko zeramika zatiki bat. Era berean, errautsezko geruzak induskatu ziren oinarriaraino heldu arte.

Kanpaina bietan induskatutako maila guztietatik hezur eta ikatz lagin ugari jaso genituen C-14 bidez datazio zehatza emateko.

### **2005eko kanpaina**

2005. urteko uztailean zehar hirugarren indusketa kanpaina bururatu genuen.

Hasiera batean B1 eta C1 laukiak induskatzeari ekin genion, aurreko kanpainan bestak baino altuxerago geratu baitziren. Lehen egiteko hau bururatu ondoren, induskatzen jarraitu genuen errautsez osatutako oinarriaraino iritsi arte.

#### **IV. mailaren beheko alde**

Aurreko kanpainan zehar induskatutako errautsezko oinarriari dagokio. Maila hau bereizi egin genuen gaineko errautsezko geruzetan ez bezala, honetan material arkeologiko batzuk aurkitu genituelako, zeramikazko zatikiak eta sukariak. Geruza hau 7.5 YR 7/1 (grisaxka) eta 5 YR 7/1 (grisaxka) koloreko errautsek osatzen dute, ugari dira ikatz zatikiak, sustraiak eta hareharriak. Lodiera irregularrekoa da. Aurreko kanpainetan hautemandako geruzak bezala, tonuz gorri ilunak dituzten lur gorrituen oharre baten gainean egokitzen da honakoa ere. Lehen aipatutako material arkeologikoa betiere azaldu zen geruza honen oinean, hau da azpiko geruza ukitzen duen aldean. Horrexegatik, hain zuzen ere, seguru asko geruza hari dagozkie hemengoan aurkitutako materialak, baina suaren erasoaren ondorioz ez da erraz bereizten.

#### **V. maila**

Aurreko mailak bezala nabari okertzen da ipar-mendebaldetik hego-ekialdera. hego-mendebaldetik ipar-ekialderako norabidean, berriz, kubeta baten forma ageri du, eta lodiera handiagoa aurkezten du induskatutako eremuaren erdialdean.

Maila honen lodiera 10 eta 25 cm bitartekoa da, betiere induskatzen den lekuaren arabera.

Hasiera batean lur kolorez marroi ilunak (10 YR 4/3, 10 YR 3/1) osatzen du geruza hau, lur hezea, ukitzean leuna, hareharritzko eta manganesozko harri txinxarrekin, lur soltea eta ez plastikoa. Sustraiak eta harri

rante aquella campaña, se excavaron los niveles de época romana, con un rico ajuar a base de cerámicas sigillatas con decoraciones impresas de motivos de palma y siluetas humanas, así como vasijas de cerámica común. El hoyo contenía huesos humanos de adultos e infantiles totalmente calcinados y un ajuar compuesto por ojivas foliáceas, una espátula en hueso, una trivía perforada a modo de colgante y un fragmento de cerámica de pastilla. También se excavaron las diferentes capas de ceniza hasta alcanzar, prácticamente, su base.

De todos los niveles excavados en ambas campañas se recogieron abundantes muestra de huesos y carbones para proceder a su datación mediante C-14. Ese análisis no se pudo realizar, por falta de presupuesto, hasta el año 2005.

### **Campaña de 2005**

Durante el mes de julio del año 2005 se procedió a realizar la tercera campaña de excavaciones.

En un primer momento se comenzó a excavar en los cuadros B1 y C1 que, en la anterior campaña, habían quedado algo más altos que el resto. Una vez realizada esta labor previa se continuó excavando hasta alcanzar la base de las cenizas.

#### **Nivel IV Inferior**

Se corresponde con la base de las cenizas excavadas durante la campaña anterior. Fue separado por que, a diferencia de las capas de cenizas a las que subyace, se recuperaron algunos materiales arqueológicos, fragmentos de cerámica y de sílex. Esta capa está formada por cenizas de color 7.5 YR 7/1 (grisáceo) y 5 YR 7/1 (grisáceo), contiene abundantes fragmentos de carbón, raíces y piedras de arenisca. Su espesor irregular. Como las capas detectadas en las campañas anteriores, descansa sobre un lecho de tierras rubefactadas de tonalidad rojiza oscura. El material arqueológico, antes citado, se localizó siempre en la base de esta capa en contacto con la capa subyacente. De ahí que los materiales recuperados deben de corresponder a esa capa, pero por causa de la acción del fuego no resulta fácil su separación.

#### **Nivel V**

Al igual que los niveles anteriores presenta un fuerte buzamiento de NW a SE, en tanto que en dirección SW a NE presenta forma de cubeta de manera que alcanza un mayor espesor en el centro del campo excavado.

Su espesor oscila entre los 10 y 25 cm. según la zona en la que se excave.

Se trata de un nivel de tierra, en principio, marrón oscura (10 YR 4/3, 10 YR 3/1), húmeda, suave al tacto, con cantitos de arenisca y manganeso, suelta y no plástica. Tiene bastantes raíces y abundantes piedras. A me-

ugari ditu. Sakondu ahala gero eta grisago (10 YR 5/2 – marroi grisaxka) bihurtzen da. Orduan hezeago aurkezten da lurra, gune karbonatuekin, lur latzago bihurtuz.

Geruza marroi honen azpian, induskatutako eremuaren ipar-ekialdean batez ere, askoz ere argiagoa den lurrezko geruza bereizten da, geruza ez plastikoa, errautsaren kolorekoa, leuna eta ukitzean biguna, ikatz askorekin, masan harri txintxarrak gabe edo tonu arrosakara ematen dioten hareharri gorrixka txikiekin. Gune batzuetan trinkotuta eta karbonatua ageri da. Geruza honen kolorea 5 YR 7/2 (gris arrosakara), 10 YR 7/2 (gris argia) eta 10 Y R 6/2 (marroi grisaxka argia) artekoa da.

Bertan paldoa egokitzeko zulo bat bereizi genuen, iritsitako mailaren gainazaletik azpiko VI. mailaren hasieraraino iristen dena.

Bertan nola etxeko faunaren hala fauna basaren hondakin ugari bereizi genituen. Horien artean, ardi-ahuntz familiakoei, suidoei eta oreinaren familiakoei (orkatza eta oreina) dagozkienak.

Berreskuratutako tresneriaren artean aipagarri dekoraziorik gabeko zeramika, oso fina eta ondo landua, ukitu traukilekin landutako zirkulu-segmentuak, lantzerka bikoitzeko triangulu bat eta mikroizel bat. Horiekin batera, sukarrizko xaflak, nagusiki ebaporitikoak, eta aitzineko aurpegia landuta duen nukleoa. Hezurrean landua, berriz, puntzoi bi berreskuratutako genituen, hezur zorrotzean landuak.

## VI. maila

Artean induskatzeko prozesuan dago. Kanpaina honetan gutxi gora-behera 20 cm sakondu dugu «0» puntutik behera -330 cm-ko kotaraino iristeko.

Geruza hau lur kolorez marroi oso ilunak osatzen du (7.5 YR 5/3) edo gris oso ilunak (5 YR 3/1) tonuz gris gorrixka eta ilunak diren dilistatzen batzuekin (2.5 YR 3/1).

Oro har lur heze, solte, ez plastiko eta ez limotsuak osatua da, harri txiki ugariarekin, batzuk gorrituta, klasto gutxiarekin eta aztarnategiaren oinarriko mailan bermatzen den bloke handi batekin. Ugari dira sustraiak, ikatz zatikiak eta hezurak.

Goiko mailan bezala, ipar-ekialdean errautsaren antzeko tonu marroi horixka argia (10 YR 6/4) duen lurra hautematen da, ukitzean latza, hezea eta zati txiki karbonatuekin.

B-5.4 eta 7 eta A-5.9 laukien artean oinplano zirkularreko sutegi-egitura bat bereizi genuen; egitura hau hareharrizko eta kareharrizko errekarri handiekin osatuta zegoen. Harrizko zirkuluak gutxi gora-behera 60 cm-ko diametroa zuen. Oinarriaraino induskatu genuen, 11 cm-ko lodiera izaki. Sutegiko lurrak kolore beltzekoak dira (5 YR 2.5/1), ikatz ugari, errekarri txiki eta sustraiekin nahasirik. Hezea da, ukitzean biguna eta ez

dida que se profundiza va adquiriendo una tonalidad paulatinamente más grisácea (10 YR 5/2 – marrón grisáceo). Entonces la tierra está más húmeda, con zonas carbonatadas que la hacen ligeramente rasposa.

Bajo esta capa marrón, particularmente en la zona noreste del campo excavado, aparece una capa de tierra de tonalidad mucho más clara, no plástica, cenicienta, suave y untuosa al tacto, con muchos carbonos, sin cantitos en su masa o con algunos trocitos de areniscas rojizas que le proporcionan un tono rosáceo. Está compacta y carbonatada en algunas zonas. Su coloración varía entre 5 YR 7/2 (gris rosáceo), 10 YR 7/2 (gris claro) y 10 Y R 6/2 (marrón grisáceo claro).

Se identificó un agujero de poste que arranca desde la superficie del nivel alcanzando hasta el inicio del VI subyacente.

En él se recuperaron abundantes restos de fauna tanto doméstica como salvaje. Entre ellos restos de oviscapridos, súidos y cérvidos (corzo y ciervo).

El ajuar está compuesto por cerámicas lisas de muy fina y elaborada factura, segmentos de círculo trabajados mediante retoque abrupto, un triángulo en doble bisel y un microburil. Junto a ellos láminas de sílex, mayoritariamente evaporíticos, y avivados de frente de núcleo. En hueso se recogieron dos punzones en esquirla de hueso aguzada.

## Nivel VI

Se encuentra en proceso de excavación. Durante esta campaña se excavó en un espesor aproximado de 20 cm. llegando hasta la cota de -330 cm. bajo la línea «0».

Se trata de una capa de tierra de color marrón muy oscuro (7.5 YR 5/3) o gris muy oscuro (5 YR 3/1) con algunos lentejones de tonalidad gris rojiza oscura (2.5 YR 3/1).

En general está compuesto por tierra húmeda, suelta, ni plástica ni limosa, con muchas piedras de tamaño pequeño, algunas rubefactadas, pocos clastos y un gran bloque que descansa sobre el nivel de base del yacimiento. Contiene muchas raíces, trocitos de carbón y abundantes huesos.

Al igual que en el nivel al que subyace, en la zona noreste se aprecia una tierra de tonalidad marrón amarillento claro (10 YR 6/4) cenizosa, raspa al tacto, húmeda, con trocitos carbonatados.

Entre los cuadros B-5.4 y 7 y A-5.9 se localizó una estructura de hogar de planta circular, formada por grandes cantos rodados de arenisca y caliza. El círculo de piedras presentaba un diámetro de 60 cm. aproximadamente. Fue excavado hasta su base en un espesor de 11 cm. Las tierras del hogar son de color negro (5 YR 2.5/1), con muchos carbonos cantitos rodados y raíces. Es húmeda, untuosa al tacto, no plástica. Alre-

plastikoa. Harrizko zirkuluaren inguruan errautsezko orban zuriak dituen gune bat bereizten da.

Maila honetan zeramikazko material asko berreskuratu genituen, horien artean aipagarri kanpoko alde-tik espatulaz landuta zegoen edontzi handi bat, kolorez beltza, ertz apur bat irekiarekin eta oro har delineazio ahurrarekin nola paretetan hala oinarrian. Lepoan ziztatuturiko eta paraleloan egokituturiko marra biz egindako dekorazioa bereizten da. Marrok etenda ageri dira buruz behera ipinitako ube zentrokide biren bidez. Edontziarekin batean zeramika dekoraziorik gabeak azaldu ziren, fin eta ondo landuak.

Harrizko tresneriari dagokionez, aipagarria da ofitan landutako aizkora baten aho leunduaren zatikia. Sukarrian landuak, berriz, xaflak eta lantzerka bikoitzeko zirkulu-segmentuak dira aipagarri.

Aipagarri dira, halaber, lau puntzoi, horietatik bi hezur zorrotzean landuak eta beste biak ardi-ahuntz familiako abere baten metakarpianoan landuak, epifisia kontserbatzen dutenak, eta diafisietan ebakiek zorrotuturiko punta ageri dute, baita punta leundua ere.

Era berean, nola etxeko hala ehizatutako faunaren hezurak berreskuratu genituen. Azken horien artean aipagarria da oreinen hezurren presentzia.

dedor del círculo de piedras se extiende una zona en la que aparecen manchas blancas de cenizas.

En este nivel se recuperaron abundantes materiales cerámicos, entre los que destaca un gran vaso de superficie exterior espatulaza, de coloración negra, con el borde ligeramente abierto y de delineación general cóncava tanto en paredes como en la base. En el cuello presenta una decoración consistente en dos raya incisas, paralelas, interrumpidas, de hito en hito, por sendos motivos impresos, en forma de uves inversas y concéntricas. Junto a ella cerámicas lisas, de factura muy fina y cuidada.

En lo lítico destaca un fragmento de filo se hacha pulimentada trabajada sobre ofita. En sílex láminas y segmentos de círculo en doble bisel.

En hueso destacan cuatro punzones, dos en esquirra aguzada de hueso y, los otros dos, en metacarpiano de ovicáprido que conservan las epifisis y, en las diáfisis, muestran una punta aguzada por recortes y pulida.

De la misma manera se recuperaron huesos de fauna tanto doméstica como cazada. Entre ésta destaca la presencia de ciervos.



Los Husos II. VI. mailako material arkeologikoak.

Husos II. Materiales arqueológicos del nivel VI.

## Oinarriko maila

Soilik A-5 laukian eta B-3 eta B-1 laukietako 1-4-7 sektoreetan iritsi ginen maila honetaraino.

Hareez osatutako geruza bat da, kolorez marroi horixka oso argia (7.5YR 6/3), harea oso latzak eta la-karrak ukitzean. Orain arte gutxi induskatu dugun arren, itxura guztien arabera maila antzua da.

## Kronologia

Aurten, azkenean, nola aurtengo kanpainan hala aurrekoetan berreskuratutako hamaika lagin aztertu ahal izan ditugu C-14 bidez.

Laginak Floridako (AEB) Beta Analytic laborategira igorri genituen. Horietatik hamaika laginek datak eskaini zituzten. Huts egin zigun bakarra III. mailako hobiko giza ehorzketari zegokion lagina izan zen, haren kontserbazio egoerak –erabat kiskalita zegoen– ezinezko egiten baitzuen kolagenoa bereizteko lana. Hala eta guztiz ere, maila honen data ere zehaztu ahal izan zen hezurak erre zituzten ikatzak azterturik. IV. eta IV. azpiko mailetatik igorritako laginak neurri eta trinkotasun handiko ikatz zatiak ziren. Igorritako beste lagin guztiak hezurak ziren.

Horratx, labur-labur, lortutako emaitzak:

- Erromatarren garaiko mailak.— Lau data lortu dira, 1370 eta 1770 BP arteko datak eskaintzen dizkigutenak. Beraz, gure garaiko bigarren eta zazpigarren mendeen artean kokatzen gara. Itxura batean oso data koherenteak dira berreskuratutako material mota aintzat harturik (palmondo eta giza siluetekin apaindutako zeramikak, zirkulu handiekin apainduriko sigillatak eta beste).
- Ehorzketaren mailak 4670 BP datazioa du. Kalkolitos zaharreko maila da, tresneria osatzen duten hosto itxurako punta motekin bat datorrena.
- IV. eta IV. azpiko mailak 4910 eta 4930 BP arteko datak eskaintzen dituzte, garai bereko deposituak direlako erakusgarri. Ikatx eta errauts metaketak dira, inolako tresneriarik gabe, eta horrek zaindu egiten du kultura baten kokatzeko ahalegina. Lortutako datek Neolitos aroaren amaierako aldi batera garamatzate.
- V. mailak sei data eskaini zituen (zundaketan lortu ziren biak barne), 5280 eta 5490 BP artekoak. Beraz, Neolitos aroaren erdialdeko-amaiera aldeko une batean kokatu behar dugu.
- Bukatzeko, VI. mailak 5520 BP data eskaintzen du. Gutxieneko data da, igorritako hezurra alde aurretik erreta zegoelako. Horrexegatik pentsatu behar dugu, lehen adierazitako salbuespenarekin, data horrek, orain ate berreskuratutako tresneriarekin batean, Neolitos aroko data zahar batera eraman gaitzakeela. Los Husos I eta Peña Larga aztarnategietan bezala.

## Nivel de Base

Fue alcanzado solamente en el cuadro A-5 y en los sectores 1-4-7 de los cuadros B-3 y B-1.

Se trata de una capa de arenas, de color marrón amarillento muy claro (7.5YR 6/3), muy ásperas y rasposas al tacto. En principio, por lo poco excavado hasta la fecha, es arqueológicamente estéril.

## Cronología

En este año hemos podido, por fin, someter a análisis C-14 once muestras recuperadas tanto en la presente campaña, como en las anteriores.

Se remitieron al laboratorio Beta Analytic de Florida (USA). De todas ellas once proporcionaron fechación. Falló la muestra correspondiente a los enterramientos humanos del hoyo, nivel III. La razón fue que su estado de conservación, totalmente calcinado, hacía imposible la localización de colágeno. Sin embargo, se pudo obtener fecha, para este nivel, analizando los carbonos que quemaron los huesos. Las muestras enviadas para el nivel IV y IV Inf. Eran fragmentos de carbonos de tamaño y compactibilidad grandes. El resto de las muestras enviadas fueron huesos.

Los resultados obtenidos se resumen de la siguiente manera:

- Niveles de época romana.— Se han obtenido cuatro fechas que oscilan entre 1370 y 1770 BP. Lo que nos sitúa entre los siglos segundo y séptimo de nuestra era. En principio son fechas muy coherentes con el tipo de material recuperado (cerámicas con palmas y siluetas humanas, sigillatas decoradas con amplios círculos, etc.).
- El Nivel de enterramiento se data en 4670 BP. Se trata de un nivel Calcolítico antiguo muy acorde con los tipos de ojivas foliáceas que componen el ajuar.
- Los Niveles IV y IV Inferior entregan datas entre el 4910 y 4930 lo que indica que se trata de un depósito contemporáneo. Son todo acumulaciones de carbonos y cenizas sin ningún tipo de ajuar, lo que dificulta su adscripción cultural. Las fechas obtenidas nos lo colocan en una etapa final del Neolítico.
- El Nivel V produjo seis fechas (incluyendo la dos que se obtuvieron en el sondeo) comprendidas entre 5280 y 5490 BP. lo que lo sitúa en un momento Neolítico de fase media-tardía.
- El Nivel VI, por último, proporciona una fecha de 5520 BP. Se trata de una fecha mínima, pues el hueso enviado estaba previamente quemado. Por ello habría que pensar que esa fecha, con la salvedad apuntada, unido al ajuar recuperado por el momento, nos pueden llevar a una fase antigua dentro del Neolítico similar al de Los Husos I o Peña Larga.

- Orain arte lortutako emaitzak garrantzitsuak dira. Autonomia Erkidego osoan aurkitutako Neolitos aroko lehen etxolaren aurrean gaude, Los Husos I aztarnategian aurkitutakoari –kronologikoki modernoagoa da honakoa, Kalkolitos arokoa– gehitu behar zaiona.
- Datu hauek guztiek iradokitzen dute Kantabriako mendialdean artegi sare bat egongo zela. orain arte Los Husos I eta II aztarnategietan eta San Kristobal aztarnategian aurkitutakoak erakusgarri. Los Husos II aztarnategian bitariko okupazioa izan zela ematen du, gutxienez V. eta VI. mailetan; halatan, harpearen barrunbea artegi gisa erabili zuten, eta kanpoko aldea aterpe gisa. Gisa honetan azaldu daiteke errautsezko geruza zabalaren presentzia paldoak egokitzeko zuloekin harpearen hondoan, eta sutegi alde bat kanpoko aldean.

### *Etorkizuneko ikuspegiak*

Los Husos II harpean, hasiera batean bederen, indusketa kanpaina bakarra geratzen da egiteke. Kanpaina horretan orain arte irekitako eremu guztian oinarriko mailara iritsi nahiko genuke. Halatan, 2006. urteko udarako aurreikusitako kanpainan VI. mailatik geratzen dena induskatuko dugu ahal dela egun dauzkagun datuak baino data zehatzagoak lortzeko xedean.

Los Husos II aztarnategiarekin amaitu eta gero, Mendialdean bereizirik harpeetan bakarra geratuko da Kalkolitos aroko sedimentuzko geruza garrantzitsuarekin, seguru asko Neolitos aroko mailaren gainean egokituarekin. Harekin amaituko genuke orain dela hogeitau urte baino gehiago Peña Larga harpea induskatzeko lanekin hasi genuen ikerketa proiektu handia.

Hasiera batean emaitzak onak dira, eta orain arte ezezaguna genuen euskal historiaurrearen beste aurpegia osatzeko aukera ematen ari zaigu.

- Los resultados hasta ahora obtenidos no son desdeñables en absoluto. Nos encontramos ante el primer establo neolítico localizado en toda la Comunidad Autónoma que debe unirse al localizado en Los Husos I, cronológicamente, más moderno, Calcolítico.
- Estos datos apuntan a la existencia de una red de rediles en la Sierra de Cantabria localizados hasta ahora en Los Husos I, II y San Cristóbal. En Los Husos II parece existir un tipo de ocupación mixta, al menos en los niveles V y VI, de manera que una parte del abrigo, la interior, se pudo utilizar como redil en tanto que, la parte exterior, se utilizaría como refugio. Así se puede explicar la presencia de amplias capas de cenizas con agujeros de postes hacia en fondo del abrigo, y una zona de hogar al exterior.

### *Perspectivas de futuro*

En el abrigo de Los Husos II, en principio, sólo resta una campaña de excavación. En ella pretendemos alcanzar el nivel de base en todo el campo de excavaciones abierto. Así, en la campaña prevista para el verano de 2006, se excavará lo que resta del nivel VI con el objetivo básico de obtener fechas más ajustadas y precisas, si es posible, que las que poseemos en la actualidad.

Tras Los Husos II queda un solo abrigo de los localizados en la Sierra que contiene un buen sedimento de época Calcolítica que descansa sobre un nivel, posiblemente, de época neolítica. Con finalizaríamos un amplio proyecto de investigaciones que comenzó hace más de veinte años con la excavación del abrigo de Peña Larga.

En principio los resultados son buenos y nos están permitiendo esbozar otra cara de la prehistoria vasca que nunca se había puesto de manifiesto.

*Javier Fernández Eraso*

### B.1.1.3. Iruña / Veleia hiria (Iruña Oka)

IV. kanpaina  
Zuzendaritza: Eliseo Gil Zubillaga  
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritzako  
Garraio eta Herrilan Saileko  
Eusko Trenbideak/  
Ferrocarriles Vascos S.A.

### B.1.1.3. Ciudad de Iruña / Veleia (Iruña de Oca)

IV Campaña  
Dirección: Eliseo Gil Zubillaga  
Financiación: Eusko Trenbideak/  
Ferrocarriles Vascos S.A.,  
del Dpto. de Transportes  
y Obras Publicas del Gobierno Vasco

*Within the framework of the «Iruña-Veleia III. Millennium Project» a series of rural digs has been conducted. In the Domus Pompeia Valentina the area around the peristyle was examined, the high point being the identification of a possible paedagogium of that dwelling. Hundreds of epigraphic testimonies on ostraka or pot sherds (both ceramic and osseous) have been found associated with it. This is an exceptional collection that throws light on the daily life of the people. Excavation also took place in the «basement next to the cardus maximum» complex, in which a new cistern, which had been used as an ossuary during a later period, was identified. The levels of habitat next to the southern entrance of the wall corresponding to the same period were examined. These are the keys for understanding Veleia's town planning in its final stages.*

### Pompeia Valentinarean Domusa


*Domus de Pompeia Valentinarean Domusari dago-kionez, batez ere haren iparraldean lan egin dugu, peristiloaren sektorean, eta peristiloaren xehetasun interresgarri batzuk agerian geratu dira, baita hari atxikiriko egitura batzuk ere. Gela berriak identifikatzeari dago-kionez, beste barruti baten aurkikuntza da aipagarri, oinplano angeluzuzeneko gela handi bat (gutxi gorabehera 57 m<sup>2</sup>-koa). Bertako kareharri xabalez eta zurezko egituraz egindako teilatu eraitsiaren ondorioz pilatutako hondakinak altxa eta gero, suteak hondatutako maila ukitu gabe bat identifikatu genuen; maila honek guztiz zigilatuta utzi zuen gelako eduki guztia. Ezbehar hura III. mendeko uneraren batean gertatu zen, berreskuratutako item-ek eskaintzen duten *post quem* datazioaren arabera. Hasiera batean biltegi batekin zerikusia zuen tresneria bereizi genuen alde honetan. Kontuan harturik objektuen egokiera eta ikatz bihurtutako zurezko egituren hondakinak, ganbara bat edo estalkipe bat izan zitekeen, non anfora itxurako ontziak pilatuko zituzten (ontziak gelako hegoaldeko hormaren *perpendicularrean erorita zeuden eta jatorrian horizontalean pilatuta egongo ziren seguru asko ad hoc* apalategi batean). Gainera, metalezko elementu asko bildu genituen (kutxetako burdineriak, tresnak, lanabesak eta armak), horien artean aipagarri *pugio* orri oso bat.*

Hala eta guztiz ere, azpian zegoen harrigarriena eta ikusgarriena; zanpatutako buztinezko zoru soil baten gainean utzita, elikagaien hondakin ezohiko bat eta ontzi eta bestelako objektuen zatikiak (sigillata hispaniarrak, sigillata galiarraren lagin txiki bat, mahaiko eta sukaldeko zeramika arrunta, pareta fineko zeramikak, *pondera* bat, olio-lanparak eta fusaiolak) aurkitu genituen. Elementu horiek aipatutako gelaren erdialdean metatzen ziren nagusiki. Itxura batean etxeko zaborra osatzen zuten aztarna horiek berreskuratuzeko

### Domus de Pompeia Valentina

En lo que hace a la *Domus de Pompeia Valentina*, se ha trabajado sobre todo en su ala norte, en el sector del peristilo, poniendo al descubierto interesantes detalles sobre éste, así como sobre sus infraestructuras asociadas. A nivel de identificación de nuevos ambientes, lo más notable ha sido la localización de un nuevo recinto, una gran estancia de planta rectangular (de unos 57 m<sup>2</sup>). Tras la retirada de los restos del habitual derrumbe correspondiente a la cubierta de lajas de caliza local y estructura lúnea se ha identificado un nivel de destrucción por incendio intacto que dejó sellado todo el contenido de la estancia. Aquel luctuoso suceso se habría producido en un momento a partir del siglo III, gracias a la fechación *post quem* que suministran los diferentes ítems recuperados. En un primer momento se halló el ajuar asociado a una zona de almacenaje. A juzgar por la disposición de los objetos y los restos estructurales en madera carbonizada podría pensarse en un altillo o bajo-cubierta en el que se ordenaban envases anfóricos (caídos en perpendicular al muro sur de la habitación y almacenados en origen dispuestos en horizontal, seguramente en un estante *ad hoc*). Además se recogió una gran cantidad de elementos metálicos (desde restos de herrajes de arcones a utensilios, herramientas o armas), entre los que es obligado citar una hoja de *pugio* completa.

Sin embargo lo más espectacular estaba inmediatamente debajo, depositado sobre un sencillo suelo de arcilla apisonada se encontró una inusual concentración de restos de alimentación y fragmentos de diversos recipientes y otros objetos (sigillata hispánica, una pequeña muestra de gállica, cerámica común de mesa y cocina, paredes finas, *pondera*, lucernas y fusaiolas): estos elementos se acumulaban en particular en la parte central de dicha estancia. El proceso de recuperación e identificación de aquellas



Eneasen genealogia mahaiko zerrika arrunteko *ostrakon* batean egindako graffitian.

La genealogía de Eneas en un graffiti sobre *ostrakon* de cerámica común de mesa.



«Cardo máximo ondoko eraikinaren» gorputzen atala osatzen zuen zisterna berria.

La nueva cisterna que formaba parte de las construcciones del «edificio junto al cardo máximo».



eta identifikatzeko prozesuak, haien balio erantsi nabaria utzi zuen agerian. Hondakin haietako asko eta asko arbel txiki gisa erabili ziren, hau da, *ostraka* deitua osatzen zuten (nola zeramikazkoak hala hezurrezkoak). Taula txiki haietan eskola munduarekin eta ikaskuntzarekin zerikusia zuten inskripzioak idatzi zituzten; abederak, memoria lantzeko era guztietako zerrendak (egile klasikoan, jainkoan, pertsonaia historikoen eta besteen zerrendak), Eneidaren gaiak eta beste batzuk. *Inperioaren muturreko* hiri batean gisa honetako jakintza-lagina aurkitu izanaren eragina gutxi balitz, multzo epigrafiko honek leio pribilegiatu bat zabaltzen dio eguneroko bizimoduari (etxeko bizimodu adierazten duten marrazkiak, paisaiak, erretratu txikiak, karikaturak,...). Gainera, garai haietako gizarte, ideologia eta erlijio izaerako egoera ere islatuta geratzen da, testuak eta kristau munduko marrazkiak bereizten baitira. Eta zer esan han bere ezagutza klasiko zabalak irakasten zituen ekialdeko jatorri exotikoa zuen irakaslearen inguruan, bere historiari, idazkerari, kulturari eta sinesmenei buruzkoak ere azaltzen zituzten. Beraz, *paedagogium* delakoa izango zen, hau da, *Pompeia Valentinarean Domusean* bizi izan zen Veleiako familia aberatsaren haurrek eskolak jasotzen zituzten gela. Guztira 270 graffiti baino gehiago bereizi genituen, kronologikoki III. mendean eginak, irizpide stratigrafikoek, euskarrien beren azterketa tipologikoak eta haiei atxikiriko txanpon izaerako elementuek adierazten duten bezala. Horrek guzti horrek panorama guztiz ezezaguna dakarkigu geure Herrialdera, eta oraindik goiz da aurkikuntza hauek, abian diren nahitaezko azterketak amaituta, ekarriko dituzten eragin historikoak behar bezala baloratzeko.

### *Cardo máximo edo bide nagusiaren ondoko eraikina*

Nietoren indusketaren arabeko sektore zahar baten kokalekuari dagokio; egile haren lanen memorian labur-labur ageri da leku hartan bideratu zituen lanen deskribapena<sup>1</sup>. Han, partzialki bada ere, hiru gela identifikatu zituzten, eta horietako bat soto gisa interpretatu zuten. Eraikina Goi Inperioaren garaian eraikiko zuten, eta III. mende aldera era nabarian berritu zuten sute baten kalteak jasan eta gero. Hain zuzen ere, garai horretakoak lirarteke dekoraziozko pinturen hondakinak, Nietok Arabako Arkeologia Museoan utzi zituen arren, bere argitalpenean harrigarri aipatzen ez diren hondakinak. Pintura horien artean aipagarri dira eraikin hartako goiko solairuko sabaiko kasetoien bidezko dekorazioaren parte bat<sup>2</sup>. 50 urte baino gehiago estalkirik gabe, agerian, egon eta gero, eta hainbat atalek lur jo ondoren, behar-be-

<sup>1</sup> Nieto, G. (1958): *El Oppidum de Iruña (Álava)*, 84-91.

<sup>2</sup> Filloy, I./Gil, E./Iriarte, A. (1992): «Arabako horma-pintura erromatarra. Kontuaren egoera», *Hispaniako erromatarren garaiko horma-pinturari buruzko I. Jardunaldia*, 107-113.

evidencias, aparentemente de basura doméstica, reveló su muy notable valor añadido. En un elevado porcentaje aquellos restos habían sido utilizados a modo de pizarrillas, es decir, se trataría de *ostraka* (tanto cerámicos como óseos). En aquellas improvisadas tablillas se habían anotado inscripciones relacionadas con el mundo escolar y del aprendizaje; desde abecedarios, a listados memorísticos de todo género (relaciones de autores clásicos, de divinidades, de personajes históricos), temas de la Eneida; etc. Por si el impacto de encontrarse con tamaña muestra de erudición en una ciudad del *confín del imperio* fuera poco, este conjunto epigráfico abre una muy privilegiada ventana a la vida cotidiana (desde representaciones figurativas de la vida doméstica a paisajes, retratitos, caricaturas...). Además la convulsión social e ideológico-religiosa de aquellos tiempos también queda reflejada, con temas como la presencia de textos y representaciones cristianas. Y qué decir del exótico origen oriental del preceptor que impartía allí sus amplios conocimientos clásicos, añadiendo también temas específicos sobre su propia historia, escritura, cultura y creencias. Se trataría pues del *paedagogium*, la habitación donde se impartía clase a los retoños de aquella pudiente familia veleiese que habitó la *Domus de Pompeia Valentina*. En definitiva, más de 270 graffiti cronológicamente elaborados en el siglo III, tal y como lo demuestran los criterios stratigráficos, el análisis tipológico de los propios soportes o los elementos numismáticos asociados. Todo ello presenta un panorama inédito en la arqueología de nuestro País, y aún es pronto para valorar adecuadamente las implicaciones históricas que aportarán estos hallazgos, tras los preceptivos estudios en curso.

### *Edificio junto al cardo máximo*

Corresponde al emplazamiento de uno de los viejos sectores de excavación de Nieto, en la memoria de cuyos trabajos encontramos un muy somero relato sobre sus trabajos en aquel lugar<sup>1</sup>. Se habían identificado allí, siquiera parcialmente, tres estancias, una de las cuales se interpretó como un sótano. El edificio habría sido levantado en época altoimperial, sufriendo una profunda remodelación, tras un incendio, en torno al siglo III. Precisamente a esos momentos corresponderían los restos de su programa decorativo pictórico que, sorprendentemente aunque fueron depositados por Nieto en el Museo de Arqueología de Álava, no aparecen recogidos en su publicación. Entre ellos destaca parte de la decoración de casetones del techo del piso superior de aquel ambiente<sup>2</sup>. Tras más de 50 años a la intemperie y varios

<sup>1</sup> Nieto, G. (1958): *El Oppidum de Iruña (Álava)*, 84-91.

<sup>2</sup> Filloy, I./Gil, E./Iriarte, A. (1992): «La pintura mural romana en Álava. Estado de la cuestión», *I Coloquio de pintura mural romana en Hispania*, 107-113.



harrezkoa zen sektore honetan jardutea, nola egitura haietatik geratzen zena babesteko hala egitura haiek testuinguru batera biltzeko eta multzoaren interpretazio bat eskaintzeko. Sotoko hormak sendotzen hasi ginen, eta iragan mendean identifikatu zituzten bolumenak berreskuratu genituen. Era berean, jatorrizko indusketek eragindako pilaketa garbitu genuen, eta beste barruti berri bat geratu zen agerian. Zisterna bat zen, jatorrizko eraikinaren ondorengo une bateko berrikuntza lanen ondorioa, seguru asko Behe Inperioren garaian. Zisterna hori instalatzeko sotoaren horma nagusietako bat bota behar izan zuten, eta hormaren trazatua eta lerrokadura aldatu behar izan zituzten. Eraikuntzaren sekuentziak agerian uzten du nola erabili zituzten landu gabeko harrizko hormak, kanpoko enkofratu gisa, *opus caementitium* materialezko nukleoari eusteko. Zisterna honek baditu antzeko ereduak aztarnategi honetan bertan (oso antzekoa da *erroseta mosaikoz hornituriko domuseko* zisterna), oinplano lauangeluarra eta teilatuari eusteko bi berme. Kasu honetan sekzio koadroko zutari monolitiko bi izango ziren. Uraska hau K.o. v. mendean erabat amortizatu eta bete zutela zehaztu ahal izan dugu, horixe adierazten baitute betegarrietan bereizirikultura materialeko elementuek. Funtsean mahaiko paretaren finetako zeramikaz ari gara, nola Ebro ibaiaren haraneko eskualdeko produkzioetara (Errioxako Najerilla haraneko Terra Sigillata Hispaniar Berantiarra), hala Galian sortu eta handik ekarritako produkzioetara (DS.-P. edo *Dérivée de Sigillée Paléochrétienne*) bilzen dira, biak kronologia bertsukoak. Zisternak barruko aldetik 3,40 x 3,70 metroko neurriak ditu oinean eta 1,70 m. garai da; halatan, 21 m<sup>3</sup> ur baino gehixeago bildu zezakeen. Uraskako betegarriaren goiko geruzek eskainitako item-ek gainera, ustekabe-ko atsegin bat ezkutatzen zen betegarriaren azken geruzan. Gutxi gora-behera azken 30 cm-ko geruzan hezur hondakin asko ezkutatzen zen. Halatan egiaz-tatu ahal izan genuen nola uraska haren hondoa animalien hezurdura hondakinak metatu zituzten (besteak beste, berrogeita hamarren bat etxe-abere identifikatu ditugu, tartean, txakurrak, behiak, zaldiak, astoak eta oilarrak; baita animalia basatiak ere, esate baterako, basurde bat eta orein bat); eta are harrigarriagoa dena, oso kontserbazio egoera onean dauden giza hondakin batzuk bereizi genituen (horien artean, gutxienez hamarren bat helduri eta bi haurri dagoz-kien hezurak). Kasu guztietan, bigarren mailako de-positu bati dagozkio, eta deigarria da oso berariaz aukeratutako elementuen presentzia, esate baterako animalien eta gizakien garezurren presentzia, gure in-guruko erromatarren garaiko arkeologian guztiz berria den harreman batean. Kontuan hartu beharra dago orain arte oso ezkutuan geratu dela garai hartako giza hondakinen gaia, baina hutsarte hori betetzen hasia da *Veleian* egindako aurkikuntza berri hauekin, izan ere, erromatarren azken garaiko geure arbasoen antropologia fisikora hurbiltzeko aukera zientifikoari ateak zabaltzen dizkiote aipatu aurkikuntzek.

derrumbes parciales se hacía absolutamente necesario intervenir en el sector, tanto para salvaguardar lo que quedaba de aquellas estructuras como para contextualizarlas y suministrar una interpretación del conjunto. Se comenzó por consolidar las paredes del sótano, recuperando los volúmenes que se identificaron en el siglo pasado. Se procedió también a la retirada de la montonera de las excavaciones originales, descubriendo además un nuevo recinto. Se trata de una cisterna, fruto de una remodelación en un momento avanzado con respecto al edificio original, presumiblemente en época bajoimperial. Para instalarla hubieron de afectar a una de las paredes maestras del sótano, alterando incluso su trazado y alineación. Su secuencia constructiva revela cómo fueron utilizados sucesivos muros-pantalla de mampostería, a modo de encofrado externo, para contener el núcleo de *opus caementitium*. El modelo de la cisterna presenta paralelos en el mismo yacimiento (es muy similar a la correspondiente a la *Domus del mosaico de rosetones*), presentando planta cuadrangular y dos apoyos para la cubierta. En este caso dos pilares monolíticos de sección cuadrada. Se ha podido determinar que este aljibe fue amortizado y colmatado por completo en el siglo V d.C., tal y como lo atestiguan los diferentes elementos de cultura material aportados con los rellenos. Fundamentalmente estamos hablando de cerámica fina de mesa, encuadrable tanto en las producciones regionales del valle del Ebro (la Terra Sigillata Hispánica Tardía riojana del valle del Najerilla), como en las importaciones de las Galias (la DS.-P. o *Dérivée de Sigillée Paléochrétienne*), ambas concordantes cronológicamente. La cisterna posee unas dimensiones internas de 3,40 x 3,70 de planta x 1,70 m. de altura; lo que hace un cubicaje de algo más de 21 m<sup>3</sup>. Además de los ítems aportados en las capas superiores de colmatación, una sorpresa estaba reservada para la última capa de relleno. Aproximadamente los últimos 30 cm. contenían una elevadísima proporción de restos óseos. Así se ha constatado cómo en el fondo de esa cisterna se depositó una notable acumulación de restos esqueléticos de animales (de los que se han identificado hasta medio centenar de ejemplares de individuos domésticos, como perros, vacas, caba-llos, burros, o gallos; así como salvajes como un ja-balí o un ciervo); y, lo que es mucho más excepcional: una serie de restos humanos en muy buen estado de conservación (entre ellos, al menos, una decena de adultos y dos infantiles). Corresponden en todos los casos de un depósito secundario del que llama la atención la presencia de elementos seleccionados como los cráneos de animales y de humanos, en una asociación inédita para la arqueología romana de nuestro entorno. Hay que ponderar también lo esquivo que se había mantenido hasta la fecha el tema de los restos humanos de estos momentos, una laguna que comienza a rellenarse con los nuevos descubrimientos de *Veleia* que abren todo un panorama científico de acercamiento a la antropología física de nuestros antepasados de época romana tardía.

## Azken garaiko harresia. Hegoaldeko atearen ondoko atala.

Iruña-Veleia hiriko multzo arkeologikoak eta bereziki barruti harresituaren hondakinek ahanzturaren eta denboraren joanaren ondorioak jasan dituzte mende-etan zehar. Hala eta guztiz ere, tarteka presente egon dira eta gisa honetako lanetan aztergai izan dira. Alferrekoa da lehen dokumentu erreferentziak aipatzea, jada xvi. mendean Iruñako hondakinen antzintasunari buruzko argudioak azaltzen zituztenak<sup>3</sup>. Nietoren<sup>4</sup> landa lanen zain eta Balil<sup>5</sup> adituak egindako lanen zain egon behar dugu Behe Inperioaren garaiko Veleia, kostata bada ere, Hispaniako harresiz inguratutako hirien zerrendara jasotzeko. Elorza<sup>6</sup> bezalako egile batzuek asko idatzi zuten aipatu barrutiaren ustezko izaera militarren inguruan; nolana ere, hipotesi hori eta beste hipotesi are irudimentsuago batzuk bazterrerara geratu ziren gaiari era zientifiko batean hurbiltzeko saiok egiten hasi zirenetik. Ezin aipatu gabe utz daitezke Iriarte<sup>7</sup> adituaren azterketa arkitektonikoa eta Fdz. Ochoa eta Morillo<sup>8</sup> adituen planteamenduak, geu zuzendari gaituen ikerketa taldearekin partekatutak.

Hain zuzen ere Veleian garatzen den programak hiri honetako harresien azterketa du helburuetako bat. Xehetasun eta berri ugari eskaintzen ari den harresiaren beraren hondakinen azterketaz gainera, harresiari atxikiriko egoitza unitate batzuk ari gara iker-tzen. Itxuraz eraikuntza tipologia soila izan arren, egitura multzo honek harresiaren beraren eraikuntza prozesua eta inguru honetako hiriaren bilakaera ulertzeko eta interpretatzeko zehaztasun batzuk eskaintzen ditu. Izan ere, harresia eraikitze xedean espazio hau egokitu behar izan zuten, eta horretarako lubeta handi bat itxuratu behar izan zuten harresiaren barruko aurpegian. Halatan, harresiaren lodierari –batez beste 4,5 m lodi baitzen– barruko aldetik eraikuntza sendogari handi bat erantsi zioten ezponda gisara; horrek, gainera, altuera-maila batetik abiatuta almenetara iristeko modua eskainiko zuen. Eraikuntza eredu zahar bati erantzuten dio, ekialdeko ereduari, eta haren eraikuntzan jatorri hartako espekek erabiliko zituzten, egungo interpretazio ildoaren arabera. Aipatutako terrazamenduko betegarrien azterketak agerian uzten du nola horretarako Goi Inperioaren garaiko etxeetako eta hiriko zaborrak erabili zituzten, eta eraikuntzaren kostua apalagoa izateko xedean, nola

## Muralla tardía. Tramo junto a la puerta sur.

El conjunto arqueológico de Iruña-Veleia y, en especial, los restos de su recinto amurallado han sufrido a lo largo de los siglos los avatares del tiempo cuando no del olvido. Pero no por ello han dejado de estar presentes de una forma episódica y aún recurrente en las síntesis al uso. Es ocioso detallar aquellas primeras referencias documentales que ya en el siglo xvi argumentaban sobre la antigüedad de las ruinas de Iruña<sup>3</sup>. Hemos de esperar a los trabajos de campo de Nieto<sup>4</sup> y a las elaboraciones de Balil<sup>5</sup> para que la Veleia del Bajo Imperio se incorpore, mal que bien, a la nómina de las ciudades amuralladas hispánicas. Algunos autores como Elorza<sup>6</sup> cargaron las tintas sobre un pretendido carácter militar de dicho recinto, no obstante esa hipótesis y otras desviaciones más fantásticas quedaron en entredicho tras las primeras aproximaciones científicas al tema. Es obligado relacionar el estudio arquitectónico de Iriarte<sup>7</sup>, así como los planteamientos de Fdz. Ochoa y Morillo<sup>8</sup>, compartidos con el equipo de investigación que dirigimos.

Precisamente el programa que se desarrolla en Veleia tiene, como uno de sus objetivos, el estudio de las murallas de esta ciudad. Además del análisis sobre los restos de la propia obra en sí que van suministrando no pocos detalles, se está procediendo a la investigación de una serie de unidades habitacionales adosadas a la misma. Se trata de un conjunto de estructuras que, pese a su sencilla tipología constructiva aparente, aportan toda una serie de precisiones interpretativas para comprender el propio proceso de edificación de la muralla y la evolución urbanística de este entorno. En efecto, la adecuación original del espacio en esta zona para la construcción de la muralla supuso la disposición de un gran aterraplenamiento por su cara interna. Así, a los notables 4,5 m. de anchura media de la obra de la muralla se añade por el interior un enorme refuerzo constructivo, a modo de talud, que facilitaría además el acceso al almenado desde una cota determinada. Se trata de un modelo constructivo arcaizante, de raigambre oriental y, en cuya edificación podrían haber intervenido levas de aquella procedencia según la actual línea de interpretación. El análisis de los rellenos de dicho aterrazamiento revela cómo se utilizó para ello escombros do-

<sup>3</sup> Ortiz de Urbina, C. (1996): *Arabako arkeologia XVIII. eta XIX. mendeetan*, 38.

<sup>4</sup> Nieto, G. (1958), op. cit., bereziki 119-149.

<sup>5</sup> Balil, A. (1960): «La defensa de Hispania en el Bajo Imperio», *Zephyrus XI*, 179-195; Balil, A. (1970): «La defensa de Hispania en el Bajo Imperio. Amenaza exterior e inquietud interna», *Legio VII Gemina*, 600-620.

<sup>6</sup> Elorza, J.C. (1972): «A propósito de la muralla romana de Iruña (Álava)», *Estudios de Arqueología Alavesa 5*, 183-194.

<sup>7</sup> Iriarte, A. (1997): «Iruña/Veleia-ko erromatarren azken garaiko harresia», *Isturitz 9*, 699-733.

<sup>8</sup> Fernández Ochoa, C./Morillo Cerdán, A. (1997): «Iruñako harresia Iberiar Penintsularen iparraldeko Behe Inperioaren garaiko hiriko gotorlekuen testuinguruan», *Isturitz 9*, 735-742.

<sup>3</sup> Ortiz de Urbina, C. (1996): *La Arqueología en Álava en los siglos XVIII y XIX*, 38.

<sup>4</sup> Nieto, G. (1958), op. cit., en especial 119-149.

<sup>5</sup> Balil, A. (1960): «La defensa de Hispania en el Bajo Imperio», *Zephyrus XI*, 179-195; Balil, A. (1970): «La defensa de Hispania en el Bajo Imperio. Amenaza exterior e inquietud interna», *Legio VII Gemina*, 600-620.

<sup>6</sup> Elorza, J.C. (1972): «A propósito de la muralla romana de Iruña (Álava)», *Estudios de Arqueología Alavesa 5*, 183-194.

<sup>7</sup> Iriarte, A. (1997): «La muralla tardorromana de Iruña/Veleia», *Isturitz 9*, 699-733.

<sup>8</sup> Fernández Ochoa, C./Morillo Cerdán, A. (1997): «La muralla de Iruña en el contexto de las fortificaciones urbanas bajoimperiales de la región septentrional de la Península Ibérica», *Isturitz 9*, 735-742.



«Cardo máximo ondoko eraikineko» zisternan aurkitutako gazezur eta beste giza hondakinen multzoa.

Conjunto de cráneos y otros restos humanos hallados en la cisterna del «edificio junto al cardo máximo».

zabor horiek seguru asko erabileratik at zeuden albo-ko eraikinetatik ekarriko zituzten. Berreskuratutako item-ek I. eta III. mende arteko arku kronologikoa eskaintzen dute, eta gugandik gertuen dagoen muga hori baliagarria da, gainera, harresiaren atal nagusiaren eraikuntzaren *post quem* data berresteko.

Harresia eraiki ondoren denborak aurrera egin ahala, espazio alternatiboak bilatzeko beharra bistakoa zen, harresiak inguratutako espazioa gain erabilia eta estu geratu baitzen. Halatan, gibelaldeko ezpondak hartzen zuen espazioa erabili zuten, eta gainera orain azertzen ari garen hegoaldeko atearen inguruan zeuden uestzko goardia-kideriaren egitura zaharrak amortizatu zituzten. Honenbestez, okupazio maila berriak gorago geratu ziren, harresiaren landu gabeko harrizko hormen oinarriari leku egiten dien harri naturalaren mailatik gora 2 eta 2,5 metro bitarte. Testuinguru hauek, zalantzarik gabe, bosgarren mendean osatu ziren, hau da harresiari begira pro-

méstico y urbano de la ciudad altoimperial, procedente seguramente por economía de medios de cualquiera de los edificios contiguos en desuso. Los ítems recuperados se remiten a un arco cronológico entre los siglos I al III, cuyo límite más reciente sirve además, como confirmación adicional *post quem* para la construcción de la obra principal de la muralla.

Avanzado el tiempo tras la construcción del encintado, acabó sintiéndose la necesidad de buscar espacios alternativos para un interior sobreutilizado y constreñido por los muros. Así llegó a utilizarse el espacio del talud trasero, amortizando incluso además, en la zona de la puerta sur que ahora se analiza, las antiguas estructuras correspondientes al posible cuerpo de guardia. Las superficies de los nuevos niveles de ocupación quedan ahora por tanto sobreelevadas, entre 2-2,5 m. de altura sobre el nivel de roca natural, donde se asienta la obra de mampostería de la muralla. La formación de dichos contextos se remite claramente a la quinta centuria, prácticamente un

posatutako eraikuntza data –III. eta IV. mende bitartean– baino mende bat geroago. Zehaztapen kronologikoaz gainera, aipatutako dataziorako *ante quem* data bat eskaintzen digu sendogarri berriak. Egiturari atxikiriko kultura materialak adierazten digu, batetik, erromatarren azken garaiko hiri hura oso bizia zela. Halatan, etxeko tresneriaren artean, Errioxako eltzegintza lantegietako pareta fineko ohiko baxera bereizten da, baina baita DS.-P. moldeko zeramika inportatuak ere; berriro ere, indarra galtzen du Behe Inperioaren garaiko hirialdeen isolamenduari buruzko kluxe zaharkitu hark. Era berean, aipagarria da bertako jatorria duten errito jakin batzuk bizirik zirautela egiaztatu izana; kasu honetan zendutako haurrei etxebizitzan barrunbean lur emateko ohitura. Praktika hau ondo baino hobeto egiaztatzen da K.a. lehenengo milurteko erromatarren aurreko munduan, eta orain erromatarren garaiko *Veleiako* hiriaren sekuentzia historiko osoan zehar ohitura hark bizirik irauten zuela egiaztatu dezakegu. Beste kate-begi bat jatorriko herrixkako biztanle haien eta Erromaren orbitako beren oinordekoen artean. Izan ere, harresiaren barruko aurpegiari atxikiriko etxebizitza soil haietako zoruak behin eta berriz zulatu zituzten haietan zendutako haur txikien gorpuak egokitzeko (gutxi gora-behera 50 m<sup>2</sup>-ko eremu batean zazpi gorpu oso eta hogeiren bat hondakin isolatu bereizi genituen).

siglo después a la fecha de construcción propuesta para la muralla, que como se sabe, situamos en el tránsito entre los siglos III y IV. Además de la precisión cronológica, de hecho un nuevo refuerzo, en este caso *ante quem* para la citada datación. La cultura material asociada nos informa, por un lado, de la vitalidad de aquella urbe tardorromana. Así entre el ajuar doméstico se encuentra la habitual vajilla fina de los alfares riojanos tardíos, pero también importaciones como la DS.-P., alejando, nuevamente, aquel obsoleto cliché, sobre el aislamiento de los núcleos urbanos del Bajo Imperio. Cabe igualmente destacar la constatación de la pervivencia de determinados rituales de raigambre indígena; en este caso la inhumación de individuos infantiles al interior de las viviendas. Se trata de una práctica bien constatada en el mundo prerromano del primer milenio a.C. y que ahora podemos certificar cómo perdura a lo largo de toda la secuencia histórica de la ciudad de *Veleia* de época romana. Un punto más de la conexión entre aquellas gentes del poblado fundacional y sus descendientes bajo la órbita de Roma. En efecto, los suelos de aquellas sencillas viviendas adosadas a la cara interna de la muralla fueron perforados repetidas veces para acondicionar el depósito de los pequeños difuntos infantiles (hasta un total de siete inhumaciones completas y una veintena de restos aislados en un área de unos 50 m<sup>2</sup>).

*Eliseo Gil Zubillaga*

#### B.1.1.4. **Zornoztegi (Agurain)**

I. kanpaina  
Zuzendaritza: Juan Antonio Quirós  
Castillo  
Diru-laguntza emailea: Arabako Foru  
Aldundia

#### B.1.1.4. **Zornostegi (Salvatierra)**

I Campaña  
Dirección: Juan Antonio Quirós Castillo  
Subvención: Diputación Foral de Álava

*During 2005 the first excavation season took place in the Zornostegi (Salvatierra-Agurain) medieval area of open land. This intervention is viewed as a logical consequence of the project to study the origin of the medieval landscape that the Department of Archaeology of the University of the Basque Country (UPV/EHU) has been conducting since 2002.*

*During this season the main aim has been to assess the potential of the archaeological deposits of the site, to develop a suitable strategy for analysing this type of settlement and to conduct a series of sondages that will enable us to find out about the main phases in the occupation of Zornoztegi. With the data obtained it is possible to assert that the hamlet was founded during the course of the 8th century and was abandoned in the 13th century after the founding of the town of Salvatierra.*

## **Sarrera**

Euskal Herriko Unibertsitateko Arkeologia Arloak ikerketa proiektu bati ekin zion 2002. urtean Arabako Erdi Aroko paisaiaren osaera aztertzeke xedearekin; horretarako landa lan batzuk abiarazi zituen eta

## **Introducción**

En el año 2002 el Área de Arqueología de la Universidad del País Vasco inició un proyecto de investigación destinado a estudiar el proceso de formación del paisaje medieval a través de la realización

ix.-xii. mendeetako dokumentazio idatzia eta toponimia berrikusten hasi zen. Ikerketa lan hauen bidez Erdi Aroko paisaia osatzeko prozesua, herrixken arteko sarearen sorrera eta gizarte feudala aztertzeke eredu arkeologikoa aztertu nahi izan dira, betiere oinarri arkeologikoetatik abiatuz. Alderdi horiek guztiak Europako Erdi Aroko Arkeologiaren eztabaidaren erdi-erdian dauden argudioak dira, eta oraindik ez dira beren osotasunean aintzakotzat hartu Iberiar penintsulako sektore zabaletan. Aipatutako ikerketa proiektua nagusiki Arabako lautadan garatu da, batez ere ekialdeko sektorean, nahiz eta lurralde honetako beste sektoreak ez diren bazter utzi. Miaketak 2001-2003 urteetan bururatu ziren elkarren artean tarte erregularrak gordetzen zituzten zerrendatan artikulatutako laginketa estrategiaren bidez, eta lurraldea aztertzeke metodologia intentsibo eta sistematikoa aplikatuz.

Hala eta guztiz ere, landa lanen bidez egiaztatu ahal izan dugu nola geure garaiko laborantza lanek nabari nahasi duten depositu arkeologikoen izaera. Arabako lautadaren izaerak berak, lursailen kontzentrazio prozesuaren aurrean, erraztu egin du laborantza mekanizatuaren garapena, eta horrek zuzeneko eragina izan du aztarnategi arkeologikoak aurkitzeke eta kontserbatzeke orduan.

Gainazaleko miaketek dituzten mugak egiaztatu eta gero, estrategia intentsibo bati ekiteke beharra planteatu zen; halatan, ikerketa proiektuan aztertu nahi ziren alderdiak aztertzeke aukera ematen zuten aztarnategiak modu intentsibo batean induskatzeko estrategia abiaraztea planteatu zen. Beraz, Zornoztegi herri hustuan (Agurain) indusketa arkeologikoa bururatzeko baimena eskatu genuen 2003. urtean.

Funtsean hiru dira Arabako Erdi Aroko herri hustuetan interbentzio arkeologikoak bururatzeko arrazoiak:

1. Hasteko, ikerketa proiektu honetan aztertu nahi diren gai nagusiak –Erdi Aroko paisaia osatzeko prozesua, Erdi Aroko herrixken izaera eta gizarte feudalen osaera– aztertzeke esparru ezin hobekak dira Erdi Aroko herri hustuak.

Ildo honetatik, esan dezagun herri hustuetako arkeologia izan dela Europa osoan eta azken hamarraldietan Erdi Aroko arkeologia aztertzeke oinarri nagusia. Nolanahi ere, Espainiako Erdi Aroko arkeologian eta bereziki Iberiar Penintsularen iparraldeko arkeologian gai hau ia erabat baztertera geratu dela esan behar dugu; ondorioz, urriak dira oso egoitza espazioak aztertu diren Erdi Aroko herri hustuen adibideak, batez ere izaera monumentaleko beste gai batzuk lehenetsi direlako, esate baterako elizak, nekropoliak

de una serie de trabajos de campo y la revisión de la documentación escrita y toponímica de los siglos ix-xii. A través de estas investigaciones se han querido analizar, desde bases arqueológicas, el proceso de formación del paisaje medieval, el surgimiento de la red aldeana, o la creación de un modelo arqueológico de análisis de la sociedad feudal. Son todos ellos argumentos que están en el centro del debate de la Arqueología Medieval europea de la última década, y que aún no han sido abordados en toda su complejidad en amplios sectores de la Península Ibérica. El proyecto de investigación mencionado se ha desarrollado esencialmente en la llanada alavesa, y de forma particular en su sector oriental, aunque no se han dejado de lado otros sectores de la provincia. Las prospecciones se realizaron en los años 2001-2003 mediante una estrategia de muestreo articulada en bandas separadas entre sí a distancias regulares, y aplicando una metodología intensiva y sistemática de análisis del territorio.

Sin embargo, a través de los trabajos de campo ha sido posible constatar como las tareas agrícolas recientes han alterado sustancialmente la naturaleza de los depósitos arqueológicos. La propia conformación de la llanada alavesa ha favorecido el desarrollo de una agricultura mecanizada en relación con el proceso de concentración parcelaria, lo que ha tenido efectos muy notables en el reconocimiento y probablemente en la conservación de los yacimientos arqueológicos.

Una vez que se constató las limitaciones que presentan las prospecciones de superficie, se planteó la necesidad de recurrir a una estrategia intensiva mediante la excavación de yacimientos representativos de las distintas problemáticas que se querían abordar en el proyecto de investigación, por lo que se solicitó en el año 2003 un permiso para realizar la excavación arqueológica del despoblado de Zornoztegi (Salvaterra-Agurain).

La decisión de intervenir arqueológicamente en los despoblados medievales alaveses responde esencialmente a tres razones principales:

1. En primer lugar, los despoblados medievales constituyen un ámbito de observación privilegiado de las principales temáticas que se pretenden abordar en este proyecto de investigación; el proceso de formación del paisaje medieval, la génesis de las aldeas medievales y la conformación de las sociedades feudales.

A este propósito es importante señalar que la arqueología de los despoblados ha constituido la base a partir de la cual se ha desarrollado en los últimos decenios la reciente arqueología medieval en toda Europa. En cambio, en la arqueología medieval española, y en particular en el norte de la Península Ibérica, esta temática no ha sido prácticamente desarrollada, de tal manera que son muy escasos los ejemplos de despoblados medievales en los que se han analizado los espacios residenciales, privilegiando sustancial-

edo/eta gotorlekuak. Azken 30 urteetako penintsularen iparraldeko Erdi Aroko arkeologiaren «desmonumentalizazio» honen gabeziak, gure ikuspuntutik, ondorio nabariak izan ditu Erdi Aroko paisaien eta gizarte feudalen osaera prozesuaren aurreko eredu eta proposamen teoriko irekien garapenean aurre egiteko orduan. Izan ere, erregistro arkeologikoaren irakurketa historiografiak sorraraziriko interpretazio ereduak mende egon da beti.

Arazoi horiengatik guztiengatik, gure ustez une honetan lehen mailako lehenetasuna du, Penintsularen iparraldeko Erdi Aroko arkeologia garatuko bada, herri hustuen eta euren laborantza esparruen azterketa sustatuko duen herrixken gaineko arkeologia baten garapenak.

2. Bigarrenik, Zornoztegiko ikerketa arkeologikoak zuzeneko harremana du Arabako herri hustuen fenomenoaren ondare izaerarekin.

Arabako kasuan, tradizio garrantzitsua dago Erdi Aroko herri hustuak aztertze eta zerrendara biltzeko orduan, eta ildo honetatik aipagarria da G. López de Guereñu Galarragak egindako lana. Egile horri zor zaio Erdi Aroko eta aro modernoko 304 herri husturen katalogo zehatza; Arabako Kultura Ondareak duen ondare entitate garrantzitsu eta esanguratsuenetako bat da aipatutako katalogoa.

Paradoxikoki, herri hustuak aztertze tradizioa izan den arren, «ermita lekukoen» bidez ikusteko modukoak izan diren arren eta Arabako Erdi Aroa aztertze orduan herri hustuek nola izaera kuantitatiboaren hala izaera kualitatiboaren ikuspuntutik garrantzitsuak diren arren, oraindik ez dira arkeologia ikerketa programa zehatzen bidez aztertze xede izan.

Egia ere bada azken hamarraldietan Arabako hainbat herri hustutan jardun dutela, gehienetan arkeologia ondarea kudeatzeko programak tartean zirela. Halatan, eta esanguratsuenak aipatzearen, Aistra, Kilxano, Amamio, Mostrejón, Legardagutxi, Lastrako Kastroak eta Mutilluri bezalako herri hustuetan indusketa eta kontrol lanak egin dira. Hala eta guztiz ere, interbentzio horiek aukera eman zuten Erdi Aroko okupazioari zegozkion ermitak, nekropoliak eta kasurik hoberenetan, siloak eta beste izaera bateko egiturak identifikatzeko, hau da, ikuspegi hobea eskaintzen duten egiturak bereizteko. Soilik Legardagutxi (Lermanda) eta Lastrako Kastroak (Karanka) izeneko herri hustuetan aurkitu dira etxe izaerako egiturak.

Izan ere, erregistro material «ahuleko» aztarnategi mota baten aurrean egokitzen gara, gehienetan zurzko eta lurrezko egiturak direlako, oso-oso gutxitan harrizkoak, eta beraz hauskorak oso. Horrek zail egiten du ikusteko eta identifikatuak izateko moduko

mente otras temáticas de carácter monumental, como las iglesias, las necrópolis o los centros fortificados. La ausencia de esta «desmonumentalización» de la arqueología medieval del norte peninsular en los últimos 30 años ha tenido, desde nuestro punto de vista, efectos muy notables a la hora de avanzar en el desarrollo de modelos y propuestas teóricas de amplio respiro sobre el proceso de formación de los paisajes medievales o las sociedades feudales. De hecho, la lectura del registro arqueológico ha sido siempre deudora de los modelos interpretativos generados desde la historiografía.

Por todos estos motivos creemos que el desarrollo de una arqueología de las aldeas que potencie el estudio de los despoblados y sus espacios agrarios constituye en la actualidad una prioridad de primer orden para el desarrollo de la Arqueología Medieval en el norte Peninsular.


2. En segundo lugar, el estudio arqueológico de Zornoztegi está directamente relacionado con la dimensión patrimonial del fenómeno de los despoblados en Álava.

En el caso alavés se cuenta con una importante tradición de estudio e inventario de despoblados medievales, destacando la labor desarrollada por G. López de Guereñu Galárraga. Se debe a este autor un exhaustivo catálogo de 304 despoblados o *mortuorios* medievales y modernos, concentrados en su mayor parte en la llanada alavesa, constituyendo una de las entidades patrimoniales más importantes y significativas con las que cuenta el Patrimonio Cultural alavés.

Paradójicamente, a pesar de existir una tradición de estudios de despoblados, de ser visibles a través de las «ermitas testigo» y de la importancia que tienen los despoblados en términos cuantitativos y cualitativos a la hora de estudiar la Edad Media en Álava, aún no han sido objeto de estudio a través de programas de investigación arqueológica específicos.

Es cierto que en los últimos decenios se ha intervenido en un número significativo de despoblados alaveses, generalmente, en ocasión de programas de gestión del patrimonio arqueológico. Así, se han hecho excavaciones o controles en despoblados como los de Aistra, Quilchano, Amamio, Mostrejón, Legardagutxi, Castros de Lastra o Mutilluri, por señalar los más representativos. Sin embargo, estas intervenciones han permitido identificar ermitas, necrópolis o en el mejor de los casos silos o indicios de diferente naturaleza relativos a la ocupación medieval, que presentan una mayor visibilidad. Únicamente en los despoblados de Legardagutxi (Lermanda) y de Castros de Lastra (Caranka) se han reconocido estructuras de carácter doméstico.

La realidad es que nos encontramos ante la presencia de un tipo de yacimiento caracterizado por un registro material «débil», constituido por estructuras de madera, de tierra y en raras ocasiones de piedra, y por lo tanto frágil. Esto comporta problemas



Gainazaleko materialen banaketaren azterketa. A eta B irudietan teila eta landu gabeko harri ugari bereizten dira gainazalean. C irudian materialen dentsitatea aurkezten da 100 metro koadroko laukietan; D irudian dentsitatearen zuzenketa adierazten da, gainazaleko ikuspenaren arabera.

Análisis de distribución de materiales de superficie. En las imágenes A y B se aprecia la abundante presencia de tejas y mampuestos en superficie. En la imagen C se representa la densidad de materiales en cuadrados de 10 m. de lado; en la imagen D se ha realizado una corrección de la densidad en función de la visibilidad superficial.

egiturak aurkitzea, baina batez ere erronka handia planteatzen du, hau da, mota honetako egiturak babestea eta haiei balioa ematea.

Gainera, esanguratsua da eskura ditugun Erdi Aroko lehen herrixken hondakin garrantzitsuenak artean okupatuta dauden hiriguneetan aurkitu izana, esate baterako Gasteizen, Guardian eta Rivabellosan; aitzitik, sarri askotan kontserbazio egoera aski kaxkarrean ageri dira egitura horiek espazioa behin eta berriz izan delako okupatua.

Aurrekari hauek guztiak kontuan izanik, geure ikuspuntutik behar-beharrezkoa da Arabako Erdi Aroko herri hustuen kopuru mugatu baina esanguratsu batean indusketa bat egitea zabaleran, finkamendu hauetako kultura materialaren ezaugarriak xehe-xehe azter-

de visibilidad e identificación de las estructuras, pero sobre todo plantea un gran reto, la protección y la valorización de este tipo de estructuras.

De hecho, no deja de ser significativo que los restos más importantes de los que disponemos de las primeras aldeas medievales se hayan encontrado en el interior de centros aún ocupados, como Vitoria-Gasteiz, Laguardia o Rivabellosa, aunque con frecuencia presentan un estado de conservación muy condicionado por la continua ocupación del espacio.

Teniendo en cuenta estos antecedentes, resulta prioritario desde nuestro punto de vista realizar una excavación en extensión de un número limitado pero representativo de despoblados medievales alaveses que permitan analizar de forma exhaustiva las caracte-



tzeko modua izateko eta horien azterketak planteatzen dituen arazo historiko konplexuei heldu ahal izateko. Izan ere, datozen urteetan Arabako lurraldeko hainbat sektoretan herri hustu batzuk induskatzea planteatzen ari gara.

3. Hirugarrenik, behar-beharrezkoa da metodologiaren arloan Arabako Erdi Aroko herri hustuak ezagutzeko eta aztertzeo estrategia zehatz bat planteatzea. Alde batetik, erregistro materialaren beraren ezaugarriek, lehen adierazi bezala egitura «ahulak» baitira, erabat zail egiten dute ikusteko modukoak izatea. Bestalde, molde honetako aztarnategien azterketan erabiliko den estrategia arkeologikoak oso ondorio garrantzitsuak izango ditu interpretazioan. Horrexegatik, hain zuzen ere, behar-beharrezkoa da Arabako lurraldean hainbat herri hustu mota aztertzea, Erdi Aroko aurreneko herrixketan nagusi den erregistro material «ahularen» ezagutza eta irakurketa estrategia ezberdinak saiatzeko xedean.

Aurrekari hauek guztiak aintzakotzat harturik, guztien artean Zornoztegiko herri hustua Arabako herri hustu bat zabaleran induskatzeko egokiena zela erabaki genuen, alde aurreko baldintza batzuk bete egiten zituelako.

### *Zornoztegiko aztarnategia*

Zornoztegiko aztarnategiak (Agurain), iparraldetik hegoaldera gutxi gora-behera 800 metrotan luzatzen den muinoa hartzen du; mendebaldeko pendiza ekialdekoa baino malkarragoa da eta ekialdeko mazela laborantza lurrek hartzen dute egun. Mendebaldeko mazela, berriz, basoberak hartzen du, eta ez dirudi azken hamarraldietan landua izan denik.

Zornoztegiko muinoa,aldi berean, morfologiaren ikuspuntutik oso bestelakoak diren sektore bitan dago egituratuta:

1. Ekialdean gutxi gora-behera 40-70 metro zabal den plataforma Luzuriagako Administrazio Batzordearen mende dago, eta Ubaide izenaz eza-gutzen da. Auzo batzuen arabera, duela gutxi gora-behera hamar urte muino alde hau partzialki eraldatua izan zen makineria astunaren bidez gune batzuetan altuera murrizteko xedean. Izan ere, artean begi bistakoak dira azpiegitura lan hark utzitako arrastoak. Alde honetan material arkeologiko ugariaren presentzia nabari da gainazalean.

2. Muinoaren gailurra, aurrekoaren mendebaldean kokatua eta basoberak hartua. Muinoaren alde honetan pendizak malkarragoak dira eta gainazalean ez da hondakin arkeologikorik hautematen, bai ordea anomalia morfologiko batzuk.

Probintziako beste herri asko bezala, Zornoztegi «Reja de San Millán» (K.o. 1025) izeneko dokumentuan ageri da idatzirik lehen aldiz, Udala, Urivarri eta Irosonea

terísticas de la cultura material de estos asentamientos y abordar las complejas problemáticas históricas que plantea su estudio. De hecho, nos planteamos en los próximos años excavar una serie de despoblados en varios sectores del territorio alavés.

3. En tercer lugar, resulta absolutamente necesario plantear en términos metodológicos una verdadera estrategia de reconocimiento y estudio de los despoblados medievales alaveses. Por un lado las características del propio registro material, conformado por estructuras que hemos definido como «débiles», condicionan su visibilidad. Por otro lado, la estrategia arqueológica que se emplee en el análisis de este tipo de yacimientos tendrá igualmente efectos muy importantes en su interpretación. Por este motivo, resulta necesario indagar en el territorio alavés varios tipos de despoblados, experimentando distintas estrategias de lectura y reconocimiento del registro material «débil» que caracteriza las primeras aldeas medievales.

Teniendo en cuenta estos antecedentes, se identificó el despoblado de Zornoztegi como el más adecuado para llevar a cabo la primera excavación en extensión de un despoblado alavés ya que reunía una serie de requisitos previos.

### *El yacimiento de Zornoztegi*

El yacimiento de Zornoztegi (Salvatierra-Agurain), ocupa un cerro alargado con dirección N-S de unos 800 m. de largo, presentando una pendiente más acentuada en la ladera oeste que en el este, actualmente ocupado por piezas cultivadas. En cambio, la vertiente occidental se encuentra ocupada por monte bajo y no parece haber sido cultivada en los últimos decenios.

El cerro de Zornoztegi se encuentra, a su vez, estructurado en dos sectores morfológicamente bien diferenciados:

1. Una plataforma situada al este de unos 40-70 metros de anchura que pertenece a la Junta Administrativa de Luzuriaga y que es conocida con el nombre de Ubaide. Según algunos vecinos, hace unos diez años este tramo del cerro fue modificado parcialmente por maquinaria pesada con el fin de rebajar en algunas zonas su altura. De hecho, las huellas de esta labor son aún evidentes en la superficie, donde se observa la presencia de numerosos materiales arqueológicos en superficie.

2. La cima propiamente dicha del cerro, situada al oeste de la anterior y ocupada por monte bajo. En esta zona del cerro las pendientes son más acusadas y no se reconoce la existencia de restos arqueológicos en superficie, aunque si algunas anomalías morfológicas.

Como otros muchos pueblos de la provincia, Zornoztegi aparece en la documentación escrita por primera vez en la denominada «Reja de San Millán»



herrixkekin batean. Arabako herri gehienek ez bezala –burdinazko *hesi* bat ordaindu behar baitzuten–, Zornoztegi, lautadako ipar-mendebaldeko beste herrixka batzuek bezala, abelburuekin ordaindu behar zuen zegokion petxa.

Zornoztegi XIII. mendearen erdialdera aipatzen dute berriro ere Kalagurriko Apezpikutegiaren mendeko lekuen zerrendan; zerrenda hori Jerónimo Aznar jaunak Kalagurriko egoitza okupatu zuenean osatu zuten. Baina Zornoztegi ez da 1295ean Tarifako setioari begira ekarpena egin zuten herri arabarren artean ageri.

Zornoztegi dokumentazio idatzian ez da berriro ere XV. mendearen erdialdera arte aipatzen, hau da ordurako herri hustua zenean. Izan ere, 1462. urteko dokumentu batek herrixka abandonatuta zegoela adierazten du, ordaindu beharreko hamarrenekin zerikusia zuen auzia planteatu zenean, alegia. Luzuriagako elizgizonek aipatutako hamarrenak «*uso e costumbre de treinta e cuarenta annos e mas tiempo*» kariatara kobratzen zituztela erakutsi nahi izan zutene-

(a. 1025) asociada con las aldeas de Udala, Uribarri e Irosona. A diferencia de la mayor parte de las localidades alavesas, que estaban sujetas al pago de una *reja* de hierro, Zornoztegi, como otras aldeas situadas en el sector nororiental de la llanada, estaba sometida al pago de cabezas de ganado.

Zornoztegi vuelve a citarse a mediados del siglo XIII en la relación de lugares incluidos en el Obispado de Calahorra realizada durante la ocupación de la sede calagurritana por D. Jerónimo Aznar, pero no aparece en la lista de pueblos alaveses que en el año 1295 tuvieron que realizar aportaciones para el cerco de Tarifa.

Zornoztegi no vuelve a aparecer en la documentación hasta mediados del siglo XV, cuando ya estaba despoblada. De hecho, un documento del año 1462 menciona expresamente la aldea ya abandonada, cuando se plantea un pleito en relación con los diezmos del poblado. Tras una disputa en la que los clérigos de Luzuariaga intentaron demostrar que por «*uso e costumbre de treinta e cuarenta annos e mas tiempo*» cobraban dicho diezmos y ante la imposibilidad de



Zornoztegiko herri hustuko XIII. mendeko etxebizitza.

Vivienda del siglo XIII del despoblado de Zornoztegi.

an baina horrelakorik frogatzeko modurik ez zutenean, Aguraingo parrokien aldeko erabakia hartu zuten.

Dokumentazio idatziaren bidez jakin badakigu Zornoztegiko herrixkak Andre Maria gurtzeko eliza bat zuela Behe Erdi Aroan. 1492. urteko dokumentu batean Galarreta, Gordoia, Arriola eta Narbaxa herrixketan Igoakunde egunaren aurreko hiru egunetan egiten diren letanien ordenantzak erredaktatzen dira. Dokumentu horretan artean zutik zirauten Uriburu, Latxa, Medieta, Santrokate, Iraxona, Udala eta Hiriberriko herri hustuetako ermitak aipatzen dira. Dokumentu horri esker badakigu Zornoztegiko eliza Andre Maria gurtzeko eraikina zela eta finkamendua ordurako hustuta zegoela. Elizatik deus ere ez da kontserbatzen, ez eta oroimen mailan ere; hortaz, baliteke abandonatu ondoren aro modernoan desegin egin izana, Arabako beste herrixka askotan egin izan den bezalaxe.

### *Jarduera arkeologikoa*

Landa lanei ekin baino lehen, ikerketarako lehen galdetegi bat diseinatu genuen, indusketa jarduera honetan aztertu nahi diren lau arazo nagusiak azaltzeko xedean:

- Zornoztegiko herrixka noiz osatu zen, lehenengo okupazio aldiko herrixkaren morfologia zehaztuz,
- erregistro materialen zein unetan hautematen diren tokiko agintaritza moldeak, aipatutako botereak aztarnategiaren lehen aldiaren presente dauden ala bigarren aldi batean egokitu ziren azalduz,
- herrixkako erregistro materialaren izaera eta ezaugarriak zehaztu, kalitatezko erregistro arkeologiko baten eraikuntzari arreta berezia eskainiz,
- herrixka abandonatu zuten unea eta Aguraingo hiribilduaren fundazio prozesuarekin izan dezakeen harremana zehaztu.

Gai hauek guztiak aztertu ahal izateko, behar-beharrezkoa da hainbat urtetan garatu beharreko indusketa proiektu bat itxuratzea, sektoreen arabera indusketak zabaleran egiteko. 2005. urtean garatutako lanen kanpainak aztarnategiaren potentzialtasunaren ebaluazioa egitea eta gisa honetako finkamenduen ezagutzeko eta aztertzekeo metodologia baten garatzea izan ditu helburu.

### *Deposituen ebaluazioa*

Horrexegatik, hain zuzen ere, kanpaina honetan arreta berezia ipini dugu depositu arkeologikoak ebaluatzeko prozesuan, deposituen kalitatearen ezagutza ikertu beharreko gai zehatzaren arabera ulertuta, eta era honetako aztarnategiak ezagutzeko eta aztertzekeo estrategia eraginkor bat diseinatzekeo orduan. Depositu arkeologikoen ebaluazioa bestelakoak diren azterketa

demonstrarlo, se sentenció a favor de las parroquias de Salvatierra.

A través de la documentación escrita sabemos que la aldea de Zornoztegi contaba con una iglesia dedicada a Santa María en la Baja Edad Media. En un documento del año 1492 se redactan las ordenanzas de las letanías que celebran los tres días anteriores a la Ascensión en las aldeas de Galarreta, Gordoia, Arriola y Narvaja. En el documento se mencionan las ermitas de los despoblados de Uriburu, Lacha, Medieta, Santrokate, Irajona, Udala y Villanueva, aún existentes en ese momento. Gracias a este documento sabemos que la iglesia de Zornoztegi estaba dedicada a Santa María, y que el asentamiento estaba ya despoblado. De la iglesia no se conserva ni siquiera memoria de su existencia, por lo que es probable que cayera en desuso y se desmontase o demantelase en época moderna, tal y como ha sucedido en muchas otras aldeas alavesas.

### *La intervención arqueológica*

De forma previa al desarrollo de los trabajos de campo se diseñó un cuestionario inicial de investigación, explicitando las cuatro problemáticas principales que se quieren estudiar en esta excavación:

- cuándo se formó la aldea de Zornoztegi, definiendo la morfología urbanística de la primera fase de ocupación,
Se planteó esta prospección como una intervención puntual encaminada a la posible localización de estructuras de la Edad del Hierro.

La prospección se llevó a cabo en el mes de junio. Dicha prospección visual no proporcionó resultado alguno.

*Antxoka Martínez Velasco*

### B.2.2.3. **Murugan (Durango)**

Zuzendaritza: Antxoka Martínez Velasco  
Diru-laguntza emaila: Bera

### B.2.2.3. **Murugan (Durango)**

Dirección: Antxoka Martínez Velasco  
Subvención: Propia

*In June a survey of the summit known Murugan (Durango) was conducted to verify the possible existence of Iron Age structures. A positive result was obtained.*

#### **Lanen garapena**

Murugan (577 m.) izeneko gailurra Durangoko lurretan dago, Legarmendi mendialdean. Gailur honek beste izen batzuk ere jasotzen ditu, esate baterako, Marugain edo, mapetan ohikoa denez, Landaederra, nahiz eta itxura guztien arabera Murugan den bere izen egokia.

Miaketa hau interbentzio puntual gisa planteatu zen, inguruan Burdin Aroko egiturarik ba ote zegoen ikusteko, toponimoan bereizten den «muru» hitzak sarri askotan adierazten baitu harresi baten presentzia. Eta hori erraz asko egiaztatu daiteke «muru» hitzaren presentzia duten beste herri batzuetan, esate baterako, Murugain (Arrasate / Aretxabaleta / Aramaio. Araba / Gipuzkoa) eta Murumendi (Beasain. Gipuzkoa)

#### **Desarrollo de los trabajos**

La cima denominada Murugan (577 m.) se encuentra en Durango y pertenece al cordal montañoso de Legarmendi. Esta cima recibe otros nombres como Murugain o también, más frecuente en los mapas, Landaederra, aunque según parece, la forma correcta es Murugan.

Se planteó esta prospección como una intervención puntual encaminada a la posible localización de estructuras de la Edad del Hierro motivada, fundamentalmente, por la presencia en la composición del topónimo del término «muru», que frecuentemente indica la presencia de muralla. Este extremo, viene avalado por la existencia de otros poblados en cuyo topónimo se documenta la presencia del término «muru» como son, por ejemplo, Murugain (Arrasate / Aretxabaleta / Aramaio. Araba / Gipuzkoa) o Murumendi (Beasain. Gipuzkoa)

## Konklusioak

Miaketa lanak ekainean zehar garatu genituen. Ondorioz, horma edo harresi bati legokiokeen laborantza lurrez osatutako «pila» txiki bat daitekeena bereizi genuen.

Mugarraren oinetan, ipar-mendebaldeko isurialdean, altxatzen den muino txiki bat da. Eremua oso nahasita dago aspaldian pinuak aldatu zituztelako bertan (halaxe ematen du pinuen tamaina kontuan hartzen badugu). Zuhazti honek ia eremu osoa hartzen du, iparraldeko muturra izan ezik, aipatutako egitura bereizi genuen aldea izan ezik.

Ez genuen materialik hauteman.

Ezinezkoa da une hartako zehaztapen kronologikorik eskaintzea.

Eremuko sasitza trinkoa eta pinudia oztopo dira kronologiari buruzko lehen hurbilketa bat egiteko. Behar-beharrezkoa da bertara bisitaldi gehiago egitea aurkuntza berresteko eta xehetasun gehiago lortzeko.

*Antxoka Martínez Velasco*

### B.2.2.4. Erdella (Elorrio)

Zuzendaritza: Antxoka Martínez Velasco  
Diru-laguntza emailea: Bera

## Conclusiones

La prospección se llevó a cabo en el mes de junio. Dicha prospección visual proporcionó como resultado la localización de un tramo de unos 10 m. de lo que podría ser un pequeño «caballón» correspondiente a un muro o muralla.

Se trata de una cima de reducidas dimensiones situada al pie de Mugarra en su vertiente NW. Esta cima se encuentra muy alterada por una replantación de pinos antigua (a juzgar por el tamaño de los pinos) que la afecta en la mayor parte de su extensión, salvo en el extremo N que es donde se localiza la estructura mencionada.

No se han localizado materiales.

No resulta posible realizar una adscripción cronológica en este momento.

La abundante maleza en la zona y el pinar impiden mayor precisión en esta primera aproximación. Se estiman necesarias nuevas visitas al lugar para confirmar el hallazgo y ampliar detalles.

### B.2.2.4. Erdella (Elorrio)

Dirección: Antxoka Martínez Velasco  
Subvención: Propia

*In June a survey of the summit known as Erdella (Elorrio) was conducted to verify the possible existence of Iron Age structures. A positive result was obtained.*

## Lanen garapena

Erdella (683 m.) izeneko gailurra Elorrioko lurretan dago, izen bereko mendialdean. Gailur honi bestela ere esaten diote, esate baterako, Gaztiburua eta Illuntzar; eta hain zuzen ere horrexek bultzatu gintuen aipatutako gailurrera bisitaldi bat egitera izen horiek justifikatuko lituzkeen egiturarik ba ote zegoen ikusteko eta bereziki Burdin Aroko egiturarik ba ote zegoen egiaztatzeko.

## Konklusioak

Miaketa lanak ekainean zehar garatu genituen. Ondorioz lurrezko pila txiki bi hauteman genituen gailurraren iparraldeko muturrean, eta horma edo harresi baten hondakinak izan zitezkeen.

Gailur txiki eta isolatua da, estua eta luzanga. Ohi denez, mendi hau oso nahasita dago aspaldian pinuak aldatu zituztelako bertan (halaxe ematen du pi-

## Desarrollo de los trabajos

La cima denominada Erdella (683 m.) se encuentra en Elorrio y pertenece al cordal montañoso de Erdella. Esta cima también recibe otros nombres como Gaztiburua e Illuntzar; es precisamente esta circunstancia la que motivó la visita a la citada cima a fin de comprobar la existencia de estructuras que justificaran estos nombres, con especial atención a la posible localización de estructuras de la Edad del Hierro.

## Conclusiones

La prospección se llevó a cabo en el mes de junio. Dicha prospección visual ha proporcionado como resultado la localización de dos pequeños caballones en el extremo norte de la cima que pudieran corresponder a los restos de un muro o muralla.

Se trata de una cima aislada de reducidas dimensiones, de forma estrecha y alargada. Como viene siendo habitual, este monte se encuentra muy alterado



nuen tamaina kontuan hartzen badugu). Pinudia gailurraren ertzearaino iristen da, eta bertan pagadi bat kontserbatzen da. Nolanahi ere den, landaretza oztopo da zehaztasun gehiago eskaintzeko.

Ez genuen materialik hauteman.

Ezinezkoa da une hartako zehaztapen kronologikorik eskaintzea.

Behar-beharrezkoa da bertara bisitaldi gehiago egitea aurkikuntza berresteko eta xehetasun gehiago lortzeko.

por una replantación de pinos antigua (a juzgar por el tamaño de los pinos) que la afecta en la mayor parte de su extensión. La replantación se extiende hasta el borde de la cima donde se conserva un pequeñísimo hayedo. En cualquier caso la vegetación impide mayores precisiones.

No se han localizado materiales.

No resulta posible realizar una adscripción cronológica en este momento.

Se estiman necesarias nuevas visitas al lugar para confirmar el hallazgo y ampliar detalles.

*Antxoka Martínez Velasco*

#### **B.2.2.5. Protolokorta, Iru Urkitza eta Pagoetako lepoa (Ereño, Nabarniz)**

Zuzendaritza: Rafael Bolado del Castillo  
Diru-laguntza emaila: Bera

#### **B.2.2.5. Protolokorta, Iru Urkitza y collado de Pagoeta (Ereño, Nabarniz)**

Dirección: Rafael Bolado del Castillo  
Subvención Propia

*December saw the conducting of a visual prospection of two summits belonging to the Illunzar mountainous hill range in order to verify the information from E. Nolte y Aramburu concerning the existence of sandstone structures built in the area.*

### **Lanen garapena**

Miaketa lanak abenduan zehar garatu genituen eta urte osoan Illuntzarreko barruti gotortuan bideratzen ari diren lanen interbentzio osagarri gisa planteatu zen.

Miaketa lan honek E. Nolteren eta Arambururen arabera Illuntzarretik gertu hareharriz egindako egitura batzuk zeudelako albisteak egiaztatzea zuen xede; izan ere, Illuntzar kareharrizko mendialdean dago, eta beraz, hareharrien presentziak nahitaez adieraziko luke kanpotik ekarriak zirela.

Horrexegatik proposatu genuen Potrollokorta (669 m.) eta Iru Urkitza (675 m) gailurren gaineko miaketa egitea, baita Pagoeta izeneko lepokoa ere, Iru Urkitzaren hegoaldean, eta baita gailur horren eta Illuntzarrekoaren (727 m.) artekoa ere, Nabarnizen, guztiak Illuntzarreko mendialdean.

### **Konklusioak**

Begien bidezko miaketak ez zuen emaitza positiborik eskaini; beraz, ezin izan genituen E. Nolteren eta Arambururen berriak berretsi.

### **Desarrollo de los trabajos**

Esta prospección se desarrollo durante el mes de diciembre y se planteo como una intervención complementaria a los trabajos que se han estado realizando a lo largo de todo este año en el recinto fortificado de Illunzar.

El único objetivo de la misma era contrastar y confirmar las noticias aportadas por E. Nolte y Aramburu acerca de la existencia de estructuras construidas con piedra arenisca en las proximidades de Illunzar, perteneciente a un cordal montañoso calizo, por lo que la presencia de areniscas sería total y necesariamente exógena.

Por ello se propuso la prospección de las cimas de Potrollokorta (669 m.) e Iru Urkitza (675 m), así como el collado denominado Pagoeta, situado al sur de Iru Urkitza y entre esta cima y la del Illunzar (727 m.), en Nabarniz, correspondientes todas ellas al cordal montañoso de Illunzar.

### **Conclusiones**

La prospección visual no proporciono ningún resultado positivo, por lo que no se pudieron confirmar las noticias de E. Nolte y Aramburu.

*Rafael Bolado del Castillo*

#### B.2.2.6. **Illuntzarreko iparraldeko adarra (Ereño, Nabarniz)**

Zuzendaritza: Antxoka Martínez Velasco  
Diru-laguntza emalea: Bera

#### B.2.2.6. **Cordal norte del Illuntzar (Ereño, Nabarniz)**

Dirección: Antxoka Martínez Velasco  
Subvención: Propia

*In May a survey was conducted on a total of five summits in the northern extension of the Illunzar hill range in order to locate any structures that could be linked to the Illunzar fortified enclosure. The result was negative.*

##### *Lanen garapena*

Miaketa lanak maiatzean zehar garatu genituen, eta Illuntzarreko barruti gotortuan bideratzen ari ziren miaketa magnetikoa osatzeko interbentzio gisa planteatu genuen.

Guztira bost gailur miatu genituen Illuntzarreko iparraldeko adarrean zehar: Mandelesta (609 m.), Motrollu (546 m.), Goiko Atxa (514 m.), Kabelinatxa (575 m.), Bustarrigan (565 m.).

Interbentzio honek Illuntzarreko gotorlekuarekin harremanetan jar zituzkeen Burdin Aroko edo erromatarren garaiko egiturak aurkitzea zuen xede. Aitzitik, begien bidezko miaketak ez zuen emaitza positiborik eskaini.

##### *Desarrollo de los trabajos*

Esta prospección se llevó a cabo en mayo y se planteó como una intervención que complementaría la prospección magnética que se estaba llevando a cabo en el recinto fortificado de Illunzar.

Se prospectaron un total de cinco cimas en la prolongación hacia el norte del cordal de Illunzar: Mandelesta (609 m.), Motrollu (546 m.), Goiko Atxa (514 m.), Kabelinatxa (575 m.), Bustarrigan (565 m.).

El objetivo de esta intervención estaba encaminado a la posible localización de estructuras de la Edad del Hierro o bien de época romana que pudieran ponerse en relación con la fortificación de Illunzar. Dicha prospección visual, sin embargo, no proporcionó ningún resultado positivo.

*Antxoka Martínez Velasco*

#### B.2.2.7. **Motrolluko gaina, Urregaraiko mendialdean (Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz)**

Zuzendaritza: Rafael Bolado del Castillo  
Diru-laguntza emalea: Bera

#### B.2.2.7. **Alto de Motrollu, en el macizo de Urregarai (Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz)**

Dirección: Rafael Bolado del Castillo  
Subvención: Propia

*On June 27 and 28 a survey was made of the summit known as Motrollo in order to verify the possible existence of structures belonging to the Iron Age or of Roman military origin. The work yielded a positive result.*

##### *Lanen garapena*

Motrolluko gainean (592 m.), Urregaraiko mendialdean eta Munitibarko herririk abiaturik, bideratutako miaketa lana urte osoan Illuntzarreko (Nabarniz) barruti gotortuan bideratzen ari diren lanen interbentzio osagarri gisa planteatu zen .

Motrollu, gailur txiki eta isolatuak, Illuntzarretik oso gertu dagoenak, lehen unetik piztu zuen gure arreta,

##### *Desarrollo de los trabajos*

La prospección llevada a cabo en el Alto de Motrollu (592 m.), ubicado en el Macizo de Urregarai y de acceso por el pueblo de Munitibar, se realizó como una intervención complementaria a los trabajos que a lo largo de este año se han efectuado en el recinto fortificado de Illunzar (Nabarniz).

Motrollu, cima aislada y de reducidas dimensiones, muy próxima a Illunzar, llamó nuestra atención desde

oso egoera geo-estrategiko onean baitago kokatuta, inguruko haran guztien gainetik; beraz, oso aurkientza egokia da jendeen joan-etorriak kontrolpean edukitze-ko. Halatan, bertan finkamenduren bat aurkitzeko aukera planteatu genuen.

Ekainaren 27an eta 28an bertaratu ginen. Emaitzak positiboak izan ziren, eta ipar-mendebaldean gutxi gora-behera 3,5 metroko luzera zuen ustezko harresi atal bat bereizi genuen. Gailurraren hegoaldean, berriz, behera etorritako harridi bat, eta gailurrera hegoalde-rik igotzeko atalean, eskuko errota bat eta zorroztarri bat aurkitu genituen.

### **Konklusioak**

Aurkikuntza txiki hauek eta gailurrean gertatutako nahasmendu handiak, alde honetako auzoen hitzetan aspaldian pinuak aldatu baitzituzten bertan, nahiz eta orain dela lau bat urte bota egin zituzten, ezinezko bihurtzen dute lekuaren kronologia zehatza eskaintzeko aukera. Hasiera batean Burdin Aroko kastro bat izan zitekeela planteatu genuen, baina uste dugu behar-beharrezkoa dela zundaketen bidezko beste interbentzio arkeologiko bat egitea zein aztar-nategi motaren aurrean gauden jakiteko.

un primer momento por las condiciones geo-estratégicas que presenta, dominando todos los valles que le circundan, y como consecuencia, un lugar óptimo para controlar el paso de gentes, por lo que había que plantearse la posibilidad de encontrar algún tipo de asentamiento.

Los días 27 y 28 de junio se procedió a realizar la visita. Los resultados fueron positivos hallándose un posible tramo de muralla de unos 3.5 m. localizado en su zona NW, un canchal de derrumbe en la zona S de la cima, y una mano de molino y una afiladera localizados al pie de la cima en el tramo de acceso por el S.

### **Conclusiones**

La existencia de estos pequeños hallazgos unido a la fuerte alteración que sufre la cima debido a las antiguas replantaciones de pinos, taladas hace unos 4 años, según testimonio recogido entre los vecinos de la zona, hacen que nos sea imposible adscribir una cronología concreta al lugar. En un primer momento planteamos la posible existencia de un castro de la Edad de Hierro pero creemos imprescindible una nueva intervención arqueológica con sondeos para poder determinar ante que tipo de yacimiento nos encontramos.

*Rafael Bolado del Castillo*

#### **B.2.2.8. Illuntzar (Nabarniz)**

Zuzendaritza: Antxoka Martínez  
Velasco  
Diru-laguntza emaila: Bera

#### **B.2.2.8. Illuntzar (Nabarniz)**

Dirección: Antxoka Martínez  
Velasco  
Subvención: Propia

*During the months of April and May a magnetic prospection in the fortified enclosure of Illuntzar (Nabarniz) was conducted and its aim was to locate any element of metal material culture that would facilitate an approximation as to its chronology and uses. No conclusive results were obtained.*

### **Lanen garapena**

2005eko apiril eta maiatzaren artean bururatu genuen interbentzio arkeologiko hau. Miaketa magnetiko bat planteatu genuen kultura materialaren edozein elementu, metalezkoa, aurkitzeko xedean eta barruti go-tortuaren funtzioa eta datazioa zehazteko modua izateko xedean.

Era berean, eta lanean hasteko hipotesi gisa, gaur egun arteko planteamendua, hots, Burdin Aroko kastro bat delako hipotesia, albora uztea eta barruti hau egiazki landa eremuko erromatar kanpamendu militar bat izateko aukera planteatu genuen.

### **Desarrollo de los trabajos**

Esta intervención arqueológica se llevó a cabo entre abril y mayo de 2005. Se planteó la prospección magnética al objeto de localizar cualquier elemento de cultura material, metálico, que permitiera realizar una adscripción cronológica y funcional del recinto fortificado.

Se planteó igualmente, como hipótesis de partida, la posibilidad de que este recinto se tratase, en realidad, de un campamento militar romano de campaña (*castra aestiva*) en vez de un castro de la Edad del Hierro, que es como se ha venido interpretando hasta hoy día.

Baina ez genuen horrelakorik iradoki zezakeen aztarna bakar bat ere topatu (metalezko kultura materialik), ez genuen hasieran planteatu genuen galderari erantzuteko moduko arrastorik hauteman.

Miaketa lanetan zehar metalezko elementu asko aurkitu genituen, baina denak aro modernokoak izaki, bertan utzi genituen.

Horien artean aipagarri gure garaiko 5 txanponen multzoa:

1. Frustra. Seguru asko XIX. mendearen lehenengo erdialdekoa.
2. 1870. I. Errepublikakoa. 5 xentimo.
3. 1879. Alfontso XII.a. Hamar xentimo.
4. 1944. Diktadura. Pezeta bat.
5. 1985. Juan Carlos I.a. Ehun pezeta.

Bereziki interesgarria zen horietako bat, 100 pezetakoa. Txanpon hau 15/20 zentimetroko sakoneran aurkitu genuen. Izan ere, material gehiena halako sakoneran agertu zen, 5 eta 10 cm bitartean, eta hori aski harrigarria zen kontuan badugu material moderno dela. Are harrigarriagoa kontuan badugu gailur ireki batean gaudela, haizeen mendeko gailurrean, eta bertan sedimentuak pausatzekeo prozesuak hain biziak izango ez zirela uste genuenean.

Era berean, materiala ateratzeko prozesuan zehar egiaztatu ahal izan genuen harri bizia barrutiko gune askotan azaleratu arren, aztarnategi honetan hasiera baten uste baino sedimentuzko geruza lodiagoa dagoela.

## **Konklusioak**

Honenbestez, ezin izan genuen aztarnategiaren funtzionaltasuna eta kronologia zehaztu. Pentsatzekoa da aztarnategi honetan metalezko material arkeologikoa egotea, baina seguru asko magnometroaren irismenetik are puntu sakonagoan egonen dira; gainera, eta ohikoa denaz beste, deposiziozko prozesu guztiz harrigarria gehitu behar zaio, gure garaiko materiala zorupean ageri baita erabat.

Une honetan ez dago kronologia zehazterik.

Pero el resultado no fue el esperado y no se obtuvo ninguna evidencia (elemento de cultura material metálico) que permitiera responder al interrogante planteado inicialmente.

Durante la prospección fueron localizados numerosos elementos metálicos, pero todos de época moderna, que no hemos recogido.

Cabe señalar el hallazgo de un conjunto de 5 monedas contemporáneas:

1. Frustra. Seguramente primera mitad del siglo XIX.
2. 1870. I. República. 5 céntimos.
3. 1879. Alfonso XII. Diez céntimos.
4. 1944. Dictadura. Una peseta.
5. 1985. Juan Carlos I. Cien Pesetas.

Resultó especialmente interesante una de ellas, la de 100 pesetas. Esta moneda se localizó a una profundidad de unos 15/20 cm. De hecho, la mayor parte del material aparecía a una cierta profundidad, entre 5 y 10 cm., lo que resulta chocante al tratarse de material moderno. Más chocante aún si tenemos en cuenta que nos encontramos en una cima despejada y batida por el viento, donde los procesos deposicionales de sedimento no se esperaba que fueran significativos.

También se pudo constatar durante el proceso de extracción del material que, a pesar de aflorar la roca madre en numerosos puntos del recinto, este yacimiento cuenta con una mayor potencia sedimental de la que se esperaba inicialmente.

## **Conclusiones**

En consecuencia, no se pudo esclarecer la cronología y funcionalidad. Es de suponer que efectivamente exista material arqueológico metálico en este yacimiento pero lo más probable es que se encuentre a una profundidad media mayor de la que alcanza el magnetómetro, a lo que hay que sumar un sorprendente proceso deposicional que lleva a que el material de época contemporánea aparezca perfectamente enterrado, en contra de lo que es normal.

No resulta posible realizar una adscripción cronológica en este momento.

*Antxoka Martínez Velasco*

### B.2.2.9. **Galdamesko mazizoaren hego-ekialdeko eta Uribe mendebaldeko eta Bilbo Handiko eskualdeko haizeolak**

III. kanpaina  
Zuzendaritza: Fco. Javier Franco Pérez  
Finantzazioa: Eusko Jaurlaritzako.  
Kultura saila. Kultura Ondarearen  
Zentroa

### B.2.2.9. **Ferrerías de monte del sector SE del macizo de Galdames y parte de las comarcas de Uribe (sector occidental) y Gran Bilbao**

III Campaña  
Dirección: Fco. Javier Franco Pérez  
Financiación: Centro de Patrimonio Cultural Vasco. Departamento de Cultura. Gobierno Vasco

*During this 3rd Season the Archaeological Team of the Mining Museum of the Basque Country has consolidated an open prospection system which, by using the right combination of intensive, extensive and selective working methods, has achieved the maximum coverage possible of two areas of Bizkaia, which differ greatly from each other with respect to their features. This methodology has facilitated the best result obtained so far in the prospection with trial excavations in the mountain ironworks of Bizkaia.*

## **Sarrera**

2005eko urtean zehar garatutako kanpainak batez ere aurreko urteko miaketa kanpainan bururatutako lan filosofiaren jarraipena, aurreramendua eta sendotzea ekarri ditu. Honenbestez, mendiko olen edo haizeolen bidez Bizkaiko lurralde historikoko burdinaren paleometalurgiaren ezagutzan sakontzea genuen xede, eta aldi berean, molde honetako aztarnategiei begira propio asmatutako gainazaleko miaketa sistema berri bat sendotzea; izan ere, sistema berri honek, zalantzarik gabe, ikerketa ildo berri bat irekitzen du Kantauri aldeko lurraldea aztertzeo eta arkeologia espazialaren arloan ikertzeo orduan.

Aztertzen ari garen haizeolak –xumeak izaki, interpretatzen zailak eta haiek ikertzeo lanak egiazki nekezak– orain arte bazterrerara geratu diren aztarnategiak direlako ideiatik abiatuta, esan dezagun haizeola hauek artean guztiz ezezagunak direla, eta une honetan ezagutzen dugunaren arabera nekez bildu ahal izango ditugula gure prozesu historikoko testuinguru jakinetara. Beraz, tailer paleosiderurgiko hauetan erabili zuten teknologia motan sakondu beharrean gaude, eta miaketa arkeologikoak eskaintzen dizkigun aukera guztiak baliatu behar ditugu.

Bizkaiko mendiolen edo haizeolen Karta Arkeologikoa erabat berezita dauden eremu natural bitan garatu genuen 2005eko kanpainan zehar: lehenengoa Galdamesko mazizoaren hego-ekialdeko sektorean, non miaketa sakon eta zabalen arteko konbinazioa bururatu genuen. Bigarrena Uribe eskualdeko mendebaldean eta Bilboko eskualdearen parte batean lan egin genuen, miaketa sistema zabala eta, kontsultaturiko iturrien arabera edo eremua zuzenean miatuta tailer paleosiderurgikoren bat egoteko aukera eskaini zezakeen aztarnaren bat eskaintzen zuten eremuetan, miaketa sistema sakona bururatu genituen. Honako mendialde

## **Introducción**

La campaña desarrollada a lo largo del presente 2005, ha supuesto la continuidad, el progreso y asentamiento de la filosofía de trabajo implantada sobre todo en la campaña de prospección anterior. Se trata por tanto, de profundizar en el conocimiento de la paleometalurgia del hierro en el territorio histórico de Bizkaia a través de las ferrerías de monte o haizeolak, y afianzar al mismo tiempo un nuevo sistema de prospección superficial que se ha creado ex proeso para este tipo de yacimientos, pero que sin duda abre una nueva línea de investigación en materia de arqueología espacial y análisis territorial en el ámbito Cantábrico.

Partiendo de la base de que las ferrerías de monte que estudiamos se caracterizan por ser yacimientos ciertamente denostados hasta el momento, dado su carácter humilde, su dificultad de interpretación y sobre todo la dureza del trabajo a realizar, hemos de convenir en que estas «haizeolak» son aún unas grandes desconocidas que difícilmente podremos contextualizar en nuestro proceso histórico con el grado de conocimiento actual del que disponemos. Se impone a continuación en nuestros objetivos la necesidad de profundizar en el tipo de tecnología empleada en estos talleres paleosiderúrgicos y la posibilidad de agotar todos los recursos que la prospección arqueológica pone a nuestro alcance.

La Carta Arquelógica de las ferrerías de monte de Bizkaia se ha desarrollado durante la campaña 2005 en dos áreas naturales netamente diferenciadas: la primera se trata del sector SE del macizo de montaña de Galdames, donde se ha procedido a realizar una combinación entre prospección intensiva y extensiva. Y en segundo lugar se ha trabajado la zona occidental de la comarca de Uribe más parte de la comarca de Bilbao combinando un sistema extensivo con otro selectivo de áreas concretas que muestren, a través de las fuentes consultadas o de la inspección directa del terreno, algún indicio que aporte la posibilidad de hallar

hauek biltzen dira eremu zabal honetara: Ganguren, Unbe, Urizarmendi, Jata eta Ermua.

Lurralde honetan zaila bada, ezinezkoa ez esatearren, miaketa ortodoxo edo ohiko miaketa bat egitea, metodologia ireki bat erabili behar da, eremu baten baitako lanaren intentsitatea egokitzeko modua eskainiko duena, baita alde zaurretik aurreikusitako teoriaren planifikazioaren ostean ere. Honenbestez, miaketa estrategia ezberdinak baliatu genituen urtean zehar topatzen genituen paisaietara egokitzeko xedean.

## ***Emaitzak***

Emaitzen azterketa lan eremu biak bereizirik egingo dugu:

### ***Galdamesko mazizoaren hego-ekialdeko sektorea***

36 kilometro koadro hartzen dituen eremu honetan berriro ere erabili genuen abiapuntu bezala Aitor Uriartek 2000. urtean «Haizeolak Bizkaian, Triaboko edo Galdamesko mendietako haizeola zaharrak» izenburupean argitaratutako dibulgaziozko zerrenda. Aipatutako lana berrikusi izanari esker, miaketa egin aurretik sektore honetan ezagutzen ziren haizeolen kopurua beste 3 haizeolatan emendatu da. Landa lanak beste 15 aztarnategi berri bereizteko aukera eman du; beraz, azken emaitza, 18 aztarnategi, lurralde honetan iraganean egon zitezkeen taller paleosiderurgikoen egiazko kopurura hurbiltzen dela esan behar dugu.

Galdamesko hego-ekialdeko sektore honetan bada haizeolen kopuruagatik nabarmentzen den eremu bat. Agirtzako haranaz ari gara, Castaños ibaiaren burualdean; bertan 8 haizeola bereizi dira, alde honetan burdinaren ekoizpen zikloa osatzeko oso baldintza onak eskaintzen dituztenak olagizon zaharren esanetan.

Katalogora bildutako beste aztarnategi berezi bat olagizonen zelaia edo Tellitu izenez ezagutzen den aldeko haizeola da. Haizeola hau da Eusko Jaurlaritzak Multzo Monumental kategoriarekin Kultura Ondare gisa kalifikatu duen molde honetako bakarra. Inguruan hari atxikiriko haizeola txikiago bat aurkitu dugu: goiko partean malda gogorretik babesteko balizko eustorma bat edukitzea izan daiteke, agian, haizeola honen ezaugarriak aipagarriena. Kasu honetan, berriro ere geratzen da agerian toponimiaren garrantzia aztarnategi berriak aurkitzeko orduan; izan ere, hurbileko gailurraren izena, El Cepal, euskarazko «zepa» izenetik eratorria da.

Alde honetan katalogatutako depositu arkeologikoak eskuarki nahasita egon ohi dira ondorengo deposi-

en ellas algún taller paleosiderúrgico. Esta vasta área esta compuesta por la suma de los siguientes macizos de montaña: Ganguren, Unbe, Urizarmendi, Jata y Ermua.

Dado que nos encontramos en un territorio donde es francamente difícil, si no imposible, realizar una prospección ortodoxa o «de libro», se ha de utilizar una metodología abierta que sea capaz de adaptar la intensidad del trabajo dentro de una misma zona, incluso con posterioridad a la planificación teórica previamente realizada. Se usan por tanto diferentes estrategias de prospección adecuadas a los diferentes paisajes que nos vamos encontrando a lo largo del año.

## ***Resultados***

El análisis de resultados lo realizaremos diferenciando las dos zonas de trabajo:

### ***Sector SE del macizo de Galdames***

En esta área de 46 kilómetros cuadrados de extensión, de nuevo se ha usado como punto de partida el trabajo de inventario que Aitor Uriarte publicó en el 2000 bajo el título «Las haizeolas en Bizkaia, antiguas ferrerías de montaña de los Montes de Triano o de Galdames». Gracias a la revisión de esta obra, el cómputo de ferrerías de monte conocidas con anterioridad a la prospección supone un total de 3 haizeolas para este sector. La labor de campo ha posibilitado la localización de 15 nuevos yacimientos, por lo tanto el resultado final de 18 localizaciones se puede acercar bastante a la realidad cuantitativa de los talleres paleosiderúrgicos que pudieron asentarse en este territorio en el pasado.

De este sector SE de los montes de Galdames hay una zona que se destaca por la proliferación de las ferrerías de monte. Es el valle del Agirza, cabecera del río Castaños, donde se han encontrado un total de 8 haizeolas que denotan unas condiciones óptimas, según los antiguos ferrones, para completar el ciclo productivo del hierro en este lugar.

Otro yacimiento singular catalogado es la haizeola del paraje conocido como campo de los ferrones o Tellitu. Este es el único yacimiento de estas características al que el Gobierno Vasco le ha otorgado la figura de Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental. En sus proximidades hemos localizado una nueva ferrería asociada más pequeña, cuya característica más reseñable quizás sea la de poseer un posible murete de contención en su parte superior para proteger el emplazamiento de la fuerte pendiente. En este caso de nuevo se demuestra la importancia de la toponimia para las nuevas localizaciones en el nombre de El Cepal que recibe el pico próximo, y que ha castellанизado el término que hace referencia a la «zepa» o escoria en euskera.

Habitualmente, los depósitos arqueológicos catalogados en esta zona se ven alterados por procesos



Tellitu mendiko (Galdames) haizeolako zepazko tumuluaren hegoaldeko ikuspegia, «Olagizonen Zelaia» izeneko eremuan.

Vista S. del túmulo de escorias de la ferrería de monte de Tellitu (Galdames) ubicada en el denominado «Campo de los Ferrones».

zio prozesu antropiko edo naturalen ondorioz, kasu askotan bien ondorioz. Ondorengo deposizio prozesu natural garrantzitsuen eta hein batean aurkitutako az-tarnategi guztietan eragina duena maldaren higadura da. Eta jatorri antropikoko faktore eraginkorrena, berriro ere, baso ustiapena da, jarduera honek kaltetu baititu haizeolen %50a. Aipatutako baso-berritze hauen ingurumen izaerako iraunkortasuna zalantzakoa bada ere, ez dago inolako dudarik Bizkaiko ondare arkeologikoari egiten dizkion kalteen inguruan.

### ***Uribeko eskualdeko mendebaldeko sektorea gehi Bilboko eskualdearen parte bat***

Gutxi gora-behera 270 kilometro koadro dituen eremu zabal honetan, Ganguren mendialdean beste haizeola bat aurkitu izana da gure taldeak orain arte egin duen aurkikuntza esanguratsuenetakoa, benetan berezia baita aipatutako azpiegitura. Alde honetan ez zen industria paleometalurgikorik ezagutzen, eta gainera Enkarrietatik kanpora miaketa bidez aurkitzen dugun aurrenekoa da. Aski kontserbazio egoera onean dago, eta elkartutako zepazko tumulu bi bereizten dira, seguru asko ustezko labe biri dagozkienak. Alde honetako aztarnategien tipologia oso antzekoa da Bizkaiko

postdeposicionales bien antrópicos, bien naturales, o en muchos casos de los dos tipos. El factor postdeposicional de origen natural más importante y que afecta en distinta medida a todos los yacimientos localizados es la erosión de pendiente. Mientras que el factor de origen antrópico que se muestra más invasivo es de nuevo la explotación forestal con un 50 % de las ferrerías dañadas. Si bien la sostenibilidad medioambiental de estas repoblaciones deja ya numerosas dudas, no cabe ninguna acerca de su efecto pernicioso sobre el patrimonio arqueológico de Bizkaia.

### ***Sector occidental de la comarca de Uribe más parte de la de Bilbao***

En esta vasta área de unos 270 kilómetros cuadrados de extensión, el hallazgo de una nueva ferrería de monte en el macizo de montaña del Ganguren, es sin duda uno de los más significativos que nuestro equipo ha hecho hasta ahora por su singularidad. Se trata de una zona donde no se conocía industria paleometalúrgica alguna y además, es la primera localización que realizamos mediante prospección fuera de Encartaciones. Su estado de conservación es notable y se aprecian dos túmulos de escorias unidos posiblemente

beste alde batzuetan berezitatekoen aldean; alde garrantzitsuena, agian, gainazalean ageri den burdin-mearen ustezko erabilera datza, Enkaterrietan eskuarki erabili ohi denaren bestelakoa baita.

## *Konklusioak*

2005eko kanpainan zehar, sistema baten formalizazioa iritsi da abian den ikerketa lana: izan ere, lurralde jakin baterako –Bizkaia– miaketa arkeologiko iraunkor baten sistema diseinatzeko helburua bete da, baita aztarnategi mota zehatz bat –haizeolak– ikertzeko ere (nahiz eta, bistakoa denez, oinarri metodologiko hau oso aldaketa gutxirekin baliagarria izan daitekeen antzeko lurralde mendsuetan eta haize zabaleko beste edozein aztarnategi motatan aplikatzeko). Landa lanetan zehar baliatutako teknika eta estrategiek hasiera-hasieratik oinarritu ginen metodoaren praktika garatzen dute.

Berriro ere, urte osoan zehar bururatzen den miaketa kanpaina bat programatu genuen. Ezaugarri honek halako fidagarritasuna ematen die azken emaitzei, eta lurraldea sasoi ezberdinetan arakatzeko modua eskaintzen du, landarediaren sasoiaren arabera aldaketak aprobetxatuz, baita, hala behar badu, eremu bera behin eta berri arakatzeko aukera ere. Ikusirik orain arte lortutako datuak, pentsaezina litzateke, adibidez, ezaugarri hauek dituen miaketa soilik udako hilabeteetan egitea.

Ekoiaren instalazio hauen isolamenduak garaiko inguruko munduarekiko harreman fisiko-espazialak eta materialak ezartzeko aukera gutxi eskaintzen duten aztarnategiak sortu baditu ere, ahaleginak egingo ditugu kontu honi erantzun bat bilatzen nola gainazaleko miaketaren bidez hala beste lekuekiko eta hurbileko lurraldearekiko zituzten harremanak baloratuz. 2005eko aurkikuntzen katalogoak agerian uzten duenez, alde batzuen eta besteen artean tarte handia egonagatik ere, eredu komunak daude haizeolak egokitzeko baldintza egokienak erabakitzeko orduan. Teknologia paleosiderurgikoen banaketa mapak erakusten duenez, burdin mea, landare erregaia eta ur-korronteren bat biltzen diren lekuak bilatzen zituzten. Bistakoa denez, lekuak aukeratzeko aldagai horiek ez dute zertan egungoa bezalako paisaia populatu batean islatu beharrik, eta ez dute zertan haize menderatzaileen erregimenak baldintzatuta egon behar.

pertenecientes dos hipotéticos hornos. En esta zona la tipología de los yacimientos es muy similar a que lo que ya conocíamos en otras zonas de Bizkaia, aunque su principal diferencia quizás sea el posible uso de un mineral férreo que aparece en superficie y que es distinto al empleado habitualmente en Encartaciones.

## *Conclusiones*

En la campaña 2005, la investigación en curso ha llegado a la formalización de un sistema: Se ve cumplido el objetivo de haber diseñado un sistema de prospección arqueológica estable para un territorio concreto: Bizkaia, y para un tipo de yacimiento concreto: las ferrerías de monte (aunque es evidente que la base metodológica podría servir con muy pocas variaciones para otros territorios montañosos similares y para cualquier otra clase de yacimiento al aire libre). Las técnicas y diferentes estrategias empleadas a lo largo del trabajo de campo, desarrollan en la práctica el método sobre el que nos basamos desde un inicio.

De nuevo se ha programado una campaña de prospección que se realiza a lo largo de todo el año. Esta característica aporta fiabilidad a los resultados finales y permite cubrir el territorio en épocas diferentes aprovechando las variaciones estacionales de la vegetación o, incluso reiteradamente si la ocasión lo requiere. Vistos los datos obtenidos hasta ahora, sería impensable por ejemplo, realizar una prospección de esta características tan sólo en los meses de verano.

Aunque el aislamiento de estas instalaciones productivas ha creado yacimientos en los que es difícil establecer sus relaciones físicas espaciales y materiales con el mundo circundante de la época, trataremos de solventar en lo posible este problema tanto a través de la prospección superficial como valorando la relación que establecen con otros lugares y con su territorio más próximo. El catálogo de hallazgos del 2005 revela que a pesar de la distancia entre unas zonas y otras, existen patrones comunes en las condiciones idóneas para el asentamiento de las ferrerías de monte. El mapa de distribución de esta tecnología paleosiderúrgica, revela la necesidad de buscar parajes donde se conjugan el mineral de hierro, el combustible vegetal y la necesidad de algún curso de agua. Evidentemente estas variables de localización no se han de reflejar necesariamente en un paisaje tan humanizado como el actual, ni han de estar condicionadas por el régimen de vientos dominante.

*Fco. Javier Franco Pérez*



## B.3. GIPUZKOA / GIPUZKOA

### B.3.1. INDUSKETAK

#### B.3.1.1. **Basagaingo herrixka (Anoeta)**

XI. kanpaina  
Zuzendaritza: Xabier Peñalver  
Diru-laguntza emalea: Gipuzkoako  
Foru Aldundia

### B.3.1. EXCAVACIONES

#### B.3.1.1. **Poblado de Basagain (Anoeta)**

XI Campaña  
Dirección: Xabier Peñalver  
Subvención: Diputación Foral de  
Gipuzkoa

*The excavation season in the Basagain settlement has taken place on the terrace located to the east of it, where building structures and a wealth of mainly ceramic, lithic and metal materials, as well as the charred remains of seeds, have been located.*

Azken urteetan gertatzen ari den bezala, barruti gotortuaren ekialdean dagoen terraza, alde batetik herrixka inguratzen duen harresiak mugatuta, ukitu du interbentzioak. Hala eta guztiz ere, kasu honetan indusketa eremua nabarmen handitzea erabaki genuen nola terraza horretako estratigrafia hala aurreko kanpainetan bereizitako eraikuntza egitura batzuk mugatzeko eta zehazteko xedean.

Halatan, landa lanetan zehar orain arte zehaztutako egiturei leku egiten dien maila eta egitura horiei atxikiri-ko material arkeologikoak zehaztu ahal izan ditugu herrixkako gunerik goratuenera bideko gainazal zabal batean, eta zabalgunearen iparraldean oinarriko maila sakonago dagoela egiaztatu genuen; beraz, seguru asko 2006. urteari dagokion kanpainan iritsiko gara aipatutako sakontasun mailara.

Terrazan lerroan egokitutako eta harresitik beretik abiatzen diren paldo-zirik zehaztutako egiturari dagokionez, haren muga zehaztu ahal izan dugu harresiaren

La intervención ha afectado, al igual que viene sucediendo en los últimos años, a la terraza situada al este del recinto fortificado, delimitada en uno de sus lados por la muralla que rodea el poblado. En esta ocasión, sin embargo, se ha decidido ampliar considerablemente la zona de excavación con el fin de poder determinar, tanto la estratigrafía en esa terraza como la delimitación de algunas de las estructuras constructivas ya localizadas en campañas precedentes.

Así, a lo largo de los trabajos de campo hemos determinado el nivel en el que se asientan tanto las estructuras hasta ahora definidas como los materiales arqueológicos asociados a ellas, dentro de una amplia superficie en dirección a la zona más elevada del poblado, apreciándose cómo en la parte situada al norte de la ampliación, el nivel de base se encuentra a mayor profundidad, por lo que previsiblemente será alcanzado en la campaña correspondiente al año 2006.

En cuanto a la estructura definida por una serie de cuñas de poste alineadas sobre la terraza y que arrancan desde la propia muralla, hemos podido definir el lí-

beste aldean; nolahi ere den, artean zehazteke daude eraikin handi honen beste bi muturretako mugak.

Ugari dira egituraren barrunbearn dagokion aldeak eskainitako materialak, eta oso urriak, bat ere ez esatearren, aipatutako mugetatik kanpo.

Berreskuratutako aztarna motak aurreko kanpainetan aurkitutako antzekoak dira oso, nagusi dira zeramikazko materialak eta horien artean eskuz landutakoak; gutxi dira tornuan egindakoak. Bestalde, harrizko elementuen agerpenak ez du etenik, batez ere errekarriak, leungailuak, kolpekariak eta ehogailuak, ez eta metalezko materialek ere, burdinazkoak eta metalurgia prozesuari dagozkion zepak. Gune askotan kiskalitako gramineoak ageri dira. Buztinezko horma-atalak ere ugari dira paretak egon ziren lekuetan, egun denak lur jota egon arren, baina zati asko oso egoera onean kontserbatu dira; horietan horma horien armazoa osatzen zuen landare-bilbaduraren arrastoak hautematen dira.

Aurreko urteetan bezala, hainbat lagin jaso genituen egin beharreko azterketak egiteko.

mite de la misma en el lado opuesto de la muralla, quedando pendientes de determinar los otros dos extremos de esta amplia construcción.

Los materiales proporcionados son abundantes en la zona que corresponde al interior de la estructura, siendo muy escasos, e incluso inexistentes en ocasiones, fuera de esos límites.

Los tipos de restos recogidos son muy semejantes a los hallados en campañas anteriores, predominando los materiales cerámicos, y entre ellos los fabricados a mano y siendo escasos los confeccionados por medio del torno. Por otra parte continúan apareciendo elementos líticos, principalmente cantos, que han servido de alisadores, percutores y moledores, así como material metálico en hierro y escorias pertenecientes al proceso metalúrgico. Las gramíneas carbonizadas siguen estando presentes en amplias zonas. El tapial es así mismo abundante en los lugares en donde se situaron las paredes, hoy derrumbadas, conservándose en buen estado muchos fragmentos en los que han quedado marcadas las huellas de los entramados vegetales que constituían el armazón de esos muros.

Como en años anteriores se han recogido diferentes muestras para la realización de estudios.

*Xabier Peñalver*



Indusketa Basagaingo herrixkan (Anoeta).

Excavación del poblado de Basagain (Anoeta).

### B.3.1.2. **Lezetxiki leizea (Arrasate)**

X. kanpaina  
Zuzendaritza: Alvaro Arrizabalaga  
Diru-laguntza emaila: Gipuzkoako  
Foru Aldundia, Arrasateko Udala eta  
EHU

### B.3.1.2. **Cueva de Lezetxiki (Arrasate)**

X Campaña  
Dirección: Alvaro Arrizabalaga  
Subvención: Diputación Foral de  
Gipuzkoa, Ayuntamiento de Arrasate

*As per usual, the excavation of the southern sector of the main Lezetxiki shaft (level Vb of the J.M. de Barandiarán excavation) has started, and the Lezetxiki II trench has been dug deeper.*

Aurreko urteetan bezala, Lezetxiki aztarnategiko bi alde desberdinetan egin dugu lan, zehatz adierazteko, indusketa klasikoaren hegoaldeko profilean eta Lezetxiki II deitu diogun bigarren mailako *locus*-ean. Aurreko kanpainetik berrikuntza garrantzitsuak sumatu ditugu bi eremu horietan, eta horien artean aipagarria da aztarnategiaren dentsitatean izandako hazkunde ikusgarria, aurtengoak orain arte lortutako emaitza onenak eskaini baitizkigu. Horren ideia bat izateko, esan dezagun berreskuratutako materialez osatutako kaxen kopuruak hirukoiztu egin duela 2004ko kanpainan erdietsitakoa.

Lezetxikiko hegoaldeko profilean Vb azpimaila induskatzera mugatu dugu 2005. urteko kanpaina. Maila honek aberastasun handiko materialak eskaini ditu, eta horretan zerikusi handia izan du, baita ere, induskatutako azalera V eta U zerrendetara zabaldu izana, harpeko estalkia atzera eramana baitago nabarmen. Deposituko estalkiko inflexio hau funtsezkoa izan da ez soilik aztergai den azalera handitzeko eta berreskuratutako objektu motak emendatzeko, baizik eta baita material organikoak kontserbatzeko eta sekuentzia estratigrafikoa osorik kontserbatzeko ere. Perkolazioaren fenomeno eta deposizio osteko nahasmendua (egiazki orain arte horrelakorik hautemateko aukera gutxi zeuden kontuan izanik aztarnategiaren neurriak eta lodiera) ia ezinezkoa da azalaren parterik handiengan, estalkiaren inbertsioak eragozten baitu. Aurten hezur-rean landutako tresna batzuk antzeko testuinguruan aurkitu izanak estratigrafiaren ezin gezurtatzeko baliozkotzea dakar.

Aurkikuntzen multzo aipagarriena Vb azpimailako harrizko tresneriari dagokiona da. Oparoa izateaz gainera, karakterizazio ambiguo bati eusten dio, Kate Operatibo birekin: bata, menderatzailea, mota ezberdineko sukarrizko lehengaietan landuak eta ustiapen zentripetuko eredu jarraiki; bestea, mendekoa, batez ere sukarran landua eta norabide jakineko tailarekin, xafla eta mikro-xaflatan. Mailako multzoa Mouster aldian kokatzeko arazorik planteatzen ez duen arren, deigarria da oso III. eta IV. maila begira ere ondorio berdinetara iritsi izana. Maila honetan bereizten den fauna hondakinen multzoa ere oparoa da, hotz biziari loturiko taxonen agerpenarekin, esate baterako, marmotaren hondakinen agerpenarekin.

Como en años anteriores, hemos excavado en dos zonas distintas del yacimiento de Lezetxiki, concretamente, el perfil sur de la excavación clásica y el *locus* secundario que venimos denominando Lezetxiki II. En ambas áreas se han registrado novedades significativas respecto a anteriores campañas, entre las que merece ser destacado el espectacular incremento de la densidad del yacimiento, que nos permite anotar este año como el de mejores resultados hasta el momento. A título indicativo señalaremos que el número de cajas de material recuperado triplica al de la campaña 2004.

Sobre el perfil sur de Lezetxiki hemos centrado la campaña 2005 en la excavación del subnivel Vb, que ha entregado unos materiales de gran riqueza, a lo que ha contribuido también el hecho de que la superficie de excavación se ha ampliado a las bandas V y U, al retranquearse considerablemente la visera del abrigo. Esta inflexión en la cubierta del depósito ha sido clave no sólo para la ampliación de la superficie disponible y del repertorio de objetos rescatados, sino también de cara a las circunstancias de conservación de los materiales orgánicos y a la garantía complementaria de integridad de la secuencia estratigráfica. El fenómeno de percolación y alteraciones postdeposicionales (realmente poco probable hasta el momento dadas las dimensiones y la potencia del yacimiento) resulta materialmente imposible en la mayor parte de la superficie, puesto que lo imposibilita la inversión de la visera. El hallazgo de algunos componentes de industria ósea este año y en semejante contexto adquiere así una convalidación estratigráfica irrefutable.

El conjunto de hallazgos más destacado es el que se refiere a la industria lítica del subnivel Vb. Además de resultar muy abultado, mantiene una caracterización ambigua, con dos Cadenas Operativas: una, dominante, confeccionada en materias primas diferentes del sílex y con modelos de explotación centrípetos; la otra, menor, mayoritariamente en sílex y de talla direccionada, laminar y microlaminar. Aunque el conjunto del nivel no plantea problemas para ser adscrito al Musteriense, llama la atención esta caracterización que ya había sido puesta de manifiesto para los niveles III y IV. El conjunto de la fauna presente en el nivel resulta también abundante, con puntuales apariciones de taxones vinculados al frío intenso, como marmota.

Lezetxiki II izenarekin zehazten dugun bigarren mailako *locus*-ean irekiriko lubakiari dagokionez, esan dezagun 2004. urteko kanpainan lortutako informazio topografikoak bidegurutzean utzi gintuela 2005. urteko indusketarako estrategiari begira: Leibar leizearekin lotura fisikoa ireki behar ote genuen ala ez erabaki behar genuen (Ondare hau babesteko orduan sor litezkeen zailtasunak gogoan) eta baita zundatzen ari garen galerian sakondu behar ote genuen ala ez, giza hondakin berrien fosilak agertzeko aukerarekin. Hala bada, Leibar leizearekin oraindik lotura fisikorik ez irekitzea erabaki genuen, eta lubakian altxataka lau laukietan (J15, K15, L15 eta M15) sakontzen jarraitzea erabaki genuen; lauki hauetan batez beste 35 cm sakondu genuen, batez beste -235 cm-ko kotara iristeko. Aurreko kanpainetakoak ez bezalako sedimentuzko maila batean jardun genuen; maila hau askoz ere buztintsuagoa da, klasto gutxiagorekin, eta hezur handien dentsitateak behera egiten du hezur eta harri txikien alde. Indusketa klasikoaren jatorrizko informaziotik abiatuta, gure ustez Lezetxikiko humero ezagunaren testuinguru estratigrafiko bertsuan gaude; nolana ere den, 2006. urteko kanpainan berretsiko dugu datu hau.

Beste alde batetik, Irikaitzeko kasuan bezalaxe, Eusko Jaurlaritzak 2004ko kanpainara bitartean berreskuratutako material arkeologikoak eskatu izanak indusketaren emaitzen hedapen zientifikoaren murrizketa nabaria eragin du: 2005. urtean zehar ezin izan dugu kongresu edo foro akademiko bakar batean ere aztarnategi honi buruzko jakinarazpen berririk aurkeztu.

En cuanto a la apertura de una trinchera en el *locus* secundario que venimos denominando Lezetxiki II, la información topográfica obtenida durante 2004 nos situaba ante una encrucijada de cara a la selección de la estrategia de excavación para 2005: debíamos de optar por abrir o no la conexión física con Leibar (con las complicaciones de protección de este Patrimonio que supone) y también por profundizar o no en la galería que venimos sondeando, con la posibilidad de que aparecieran nuevos restos fósiles humanos. Pues bien, hemos optado por no abrir la conexión directa con la cueva de Leibar todavía y seguir profundizando en los cuatro cuadros abiertos en trinchera (J15, K15, L15 y M15), que han sido rebajados una media de 35 cm, hasta una cota promediada de -235 cm. Hemos incidido sobre un nivel de sedimentología diferente al de anteriores campañas, mucho más arcilloso, con menos clastos, y en el que ha descendido la densidad de grandes huesos, aunque ha remontado la de pequeños restos óseos y líticos. A partir de la información original de la excavación clásica, consideramos que estamos, aproximadamente, en el mismo contexto estratigráfico del conocido humero de Lezetxiki, dato éste que esperamos poder confirmar durante la campaña 2006.

*This article provides the point of view and the evolution of the second season at the cave of Kiputz IX. It describes the excavated area together with the taxonomic results obtained. It also includes two radiocarbon dates taken up to now. Finally it justifies the need to excavate the entrance of the cave.*

Bigarren kanpaina honek arrazoi bikoitza du. Bate-tik, aurreneko interbentzioaren amaieran planteatutako galdera batzuei erantzun nahi genien. Lehenengo kanpaina hartan asko aurreratu bagenuen ere, ezin izan genituen deposituaren oinarritzko dimentsioak neurtu bere hiru norabide ortogonaletan. Soilik 2. zerrendari zegokion sektorean iritsi ahal izan ginen leizeko jatorrizko hormara, beste hiru hormak hezurrez hornituriko geruzez estalita jarraitzen zuten artean. Honenbestez, aztarnategiaren balio kuantitatiboaren berri izateko xedean, behar-beharrezkoa zen betegarriaren hiru dimentsioetatik gutxienez bi ondo ezagutzea.

Bestalde, lehenengo kanpainan berreskuratutako faunaren osaera taxonomikoak eta kontserbazio egoera onak berretsi egiten zuten aztarnategiaren balio arkeozoologikoa eta paleontologikoa. Bigarren zirkunstantzia honek berez justifikatzen du aztarnak berreskuratzeke lanean aurrera egin behar izatea.

Esta segunda campaña tiene una doble razón de ser. En primer lugar como intento de resolución de algunos interrogantes que surgieron al final de la primera intervención. A pesar el significativo avance realizado el pasado verano quedaron sin poder evaluar las dimensiones básicas del depósito en sus tres direcciones ortogonales. Sólo se pudo alcanzar la pared original de la sima en el sector correspondiente a la banda 2 quedando las tres paredes restantes colmatadas de sustrato con importantes brechas óseas. Por tanto para poder establecer una estimación suficientemente aproximada del valor cuantitativo del yacimiento se necesitaba conocer al menos dos de las tres dimensiones del relleno.

Por otro lado la composición taxonómica y el buen estado de conservación de la fauna recuperada en la primera campaña confirmaban el valor arqueozoológico y paleontológico del yacimiento. Esta segunda circunstancia constituye por sí sola una justificación indiscutible para continuar los trabajos de recuperación.

Azaldutako arrazoi biak aintzakotzat harturik, behar-beharrezkoa zen zundaketak egiten jarraitzea ondoren adierazten diren norabideetan eta jarraian azaltzen diren helburuekin.

Helburu nagusia aurreko kanpainaren helburu bera zen, hau da, deposituko fauna hondakinaren multzoa kontserbazio egoera onean berreskuratzea, bai Makrougaztunen eta Mikrougaztunen bai beste Ornodunen hezurak ere –haien presentzia egiaztaturik geratu zen aurreko kanpainan–, baita ager litezkeen beste fauna hondakinak ere.

Bigarren interbentzio honetan, gainera, laginen zutabe bat biltzeko erabakia hartu genuen. Lan hau Aranzadi Zientzi Elkarteko sedimentu arloko aditu Pablo Aresok eta Ana Urizek bururatu zuten sail bertikalaren azterketa osoa egiteko xedean.

Hirugarrenik, leizearen zeharkako dimentsioaren neurriak zehaztu nahi genituen (ekialdetik mendebaldera), eta batez ere betegarriaren guztizko lodieraren berri izan nahi genuen. Horrek aukera emango zigun aztarnategiko fauna edukiaren guztizko bolumena zehazteko.

Zundaketa 4. zerrendatik handitzea erabaki genuen, aurreko urtean agerian utzitako hormaren pareko hormara iristeko. Horrek aukera emango zigun leizearen zabalera zehazteko.

Bestalde, leizearen hondo naturaleraino iritsi nahi genuen, edo gutxienez ordura arte induskatutako azalera osoan fauna deposituaren bukaera punturaino. Halatan, 4. zerrendan 3,9 metroko sakonerara iritsita, behar bezala jarraituko genuen hondoa ukitu arte.

2005eko uztailaren 26an hasi ginen lanean eta urte bereko abuztuaren 5ean amaitu genuen. Beraz, bederatzigun egun eman genituen lanean, egunean bederatzigun orduz jarduten. Indusketa lanetan ari izan zen taldea lehenengo kanpainan jardun zuen bera izan zen. Lehenengo kanpainan deskribatutako maila berak mantentzen dira.

2005eko interbentzioan erdietsiriko lorpen handiena berrito ere fauna hondakinak berreskuratzean datza, hasiera-hasieratik horixe izan baita jardueraren helburu nagusia. Induskatzen emandako bederatzigun egunetan bi milatik gora eskeleto-pieza, gehienak osorik, berreskuratuta izana emaitza ezin hobea da ikuspuntu paleontologiko batetik.

Gainera, kanpaina honen amaieran leizearen zeharkako zabalera eta betegarriaren lodiera ezagutu ahal izan ditugu. Leizeak zeharkako profil irregularra du, zenbaitetan bi metro eta erdira iristen diren maila zabalekin eta besteetan metro eta erdira iristen diren maila estuagoekin. Pitxerraren formako egokiera hau ura bertikalean erortzearen ondorioz sortzen diren turbulenzia mugimenduek eragindako higaduraren emaitza da.

Bestetik, indusketa lanen azken aurreko egunean leizearen hondora iritsi ginen zundaketaren azalera

La simple conjunción de las dos razones expuestas hacían necesaria la continuación del sondeo en las direcciones y con los objetivos que a continuación se indican.

Como objetivo fundamental se mantiene la recuperación en su máxima integridad de las osamentas contenidas en el depósito tanto de Macromamíferos como de Micromamíferos y otros Vertebrados cuya presencia en la cavidad ya estaba confirmada o de otros nuevos que pudieran aparecer.

Además en esta segunda intervención se programó la recogida de una columna de muestras por parte de los sedimentólogos de la Sociedad de Ciencias Aranzadi (Pablo Areso y Ana Uriz) con vistas al estudio completo de la serie en sentido vertical.

En tercer lugar se pretendía establecer de forma segura la dimensión transversal de la sima (en sentido E-W) y sobre todo la profundidad total del relleno. Ello nos permitiría valorar el volumen total del contenido faunístico del yacimiento.

Se proyectó una ampliación del sondeo por la banda 4 para contactar con la pared opuesta a la ya descubierta el año anterior. Esto nos permitiría determinar la anchura de la sima.

En profundidad se trataba de alcanzar el fondo natural de la cavidad o al menos el final del depósito faunístico en toda la superficie excavada hasta el momento. Por tanto una vez llegados a los 3,9 metros de profundidad en la banda 4 se excavaría en profundidad hasta alcanzar el fondo.

La intervención se inició el 26 de Julio del 2.005 y fue concluida el 5 de Agosto del año en curso. Se completaron por tanto nueve días completos con un horario de nueve horas útiles por día. El equipo de excavación es el mismo que el del año anterior. Se mantienen los mismos niveles descritos en la primera campaña.

El logro más destacable de la presente intervención reside de nuevo en la recuperación del material faunístico que desde el inicio se había establecido como objetivo principal de la misma. Rescatar más de dos millares de piezas esqueléticas, la mayoría enteras, en nueve jornadas de excavación se puede considerar como un magnífico resultado desde el punto de vista paleontológico.

En segundo lugar se ha podido conocer al final de esta campaña tanto la anchura transversal de la sima como la profundidad del relleno. La cavidad presenta un perfil transversal irregular con niveles más anchos que pueden alcanzar a veces los dos metros y medio y otros más estrechos de un metro menos. Esta disposición en forma de jarra se produce como resultado erosivo de los movimientos de turbulencia del agua al caer verticalmente.

Además el penúltimo día de excavación se logró alcanzar el fondo de la sima en toda la extensión del son-

osoan. Harri ama 4,05 eta 4,15 metro bitarteko sako-neran ageri da. Harrizko zoru hau ukitzen zuen materiala hein batean zoruari itsatsita ageri zen, hezurrezko materiala blaitzen zuen uraren karbonatazio handiak eragindako kare-prezipitazioaren ondorioz. Honenbestez, leizearen dimentsio bi zehazteko moduan gaude, eta sarrerako C zerrendari eta hondoko F zerrendari dagozkien fronte biak zehaztea baizik ez zaigu gertzen.

Iragan urtean Groningengoko (Holanda) Unibertsitateko Centrum loor Isotopen Onderzoek zentrorra Karbono 14ren bidez datatzeko xedean igorritako bi laginen emaitzak iritsi dira aurtengoan.

Lehenengoa D geruzaren erdialdeko 25. mailako hezurrezko materialeri dagokie, eta  $14.360 \pm 130$  B.P. datazioa eskaini dute. Horrek aukera ematen digu material hau Erdi Madalen aldiaren erdialdeko Würm IV aroan kokatzeko.

Bigarrena F geruzaren behe aldeko 39. mailako hezurrezko zatikiei dagokie, eta  $19.870 \pm 150$  B.P. datazioa eskaini dute hauek. Kasu honetan Würm III-IV eta Solutre aldiaren artean kokatu behar ditugu. Datatutako maila bien artean karezko zarakarra ageri da (E maila), datatutako laginei leku egiten dieten D eta F mailetako sedimentuak ondo bereizten dituen.

Emaitza horiek berresteko xedean, 40. mailako beste lagin bat eta orein baten metapodio hezur bat igorriko ditugu bizkorgailuaren metodoaren bidez datatzeko. Etorkizunean azterketa mota hau beste isotopo batzuekin egin nahi dugu.

Aurtengo udako kanpainak leizearen neurriak bezalako funtsezko kontuak argitzeko modua eskaini badigu ere, artean argitu gabe dago zein den aztarnategiaren izaera. Animalia hauen hezurak ia beti osorik ageri izanak adierazten digu leizeak tranpa natural baten moduan jardun duela, hau da, animaliak bertara jausi egiten zirela. Nolanahi ere, badira adierazitako hipotesia sinesgarriago egin ahal izateko erantzuna behar duten galdera bi. Bata da egungo sarreraren neurria, ia ezinezkoa baita bertatik oreinak eta bisontek sartzea. Pentsa genezake jatorrizko sarrera handiagoa zela eta gaurkoa hein batean estalita dagoela. Baina hori horrela izatera, beste galdera bat planteatzen da. Nolako zen sarrera ustekabe hainbeste animalia erortzeko?

Galdera bien erantzuna leizearen ahoan dago, hain zuzen ere, eta une honetan ahoa sedimentuz estalita dago bere parterik handiengan. Bide batez, esan dezagun, fauna hondakin ugari dagoela substratu honetan.

Lehen aipatutako galdera bien erantzuna eta aztarnategiko gune aberatsenetako baten azterketak eramanen gaitu heldu den udarako beste kanpaina bat egiteko eskaera egitera. Kanpaina hau leizearen sarrerara mugatuko genuke.

deo. La roca madre aflora a una profundidad que oscila entre 4,05 y 4,15 metros. El material que estaba en contacto con este suelo rocoso se hallaba algo soldado parcialmente con el mismo por efecto de la precipitación calcárea debida a la alta carbonatación del agua que empapaba el material óseo. Por tanto ya se pueden estimar dos dimensiones de la cavidad y tan sólo quedan dos frentes de brecha que corresponden a la banda C de la entrada y a la banda F del fondo.

Han llegado los resultados de las dos muestras que se enviaron el pasado año a datar por el método del Carbono 14 convencional al Centrum loor Isotopen Onderzoek de la Universidad de Groningen (Holanda)

La primera corresponde a materiales óseos del lecho 25 que se sitúa hacia la mitad del nivel D y ha proporcionado una estimación de  $14.360 \pm 130$  B.P. Permite situar el material hacia la mitad del Würm IV en un horizonte cultural del Magdalenense Medio.

La segunda se ha realizado con fragmentos del lecho 39 de la parte inferior del nivel F y su resultado ha sido  $19.870 \pm 150$  B.P. En este caso nos remontamos ya al interestadial Würm III-IV y al Solutrense. Entre los dos lechos datados hay una costra calcárea (nivel E) que separa claramente la sedimentación de los niveles D y F a los que corresponden las muestras datadas.

Con el fin de confirmar los resultados anteriores se proyecta enviar una nueva muestra del lecho 40 para su datación por el método de acelerador y sobre hueso de metapodio de ciervo. En el futuro se pretende ampliar el análisis a otros isótopos.

Aunque la campaña de este verano ha permitido dilucidar algunas cuestiones básicas como las dimensiones del yacimiento permanece pendiente de resolución un tema clave como es la génesis concreta de esta muestra. La presencia de osamentas casi siempre completas de estos animales indica que la sima ha actuado como trampa natural a la que caían. Sin embargo hay dos interrogantes que necesitan una respuesta para poder hacer más verosímil la hipótesis enunciada. Una se refiere al tamaño actual de la entrada que hace prácticamente imposible la entrada de ciervos y de bisontes. Puede suponerse que la entrada original era más grande y actualmente se halla parcialmente colmatada. Pero en el supuesto de que esto fuera así permanece otra pregunta. Cómo era esta entrada para que cayeran fortuitamente tantos animales.

La respuesta a las dos cuestiones está precisamente en la boca de la cavidad que en este momento se halla colmatada de sedimento en su mayor parte. Por cierto es un sustrato que contiene una gran riqueza de fauna.

La respuesta a las dos cuestiones antes citadas y la recuperación de una de las zonas más ricas del yacimiento nos inclina a solicitar para el próximo verano una nueva campaña que se centraría en la entrada de la cavidad.

### B.3.2.5. **Aralar Mendialdea (Enirio Aralarko Mankomunitatea)**

Zuzendaritza: J. A. Mujika  
Diru-laguntza emaila: Gipuzkoako  
Foru Aldundia

### B.3.2.5. **Sierra de Aralar (Unión Enirio Aralar)**

Dirección: J. A. Mujika  
Subvención: Diputación Foral de  
Gipuzkoa

*Prospection work and sondages in the Sierra de Aralar have continued. The most important sondage is the one conducted on the Lokatza cave and which was concluded this year. Although the stratigraphy has been considerably altered by badgers, there are a few significant remains that can be attributed to the Bronze Age and the Roman and Medieval ages. On the other hand, work has continued in Esnaurreta II, a weak, ephemeral open air Bronze Age settlement.*

Aurten aurrera jarraitu dugu Aralar Mendialdean orain dela hamar bat urtez geroztik lurralde honetan egiten ari diren ikerketa programaren baitan hasitako lanekin. Aurreko bi urteetan aurreneko zundaketa arkeologikoak bururatu genituen elementu zehatz batzuetan oinarrituta (Oidui, Esnaurreta, Arrubi), egitura horiek zehazteko (eraikuntza edo osaera moldeak, kronologia, etab.) eta elementu horiek zuten ondare interesa ezagutu eta baloratu ahal izateko.

Lan hauen helburu nagusia da esparru menditsu honetan izandako giza populazioaren garrantzia eza-gutu eta baloratzea, hasierako kulturetatik hasi eta ia gaur egunera arte, arreta berezia eskainiz bertan bereiziriko era askotako aztarna materialei eta iturri dokumentalei, horiexek baitira alde honetan garatutako gizarte harremanen eta jarduera ekonomikoen ezaugarrien berri ematen digutenak.

Kanpaina honetan segida eman diogu iragan urtean hasitako bi jardueri. Bata Lokatzako leizean, non hirugarren urtez lan egin dugun eta lanok amaitutzat eman ditugun, eta bestea Esnaurreta izeneko eremuan, aldi baterako haize zabaleko finkamendu ahulean, seguru asko Brontze Aroko finkamendua izango zenean.

Iragan urtean landa lan batzuk Argarbi izeneko trikuharriaren ingurura mugatu genituen, batez ere hegoaldeko eta hego-ekialdeko laugune babestuenetara. Zundaketen emaitzak oso kaskarrak izan ziren eta soilik batek, Esnaurreta II izenekoan bideratutakoak, eskaini zigun finkamendu txiki baten aurrean egon gintezkeela pentsatzeko aukera.

Leku hau Argarbi mendialdearen hego-ekialdeko mazelan dago, Esnaurretako artetik txaboletatik hurbil ordea, azaleratzen den kareharrien artean osatzen den sakonune luzangan. Alderik luzeenean ia bertikala den kareharrizko horma bat, hogeit metroko luzerarekin, altxatzen da; altuerari dagokionez, leku batzuetan gainditu egiten ditu 6 metroak. Sakonunea gutxi gorabehera 15 metro zabal da. Bere baitan eta hormari atxikirik lehorrean ipinitako harriz egindako barruti bat dago, seguru asko artetik edo eskorta bat izango zena.

El presente año se han proseguido los trabajos arqueológicos en la Sierra de Aralar como parte del programa de investigación que se viene desarrollando sobre ese territorio desde hace aproximadamente una década. Los pasados dos años se llevaron a cabo los primeros sondeos arqueológicos sobre una serie de elementos concretos (Oidui, Esnaurreta, Arrubi), con el fin de caracterizar dichas estructuras (modos de construcción o formación, cronología, etc.) y valorar el interés patrimonial de los mismos.

Estos trabajos arqueológicos están fundamentalmente destinados a conocer la evolución del paisaje y las características del poblamiento que en este ámbito montañoso, desde sus primeras manifestaciones culturales hasta prácticamente la actualidad; prestando especial atención a los muy diferentes vestigios materiales existentes en el campo y a las fuentes documentales, que nos informan sobre las características de las actividades económicas y relaciones sociales allí desarrolladas.

En esta campaña se ha proseguido con dos intervenciones iniciadas el pasado año. Una en la cueva de Lokatza, en la que se ha trabajado por tercer año consecutivo, dándose por finalizada dicha actividad, y otra, en la zona de Esnaurreta, en un débil asentamiento temporal al aire libre, probablemente de la Edad del Bronce.

El pasado año centramos parte de nuestros trabajos de campo en el entorno del dolmen de Argarbi, principalmente en los rellanos y zonas más abrigadas situadas hacia el sur y sureste. Los resultados de los sondeos fueron muy pobres y sólo uno de ellos, Esnaurreta II, permitió vislumbrar la posibilidad de que estuviéramos ante un pequeño asentamiento.

Este sitio se ubica en la ladera sureste del monte Argarbi, pero ya en las proximidades de las txabolas de la majada de Esnaurreta, en una zona longitudinal deprimida que se crea entre el afloramiento calizo. En su lado más largo se desarrolla una pared de caliza casi vertical de una veintena de metros y una altura variable que en algunos puntos supera los 6 metros. La anchura de la depresión es de unos 15 metros. En su interior y adosado a la pared existe un recinto construido con piedras secas, muy probablemente un redil de ovejas (*artegi, eskorta*).

Iragan urtean egindako zundaketan, 1x1 metroko azaleran, gutxi gora-behera 40 cm-ra arte sakondu genuen, eta maila horretan bereizi genituen ikatz zatiak, sukarriren bat eta zeramika zatiki batzuk. Material horiek kontuan harturik eta horien kokalekua aintzakotzat harturik, zundaketa 2x2 metroko azalerara handitzeko erabakia hartu genuen.

Bertako estratigrafia oso homogenea da lodiera osoan; sedimentua buztintsua da, kolorez marroi argia, eta ohi denez, ilundurik ageri da goiko partean. Ia ez da klastorik bereizten, bigarren mailan ez bada, maila honetan laukiaren ia luze-zabalera osoan ageri baitira horrelakoak. Jatorriak, seguru asko, harreman estua izango du espazio hau artegi gisa erabili izanarekin.

Urriak dira bertan berreskuratutako aztarna materialak: zeramikazko zatiki batzuk, sukarriren bat eta fauna hondakinak. Ikatzezko zatiak aski ugariak izan dira. Lortutako datazio baten arabera, K.a. bigarren milurtekoaren erdialdeko artzaintza izaerako finkamendu bat dela esan dezakegu.

Bestalde, amaitu egin genuen Lokatzako leizean (Ataun) hasitako zundaketa. Malkorburu edo Salbi mendiaren hegoaldeko mazelan dagoen leize handia da. Inguruan landaredia azkar hazten da, batez ere sastrakak eta zuhaixkak, baina badira, baita ere, leizearen sarrera ezkututzen duten haritzak, pagoak, lizarren bat eta hurritzak. Leizetik gora hogeita hamarren bat metrora ondo garatutako pinudia dago.

Sarrera baxua du leizeko ateburuko bloke batzuk behera etorri direlako eta maldan behera etorritako materialak bertan geratu direlako. Barruko aldea nagusiki gela batek osatzen du, eta bertako zorua horizontala da. Ezkerreko aldea idorra da, eta egoitza gisa erabil daitekeen aldearen neurri gorenak 12x5 metrokoak dira. Harpearen aurrean gutxi gora-behera 12 m<sup>2</sup>-ko plataforma bat dago.

Aurreko kanpainetan 4 m<sup>2</sup>-ko azalera jardun genuen kanpotik iristen den harrizko eta lurrezko metaketa baten muturrean eta alboko katazulo baten ondoan. Azkeneko kanpainan plataforma baten moduko egitura bat utzi genuen agerian; honakoa neurri ederreko kareharrizko blokeez egina zegoen, eta hormaren ondoan kokatzen zen. Haren gainean sutegi bat izan zitekeenaren arrastoak nabari ziren (bloke gorritzatuak, ikatza), baita zeramika eta fauna hondakinak ere. Aurten go kanpainan metro eta erdi handitu dugu zundaketa.

Zundaketan zehar bi maila bereizi genituen, biak erabat nahasiak karraskariek eta batez ere azkonarrek goiko erdian jardun izanaren ondorioz:

I. maila.- Azaleko maila da eta lurra oso dago bapuztuen eraginez, eta horrenbestez, bertan berreskuratutako aztarna arkeologiko urriak ez daude *in situ*. Honakoak dira sedimentuen ezaugarriak: lur kolorez

En el sondeo realizado el pasado año, de 1x1 m, se profundizó aproximadamente hasta los 40 cm, siendo ahí donde se localizaron fragmentos de carbón, algún sílex y varios trozos cerámicos. A la vista de estos materiales y dada su situación, al abrigo de la mencionada pared vertical, se decidió ampliar el sondeo a 2x2 m.

La estratigrafía existente en el lugar es muy homogénea en toda su potencia, siendo el sedimento arcilloso de color marrón claro que, como es habitual, se oscurece en su parte superior. Apenas presenta clastos, salvo en el segundo lecho donde eran relativamente habituales en toda la extensión del cuadro. Su origen, posiblemente, esté en relación con el uso como redil de este mismo espacio.

Los vestigios materiales recuperados son escasos: varios fragmentos cerámicos, algún sílex y resto faunístico. Los trozos de carbón han sido relativamente abundantes. Por una datación obtenida podemos señalar que se trata de un establecimiento pastoril de mediados del segundo milenio a. C.

Por otro lado, se finalizó el sondeo de la cueva de Lokatza (Ataun). Se trata de una amplia cavidad que se localiza en la pronunciada ladera sur del monte Malkorburu o Salbi. A su alrededor crece abundante vegetación, principalmente matorral y arbusto, aunque también existen robles, hayas, algún freno y avellanos, que ocultan la propia entrada a la cueva. A una treintena de metros por encima de ella crece un pinar ya desarrollado.

La entrada es baja por haberse acumulado en ella bloques procedentes de desprendimientos producidos en el dintel y materiales que han sido arrastrados por la ladera. El interior está constituido principalmente por una sala, que presenta un suelo horizontal. Su mitad izquierda es seca, siendo las dimensiones máximas de la zona utilizable como lugar de habitación de 12x5 m. Delante de la cavidad existe una plataforma de unos 12 m<sup>2</sup>.

Las campañas anteriores se trabajó sobre una superficie de 4 m<sup>2</sup> en el extremo de una acumulación de piedra y tierra que penetra desde el exterior y junto a una gatera lateral. En la última campaña se llegó a exhumar una estructura, a modo de plataforma, construida con bloques de caliza de notable tamaño situada junto a la pared. Sobre ella se observaron indicios (bloques enrojecidos, carbón) de lo que pudo ser un hogar, además de restos cerámicos y faunísticos. El presente año se ha ampliado el sondeo en metro y medio.

Durante el sondeo se han identificado dos niveles profundamente alterados por la acción de roedores y, sobre todo, por los tejones en la mitad superior del depósito:

Nivel I.- Se trata del nivel superficial que presenta un grado de remoción importante por la acción de animales, por lo que los escasos restos arqueológicos recuperados no están *in situ*. Sus características sedi-

marroi iluna, aski buztintsua baina harroa garai batean egindako iraulketen ondorioz. Ia ez dago kalibre handiko elementurik –kareharririk–, eta daudenak diametro txikikoak dira, 5 cm-ko diametroa iristen ez direna. Hondakin organikoak (orbelak, pago-haziak, etab.), ugariak oso iragan urtean induskatutako laukietan, nabari murrizten dira. Gutxi gora-behera 30 cm sakondu genuen.

II. maila.- Sedimentuen ezaugarriak nabarmen aldatzen dira maila honetan. Sedimentua asko iluntzen da, ikatzak eta blokeen (batzuk oso gorritaturik) kopuruak nabarmen egiten du gora, seguru asko okupazio maila ezberdinen erakusgarri direla. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago azkonarrek eragindako iraulketak garrantzitsuak direla; iraulketa horiek, zenbaitetan aski berriak dira, esate baterako 4F laukikoak, baina beste batzuk aspaldikoak dira, esate baterako, 40 cm-ko eta 60-70 cm-ko sakoneratan aurkitutako burezurrek erakusten duten bezala. Bistan da, aztarnategiaren goiko erdian bederen, zundatutako sektoreetako estratigrafia oso nahasita dagoela.

Zailtasunak zailtasun, aurkitutako aztarna arkeologiko batzuk, euren ezaugarri tipologikoak aintzakotzat harturik, Brontze Arokoak direla esan dezakegu. Nolanahi ere, haien ondoan erromatarren garaiko eta Erdi Aroko hondakinak bereizi ditugula esan beharrean gaude.

mentológicas son las siguientes: tierra marrón oscura, bastante arcillosa pero suelta por remociones subacuales. Apenas, existen elementos de calibre grueso –cantos de caliza– y los que se encuentran son de pequeño diámetro, menor de 5 cm. Los restos orgánicos (hojarasca, semillas de haya, etc.), tan abundantes en los cuadros excavados el pasado año, disminuyen notablemente. La potencia bajada oscila en torno a los 30 cm.

Nivel II.- Se produce un cambio sustancial en las características del sedimento. Este se oscurece de forma importante, aumentan notablemente los carbones y el número de bloques (algunos de ellos fuertemente enrojados), probablemente en relación con diferentes horizontes de ocupación. Sin embargo, también hay que señalar que las remociones debidas a tejones son importantes, unas veces producidas en periodos relativamente recientes, por ejemplo el detectado en el 4F, pero también antiguas como lo demuestran los cráneos hallados a la profundidad de 40 cm. y 60-70 cm. bajo la superficie. Es indudable, que la estratigrafía existente al menos en la mitad superior del yacimiento en los sectores sondeados está profundamente alterada.

Algunas de las evidencias arqueológicas halladas se pueden atribuir por sus características tipológicas, a pesar de las dificultades señaladas, a la Edad del Bronce. No obstante junto a ellos también existen restos de cronología romana y medieval.

*Jaione Agirre; A. Moraza; J. A. Mujika; E. Telleria*

#### **B.3.2.6. Ama Birjinaren eliza (Zarautz)**

I. kanpaina  
Zuzendaritza: Alex Ibáñez Etxeberria,  
Nerea Sarasola Etxegoien  
Diru-laguntza emailea: Zarauzko Udala

#### **B.3.2.6. Santa María La Real (Zarautz)**

I Campaña  
Dirección: Alex Ibáñez Etxeberria,  
Nerea Sarasola Etxegoien  
Subvención: Ayuntamiento de Zarautz

*The aim of this programme of prospections has been to identify the limits of the archaeological Site of Santa Maria la Real in Zarautz, to delimit the medieval burial areas and to document the continuation of the Roman and protohistorical levels of occupation.*

Ama Birjinaren elizako aztarnategi arkeologikoaren gaineko ikerketa lanak 1997an hasi ziren bertako kanpandorrean Erdi Aroko nekropoli bat aurkitu zutenean, eta lan horiek segida izan zuten 1999an. 2001eko irailan, parrokia elizaren barruan berokuntza sistema bat instalatzeko asmoa tarteko, kontrol arkeologiko bat egin zen, eta lortutako emaitza bikainek estrategia aldatzera behartu zuten; halatan, 2002an amaituko zen indusketa arkeologiko bat bururatu zen.

La investigación del yacimiento arqueológico de Santa María se inicia en el año 1997 con la localización de la necrópolis medieval en la torre-campanario y continúa en el año 1999. En septiembre de 2001, con motivo de la instalación del sistema de calefacción en el interior de la iglesia parroquial, se lleva a cabo un control arqueológico cuyos resultados excepcionales obligan a un cambio de estrategia pasando a realizar una excavación arqueológica que termina en junio de 2002.

Aipatutako aztarnategiaren aurkikuntzak «Menosca» izeneko proiektua abiarazi zuen; proiektu honek ikerketa, hedapena eta kontserbazioa zituen helburu nagusi. Ikerketaren esparruan, katen bidezko miaketa kanpaina batzuk egiteko beharra planteatu zen; miaketa hauek parrokiaren eta kanpandorrean aurkitutako aztarnategia mugatzea eta kontserbatutako geruza arkeologikoaren lodiera eta kalitatea zehaztea izango zituen helburu.

2005eko maiatzean eta ekainean egindako lehenengo kanpainan, aztarnategiaren inguruko lorategietan jardun genuen: parrokiako lorategiaren iparraldeko eta ipar-mendebaldeko sektorean eta udal jabetzaren Arrosategia parkean. Guztira 16 kata bururatu genituen, eta emaitzak oso ezberdinak izan ziren.

Parrokiako lorategiari dagokion lehenengo sektorean aztarnategiak jarraipena duela egiaztatu genuen, izan ere, 1. katan harri xabalez egindako bi hilobi eta pareta bat bereizi genituen Erdi Aroko okupazioaren mailan, biak erromatarren garaiko okupazioaren mailaren gainean. Geruza buztintsu honetan lur errea, fauna, tornuan landu ez zen zeramika arrunta eta sukarran landutako laska bat bereizi genituen. Bigarren katan geruzen segida bera bereizten zen, baina honakoan ez genuen hondakin arkeologikorik aurkitu.

El descubrimiento de dicho yacimiento pone en marcha el denominado «proyecto Menosca» cuyos ejes principales se centran en la investigación, difusión y conservación. En el marco de la investigación, se plantea la necesidad de realizar una serie de campañas de prospección con catas cuyo objetivo se centraría en la delimitación del yacimiento encontrado en la parroquia y en la torre-campanario y determinar la potencia y calidad del sustrato arqueológico conservado.

En la primera campaña realizada entre los meses de mayo y junio de 2005, se ha actuado sobre los espacios ajardinados localizados alrededor del yacimiento: sector norte y noroeste del jardín de la parroquia y el parque de la Rosaleda de propiedad municipal. En total, se han realizado 16 catas cuyos resultados han sido desiguales.

En el primer sector correspondiente al jardín parroquial, se ha podido constatar la continuación del yacimiento, con la localización en la cata nº 1 de dos sepulturas, de lajas y de muro correspondientes al nivel de ocupación medieval situadas ambas sobre el nivel de ocupación romano. Un nivel formado por un estrato arcilloso donde aparecen restos de tierra cocida, fauna, cerámica común no torneada, y una lasca de sílex. En la segunda cata, se repite la misma sucesión de estratos pero con ausencia de restos arqueológicos.



Ama Birjinaren eliza (Zarautz). 1. katanen ikuspegi orokorra, Erdi Aroko hilobietan eta erromatarren garaiko okupazioaren mailarekin.

Santa María la Real (Zarautz). Vista general de la cata nº 1 con los enterramientos medievales y el nivel de ocupación romano.



Parrokiako lorategiaren ipar-mendebaldeko bigarren sektorean, berriz, emaitzak ez ziren batere argi-riak izan. 3. katak fauna hondakinak, iltze bat eta identifikatu gabeko metalezko pieza bat eskaini zituen. 5. katan gure garaiko betegarriak bereizi genituen, eta haietako batean *tegula* puska bat aurkitu genuen. Lau garren katak ez zuen emaitza positiborik eskaini.

Parrokia elizaren hegoaldeko Arrosategi parkean negatiboak izan ziren emaitzak. Ez genien aztarnategiari loturiko hondakin bakar bat ere identifikatu, baina aipagarria da 13. katan, lur errearen eta ikatz zatikien ondoan erromatarren garaiko zeramikazko zati higatu batzuk aurkitu izana. Baliteke aztarna hauek inguruan erromatarren garaian okupatu zen finkamendu motaren bat egon izana adieraztea, baina hipotesi hori etorkizunean katen bidez garatu beharreko miaketa kanpainetan argitu beharko da. Gainerako katetan emaitzak negatiboak izan ziren: gure garaiko hainbat betegarri bereizi genituen, denak parkean bururatutako obrei zegozkienak. Betegarriok flyscharen gainean egokitutako jatorri naturaleko geruza buztintsuaren gainean bermatzen dira.

En el segundo sector correspondiente a la zona noroeste del jardín parroquial, los resultados han sido confusos. La cata nº 3, ha aportado fragmentos de fauna, un clavo y una pieza metálica sin identificar. En la cata nº 5 se han localizado diversos rellenos de época contemporánea entre los cuales se ha recogido un fragmento de *tegula*. En la cuarta cata el resultado ha sido negativo.

En el parque de La Rosaleda situado al sur de la iglesia parroquial, los resultados han sido negativos. No se localiza ningún resto asociado al yacimiento pero cabe destacar que en la cata nº 13 se han recogido varios fragmentos cerámicos rodados de cronología romana junto con tierra cocida y carbón. Es posible que estas evidencias indiquen la existencia en el entorno de algún tipo de asentamiento ocupado en época romana, confiando en despejar dicha incógnita en futuras campañas de prospección con catas. En el resto de las catas los resultados han sido negativos, identificándose diversos rellenos de época contemporánea correspondientes a diversas obras ejecutadas en el parque, que se apoyan en un estrato arcilloso de origen natural asentado sobre el flysch.

Nerea Sarasola

### B.3.3. MIAKETAK

#### B.3.3.1. **Oria ibaiaren beheko arroa (Aduna, Aia, Andoain, Donostia-San Sebastián, Usurbil, Zizurkil)**

III. kanpaina  
Zuzendaritza: Manuel Ceberio  
Rodríguez  
Diru-laguntza emalea: Eusko  
Ikaskuntza

### B.3.3. PROSPECCIONES

#### B.3.3.1. **Cuenca baja del Oria (Aduna, Aia, Andoain, Donostia-San Sebastián, Usurbil, Zizurkil)**

III Campaña  
Dirección: Manuel Ceberio  
Rodríguez  
Subvención: Eusko  
Ikaskuntza

*During the 2005 prospecting season lithic material was discovered on the surfaces of spots in Agita (Usurbil) and Biribillondo (Donostia-San Sebastian). The trial excavations in Biribillondo confirm the existence of a site contemporaneous with the megalithic monuments present in the area.*

2005. urtean zehar jarraitu dugu dokumentazio, azterketa eta miaketa lanekin Oria ibaiaren behe arroko Kalkolito-Brontze Aroetako aztarnategiak bilatzeko, zehatz adierazteko Andatza-Garate-Belkoain-Zarate mendietan eta haien inguruetan Oria ibaira iritsi arte.

Aurreko urteko kanpainan Irigainen (Usurbil) antzinako aztarnategi bat aurkitu eta gero, alde honetan 3 kata egin genituen aztarnategia mugatzeko xedean, eta haren hedadura eta garrantzia hasiera batean uste baino handiagoa dela ikusi genuen. Aipagarria da kate-

Durante el año 2005 se han continuado las labores de documentación, estudio y prospección con el objetivo de localizar yacimientos del Calcolítico-Bronce en la cuenca baja del Oria, en concreto la zona comprendida por los montes Andatza-Garate-Belkoain-Zarate, y sus estribaciones hasta el Oria.

Tras el descubrimiento la pasada campaña de un yacimiento de época antigua en Irigain (Usurbil), se han realizado 3 catas en el área para comenzar a delimitarlo, descubriéndose que la amplitud y la importancia del mismo es mayor de lo inicialmente supuesto.

tako batean aurkitutako tornuan landu gabeko zeramika arrunten zatiki kopurua, horien artean hainbat eltzeri dagozkien 4 ertz zati.

Bestalde, egungo giza jarduerak nahasiriko edo irauliriko lur eremuen gaineko begi miaketek aukera eman zuten Agita eta Biribillondo izeneko lekuetan (bigarrenen obra baten gaineko kontrol lanetan), hurrenez hurren Usurbilen eta Donostian kokatueta, harrizko material arkeologikoa aurkitzeko. Biribillondon orain arte egindako 9 zundaketek berretsi egiten dute bertan aztarnategi bat dela; aztarnategi honetako materialek (harrizko aizkora bat, xafla zatiak, harraskailu bat, sukarrizko zati ugari,...) antzekotasun handia dute alde honetan induskatutako monumentu megalitikoetan aurkitutakoekin.

Es destacable la densidad de fragmentos de cerámica común no torneada aparecidos en una de las catas, entre ellos 4 fragmentos de bordes procedentes de diferentes ollas.

Por otro lado, las prospecciones visuales y las revisiones de terrenos alterados por las actividades humanas actuales, han permitido la localización de diverso material arqueológico de tipo lítico en superficie en los lugares conocidos como Agita y Biribillondo (aquí dentro de un control de obra), situados en Usurbil y Donostia-San Sebastián respectivamente. En Biribillondo, los 9 sondeos realizados hasta el momento confirman la existencia de un yacimiento cuyos materiales (un hacha de piedra, fragmentos de lámina, un raspador, abundantes fragmentos de sílex,...) encuentran paralelos en los monumentos megalíticos excavados de la zona.

*Manu Ceberio Rodríguez*

#### **B.3.3.2. Azken Brontze-Burdin Aroko nekropoliak Basagaingo herrixkaren inguruetan (Anoeta)**

IX. kanpaina  
Zuzendaritza: Sonia San Jose Santamarta  
Diru-laguntza emaila: Gipuzkoako Foru Aldundia

#### **B.3.3.2. Necrópolis del Bronce Final-Hierro en los alrededores de Basagian (Anoeta)**

IX Campaña  
Dirección: Sonia San Jose Santamarta  
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

*Prospection works aimed at locating necropoleis or burial mounds in the surroundings of the Basagain (Anoeta) protohistoric settlement are presented. The work failed to yield any positive results.*

Basagaingo herrixka (Anoeta) protohistorikoaren inguruetan nekropoliak edo hilobiratzeak aurkitzeko asmoz egindako miaketa kanpainan zehar, gure kontrolatik kanpoko arrazoiengatik ezin izan genuen aurtengo kanpainari begira aurreikusitako puntuetan (Ateaga baserriaren inguruetan eta Mendigain mendian) katarik egin. Horrexegatik, hain zuzen ere, denbora gehiago eman genuen laborategiko lanak aurrera ateratzen eta begi miaketak egiten, batez ere herrixkaren iparraldea inguratzen duen eremuan. Ez genuen emaitza positiborik lortu.

Durante la campaña de prospecciones orientadas a la localización de necrópolis o enterramientos sepulcrales en los alrededores del poblado protohistórico de Basagain (Anoeta), por causas ajenas, no hemos podido llevar a cabo la realización de catas en los puntos programados para este año (alrededores del caserío Ateaga y monte Mendigain). Por ello, los trabajos se han dirigido a intensificar el trabajo de laboratorio y a realizar prospecciones visuales fundamentalmente en la zona que rodea la parte norte del poblado. No se han obtenido resultados positivos.

*Sonia San Jose Santamarta*

### B.3.3.3. **Loiolako zelaiak (Azpeitia), Lastur (Deba) eta Zestoa**

Zuzendaritza: Javier Lazkano  
Diru-laguntza emaila: Gipuzkoako  
Foru Aldundia

### B.3.3.3. **Campas de Loiola (Azpeitia), Lastur (Deba) y Zestoa**

Dirección: Javier Lazkano  
Subvención: Diputación Foral de  
Gipuzkoa

*Prospection work was conducted during this year's season, not only in the fields of Loiola –an area where human remains corresponding to prehistoric phases were located during the previous season (trial excavations LOI V and VI)–, but also in Lastur and in a small cave in Zestoa.*

Aurtengo kanpainan miaketa lanak bururatu ditugu nola Loiolako zelaietan, iragan urteko kanpainan historiaurreko giza hondakinak bereizi genituen eremuaren inguruan (LOI V eta VI katak), hala Lasturren eta Zestoa harpe txiki batean.

Lehenengo, 2004. urtean hasi genuen kata bat amaitu genuen. Kata horri LOI-V deitu genion. 2,8 metrotik 4,10 metrora sakondu genuen, eta harrizko hainbat laska aurkitu genituen, nahiz eta ez dakigun zer gairaitakoak diren. Azken metro erdia induskatzean ondoko zorupeko errekatik ura sartzen zen, eta horrenbestez amaitutzat eman behar izan genuen indusketa lana.

Beste kata bat ireki genuen, Loiola VI (LOI VI) izenekoa, Beatriz etxearen ondoan. 1,30 metroko sakonerara iritsi ginen. Lurra nahasita ageri zen, eta punturik sakonenean ugari ziren errekarriak. Kata hau ere amaitutzat eman genuen giza hondakinik aurkitu gabe.

Era berean, beste leku batzuk miatu genituen, esate baterako, Zestoa udal barrutian, Venta Peligro ondoko harpe txiki bat. Bertan kata bat egin genuen baina emaitza negatiboa izan zen. Beste horrenbeste gertatu zitzaigun Lastur aldean; hainbat irteera egin genituen baina ez genuen emaitzarik lortu.

En la campaña de este año se han llevado a cabo trabajos de prospección, tanto en las campas de Loiola, entorno en el que durante la pasada campaña localizamos restos humanos de etapas prehistóricas (catas LOI V y VI), así como en Lastur y en una pequeña cueva de Zestoa.

En primer lugar, concluimos la cata iniciada en 2004, la cual convenimos en llamar LOI-V. Se ha profundizado desde 2,8 m. hasta 4,10 m, obteniendo varias lascas de piedra, sin poder determinar a qué época pertenecen. Al excavar el último medio metro, el agua se introducía desde el arroyo subterráneo adyacente, de manera que tuvimos que dar por terminada la cata.

Abrimos una nueva cata, Loiola VI (LOI VI), localizada en la saucedada contigua a Villa Beatriz. Se ha llegado a una profundidad de 1,30 m. La tierra se presenta mezclada y en la zona de mayor profundidad abundan los cantos rodados. Se ha dado por finalizada esta sin localizar evidencia alguna de restos humanos.

Así mismo, se han prospectado otras zonas, como el caso de una pequeña cueva situada junto a Venta Peligro, en el término municipal de Zestoa donde se ha realizado una cata de resultados negativos, lo mismo que en la zona de Lastur donde se han realizado varias salidas sin resultados reseñables por el momento.

*Iñigo Olarte*

### B.3.3.4. **Basagaingo tumulua (Beizama)**

XIV. kanpaina  
Zuzendaritza: Juan M<sup>a</sup> Arruabarrena  
Diru-laguntza emaila: Gipuzkoako  
Foru Aldundia

### B.3.3.4. **Túmulo de Basagain (Beizama)**

XIV Campaña  
Dirección: Juan M<sup>a</sup> Arruabarrena  
Subvención: Diputación Foral de  
Gipuzkoa

*This is located on a small hillock that goes by the name of Basagain, to the N-NE of the Maramendi mountain and about 160 m from an intersection of tracks on the way to the Sta. Agueda farm. It is mentioned on the Archaeological Map of the Aranzadi Society of Sciences.*

*It is on a straight line halfway between the Maramendi and Oterre summits.*

Azkoitiko Munibe Taldeko kide Juan M<sup>a</sup> Arruabarrenak ohiko duen miaketa-irteera batean, 2005eko azaroaren 24an, berrero ere aurkitu zuen Basagaingo

El miembro de Munibe Taldea de Azkoitia, Juan M<sup>a</sup> Arruabarrena en una de sus salidas habituales de prospección, redescubrió el día 24 de noviembre de

tumulua, izan ere, Aranzadiren *Karta Arkeologikoa-Gipuzkoako Megalitoak* liburuaren azken edizioaren arabera, ez zen haren kokalekua ezagutzen.

Monumentu hau 1927an aurkitu zuten T. de Aranzadi, J. M. de Barandiarán eta E. Egurenek, eta arkeologok urte berean induskatu zuten tumulua.

Pinudi batean dago, zementuzko bidearen ertzean, Basagain izena duen lepoan. Santa Ageda baserritik abiatuta, bide honek Maramendi mendiaren beheko partera garamatza. Santa Agedara, Maramendira bidean ezkerretara eta aipatutako bidetik zortzi bat metro-tara, metalezko hari-hesia gaindituta, dago aipatutako egitura.

*Karta Arkeologikoaren* arabera, tumulutik bidegurutzera dagoen tarteak 160 metrokoa da gutxi gora-behera.

Egun aski egoera kaskarrean dago. 11 metroko diametroa du eta 0,40 metro garai da. Agian pinudiak hondatuta dago. Tumuluko harriak inguruko hareharrigrisak dira, indusketa egileek esaten duten moduan.

Honako koordenatu hauetan dago: UTM. 88. orria – 24 Beizama; X 565.846 Y 4.773420 Z 652.

2005, el túmulo de Basagain, cuyo emplazamiento se desconocía, según la última edición de la *Carta Arqueológica-Megalitos de Gipuzkoa* de Aranzadi.

Monumento descubierto en 1927 por T. de Aranzadi, J. M. de Barandiarán y E. Eguren, quienes ese mismo año excavaron el túmulo.

Se halla situado en un pinar, al borde de la pista de cemento, en el collado que lleva el nombre de Basagain, pista que partiendo frente al caserío Sta. Ágeda, nos lleva a la parte baja del monte Maramendi. A mano izquierda y a unos ocho mts. de la mencionada pista, tras pasar un vallado de alambre metálico, según vamos haciendo el recorrido en dirección Sta. Ágeda, Maramendi.

La distancia, que hay del túmulo a la encrucijada de pistas, mencionada en la *Carta Arqueológica* es de unos 160 m.

Su estado actual es bastante pobre, teniendo un diámetro de 11 mts., por una altura de 0,40 mts. Quizá esté algo arrasado por la plantación del pinar. Las piedras del túmulo son de arenisca gris del entorno, como dicen los excavadores.

Siendo las coordenadas las siguientes: UTM. Hoja 88 – 24 Beizama; X 565.846 Y 4.773420 Z 652.

*Miguel Sasieta*



Basagaingo tumulua (Beizama). Monumentuaren ikuspegia. Sasieta.doc

Túmulo de Basagain (Beizama). Vista del monumento.

**B.3.3.5. Gipuzkoako teileriak Debabarrenan (Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Mutriku, Soraluze)**

X. kanpaina  
Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea  
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

**B.3.3.5. Centros tejeros guipuzcoanos en Bajo Deba (Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Mutriku, Soraluze-Placencias de las Armas)**

X Campaña  
Dirección: Alfredo Moraza Barea  
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

*The prospection and intervention work carried out has made it possible to identify some severely damaged archaeological remains linked to the final period of occupation of the piece of land after its complete reconstruction conducted in 1847.*

Gipuzkoako teileriak aurkitu eta deskribatzeko X. Miaketa Kanpaina honetan Debabarrenako eskualdean egin dugu lan, eta Elgeta, Soraluze, Eibar, Elgoibar, Deba y Mutrikuko herriak miatu ditugu.

Erabili dugun lan metodologia aurreko urteetakoren antzekoa da oso. Aurrez aukeratu ditugu aztertu beharreko eremuak, dokumentu iturriek emaniko informazioei esker, edo toponimia arrastoen arabera teilerien bat egon zitekeela pentsatzen genuelako. Informazio horiei esker, ekoizpen guneak izan zitezkeen gutxienez hamarren bat gune desberdin miatu ditugu.

Miaketa lanak aukera eman dute ekoizpen gune horietatik bi gune zehatz identifikatzeko, Elgetako Pagatza eta Mutrikuko Lazao. Gainerakoak betikoz galduta daude alde horietan hirigintza interbentzioak garatu dituztelako edo, besterik gabe, lekukotza edo testigantza fisikorik ez dagoelako.

La X Campaña de prospección destinada a la localización y descripción de centros tejeros en Gipuzkoa ha centrado sus labores en la comarca de Bajo Deba, abarcando a localidades de Elgeta, Soraluze, Eibar, Elgoibar, Deba y Mutriku.

La metodología de trabajo seguida es semejante a la de otros años, seleccionando previamente los emplazamientos a revisar gracias a las informaciones proporcionadas por las fuentes documentales o bien de posibles restos toponímicos. Gracias a estas informaciones se tiene constancia de la existencia en esta comarca de al menos una decena de posibles emplazamientos productores.

Los trabajos han permitido identificar un par de emplazamientos concretos de estos centros de producción (Pagatza en Elgeta y Lazao en Mutriku), encontrándose el resto completamente desaparecidos por intervenciones urbanísticas posteriormente realizadas en ese área o simplemente por no existir testigos físicos de los mismos.

*Alfredo Moraza Barea; Miren Garcia Dalmau*

**B.3.3.6. Historiaurreko habitata Donostialdean (Donostia-San Sebastián, Orio, Pasaia, Usurbil)**

IV. kanpaina  
Zuzendaritza: Jesús Tapia Sagarna  
Diru-laguntza emalea: Gipuzkoako Foru Aldundia

**B.3.3.6. Hábitat prehistórico en Donostialdea (Donostia-San Sebastián, Orio, Pasaia, Usurbil)**

IV campaña  
Dirección: Jesús Tapia Sagarna  
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

*This year has seen the conducting of the 4th prospection campaign in Donostialdea, which marks the end of the project to find prehistoric sites and archaeological remains in the area. A brief assessment of the results is given.*

Miaketa kanpaina honek hartu duen esparrua barreratuagoa izan da aurreko kanpainetan zehar miatu gabe utzi genituen espazioak miatzeko xedean.

El ámbito espacial en que se ha centrado esta campaña de prospecciones ha sido un tanto más disperso con el objetivo de completar los vacíos de prospección que hemos ido dejando a lo largo de las campañas anteriores.

Aurreko kanpainetan (I. eta II. kanpainetan) itsas-bazterreko formazioak era intentsibo batean eta ia osorik arakatu bagenituen ere, Igeldo eta Ulia mendialdeetan arakatu gabeko eremuak miatu ditugu aurten-go kanpainan; halatan, amaitu egin ditugu miaketa lanak mendialde bietan.

Era berean, aurreko urteko kanpainan (III. kanpainan) gure jarduera esparrua Ulia eta Igeldotik harantzago, lurraz barrurago, eramatea erabaki genuen, baita beste aztarnategi mota batzuk aurkitzeko saioa egitea ere, ordura arte aurkitutako aztarna urrien osagarri gisa.

Kanpaina honetan Zorroagako mendialdean eta haren hegoaldeko mendixketan harpe berriak aurkitzen saiatu gara; aldi berean eskualdeko beste mendialde esanguratsua miatu dugu, Ametzagaña mendia, alegia.

Historiaurrean zehar ehizaren eta nekazaritzaren ikuspuntutik eskualde hau egoki askoa izango zenez, igarobide natural bikaina baita, eta inguruko espazioa hileta izaerako erabileretarako erabili zela jakina denez, ezagutu gabeko historiaurreko finkamenduak egiaztatuko lituzketen aztarnak bilatzeari ekin genion, balizko aurkikuntza berriekin une honetan Elkarte hau prestatzen ari den Haize Zabaleko Karta Arkeologikoa osatzen laguntzeko xedean.

Arkumetegiko Haitza haize zabaleko aztarnategiaz eta D. Lasak 80. urteetan Mendiolan berreskuratutako materialez gainera, gainazalean aurkitutako elementu gutxi batzuk baizik ezin ditugu gehitu, ez dugu materialik topatu estratigrafian; halatan, multzo heterogeneoa eta nahasia aurkezten zaigu, Goi Paleolitos aldian eta azken Historiaurrean kokatu beharreko materialekin.

Era berean, sukarran landutako harrizko tresnen hondakinak bildu ditugu han eta hemen, testuinguru jakin batera mugatzeko aukerarik gabe, azken Historiaurrean zehar Igeldoko hileta izaerako erabilera eremura ez bada. Gainera, uste baino aurkikuntza gutxiago egin ditugu, proiektuari ekin genionean uste genuena baino barreiatuago eta hautematen zailago aurkeztu baitzaizkigu jendeguneak.

*During the archaeological monitoring of the works to install new infrastructure networks in Heredia and which were affecting the area around its Parish Church, a series of archaeological remains, which had been located in situ, were excavated and documented immediately. They consisted of the remains of two burial mounds –already in an advanced state of deterioration as only the top part had been preserved– which can be ascribed to the High Medieval necropolis of San Cristobal; an ossuary belonging to an unspecified era; a secondary inhumation of remains, the origin of which could be medieval; and, what was more surprising, a highly interesting midden of the late Roman era with a wealth of archaeological material of the aforementioned chronology.*

Heredian azpiegitura sare berriak instalatzeko proiektu bat aurkeztu zenez eta proiektu honek Barrundiako udalerriko 15. zenbakiko ustezko gune arkeologikora biltzen den parrokia-elizaren ingurua ukitu behar zuenez, nahitaezko jarraipen arkeologikoa egin behar zen eremu honetako lurak altxatzeko orduan.

Obra horien arabera, elizaren perimetroan hainbat zanga irekiko ziren argindarra, telefonia eta gasa instalatzeko, eta lan horiek ustezko gune arkeologiko osoa ukituko zuten.

Halatan, obren gaineko kontrol arkeologikoetan hainbat aztarna arkeologiko hauteman genituen in situ. Beraz, obrek ukitutako eremuan berehala hasi ginen induskatzen eta agerian geratutakoak dokumentatzen.

Kasu bitan, eraikin erlijiosoarekin zerikusia zuten elementuak ziren, honakoak zehatz adierazteko:

Elizaren ekialdean irekiriko zangan in situ zeuden bi hilobi geratu ziren agerian, bata bestearen gainean, biak aski hondatuta bertan lehenagotik bururatutako obren ondorioz; hilobien beheko parteak baizik ez ziren kontserbatzen. Harri xabalez egindako hilobiak ziren, egungo zoladura-mailen azpian egokituak, zuzenean harrizko geruzaren gainean. Aipatutako hilobi egitura hauek puskatuta zeuden erabat, eta haiei leku egiten zieten hobiak trinkotasun ertaineko betegarri buztintsuak, kolorez marroi grisaxkan, induskatuak ziren. Hobiak ere oso ukitututa zeuden elizaren inguruan lehendik egindako azpiegitura lanen ondorioz. Hilobiak ekialdetik mendebalderako egokieran zeuden, buruak mendebaldean. Artean kontserbatzen ziren hondakinak erabat induskatu eta dokumentatu ondoren, hondakinak prozesatu eta aztertu genituen. Lourdes Herrastik eta Francisco Etxeberriak hilobiek bururatutako azterketak honako emaitzak eskaini zituen:

1. hilobia: gizabanako heldu baten eskeleto apendikularren behe atalaren hondakinak, sexua ezin zehazta daitekeela. Tibietako batean seguru asko trauma baten ondorioa dena hautematen da.

Debido a la existencia de un proyecto para la instalación de nuevas redes de infraestructuras en Heredia, que iba a afectar también al entorno de la Iglesia parroquial de esta localidad, zona de presunción arqueológica nº 15 del municipio de Barrundia, se hacía necesario el seguimiento arqueológico de los trabajos de remoción de tierras en este área.

Las obras preveían la apertura de una serie de zanjas perimetrales a la Iglesia, para la instalación de electricidad, telefonía y gas, que iban a afectar a todo el entorno de dicha zona de presunción.

Así, durante el control arqueológico de las obras, se detectaron una serie de restos arqueológicos in situ, a cuya excavación y completa documentación se procedió de forma inmediata en la zona afectada por las obras.

Se trataba en dos de los casos de evidencias relacionables con el edificio religioso, concretamente:

En la zanja realizada en la parte este de la iglesia, se pusieron al descubierto los restos de 2 enterramientos in situ, situados uno sobre el otro y ya muy afectados por anteriores obras en la zona, de forma que sólo se conservaba la parte inferior de los mismos. Inhumados en tumbas de lajas bajo el nivel de los pavimentos actuales y directamente sobre el sustrato rocoso. Dichas estructuras funerarias se conservaban en estado muy fragmentario y sus correspondientes fosas habían sido excavadas en un relleno arcilloso de compactación media y coloración marrón grisácea, ya muy afectado por anteriores obras de infraestructura en el entorno de la Iglesia. Los enterramientos tenían orientación E.-W., de forma que la cabeza habría estado situada al W. Tras la completa excavación de los restos que aún se conservaban y la documentación de los mismos, se procedió a su procesamiento y análisis. El estudio llevado a cabo por Lourdes Herrasti y Francisco Etxeberria, ha permitido determinar lo siguiente en relación a estos enterramientos:

Tumba 1: restos del esqueleto apendicular inferior de un individuo adulto, del que no es determinable el sexo, con una patología posiblemente traumática en una de las tibias.

2. hilobia: gizabanako heldu baten eskeleto apendikularren behe atalaren hondakinak, seguru asko emakumezko bati dagozkionak.

Aurkitutako hilobiak Erdi Aro mineko San Kristobal Parrokia-Elizako nekropoliari legozkioke, eta multzo zabalago baten atala osatuko lukete, nahiz eta interbenzio honetan bestelako aztarnarik in situ aurkitu ez dugun.

Elizaren hegoaldean egindako zangan, landare geruzaren azpian, hezurtegi bat aurkitu genuen. Kareharri handi batek (153 x 85 x 10 cm) estaltzen zuen. Hasiera betan harriaren azpian hilobi bat zegoela uste izan genuen, baina geroago bestelako hileta egitura bat zela egiaztatu ahal izan genuen. Izan ere, trinkotasun ertaineko betegarri buztintsu batean, kolorez marroi grisaxkan, induskatutako hobia izen, inguruko lurraren antzeko lurrez betea eta lotura anatomikorik gabeko hondakin antropologikoekin, jatorrizko ehorzlektuik ekarriak, hau da, bigarren egokiera batean. Datu estratigrafikoetan oinarrituta, ez dago zehazterik zein unetan osatu zen hezurtegi hau, baina seguru asko Erdi Aroko San Kristobal elizako nekropolia eraldatu zuten garaikoa da. Egitura hau 90 cm-ko sakonera mailaraino induskatu eta dokumentatu ondoren, aurkitutako hondakinak prozesatu eta aztertu genituen.

Bukatzeko, jarraian azalduko dugun aurkikuntza da guztietan harrigarriena eta interesgarriena. Izan ere, Iler XXXIV biderearen inguruan erromatarren garaiko aztarnategi bat aurkitu genuen kronologia horretako finkamendu baten presentziarik ez genuen eremu jakin batean.

Halatan, elizaren ipar-mendebaldeko zangan, gure garaiko zola sail baten azpian zuzenean harrizko geruza ageri zen eremuari, buztin plastiko eta trinkoko betegarri lodi bat ageri zen, kolorez marroigrisaxka, maila bien artean. Betegarrian kareharri ugari zeuden, era anarkikoan egokiturik, baita landare-ikatzen hondakinak eta, tarteka, deskonposatutako adobeak, betegarrinari alde batzuetan kolore gorriak ematen ziona. Harriak eratzen zuen aska baten moduko sakonunea betetzen zuen betegarriak. Aska 10,50 metro luze zen eta 1,50 m-ko zabalera induskatu ahal izan genuen, zangaz harantz hedatzen baitzen. Aska edo zanga hau 1,10 metro sakon zen gehienez. Aipatutako betegarrian erromatarren azken garaiko aztarna material ugari aurkitu genituen: zeramikak (T.S.H.T., arrunta), eraikuntzarako materiala (adreiluak, horien artean aipagarri oinbikoak, teila txikiak, adobeak), beirazko ontziak, metalezko objektuak, hezurrean landutako objektuak, fauna hondakinak eta beste. Geruzaren ezaugarriek eta materialaren egokierak adierazten digute aurkitutako hondakinek erromatarren azken garaiko zabortegia osatzen zutela, K.o. v. mende hasiera aldera osatuko zen zabortegia.

Tumba 2: restos del esqueleto apendicular inferior de un individuo adulto, probablemente femenino.

Los enterramientos localizados, corresponderían a la necrópolis plenomedieval de la Iglesia Parroquial de San Cristóbal, y formarían parte de un conjunto más amplio del que durante esta Intervención no localizamos más evidencias in situ.

En la zanja realizada en la parte S. de la iglesia se localizó, bajo la cubierta vegetal, un osario. Estaba cubierto por una gran losa caliza (153 x 85 x 10 cm.) que, en principio, hizo pensar en la presencia subyacente de una tumba, si bien luego pudo comprobarse que se trataba de otro tipo de estructura funeraria. En efecto, consistía en una fosa excavada en un relleno arcilloso de compactación media y coloración marrón oscura, colmatada por una tierra similar a la de su entorno pero que contenía restos antropológicos sin conexiones anatómicas, inhumados en disposición secundaria desde su lugar de enterramiento originario. No es posible precisar en base a los datos estratigráficos el momento cronológico en que se creó este osario pero, muy probablemente, correspondería a una alteración de la necrópolis medieval de la Iglesia de San Cristóbal. Una vez excavada esta estructura hasta una profundidad de 90 cm. y tras su documentación, se procedió al procesamiento y estudio de los restos localizados.

Finalmente, el hallazgo que vamos a exponer ahora es, sin lugar a dudas, el más sorprendente e interesante, ya que ha supuesto la localización de un nuevo yacimiento de época romana en el entorno de la vía Iler XXXIV en un área concreta donde no se tenía constancia de la presencia de un asentamiento de esta cronología.

Así, en la zanja de la parte NW. de la iglesia, en la que bajo una serie de soleras correspondientes a pavimentaciones de época reciente aparecía directamente el sustrato rocoso, se detectó la presencia zonal entre ambos niveles de un potente relleno de arcillas plásticas y fuertemente compactadas de coloración marrón-grisácea, con inclusión de abundantes piedras calizas anárquicamente dispuestas, de restos de carbón vegetal y, puntualmente, de adobe descompuesto que daba zonalmente coloraciones rojizas al relleno. Éste, colmataba una zona en la que la roca definía una depresión natural a modo de cubeta, con una longitud de unos 10,50 m. de longitud y de la que se pudo excavar una anchura de 1,50 m., ya que continuaba extendiéndose fuera de la zona afectada por la zanja. La profundidad máxima de la fosa era de 1,10 m. En el relleno ya descrito se localizó un elevado número de evidencias materiales de época romana tardía: cerámica (T.S.H.T., común), material constructivo (lateres, entre los que destacaríamos los bipedales, imbrices, adobe), recipientes de vidrio, objetos metálicos, objetos sobre hueso, fauna, etc. Las propias características del estrato y la forma en que se disponía el material, nos permiten concluir que los restos hallados podrían corresponder a un basurero de época romana tardía, que concretamente se habría formado en torno a principios del siglo v d.C.

Halatan, Heredian bururatutako lanek zuzeneko eragina izango zuten honako atal hauetan:

- Erromatarren azken garaiko ustezko zaborte-gian, harrian era naturalean osatutako hobia betetzen zuten zabortegian.
- Erdi Aro mineko 2 hilobietan, lehenagotik egingako obrek nahasita zeuden hilobietan. Egitura hauek Erdi Aro mineko San Kristobal elizako nekropolikoak izango ziren.
- Ezin zehazta daitekeen hezurtegi batean, baina ez bere osotasunean. Seguru asko aipatutako nekropolitik ateratako hondakin antropologiko batzuen bigarren ehorzketari dagozkio aztarna hauek.

Hondakin arkeologiko hauen gaineko eragin arkeologiko negatibo eta atzera ezina gure ustez arindu egin da neurri zuzentzaileak aplikatuta, hau da indusketa lanak, dokumentazio lanak eta azterketa lanak eginda.

Así, las obras llevadas a cabo en Heredia, habrían afectado de forma directa:

- A parte de un posible basurero de época romana tardía que aparecía colmatando una fosa natural de la roca.
- A los restos ya muy afectados por obras anteriores, de 2 inhumaciones de época plenomedieval, adscribibles a la necrópolis plenomedieval de la Iglesia de San Cristóbal.
- A un osario de época indeterminable, aunque no en toda su potencia. Enterramiento secundario de unos restos antropológicos extraídos –muy probablemente– de la misma necrópolis.

Consideramos que el impacto arqueológico negativo e irreversible que pudiera haberse dado sobre estos restos arqueológicos, ha sido paliado con la inmediata aplicación de medidas correctoras, consistentes en la excavación y completa documentación y estudio de los mismos.

*Idoia Filloy Nieva*

#### D.1.1.3. **Harrian induskatutako dolareak, Labastidan**

I. kanpaina  
Zuzendaritza: Jose Rodríguez  
Fernández  
Diru-laguntza emalea: Labastidako  
Udala

#### D.1.1.3. **Lagares excavados en roca en Labastida**

I Campaña  
Dirección: Jose Rodríguez  
Fernández  
Subvención: Ayuntamiento de  
Labastida

*Within the municipal jurisdiction of Labastida no fewer than 71 wine presses have been located. They had been excavated in rock distributed throughout the natural environment and preserved with difficulty between outcrops of sandstone, which have not yet been destroyed by the massive rotovating work performed during the last few decades as a result of the huge grape and wine-growing monoculture. These structures, which are very simple and not generally very well known, are linked to the most archaic forms of wine making. This may account for the fact that the formal study of them has been ignored by historians.*

*The aim of the work presented here –the first of a possible additional season that will complete the analysis– is to restore the prominence that these forms of production deserve. Their origins, which are buried deep in high medieval types of settlement and use of space, predate the general high medieval urban development process.*

*Their use appears to have spanned the period from at least the 9th and 10th centuries until the 16th-17th centuries when they were gradually replaced by presses and wine cellars that were more convenient and better suited to the higher quality of the wines to be found in the town.*

26 gune edo multzotan banatzen dira aurkitutako eta identifikatutako 71 dolareak. Lehenengo kanpaina honetan honako multzo hauetan bildu ditugu: Iscorta, Atxalde, Fonsagrada, La Torera, Las Piletas, Los Arenales, Marrarte, Mugazabal, ipar Montebuen, hego Montebuen, San Cristóbal eta Santurnia. Historia-arkeologia azterketa (dolareak amortizatzen dituzten betegarrien indusketa, azterketa tipologikoa eta metrikoa, dokumentuen eta bibliografien azterketa, etab.) dokumentazio topografikoa egiten genuen aldi berean bururatu genuen. Dokumentazio topografikoak dimentsio biko ereduak eta dimentsio hiruko bolumenak egitea, dolareak eta inguruak fisikoki

Los 71 lagares localizados e identificados se reparan en 26 localizaciones o grupos. En esta primera campaña han quedado integrados los siguiente conjuntos: Iscorta, Atxalde, Fonsagrada, La Torera, Las Piletas, Los Arenales, Marrarte, Mugazabal, Montebuen norte, Montebuen sur, San Cristóbal y Santurnia. El estudio histórico-arqueológico propiamente dicho (excavación de los rellenos de amortización de los lagares, análisis tipológico y métrico, vaciado documental y bibliográfico, etc.) se desarrolló en paralelo a la documentación topográfica que incluía la realización de modelos bidimensionales y volumétricos tridimensionales, la recuperación física

berreskuratzea eta etorkizunean turismo ibilbide batzuk antolatzeke xedean informazio izaerako seinale eta panel batzuk paratzea zekartzan berekin batera. Helburu nagusia –historia hobea ezagutzeaz gainera– azterketa historikoaren bidez ondare multzoari balio handiagoa ematea da, azken batean gizarteari eta batez ere Bastidako biztanleei itzultzeko, azken hauek baitira euren iragan materiala berreskuratzearen onuradun nagusiak. Bastidako udalak bultzatuta, Victorino Palacios Mendoza izan da proiektuaren zuzendari, eta berekin batera hainbat profesional izan dira lanean: Jose Rodríguez Fernández (arkeologoa); Amaia Mesanza Moraza eta Paula Fernández de Ortega Elejalde (topografoak); Ángel Martínez Montecelo (marrazkilaria); Jesús González Doyague eta Manuel Jiménez Gabarre (langileak).

### ***Konplexuen ezaugarri tipologikoak: ardogintza***

Aztertutako hamabi ardandegietan 28 dolare bereizi genituen. Horietatik 26 zapaltze soileko dolareak ziren. Hau da, ez zuten prentsatzeko prozesuari laguntzeko mekanismo antropikorik behar, muztioa hustubidetik/hustubideetatik erortzen zen ontzira askan mahatsa zuzenean zapaldu eta gero. Soilik bi dolaretan dokumentatu genuen arkeologikoki aspaldian prentsatzeko sistemak zeudela: Santurnian habe handiekin hornituriko prentsa zegoen, eta ipar Montebueñan torlojudun prentsa bat zegoen, bertikalean jarduten zuena.

Areago, ia zalantzarik ez dago Santurnian zapaltze soileko dolarearen ondoan habedun edo «erromatar» dolarearen bat zegoela. Beraz, ekoizpenaren ikuspuntutik, aniztasun eta hierarkizazio bat erakusten duen ale bakarra da. M<sup>a</sup>. José García Soler egileak prozedura ezberdin hauen berri ematen digu, garai klasikoak geroztik gure garaira arteko ardogintzan erabiliak <sup>10</sup>. Mahatsa zapaltzearen ondorioz lortutako muztioa askoz ere garbiagoa eta argiagoa da (jario-ardoa), eta beste muztioekin nahasteko edo kontserbatzeko eta aparte kontsumitzeko erabiltzen da. Prentsatzeko prozesutik lortutako muztioa gogorragoa eta garratzagoa da, ez da hain gozoa, zukuaren, azalen eta fruituen arteko marruskadura eta elkarreraginaren ondorioz. Zenbaitetan, olioarekin egiten den bezala, ur beroa gehitzen zitzaion oreari eta hirugarrenez igaroarazten zen prentsatik, kalitate apalagoko hirugarren muztioa lortzeko xedean.

Nolanahi ere, kalitate apaleko ardo gogorrak izango ziren, eta zaporea erabat baldintzatuta egongo zen haren kontserbazioa luzatzeko eransten zioten karea, klera eta igeltsuarekin, alkohola moteltzeko eta dastamena goxatzeko eztiarekin edo urarekin, zahagi edo zahato iragaitzan edukita ardoak bere egiten zuen gantz edo bike za-

del/los lagar/es y su entorno natural, y la preparación de una señalización y panelación de carácter informativo para crear posteriormente una serie de rutas turísticas. El objetivo último –además del aumento del conocimiento histórico– es la puesta en valor del conjunto patrimonial a través de su estudio histórico, para devolverlo por último a la sociedad y, sobre todo, a los habitantes de Labastida –principales beneficiarios de la recuperación de su pasado material–. Auspiciado por el ayuntamiento de Labastida, el proyecto ha sido dirigido por Victorino Palacios Mendoza, con la participación de varios profesionales: Jose Rodríguez Fernández (arqueólogo); Amaia Mesanza Moraza y Paula Fernández de Ortega Elejalde (topógrafos); Ángel Martínez Montecelo (dibujante); Jesús González Doyague y Manuel Jiménez Gabarre (peones).

### ***Características tipológicas de los complejos: elaboración del vino***

Los doce complejos vinícolas estudiados suponen un total de 28 lagares. De ellos, 26 son lagares de pisado simple. Es decir, no necesitan de un mecanismo o artefacto antrópico para ayudar al prensado sino que el mosto va cayendo a través del/los canal/es hacia el torco o depósito de recepción debido a la acción de pisar directamente la uva en la pileta. Únicamente en dos casos contamos con la seguridad de la antigua existencia de sistemas de prensado documentados arqueológicamente: en Santurnia hubo una prensa de viga de amplias dimensiones, mientras que en el caso de Montebueña norte 3 la prensa era de husillo y empuje vertical.

Más aún, en Santurnia cohabitaron casi con total seguridad un lagar simple de pisado y la prensa de viga o «romana». Por lo tanto, es el único ejemplar que parece contar con una diversificación y jerarquización de la producción. La autora M<sup>a</sup>. José García Soler ya nos habla de estos diferentes procedimientos, presentes en la elaboración desde la época clásica hasta la actualidad <sup>10</sup>. El mosto extraído del pisado era mucho más limpio y claro (vino de lágrima), empleándose bien para mezclar con otros mostos, bien se conservaba y consumía aparte. El mosto resultado del prensado es más duro y ácido, menos dulce, debido a la interacción y fricción entre el zumo, hollejos y frutos. En ocasiones –también sucede con el aceite– se iba añadiendo agua caliente a la pasta resultante que se pasaba una tercera vez por la prensa, obteniendo un tercer mosto de menor calidad.

En cualquier caso, debemos imaginar unos caldos duros y de escasa calidad, mediatizado su sabor por ciertos ingredientes como el yeso, tiza, cal, etc. que se podían añadir para aumentar su conservación, miel o agua para rebajar y endulzar el paladar, regusto a sebo o pez que tomaba el vino por el contacto con el odre o pe-

<sup>10</sup> GARCÍA SOLER, M<sup>a</sup>. JOSÉ, «El vino en la antigua Grecia» (Ardoa Grezia zaharrean), SANTOS, JUAN (Ed.), *La Rioja, el vino y el camino de Santiago (Errioxa, ardoa eta Donejakue bidea)*. Mahatsaren eta Ardoaren Historia eta Kulturaren Nazioarteko I Kongresua, Santxo Jakituna Fundazioa, Gasteiz, 1996, 134-136. orr.

<sup>10</sup> GARCÍA SOLER, M<sup>a</sup>. JOSÉ, «El vino en la antigua Grecia», SANTOS, JUAN (Ed.), *La Rioja, el vino y el camino de Santiago. Actas del I Congreso Internacional de la Historia y Cultura de la Vid y el Vino*, Fundación Sancho el Sabio, Vitoria / Gasteiz, 1996, pp.134-136.

porearekin, ligen presentziarekin (ez zen gaur egun bezain bestetan ontzizaldaten), edo ardoa animalien odolarekin eta hezurrekin egosteko ohiturarekin, sendoagoa izan zedin<sup>11</sup>. Familia ardogile ospetsuko kide Samaniego elezahar idazleak aro modernoaren amaieran deskribatzen zuen ardo «*latz eta zakarrak*» kalitatearen ikuspuntutik ez zuen jauzi handirik egingo XIX. mendera arte, ardogileek Bordeleko metodoak bere egin zituzten arte. Haize zabaleko ardandegi zaharkitu hauetan egiten zuten ardoak antz handiagoa zuen egungo ardo gorriarekin, izan ere, ez zuten behar bezala beretzen hura egitean eta biltegitratzean. Kolorea eta gorputza arestian adierazitako nahasketetatik etorriko ziren, edo liga eta azalekin batera denbora luzeagoan egonda.

Prentsatzeko sistema biek berezko zituzten arraidura eta zuloez gainera, interpretatzen zailagoak diren beste batzuk bereizi ditugu. Dolare batzuen ondoan ageri diren depositu lauangeluar txiki batzuez ari gara (Isorta 1, San Cristóbal eta seguru asko Mugazabal), egile batzuen arabera ardoa garraiatzeko zahagiak betuneztatzeko beharrezkoa zen bikea edo gantza berotzeko eta prestatzeko xedean zorian induskatutako zuloak direnak.

Habitat hauek soilik ekoizpenari emanak ziren, inoiz ere ez zuten egoitza izaerarik (dolareetan ere ez da aldi baterako egoitza arrastorik hautematen). Logikoaenez, dolareak mahastietatik hurbil egongo ziren, eta jarraian ikusiko dugun bezala, egoitza aldeetatik gertu.

Dolare edo «*trujal*» hauek *torcular*, *torcularare*, *torcularia*, *troilare*, *lacus*, *lacum* eta *laco*<sup>12</sup> izenez ageri dira dokumentuetan. 959. urtean jada torquolare antiquus<sup>13</sup> bat aurkitzen dugu San Millán de la Cogolla monasteriotik hurbil. Beti ageri dira mahastiei lotuta, fisikoki haien ondoan: «*Alia vinea ad illo troiare*»<sup>14</sup>. Nairako 1076. urteko foruan bertan adierazten da hiribilduko gizon guztiek, nor bere jabetzako lurretan, molendino, furno, torcularia eta nahi duen zernahi eraiki dezakeela<sup>15</sup>.

Era berean, goiz hasi ziren dolare edo lacus<sup>16</sup> direlakoak ahotan hartzen (XI. mendekoak dira aurre-

lejo impermeabilizado, presencia de heces o posos (no se trasegaba tan a menudo como en la actualidad), o incluso la costumbre de cocer el vino con sangre y huesos de animales para darle mayor consistencia<sup>11</sup>. El vino «*áspero y grosero*» que describía a finales de la edad moderna el fabulista Samaniego (procedente de una excelente familia de vinateros) no dará un salto de calidad importante hasta el siglo XIX, con la adopción de métodos bordeleses. El líquido elaborado en estos arcaicos centros al aire libre se parecía más al actual clarete, debido a la ausencia de una correcta maceración en la elaboración y posterior almacenamiento. La coloración y el curpo debían adquirirse por las mezclas comentadas o el contacto con las heces y hollejos durante más tiempo.

Junto con las rozas, hendiduras y orificios propios de los dos sistemas de prensado, hemos encontrado otros de mayor dificultad interpretativa. Tal es el caso de algunos pequeños depósitos cuadrangulares que aparecen junto a algunos lagares (Isorta 1, San Cristóbal y posiblemente Mugazabal) que algunos autores han asimilado a recipientes excavados donde calentar y preparar la pez o grasa necesaria para embetunar los pellejos u odres de transporte.

Si por algo podemos caracterizar estos hábitats es por su uso exclusivamente productivo, no habitacional (ni siquiera en los casos de las prensas se aprecian signos de habitación temporal). Lógicamente, debemos pensar en una situación del lagar junto a los viñedos de producción y, como veremos a continuación, cerca de las aldeas de residencia.

Estos lagares o «*trujales*» se detectan en la documentación por términos como *torcular*, *torcularare*, *torcularia*, *troilare*, *lacus*, *lacum* o *laco*<sup>12</sup>. Ya en el año 959 encontramos torquolare antiquus<sup>13</sup> en uno de los linderos del monasterio de San Millán de la Cogolla. Siempre aparecen ligados a viñas, físicamente junto a ellas: «*Alia vinea ad illo troiare*»<sup>14</sup>. En el propio fuero de Nájera de 1076 se prescribe que cada hombre de la villa, en su heredad particular, puede edificar molendinos, furnos, torcularia y cualquier cosa que quisiera<sup>15</sup>.

También tempranamente se comienza a hablar de lagos o lacus<sup>16</sup> (siglo XI las primeras menciones para el

<sup>11</sup> PORRES, ROSARIO, «De la hermandad a la Provincia (siglos XVI-XVIII)» /Hermandadetik Probintziara (XVI.-XVIII. mendeak), RIVERA, A. (Dir.), *Arabako Historia*, Nerea, Gasteiz, 2003, 200-201. orr.

<sup>12</sup> FERNANDO ANDRÉS BARRIO, «Trujales y lagares en la documentación medieval riojana y su relación con los lagares excavados en roca» (Trujal eta dolareak Erdi Aroko Errioxako dokumentazioan eta harrian induskatutako dolareekiko harremana), Internet.

<sup>13</sup> UBIETO ARTETA, A., *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)* (San Millán de la Cogollako kartularioa, 759-1076), Anubar ed., Valentzia, 1976, 93. or.

<sup>14</sup> Ibidem, 71. or. (1024. urtea).

<sup>15</sup> RODRÍGUEZ DE LAMA, I. *Colección diplomática medieval de La Rioja* (Errioxako Erdi Aroko bilduma diplomatikoa), Errioxako Ikaskuntza Institutua, Logroño, 1992, II. L., 89. or.

<sup>16</sup> FERNANDO ANDRÉS BARRIO, «Trujales y lagares en la documentación medieval riojana y su relación con los lagares excavados en roca» (Trujal eta dolareak Erdi Aroko Errioxako dokumentazioan eta harrian induskatutako dolareekiko harremana), Internet.

<sup>11</sup> PORRES, ROSARIO, «De la hermandad a la Provincia (siglos XVI-XVIII)», RIVERA, A. (Dir.), *Historia de Álava*, Nerea, Vitoria /Gasteiz, 2003, pp.200-201.

<sup>12</sup> FERNANDO ANDRÉS BARRIO, «Trujales y lagares en la documentación medieval riojana y su relación con los lagares excavados en roca», Internet.

<sup>13</sup> UBIETO ARTETA, A., *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, Anubar ed., Valencia, 1976, p.93.

<sup>14</sup> Ibidem, p.71 (año 1024).

<sup>15</sup> RODRÍGUEZ DE LAMA, I. *Colección diplomática medieval de La Rioja*, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño, 1992, T.II, p.89.

<sup>16</sup> FERNANDO ANDRÉS BARRIO, «Trujales y lagares en la documentación medieval riojana y su relación con los lagares excavados en roca», Internet.



neko aipamenak Errioxan), eta itxura guztien arabe-  
ra, ondo asko bereizten dira «*trujalak*» eta «*lago edo lacusak*». Azken hauek aurkitu ditugu lehen erreferentzietatik eraikin estaliei loturik ageri dira, eta Erdi Aroko hirigintzaren garapenarekin batera ugaltzen dira, «*trujalak*» mahastien ondoan, haize zabalean, ageri diren bitartean. Lago edo lacusak egun Arabako Errioxako herri guztietan kontserbatzen diren sotoei legezkieke<sup>17</sup>, trujalak haietan ere egon daitezkeen bitartean baina eskuarki mahastien ondoan dauden bitartean. Azken hauetan, eta aipamen zehatzik ezean, ez zuten makineriarik erabiltzen, edo izen generikoan adierazten zen.

Azken batean, oso bestelako jardueren isla dira: harpeetako dolareetan mahastien ondoan ekoizten zuten muztioa, eta isurkaria biltegira eramaten zuten, edo kontsumitzeko lekuetara. Sotoetako lago edo lacusen kasuetan, berriz, mahatsa herriraino garraiatzen zuten bertan zapaltzeko / prentsatzeko. Eta ez da batere kontu hutsala kontuan badugu ardoak transakzioak egiteko eta zergak ordaintzeko zuen balio ekonomikoa. Gainera, ez da soilik ardoa aprobetxagarria, Kalagorriko kabildoak Guardiako apaiz eta onuradunei 1332an egindako helegitean garbi ikusten denez, honako hau eskatzen baitie, emateko «*la cuarta parte de las vinazas de las huvas que vinieren e devan venir e pretenesçer de la deçima a los lagos comunales de las dichas eglesias de la guardia e de sus aldeas [...] asi como el quarto del vino dellas [...] pues todo nasçe e sale de las dichas deçimas de las huvas et el vino non se puede colorar nin adobar sin las vinazas*»<sup>18</sup>.

### **Ardandegietako ezaugarri tipologikoak eta metrikoak: jabetza**

Harrian induskatutako dolare gehienek eredu orokorrari erantzuten diote:

Aska edo zapaltzeko gainazal biribildua, hustubideranzko aldaparekin. Askotan muztioa irteten laguntzeko erreten txikiak edo alboetako janguneak bereizten dira. Betez besteko neurriak 1,6 metroko diametroa eta 0,17 metroko sakonera dira. Ale batzuetan inguru naturala aprobetxatzen da (oinplano irregularra), baina beste batzuk lauangeluarra dira edo bitarikoak. Bestalde, aipagarri dira ipar Montebuenako 5. eta 6. aleak: horietan ez dago beheratutako askorik, alboetako jangunek hartzen dute kanpoko ertz goratuaren lekua, zapaltzeko gainazala eratuz.

<sup>17</sup> REBECA MARINA LÓPEZ andreak gaia sakon aztertu du Guardiako kasuan «Cuevas, arquitectura subterránea en los cascos históricos medievales de Rioja alavesa» obran (Harpeak, zorupeko arkitektura Arabako Errioxako Erdi Aroko hiriguneetan), MARTÍNEZ DE OCIO, F. (Koor.), *Arabako Errioxa. Arabako Errioxako Historia Azterketen Bigarren Jardunaldiko Agiriak –kultura, artea eta ondarea–* A.F.A., Gasteiz, 2003.

<sup>18</sup> SAINZ RIPA, E., HERNÁEZ IRUZUBIETA, V., *Documentación calagurritana del siglo xv. Archivo Catedral* (xv. mendeko Kalagorriko dokumentazioa. Katedraleko Artxiboa), Errioxako Ikasketza Institutua, Logroño, 1995, I. Lib., 239. or.

ámbito de la Rioja), y parece ser que la distinción entre «*trujales*» y «*lagos*» es clara. Los últimos se asocian desde las primeras referencias que hemos encontrado a edificios cubiertos y toman auge en paralelo al desarrollo urbano medieval, mientras que los «*trujales*» están a pie de viña. Los lagos se corresponderían con los que actualmente se conservan en los calados o bodegas de todas las poblaciones de Rioja alavesa<sup>17</sup>, mientras que los trujales se pueden encontrar en ellos, pero están por lo corriente en el campo y debemos sobreentender ante la ausencia de menciones explícitas que, o bien carecían de maquinaria, o bien se contiene en la definición genérica.

En definitiva, se trata de dos actuaciones muy diferentes: en los lagares rupestres se produce el mosto junto a la viña y se transporta de esta forma hacia el lugar de almacenamiento y consumo, mientras que en los lagos de las bodegas se debe transportar las uvas hasta la población y realizar el pisado / prensado allí. No es en absoluto una cuestión baladí si hablamos de la función del vino como valor económico-monetario para transacciones e impuestos. Además, no sólo el vino es aprovechable, como vemos claramente en una reclamación que hace el cabildo de Calahorra a los clérigos y beneficiados de Laguardia en 1332, solicitando que les entreguen «*la cuarta parte de las vinazas de las huvas que vinieren e devan venir e pretenesçer de la deçima a los lagos comunales de las dichas eglesias de la guardia e de sus aldeas [...] asi como el quarto del vino dellas [...] pues todo nasçe e sale de las dichas deçimas de las huvas et el vino non se puede colorar nin adobar sin las vinazas*»<sup>18</sup>.

### **Características tipológicas y métricas de los complejos: propiedad**

La mayoría de los lagares excavados en la roca cumplen con el canon generalizado:

Pileta o superficie de pisado redondeada, con pendiente más menos acusada hacia el canalillo. En muchas ocasiones encontramos pequeñas rozas o rebajes laterales para ayudar a evacuar el mosto. Dimensiones medias alrededor de 1,6 metros de diámetro y 0,17 metros de profundidad. En algunos ejemplares se aprovecha el contorno natural (planta irregular) y otros son cuadrangulares o mixtos. Por último, resaltar los ejemplos de Montebueno norte 5 y 6: No existe una verdadera pileta hundida, sino que los rebajes laterales sustituyen a los bordes exteriores realzados, configurando la superficie de pisado.

<sup>17</sup> REBECA MARINA LÓPEZ ha tratado el tema con profusión para el caso de Laguardia, en «Cuevas, arquitectura subterránea en los cascos históricos medievales de Rioja alavesa», MARTÍNEZ DE OCIO, F. (Coor.), *Rioja alavesa. Actas de las Segundas Jornadas de Estudios Históricos de la Rioja Alavesa –cultura, arte y patrimonio–*, D.F.A., Vitoria, 2003.

<sup>18</sup> SAINZ RIPA, E., HERNÁEZ IRUZUBIETA, V., *Documentación calagurritana del siglo xv. Archivo Catedral*, Instituto de Estudios Riojanos, Logroño, 1995, Vol.I, p.239.

Erretenak (zenbaitetan bi izaten ziren), tutu erdiko sekzioarekin eta laburra, aska eta muztioa jasotzeko ontzia batzen ditu. Ale batzuetan ez dago erretenik, eta isurkaria zuzenean iristen da askan barna ontziraino (La Torera 4 eta Los Arenales 2, geroago handitutako eta aprobetxatutako aska eta elementuak).

Muštioa jasotzeko ontziari dagokionez, hasteko esan dezagun ale batzuetan ez dela horrelakorik, eta muštioa zuzenean ontzi eramangarri batean biltzen zutela (Fonsagrada, Iscorta 1). Dolare talde batek ontzi faltsu deritzoguna dute (erabat itxi gabeko depositua), eta muštioa jasotzeko ontzi eramangarria erabiltzeko oinarri edo berme gisa erabiliak ziren. Hala eta guztiz ere, ale gehienetan ontzia depositu itxia zen, hondo ahurrekoa (batzuetan erdialdean erreten edo zulotxo batekin), ezpurutasunak jariatzeko. Geroago lortzen da muštioa eta zahagietara edo garraiatzeko eta biltegitartzeko pegarretara. Oro har oinplano angeluzuzenekoak dira, ertz biribilduekin (1 x 0,5 x 0,4 metro), batzuetan arrautza itxurakoak, polit askoak (Los Arenales), eta besteetan angelu ondo zehaztuekin (Los Arenales 3, La Torera 1, Montebuenaa 5 eta 6).

Historiara hurbiltzeko garrantzitsuagoa da, agian, aska eta muštioa jasotzeko ontziaren neurri txikiari erreparatzea, izan ere, ekoizpenaren bolumenari buruzko datuak eskaintzen dizkigute eta, beraz, ardoaren ustiapen ereduari buruzko datuak. Remelluri Etxeak San Cristóbal dolarean 1992an bururatutako jardueraren enpiriko batzuek<sup>19</sup> eta dolarearen eta ekoizpen gaitasunaren inguruko kalkulu erraz batzuek (dolareen neurrien eta mahatsaren ekoizpenaren arteko lotura kontuan harturik) nekazaritza ustiapen txikietara garamatzate, dolareak mahastien ondoan egongo zirela.

Ildo honetatik, aurkeztutako datuak ondo txertatzen dira historiagileek Erdi Aroko eta berpizkundeko Arabari begira planteatzen diguten panorama orokorrean<sup>20</sup>. Izaera familiarreko edo herri izaerako nekazaritza ustiategi txikiak ziren, birkonkistaren ostean herrien hazkundearekin batera garatuko zirenak; lehenik monasterioen edo nobleen aginpideen mendeko herrixken arabera, eta gero politika berrantolatzen duten eta lu-

El canal (a veces dos), con sección en media caña y corto desarrollo, comunica pileta y torco. En algunos ejemplares simplemente no existe y el líquido resbala directamente por la pileta hacia el torco (La Torera 4 o Los Arenales 2, elementos con pileta ampliados y reaprovechados más tarde).

En cuanto al torco, primeramente advertir que algunos ejemplares carecen de él y recogen el mosto directamente en un recipiente portátil (Fonsagrada, Iscorta 1). Un grupo de lagares presentan la modalidad que llamamos falso torco (depósito sin cerrar completamente), sirviendo de base o apoyo para, también, utilizar recipiente portátil de recogida. En la mayoría de los ejemplares, sin embargo, existe el torco como depósito cerrado y fondo cóncavo (incluso con un orificio o roza central) para decanar impurezas. El mosto se extrae más tarde y se lleva a los odres, pellejos o tinas de transporte y almacenamiento. Por lo común, tienen forma en planta rectangular con esquinas redondeadas (1 x 0,5 x 0,4 metros), aunque hay algunos casos de bella factura oval (Los Arenales) y otros de angularidad bien definida (Los Arenales 3, La Torera 1, Montebuenaa 5 y 6).

Tal vez más importante si cabe para la contextualización histórica resulta el relativo escaso tamaño de la pileta y torco, que nos aportan ciertos datos acerca del volumen de producción y, por lo tanto, del tipo de explotación vinícola. Algunas actuaciones empíricas que se han llevado a cabo por parte de la Granja Remelluri en el lagar de San Cristóbal hacia 1992<sup>19</sup> y ciertos cálculos no muy complicados relativos a capacidad del lagar y producción nos remiten (mediante una cierta lógica correspondencia entre el tamaño de los lagares y la producción de uva) a pequeñas explotaciones agrarias con el lagar a pie de viña.

En este sentido, los datos mostrados encajan perfectamente con el panorama general que nos ofrecen los historiadores para la Álava medieval y renacentista en general<sup>20</sup>. Existencia de pequeñas explotaciones agrícolas de carácter familiar o comunal que, tras la reconquista, van extendiéndose paralelamente a las formas de poblamiento; primero pequeñas aldeas sujetas a centros de poder monásticos o nobiliarios, más tarde

<sup>19</sup> EIZMENDI, J.M.<sup>a</sup>, RODRÍGUEZ, J., «Lagares rupestres en labastida de Álava» (Harpeetako dolareak Arabako Bastidan), SANTOS, JUAN (Ed.), *Errioxa, ardoa eta Donejakue Bidea. Mahatsaren eta Ardoaren Historia eta Kulturaren Nazioarteko I Kongresua*, Santxo Jakituna Fundazioa Gasteiz, 1996, 178. or.

<sup>20</sup> Interesgarri diren obra batzuk aipatzearen: GARCÍA FERNÁNDEZ, E., «Clérigos, caballeros, «burgueses y campesinos en la alta Edad Media» (Apaizak, zaldunak, burgesak eta nekazariak Goi Erdi Aroan), RIVERA, A. (Dir.), *Arabako Historia*, Nerea, Gasteiz, 2003, 111-153. orr.; GARCÍA, E., LÓPEZ DE ULLIBARRI, F., DIAZ DE DURANA, J.R., *Labastida en la edad media: poblamiento y organización político-administrativa (s. x-xiii)* (Bastida Erdi Aroan: biztanleak eta antolamendu politiko-administratiboa, x.-xiii. m.), A.F.A., Gasteiz, 1990; DIAZ DE DURANA, J.R., *Álava en la baja edad media: crisis, recuperación y transformaciones socioeconómicas (c.1250-1525)* (Araba Behe Erdi Aroan: krisia, susperraldia eta gizarte-ekonomia aldaketak, c.1250-1525), A.F.A., Gasteiz, 1986; PORRES, ROSARIO, «De la hermandad a la Provincia (siglos xvi-xviii)» (Hermandadetik Probintziara, xvi.-xviii. m.), RIVERA, A. (Dir.), *Arabako Historia*, Nerea, Gasteiz, 2003.

<sup>19</sup> EIZMENDI, J.M.<sup>a</sup>, RODRÍGUEZ, J., «Lagares rupestres en labastida de Álava», SANTOS, JUAN (Ed.), *La Rioja, el vino y el camino de Santiago. Actas del I Congreso Internacional de la Historia y Cultura de la Vid y el Vino*, Fundación Sancho el Sabio, Vitoria / Gasteiz, 1996, p.178.

<sup>20</sup> Por mencionar algunas obras de utilidad: GARCÍA FERNÁNDEZ, E., «Clérigos, caballeros, «burgueses y campesinos en la alta Edad Media», RIVERA, A. (Dir.), *Historia de Álava*, Nerea, Vitoria /Gasteiz, 2003, pp.111-153; GARCÍA, E., LÓPEZ DE ULLIBARRI, F., DIAZ DE DURANA, J.R., *Labastida en la edad media: poblamiento y organización político-administrativa (s. x-xiii)*, D.F.A., Vitoria, 1990; DIAZ DE DURANA, J.R., *Álava en la baja edad media: crisis, recuperación y transformaciones socioeconómicas (c.1250-1525)*, D.F.A., Vitoria, 1986; PORRES, ROSARIO, «De la hermandad a la Provincia (siglos xvi-xviii)», RIVERA, A. (Dir.), *Historia de Álava*, Nerea, Vitoria /Gasteiz, 2003.

rraldea berriro administratzen duten errege-hiribilduen arabera.

Saturnino Ruiz de Loizagak, Arabako mendebaldeko mahastiei buruz egindako lanean, subserran gertatzen denaren aurreko erreferentzia gisa erabili behar diren datuak eskaintzen ditu –garai hartan antzeko ekoizpena edo zertxobait handiagoa izango baitzuen<sup>21</sup>–. 870 eta 1150 urte bitartean, dokumentaturiko mahats ustiategien bidez, 96 kasu ezberdin bereizten ditu: 5 erregearen edo Kondearen jabetza dira, 15 apezpiku edo nobleren batenak, 51 jabe txikiak, 16 presbiteroenak eta 9 abade edo fraideenak. Erdia baino gehiago nekazari jabe txikiak dira, ondotik datoz eliz ordezkariak direnak (alde honetan garrantzitsuak dira Valpueda eta Tobillasko monasterioak) eta, askoz ere neurri txikiagoan, nobleenak.

Hala eta guztiz ere, argi eduki behar dugu jabetzak ez duela errendimenduen erabateko jabetza esan nahi, ez eta gutxiagorik ere. Nekazariak beti egon ziren neurri handiagoan edo txikiagoan jaunaren boterearen mende, eta hauek espezieen bidezko ordainarazpenen bidez egiten zituzten bere soberakinen parte bat. «San Millaneko boto faltsuek» eta beste dokumentu batzuek Erdi Aroko Arabako lurralde historikoko eskualde geoklimatikoaren arabera ekoizpen espezializazioa adierazten dute<sup>22</sup>; Sonsierrako eskualdean (garai hauetan Bastidak, Guardiako, Labrazako eta San Vicente herriek beren lekuekin osatua) San Millan bezalako monasterio handiek «ogitan eta ardotan» eskatzen zizkieten errentak Tabuernigari eta Subserrari. Ordainketak ardotan egitea oso arrunta da edozein jardura ekonomikotan, eskualdeko dokumentazio historiko orotan jasota dagoen bezala.

Nolanahi ere, indusketa arkeologikoen emaitzen muga eragozpen dira arazo bat egokiro azaltzeko: dolareen eraikuntzak Erdi Aroko familia izaerako ustiakuntza baten bizimoduetatik urrundu egiten den inbertsioa eskatzen du. Kasu hauetan errendimendu handiagoak lortzeko ahalegin ekonomikoak biltzen dituen komunitate txiki baten sustatzailea den noble edo eliz botere batez ari gara ala, besterik gabe, zehatz datatzeko modurik izan ez dugun egitura modernoagoak al dira?

### ***Amortizazio betegarriak eta taila-markak: muga kronologiko batzuk***

Dolareetako jardura-azalera estaltzen zuten amortizazio betegarrien –hein batean erabilera mailak zigilatzen zituztenak– indusketa xehea ez da inolaz ere askiesgarria izan. Betegarriak antzekoak dira konplexu guztietan, jatorri naturaleko harea fineko maila bat be-

a villas de realengo que reordenan política y administrativamente el territorio.

Saturnino Ruiz de Loizaga, en su estudio sobre el viñedo en el occidente de Álava, ofrece unos datos que sin duda deben servir de referencia para lo que ocurre en la subserra, de similar o mayor producción en esas fechas<sup>21</sup>. Entre 870 y 1150 establece, a través de las explotaciones vinícolas documentadas, un total de 96 casos diferentes: 5 son propiedad real o de Conde, 15 de obispo o noble, 51 de pequeños propietarios, 16 de presbíteros y 9 de abad o monje. Más de la mitad de los casos son de pequeños campesinos propietarios, seguido de representantes eclesiásticos (importancia en la zona de los centros monásticos de Valpueda y Tobillas) y, en menor escala, el estrato nobiliario.

Sin embargo, debemos ser conscientes de que la propiedad no significa la posesión total de los rendimientos ni mucho menos. Siempre estuvieron los agricultores bajo el poder señorial en mayor o menor medida, que absorbían parte de los excedentes mediante exacciones en especie. Los «falsos votos de San Millán» y otros documentos indican una especialización productiva según las regiones geoclimáticas del territorio histórico alavés medieval<sup>22</sup>; para la región de la Sonsierra (en estas fechas Labastida, Laguardia, Labraza y San Vicente con sus lugares), los grandes centros monásticos como San Millán pedían las rentas en «pan y vino» a Tabuerniga y la Subserra. Los pagos en vino son muy usuales en cualquier tipo de actividad económica, presentes en toda la documentación histórica de la región.

Sin embargo, las limitaciones en los resultados de las excavaciones arqueológicas nos impiden explicar de forma satisfactoria una problemática: la erección de prensas supone una inversión que parece alejada de los modos de vida de una explotación familiar medieval. ¿Hablamos en estos casos de un poder nobiliario o eclesiástico como promotor, de una pequeña comunidad que aúna esfuerzos económicos para obtener mayores rendimientos o, sencillamente, son estructuras más modernas cuya cronología nos ha sido imposible datar con precisión?

### ***Rellenos de amortización y marcas de talla: algunos límites cronológicos***


La excavación minuciosa de los rellenos de amortización que cubrían la superficie de actividad de los lugares, sellando de alguna forma los niveles de uso, no ha sido en absoluto satisfactoria. Los rellenos son similares en todos los complejos, un nivel inferior de fina

<sup>21</sup> RUIZ DE LOIZAGA, S., *La viña en el occidente alavés en la alta edad media (850-1150)*. Cuenca Omeçillo-Ebro (Mahastiak Arabako mendebaldean Goi Erdi Aroan, 850\_1150. Omeçillo-Ebro artoa), Burgos, 1988.

<sup>22</sup> UBIETO ARTETA, A., (1976) (934. urtea, 12. dok.).

<sup>21</sup> RUIZ DE LOIZAGA, S., *La viña en el occidente alavés en la alta edad media (850-1150)*. Cuenca Omeçillo-Ebro, Burgos, 1988.

<sup>22</sup> UBIETO ARTETA, A., (1976), (año 934, doc.12).



Harrian induskatutako dolarea, oinplanoarekin, sekzioarekin eta hiru dimentsioko ereduarekin.

Lagar excavado en roca, con planta, sección y modelo tridimensional.

heko aldean (haizeak garraiatu eta utziak eta ur-korronteek arrastean eramanean) eta ondotik geruza gutxi gora-behera antropikoa, kasuren batean zeramikazko zatiki txiki hiru eskaini dizkiguna Los Arenalesen eta ipar Montebuenan, forjazko iltze txiki bat Santurnian eta totxo bat La Toreran: material hauek guztiak XIX. eta XX. mende hasiera artekoak dira, Los Arenalesko zeramikazko zatikia izan ezik, azken hau, zalantzak zalantza, XVIII. mendekoa izan baitaiteke. *Ante quem* garai oso berantiarrek dauzkagu, baita dolarea abandonatu ostekoak ere. Nolanahi ere, kronologiaren ikuspuntutik bederen, teknika frantsesak baliaturik ardoa bestela ekoizten eta merkaturatzen hasi ziren garaioak, teknika horiei esker asko hobetu baitziren ardo errioxarrak. Zoritxarrez, ez da Karbono 14ren bidez datazio absolutu bat eskaintzeko moduko hondakin organiko bakar bat ere kontserbatu (dolareetako zurak, mahats hondakinak, etab.).

Beste muturrean, kasu gehienetan kirtenik gabeko eta buru biribileko puntero (punta) edo buru lauho puntero (zizela) gisa identifikatutako taila markek (zeharkako perkusioa), datazio ona eskaini beharko lukete, betiere dolare eta prentsak eraikitzekeo prozesuari loturik. Hala eta guztiz ere, tresna bera eskualdeko nola erai-

arena de origen natural (transporte y deposición eólico y de arrastre hídrico) y, después una más o menos gruesa capa antrópica en algunos casos que nos ha proporcionado tres pequeños fragmentos cerámicos en Los Arenales y Montebuenan norte, un pequeño clavo de forja en Santurnia y un ladrillo macizo en La Torera: Todos los materiales son datables entre el siglo XIX y principios del XX, a excepción del fragmento cerámico de Los Arenales que puede llegar al siglo XVIII, con ciertas dudas. Tenemos unos periodos *ante quem* muy tardíos, posteriores incluso al abandono efectivo del lagar. En cualquier caso equiparables cronológicamente a la explosión de la producción y comercio tras la adopción de técnicas francesas que proporcionan un salto cualitativo a los caldos riojanos. Desgraciadamente, tampoco conservamos resto orgánico alguno (madera de las prensas, restos de uva, etc.) que permita una datación absoluta por la prueba del Carbono 14.

En el otro extremo de la horquilla, las marcas de talla identificadas en la inmensa mayoría de los casos como puntero de cabeza redonda (punta) o plana (cinzel), sin empuñadura (percusión indirecta), debieran ofrecer una buena datación, ligada sin duda a los procesos de creación de los lagares y prensas. Sin embargo, se

kin handiagoetan hala izaera herrikoi edo tradizionalagoetan<sup>23</sup>, erabiltzen jarraitu zutela dokumentatzen da Behe Erdi Arotik eta aro modernotik ia gure garaia arte.

Interesgarriagoa da punta biribilaren edo zizelaren erabilera kontrastatzea Sonsierrako nekropoli ugarietan banatutako harrietan induskatutako Erdi Aroko hilobietan. Elementu biek eraikuntza antzekotasun handia ageri dute, baina ez dute antzik antropologiaren eta funtzioaren ikuspuntuetatik. Kasu batzuetan fisikoki era jartzen dira harremanetan: San Andrés, Santa María de la Piscina eta Nuestra Señora de Remélluri kasuetan, hauetan XI.-XII. mendeetan dataturiko hilobi antropomorfoak berriro ere aprobetxatu baitzituzten dolare gisa baliatzeko. Eta hori zalantzarik gabe erlijio utzikeriaren aldi baten ostean gertatuko zen, zaila baita imajinatzen komunitate bera bere zenduei lur ematen eta, geroago, hilobi horiek ardoa egiteko erabiltzen. Honen bestez, ardoa haize zabalean egiteko tradizioak Goi Erdi Arotik aro modernora arte iraungo zuen.

### **Espazioaren azterketa: Bastida XIII. mendea baino lehen**

Harrian, haize zabalean, induskatutako dolareetan ekoizteko eraz ari garenean, kontuan eduki behar dugu tradizio historiko luzea duela jarduera molde horrek. Mediterraneo aldean K.a. lehenengo milurteketik dokumentatzen dira<sup>24</sup> eta, ardoa bezala, funtsezkoak izan dira ondoz ondo etorritako zibilizazioetako elikadura eta gizarte ohituretan<sup>25</sup>. Kristautasunarekin izaera sakratua hartzen du (jarduera erlijiosoari, errituari, dagokionez), kultura, elikadura, izpiritu eta ekonomia izaerako balioei erantsi beharrekoa. Erdi Aroko gizarteko funtsezko gaia da ardoa, alderdi guztietan, eta ardoaren azterketa eginez ardoa ekoizti eta kontsumitu zuten jendeak ezagutuko ditugu.

El periodo se inicia con la colmatación del foso a mediados del siglo xii (coincidiendo con el inmediato inicio de las obras del actual templo), primero mediante basuras de tipo doméstico y finalmente por medio de arcillas más compactas y limpias con las que se nivela el terreno.

Finalizada la nivelación –y mientras en las inmediaciones se está procediendo a la construcción del nuevo templo– en esta zona exterior van surgiendo algunas estructuras relacionadas muy probablemente con el nuevo proceso edificatorio y que han dejado como huellas algunas evidencias de carácter semirrupestre: fondos semiexcavados, depósitos, estancias de materiales perecederos sobre postes lígneos, etc.

Únicamente cuando se produce la densificación del ámbito cementerial excavado en 2004 (cfr. Arkeoikuska-04) comenzarán los enterramientos a extenderse hacia esta zona nororiental. En un primer momento esta ampliación se producirá de forma espontánea, como simple continuación de la necrópolis situada al este, junto al ábside actual de la basílica. Sólo en un momento posterior se procederá ordenadamente, creando un espacio cementerial de límites precisos, con al menos uno de sus laterales porticado.

De este primer cementerio pudieron documentarse los muros de cierre norte y este, con una serie de apoyos paralelos a este último, formando una galería porticada. Al interior se situaba la zona para las inhumaciones, con un camino interno enlosado y un canal de desagüe que evacuaba las aguas hacia el exterior del cementerio.

En un momento posterior, el camposanto fue objeto de una reforma que lo amplió, aumentándose la anchura de la zona porticada mediante el desplazamiento del muro oriental más hacia el este, moviendo para ello los apoyos hasta el punto que cupiera una nueva hilada regular de enterramientos. El muro norte se derribó, en cambio, para ampliar también el espacio hacia este lado. Todo ello respondía, obviamente, a una necesidad de espacio cementerial, como denuncia la extrema densificación de enterramientos hasta el punto que fue necesario amortizar el camino interior antes existente. Todo ello ocurrió en los siglos xii y xiv.

Más tarde aún se efectuó una nueva reforma del cementerio con una nivelación que elevaba la cota del suelo hasta el punto de amortizar el canal de desagüe preexistente y construir otro mejor adecuado a las nuevas cotas del terreno. El espacio porticado sigue funcionando en este momento. El número de enterra-



tatik aurrera bideratutako ehorzketen kopurua askoz ere apalagoa izango zen. Aldi berri honen ezaugarri nagusi bat, ez bakarra ordea, estalki bikoitzaren erabilera da, bata hilobiaren gaineko harri xabalez egindakoa eta bestea monolitikoa, kareharrizko lauza handia, guztia estaliz eta gainazalean agerian utziz.

xvi. mendean orain arte hizpide izan dugun ipar-ekialdeko hilerria betikoz amortizatzen zutela dokumentatzen da, egitura guztiak suntsitu eta eremu osoa berriro ere berdindu baitzuten. Alde honetako hileta izaerako jardueraren abandonatzea bat etorriko zen elizaren barrunbeko hilerri espazioari emango zioten erabilera esklusiboarekin.

Une horretatik aurrera, funtsean nekazaritza jarduerak dokumentatzen dira eta, tarteka, tenpluan bideratzen diren konponketa edo egokitzapen lanen eremu lagungarri gisa erabili izana. Horixe adierazten dute eraikuntza materialak (ura, karea) biltzeko eraikiriko putzu batzuek, geroago obretan sortutako zaborrei leku egiteko erabiliak izango zirenak.

### ***Zauriak eta trepanazioak***

Aurrerakin gisa baino ez, honekin batera hitzez hitz aurkezten ditugu Paco Etxeberriak kontu honen inguruan igorritako oharak.

#### ***Armentia Aroko ehorzketen inguruko aurreneko balioespak***

Indusketa arkeologikoko aldietan jada, giza hondakinen inguruko kontu esanguratsu batzuk geratu ziren agerian. Izan ere, ez dira ugari burezur trepanatuen aleak, Armentia Aroko nekropolia induskatzeko lanetan zehar aurkitu genuena bezalakoak.

Arabian orain arte beste burezur trepanatu bi eza gutzen ziren, biak Arabako Arkeologia Museoa denak ikusgai oso interesgarriak direlako. Kasu honetan Faidoko Virgen de la Peñako eta Erdoñanako San Millan ermitako Erdi Aroko hilobietan aurkituak izan ziren.

Esan dezagun Armentian orain arte hiru burezur trepanatu azaldu direla. Kasu bietan gizabanakoek bizirik jarraitu zuten, zulo biribiletako ertzak orbainduta daudela ikus baitaiteke (Armentia 22). Beste batean ez da orbaintzerik hauteman, baina kasu honetan deigarriena da aipatutako trepanazioa, «leiho» angeluzuzena irekita eginda, alde aurretik hautsitako lerro baten gainean egina dela (Armentia 81).

Horrek esan nahi du aipatutako trepanazioa ekintza terapeutiko gisa justifikatzen dela itxura guztien arabera. Medikuntzaren historian, Hipokratesen garaitik eza gutzen dira burezurra trepanatzeko argibideak, halako garrantzia zuten zauriak eta traumatismoak osatzeko xedean.

mientos realizados a partir de este momento, sin embargo, es mucho menor. Una característica mayoritaria, aunque no exclusiva, de este nuevo periodo es la utilización de una doble cubierta, una de lasjas sobre el enterramiento y otra monolítica, con una gran losa caliza, cubriendo todo ello y quedando expuesta en superficie.

En el siglo *xvi* se documenta la amortización definitiva del cementerio del nordeste que venimos comentando, arrasándose todas sus estructuras y nivelándose nuevamente toda la zona. El abandono de la actividad funeraria en esta zona ha de coincidir con el uso exclusivo del interior de la iglesia como espacio cementerial.

A partir de este momento se documentan básicamente actividades agrícolas y, esporádicamente, la utilización de la zona como área auxiliar para cuantas reformas se efectúan en el templo. Así lo denuncia la presencia de varios pozos construidos para almacenar materiales de construcción –agua, cal y usados posteriormente como vertederos del escombros generado por las propias obras.

### ***Heridas y trepanaciones***

Sólo a modo de avance, adjuntamos en su literalidad las notas remitidas por Paco Etxeberria sobre esta cuestión.


#### ***Primeras estimaciones relativas a los enterramientos medievales de Armentia***

Ya durante las fases de la excavación arqueológica, fueron apreciadas algunas cuestiones relevantes de los restos humanos. En efecto, no son muchos los ejemplos de cráneos trepanados como el que fue hallado durante la excavación de la necrópolis de Armentia.

De hecho en Alava se conocían hasta el presente dos cráneos trepanados que han sido expuestos en el Museo de Arqueología de Alava por su notable interés. Los hallazgos procedían, en este caso, de los enterramientos medievales de Virgen de la Peña en Faido y de la ermita de San Millán en Ordoña.

Lo cierto es que en Armentia han aparecido, hasta el momento, tres trepanaciones. En dos casos existe supervivencia tal y como se aprecia por la cicatrización en los bordes del orificio redondeado (Armentia 22). En otro más, no existe cicatrización y lo interesante del caso es que dicha trepanación, practicada mediante corte abriendo una «ventana» rectangular, se ha realizado sobre una línea de fractura previa (Armentia 81).

Esto significa que dicha trepanación parece justificarse como una acción terapéutica. En la historia de la Medicina se conocen desde Hipócrates las indicaciones para trepanar el cráneo en heridas y traumatismos de relativa importancia.



San Prudentzio Basilika, Armentian (Vitoria-Gasteiz). Osagilearen jardueraren aztarnak edo arma zurriak eragindako zaurien arrastoak dituzten burezurrak. Armentia 22: Eskuineko parietalean egindako trepanazio biribila. Zuloaren ertzetan orbaintze arrastoak hautematen dira, gizabanakoa luzaroan bizirik iraun zuelako seinale. Armentia 70: Haustura; kopeta-hezurra hondoratuta, gizabanakoak bizirik jarraitu zuen. Zuloaren ertz guztiak orbandu izanaren arrastoak ageri ditu. Armentia 74: Burezur honetan ezpatatz egindako bi zauri bereizten dira. Eskuinekoa scaplean egindako zauria da, gizabanakoaren heriotza eraginez; bestea zauri luzea da, ezker alde osoa hartzen duena, ezpata baten ahoak eraginda. Azken honek ere gizabanakoaren heriotza eragin zuen. Armentia 81: Ziztadaz eta ebaki batez egindako trepanazioa, kopeta-hezurrean. Gizabanakoaren heriotza eragin zuen.

Basilica de San Prudencio, en Armentia (Vitoria-Gasteiz). Distintos ejemplos de cráneos con evidencias de actividad médica o heridas por arma blanca. Armentia 22: Trepanación redondeada sobre el parietal derecho. Existen signos de cicatrización en los bordes del orificio por larga supervivencia. Armentia 70: Fractura; hundimiento en el hueso frontal con supervivencia. Todo el borde del orificio muestra signos de cicatrización. Armentia 74: Cráneo con dos heridas realizadas por espada. La de la derecha es una herida en scapla sin supervivencia; la otra es una larga herida incisa que recorre todo el lado izquierdo, producida por el filo de una espada y que ocasionó su muerte. Armentia 81: Trepanación realizada por incisión y corte sobre el hueso frontal sin supervivencia.

Arriskutsua da Armentia-ko trepanazio guztiak sendatzeko ekimen baten emaitza direla baieztatzea, baina kontua da aurreko guztiari burezurrek duten zauri-kopuru handia erantsi behar zaio; zauri horiek arma zorrotzekin eginak ziren.

Aurreko hori esanguratsua baldi bada ere hipotesi batzuk planteatzeko, burezurreko lesioek –bizirik iraun ala ez– hasitako ikerketa oso interesgarria egin duen erroka planteatzen digu.

Laborategian hondakinen lehenengo azterketa aldi-etan orain arte ikusi ditugun aleek portzentaje harrigarria erakusten dute, antzeko nekropolietan orain arte ezagututako portzentajeak baino askoz ere neurri handiagoan.

Resulta arriesgado asegurar que todas las trepanaciones de Armentia se deban a una acción curadora, pero lo cierto es que a todo lo anterior hay que añadir el abundante número de heridas que presentan los cráneos y que fueron provocadas con armas muy cortantes.

Si lo anterior es más que sugerente para plantear algunas hipótesis, la existencia de lesiones craneales con y sin supervivencia nos plantea un reto que hace sumamente interesante la investigación emprendida.

Los ejemplos vistos hasta el momento en las primeras fases de análisis de los restos en el laboratorio, representan un porcentaje sorprendente y muy por encima de lo conocido hasta el presente en necrópolis equivalentes.

Arabian ezpatatz egindako zauriaren adibide bakarra ezagutzen genuen, gizabanakoaren heriotza eragin zuena. La Monililako San Migeletoko nekropoliko kasuaz ari gara. Kasu hau Arabako Foru Aldundiak argitaratzen duen *Arabako aztarnategien memoriak* bildumako 7. alean eman zuten argitara.

Bada Armentian dagoneko hamar baino ale gehiago ezagutzen ditugu burezurretan zauri garrantzitsuak izan zituztenak; gehienek bizirik iraun zuten. Zauri hauek ebakiak eta kolpeak emateko gaitasun handiko armekin egingo zituzten, kasu batzuetan ebakiekin batera hausturak hautematen baitira (F. Etxeberria Gabilondo).

En Alava se conocía un ejemplo claro de herida realizada por espada y que provocó la muerte de forma inmediata. Se trata del caso de la necrópolis de San Miguele en La Molinilla que fue publicado en el número 7 de *Memorias de yacimientos alaveses* que edita la Diputación Foral de Alava.

Pues bien en Armentia contamos ya con más de diez ejemplos de heridas craneales importantes de los que la mayoría presentan supervivencia. La forma de producción de estas heridas sería por armas con gran capacidad de corte y contundencia ya que en algunos casos se acompañan con fracturas y hundimientos» (F. Etxeberria Gabilondo).

*Agustín Azkarate Garai-Olaun*

D.1.1.6. **San Frantzisko komentu desagertua. Olagibel kalea, 1-15 (Vitoria-Gasteiz)**

Zuzendaritza: Agustín Azkarate Garai-Olaun  
Finantzazioa: Barne Ministerioa (GIESE)

D.1.1.6. **Convento desaparecido de San Francisco. Olaguibel, 1-15 (Vitoria-Gasteiz)**

Dirección: Agustín Azkarate Garai-Olaun  
Financiación: Ministerio del Interior (GIESE)

*Owing to the building of a new car park in Olaguibel street, and given that this is affecting a series of plots catalogued as a presumed archaeological zone –since they housed the Monastery of San Francisco from the 13th century onwards– it is imperative that an assessment should be made of the archaeological potential of the space affected. Here we present the results obtained in this intervention.*

### *Jardueraren testuingurua*

Olagibel Kaleko orubean, Estatuaren Segurtasunerako Azpiegiturak eta Ekipamendua Kudeatzailetzak (Barne Ministerioa) zorupeko aparkaleku baten eraikuntza proiektatzen duen orubean, burura eramandako interbentzio arkeologikoan lortutako emaitzak azaldu nahi ditu hemen aurkezten dugun txostenak. Aipatutako jarduera arkeologikoa obrei ekin baino lehen bururatu genuen, obrek ukituko duten geruzaren potentzial arkeologikoa neurtzeko xedean. Gure jarduerarako planeamenduak bi helburu zituen:

Batetik, aparkalekua egiteko obrek ukitu beharreko hiri espazioaren potentzial arkeologikoa zehaztea zuen xede gure jarduerak, eta kasu zehatz honetan, logikoa denez, substratuan artean San Frantzisko Komentu desagertuaren arrastorik kontserbatzen ote zen, eta hala izatera, egituraren munta ebaluatzeko moduko aztarna fisikoak ba ote zeuden egiaztatzea.

Lehen helburu horretaz gainera –diagnosia, kokapena eta ebaluazioa–, azterketa zientifiko orok historia inguruko galdera jakin batzuei erantzuna aurkitzea bilatzen

### *Contexto de la intervención*

El informe que aquí presentamos pretende exponer los resultados obtenidos en la intervención arqueológica llevada a efecto en el solar de la Calle Olaguibel donde la Gerencia de Infraestructuras y Equipamiento de la Seguridad del Estado (Ministerio del Interior) proyecta la construcción de un aparcamiento subterráneo. La citada actuación arqueológica se ha realizado previamente al inicio de las obras, con el fin de evaluar la potencialidad arqueológica del sustrato que será alterado por el desarrollo de las mismas. El planteamiento de nuestra intervención ha perseguido dos objetivos:

En primer lugar, uno de los fines de la investigación era determinar el potencial arqueológico del espacio urbano que iba a ser afectado por las obras del aparcamiento, lo que en este caso concreto significaba, lógicamente, conocer si el sustrato contenía aún huellas del desaparecido Convento de San Francisco, así como obtener las pruebas físicas suficientes que permitiesen evaluar su envergadura.

No obstante esa finalidad primera –diagnóstica, de localización y evaluación–, dado que todo estudio científico persigue además satisfacer ciertas interrogantes históri-

duenez, bigarren helburu bat planteatu genuen, hau da, depositu arkeologikoan izan zitekeen informazio guztia biltzea, aipatutako monasterioaren bilakaera historikoren gorabeherak ezagutzeko modua izateko.

## *Aldez aurreko dokumentazioa*

### *Dokumentuen ikerketa artxiboan*

Jakin bagenekien Gasteizko San Frantzisko Komentuari buruz eta haren eraispen lanei buruz dagoen dokumentazio garrantzitsuen azterketa geure lanaren garapenaren funtsezko giltzarria izan zitekeela, arrazoi birengatik:

Lehenik, zundaketa arkeologikoa zehaztasun osoz kokatzeko modua eskaintzen zigulako, substratutik lortutako lagina adierazgarria izango zela ziurtatuz.

Bigarrenik, interesgarria zelako aldez aurretik ezagutzea –ahal zen punturaino– bertan pausatutako estratifikazioaren prozesu genetikoa, hau da, espazio hartan gertatu ziren obrak dokumentatu behar ziren bertan aurki genitzakeenak aurreikusteko.

Hala bada, indusketa lanari begira lagungarri izan zitekeen dokumentazio historiko guztia biltzen hasi ginen. Hasteko, izaera kartografikoko informazioa jasotzen hasi ginen (Gasteizko Udal Artxiboan). Informazio honi esker monasterio zaharrak hiriaren baitan zehatz-mehatz non kokatzen zen ikasi genuen eta hura osatzen zuen higiezinaren multzoaren berri zehatza izan genuen.

Gasteizko plano sorta garrantzitsua aurkitu genuen, 1812tik monasterioa eraitsi zuten urte artekoa, baita monasterioaren irudi bat ere, 1623. urte ingurukoa. Horietan guztietan, San Frantzisko XIX. mendeko Gasteizko hiriaren testuinguruaren baitara biltzen zen leku jakin batean, baina ez ziren nahikoa zehatzak zundaketa arkeologikoen planifikazioa behar bezala itxuratzeko; beraz, lan zehatzago batzuen bila jo genuen, esate baterako, Emilio de Apraizek 40. urte amaiera argitaratu zuen lanera (honakoa 1845ekoa izan daitekeen beste baten kopia da).

Eraikinaren oinplano honekin, jada has ginteke zundaketen kokalekua zehatz planifikatzeko lanekin, baina oraindik egungo planoan kokatu eta plano honen aldean orientatu behar genuen, lanean jardungo genuen lekura hurbiltzeko xedean. Horrengatik, aurrera jarraitu genuen artxiboko kartografia aztertzeko lanekin, eta aldi berean San Frantzisko komentu desagertuaren erreferentzia geometriko fidagarriak eta egun identifikatu litekeen elementu arkitektonikoren bat dokumentu bakar batean izan zitzairenen hiri planoak aurkitzen saiatu ginen. Lan honetan aipatutako baldintzak betetzen zituzten hainbat karta aurkitu genituen, eta horietatik bat «proyecto de reforma urbana en la zona ocupada por los antiguos cuarteles de San Francisco y Resbaladero» (San Frantzisko eta Res-

cas, la otra finalidad del estudio programado consistía en extraer toda la información contenida en el depósito arqueológico que nos permitiese caracterizar las vicisitudes del devenir histórico del monasterio.

## *Documentación previa*

### *Investigación documental de archivo*

Sabíamos que la revisión de la importante documentación existente sobre el Convento de San Francisco de Vitoria y sobre el desarrollo de su demolición, podía convertirse en la clave fundamental de nuestras pesquisas, ello por dos razones:

Primero, porque así podríamos ubicar con precisión el sondeo arqueológico, asegurando que la muestra obtenida del sustrato pudiese considerarse representativa.

Segundo, porque era interesante conocer previamente –hasta donde fuera posible– el proceso genético de la estratificación allí depositada, es decir, se trataba de documentar las diferentes obras que pudiesen haber tenido lugar en aquel espacio, para prever aquello que nos podíamos encontrar.

Así pues, comenzamos a recopilar toda la documentación histórica conocida que nos pudiera servir como orientación para la excavación. En primer lugar, nos concentramos en la información de tipo cartográfico (procedente del Archivo Municipal de Vitoria), mediante la cual pudimos hacernos una idea bastante pormenorizada del conjunto de inmuebles que constituían el antiguo monasterio y su posición dentro de la retícula urbana de la ciudad.

Localizamos un importante abanico de planos de Vitoria, desde 1812 hasta la fecha del derribo del monasterio así como con una vista del mismo fechable en torno a 1623. En todos ellos, San Francisco quedaba perfectamente localizado dentro del contexto urbano de la Vitoria del siglo XIX, a pesar de lo cual no nos proporcionaban el detalle suficiente para ayudar en la planificación de los sondeos arqueológicos, por lo que tuvimos que recurrir otros más precisos como el publicado por Emilio de Apraiz a finales de los años 40 (el cual es copia de otro datable en 1845).

Con esta planta del edificio ya podíamos comenzar a planificar de forma concreta la ubicación de los sondeos, pero aún era necesario colocarla y orientarla con respecto a un plano actual para hacernos una idea del lugar donde íbamos a trabajar. Por ello, proseguimos con la investigación de la cartografía de archivo, tratando de localizar planos urbanísticos que –dentro de un mismo documento– contuviesen a la vez referencias geométricas fiables tanto del desaparecido San Francisco, como de algún elemento arquitectónico identificable en la actualidad. Durante esta pesquisa localizamos varias cartas que cumplían los citados requisitos, de ellas reproducimos aquí la titulada «proyecto de reforma urbana en la zona ocupada

baladero kaserna zaharrek okupatzen duten eremua be-  
ritzeko proiektua) izenburupekoa, 1928. urtekoa, hona  
dakargu.

Aipatutako kartak aukera eman zigun Emilio de  
Apraizek eskainitako plano geografian behar bezala  
kokatzeko. Honenbestez, zehaztasun osoz jakin genuen  
monasterio zaharra non egon zitekeen –hondakinen ba-  
ten bat kontserbatzen baldin bazen, bederen–, eta au-  
rreikusitako obrek ukituko zutela egiaztatu ahal izan ge-  
nuen. Bestela esanda, interbentziorako estrategia  
planteatzeko moduko datu topografiko fidagarriak geni-  
tuen eskura. Logikoa denez, aspaldikoak zirelako eta  
esanahi historiko handia zutelako, probintziako salaren  
eta klaustroaren beraren interes arkeologikoa –xiii. eta  
xv. mende bitartean kokatu ditzakegun egiturak– gaine-  
rako egituren –trauskil landutako xix. mendeko kaser-  
nak– gainetik jarri genituen. Horrexegatik, haiek bihurtu  
ziren gure helburu nagusi.

### *Udal argazki artxiboan arakatzten*

Bestalde, Gasteizko Udal Artxiboan komentua-  
ren inguruan kontserbatzen ziren argazkiak berrikusi geni-  
tuen. 30. urteetan komentua eraitsi zuten garaiko ar-  
gazkiak –nahikoak baina ez oso ugariak– oso balio-  
tsuak izan ziren zundaketa egitean topa genitzakeen  
aztarnen muntaren inguruan lehenengo balorazio bat  
egiteko. Hurrengo lerrootan azalduko ditugu argazkiek  
ekaini zizkiguten datuak.

Eraispena izan zen xx. mendearen aurreneko ha-  
marraldien parte handi bat hartu zuen prozesu politi-  
ko-administratibo aski konplexuaren azken kapitulua  
–horren berri izateko, Emilio de Apraizen azalpen ba-  
liotsua daukagu, gora-behera haien laburpena azaldu  
baitzuen–. Hala bada, argazki gehienak San Frantzis-  
ko Komentua-  
ren bizitzaren azken unearren isla dira,  
haietan ondo ikusten da nola abandonatuta zegoen,  
baina, aldi berean, multzo monumental ikusgarri ba-  
ten handitasuna hautematen zen, nahiz eta parterik  
handiena betikoz galdua zegoen. Lehen adierazi du-  
gun bezala, gure ikerketa lanean lortutako argazki ba-  
tzuek aukera eman ziguten zoruaren mailako eraikun-  
tza elementu batzuen berri izateko, seguru asko  
indusketa lanetan horietan topatuko baikenituen: pe-  
rimetroko zoladurako eta klaustroko patioko enka-  
txuak, eta arkuteria gotiko guztiari eutsiko zioten hor-  
ma korrituak eta kontrahormen oinarriak.

### *Interbentzioaren garapena*

Ikerketa arkeologikorako estrategia zein izango  
zen erabaki ondoren, zundaketa egingo genuen espa-  
zioaren perimetroa itxi eta iturrietako eta faroletarako  
ur eta argindar eroaleak itxi eta gero, indusketa lanei  
ekin genien. Azaldu bezala, hasiera batean hondea-  
makina bat erabili genuen lorategietako lur masa han-  
diak, metro kubiko ugari, altxatzeko. Jarduteko modu  
hau, bistakoa denez, depositu kopuru garrantzitsuak  
aitxa behar diren kasuetan aukeratzen den jardunbi-

por los antiguos cuarteles de San Francisco y Resba-  
ladero» y fechada en 1928.

La citada carta nos permitió georreferenciar ade-  
cuadamente el plano proporcionado por Emilio de  
Apraiz. De esta forma, nos fue posible conocer con  
gran precisión la zona del antiguo monasterio que –de  
conservarse algún resto– se vería alterada con la ejecu-  
ción de las obras previstas. En otras palabras, contá-  
bamos con datos topográficos fiables a partir de los  
cuales plantear la estrategia de intervención. Evidente-  
mente, por su antigüedad, y por su significación históri-  
ca, el interés arqueológico de la sala de la provincia y  
del propio claustro –estructuras datables entre los si-  
glos XIII y XV– destacaba sobre el del resto de depen-  
dencias afectadas –edificaciones cuartelarias del siglo  
XIX de pobre factura–. Por ello, aquellas se convirtieron  
en nuestro objetivo prioritario.

### *Vaciado del archivo fotográfico municipal*

De otro lado, también revisamos las fotografías  
que se conservan en el Archivo Municipal de Vitoria  
sobre el convento. La cantidad de documentación fo-  
tográfica coetánea al momento de la demolición de los  
años 30 –suficiente, aunque no abundante– se mostró  
muy valiosa para una primera valoración de la enver-  
gadura de los vestigios que podíamos encontrarnos al  
realizar el sondeo. En las siguientes líneas explicare-  
mos los datos que nos han aportado.

El derribo fue el último episodio de un proceso polí-  
tico-administrativo bastante complejo que ocupó gran  
parte de las primeras décadas del siglo XX –para su co-  
nocimiento, contamos con el valioso relato de Emilio de  
Apraiz que hizo una síntesis del mismo–. Pues bien, la  
mayor parte de las fotografías son el reflejo de esa últi-  
ma y agónica fase de vida del Convento de San Fran-  
cisco, donde se puede observar su abandono y, al  
mismo tiempo, la magnificencia de un espectacular  
conjunto monumental en su mayor parte perdido. Como  
ya señalábamos, algunas de las instantáneas reco-  
gidas en nuestra investigación nos permitieron cono-  
cer visualmente detalles de algunos de los elementos  
constructivos situados a ras de suelo que probable-  
mente nos encontraríamos en la excavación: los enca-  
chados del pavimento perimetral y del patio del claus-  
tro, así como los muros corridos y las bases de los  
contrafuertes que sustentaban toda la arquería gótica.

### *Desarrollo de la intervención*

Una vez decidida la estrategia de la investigación ar-  
queológica de campo, tras cerrar el perímetro del espa-  
cio donde se iba a realizar el sondeo, y después de des-  
habilitar las conducciones de agua de las fuentes y la red  
eléctrica de las farolas, se comenzó con las tareas de ex-  
cavación. Como ya hemos señalado, en un primer mo-  
mento se empleó una máquina excavadora para retirar  
una importante cantidad de metros cúbicos de tierra pe-  
teneciente a los jardines. Esta forma de proceder –como

dea da, depositu hauek ez baitute arkeologiaren ikuspuntutik inolako interesik izaten.

### *Aurreneko arrastoak bitarteko mekanikoekin induskatu eta gero*

Landa izaerako ikerketa aldi honek aukera eman zion, guk uste baino lehenago, komentuari zegozkion ustezko aztarna arkeologikoen egoera egiaztatzeko. Izan ere, zundatutako gainazalaren parterik handiengan ez genuen interes arkeologikoko eta jatorri antropikoko geruza bakar baten arrastorik bereizi, eta ia perimetro osoan –soilik metro beteko sakoneran– harri naturalaren mailaraino iritsi ginen.

Altxatutako lur paketeetan, beheko deposituetan eta seguru asko maila berdintzeko betegarri gisa, jatorri askotako zaborrak bereizten ziren. Horien artean, harrizko puskaren bat, han eta hemen barreiatutako giza hezurak eta hasiera batean aipatutako komentuairekin zerikusia izan zezaketen zeramikak; azken hauek oso gutxi ziren eta, esan gabe doa, testuingurutik at zeuden xx. mendeko zementu, adreilu eta beste material multzo handi4en artean.

resulta casi evidente observar– es la opción escogida en aquellos casos en que se deben retirar importantes cantidades de depósito y se conoce que éstos no tienen ningún interés arqueológico.

### *Primeros indicios tras la excavación por medios mecánicos*

Esta fase de la investigación de campo nos permitió, antes de lo previsto, constatar el estado de los posibles vestigios arqueológicos pertenecientes al convento. Ello se debió a que, en la mayor parte de la superficie sondeada no se detectó resto alguno de sustrato de origen antropológico de interés arqueológico, llegándose en casi todo el perímetro –apenas a un metro de profundidad– hasta el nivel de la roca natural.

Los paquetes de terreno retirados, contenían en sus depósitos inferiores, probablemente como rellenos de nivelación, escombros de diverso origen. Entre estos, se constató la presencia de algún fragmento pétreo, huesos humanos dispersos y cerámicas susceptibles de pertenecer en origen al citado convento, ejemplos contadísimos, que obviamente, se encontraban completamente descontextualizados entre masas ingentes de escombros de cemento, ladrillo, y otros materiales propios del siglo xx.



Goian, komentuko tenpluaren kanpoko aldea ikus daiteke eraitsia izan baino lehen. Behean, bitarteko mekanikoekin bideratutako indusketaren gaineko kontrola. Eskuinean, egungo hirigintzari gain jarritako komentuairen oinplanoa eta, zirkulu gorri batez nabarmendurik, aparkalekuaren eraikuntzak ukituko duen eremua

Arriba, se puede observar el exterior del templo del convento poco antes de ser demolido. Abajo, el control de la excavación por medios mecánicos. A la derecha, la planta del convento superpuesta a la del urbanismo actual y, destacada en círculo rojo, la zona afectada por la construcción del aparcamiento.

### *Substratu arkeologikoaren desagertzea*

Indusketa mekanikoaren bidez lortutakotik ondorioztatzen denez, San Frantzisko komentuarien zorupean egon zitezkeen aztarnak ia erabat desagertuak ziren. Testuingurutik kanpora zeuden material hondakin urri batzuek baizik ez zuten haren presentzia iradokitzen.

Nolanahi ere, hustuketa honen arrazoia ez dugu eraispen prozesuan bilatu behar, komentua eraitsi eta handik urte batzuetara inguruan bideratutako hirigintza egokitzapen lan batzuetan baizik –seguru asko xx. mendearen erdialdean erakunde ofizialen egoitza berriak eraiki zituzten garaian–. Gasteizko Udal Artxiboan aurkitu genituen argazkiak berriro ere aztertutik ikusi genuen nola San Frantzisko komentuari leku egiten zion lekuan –orube bihurtu eta gero– artean zimentarrien egituraren parte handi bat kontserbatzen zen, zorupean bada ere. Gaur egun ondo asko hautematen da nola orubearen barruko maila kaleko zoladuraren mailarekin berdindu zuten; beraz, egitura haiek guztiak betikoz desagerrarazi zituzten.

### *Eskuzko indusketa arkeologikoa*

Kataren hego-mendebaldeko angeluan neurri apaleko aurkikuntza bat dokumentatu ahal izan genuen. Bertan eskeleto biren hondakinak aurkitu genituen eta, lehendik aurkitutako testuingurutik kanpoko giza hezurak ez bezala, hauek artean beren jatorrizko hobian zeuden.

Aurkikuntza egungo kaleko mailaren aldean 105 cm-ko kotan egin genuen. 1. eta 2. ehorzketa gisa sailkatu genituen (1. ehorzketa bietan hegoalderago zegoenari esan genion). 1. ehorzketak, ahoz gorako etzaneran, funtsean gizabanako baten enborra eta besoak kontserbatzen zituen. Zehatz adierazteko, bularra osatzen zuten saiheesak eta –bereizita bada ere– bizkarrezurraren hondakinak eta burezurraren beheko partea kontserbatzen zituen. Era berean, besoak, eskuak gurutzaturik, bularraren gainean zituen, kasu bietan kubitu eta erradio hezurak kontserbatzen zituela, humeroa ezkerreko besoa baino ez (jatorrizko kokalekutik apur bat mugitua).

2. ehorzketaren kasuan, honakoa ere ahoz gorako etzaneran, hondakinak eskasagoak dira, burezurraren parte bat baizik ez baitzen kontserbatzen, gaizki kontserbatu ere –soilik matrailezurra zegoen ezagutzeko moduan–. Bularraren altueran (ez baita gizabanako honen gorputz atal hori kontserbatu), seguru asko bertan lurperatutako gizabanakoaren zangoei zegozkien hezurak ageri ziren, lekuz kanpo. Ehorzketa bakoitzak bere hobia okupatzen zuen, elkarren ondoan baino, biak ekialdetik mendebaldera egokituak. Eskeleto biak ekialdera begira zeuden.

### *La desaparición del sustrato arqueológico*

Como se deduce de lo obtenido en la excavación mecánica, los vestigios que podían permanecer en el subsuelo del cenobio de San Francisco habían desaparecido casi por completo. Sólo unos escasos restos materiales descontextualizados testimoniaban su presencia.

No obstante, la causa de este vacío no se puede atribuir al proceso de demolición propiamente dicho, sino a ciertas obras de acondicionamiento urbanístico que se llevaron a cabo con cierta posterioridad a la destrucción del convento, seguramente cuando se procede a la edificación de las nuevas sedes de las instituciones oficiales, en las décadas centrales del siglo xx. Repasando de nuevo el repertorio fotográfico que obtuvimos en el Archivo Municipal de Vitoria, se observa cómo –una vez convertido en un solar– el emplazamiento donde se ubicaba San Francisco aún conservaba en el subsuelo, al menos, gran parte de las estructuras de cimentación. Hoy día se aprecia perfectamente como el nivel del interior del solar fue igualado al del pavimento de la calle, con lo que, todas aquellas estructuras fueron eliminadas.

### *La excavación arqueológica manual*

Fue posible documentar un hallazgo de reducidas dimensiones en el ángulo suroeste de la cata. Allí se produjo el descubrimiento de los restos de dos esqueletos, que –a diferencia de los huesos humanos descontextualizados localizados con anterioridad–, aún se encontraban emplazados en su fosa original.

La cota a la que se produjo el hallazgo era de 105 cm. con respecto al nivel actual de la calle. Fueron clasificados como enterramientos 1 y 2 (siendo el número 1 el situado más hacia el S). El enterramiento 1, en posición decúbito supino, conservaba fundamentalmente la zona del tronco y brazos de un individuo. En concreto, contaba aún con las costillas que formaban la caja torácica y –bastante disgregados– restos de la columna vertebral y zona inferior del cráneo. Asimismo, tenía los brazos con las manos cruzadas sobre el pecho, conservando cúbitos y radios en ambos casos, mientras que húmero sólo quedaba el de su extremidad izquierda (ligeramente desplazado de su posición original).

En el caso del enterramiento 2, en posición también decúbito supino, los restos son aún más escasos, conservándose tan sólo parte del cráneo, el cual se encontraba en muy mal estado –quedando como parte más reconocible sólo la mandíbula–. Situados a la altura del pecho (que no perdura en este individuo) se localizaron, desplazados, huesos pertenecientes a extremidades inferiores –probablemente– propios de este mismo enterramiento. Los dos enterramientos ocupaban fosas individuales, pero se situaban uno junto al otro, guardando una misma orientación este-oeste. Ambos esqueletos se encontraban mirando hacia el oriente.



Ezin dugu gehiagorik adierazi ehorzketa bi hauen inguruan, ez baitugu kronologia bat iradokitzeke moduko beste aztarnarik topatu. Nolanahi ere, eta komentuarien erakuntza arrastorik *in situ* aurkitu ez dugun arren, aurkitutako giza hondakinen kokalekua plano historikoekin alderatzen badugu, oso litekeena da gizabanako hauek klaustroko patioan zorupean lurperatuta egotea –gainera horixe da logikoena monasterio batean, klaustroa erabili ohi baita horrelakotan hilerri gisa–. Ehorzketak erregistratu eta berreskuratutako ondoren, eta ikusirik interes arkeologikoko elementu garrantzirik ez zegoela, substratu geologiko naturala baino ez, amaitutzat eman genituen lanaren aldia.

## Konklusioak

Aukerak itxura batean handiak ziren arren eta zundaketaren planteamendua kontu handiz egin genuen arren (betiere indusketak eskaini zitzaizkeen informazioak ahalik eta gehien profitezko xedearekin), emaitzak oso-oso kaskarrak izan ziren. Jarraian adierazten ditugu labur-labur:

Desagertu egin dira komentuko izan zitezkeen eta *in situ* kontserbatutako aztarnak oro –gutxienez burua eramandako zundaketa eremuaren baitan–. Gabezia honen arrazoiak –bertan egokitutako eroale kopuru handiagatik eta hautemandako zaborrezko betegari handiengatik– komentuarien eraispenaren (xx. mende-ko 30. urteetan) eta gure garaiaren arteko epean inguru honetan bideratu diren hirigintza izaerako obretan bilatu behar dira.

Gure garaira arte testuingurutik erabat kanpora dauden hondakin material gutxi batzuk eta bi ehorzketa –partzialki kontserbatuak– baizik ez dira iritsi, eta horiek ez ziren lehendik suntsituak gertatu komentuko gainerako egiturak baino askoz ere kota sakonagoan zeudelako.

Ehorzketen aurkikuntzak berretsi egiten du hasierako hipotesia, zundaketa egiteko lekuaren aukeraketari dagokionez. Hau da, zalantzarik ez dago katak aurreikusitako lekuan egin genituela, klaustroan, interes arkeologiko handiena eskaintzen duen aldean.

Hala eta guztiz ere, zundatutako eremua, egiazki komentuariak okupatuta egongo zena, egun erabat garbituta dago harri naturalaren mailaraino. Beraz, gure ustez, inguruko espazioan ere –aparkalekua eraikitze-ko obrek ingurua ere ukituko baitute– ia ez dago aukerarik interes arkeologikoko aztarnarik egoteko.

Poco más se puede indicar sobre los mismos, pues no contamos con indicios que nos permitan sugerir una cronología. No obstante, y a pesar de no haberse localizado restos constructivos del convento *in situ*, comparando el emplazamiento de los restos humanos hallados con respecto a los planos históricos, parece muy probable que estos individuos se encontrasen inhumados en el patio del claustro –como por otra parte debería ser lo habitual en un monasterio, pues este espacio suele ser utilizado como cementerio–. Una vez, registrados y recuperados los enterramientos, al no existir ya más elementos de relevancia arqueológica sino el sustrato geológico natural dimos por finalizada la fase del trabajo de campo.

## Conclusiones

A pesar de las expectativas y del cuidado planteamiento del sondeo (con vista a maximizar las posibilidades informativas de la excavación) los resultados pueden considerarse prácticamente nulos. Los resúmenes en los siguientes puntos:

Todo resto construido conservado *in situ* que pudiera pertenecer al convento ha desaparecido –al menos dentro de la zona que corresponde al sondeo efectuado. La causa de esta ausencia –por el gran número de conducciones detectadas y por los importantes paquetes de relleno con escombros localizados– habría que buscarlas en diferentes obras de acondicionamiento urbano que se han realizado en el periodo que media entre la demolición del convento (en torno a los años 30 del siglo xx) y la actualidad.

Sólo han llegado a nuestros días, contados restos materiales completamente descontextualizados, y dos enterramientos –conservados sólo parcialmente–, los cuales no fueron destruidos con anterioridad por encontrarse situados a una profundidad excepcionalmente mayor que el resto de las estructuras del convento.

El citado hallazgo de los enterramientos confirma las hipótesis de partida, en cuanto al lugar escogido para la realización del sondeo. Es decir, sin lugar a dudas hemos practicado las catas en el lugar previsto del claustro, el entorno de mayor interés arqueológico.

El terreno sondeado, que efectivamente debió estar ocupado por el convento, sin embargo, se encuentra hoy día completamente arrasado hasta el nivel de roca natural, con lo cual estimamos que las posibilidades de que en el espacio circundante –afectado también por las obras del aparcamiento– quede algún vestigio de interés arqueológico son prácticamente nulas.

*Ismael García Gómez*



#### D.1.1.7. **Aldundia, 18 (Vitoria-Gasteiz)**

Zuzendaritza: Paquita Sáenz de Urturi  
Rodríguez  
Finantzazioa: Mercedes Salazar  
Lázaro; Arabako Foru Aldundia

#### D.1.1.7. **Diputación, 18 (Vitoria-Gasteiz)**

Dirección: Paquita Sáenz de Urturi  
Rodríguez  
Financiación: Mercedes Salazar  
Lázaro; Diputación Foral de Álava

*The excavation of this plot has led to the discovery of a 7-metre face of the Second Wall that defended the town of Vitoria-Gasteiz from 1202 onwards, and the chance to find out about the evolution of this space since that time right up to the present day.*

Orube honetan eraikin berri bat eraikitzeko proiektua aurkeztu zenez eta orubea Gasteizko lehen hiribildua babesten zuten harresietako batetik gertu dagoenez, azterketa arkeologiko bat bideratu beharra zegoen. Ondorioz, harresi atal garrantzitsu bat eta hari atxikiriko egiturak eta betegarriak bereizi ahal izan genituen, eta espazio honetan gure garaira arte eta elkarren gainean egokitu diren ondoz ondoko etxebizitzaren eraikuntza bilakaerari buruzko informazioa lortu dugu.

Lortutako emaitzak ez dira soilik metodo arkeologikoan oinarritu, baita Gasteizko Udal Artxiboko dokumentuen azterketan ere. Dokumentu horiek Agustín Azkarate buru duen E.H.U.ko Arkeologiaren Arkitekturaren Ikerketa Taldeak helarazi zizkigun, eta dokumentuok aukera eman digute eraikinean bururatutako konponketa lanen datak ezagutzeko, garrantzitsuak oso haren bilakaera aldiak zehazteko.

Orubea ekialdeko Errementari kalearen, iparraldeko San Roke Kantoiaren eta mendebaldeko Aldundia kalearen, egun turutaren forma duen Zapardiel ibaiaren ibilguarekin bat datorrenaren, artean kokatzen da. Maila freatikotik eta estolderia zaharretik iristen den uraren metaketa, eremua urpean hartzen baitzuen, eragozpena izan zen alde honetako indusketa behar bezala garatzeko; beraz, azterketaren parte bat obra garatuko zen aldirako utziko genuen.

### **1. aldia**

Gure ustez, Gasteizko hiribildua babesten zuen bigarren harresiaren eraikuntza unearekin dute zerikusia aztarna zaharrenek. Harresi hau ondo dokumentatuta dago, *post quem* datazioarekin, jakina baita hiribilduak 1202. urtean jasan zuen sute handiaren ondorenean Gaztelako errege Alfontso VIII.ak muinoaren mendebaldeko mazelatik handitzeko agindua eman zuela Zapardiel ibairaino.

Agerian utzitako harresi atalak orubearen zabalera osoa hartzen du, eta Aldundia kaleko fatxadaren barruko lerrotik 2 metroko tartera dago. Harresi atal hau 2,0-2,06 metro zabal da, 1,20 m garai punturik gorenean eta 7 m luze. Harresiaren zimentariari dagokio.

La necesidad de reforma con la construcción de un nuevo edificio en este solar, dada su ubicación junto a una de las murallas que defendieron la primitiva villa de Vitoria-Gasteiz, propicio que se llevara a cabo el correspondiente estudio arqueológico que ha permitido descubrir un importante tramo de aquella defensa, estructuras y rellenos a ella asociados y la evolución constructiva de las diferentes viviendas que se han superpuesto en este espacio hasta la actualidad.

Los resultados obtenidos no se han basado únicamente en el método arqueológico sino también en el análisis de diferentes documentos procedentes del Archivo Municipal de Vitoria-Gasteiz, puestos a nuestra disposición por el Grupo de Investigación de la Arqueología de la Arquitectura de la UPV que dirige Agustín Azkarate, que nos han permitido conocer diferentes fechas de reformas efectuadas en el edificio, importantes para establecer las fases de su evolución.

El solar se ubica entre la calle Herrería al E, el Cantón de San Roque por el N y la calle Diputación al W, que coincide con el cauce del río Zapardiel actualmente embocinado. La acumulación de agua procedente del nivel freático y del antiguo alcantarillado, con acceso incorrecto al actual colector del río, que inundaba la zona impidió el correcto desarrollo de la excavación en esa zona posponiendo parte del estudio al desarrollo de la obra.

### **Fase 1**

Los vestigios que consideramos más antiguos tienen relación con el momento de la construcción de la segunda muralla que defendía la villa de Vitoria-Gasteiz. La tenemos bien documentada, a *post quem*, pues es notorio que tras el gran incendio que sufre la villa en 1202, el rey castellano Alfonso VIII, manda ampliarla por la ladera oeste de la colina hasta el río Zapardiel.

El lienzo de muralla que se ha descubierto abarca toda la anchura del solar y se localiza a 2 m. de distancia de la línea interior de la fachada de la calle Diputación. Tiene unas medidas de 2,0-2,06 m. de anchura por 1,20 de altura en el punto más elevado y una

Egitura honen zanga lur eremuko buztinetan eta harri naturalean induskatu zuten.

Haren eraikuntzan 0,40 eta 0,50 m zabalerako paramentu bi eraiki zituzten, bien artean 1 eta 1,20 m zabalerako betegarria egokituz. Kanpoko paramentua, lubanarroari begira dagoena, kareharri griseko harri landu gabeez eta irregularrez eraikia dago; harriok horizontalean ondo paratuta daude, kanpoko aurpegia karez estalia, guztia karez eta hareaz osatutako kare-ore trinko batez ondo batua. Barruko paramentuak eraikuntza teknika berari erantzuten dio, antzeko aparailu eta loturarekin, baina azken ukitu irregularragoekin, buztin naturalei atxikita baitzegoen zimentarrirako zanga beteaz; sekula ere ez zen agerian egon. Paramentu bien arteko betegarria lurrez, kareharri gris ez segurua asko harresiaren beraren eraikuntza lanen hondakinak zirenak eta errekarrez osatuta zegoen, elementu guztiak nahasian.

longitud de 7 m. Corresponde a la cimentación de la cerca. Su zanja se excavó en las arcillas y en la roca natural del terreno.

En su construcción se han dispuesto dos paramentos, de 0,40 a 0,50 m. de anchura, enlazados en la parte central por un relleno de 1 a 1,20 m. de anchura. El externo, hacia el foso, está construido con aparejo de mampuestos irregulares de piedra caliza gris, bien dispuestos horizontalmente y careados en la cara exterior, trabados con una argamasa de cal y arena, de fuerte compactación. El paramento interno, responde a la misma técnica de construcción con aparejo y trabazón similar, pero presentando un acabado más irregular en la cara puesto que se halló adosada a las arcillas naturales rellenando la caja de cimentación por lo que no fue nunca visible. El relleno entre ambos está formado por tierra mezclada con restos de piedra caliza gris, posiblemente desechos de las obras de la propia muralla, y cantos rodados.



Aldundia, 18 (Vitoria-Gasteiz). Indusketaren ikuspegi orokorra.

Diputación, 18 (Vitoria-Gasteiz). Vista general de la excavación.

Harresiaren eta kantoiaren arteko lotunea ukituta zegoen, beharbada geroago etxebizitzaren horma instalatu zutelako edo kantoiaren aldean, estoldarenak egiten baitzituen, aldaketa batzuk egin zituztelako hiri-bilduaren barruko urak Zapardiel ibairantz husteko xedearekin. Hain zuzen ere, puntu hori aprobetxatu genuen ebaki bat egin eta harresiaren barruko egitura aztertzeko. Zeramikazko hondakin batzuk eta hezur batzuk berreskuratu ahal izan genituen, harriak batzen dituen kareorearen azterketarekin batera, harresi honen datazio zehatza eskaintzen aukera emango digutenak.

Mendebaldean harresia lubanarro bati zabaltzen zitzaion; lubanarro hau limoz beteta zegoen, luzaroan urpean egon diren eremuetan ohikoa denez. Bertan berreskuratu ahal izan genuen materiala XIV. eta XVIII. mende bitartekoa da. Gailurrean betegarri bat azertu genuen eta bertan XVIII.-XIX. mendeetako zeramikazko materiala bereizi genuen, harresia eraitsi ondoren puntu honetan egin zituzten obrak gogorarazten dizkigutenak.

Aldi honetan ere, harresiarekin batera hainbat egitura bereizten ditugu, hauek ere babeserako sistemara biltzen zirenak; izan ere, babeserako sistema ez zen soilik harresi batez osatzen. Horma nagusiaz gainera, harresi edo hesi nagusi ere deituz gainera, beste horma batzuk zeuden alde bietara, bata urez beteriko lubanarroa osatzeko eta bestea harresiaren eta etheen arteko espazio librea eratzeko.

Lubanarroko hormak, mendebaldera 2 metrotrata dagoenak, geroago Zapardiel ibaiaren ibilgua mugatzeko balio izan zuen, eta eremu hau egoitza eremu bilakatu ondoren, Aldundia kaleko fatxadaren zimentarriarenak egiteko balio izan zuen.

Beste horma, ekialdera dagoena, harresitik 1,80 metrora, iparraldetik hegoaldera alderik alde igarotzen zuen sotoa, eta landu gabeko harrizko lerroak bikoitzeko egina dago, 1,10 metroko zabalarekin.

Unitate honen eta harresiaren artean ez genuen az-tarnarik topatu, betegarri bat baino ez goiko partean; beraz, gure ustez espazio librea izango zen, harresiaren eta etxebizitzaren arteko babesgunea sendotzeko, eta espazio librea izaten jarraitu zuen sotoa egin zuten arte. Aurreko hormari atxikirik 77. U.E. dago, harresiaren perpendikularrean eta haren gainean. Egitura hau 4,5 m luze da eta 0,50 m zabal, eta bere baitan harri handiak dauzka basamentuaren moduan.

Azken eraikuntza honen egitekoa kantoiaren presentziarekin eta haren atearekin jarri behar dugu harremanetan, jakin badakigulako arku bat zuela. Egitura hau ateko paretetako baten (hegoaldekoa) zimentarriari legokioke. Mendebaldeko muturrean ageri diren harri handiek, harresiaren gainean egokituak, arkuaren oinarriarenak egingo zituzten.

Lehenik zer izan zen, harresiaren eraikuntza ala inguruko espazioaren okupazioa, horratx planteatu

La zona de unión entre la muralla y el cantón se halló alterada, quizás por la instalación posterior del muro de la vivienda o las modificaciones en la zona del cantón, que hacía función de alcantarilla, de desagüe de las aguas del interior de la villa hacia el río Zapardiel. Precisamente se aprovechó ese punto para realizar un corte que nos permitió el estudio de la estructura interna de la muralla. Se han podido recuperar algunos restos cerámicos y óseos que junto con el análisis de la argamasa que une las piedras, nos van a permitir una fechación precisa de esta cerca.

Por el W, la muralla se abre a un foso que se halló colmatado por rellenos de limos propios de zonas inundadas durante largo tiempo. El material que se pudo recuperar, se fecha entre los siglos XIV y XVIII. Sobre la cumbrera se analizó un relleno con material cerámico del siglo XVIII-XIX, que nos pone en relación con obras realizadas en ese punto tras el derribo de la muralla.

En esta misma fase, junto con la muralla incluimos varias estructuras, que también forman parte del sistema defensivo, que no consistía en la construcción de un único muro. Se ha comprobado que además del muro principal, al que denominamos como muralla o cerca, existían sendos muros, a cada lado, uno para establecer un foso inundado y otro un espacio libre entre la cerca y las casas.

El muro del foso, situado a 2 m. hacia el W, sirvió posteriormente de límite para el encauzamiento o cava del río Zapardiel y tras la conversión de la zona en vivienda sirvió de cimentación de la fachada de la calle Diputación.

El otro muro, hacia el E, a 1,80 m. de la muralla, atravesaba el sótano de norte a sur y es de doble alineación de mampuestos con una anchura de 1,10 m.

Abierto junto a la fachada de la antigua posada, en la pared contraria a la que se adosaba al torreón debido a la acumulación de escombros procedente del derribo del edificio, lo que a la larga contribuyó a la obtención de unos resultados más reveladores. Bajo las soleras actuales y sus rellenos de recrecimiento y nivelación afloraba nuevamente el estrato natural artificialmente raseado, aunque sólo en la mitad del sondeo. Excavado en él aparecieron varias estructuras relacionadas con el edificio derribado, a saber, un lago con una canalización que partía de éste para el sobrante de su contenido, otra destinada a la extensión de tuberías de entrada de agua desde el exterior y una tercera, construida con grandes bloques de piedra, creando un enorme canal de desagüe desde el pasillo formado por el edificio y la muralla, hasta el lado contrario, cruzando el subsuelo del solar de forma transversal.



3. zundaketaren ikuspegi orokorra. Aro garaikideko egiturek eraikinaren hormaren paraleloan luzatzen den babes erretenaren barruko ebakia ezkutatzen dute, haberiarri eusteko zutarrien ondoan.

Vista general del sondeo 3, donde las estructuras contemporáneas enmascaran el corte interior del foso defensivo, paralelo a la pared del edificio, junto a los pilares de sustentación de la viguería.

zundaketan bereiziriko zangen ezaugarri bertsuak zituen zanga estaltzen zuten. Nolanahi ere, agerian utzitako zabalera aukera eman zuen orubeko zoruaren mailatik kontatzen hasita 2,60 m-ko sakonera bitartean husteko; puntu horretara iritsita amaitutzat eman genuen zundaketa, segurtasun arrazoiak tarteko. Berreskuratutako elementuen artean aipagarri dira Erdi Aroko zeramikazko zatikiak eta, batez ere, tornuan landutako hainbat ontziri dagozkien zatiak, pintatutako apaingarriekin, bigarren Burdin Arokoak.

El resto del sondeo estaba constituido por potentes depósitos de tierra y piedras que colmataban una zanja de similares características a las del sondeo anterior. No obstante, la anchura descubierta ahora pudo facilitar su vaciado hasta una profundidad de 2,60 m. respecto al suelo del solar, momento en que se dio por finalizada su excavación por razones de seguridad. Entre los elementos recuperados destacan los fragmentos cerámicos medievales y, sobretudo, los pertenecientes a varios recipientes fabricados a torno con decoración pintada que se remontan a la segunda Edad del Hierro.

### *Konklusio historikoak*

Orube honetako zorupeko sekuentzia estratigrafikoa ez da batere konplexua mendebaldean, harresitik gertuen dagoen eremuan, ekialdean bizi izan diren aldaketa handiekin erabat kontrajarriz. Halatan, lehenengo bi zundaketek agerian uzten dute lur eremua era artifizialean berdindu zutela sortzen zen espazioan hainbat eraikin eraikitzeke, harresiaren kanpoko aurpegiari atxikirik; horrek harresiari leku egiten dion ezpon-

### *Conclusiones históricas*

El subsuelo de este solar se caracteriza por la escasa complejidad de su secuencia estratigráfica en la mitad oeste, la más cercana a la muralla, lo que contrasta con las enormes alteraciones que a sufrido en su mitad este. Así, los dos primeros sondeos revelan que el terreno fue artificialmente nivelado para aprovechar el espacio resultante para la construcción de diversas edificaciones que se adosaron al lienzo externo

da bertikalean ebakitzea eskatu zuen. Aro Modernoan abiarazitako fenomeno honek Guardiako harresiak inguratzen zituen babes erretena betetzea ekarri zuen. Gazteluaren inguruan dokumentatutako babes erreten honi buruzko albisteak badaude hiribilduaren hegoaldeko muturrean, ez ordea perimetroaren gainerakoan. Nola 2. hala 3. zundaketan azaldutako zangak, jatorrian handiagoak izango zenak, babes elementu honen atala osatuko zuen, batez ere kontuan badugu lehen adierazitako lur eremuaren egokitzapena.

Buesatarren Ostatuaren egitura eraikitzeke, XIX. mendearen erdialdera, aurreko eraikinak eraitsi zituzten, eta babes erretena eta «*El Collado*» Pasealeku-ko ezpondara ekarpen berriak egin ziren. Zaborrekin batera faunaren hezur hondakinak, aro garaikideko eta aro modernoko zeramikazko zatikiak, Erdi Arokoak, sigillatak, urriak eta oso zati txikiak, baita eskuz landutakoak eta zeltiberiarrek, pintatuak, eta brontzezko fibula biren zatikiak. Elementu hauek testuingurutik at zeuden, baina horrek ez du esan nahi muinoko gainaldetik oso urrutira behar ez duen leku batetik etorriak ez direnik; beraz, espazio honetan finkamendu bat egongo zen, etenik izan ez zuen herrixka, gure garaia baino hainbat mende lehenagotik.

de la muralla, lo que implicó a su vez el corte vertical del talud sobre el que ésta asienta. Este fenómeno, que daría comienzo en la Edad Moderna, provocó también el relleno del foso defensivo que rodeaba las murallas de Laguardia. De este foso, documentado alrededor del castillo, también hay noticias en el extremo sur de la villa, pero no así en el resto del perímetro. La zanja descubierta tanto en el sondeo 2 como en el 3, de mayores dimensiones originalmente, formaría parte de este elemento defensivo, sobretodo si tenemos en cuenta el acondicionamiento del terreno comentado.

Para levantar la estructura de la Posada de los Bue-  
sa, a mediados del siglo XIX, se desmantelaron las edifi-  
caciones anteriores y se produjeron nuevos aportes en el  
foso y en el talud del Paseo de «*El Collado*». Con éstos  
se arrojaron elementos de desecho, como restos óseos  
de fauna, fragmentos cerámicos contemporáneos y mo-  
dernos, medievales, de cerámica *sigillata*, escasos y muy  
pequeños, así como de cerámica a mano y celtibérica  
pintada, además de fragmentos de dos fibulas de bron-  
ce. La descontextualización de estos elementos no con-  
tradice el hecho de que tienen que proceder de un punto  
no muy lejano de la propia parte alta del cerro, lo que im-  
plica necesariamente la existencia de un poblamiento  
continuado de este espacio desde varios siglos antes de  
nuestra era.

F. Javier Ajamil Baños

#### D.1.2.17. **Rúa Mayor de Peralta, 1 (Guardia)**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños  
Finantzazioa: Narciso Antón

#### D.1.2.17. **Rúa Mayor de Peralta, 1 (Laguardia)**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños  
Financiación: Narciso Antón

*The building of a house inside the Old Quarter of Laguardia necessitated the conducting of this Archaeological Survey, which has revealed evidence of the occupation of this space starting in the present and dating back to a period before the town was founded. The most important finds were excavated in the natural stratum of a hut of ligneous structure linked to a number of storage pits. The deposits documented have revealed ceramic sherds that could be ascribed to the Romanization period and to even earlier periods. There were osseous remains of mammals and fish, coins and a ring setting in the reused fillings of one of the storage pits.*

Orube honetan etxebizitzei leku egiteko eraikin bat altxa behar zutenez, jabeak nahitaezko interbentzio arkeologikoa egitea eskatu zion. Hainbat alderdik baldintzatu zuten interbentzioa, alde batetik orubeko sekuentzia estratigrafiko osoa egokiro dokumentatzen lagundu ez zutenak baina bestetik indusketa erraztu zutenak aurreikusitako epean, azken emaitzetan eragirik izan gabe. Emaitzak oso interesgarriak izan ziren Guardia fundatu zen muinoko herrixkari buruzkoak ezagutzeko.

90 m<sup>2</sup> baino gehixeago duen orubeko eraikina eraitsi ondoren, behe-oineko geletako zolak geratu

Con motivo de la construcción de un edificio de vi-  
viendas en este solar, su propietario nos encargó la  
obligada intervención arqueológica. Ésta estuvo condi-  
cionada por varios aspectos que, por un lado, causa-  
ron un perjuicio a la correcta documentación de la se-  
cuencia estratigráfica completa del solar pero que, a la  
larga, facilitaron su excavación en el plazo previsto y  
no afectaron a los resultados finales, que se han reve-  
lado muy interesantes para el conocimiento del pobla-  
miento del cerro sobre el que se fundó Laguardia.

Tras el derribo del edificio que ocupaba el solar,  
de algo más de 90 m<sup>2</sup>, quedaron a la vista las soleras

ziren agerian, baita txoko bihurtutako harlanduzko *dolarea* eta zorupeko upategirako sarrera, biak harrizko eskailera batez lotuak. Multzo hau guztia kalearen mailatik behera 80 eta 30 cm bitarteko kotan zegoen, lur eremua hegoaldera makurtzen baitzen. Interbentzio Arkeologikoari ekin baino lehen hormigoizko eta terrazozko zoruak altxa behar ziren, eta horrek eragin zuen zoru horiek paratzeko prestakinak ere, lur eremua berdintzeko eta goratzeko betegarriak, obrako langileek berek altxa izana. Horrek eraitsitako etxebizitzaz kanpoko egituren desagerraraztea ekarri ez bazuen ere, deposituen parte handi baten hustea ekarri zuen. Halatan, agerian geratu ziren geruza naturalean egindako hainbat ebaki, artean kontserbatzen ziren betegarriek erdi ezkutuan zituztenak.

Hori guztia ikusirik, eta hasiera batean baloraziorako bi zanga diagonalean irekitzea aurreikusi bagenuen ere, mendebaldekoa irekitzea erabaki genuen, 10m<sup>2</sup>-koa, eta orubearen ekialdeko herena zabaleran induskatzea, 32m<sup>2</sup>-tan. Kontuan izanik 17 m<sup>2</sup> dolareak eta sarbideko eskailerak okupatzen zituztela, orubearen ia %60 induskatu genuen.

## 1. zundaketa

Zanga hau orubearen mendebaldean ireki genuen, oinean 6,40 bider 1,50 metroekin. Alde honetan etxebizitzako zorua berdintzeko eta goratzeko betegarrien parte bat jada altxatuta zegoen arren, deposituak izan ziren dokumentatutako unitate estratigrafikoen erdia. Depositu hauetan guztietan aro modernoko eta aro garaikideko zeramikazko zatikiak bereizi genituen. Bestalde, aipagarri dira aurkitutako txanpon bat eta brontzezko gurutze txiki bat.

Upategira iristeko eskaileren eraikuntzak eta fatxadako hormaren zimentariak ukituta bazegoen ere, silo baten hondoa bereizi genuen, eta lehen adierazitako deposituetako batek betetzen zuen. Aipatutako egiturek ia erabat suntsitu baino lehen, lur eremua berdintzeko lanek ebaki horizontala eragin zuten siloan.

## 2. zundaketa

Obrako langileek berek behe-oineko zolak altxatzean deposituen parterik handiena hustean, aukera izan genuen orubearen ekialdeko herena zabalean induskatzeko 32 m<sup>2</sup>-ko azaleran. Alde honetan guztian hainbat puntutan azaleratzen zen geruza naturalean egindako ebaki artifizialen gainean bi depositu kontserbatzen ziren artean. Lehenengoak, eraitsitako eraikineko behe-oineko zoruak goratzeko eta berdintzeko betegarrien parte bati zegokionak, molde eta kronologia ezberdineko material arkeologikoa zuen; beraz, eta logikoa denez, oso urrutira ez dagoen leku batetik egindako ekarpen gisa identifikatu genuen. Jasotako zeramikaz-

de las estancias pertenecientes a la planta baja, así como un *lago* de sillería reconvertido en *txoko* y la entrada a la bodega subterránea, unidos mediante un acceso con escaleras de piedra. Todo ello se encontraba ya entre 80 y 30 cm. por debajo del nivel de la calle, debido al buzamiento del terreno hacia el sur. La necesidad de eliminar estos suelos de hormigón y terrazo antes del inicio de la Intervención Arqueológica provocó, no obstante, que gran cantidad del propio relleno de recrecimiento y nivelación de los mismos fuese retirado por los propios operarios de la obra. Aunque este hecho no supuso la eliminación de estructuras ajenas a la vivienda derribada, sí supuso el vaciado de gran parte de los depósitos, con lo que salieron a la luz diversos cortes en el estrato natural, en gran parte semiocultos por los restos de los rellenos que aún se conservaban.

En vista de ello, pese a que la intención era la de realizar dos zanjas de valoración en sentido diagonal, se decidió abrir la situada en el lado oeste, de 10m<sup>2</sup>, y excavar en extensión el tercio este del solar, 32m<sup>2</sup>. Teniendo en cuenta que 17 m<sup>2</sup> estaban ocupados por el lago y las escaleras de acceso se ha terminado excavando casi el 60% del total del solar.

## Sondeo 1

Zanja abierta con unas medidas en planta de 6,40 por 1,5 m. de lado, en el lado oeste del solar. Aquí, aunque una parte de los rellenos de recrecimiento y nivelación del suelo de la vivienda se había retirado, la mitad de las unidades estratigráficas documentadas fueron depósitos. Todos ellos contenían fragmentos cerámicos modernos y contemporáneos, destacando, por otro lado, el hallazgo de una moneda y de un pequeño crucifijo de bronce.

Afectado tanto por la construcción de las escaleras de acceso a la bodega como por la cimentación de muro de la fachada se localizó el fondo de un silo, relleno por uno de los depósitos antes comentado. Antes de ser prácticamente destruido por estas estructuras sufrió el corte horizontal propio de la regularización del terreno.

## Sondeo 2

El vaciado previo de la mayor parte de los depósitos, realizado por los propios operarios de la obra durante la eliminación de las soleras de la planta baja, dio pie a la posibilidad de excavar en extensión todo el tercio este del solar, en una superficie de 32 m<sup>2</sup>. Dos eran los depósitos que aún se conservaban sobre los cortes artificiales en el estrato natural que afloraba por varios puntos de toda esta zona. El primero, correspondiente a parte de los rellenos de recrecimiento y nivelación de los suelos de la planta baja del edificio derribado, contenía material arqueológico de diversa índole y cronología, por lo que se identificó como un aporte procedente,

ko materiala aro zeltiberiarretik Aro Garaikidera bitartean kokatzen da; aipagarri dira, halaber, kobrezko edo beloizko txanpon bat, burdinazko iltze bat eta bronzeko ezkilatxo bat. Azpian, trinkotasun handiko lurrezko maila ageri da, lur eremuak berezko duena, eta bertan burdinazko hainbat iltze, faunaren hezur hondakin batzuk, zeramikazko zati beiratuak eta batez ere beiratu gabeak, Erdi Arokoak.

Zundaketa osoan geruza naturaleraino iritsi ondoren, bertan bereizitako ebakiak dokumentatu genituen. Horietan garrantzitsuena barruti angeluzuzen bat da, gutxi gora-behera 4 m-ko luzerarekin, 2,5 metroko zabalarekin eta batez beste 56 cm-ko sakonerarekin iparraldean eta 20 cm-ko sakonerarekin hegoaldean; hegoaldearen aurrean paldoak egokitzeko lau zulo zeuden lerroan induskatuta. Barrutiaren baitan beste hiru zulo bereizi genituen. Nola multzo batean zein bestean eskuairatuak bezala zirkularrak zeuden. Lur eremuan egindako beste ebakiak silo biri eta siloekin zerikusia zuten hutsuneei, aleak ateratzeko egitura desagertuari leku egingo zioten hutsuneei, zegozkien. Barrutiaren aurrean bereizitako siloak 1,50 m-ko ahoa zuen, 1,90 m-ko zabalera gorena eta 1,82 m-ko sakonera. Albo batean kokatuta zegoenak, berriz, 1,46 m-ko ahoa zuen, baina *dolarea* eraikitzeke hormak berak betetzen zuen parte handi batean. Siloaren edukieraren gainerako lurrez eta harriz beteta zegoen. Deskribatutako lehenengo siloan material arkeologikoen kopuru handia bereizi genuen. Zeramikazko zati kopuru handiaz gainera, batez ere ore mikatsuekin eta tornuan landutako ontzi eta eltze puskez gainera, itxuraz ore beiratsuan landutako eraztun bateko kokadura bat, hareharrizko fusaiola txiki bat, zeramikazko fitxa zirkular bat, ugaztunen hezurak, arrainen hezurak, arrautza oskolak, kobrezko xaflen zati itxuragabeak eta kobrezko edo beloizko sei txanpon, Erdi Arokoak, zaharberitu arte oraindik identifikatu ez ditugunak, bereizi genituen silo horretan.

### Obren gaineko kontrola

Orain orubea okupatzen duen eraikin berriko zimentarriak eraikitzeke lanen gaineko kontrola bideratu genuen bi egunez. Egitura berria altxatzeko perimetroan irekiriko zangek geruza naturalean induskatutako barrutiaren alde bat suntsitu zuten, baina haren ondoren hirugarren silo bat agerian uzteko aukera eskaini zuten. Silo hau eraitsitako eraikina altxa zutenetik zegoen oso ukituta, edo agian lehenagotik, erabat betetik baitzegoen, material arkeologikorik gabe baina, faxadetako baten egituraren azpian. Hala eta guztiz ere, 86 cm-ko sakonera kontserbatzen zuen.

### Konklusioak

Garrantzitsuak eta ez hain garrantzitsuak, orube honetan bideratutako indusketak aukera eman digu aro garaikidetik hasi eta gure garaiaren aurreko hain-

como es lógico, de algún lugar no muy lejano. El material cerámico recogido abarca desde época celtibérica a la Edad Contemporánea, destacando además el hallazgo de una moneda de cobre o vellón, un clavo de hierro y una campanilla de bronce. Por debajo, un nivel de tierra muy compactada, propio del terreno, en el que se hallaron varios clavos de hierro, algunos restos óseos de fauna, fragmentos cerámicos vidriados y, sobre todo, sin vidriar, de clara cronología medieval.

Alcanzado el estrato natural en toda la extensión del sondeo, se procedió a documentar los diferentes cortes existentes. El principal se trataba de un recinto rectangular de unos 4 m. de largo por 2,5 m. de anchura con una profundidad media de 56 cm. en la mitad norte y de 20 cm. en la mitad sur, delante del cual había excavados cuatro agujeros de poste alineados. Dentro del recinto aparecieron otros tres agujeros. Tanto en un grupo como en otro los había escuadrados como circulares. El resto de cortes en el terreno pertenecían a dos silos y a huecos relacionados con éstos como parte de alguna estructura desaparecida para extracción del grano. El localizado frente al recinto contaba con una boca de 1,50 m, una anchura máxima de 1,90 m. y una profundidad de 1,82m. El situado en un lateral tenía una abertura de 1,46 m, pero estaba alterado por el propio muro de construcción del *lago*, que lo rellenaba en gran parte. El resto de su capacidad estaba colmatado de tierra y piedras. Es el primero de los silos descrito el que contenía gran cantidad de material arqueológico. Además de la gran cantidad de fragmentos cerámicos, sobre todo de orzas y ollas fabricadas a torno con pastas micáceas, se recuperó un engarce de anillo fabricado, al parecer, en pasta vítrea, una pequeña fusayola de asperón, una ficha circular hecha en cerámica, huesos de mamíferos, espinas de pescado, cáscaras de huevo, trozos informes de láminas de cobre y seis monedas de cobre o vellón de cronología medieval aún sin identificar a la espera de su restauración.

### Control de obras

Durante dos días se llevó a cabo el control de las obras de cimentación del nuevo edificio que ocupa ahora el solar. Las zanjas perimetrales abiertas para levantar la nueva estructura ha destruido uno de los laterales del recinto excavado en el estrato natural pero han posibilitado el hallazgo de un tercer silo junto a él. Éste se encontraba ya muy alterado desde el momento de la construcción del edificio derribado o quizás de antes, ya que apareció totalmente colmatado, aunque sin material arqueológico, bajo la estructura de una de las fachadas. Pese a ello, conservaba 86 cm. de su profundidad.

### Conclusiones

De mayor o menor relevancia, la excavación de este solar ha permitido localizar elementos que, desde época contemporánea, se remontan a varios siglos antes





Zurezko egitura zuen etxola erdi harpetar baten oinplano angeluzuzena; egitura honi hainbat silo atxikitzen zaizkio. Etxola Guardiako muinoaren Goi Erdi Aroko okupazio aldian kokatu behar da.

Imagen de la planta rectangular de una cabaña semirupreste de estructura l nea a la que se asocian varios silos, perteneciente al periodo de ocupaci3n altomedieval del cerro de Laguardia.

bat mendetara bitarteko elementuak bereizteko. Hala-tan, orubearen perimetrotako hormen hondakin apurrak eraitsitako eraikinekoak, xix. mendeko eraikinekoak, ziren. *Dolarearen* egitura, upategira iristeko sarrera eta horiei loturiko beste hormak, dokumentatutako betegarri batzuk bezala, xvi. eta xvii. mendeetakoak dira. Guardia fundatu zuten garaikoak dira barruti angeluzuzeneko betegarrietako bat eta haren aurreko siloa betetzen duen depositua. Barruti honek etxola-hondo erdi harpetar baten ezaugarri guztiak ditu, zurezko egiturarekin, adarrezko bilbadurako eta buztinezko paretekin; egitura honi lotuta daude agerian utzitako lau siloak, Gasteizko Santa Maria Katedralean egindako indusketetan zehar aurkitutakoen antzekoak direnak, Agust n Azkarate arkeologoak agerkari honetan (AZKARATE, A., *Arkeoikuska* '02: 197. orrialdetik 203. orrialdera) eta beste aldizkari espezializatu batzuetan argitara eman duen bezala. Etxeko arkitektura mota hau viii. eta x. mende bitartean kokatu daiteke, betiere hiribildua fundatu baino lehenago, 1164. urtean fundatu baitzuten Guardia. Erromanizazioaren eta aro zeltiberiarren garaikoak dira lur eremua goratzeko eta berdintzeko betegarrietan, era artifizialean berdinduta-

de nuestra era. As , los pocos restos de los muros perimetrales del solar pertenecer an al edificio derribado, que datar a del siglo xix. La estructura del *lago*, la entrada de acceso a la bodega y otros muros asociados a  stos, as  como algunos de los rellenos documentados son elementos que hemos datado en los siglos xvi y xvii. Del momento de la fundaci3n de Laguardia ser an uno de los rellenos del recinto rectangular y el dep3sito de colmataci3n del silo situado frente a  l. Este recinto re ne todas las caracter sticas de un fondo de caba a semirupreste de estructura l nea, con paredes de entramados de ramas y manteado de arcilla, al que se asocian los cuatro silos descubiertos, similar a los hallazgos realizados durante las excavaciones en la Catedral de Santa Mar a de Vitoria-Gasteiz que el arque3logo Agust n Azkarate describe en esta revista (AZKARATE, A., *Arkeoikuska* '02: p gs.197 a 203) y que ha publicado tambi n en otras revistas especializadas. Este tipo de arquitectura dom3stica puede remontarse a un periodo comprendido entre los siglos viii al x, anterior en todo caso a la fundaci3n de la villa, en el a o 1164. Los elementos descubiertos pertenecientes al periodo de romanizaci3n y a  poca celtib3rica son s3lo



ko betegarrietan, atzemandako zeramikazko zati txikiak. Elementu hauek, logikoa denez, muinoaren gainaldetik hurbil dagoen leku batetik etorriak dira.

Aurkikuntza hauek, hiribilduko beste leku batzuetan egindakoekin batera, Guardiako muinoan garaia aldatu aurreko hainbat mende lehenagotik etenaldirik izan ez zuen finkamendu bat izan zela egiaztatzen dute; finkamendu honek intentsitate handia edo txikia izango zuen, baina ez zuen «hiri» izaera izango Fundatu zuten arte. K.o. VI. eta VIII. mende arteko denbora tarte batean espazio hau hutsik egon zitekeen, oraingo ez baitugu epe horri dagokion aztarnarik aurkitu.

pequeños fragmentos cerámicos recogidos en los relleños para recrecer y nivelar el terreno, artificialmente regularizado. Estos aportes procederían, con toda lógica, de un lugar cercano en lo alto del propio cerro.

Estos hallazgos, junto con los realizados en otros puntos de la villa, evidencian la existencia de un poblamiento continuado en el cerro de Laguardia desde varios siglos antes del cambio de era, con una mayor o menor intensidad, pero que no adquiere el carácter de «urbano» hasta el momento de su Fundación. Únicamente en un periodo comprendido más o menos entre los siglos VI y VIII d.C., pudo estar deshabitado este espacio, a tenor de la falta de descubrimientos pertenecientes a este periodo, al menos por el momento.

F. Javier Ajamil Baños

#### D.1.2.18. **Guardiako udal barrutia**

Zuzendaritza: Idoia Filloy Nieva  
Finantzazioa: Tragsatec

#### D.1.2.18. **Término municipal de Laguardia**

Dirección: Idoia Filloy Nieva  
Financiación: Tragsatec

*In view of the existence of a project to build irrigation pools and pipelines in the Municipality of Laguardia, a pre-impact study was conducted to determine the corrective measures to be adopted, in case they were needed. A systematic prospection of the works was conducted as well as a series of stratigraphic sondages on those points included within the Presumed Archaeological Zones and which could be affected. A series of ethnographic structures was also documented, huts used by vineyard workers or guards, to be exact. The results of the study carried out beforehand showed there was no direct impact, although it was established that the archaeological monitoring of the earth moving works was required.*

Guardiako udalerrian ureztapenerako baltsak eraikitze eta hodiak instalatzeko proiektu bat aurkeztu zenez, alde zuzenetik obren eragina neurtzeko, eta hala behar izanez gero, hartu beharreko neurri zuzentzaileak proposatzeko azterketa bat egin genuen. Alde zuzenetik azterketa honek hainbat lan egitea eskatzen zuen, eta horien artean honako hauek dira aipagarri:

- Obrarako proiektuaren kartografiaren azterketa.
- Aipatutako proiektuak ukitu zitzaizkeen izaera arkeologikoko gune jada dokumentatuak zehaztea. Halatan, gainazalean izaera honetako aurkikuntzak erregistratzen ziren gune batzuk bereizi genituen, horiei leku egiten zieten Usteko Gune Arkeologikoetan gutxi gora-behera zuzeneko eragina izan zezaketen lanak bideratzeko baitziren.
- Obrek ukitu beharreko trazu osoan alde zuzenetik miaketa sistematikoa egin genuen hondakin arkeologikoak izan zitzaizkeen gune ezezagunak identifikatzeko xedean. Esan dezagun ez genuela izaera arkeologikoko elementurik zuen gune bakar bat ere antzeman, baina lan hau aprobeztatu egin genuela elementu etnografiko batzuk aurkitzeko eta dokumentatzeko eta, azken batean, haiek kontserbatzeko: oro har aski egoera onean

Dada la existencia de un proyecto para construcción de balsas de riego e instalación de tuberías en el municipio de Laguardia, se llevó a cabo un estudio previo de impacto para la determinación –en su caso– de las medidas correctoras a adoptar. Este estudio previo conllevó una serie de trabajos, entre los que destacaríamos:

- Análisis de la cartografía del proyecto de obras.
- Determinación de las zonas de carácter arqueológico ya documentadas que pudieran verse afectadas por dicho proyecto. Así se establecieron una serie de puntos en los que se tenían registrados hallazgos de esta naturaleza en superficie y sobre cuyas Zonas de Presunción Arqueológica podía darse un potencial impacto más o menos directo.
- Realización de una prospección sistemática previa de todo el trazado que iba a verse afectado por las obras para la posible detección de nuevas áreas con restos arqueológicos. Señalar que no se localizó ningún nuevo punto con hallazgos de esta naturaleza, aunque sí se aprovechó para localizar y documentar una serie de elementos etnográficos, de cara a su conservación; concretamente guardaviñas o

kontserbatzen diren eta mahastizainek erabiltzen zituzten etxolatxoez ari gara, obrarako proiektuak ukitzen duen eremuetatik gertu kokatzen direnez. Aro modernoko egiturak dira, XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera eraikiak, mahatsaren laborantza hazi egin zenean, Frantziako mahastietan gertatu zen filoxera izurriaren ondorioz. Oin bakarreko egiturak dira, oinplano zirkularrekin, kono-enborraren sekzioarekin eta ganga faltuko estalkiarekin, hegoaldera begira dagoen ate dinteladun txikiarekin. Tartean bada oinplano angeluzuzena eta estalki laua dituenik ere. Landu gabeko harriz eginda daude, harriak lehorrean ipiniak, kareore gutxiarekin. Guztira 11 etxolatxo bereizi genituen aztertzen ari garen eremutik hurbil. Guztiak kokatu eta deskribatu genituen, eta guztiei argazkiak egin genizkien.

- Gutxi gora-behera balizko eragin zuzena jasan zezaketen gune arkeologikoetan zundaketa estratigrafikoak egin genituen. Zorupean bideratu beharreko interbentzio honek elementu hauetako bakoitzaren potentzial arkeologikoa ahalik eta gehien zehaztea zuen helburu nagusi, obren benetako eragina zehazteko eta, hala behar izanez gero, eragin hori saihesteko edo gutxienera eramateko neurri zuzentzaile egokienak hartzeko. Guztira 11 zundaketa egin genituen jarraian adierazten ditugun gune arkeologikoetan, betiere obrarako proiektuak ukitzen zuen lekuan edo leku horretatik ahalik eta hurbilen:

*Venterana* (Neo-Eneolitikoko aurkikuntza isolatu bat azaldu zen gunea). Zundaketa bat egin genuen eta maila estratigrafiko bakar bat bereizi genuen harriaren gainean. Maila erabat iraulita zegoen goldearen eraginez eta ez zuen inolako interes arkeologikorik.

*Armenterana* (Erdi Aroko herrixka, gune honetan dokumentatua). Zundaketa bat bideratu genuen eta era berean maila estratigrafiko bakar bat bereizi genuen harriaren gainean, inolako interes arkeologikorik gabe, goldeak erabat nahasita eta Erdi Aroko aztarnaren batekin, betiere testuingurutik at.

*Camino de Recilla* (Eneolitiko-Brontze aroko haize zabaleko balizko lantegi edo tailer gisa definitua). Bertan bideratutako zundaketan maila bakar bat bereizi genuen harriaren gainean. Maila hau erabat nahasita zegoen goldearen lanaren eraginez, ez zuen inolako interes arkeologikorik. Nolanahi ere, kronologia ezberdineko aztarna material batzuk bereizi genituen, betiere testuingurutik at.

*El Bardal* (Eneolitiko-Brontze aroko haize zabaleko balizko lantegia edo tailerra). Zundaketa bat bururatu genuen, eta aurreko kasuan lortutako emaitza berdinak jaso genituen.

*Piñuelas* (Eneolitiko-Brontze aroko balizko finkamendua). Hemen ere emaitza berdinak jaso genituen burura emandako zundaketan. Esan dezagun, bildu genuen material urriaren artean, betiere testuingurutik kanpora, Goi Inperioaren garaiko sigillata zati bat zegoela.

chozos, en general en bastante buen estado de conservación, ubicados en las proximidades de la zona afectada por el proyecto de obras. Estructuras de época moderna construidas a partir de la segunda mitad del siglo XIX, en relación a la extensión del cultivo de la vid, a consecuencia de la plaga de filoxera que se produjo en los viñedos franceses. Se trata de estructuras de una sola planta, planta circular, sección troncocónica, y cubierta de falsa cúpula, con una pequeña puerta adintelada orientada al S. También hay alguna de planta rectangular y cubierta plana. Realizadas con mampostería calzada en seco y con escaso aporte de argamasa. Localizamos un total de 11 en las proximidades de la zona en estudio, que fueron ubicadas, fotografiadas y descritas.

- Ejecución de sondeos estratigráficos en aquellas zonas arqueológicas sobre las que podía darse un posible impacto más o menos directo. El objetivo básico de esta intervención en el subsuelo era evaluar de la forma más ajustada posible el potencial arqueológico de cada uno de estos elementos de cara a determinar el impacto real de las obras y establecer –en su caso– las medidas correctoras más adecuadas para evitarlo o minimizarlo. Se llevaron a cabo un total de 11 sondeos en relación a las siguientes áreas arqueológicas, siempre en la zona concreta o más próxima afectada por el proyecto de obras:

*Venterana* (zona de aparición de un hallazgo aislado del Neo-Eneolítico). Se llevó a cabo un sondeo en el que se localizó un único nivel estratigráfico sobre la roca, totalmente removido por el arado y sin interés arqueológico.

*Armenterana* (poblado de época medieval, documentado en esta zona). Se llevó a cabo un sondeo en el que también se identificó un único nivel estratigráfico sobre la roca sin interés arqueológico, totalmente removido por el arado y con alguna evidencia descontextualizada de época medieval.

*Camino de Recilla* (definido como posible estación o taller al aire libre del Eneolítico-Bronce). En el sondeo llevado a cabo aquí, también se localizó un único nivel sobre la roca totalmente removido por el arado, sin interés arqueológico, aunque se localizaron en él algunas evidencias materiales descontextualizadas de diversa cronología.

*El Bardal* (posible estación o taller al aire libre del Eneolítico-Bronce). Se llevó a cabo un sondeo cuyos resultados fueron los mismos que en el caso anterior.

*Piñuelas* (posible asentamiento del Eneolítico-Bronce). También aquí los resultados fueron los mismos en el sondeo llevado a cabo. Señalar únicamente que, entre el escaso material descontextualizado que se recogió, había un fragmento de sigillata altoimperial.

*Los Molinos* (halako garrantzia duen Eneolitiko-Brontze aroko finkamendua). Hemen ere maila estratigrafiko bakar bat bereizi genuen harriaren gainean. Goldeak nahasita zegoen eta arkeologiaren ikuspuntutik erabat antzua zen.

*La Granja* (Eneolitiko-Brontze aroko haize zabaleko lantegia). Zundaketa honetan aurrekoetan lortutako emaitza bertsuak lortu genituen. Hala eta guztiz ere, Erdi Aroko aztarna isolaturen bat aurkitu genuen, testuingurutik kanpora.

*Los Prados mendebalde*. (Eneolitiko-Brontze aroko material isolatuak ageri diren gunea). Emaitza estratigrafiko berdinak eskaini zituen zundaketa, arkeologiaren ikuspuntutik maila antzua.

*Los Prados ekialde*. (Eneolitiko-Brontze aroko materialak eskaintzen dituen gunea). Emaitza estratigrafiko berdinak eskaini zituen zundaketa. Aztarna isolaturen bat aurkitu genuen, Erdi Arokoa baina testuingurutik at.

*Reñana* (Erdi/Azken Brontze aroko-I. Burdin aroko herrixka). Hemen 2 zundaketa estratigrafiko bururatu genituen. Kasu bietan negatiboak izan ziren emaitza arkeologikoak, harriaren gainean maila bakar bat erregistratu baikenuen, goldeak nahasita. Zundaketa batean finkamenduekin zerikusia izan zezaketen material batzuk bereizi genituen, baina testuingurutik kanpora azaldu ziren laborantza lanek erabat nahasi zuten geruzan.

Honenbestez, kasu guztietan zundaketa estratigrafikoetan maila estratigrafiko bakar bat bereizi genuen harrizko geruzaren gainean, betiere goldeak nahasita. Kasu batzuetan material isolatu batzuk bereizi genituen, aztarnategikoak izan zitezkeenak edo ez, baina betiere testuingurutik landa.

- Aurkitutako material arkeologikoen azterketa, guztiak jada ezagunak genituen Eremuetakoak.
- Aldez aurreko eraginari buruzko txostena egitea eta babes neurrien eta neurri zuzentzaileen proposamena egitea.
- Azken memoria erredaktatzea.

Aldez aurreko Interbentzioaren eta, zehatzago adierazteko, zundaketen emaitzak kontuan izanik, gure ustez hasiera batean ez zen aztertutako guneetan geruza arkeologikoan zuzeneko eraginik izango, geruza oso nahasita baitzegoen laborantza lanen ondorioz; beraz, ez zen beharrezkoa neurri zehatzak proposatzea, nahiz eta neurri zuzentzaileak proposatu behar ziren obrak garatzen ziren bitartean, hau da, obrarako proiektua garatzeko neuan lur-mugimenduen gaineko kontrol arkeologikoak bideratu behar ziren, laborantza lanek erabat nahasi ez zuten punturen batean estratigrafia kontserbatzen baldin bazen hura ez galarazteko xedean.

Bestalde, etxolatxoei dagokienez, kasu bakoitzaren aurrean trazuak apur batean aldatzeko edo ez proposatu genuen balizko eragina saihesteko. Era

*Los Molinos* (asentamiento de cierta entidad del Eneolítico-Brontze). También aquí se registró un único nivel estratigráfico sobre la roca, removido por el arado y totalmente estéril arqueológicamente.

*La Granja* (estación al aire libre del Eneolítico-Brontze). Sondeo con similares resultados que en los casos anteriores, aunque aquí se localizó alguna evidencia aislada y descontextualizada de época medieval.

*Los Prados W.* (zona de localización aislada de materiales del Eneolítico-Brontze). Sondeo con los mismos resultados estratigráficos y estéril arqueológicamente.

*Los Prados E.* (zona de localización de materiales del Eneolítico-Brontze). Se llevó a cabo un sondeo con los mismos resultados, en el que se localizó alguna evidencia aislada y descontextualizada de época medieval.

*Reñana* (poblado del Bronce Medio/Final-Hierro I). Se llevaron aquí a cabo 2 sondeos estratigráficos. En ambos casos se los resultados arqueológicos fueron negativos, localizándose un único nivel estratigráfico sobre la roca, removido por el arado. Sólo en uno de ellos se localizaron algunas evidencias materiales relacionables con el asentamiento, pero estaban totalmente descontextualizadas en un estrato muy afectado por el labrantío.

Por lo tanto, en todos los casos los sondeos estratigráficos supusieron la identificación de un único nivel estratigráfico asentado sobre el sustrato rocoso y fuertemente afectado por el arado. En algunos se localizaron evidencias materiales aisladas, adscribibles o no al yacimiento pero, en cualquier caso, descontextualizadas.

- Estudio de los materiales arqueológicos localizados, todos ellos en relación a Zonas ya conocidas.
- Realización del Informe previo de impacto y elaboración de la propuesta de medidas de protección y correctoras.
- Redacción de la memoria final.

Los resultados de la Intervención previa, y concretamente de los sondeos, nos hicieron concluir que, en principio, no iba a darse un impacto directo sobre un potencial sustrato arqueológico en los puntos analizados, dada la fuerte alteración de éste a consecuencia de las labores agrícolas, por lo que no se hacía necesaria la propuesta de medidas específicas si bien se hacía imprescindible intensificar sobre ellos una medida correctora que era necesario aplicar durante todo el desarrollo de las obras, esto es, el control arqueológico de los trabajos de remoción de tierras durante la ejecución del proyecto de obras, por si en algún punto se conservaba estratigrafía no alterada totalmente por el labrantío.

Por otro lado, con respecto a los guardaviñas, se propuso en cada caso la necesidad o no de variar ligeramente los trazados para evitar una potencial afec-

berean, jarraipen arkeologikoak egitea proposatu genuen egitura hauei leku egiten zieten guneeetan.

Bukatzeko, esan dezagun obren trazua San Juan Ante Portam Latinam (harrizko azaleratzearen azpian egokitutako talde-ehorzketa, K.a. IV. milurtean datatua, Neolitikoan) aztarnategitik gertu igarotzen dela. Aztarnategi hau bere garaian induskatu zuten eta oroitarri batzuekin hornituriko hormatxo batek babesten du. Halatan, alde honetan kontu handiz ibiltzeko gomendatu genuen, eta kontrol arkeologiko zorrotzak egitea, zeharkako eraginak oro saihestearren.

Honenbestez, alde aurreko interbentzio hau kontuan izanik, ureztapenerako azpiegituren eta hodiak instalatzeko obrek zuzeneko eragin arkeologikorik izango ez zutela erabaki genuen. Nolanahi ere, alderdi hau lur-mugimenduak egingo ziren unean bururatu beharreko nahitaezko kontrol arkeologiko sistematikoak berretsi beharko zuen.

ción, así como extremar los trabajos de seguimiento arqueológico en los puntos de ubicación de estas estructuras.

Finalmente señalar que el trazado de las obras pasaba también por las cercanías de San Juan Ante Portam Latinam (enterramiento colectivo bajo afloramiento rocoso, datado en el IV milenio a.C., durante el Neolítico), yacimiento ya excavado en su día y que cuenta con un murete con unas placas conmemorativas in situ. Así se recomendaba extremar los cuidados y el control arqueológico en la zona, evitando cualquier posible afección indirecta.

La intervención previa determinó por lo tanto que, en principio, no iba a darse impacto arqueológico directo de las obras de regadío e instalación de tuberías, a la espera de que este aspecto se viera confirmado durante el necesario y sistemático control arqueológico de los trabajos de remoción de tierras –aún pendiente–.

*Idoia Filloy Nieva*

#### D.1.2.19. **Villacardiel (Guardia)**

Zuzendaritza: F. Rafael Varón  
Hernández  
Finantzazioa: Bodegas Marqués de  
Carrión, S.A.

#### D.1.2.19. **Villacardiel (Laguardia)**

Dirección: F. Rafael Varón  
Hernández  
Financiación: Bodegas Marqués de  
Carrión, S.A.

*The building of the accesses to a future wine cellar is to take place on the Villacardiel Site with a chronology assigned to it corresponding to the Chalcolithic and linked to the nearby «El Sotillo» dolmen. An extensive archaeological sampling has been carried out in combination with the total coverage prospection with the opening up of sondages using manual methods. The high archaeological expectations –confirmed by the presence of bell-shaped materials on the surface– were dashed by intensive agricultural farm work in this sector of the site.*

#### **Sarrera. Legezko egoera**

Bodegas Marqués de Carrión S.A. enpresak Guardiako (Araba) udal barrutian beste upategi bat eraikitzeke asmoa agertu zuen, Villacardiel izeneko lekuan, eta ondorioz, eraikin berrirako sarbideak egokitzeko lur-mugimenduei ekin baino lehen interbentzio arkeologiko bat egin beharra zegoen.

Sarbide hauek batez ere Guardiako udalerriko 48. zenbakiko ustezko gune arkeologikoan izango dute eragina, «Villacardieleko Finkamendua» izeneko gunean.

#### **Villacardieleko ustezko gune arkeologikoa**

Alde hau Guardiako udal barrutian dago eta 3416 zenbakiarekin ageri da Arabako Karta Arkeologikoan;

#### **Introducción. Situación legal**

Las Bodegas Marqués de Carrión S.A. tienen intención de construir una nueva bodega en el término municipal de Laguardia (Álava), en concreto en el pago de Villacardiel, lo que motiva la necesidad de una intervención arqueológica previa al movimiento de tierras que se va a producir en el acondicionamiento y accesos al nuevo edificio.

Estos accesos van a incidir, en su mayor parte, con la zona de presunción arqueológica número 48 del municipio de Laguardia, «Asentamiento de Villacardiel».

#### **Zona de presunción arqueológica Villacardiel**

Esta zona está situada en el término municipal de Laguardia y consta en la Carta Arqueológica de Álava

*Eneolitiko-Brontze aroan* kokatzen da finkamendu hau. Dokumentu horren arabera harremanetan daude aipatutako finkamendua eta hurbil dagoen *El Sotillo* izeneko trikuharria, eta lotura du, halaber, gisa berean hurbil dagoen *Rubielgos*<sup>35</sup>-ko finkamenduarekin. Arabako Museo Arkeologikoan utzitako dokumentazioan adierazten denez, alde hau arkeologo talde ezberdinek hainbat aldiz adierazi duten kronologiako materialak biltzeko xede izan da<sup>36</sup>.

### ***Eraikuntza lanen deskripzioa***

Etorkizuneko upategirako sarbideek eragina izango dute ustezko gune arkeologikoan, eta gainera, lur eremua moldatu egin behar dute mahatsondoak aldatzeko terraza artifizialak sorrarazteko. Eraikin berriaren diseinuaz arduratu den ingeniarietak aurreratutako dokumentazioaren arabera, lan hauek lur-erazketak egitea eta betegarriak egokitzea ekarriko dute Ustezko Gune Arkeologikoak hartzen dituen 47.000 metro koadroetatik gutxi gora-behera 28.000 metro koadrotan (%50).

Lan biek erabateko eragina izango dute ustezko gune arkeologikoan, lur-erazketek betikoz galarazten dutelako geruza arkeologikoa, eta betegarriek geruza arkeologikoa zeharo estaltzen dutelako, luzaroan ikerketa arkeologikoak egiteko modurik utzi gabe.

### ***Balorazio arkeologikorako proposamena***

Gure aburuz, babestutako gune arkeologiko honen potentzialitatea egiaztatzeko modurik onena laginketa zabala egitea zen; horretarako aztarnategi arkeologikorik ba ote zegoen egiaztatzeko moduko zundaketa arkeologikoak egin behar ziren, eta aztarnategia egotera hura mugatu beharra zegoen nola espazioaren ikuspuntutik hala kronologiaren ikuspegitik.

Honako urrats hauek aurreikusi behar zituen laginketak: eremu guztia hartuko zuen miaketa eta zundaketen kokalekua lur eremuan, zundaketen indusketa, emaitzen ebaluazioa lehen txosten batean eta, ebaluazioa kontuan harturik, indusketa arkeologikoen lanak zabaltzea, hala behar izanez gero, edo lursailari emandako kalifikazioa kentzea balorazio arkeologikoaren emaitzak negatiboak izatera. Gainera, beste urrats bat gehitu zitzaizen aurrekoei, lur-mugimenduen gaineko kontrol lanak, lerro hauek idazteko unean artean hasi gabeak baldin baziren ere.

<sup>35</sup> LLANOS, A. (Dir.)(1987): *Arabako Karta Arkeologikoa*, Kultura Kontseilua—Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 226. or, dokumentu hauek: 3415 (El Sotillo), 3416 (Villacardiel), 3417 (Rubielgos).

<sup>36</sup> ARRIZABALAGA, A.; PÉREZ, E. (1989): «Zaragoza-Iruñea-Rivabellosa oliobidea», *Presazko Arkeologia Araban / 1989-1993*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 113-120. orr.

con el número 3416 que le otorga una caracterización cultural correspondiente al *Eneolítico-Bronce*. Este mismo documento vincula la existencia de esta estación arqueológica al cercano dolmen de *El Sotillo* así como con el también cercano yacimiento de *Rubielgos*<sup>35</sup>. Así mismo, y como consta en la documentación depositada en el Museo de Arqueología de Álava, este área ha sido objeto de recogida de materiales de la cronología expresada en diferentes ocasiones y por diferentes equipos arqueológicos<sup>36</sup>.

### ***Descripción de las obras de construcción***

La zona de presunción arqueológica se va a ver afectada por los accesos de la futura bodega y, además, se va a acondicionar el terreno creando terrazas artificiales para la plantación de viñedo. Estas operaciones conllevarán, según la documentación aportada por la ingeniería encargada del diseño de la nueva planta, desmontes y rellenos sobre unos 28.000 metros cuadrados de los 47.000 que comprende la Zona de Presunción (50 %).

Ambas operaciones suponen una afección total a la zona de presunción, bien porque destruye el sustrato arqueológico, en el caso de los desmontes, bien porque los cubre de manera tal que no va a permitir investigaciones arqueológicas en la zona durante un largo periodo de tiempo.

### ***Propuesta de valoración arqueológica***

A nuestro juicio, la mejor manera de comprobar la potencialidad de esta zona de protección arqueológica pasaba por realizar un muestreo suficientemente amplio mediante la práctica de sondeos arqueológicos que permitan establecer la existencia o no de un yacimiento arqueológico y, en el caso que exista, su delimitación precisa cronológica y espacialmente.

Este muestreo discurriría por las siguientes fases: prospección de cobertura total y situación de sondeos sobre el terreno, excavación de sondeos, evaluación de los resultados mediante un informe preliminar y, en función de los mismos, la ampliación de las operaciones de excavación arqueológica, si fuese necesario, o la desafección de la parcela si los resultados de la valoración arqueológica son negativos. Además se ha añadido una fase más que se cifra en el control de obras de remoción de tierras, pendiente en el momento de redactar estas líneas.

<sup>35</sup> LLANOS, A. (Dir.)(1987): *Carta Arqueológica de Álava*, Consejo de Cultura—Diputación Foral de Álava, Vitoria—Gasteiz, pág. 226, documentos número: 3415 (El Sotillo), 3416 (Villacardiel), 3417 (Rubielgos).

<sup>36</sup> ARRIZABALAGA, A.; PÉREZ, E. (1989): «Oleoducto Zaragoza-Pamplona-Rivabellosa», *Arqueología de Urgencia en Álava / 1989-1993*, Diputación Foral de Álava, Vitoria-Gasteiz, págs. 113-120.

## ***I. urratsa: Eremu Guztia hartu zuten Miaketa, Eraginpeko Eremuaren Mugatzea eta Zundaketen Kokalekua***

*Miaketa, Mugatzea eta Zundaketen Kokalekua zehazteko metodologia*

Lehenengo lanaldi honetan begiz miatu genuen, era intentsibo batean, behin eta berriz, lur-erazketarik egin gabe, arkeologikoki baloratu beharreko lursail osoa, hondakin arkeologikoen edozein arrasto aurkitzeko xedean eta aztarna horiek GPS baten laguntzaz zegozkien planoetan islatuz.

Bestalde, eta proiektuan aurreikusten genuen bezala, jarduerarako mugak zehaztu genituen ukitutako lursailen baitan.

Bi lan horiek aukera eman ziguten zundaketak gure ustez gune komenigarrietan kokatzeko eta egiteko, balizko hondakin arkeologikoak aurkituko bagenituen. Honako irizpide hauek hartu genituen aintzakotzat zundaketak kokatzeko: gainazalean material arkeologikoen kontzentrazioak izatea eta hauek laborantza guneetan kolore ezberdineko orbanekin zerikusia izatea (ala ez), landu gabeko lurrek ez baitzuten, a priori, gainazalean material arkeologikoak biltzeko eta kolore ezberdinak hautemateko aukerarik ematen. Gainera, zundaketak topografiaren ikuspuntutik egokiak ziren lekuetan egin genituen, esate baterako, hegoaldera begira zeuden terrazetan eta mazelatan, haize menderatzaileetatik babestuta zeuden guneetan. Ez genuen egoitza erabilera-eko egokiak ez diren guneetan, esate baterako, aldapa gogorreko mendi bizkarretan, zundaketarik egin<sup>37</sup>.

Zundaketen kokalekua haien hego-mendebaldeko izkinen UTM koordinatuak zehazturik erabaki genuen. Koordinatu hauek WAAS/EGNOS tresnarekin bateragarri diren bi GPSren, 3 metro baino errore-marjina txikiagoa dutenekin –fabrikatzailearen arabera– eta ukitutako eremuko planimetria informatizatua arteko emaitzak kontrajarri zehaztu genituen.

*Eremu guztia hartu zuten begien bidezko miaketaren emaitzak*

Miaketak aukera eman zigun, batez ere, orban baten presentzia zehazteko eta orban hori historiaurreko zeramikazko materialarekin harremanetan jartzeko: eskuz landutako zeramikazko zatiki batzuk, kanpaiaren formako dekorazioekin, ez oso higatuak, baita eskuz landutako beste zeramika puskak ere, hauek hatz markekin dekoraturik eta giro oxidatzaileetan erreak. Gainera, aipatutako orbanaren baitan historiaurreko harriz-

<sup>37</sup> Bulegoan, lur eremua aztertzen hasi baino lehen, iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera egiten zuten ardatzetan oinarritutako laginketarako sare teoriko bat diseinatu genuen. Zundaketa batetik bestera 25 metroko tartea utziko genuen, eta hasiera batean 48 zundaketa egingo genituen guztira. Lur eremua aztertu eta gero, zundaketen estratifikazio bat bilatu genuen, gainazalean aurkitutakoa –materialen kontzentrazioak eta kolore ezberdineko orbanak– zorupeko balizko hondakinekin harremanetan jartzeko xedean. Azkenean 44 zundaketa egin genituen guztira, 12,5 metro koadroko sektore batekin osatuz. Beraz, 62,5 metro koadro ukitu genituen 28.000 metro koadroko azaleran.

## ***Fase I: Prospección de Cobertura Total, Delimitación de la Zona de Impacto y Situación de los Sondeos***

*Metodología de la Prospección, Delimitación y Situación de los Sondeos*

En esta primera fase se ha prospectado visualmente y de manera intensiva, con pasadas sucesivas, sin extracción de tierras, la totalidad de la parcela a valorar arqueológicamente con el objeto de localizar cualquier indicio de restos arqueológicos en el subsuelo localizando éstos en las correspondientes planimetrías mediante el uso de GPS.

Honenbestez, eta Luko A.B.E.E. elkarteak utzitako hondeamakina baten laguntzaz, aurreikusitako zundaketak bururatu ziren kontrol arkeologiko zorrotzen pean. Zundaketek 2 eta 3 metroko luzera zuten, eta harri naturalera iritsi bitartean, profil esanguratsuenak dokumentatu genituen; gainera, dokumentazio honetan, zegokien planoetan, zundaketen kokalekuak adierazi genituen G.P.S. baten laguntzaz.

Bakar batean ere ez genuen emaitza arkeologiko positiborik lortu, ez egiturarik, ez unitate estratigrafiko negatiborik eta materialen depositurik ere. Ez genuen material bakar bat ere aurkitu..

Lur-mugimenduen gaineko kontrol lanei dagokienez, esan dezagun ez dagoela obren eragina jasango duen hondakinik, etorkizuneko autopistako ordainlekuak ukituko dituen laborantza lurretako erreten zahar batzuk ez badira.

Hala eta guztiz ere, Artzamendin eta Bagoetan zundaketak egin genituen artean eta obren gaineko jarrailen arkeologikoen iraun zuten bitartean, Artzamendiko Ustezko Gune Arkeologikoan materialak nola sakabatatzen diren zehaztu ahal izan genuen, obrek ukitzen duten eremutik kanpora geratu arren arkeologoen taldeak aztertu beharreko eremua baitzen: Agian murriztu egin beharko litzateke babestu beharreko eremua. Gainera, plano batean seguru asko Santa Marina ermitaren hondakinak direnak adierazi genituen.

para lo cual se planteó una malla estratificada de sondeos que cubriesen la zona de afección en la escasa medida de las posibilidades que el plan de obra establecía bajo el punto de vista de quién esto firma.

Así, y con la colaboración de una excavadora facilitada por la U.T.E. Luko, se practicaron la totalidad de los sondeos bajo control arqueológico, con unas dimensiones de entre 2 y 3 metros de lado, hasta alcanzar la roca natural y documentando los perfiles más significativos; esta documentación incluía, además, la situación de los sondeos en las planimetrías correspondientes mediante el uso de G.P.S.

En ningún caso se han obtenido resultados arqueológicos positivos ni en forma de estructura, unidades estratigráficas negativas o depósitos de materiales, reduciéndose la recogida de materiales a cero.

En lo que se refiere al control de la remoción de tierras hay que destacar la ausencia de restos afectados, salvo algunos caños antiguos, situados en las zonas de cultivo de cereal afectadas por la construcción del peaje de la futura autopista.

No obstante, y durante el transcurso tanto de la apertura de sondeos en Arzamendi y Bagoeta y en el tiempo que ha durado el seguimiento arqueológico de las obras, se ha podido establecer una delimitación más precisa de la dispersión de materiales arqueológicos en la Zona de Presunción Arqueológica de Arzamendi, que si bien quedaba fuera de las zonas afectadas por las obras era paso obligado para el equipo arqueológico, lo que podría permitir quizá, una reducción del espacio protegido. Además se han situado, sobre plano georreferenciado, los más que probables restos de la ermita de Santa Marina de Bagoeta.

*F. Rafael Varón Hernández*

#### D.1.3.3. **Ur eta gas hornidura, Gazetan (Burgelu)**

Zuzendaritza: Luis Gil Zubillaga  
Finantzazioa: Burgeluko Udala

#### D.1.3.3. **Abastecimiento de agua y gasificación de Gáceta (Elburgo)**

Dirección: Luis Gil Zubillaga  
Financiación: Ayuntamiento de Elburgo

*Archaeological monitoring of the installation of a new water and gas supply network in the urban area of Gáceta (Elburgo, Álava) was carried out throughout 2005.*

*The monitoring conducted within the area of the two sites catalogued in the town, the Rotalde mill and the parish church of St. Martin of Tours, has yielded negative results. This is due to the fact that earth had been removed in advance, so the few materials salvaged have been decontextualised.*

Proiektu publiko honek herri honetako erdialdean ur eta gasaz hornitzeko hoditeriaren trazaren instalazioa eta hobekuntza zituen helburu.

El objetivo de este proyecto público consistía en llevar a cabo la instalación y mejora del trazado de tuberías de abastecimiento de agua y gas en el casco urbano de esta localidad.

Aurreikusitako trazuan herri honetan katalogatuta-ko aztarnategi bi ukitzeko arriskua zegoen. Honako aztarnategi hauek ari gara:

- Rotalde errota, 7. zenbakiko ustezko gune arkeologiko kalifikatua, 1997ko maiatzaren 26ko ebazpenaren arabera (128. zenbakiko EAO. 1997ko uztailaren 7koa).
- San Martin Tourseko parrokia-eliza, kalifikatuko den tenplu protogotikoa.

Hodiar instalatzeko lanen gaineko kontrolak eta begien bidezko jarraipenak, aztarnategi bien inguruan bideratutakoek, ez zuten emaitza positiborik eskaini.

Kasu bietan egiaztatu genuen obra hauek hasi baino lehenago lurra nahasi egin zituztela hainbat azpiegitura ipintzeko (hodiak, tximistorratzak eta beste). Beraz, berreskuratutako hondakin arkeologiko urriak, guztiak San Martin elizaren inguruan aurkituak, testu- gurutik at daude erabat.

En el trazado previsto, existe un posible riesgo de afección en dos de los yacimientos catalogados en dicha localidad. Se trata de los siguientes:

- Molino Rotalde, declarado zona de presunción arqueológica nº 7, según resolución de fecha 26 de mayo de 1997 (BOPV nº 128 de fecha 7 de julio de 1997).
- Iglesia parroquial de San Martín de Tours, templo protogótico para el que se prevé su calificación.

El control y seguimiento visual de los trabajos de instalación de las tuberías, en el entorno de ambos yacimientos, ofreció unos resultados negativos.

En ambos casos se constató la existencia de remociones de terreno previas a estas obras, relacionadas con la instalación previa de diversas infraestructuras (tuberías, pararrayos, etc...), por lo que los escasos restos arqueológicos recuperados, exclusivamente en el entorno de la iglesia de San Martín, se hallan descontextualizados.

*Luis Gil Zubillaga*

#### D.1.3.4. **Travesía eta Costanilla del Hospital kaleak (Labastida)**

Zuzendaritza: Fran Zumalabe  
Makirriain  
Finantzazioa: Labastidako udala

#### D.1.3.4. **Calles Travesía y Costanilla del Hospital (Labastida)**

Dirección: Fran Zumalabe Makirriain  
Financiación: Ayuntamiento de Labastida

*During the archaeological monitoring of the opening up of trenches a proposal was made to conduct some sondages on designated points like large inspection chambers in the different streets.*

*Both in the trenches and in the sondages the results were completely sterile from an archaeological point of view.*

Zangak egiteko lan mekanikoak bururatu ondoren, kaleko atal guztietan egiaztatu ahal izan genuen azaleratzen ziren geruzak naturalak zirela, eta hareharrizko harri ama azaleratzen zela.

Honenbestez, mailu pneumatikoen laguntzaz hormigoizko geruzaren lodiera hautsi eta harri ama zulatu egin zuten eroaleak egokitzeko xedean.

Hormigoizko, hareharri margatsuzko eta buztin karreduneko geruzak induskatzen hainbat egun eman eta gero, kaleko lur-mugimenduak amaitutzat eman zituzten; azken aldiaren proiektuan aurreikusitako bide guztiak okupatu ziren.

Beraz, ez genuen okupazio mailarik bereizi, ez eta aurreko balizko okupazioei legokiekeen estratigrafiarik ere.

Lur-mugimenduen eta lanen gaineko kontrolen ostean, bide hauek prest geratu ziren azpiegiturei leku egiteko, estaltzeko eta zolatzeko.

En todos los tramos de calle, tras los trabajos mecánicos de ejecución de zanjas, se pudo comprobar que los estratos que afloraban eran naturales y que asomaba la roca madre de arenisca.

De esta manera, los trabajos de remoción se limitaron al desgaste y eliminación por martillos neumáticos de la potencia del nivel de pavimento de hormigón y la roca madre hasta el asentamiento de los conductos.

Tras varios días de trabajos de excavación sobre los estratos de hormigón, areniscas margosas y arcillas calcáreas, se dieron por finalizadas las tareas de remoción de las calles, ocupando en esta fase final todas las calzadas previstas en el proyecto.

No se localizaron, por tanto, niveles de ocupación ni estratigrafías anteriores de posibles ocupaciones

Tras la remoción de tierras y el control de los trabajos, estas calzadas quedaron listas para su dotación de servicios, cubrimiento y pavimentación.

*Francisco Javier Zumalabe Makirriain*

#### D.1.3.5. **El Olmo kalea, 20 (Labastida)**

Zuzendaritza: Fran Zumalabe Makirriain  
Finantzazioa: M<sup>a</sup> Luz Martínez, eta  
Prisciliano de Lucas San Felipe,  
Arabako Foru Aldundia

#### D.1.3.5. **El Olmo, 20 (Labastida)**

Dirección: Fran Zumalabe Makirriain  
Financiación: M<sup>a</sup> Luz Martínez, y  
Prisciliano de Lucas San Felipe,  
Diputación Foral de Álava

*This is currently a very dilapidated building of which only the walls remain. It is a traditional building made up of load-bearing walls of irregular masonry interspersed with sections of ashlar work on the ground and first floors of the façade. The façade appears to belong to the late Renaissance era. Its semicircular entry has been cut off and turned into lintelling. A coat of arms of the Ramírez de la Piscina with a marquis crown has been preserved. The first floor openings appear to be Renaissance.*

Aurreko eraikinaren barruko aldea eraitsi ondoren –kanpoko hormak kontserbatu egingo baitira eta etorkizuneko eraikinerara bildu– hasi genituen geure lanak.

Lehen azterketa gisa, esan dezagun orubearen barruko aldea lastra edo hareharrizko geruza baten gainean dagoela orubea, harri mota horrek orube osoa hartzen duela eta perimetro osoan ez duela kota alderik erakusten. Gainazalak arazo gutxi eskaintzen zituen, zaborrak bertatik jasoak izan baitziren.

Honenbestez, orube osoa hartzen zuen hareharrizko geruzaren lodiera altxatzera mugatu ziren lur-mugimenduak.

Ez genuen orube honetan aurreko okupazio mailarik bereizi..

Harearri hau Bastidako beste leku batzuetan aurkitutako harri berdina dela ematen du. Kasu honetan, harrizko geruza hau naturala (harri ama) zela uste izan genuen, obren gaineko kontrol lanek adieraziko zigutenaren zain.

Zapatak ipintzeko zulatze lanen gaineko jarraipen arkeologikoa egin ondoren, esan dezagun eragina erabat arindua gertatu dela hasiera proiektuari inolako neurri zuzentzaile ezarri gabe.

Los trabajos comenzaron una vez efectuado el derribo del interior de la edificación precedente, exceptuando los muros exteriores que van a conservarse y a integrarse en la futura edificación.

Como análisis preliminar hemos de señalar que el interior del solar está ubicado sobre un estrato de lastra o roca arenisca, que ocupa todo el solar y que no presenta ninguna diferencia de cota en todo su perímetro. La superficie mostraba pocas dificultades dado que los restos de los escombros habían sido limpiados.

Los trabajos de remoción se limitaron al desgaste y eliminación de parte de la potencia del estrato de arenisca que ocupaba todo el solar.

No se localizaron niveles de ocupación anteriores del solar.

Esta roca arenisca parece ser igual a las localizadas en otros lugares de la villa. En este caso creímos que este estrato rocoso era natural (roca madre), a expensas de lo que pudiera acontecer tras el control de las obras.

Una vez realizado el seguimiento arqueológico de los trabajos de perforación para la colocación de las correspondientes zapatas, podemos ratificar que el impacto ha sido paliado sin la aplicación de ningún tipo de medidas correctoras sobre el proyecto inicial.

*Francisco Javier Zumalabe Makirriain*



#### D.1.3.6. **Kale Nagusia, 17 (Labastida)**

Zuzendaritza: Fran Zumalabe Makirriain  
Finantzazioa: Miriam Perez, Arabako  
Foru Aldundia

#### D.1.3.6. **Mayor, 17 (Labastida)**

Dirección: Fran Zumalabe  
Makirriain  
Financiación: Miriam Perez, Diputación  
Foral de Alava

*The work here was aimed at expanding the knowledge about the town's urban configuration, in other words, the dividing of the land into plots and the possible modifications that it has undergone during the course of time. An attempt was made at the same time to locate the remains of foundations or of structures used for both urban and defensive purposes.*

Interbentzioan lehen urratsa orubea hartzen zuen etxebizitzaren barrunbea garbitzea izan zen. Etxebizitza hau kontserbazio egoera ezin kaskarragoan zegoen, eta egitura batzuk lur jotzeko zorian zeudela ikus zitekeen, eraikina abandonatu ondoren hondatuz joan zelako.

Garbitze lan hauek egitean ikusi ahal izan genuen gainazala oso nahasita zegoela. Eta hori ondo asko hautematen zen eraikinaren hegoaldean, egungo kalearen eta orubeko zoruaren arteko kota alde agerikoa zelako.

Halatan, orubea garbitzeari ekin genion zaborrezko geruza altxatuta. Ondorioz, leku batzuetan hareharrizko harri ama azaldu zen.

Orubearen gainazal osoan zaborrezko maila altxa eta gero, zanga bat ireki genuen diagonalean (Z-1), 6,80 m luze eta 1,50 m zabal, balizko egiturak edo egoitza aztarnak aurkitzeko xedean. Gainazaleko geruzarik (1. U.E.) ia ez zegoela berretsi eta gero, 1. zangaren hegoaldeko muturrean bereizitako hondakinatar mugatu genuen gure jarduna; bertan horma baten egitura azaleratzen zen (hegoaldeko horma, 4. U.E.), eta haren gainean, planoen arabera, egungo etxeko trenkada bat ageri da bermaturik.

Geroago, aztarnak urriak zirela ikusirik, beste zanga bat egiteko erabakia hartu genuen, oraingoan aurrekoaren zeharrean (Z-2). Zanga hau 4,15 m luze eta 1,50 m zabal zen, eta eraipen materialez osatutako lehen zentimetroak altxa eta gero, horma baten egitura geratu zen agerian (4. U.E.), ondo eskuairatutako harlanduez egina (ekialdeko horma).

Interbentzioari ekinik, aipagarria da orubeko estratigrafiaren lodiera apala eta erreferentzia kronologiko gisa balio liezagukeen materialaren gabezia.

Izan ere, iparraldean kaleko mailatik behera 14 cm eskasera ageri da harri ama; haren gainean eraiki zituzten jarraian adierazten ditugun elementuen oinarriak.

1. zangaren hegoaldean ageri da. 4. U.E.ko hormaz ari gara, orubea ekialdetik mendebaldera ebakitzten duena. Higiezin honetako gibelaldeko hormarenak egingo zituen luzaroan.

Horma hau 70 cm zabal da eta 1. zangaren zeharrean ageri da; aurrerago angelu zuzena eratuz

El primer paso de la intervención consistió en limpiar el interior de la vivienda que ocupaba el solar. Esta vivienda presentaba un lamentable estado de conservación observándose riesgo de derrumbe en parte de las estructuras como consecuencia del deterioro sufrido tras su abandono.

Al realizar la limpieza pudo observarse una gran alteración de la capa superficial. Esto se veía claramente en la zona sur del edificio, pues el desnivel de cota entre la calle actual y la del suelo del solar era evidente.

Así pues se procedió a limpiar el terreno eliminando la capa de escombros, lo que permitió la aparición en algunos lugares de la roca madre de arenisca.

Una vez eliminado el nivel de escombros en toda la superficie del solar, se procedió a realizar una zanja en diagonal (Z-1), de 6,80 m. de largo por 1,50 m. de ancho, que nos permitiese localizar posibles estructuras o evidencias de habitación. Confirmada la práctica inexistencia del nivel superficial (U.E.1), la actuación se centró en los restos localizados en el extremo sur de la zanja-1 donde afloraba la estructura de un muro (muro S, U.E.4) sobre el que, al mirar en los planos, aparece sustentado un tabique de la casa actual.

Más tarde y por la escasez de evidencias, nos propusimos efectuar otra zanja, pero esta vez en sentido transversal a la anterior (Z-2). Sus dimensiones fueron 4,15 m. de longitud por 1,50 de anchura, lo que tras rebajar unos centímetros de material de derribo nos mostró una estructura de muro (U.E. 4) con sillares bien escuadrados (muro E).

Iniciada la intervención se destaca como característica principal la escasa potencia estratigráfica del solar y la ausencia de materiales que puedan servirnos como referencia cronológica.

En efecto la roca madre se localiza, en la zona norte, a escasos 14 cm. del nivel de la calle y sobre ella se construyen las bases de los elementos que a continuación detallamos.

Se localiza en la zona sur de la zanja -1 nos referimos al muro (U.E.4) que corta transversalmente el solar de E. a W. Y que durante bastante tiempo debió constituir el muro zagüero del inmueble.

El muro mide 70 cm. de anchura dispuesto transversalmente a la zanja-1 que discurre mas tarde en

egiten du iparraldera 2. zanga ebakitzeko eta etxeko banaketa zaharreko alboko horma eratzeko.

Horma hau zuzenean bermatzen da zoru naturalaren gainean, xede horretan harri aman egindako zapatari egokituz.

Zundaketa honek eskainitako datuek jatorrizko horma (4. U.E.) honen presentzia esanguratsua eskaintzen digute; horma hori egungo eraikina eraikitzean eraitsiko zuten, eta horma zaharrok ageriko elementu berrietarako basamentu gisa baliatuko zituzten. Hala, bistan da jatorrizko orubea handitzeko prozesuari ekin ziotela, orubea luzeran eta zabaleran handitu baitzuten aurreko egitura guztiak betikoz galaraziz.

Horma honen goiko aldean eta hari atxikirik, orban ilunago bat bereizi genuen (6. U.E.). Beraz, hartan sakondu genuen, baina landare ikatz zatiki guztiz txiki batzuk alde batera utzita, ez genuen aztarna esanguratsurik topatu. Hortaz, zabortegi edo sutegi baten hondakinak zirela pentsatu genuen.

1. zangaren hasieran hustubide bateko hodi bat bereizi genuen (6. U.E.), eta beharreko ikerketa lanak eginda jakin genuen 70. urteetan paratua zela.

Terrazara ematen duen angelu batean aipagarria da piramide itxurako euskarri handia (8. U.E.), hareharrikoa (argazkian), zurezko zutarri bati eusten diona. Etxebizitza zahar hartako egitura dela ematen du, eta itxura guztien arabera egungo eraikina eraiki zutenek ez zuten hura eraitsi nahi izan, edo ezin izan zuten.

Aztertutako orubean aurkitutako beste egiturek agerian uzten dute lehendik beste eraikin bat izan zela bertan, egungo lursailak direnak direla, orube honetan egongo zena. Horma hauen presentziak (4. U.E.) eta fatxadako eta mehelineko hormekiko duten loturak, agerian uzten dute orube hau horma handiak zituen etxetzar batek okupatu zuela. Hormen handiak adierazten digu eraikin sendoa izango zela, bertako biztanleen ahalmenen arabera, eta kronologiaren ikuspuntutik egungo fatxadaren garai bertsukoa, bertara txertatzen baita. Beraz, XVIII. mendera garamatza.

ángulo recto en dirección norte para cortar la zanja -2 y continuar formando la pared lateral de la antigua partición de la casa.

Este muro se apoya directamente sobre el suelo natural, encajonándose en una zapata ejecutada a propósito sobre la roca madre, para ello.

Los datos ofrecidos por este sondeo aportan la presencia significativa de este muro primitivo (U.E. 4) derribado al construirse el edificio actual y utilizando los restos de estas antiguas paredes como basamentos para la realización de los nuevos elementos emergentes evidenciando la existencia de un proceso de ampliación del primitivo solar, tanto longitudinal como transversalmente arrasando las estructuras anteriores

En la parte superior de este muro y adosado a él apareció una mancha mas oscura (U.E.6) por lo que procedimos a su profundización sin lograr ninguna evidencia llamativa excepto algunos minúsculos fragmentos de carbón vegetal. Esto nos hizo pensar en un posible basurero o restos de un hogar.

En el inicio de la zanja-1 se localizó una tubería de desagüe (U.E.6) que tras las investigaciones consiguientes supimos que fue colocada en los años 70.

En uno de los ángulos que dan a la terraza, destaca un gran soporte piramidal (U.E.8) de piedra arenisca (foto) que sujeta un pilar de madera. Parece ser un vestigio de aquella antigua vivienda y parece que los constructores de la edificación actual no pudieron o no quisieron derribarlo

Los restos de estructuras localizadas en el solar intervenido evidencian la presencia de un edificio anterior que ocupó quizás independientemente de las parcelas actuales, este mismo solar. La presencia de estos muros (U.E.4) y su conexión con las paredes de la fachada y la medianera, evidencian la ocupación del solar por una casona de grandes muros. El tamaño de estos muros nos hace pensar en un edificio sobrio y solo comparable a sus vecinos e, incluso cronológicamente, de la misma factura que su fachada actual, dado que se inserta en ella. Esto nos remontaría hacia el siglo XVIII.

*Francisco Javier Zumalabe Makirriain*

#### D.1.3.7. **Kale Nagusia, 26 (Labastida)**

Zuzendaritza: Fran Zumalabe Makirriain  
Finantzazioa: Restauraciones Legarda,  
S. L. L., Arabako Foru Aldundia

#### D.1.3.7. **Mayor, 26 (Labastida)**

Dirección: Fran Zumalabe  
Makirriain  
Financiación: Restauraciones Legarda,  
S. L. L., Diputación Foral de Álava

*Work commenced once the previous building had been demolished. As a preliminary analysis we should point out that the inside part of the plot of land is located on a natural rock stratum commonly known as milestone or sandy marls, which occupy the entire plot.*

Balorazio arkeologikoari leku egiten zion orubean hainbat zanga ireki genituen, 2 metro luze eta 1,5 metro zabal, barruko gela biak hartzeko. Gainera, ezkaratzean iparraldetik hegoaldera egiten zuen beste zanga bat ireki genuen. Mendebaldean kata bat egin genuen.

Baloraziorako zangen indusketak, eskuz eta bitarteko mekanikoak baliatuta egindakoak, agerian utzi zuen zoru naturala orube osoan zehar eta 2 cm-ko sakonera eskasean. Barruko geletan gainazala arinki garbituta orubeari leku egiten zion hareharrizko geruza azaltzen zen.

Kanpoko aldean egindako zundaketetan geruza naturala hautsi egin genuen geroago ustekaberik ez izateko.

Bestalde, esan dezagun ez genuela material arkeologikorik aurkitu.

En el solar objeto de valoración arqueológica se abrieron unas zanjas con unas dimensiones de 1,5 m. de anchura por 2 m. de longitud ocupando prácticamente los dos recintos interiores. Además, en el espacio de la entrada se efectuó una zanja de norte a sur, así como una cata en su zona oeste.

La excavación de estas zanjas de valoración, con procedimientos tanto manuales como mecánicos y metodología arqueológica a puesto al descubierto el suelo natural en todo el solar a menos de 2 cm. de profundidad. Tan solo con una pequeña limpieza superficial afloró en las estancias interiores el estrato de roca arenisca sobre el que se halla construido el solar.

En los sondeos del exterior tan solo rompimos el estrato natural para evitar sorpresas posteriores.

Por otro lado podemos asegurar que la localización de materiales arqueológicos ha sido nula.

*Francisco Javier Zumalabe Makirriain*

#### D.1.3.8. **Ama Sortzez Garbiaren eliza. Arkupeak, Buradon Gatzagan (Labastida)**

Zuzendaritza: Idoia Carlota Domínguez  
Beltrán de Heredia  
Finantzazioa: C.P.A. S.L.

#### D.1.3.8. **Iglesia de la Inmaculada Concepción. Pórtico, en Salinillas de Buradón (Labastida)**

Dirección: Idoia Carlota Domínguez  
Beltrán de Heredia  
Financiación: C.P.A. S.L.

*The current archaeological monitoring was prompted by the work to restore the plinth of the portico of the Parish Church of the Immaculate Conception in Salinillas de Buradon. The work has provided fresh data on the historical and building development of the parish church and the history of the town.*

Kontrol arkeologikoa Buradon Gatzagako (Labastida, Araba) Ama Sortzez Garbiaren Elizako arkupeko zola eta eskailera berritzeko proiektuaren baitara biltzen da. Birmoldaketa honek eskailera kentzea eta zoru modernoaren maila beharrezkoa aurreikusten zuten; beraz, lanok zuzeneko eragina izango zuten arkupeko zorupean. Parrokia hiribilduko harresiz barneko

El control arqueológico se enmarca dentro del proyecto de reforma de la solera y escalera del pórtico de la Iglesia de la Inmaculada Concepción de Salinillas de Buradón (Labastida, Álava). La remodelación preveía la retirada de la escalinata y el rebaje del suelo moderno, de modo que afectaba directamente al subsuelo del pórtico. La parroquia se ubica en el interior del recinto

Hirigune Historikoan dago, Gune Arkeologikoan Multzo Monumentalaren kategoriaz izendatzen den eremuan (1996ko apirilaren 12ko EAO, 71. zenbakia, 6201-6204. orr.). Kultura Ondareari begira 1990ko 7/1990 Legeak xedatzen duenari jarraiki, kasu hauetan eta obrek ukitu lezaketen interes arkeologikoko elementuak erregistratzeko eta dokumentatzeko xedean, orain aurkezten ari garen interbentzio arkeologikoa bururatu genuen.

Estratigrafiaren ikuspuntutik, aurreneko mailek ez zuten inolako zailtasunik eskaini, hormigoizko zorua eta haren azpiko maila berdintzeko betegarria baizik ez ziren. Baina bigarren geruza hori altxatutakoan, errealtate askoz ere konplexuagoa azaldu zen.

Hasteko, bankuen eta dorreari sarrera egiten zion eskailleraren azpian aski trinkoa zen betegarri bat bereizi genuen, lurrez eta harriz osatua, egitura moderno horien euskarriarenak egiten zituena. Haren presentziak eragotzi egiten zuen arkupeko zoruko eta dorre nahiz elizaren hormetako unitate estratigrafikoen arteko harremana zehaztea. Betegarri hau mendebaldeko eta ekialdeko zutarriei eta elizako portaleari atxikita ageri zen. Bere aldetik, ateko atalasea harlandu luzanga batzuek osatuta zegoen, eta itxura guztien arabera portalea eraiki ostekoak dira.

Arkupearen mendebaldeko atala nahasita zegoen, eta bertan betegarri eta egitura modernoak bereizten diren, guztiak argindarraren instalazioarekin eta saneamendu azpiegitura modernoekin zerikusia zutenak.

Arkupeko arkuak, ondo landutako kareharriekin egindakoak, itxuratzen dituzten zutabeek eta zutarriek elementu interesgarri bat eskaintzen digute. Guztiak bermatzen dira hareharrizko bloke handiekin eta kareharriren batekin egindako zimentarri-egituraren gainean. Era berean, hegoaldeko portaleak, ondo landutako kareharriekin egindakoak, hareharrizko blokeez egindako zimentarria erakusten zuen ate-zangoaren azpian. Zutabe molduratuaren danbor hondakinak, harlandu batzuk eta hareharriaren landutako kapitela oso hondatua azaldu ziren Buradonen xvi. mendean edo xvii. mende hasieran egindako eraikuntza obretan eta betegarrietan, Plaza Nagusian egindako indusketan<sup>43</sup>; aztarna horien tipologiari eta piezen azken ukituei erreparatu gero, xiv. mende inguruak direla esan genezake. Kasu honetan ere, aurreko elizako hareharrizko elementu batzuk horma berrietako zimentarrietan berriro ere erabili zituztela pentsa genezake.

Arkupearen parte handi batean legarrez osatutako geruza bat zabaltzen zen, eta haren gainean gainazal bat hauteman zitekeen, agian aurreko zoru baten arrastoa zena. Ekialdeko muturrean, legar naturalek

amurallado del Casco Histórico de la villa, declarada Zona Arqueológica con la categoría de Conjunto Monumental (BOPV, 71, 12-4-1996, pp. 6201-6204). Tal y como dispone la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural en estos casos y con el objetivo de registrar y documentar todo elemento de interés arqueológico que se pudiera ver afectado por las obras, se llevó a cabo la presente intervención arqueológica.

Desde el punto de vista de la estratigrafía, los primeros niveles no causaron ninguna complicación, pues se trataba del suelo de hormigón y el relleno de nivelación que se encontraba bajo el mismo. Pero una vez eliminado este último estrato se nos presentó una realidad más compleja.

En primer lugar, bajo los bancos y la escalera de acceso a la torre se apreciaba un relleno bastante compacto compuesto de piedras y tierra que sirve de asiento para estas estructuras modernas. Su presencia impedía apreciar la relación entre las unidades estratigráficas del suelo del pórtico y las paredes de la torre y de la iglesia. Este relleno se adosaba a las pilastras W y E y a la portada de la iglesia. Por su parte, el umbral de la puerta estaba formado por unos sillares alargados que parecen posteriores a la construcción de la portada.

El tramo occidental del pórtico estaba bastante removido, apareciendo rellenos y estructuras modernas en relación con la instalación eléctrica y los trabajos de saneamiento modernos.

Un elemento interesante nos lo ofrecen las columnas y pilastras que forman la arquería del pórtico, realizada en piedra caliza bien labrada. Todas ellas se apoyan sobre estructuras de cimentación realizadas con grandes bloques de piedra arenisca y alguna caliza. Asimismo, la portada sur, realizada con buena sillaría caliza presentaba una cimentación compuesta por bloques de piedra arenisca, descubiertos bajo las jambas de la misma. Restos de tambores de columna moldurados, algunos sillares y un capitel muy deteriorado realizados en arenisca aparecieron en los rellenos y obras de construcción realizadas en Salinillas en torno a finales del s. xvi o principios del s. xvii, en la excavación realizada en la Plaza Mayor<sup>43</sup>, los cuales atendiendo a la tipología y al acabado de las piezas se pueden fechar en torno al s. xiv. Podemos pensar que también en este caso, algunos elementos de arenisca de la iglesia precedente son reutilizados en las cimentaciones de las nuevas fábricas.

En gran parte del pórtico se extendía un estrato de gravas, sobre el cual se intuía una superficie, tratándose quizás de la impronta de un posible suelo anterior. En el extremo oriental las gravas naturales se fundían

<sup>43</sup> BENGOTXEA REMENTERIA, B.; «La villa medieval de Salinillas de Buradón (Álava). Una aproximación a la génesis y evolución de su espacio urbano», (Erdi Aroko Buradon Gatzagako hiribildua (Araba). Hurbilketa haren izaerari eta hiri espazioaren bilakaera) *Arqueología y territorio medieval*, 8, Jaen, Jaengo Unibertsitatea, 2001, 253-287. orr.

<sup>43</sup> BENGOTXEA REMENTERIA, B.; «La villa medieval de Salinillas de Buradón (Álava). Una aproximación a la génesis y evolución de su espacio urbano», *Arqueología y territorio medieval*, 8, Jaén, Universidad de Jaén, 2001, pp. 253-287.

bat egiten zuten buztin naturalekin, alde honen zorupeko zoru naturala eratuz.

Buztin eta legarrezko geruza honetan induskatuz, ebaki eta betegarri batzuk bereizi genituen, haiek identifikatu genituen baina ez genituen induskatu, obra berriak ez baitzituen ukitu behar.

Hiru hilobi induskatu genituen, hiruak aski kota garaian arkupeko zoruaren kotarekiko, izan ere zola modernotik behera 0,26 cm-ko sakonera mailan azaldu ziren. Arkupearen zoruaren azpian azaldu zirenez, arkupea eraiki aurreko eta elizaren hegoaldeko sarrera egin aurreko hilobiak direla pentsa genezake. Ez luke zentzu handirik hegoaldeko sarrera gaitu ondoren, tenplurako sarreraren azpian inor lurperatzeak.

Interbentzio honek, hiribilduko beste gune batzuetan bururatu diren beste lanek bezalaxe, zorupeko estratigrafiak hiribilduko historiari buruz dakizkigunak eta parrokiari berari buruz dakizkigunak zabaltzeko eskaintzen dizkigun aukerak berresten dizkigu.

con la arcilla natural, formando parte del subsuelo natural de esta zona.

Horadando estas arcillas y gravas se hallaban algunos cortes y rellenos, los cuales fueron identificados, pero no excavados, pues no se iban a ver afectados por la nueva obra.

Tres han sido los enterramientos que se han excavado, todos ellos situados a una cota bastante alta respecto al suelo del pórtico, a 0,26 cm. de la solera moderna. Dado que se encuentran bajo el suelo del pórtico, podemos pensar que se trata de enterramientos anteriores a la construcción del pórtico y del acceso sur a la iglesia. No tendría mucho sentido que una vez habilitada la entrada por este lado, se enterrara bajo el paso de acceso al templo.

Esta intervención, al igual que otras que se han llevado a cabo en otros puntos de la villa, confirma las posibilidades que la estratigrafía subyacente del subsuelo ofrece para ampliar nuestro conocimiento sobre la historia de la villa y, en su caso, de la propia parroquia.

*Idoia Carlota Domínguez Beltrán de Heredia; Alaitz Etxebarria Akaiturri*

#### D.1.3.9. **Laurel eta Eliza kaleen arteko izkina, Buradon Gatzagan (Labastida)**

Zuzendaritza: Sergio Escribano Ruiz  
Finantzazioa: Arabarri, Arabako Foru Aldundia

#### D.1.3.9. **C/ Laurel esquina C/ La Iglesia, en Salinillas de Buradón (Labastida)**

Dirección: Sergio Escribano Ruiz  
Financiación: Arabarri, Diputación Foral de Álava

*The restoration process of the historical building under study has entailed an advance analysis of it as well as an archaeological monitoring of the restoration works themselves. All this has led to fresh information about the medieval walls, the building –constructed between the middle of the 17th century and the end of the 18th century– and its subsequent development. Likewise, the restoration has enabled the physical integrity of the patrimonial elements included in the plot of land occupied by the building under study to be protected.*

Buradon Gatzagako Eliza kalearekin izkina egiten duen Laurel kaleko eraikinaren babes partzialak, haren kokalekua eta izaera historikoa kontuan harturik partzialki babestu beharreko eraikin gisa kalifikatu baitzuten 2003ko otsailaren 4ko 20/2003 dekretuaren bidez, bertan arkeologikoki jardutera eraman gaitu.

- Lehenik eraikinaren hormak aztertu genituen hiezina dokumentatzeko eta haren historia-erakuntzaren bilakaera zehazteko asmoz.
- Era berean, bigarren aldi batean, birgaitzeko obren gaineko kontrola bideratu genuen; interbentzio honek eraikinak okupatzen duen orubera bildutako ondare elementuen (zorupea, harresiak, eraikineko fatxada) babesa ziurtatu zuen, eta eraikineko paramentuen irakurketan lortutako informazio arkeologikoa osatzeko modua eskaini zuen.

La protección parcial del edificio sito en la calle Laurel esquina la Iglesia, de Salinillas de Buradón, establecida en el decreto 20/2003 de 4 de Febrero en base a su carácter histórico y ubicación, ha supuesto la necesidad de intervenir arqueológicamente en el mismo.

- En primer lugar se ejecutó el análisis de los alzados del edificio, a fin de documentar el inmueble y determinar su evolución histórico-constructiva.
- Asimismo, en una segunda fase, se ha realizado el control de las obras de restauración, intervención que ha garantizado la protección de los elementos patrimoniales englobados en el solar que ocupa el edificio (subsuelo, murallas, fachada del edificio), y que ha posibilitado complementar la información arqueológica obtenida durante la lectura de los paramentos del edificio.

Honenbestez, interbentzio bieie esker lortu genituen emaitza garrantzitsuak aurkeztuko ditugu jarraian, labor-labor, aztertutako eraikinaren historia-eraikuntzaren bilakaeran oinarriturik.

### **1. aldia: Aldez aurrekoak (Harresia)**

Aztergai dugun eraikina eraiki zutenek lehenik zegoen egitura handi bat aprobetxatu zuten mendebaldeko horma gisa, harresia, zehatzago adierazteko fundazio uneari dagozkion harresi atalak (xiii. mendea) eta handitutako harresi atala (xv.-xvi. mendea).

Egungo eraikinak bere egin zuen harresi atalak jatorrizko egituraren paramentua kontserbatzen du, baita ingurubideko karela eta handitutako harresiari zegozkion almenak ere. Aipagarria da zein egoera onean kontserbatzen den, eta hiribilduko biztanleek euren bilakaera historikoaren une jakin batean ezagutu zuten harresia bere horretan dokumentatu ahal izan genuen hura birgaitzeko prozesuan zehar.

### **2. aldia: Eraikinaren eraikuntza**

Eraikina eraikitzeke xedean hasteko eraikuntza helburuetarako egokitu behar izan zuten harresia; beraz, lehenik harresia behertu zuten aztertzen ari garen eraikinaren eta hegoaldera egiten duen harresiaren mendebaldearen arteko atalean. Nolanahi ere, guk uste dugu harresiaren garaieraren apaltze hau Oñatiko Kondeen Jauregia eraikitzeke obretan zehar bururatu zutela, jauregi baten eraikuntzak harresiaren garaieraren beharrez dakarren beste adibide batzuekin gertatzen den bezala. Hala eta guztiz ere, eraikinaren mendebaldeko horma osatuko zuen harresi atala errespetatu zuten, badiñu orube honetan aipatutako beharrez ekin baino lehen proiektu, eraikin edo jabetza bat bazegoela.

Ebaki hori egin eta gero, eraikinaren behe-oineko zimentarria eraiki zuten, oso-osorik landu gabeko harriz eraiki ere. Haren gainean eta harresiko karela gainean –egoki iritzi zioten erabilerarako kotaraino behertu baitzuten–, fatxada nagusia altxatu zuten, harlanduzkoa, belarri itxurako hainbat bao dituen. Ekialdeko fatxada ere landu gabeko harrizko zimentariaren gainean bermatu zuten, baina horma hau adobe eta zurez egin zuten, hartatik kontserbatu diren hondakin apurrek adierazten digutenez. Horma honen lekuan beste bat eraiki behar izan zuten geroago, eta bigarren honek ere antzeko ezaugarriak izan zituen.

Egun kontserbatzen diren beste hormak ez dira jatorrizkoak; gainera eraikinaren altuera behertu egin zuten geroagoko une batean, eta horrek zeharo galarratzen du eraikinaren jatorrizko irudiaren berri izatea. Nolanahi ere, badaude haren jatorrizko irudira gehiago hurbiltzeko modua eskaintzen diguten arrastoak. Hala, jakin badakigu eraikinak jatorrian merloien arteko hutsuneak bezainbeste leiho izan zituela, almenetan

Por lo tanto, a continuación resumiremos los principales resultados obtenidos gracias a ambas intervenciones, basándonos en la evolución histórica y constructiva del edificio estudiado.

### **Fase 1: Preexistencias (Muralla)**

Los constructores del edificio que nos atañe aprovecharon una gran estructura preexistente como muro occidental, la muralla, y concretamente los lienzos correspondientes al momento fundacional (siglo XIII) y a su ampliación (siglos XV-XVI).

El tramo de muralla englobado por el edificio actual conserva el paramento de la obra original, así como el pretil del paso de ronda y las almenas asociadas a la ampliación de la muralla. Su buen estado de conservación es destacable y durante el proceso de restauración se ha podido documentar la muralla tal y como la conocieron los habitantes de la villa en un momento concreto de su devenir histórico.

### **Fase 2: Construcción del edificio**

La construcción del edificio comenzó con la adaptación de la muralla a sus fines edificatorios, así, en primer lugar se produjo un rebaje en la muralla que discurre entre el edificio analizado y gran parte de la zona occidental de la muralla en dirección sur. No obstante, creemos que esta acción fue llevada a cabo durante la construcción del Palacio de los Condes de Oñate, tal y como sucede en otros ejemplos en los que la edificación de un palacio supone el rebaje de la muralla. Sin embargo, el hecho de respetar el tramo que conformará la pared occidental del edificio parece indicar la existencia en el solar de un proyecto, edificio o propiedad anterior a este rebaje.

Después de este corte se llevó a cabo la cimentación de la planta inferior del edificio, que fue construida íntegramente en mampostería. Sobre ésta y sobre el pretil de la muralla, que fue rebajado hasta la cota de uso que consideraron adecuada, emplazaron la fachada principal de sillaría que cuenta con vanos de oreja. La fachada oriental también se cimentó sobre la obra de mampostería aunque, en cambio, fue construida mediante adobe y madera, tal y como indican los escasos restos conservados de esta, obra que tuvo que ser reemplazada por una posterior de características similares.

El resto de los alzados conservados en la actualidad no son originales, además el edificio sufrió un rebaje en momentos posteriores que imposibilita conocer su imagen original. No obstante, existen indicios que permiten acercarnos más a su imagen inicial. Así, sabemos que originalmente el edificio contó con tantas ventanas como huecos habidos entre merlones, tal y como atestiguan los mechinales presentes en las al-

ikusten diren horma-zuloek eta ondorengo handitzearen baitan *in situ* ikusten den leihoak adierazten dituzten bezala. Era berean, eraikineko obretan berriro ere erabilitako hainbat piezek, Oñatiko Kondeen Jauregiko erlaitza osatzen duten piezen antzekoak, eraikinak parte gorenean Kondeen eraikinak izan zuten errematearen antzekoa izango zuela pentsatzera eramaten gaituzte.

Honenbestez, eraikina egoitzarenak egiteko xedean eraiki zutela esan dezakegu, jatorrizko eraikinaren garaiera handiak, fatxada sendoak eta barruko aldean dokumentaturiko hormako igeltsuak adierazten dituztenez. Eskura dugun informazioa aintzat harturik, gure ustez oinetxe bat izango zen, lau isuriko teilatu batekin, behe-oinean soto batekin, hegoaldeko sakonera maila justifikatzen duena; azken hau landu gabeko harrizko hormak zituen.

Kronologiari dagokionez, esan dezagun kontuan hartu beharreko irizpide bi dauzkagula esku artean. Hasteko jakin badakigu fatxada nagusia 1630. urte ondorengo dela, urte horretan hasi baitziren fatxada honen aurrean dagoen Oñatiko Kondeen jauregia eraikitzeko lanak. Lan hauek zoruaren maila berdintzeko

menas y la ventana hallada *in situ* dentro del recrecido posterior. Asimismo, varias piezas reutilizadas en diversas obras del edificio, similares a las que componen la cornisa del Palacio de los Condes de Oñate, hacen pensar que el edificio pudo contar con un remate superior muy similar al del edificio mencionado.

Por lo tanto, podemos apuntar que el edificio fue concebido con fines residenciales, tal y como parecen indicar la gran altura del edificio original, la presencia de una fachada tan noble o el enlucido documentado al interior. En base a la información disponible, creemos que se trataría de una casa solariega con una posible cubierta a cuatro aguas, y que presentaría una bodega en su planta baja, hecho que justifica la profundidad que alcanza la zona sur, que fue íntegramente revestida con mampostería.

En cuanto a su cronología cabe decir que contamos con dos criterios distintos a los que atendernos. En primer lugar, sabemos que la fachada principal es posterior a 1630, fecha en la que comienzan las obras de construcción del palacio de los Condes de Oñate situado frente a esta fachada. Estas obras finalizarán



Eraikinaren hego-mendebaldearen egoera obrei ekin baino lehen eta birgaitze prozesuaren bilakaera harresi atalean.

Estado de la zona sur-occidental del edificio antes de las obras y evolución del proceso de restauración en el lienzo de muralla.

obrarekin amaitu ziren; ondorioz, alde honetako kota gutxi gora-behera metro bete goratu zuten, ia egungo kotara iristeko. Kontuan baldin badugu hegoaldeko fatxada honetarako sarrera egungo zoruaren kotan dagoela, zoruaren maila berdinduak, dokumentu eta arkeologia iturriek berresten duten bezala, eraikina eraiki aurretik egon behar zuen; beraz, haren eraikuntza xvii. mende hasieran eraikiriko Kondeen Jauregiaren ondorengo une batean gertatu zen.

Aintzat har dezakegun beste irizpide kronologikoa baeen tipologiari dagokiena da. Belarri itxurako baoak ohikoak dira xvii. eta xviii. mendeetako landa eremuko arkitektura barrokoan. Horixe iradokitzen dute aztergai dugun eraikinaren ondoan dauden garai hartako eraikin batzuek, bata xvii. mendekoa izaki eta bestea xviii. mendekoa, bao eredu bera erabiltzen baitute. Oñatiko Kondeen jauregiak (xvii. mendearen lehenengo erdialdea) eta Montoyatarren jauregiak (xviii. mendearen lehenengo erdialdea) eta Laurel kalearen amaierako bazterrean dagoen etxe armarridunak (xviii. mendea) ari gara.

Honenbestez, eta adierazitako argudioetan oinarriturik, xvii. mendearen erdialdearen eta xviii. mendearen amaieraren arteko kronologia ematen diogu aldi honi.

Eraikin hauen itxurazko homogeneotasunari dagokionez, esan dezagun zirkunstantzia hau ez dela ausaz gertatzen; izan ere, kontsultatutako dokumentazioak jakinarazten digunez, etxeak eraikitzeako orduan hainbat baldintza bete behar zituzten (A.H.P.A. Eskribaua: Rubio Salazar, Marcos (menor). Urtea: 1648. Protokoloa: 7.944, f. 3. A.H.P.A. Eskribaua: Rubio Salazar, Marcos (menor). Urtea: 1650. Protokoloa: 7.947, f. 92). Oñatiko kondeen jauregia izan zen une oro baldintza horien erreferentzia: «*en la forma que estan las ventanas de la casa del conde mi s.r.*», «*como esta la mampostería de la casa del conde mi s.r.*».

### 3. aldia: Eraikina berreraikitzen

Eraiki ondoren, jatorrizko eraikinari goialdea moztu zioten, eta horrek zuzeneko eragina izan zuen hegoaldeko, ekialdeko eta mendebaldeko hormetan, jatorrizko garaiera galdu eta eraikin baxuago bihurtu zen. Ez dakigu zein izan ziren eraikinari goialdea mozteko arrazoi zehatzak, baina zalantzarik izan gabe esan dezakegu espazioa berregokitu zutela. Goialdea moztu eta gero aldatu egin ziren eraikinaren ezaugarriak, itxura batean behar berrietara egokitzeak. Honako atal hauetan islatu zen aldaketa: uko egin zioten fatxadan luxuzko azken ukitu batzuei, desagertutako hormatik eta hego-mendebaldeko kantoitik materiala lapurtu zuten, material guztiz apalekin berreraiki zuten eta barruko aldean ez zuten igeltsua erabili. Ezaugarri hauek guztiek zuzeneko eragina izan zuten eraikinaren estetikan; beraz, eraikinaren goialdea mozteko ekimenak eraikina funtzio berrietara egokitzea zuen helburu, funtzio horiek ez baitzuten halako harremanik eraikinaren jatorrizko irudiarekin.

Berreraikuntza lanak ezberdinak izan ziren eraikinaren fatxada bakoitzean. Halatan, fatxada nagusia ez

con una nivelación que aumentará la cota de esta zona aproximadamente un metro, llegando prácticamente hasta la cota actual. Si tenemos en cuenta que el acceso a esta fachada sur tiene lugar a la cota de uso actual, podemos afirmar que esta nivelación, atestiguada mediante fuentes documentales y arqueológicas, existía antes de erigir el edificio, por lo que su construcción es posterior a la del citado Palacio edificado a principios del siglo xvii.

El otro criterio cronológico que podemos esgrimir corresponde a la tipología de los vanos. Los vanos de oreja son habituales en la arquitectura rural barroca de los siglos xvii y xviii. Así lo atestiguan varias edificaciones de esta época situadas muy cerca del edificio objeto de estudio, que siendo una del siglo xvii y las otras del xviii utilizan el mismo tipo de vanos. Hablamos del mencionado palacio de los Condes de Oñate (primera mitad del siglo xvii), del palacio de los Montoya (primera mitad del siglo xviii) y de la casa blasonada situada en el rincón final de la calle Laurel (siglo xviii).

Por lo tanto, en base a los argumentos expuestos, atribuimos a esta fase una cronología que oscila entre mediados del siglo xvii y finales del siglo xviii.

En cuanto a la aparente homogeneidad de estos edificios cabe mencionar que esta circunstancia no parece ser un hecho fortuito, tal y como ha revelado parte de la documentación consultada, en la que se establecen las pautas a seguir en la construcción de las casas (A.H.P.A. Escibano: Rubio Salazar, Marcos (menor). Año: 1648. Protocolo: 7.944, f. 3. A.H.P.A. Escibano: Rubio Salazar, Marcos (menor). Año: 1650. Protocolo: 7.947, f. 92). La referencia de estas pautas será en todo momento la residencia de los condes de Oñate: «*en la forma que estan las ventanas de la casa del conde mi s.r.*», «*como esta la mampostería de la casa del conde mi s.r.*».

### Fase 3: Reconstrucción del edificio

Tras su construcción, el edificio original sufrirá un desmochado que afectará a sus fachadas sur, este y oeste, perdiendo su altura original y convirtiéndose en un edificio más bajo. Desconocemos cuales fueron los motivos concretos que llevaron a desmochar el edificio, aunque sí podemos afirmar que consigue readaptar el espacio. Tras la realización de este corte cambiarán las características del edificio, de cara a lo que parecen ser nuevas necesidades. Este cambio se reflejará en los siguientes aspectos: renuncia a parte del acabado lujoso de la fachada, robo del material del alzado desaparecido y del esquinual SW, reconstrucción con materiales muy pobres, interior no enlucido. Todas estas características inciden en la estética del edificio, por lo que parece que el desmochado tuvo lugar a fin de adecuar el edificio a nuevas funciones que no guardaban tanta relación con su imagen primigenia.

La reconstrucción se llevó a cabo de forma diferente en cada una de las fachadas del edificio. Así, la fachada



zuten erabat berritu behar izan, besterik gabe goialdea eta hego-mendebaldea beheratu zituzten. Geroago, fatxada honetako goialdea hainbat zentimetro goratu zuten buztinezko mortairu ugari eta landu gabeko hariak erabiliz, eta goratutako atalean zurezko leihoburuak eta teilatuko habeak txertatu zituzten. Mendebaldeko itxiturari dagokionez, almenen artean zeuden baoak itsutu zituzten buztinarekin, landu gabeko hariak eta berritako erabiliz. Ekialdeko fatxada, berriz, jatorrizkoaren moduan berreraiki zuten, zurezko zutikoekin eta karrerekin, erretikulua ortogonal eratzeko eta geroago adobeekin osatzeko.

Lehenago adierazi dugun bezala, eraikinak aldi honetan funtzioz aldatu zuela ematen du. Itxura guztien arabera, jatorrian oinetxe bat izan zena laborantza lanei emandako etxe bihurtu zen berreraiki eta gero. Hipotesi honek bermatu egingo luke aldi honetan dokumentatu ahal izan den estetikaren aurreko ukoa, espazioaren ustiapen praktikoa baten alde. Aldi honi ematen diogun kronologia XVIII. mende ondorengoa baina XX. mende aurrekoa da; beraz, aztergai dugun eraikina XIX. mendean berreraiki zutela uste dugu. Kronologia erlatiboak ematen dizkigu baieztapen hori egiteko argudioak, izan ere, jakin badakigu XVII. mendearen bigarren erdialdean eta XVIII. mendearen artean eraiki zutela. Gure ustez egokitze lanak ez zituzten berehalakoan egingo, eta badakigu eraikina XX. mende hasieran abandonatu zutela; beraz, aldi hau XIX. mendean zehar garatu zela esan dezakegu.

#### ***4. aldia: Eraikinaren erabilera berreraiki eta gero***

Aldi honetan eraikinaren barruko espazioa berrantolatu zuten, eta horretarako bao berriak ireki zituzten lehenengo oinean. Era berean, eraikin berri bat altza zuten iparraldean, eta horrek eragin zuen behe-oineko aurreko sarrera, seguru asko ipar-ekialdeko izkinan egongo zena, lekuz aldatzea. Prozesu hau bao berri bat irekita amaituko zen, behe-oinean eta aldi honetan izango zen bao bakarra. Aldi honen kronologia ez dirudi XX. mendea baino lehenagoa denik, XX. mendean abandonatu baitzuten. Honenbestez, ekimen hauek XIX. mendearen erdialdean eta XX. mende hasieran, eraikina berreraiki ondoren baina abandonatu baino lehen, garatu zituztela uste dugu.

del solar, concretamente, entre el muro que hemos denominado U.E. 44 y el actual muro zagüero de la casa. Para realizar el talud se procedió a la excavación de la arcilla natural. Posteriormente, ese talud se rebajó y alisó en su parte superior para la instalación del muro U.E. 44, que debió ser el límite de la parcela por la zagüera hasta bien entrado el siglo XIX, cuando se construye el edificio que actualmente podemos ver. Este talud forma un pequeño foso (U.E. 77), posteriormente rellenado, que como hipótesis inicial hemos relacionado con la presencia de la muralla que cerraba la villa por el este, cuando ésta contaba únicamente con tres calles, esto es, antes de la ampliación de Kalebarria. Restos de esta primitiva muralla se han detectado en anteriores intervenciones, y además, tenemos que tomar como testigo indirecto de su presencia la longitud de las parcelas de las manzanas de casas existentes entre Goienkale y Kalebarria. Hay que reconocer que para ser un foso vinculado con una muralla es un tanto modesto, pero también es cierto que hemos descubierto sólo una parte del mismo. Tampoco sería descabellado pensar que se utilizaría más que para reforzar la función defensiva de la muralla, para la canalización de las aguas que discurrirían por esta zona.

Uno de los restos constructivos más antiguos de los detectados en el solar es la U.E. 44, muro de dirección



Kalebarria, 26 (Durango). Erdi Aroko zoruairen irudia.

Kalebarria, 26 (Durango). Imagen del suelo medieval.

iparralde-hegoalde norabidean, arestian aipatu dugun hobian berdinduriko alde batean. Horma bermatzeko egin zen bereziki beheratze edo berdintze lan hori. Landu gabeko harriak ageri dituzten bi ilara kontserbatu dira, oso eraikuntza teknika sinplea salatzen digutenak: bi alde goratzen dira, erdian utzitako gunea bete gabe, eta buztin eta motrailu kontzentrazio handiagoak azaltzen dira horma-gune batzuetan. Basalandurik ageri dira axaletik harriak, itxura karratu edo angeluzuzeneko joera argiaz. Buztinez eta hondarrez oratu zen nagusiki bideratu zen motrailua, eta kolore laranja-kara eskaintzen du. 2,58 m luze eta 50 m lodi da kontserbatu den horma-tartea.

Horma honek argi eta garbi salatzen digu eraikitako lur-sailaren neurriak denboran zehar aldatu direla, lehen eraikinaren (atzean den lehen eraikinaren) atzealdeko muga eratzen duen aldetik. Agerikoa da egungo orubearen neurriak bestelakoak direla: XIX. mende barruan eraiki zuten eta aurrekoa baino metro eta erdi atzerago eraman zuten fatxada, espazio hori orubearen barruan irabaztearren.

Arestian aipatu dugun bezala, buztinean zulaturiko ezponda baten gainean bermatu zuten 44. U.E. horma. Bada, eraikuntza-sendogarri bat ageri du horma horrek alde hartara, mendebaldera, gerta litezkeen makurdura edo desixuratzeei aurre egiteko. Halatan, itxura jakinik gabeko harri oso irregularrez eta teilak puskez osaturiko egitura bat ageri du hormak bere mendebaldeko luzeran itsatsirik, ezpondaren formara egokituz.

Atzealdeko lehen horma hartan hainbat konponketa bideratuko ziren seguruenik, bertan behera erori baitzen behin gutxienez, dokumentatu dugun bezala: erortze horren hondakinak azaldu dira mugatzen zuen etxearen barruan (69. U.E.).

Dokumentatu ditugun eraikuntza-egitura zaharrene-tako bat dugu, era berean, egungo etxeak Kalebarriko 24. orubekoarekin bat duen mehelin-hormaren zatia. Zera da, zehatzago adieraztearren, aurrealdean agerian geratu zen horma zatia (53. U.E.), buztin naturalean zulaturiko hobi batean ahokatu ageri dena: sendo bermatu zen horma zimentazio-ilara baten gainean. Ez da beste hainbeste gertatzen atzealdean azaldu zen mehelin-horman (75. U.E.). Bideraturiko eraikuntza teknikei –arras bestelakoak dira batean eta bestean– eta beste unitateekin dituzten lotura estratigrafikoei erreparatzen badiegu, argi eta garbi esan dezakegu ez dutela elkarren artean loturarik eta eraikuntza une desberdinetakoa direla. Halatan, Atzealdeko mehelin-horma zatiak ez du zimentazio-ilararik eta ez da buztinean bermatzen. Izan ere, betegarri baten gainean bermaturik ageri da (87. U.E.). Indusketa lanen baldintza berezien poderioz, ezin zehaztu izan genuen zein puntutan dagoen ebakigunea.

Aipatu ditugun hormez gainera, Komentukaleko 8. orubean eta Lariz Dorrean azaldu diren fenomeno baten antz handia duen presentzia berezi bat dokumentatu dugu halaber orube honetan. Izan ere, bizileku edo jarduera-leku bateko zoruaz azaldu da orubean, oso zatikatutako oro har baina argi asko aurrealdean:

norte-sur que aparece en la zona zaguera, asentado en una zona alisada del foso al que antes aludíamos. Ese rebaje o alisamiento se realizó expresamente para asentar el muro. Se conservan dos hiladas de mampostería, y la técnica de construcción es muy sencilla: se trata de dos caras sin relleno interior, y en ciertos puntos aparecen mayores concentraciones de arcilla y argamasa. Las piedras que lo forman están ligeramente desbastadas, con una tendencia clara a la forma cuadrada o rectangular. La argamasa empleada está hecha a base de arcilla y arena básicamente, y toma un color anaranjado. El tramo conservado es de 2,58 m. de longitud y 50 cm. de grosor.

Este muro es el resto constructivo que nos indica que ha habido variación en las dimensiones de la parcela construida, puesto que marca el límite zaguero de la construcción primitiva (la primera de las detectadas), que evidentemente no se corresponde con el actual, construido bien entrado el siglo XIX, que se retranqueó metro y medio respecto al original, para ganar ese espacio en el interior del edificio.

Dada la localización de la U.E. 44, según hemos indicado, sobre un talud excavado en la arcilla, el muro presenta un refuerzo constructivo hacia ese lado, hacia el oeste, para corregir posibles inclinaciones o deformaciones. Así, aparece adosada al muro por el lado oeste, una estructura compuesta de piedra informe y muy irregular, con intrusiones de teja que sigue la longitud del muro, adaptándose a la forma del talud.

Este muro zaguero primitivo debió sufrir diferentes reparaciones, puesto que hemos documentado al menos un derrumbe, del que quedan restos hacia el que sería el espacio interior de la casa a la que servía de límite (U.E. 69).

Otra estructura constructiva que es de las más antiguas documentadas es el fragmento del muro medianil que el edificio actual comparte con Kalebarria 24. Nos referimos más concretamente al que se puso al descubierto en la zona delantera (U.E. 53), en la que aparece encajada en una fosa cortada en la arcilla natural, y presenta un banco de cimentación sobre el que se asienta sólidamente el muro. No ocurre lo mismo con el medianil que se detectó en la zona trasera (U.E. 75). Atendiendo a las técnicas constructivas empleadas, tan distintas entre uno y otro, así como a las relaciones estratigráficas que mantienen con otras unidades se puede decir que no se corresponden entre sí y que pertenecen a momentos constructivos diversos. Así, el fragmento de medianil zaguero no presenta banco de cimentación ni se asienta en la arcilla. En realidad se apoya en un relleno (U.E. 87). Dadas las características de la excavación no se pudo determinar en qué punto se encuentra el corte correspondiente.

Aparte de los muros que hemos citado, también se ha podido documentar un fenómeno que presenta fuertes similitudes con otros localizados tanto en Komentukale 8 como en la Torre de Lariz. Nos referimos a la presencia muy fragmentada, en general, pero especialmente clara en la zona delantera, de un suelo de

irmo galkaturiko buztinez egina da eta maisutasunez berdindua, eta kolore gorrixka eta laranja-karako guneak ageri ditu, erretze eta su-guneen seinale argi eta garbi. Kasu honetan, ikatz gutxi batzuk azaldu dira maila berean. Maila zaharrenetako bat dela berretsi du halaber estratigrafiak.

Bigarren okupazioaldi batean sailkatu ditugu eremua berdindu eta aurreko elementuak ezdeusean utzi nahian bideraturiko betelan batzuk. Bereziki aipagarria da beharbada burdinolako zeparen erabilera ezin ugariegoa, betelan horiek bideratzerakoan. Izan ere, zepa hutsez eginak dira geruza horietako batzuk, eta oso zoru trinkoak eta gogorrak eskaintzen dituzte. Gogora dezagun, zentzu honetan, zeparen erabileraz mintzo direla XVIII. Mendeko dokumentu idatziak, isolamendu-geruzak bideratzeko, eta etxadi honetako bereko beste eremu batzuetan ere dokumentatu izan direla gisa honetako geruzak, hala nola, adibidez, Goienkale eta Kalebarria arteko karkaban.

Materialak azaldu dira gainaldeko geruzetan, askotarikoak azaldu ere. Halatan, espazio honetako hirugarren okupazioaldikotzat jo ditugu XIX. mendean bideraturiko aldakuntzak. Oraingo honetan, aintzat hartu ditugu bereziki egun orubean ageri den etxearen eraikuntza: aurrekoaren zimentazioa baliatu zuten seguruenik etxe hau eraikitzeke, iparraldeko mehelin-hormaren aurrealdeko tarteak salatzen digun bezala (bat du egun Kalebarriko 24. orubearekin).

Bestalde, argi eta garbi mozten ditu aurreko hormak maila zaharrenak, eta etxearekin batean eraiki zela esan dezakegu ezberrik gabe.

Aurreko okupazioaldiekiko alde nabariena azaltzearen, esan dezagun barrurago eraman zutela espazio eraikia atzealdetik, 44. U.E. hormak ordura arte zehazturiko muga gaindituz eta espazio eraikiari sakoneran metro eta erdi pasa gehiago emanez. Lehen horma ezdeusean utzi eta haren eta atzealdeko horma berriaren arteko espazioa bete egin zuten horrenbestez.

Aurreko zorua berdindu eta bete zuten eraikuntza fase honetan ere. Betelan batzuk bideratu zituzten horrenbestez zorua berdintzearen eta, oraingoan bai, kronologia zehatzago batera hurbiltzeko aukera eman diguten materialak eskaini dizkigute lan hauek.

habitación o de uso, de arcilla muy prensada, con una nivelación muy conseguida, con zonas de color rojizo o anaranjado que indican inequívocamente un proceso de combustión. Hay que señalar en este caso, la presencia ocasional de carbones formando parte del nivel. La estratigrafía confirma que se trata también de uno de los niveles más antiguos.

En una segunda fase de ocupación incluimos una serie de rellenos echados con la intención de nivelar el terreno y anular elementos anteriores. Destaca quizás el empleo abundantísimo de la escoria de ferrería a la hora de hacer este tipo de rellenos. En realidad, alguna de estas capas está prácticamente compuesta de escoria, formando superficies muy compactas y duras. Hay que recordar, en este sentido, que los documentos escritos hablan de la utilización de la escoria formando capas como aislante en el siglo XVIII, y que se pudo documentar en otras áreas de esta misma manzana, por ejemplo, en la misma cárcava entre Goienkale y Kalebarria.

Los estratos superiores sí han dado más material, de carácter muy variado. Así dentro de una tercera fase de ocupación de este espacio incluimos las transformaciones habidas en el siglo XIX. Nos referimos muy especialmente a la construcción de la casa que actualmente se levanta en el solar, la cual probablemente aprovechó la cimentación de la anterior, al menos en el tramo delantero del medianil norte (actualmente compartido con Kalebarria 24).

Por su parte, el muro delantero corta con claridad los niveles más antiguos, y se puede decir que se construyó a la vez que la casa.

La diferencia más considerable respecto a las etapas anteriores será la prolongación del espacio construido hacia la zaguera, superando la línea hasta entonces marcada por la U.E. 44, y ganando así algo más de metro y medio para la construcción. Se anula el muro primitivo, y se procede a rellenar el espacio entre él y el nuevo muro zaguero.

También en esta fase constructiva se procede a allanar y rellenar la superficie anterior. A ello responden los diferentes rellenos de nivelación, que en este caso sí han dado materiales que permiten acercarnos a una cronología más precisa.

*Belén Bengoetxea Rementeria*

#### D.2.1.6. **Barinagako San Pedro Apostolua eliza (Markina-Xemein)**

Zuzendaritza: Jose Angel Lecanda  
Finantzazioa: Barinagako Parrokia

#### D.2.1.6. **San Pedro Apóstol de Barinaga (Markina-Xemein)**

Dirección: Jose Angel Lecanda  
Financiación: Parroquia de Barinaga

*The excavation of this church has made it possible, on the one hand, to confirm the hypotheses concerning its use as a modern, contemporary funerary space, and, on the other hand, to accurately verify the few surviving documentary references which tell us about its existence as a parish church in the 15th century and, prior to that, as a chapel in the 14th century, at least. But it has also thrown up other surprises, because in the part anticipated, it presents typologies which have barely been documented in the Province of Bizkaia. Furthermore, as far as its historical past is concerned, it appears to be possible to indicate that Barinaga already had a funerary use prior to the 14th century and, consequently, a religious shrine or small building capable of organising the cemetery.*

### **Sarrera**

Euskal Kultura Ondarearen alorrean indarrean dauden araudia ezinbestez bete behar diren ondorioak izan zen labor aurkeztuko dugun interbentzio hau, zorupea aldaraziko zuten saneamendu-lan batzuk programatu baitziren eliza hartan. Kontuan hartu beharra dago, bestalde, balizko arkeologia eremutzat hartu zela Barinagako parrokia-eliza Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak 1997ko maiatzaren 5ean xedatu zuen Ebazpenaren bitartez (EHAA, 1997ko 106. alea, 1997/06/06).

Bi helburu lortu nahi izan ziren interbentzio honen bitartez:

- Elizako arkeologia ondasunak dokumentatzea eta aurreikusiriko lanek ahietan ahalik eta eragin negatibo gutxien izan zitzaten neurriak eta zuzenketak bideratzea. Induskatzeko moduan zegoen eremu guztia lantzea erabaki genuen horretarako, -70 cm-ko kotaraino.
- Gutxienez bi zundaketa bideratu gainazaletik behera, zoru geologikora iritsi arte, aztarnategiaren estratigrafiaren lodiera eta sekuentzia eza-gutzearren.

Helburu haien atzetik, osorik induskatu genuen elizako habeartea, haren oinaldean zerrenda mehe bat, metro bete eskas, ukitu gabe utzirik. Hiru eremu txiki gelditu ziren bazter, presbiterio aldea eta bi sakristia txiki, transeptu txikiaren alboetan daudenak, lanek ukitu behar ez zituzten eremuak izaki.

Gutxienez -70 cm-ko kotaraino beheratu genuen landu beharreko eremu guztia (programaturiko lanen arabera, -50 cm-ko kotaraino baizik ez ziren iritsiko zulatze lanak), baina sakonera handiagoa iritsi genuen gunea ia guztietan, unitate estratigrafiko arkeologikoak, eta ez maila arbitrario batzuk, lantzearen. Arau gisa esan genezake, azkenaurreko hilobi-mailaren oinarrian zehaztu zela oro har iritsitako kota hori.

Indusketa lanetan teknika estratigrafikoa eta eremu zabaleko estrategia bideratu genituen arren, indusketa lanei ekiterakoan bi sektoretan banatu genuen habeartea

### **Introducción**

La intervención que resumimos vino motivada por el necesario cumplimiento de la normativa vigente en materia de Patrimonio Cultural Vasco, en cuanto que para el citado templo se ha programado una obra de saneamiento que supone la alteración del subsuelo, resultando por otra parte que, en virtud de la Resolución del Consejero de Cultura del Gobierno Vasco del 5 de mayo de 1997 BOPV nº 106, de 06/06/1997, la iglesia parroquial de Barinaga ha sido declarada zona de presunción arqueológica.

Con la intervención se pretendía conseguir dos cosas:

- Documentar los bienes arqueológicos del templo y proceder adecuadamente para la corrección del impacto negativo que las obras previstas pudieran causar en los mismos. Para ello se determinó la excavación total del espacio disponible hasta una cota de -70 cm.
- Realizar al menos dos sondeos de superficie significativa hasta suelo geológico, a fin de conocer la potencia y secuencia estratigráfica del yacimiento.

Para ello se ha excavado la totalidad de la nave del templo, salvo una estrecha franja a los pies del mismo con una anchura no superior metro. Han quedado excluidas tres pequeñas áreas: la zona presbiterial y las dos pequeñas sacristías que se localizan en los extremos del pequeño transeptu y que son zonas que no se van a ver afectadas por las obras.

La excavación rebajó todo el área hasta una cota como mínimo de -70 cm. (el impacto que las obras programadas prevé afectará solo a -50 cm), aunque, por lo general y a fin de excavar unidades estratigráficas arqueológicas y no niveles arbitrarios, la profundidad es mayor en casi toda la superficie, correspondiéndose la cota, como norma, con la base del anteuúltimo nivel de enterramientos.

Aunque se ha utilizado una técnica estratigráfica y una estrategia de área abierta, por razones operativas, la excavación se acometió dividiendo el espacio de la





Barinagako San Pedro (Markina-Xemein). Habearteko IMeko hilobialdea lehen maila arkeologikoetan; espazioaren antolakuntza suma daiteke, zurezko zutoinen bitartez, bai eta gorpuak pausatzeko modua, zurezko katabuten bidez, hilobi-maila berriean.

San Pedro de Barinaga (Markina-Xemein). Vista general de la zona sepulcral NW de la nave en sus primeros niveles arqueológicos; puede apreciarse la compartimentación del espacio por medio de postes de madera, así como la deposición funeraria con ataúdes de madera en el nivel más reciente de enterramiento.

teko espazioa, eraginkortasuna helburu, eta ekialde eta mendebalde izendatu genituen bata eta bestea, ageriko arrazoiengatik. Hasiara-hasieratik ageri zitzai-gun lerro fisiko argi batek zehaztu zuen banaketa hori, bi sektoreetako sekuentzia estratigrafikoa desberdina zela argiro salatzen zigun aldetik; halatan, mendebaldean sedimentu harro solte bat, beltza eta oso organikoa, dokumentatu genuen oholtzaren azpian: hezur asko azaltzen zen hartan. Beste sektorean, ordea, hondarrez eta neurri txiki eta ertaineko erreka-harriz osaturiko geruza bat azaldu zen lehenik: garai berri samarreko eraikuntza-materialen bat edo beste ageri zen tarteka eta, haren azpian, zoru geologikotik azaleratuz, ageri zen I/Eko buzadura ageri zuen kareharrizko arrakaren gainaldea. Eremua bitan banatzen zuen lerroa bat dator sarrerako atetik habeartearen hegoaldeko horman dokumentatu den zerbitzu-ate dagoeneko itxiraino luzatzen den lerroarekin. Halatan, bi zati ia berdinetan banaturik ageri zen habeartea, mendebaldeko atala handixeagoa izaki.

Zoru geologikoraino sakondu genituen indusketa lanak mendebaldeko sektorearen iparraldeko erdialde-

nave en dos sectores que hemos denominando este y oeste por razones obvias. La división vino marcada por una clara línea, física, perceptible desde el comienzo y delatadora también de una diferente secuencia estratigráfica en cada uno de los sectores; así, en el oeste se documentó prácticamente bajo la tarima, un sedimento suelto y poco compacto, negro, muy orgánico, en el que aparecían abundantes restos óseos mientras que por el contrario, el Sector este presentaba un primer relleno de arenas y cantos de río de tamaño medio y pequeño, entremezclados con algún material de construcción relativamente reciente, y bajo él aunque aflorante del suelo geológico, conformado por un crestón calizo con caída hacia el N/NE. La línea divisoria coincide con la que conduce desde la puerta de entrada a la puerta de servicio (cerrada) que se documenta en el paño meridional de la nave frente a la puerta de acceso. De este modo, queda la nave partida en dos mitades casi iguales, aunque es algo mayor la occidental

En la mitad septentrional de este sector oeste se ha procedido a la excavación arqueológica hasta suelo

an: osorik dokumentatu ahal izan genuen horrenbestez elizako sekuentzia guztia.

Ekialdeko sektorean ez genuen oro har horren sakonera handia iritsi. Begi-bistakoa da arrazoa: oholtzaren azpian azaldu zitzaigun ia-ia zoru geologikoa haren hegoaldeko erdialdean. Horrelakorik gertatu ez den aldeetan, esan gabe doa, jatorrizko zorutik behera gutxienez -70 cm-ko kotaraino sakondu genuen indusketan lanetan, eta barnago jo genuen eremu askotan, honako bi arrazoi hauengatik: lehenik, absidearen erdialdearen aurrean 16 m<sup>2</sup>-ko zundaketa bideratu genuelako zoru geologikoa jo arte eta, bigarrenik, iparraldeko transeptu aldeko eremu txiki batean eraikuntza eta hilobi hondakin interesgarria batzuk azaldu zirelako (interesa hark bultzaturik indusketu genuen alde hura arroka naturaleraino).

### **Mendebaldeko sektorea**

Oinarrian espero genuena dokumentatu dugu sektore honetan: hilobi-eremu zabal bat, seguruenik familiek erabiltzen zituzten hobiak bereizten zirenean eratu kale eta trantsituen bitartez antolatua.

Hiru ditugu, aldiz, espazio honek eskaini dizkigun berritasunak. Lehenik, hobien arteko bereizte lan hura ez zen eraikuntza-elementu eta lauzazko estalkien bitartez bideratu; aldiz, zurezko zutoinak (gaztain zura) lerrokatu zituzten horretarako, hobi bakoitzaren lau angeluak zehaztuz. Arkeografian ezaguna den arren, oso bakan baizik ez da egiteko modu hau azaldu.

Bigarren ustekabea: zurezko katabutak dokumentatu dira argi eta garbi, bai behinik behin azken hilobiratzeko aldirian. Forma berezi samarrak ageri dituzte zerraldo hauek burualdean, oinaldean eta estalkian, lehenek akabera kurbatua ageri baitute ertzetan, estalkiak arku poligonalak eratzen duten ohol batzuen bitartez itxuraturik ageri diren bitartean. Horrez gainera, aipa dezagun erdi momia bilakaturik ageri direla azaleraturiko gorputz batzuk, bai eta haien jantziak ere.

Hirugarren berritasunaren arabera argi eta garbi esan dezakegu elkarren gainean dokumentatu diren hiru hilobi-mailetako bi baizik ez direla, bi berrienak hain zuzen ere, Sektoreko zutoin-egituraren bidez zehazturik ageri, malla zaharrena ezin baita hilobiak bereizteko bideratu zen zurezko zutoin-egitura horrekin lotu.

Bi hilobi-maila berrienetan oparoa da hilobi-ostilamendu eta txanponen emana eta, beraz, berretsi ahal izan dira espero zirenen datak, egun ikusten dugun elizarekin zuzeneko harremana dutenak. Lehen mailako hilobiak ez datoz bat zurezko egituraren bitartez bereizitako sepultura-espazioaren banaketarekin, haietatik lekutuz edota aldi berean biren espazioak okupatuz.

Bestelakoa da, halaber, gorpua pausatzeko modua. Izan ere, maila berrienean zurezko zerraldoak ageri dituzten hilobiak ugari diren bitartean, bigarrene-

geológico, documentándose, de esta manera, la secuencia completa del templo.

En el Sector este la profundidad alcanzada en gran parte de su superficie es menor; la razón no es otra que la aparición prácticamente debajo de la tarima en toda su mitad sur, del suelo geológico. Obviamente donde no se ha detectado este hecho, la excavación ha rebajado igualmente como mínimo -70 cm. respecto a la cota de suelo original, y en mucha superficie más por dos razones: en primer lugar porque frente a la zona central del ábside, se practicó un sondeo de 16 m<sup>2</sup> hasta suelo geológico, y porque en un pequeño espacio en la zona del transeptu septentrional se documentaron restos constructivos y funerarios que por su interés fueron excavados hasta roca madre.

### **Sector oeste**

Aquí se ha documentado lo que básicamente cabía esperar: un amplio espacio funerario, organizado en calles y pasillos para individualizar nichos de utilización posiblemente familiar.

La novedad en este sector es triple. Primera porque esta división en nichos no se ha llevado a cabo con una obra de fábrica y cubiertas de losas, sino por medio de la disposición de postes de madera (castaño) alineados, marcando los cuatro ángulos de los distintos nichos, lo que aunque conocido en la arqueografía no deja de ser un tipo escasísimo.

Segunda sorpresa, la utilización claramente documentada de ataúdes de madera, al menos en la última fase de enterramiento, con unas formas un tanto peculiares en su cabecera, pies y cubierta, ya que las primeras son de alzado rematado en curva y la cubierta de varias tablas dispuestas en un arco poligonal. Unido a ello debe señalarse el estado de semi-momificación natural de varios de los cuerpos exhumados, así como de sus ropajes.

La tercera novedad es el hecho de que de los tres niveles de enterramientos superpuestos documentados solo estén definidos por la estructura de postes del Sector los dos más recientes ya que el más antiguo no puede ponerse en relación con la citada estructura de postes de madera que distribuye los nichos.

En los dos más recientes, la abundante presencia de ajuares funerarios y numismáticos permiten confirmar las dataciones esperadas y que están en relación directa con la iglesia que hoy observamos. Los sepultados en el primer nivel no encajan en los espacios sepulcrales individuales definidos por la estructura ligera, quedando desplazados e invadiendo parcialmente dos de ellas.

También existen diferencias en la forma de depositar el cadáver, pues mientras que en el nivel más reciente son abundantes los enterramientos con ataúdes

an zurezko hondoak baizik ez dira dokumentatzen kasu urrietan eta, beraz, anda moduko batzuk baizik ez ziren izango hondo haiek. Beheko hilobi-mailan ez da interpretaziorako biderik emango lukeen zurezko hondakinik azaldu, hilobi-egitura baten atal gisa.

Horiez gainera, azken hilobi bat aipatu beharra dago bereziki aurkezpen honetan, mendebaldeko sektorearen iparraldeko erdialdeko bigarren kalean azaldu da, habeartearen bigarren ataleko hormaren alboan, arku gerrikoduna zurkaizten duen zutariaren abiaburuaren ondoan, arkuaren zimentuaren azpian ere barneratuz hein batean. Estratigrafiari dagokionez, sektorean aipatu den hirugarren hilobi-maila baino lehentxeago ageri da eta bainuontzi itxurako hobi bakun bat da, zoru geologikoan zuzenean zultatua eta E-M norabidean orientatua.

### *Ekdialdeko sektorea*

Elizaren sarrerako atetik absideari sarrera egiten dion eskailera-maila ondoraino I-H ebakitzen duen irudizko lerrotik hasita, geruza geologiko naturalaren azalera bizkorra zehazten du habeartearen ekialdeko erdialdearen izaera. Habearen zabalaren bi heren hartzen ditu, eskailera-maila eta elizako iparraldeko transeptutik gertuen dagoen aldea libre utzirik.

Ez da alde honetan hilobi-jardun garrantzitsurik sumatzen, eta ez da, era berean, mendebaldeko zurezko zutoin-egituraren bidez itxuraturiko mailekin inolako garaikidetasunik zehazteko modurik izan. Aldiz, bi erakuntza une desberdinetako harrizko eraikuntza-egiturak dokumentatu dira.

Hormak dira biak, zuzena, E-M norabidean luzatua eta kareoz oraturiko harzabal eta erdi landuriko harri handiz eraikia bata, eta L itxurako oina ageri duena bestea. Bigarren honen alde luzea aurreko hormaren paraleloan luzatua da eta bat dator elizaren hegoaldean egun ageri den hormaren lerroarekin; alde laburra, aldiz, I-H norabidean luzatua da eta bat egiten du aurreko hormarekin, hartan bermatuz. Zirkulu erdi baten itxurako oina suma daiteke bigarren hormaren barrualdean. Erreka-harriz eta landu gabeko harriz egina da, kareoz oratua guztia.

Hilobi batzuk dokumentatu dira horma bien artean, eta haien azpian. Harri naturalean zulatu zituzten eta sakonera txikiko bainuontziak dirudite. Zistak itxuratzen zituzten harzabalen hondakinak ageri dira gutxienez horietako hiru hilobietan.

Oso hezur gutxia azaldu dira alde honetan, oso zatiurik eta arras egoera txarrean. Ez da ostilamendurik ez beste hondakinik dokumentatu.

### *Interpretazioa*

Une honetan interpretazio historikoan barneratzea saiakera gisa baizik har ez litekeen lana dugu, betiko

de madera, en el segundo nivel no parece documentarse más que fondos, en el menor de los casos y que también pudieran interpretarse como simples parihuelas. En el nivel inferior no hay restos de madera interpretable como parte de una estructura funeraria.

Además un último enterramiento debe ser reseñado aquí. Se encuentra en la calle segunda de la mitad septentrional del Sector oeste, pegando al muro del segundo tramo de la nave justo en su arranque a partir de la pilastra que apea el arco fajón, y parcialmente bajo los cimientos de éste. Se encuentra en situación estratigráfica anterior al tercer nivel de enterramiento indicado en el Sector y se trata de una fosa simple en forma de bañera excavada directamente sobre el suelo geológico, orientada E-W.

### *Sector este*

La mitad oriental de la nave, desde la imaginaria línea transversal que la corta N-S a la altura de la puerta de acceso y hasta el pie mismo del peldaño que da acceso al ábside, se encuentra caracterizada por la presencia aflorante del estrato geológico natural. Ocupa las dos terceras partes de la anchura de la nave, dejando libre la zona más inmediata al peldaño y el transepto norte de la iglesia.

Aquí no se detecta tanta intensidad de la actividad funeraria y menos en relación de coetaneidad con la protagonizada por la estructura de postes del sector oeste, pero en cambio, se documentan algunas estructuras constructivas pétreas de dos momentos constructivos distintos.

Son dos muros, uno recto con orientación E-W, construido con grandes lajas y sillarejos trabados con argamasa de cal y arena, y otro con planta de L, con su lado largo casi paralelo al anterior y coincidiendo con la línea del actual muro meridional del templo, y su brazo corto, orientando N-S, enlazando con el primero y apoyándose en él. El segundo parece mostrar por su interior, una ligera planta semicircular. Es fábrica de cantos y mampostería trabada con argamasa.

Entre ellos y debajo físicamente de ellos, se documentan algunas sepulturas; excavadas en la roca natural, tienen planta de bañera de escasa profundidad y, al menos en tres casos, restos de lajas que dibujan cistas.

Los restos óseos conservados son escasos, muy fragmentados y en mal estado de conservación. No se documentan ajuares ni otra clase de restos.

### *Interpretación*

Adentrarse ahora en la interpretación histórica no puede sino considerarse como un ensayo, pues para

konklusioak eskaini ahal izateko ezinbestekoa baita horretarako hasi baizik ez den egin azterketa geldiago bat.

Aurrerapen gisa esan dezagun iraupen luzeko hilobi-okupazioa eskaintzen duen leku bateko sekuentziaren aurrean gaudela eta, ageriko zantzuek darakusten diguten bezala, antzeko errito eta kultura agerraldiak dagozkiela bereizten diren une guztiak. Erdi Aroan sortu zen hilerri kristau bat da, etengabe erabilia eta erlijio-erakin bati lotua, kanonak agindu bezala, xx. mendera arte gunea hartan hainbat egokitzapen bideratu bazen ere.

Argi dago, ustez bederen, egun ageri zaigun eraikinak lehen bi hilobi-mailak, mendebaldeko sektorean zutoin-egitura baten bitartez antolatu zirenak, hartu zituela bere baitan.

Eliza hau aurreko baten, seguruenik xvi. mende hasierako dokumentazioak aipatzen duenaren bertsio barrokoa da, 1741ekoa hain zuzen ere, eta planometriaren ikuspegiak ia berdindinak direnez, uste izatekoa da eliza barrokoak hartuko zuela zutoinen bitartez egituraturiko sektoreko hirugarren hilobi-maila.

Baina San Pedro eliza honen barruan, sektore horretatik metro gutxi batzuetara baina elkarrekiko loturarik azaldu gabe azaltzen zaizkigu xvi. mendeko eliza haren aurretik beste bat izan zelako zantzu argiak. Eliza ez bazen, beste molde bateko erlijio-erakin bat izango zen inolaz ere, azaleraturiko eraikuntza-hondakinak xiv. mendeko dokumentazioak gainetik aipatzen duen ermitarenak izan bailitezke.

Erima izen honek konnotazio argiak ditu Erdi Aroko eraikin kristau baten kasuan ezen, arau kanonikoen arabera, ezin ehortzi baitziren haietan hildako kristauak, parrokiek bete behar baitzuten egiteko hura.

Ekialdeko sektorean dokumentaturiko hormek bertako arroka naturalean zulaturiko hilobiekin duten lotura estratigrafikoaren arabera, garbi dago erabileratik kanpo utziz zituztela lehenengoen bigarrenak. Jarraia eman zioten gizarte kristauaren ohitura publiko bati, ehorzketajardura gune haietatik kanpo zegoen momentu batean, eta horrenbestez estali ziren aurreko une bateko hilobiak. xiv. mendeko eraikinaren aurrekoak dira azaleraturiko harzabalak eta hobiak, baina hilobi-elementu horien kasuan ez dugu oraingoz arau kanonikoen arabera hilerri hari babesa emango zion eliza topatu.

Beraz, eskaini dugun aurrerapen honek erakusten digun bezala, iradokizunez beteriko hipotesiak azaltzen zaizkigu San Pedro eliza honen aurrean. Haietako beste ondoren, hobekiago ulertu ahal izango dugu eliza haren eta, bidenabar, gure iraganaren atal hau.

## **Konklusioak**

— Amaitutzat jo daitezke eliza honen barruko indusketa arkeologikoaren araberrako lanak.

ser definitivo debe basarse en un estudio más pausado que no ha hecho sino comenzar.

Puede adelantarse que nos encontramos con una secuencia de ocupación funeraria del lugar de larga duración, y, por lo que las evidencias parecen mostrar, con un tipo de ritual y manifestación cultural semejante. Podemos afirmar que se trata de una necrópolis cristiana de origen medieval, de uso continuo y articulada en torno a un edificio religioso, como mandan los cánones, aunque éste con adaptaciones hasta inicios del siglo xx.

También parece claro que la construcción que hoy contemplamos da expresamente cobijo a los dos primeros niveles de enterramiento, los organizados por la estructura de postes, del Sector oeste.

Esta iglesia es una reforma barroca de 1741 de una anterior, posiblemente de la citada en la documentación a comienzos del xvi, y que siendo desde el punto de vista planimétrico prácticamente iguales, ésta fuera la que diera en su día cobijo a los sepultados en el tercer nivel de la zona que luego fue organizada con postes.

Pero dentro de la misma iglesia de San Pedro, a escasa distancia de esta zona pero sin solución física entre ellas, encontramos la evidencia de que antes que esa iglesia del xvi hubo otra. O al menos otra construcción religiosa, pues los restos constructivos exhumados podrían corresponderse con la ermita que la documentación del siglo xiv cita someramente.

Este calificativo, para un edificio cristiano medieval, tiene unas connotaciones que nos afectan, pues según la norma canónica no podrían dar sepultura a los fieles, quedando esta función para las parroquias.

La relación estratigráfica que los muros documentados en este sector este tienen con las sepulturas excavadas en roca del mismo, está caracterizada por amortizar los primeros a las segundas. Parecen denotar una continuidad edilicia cristiana en un momento en que no tiene función funeraria, de ahí que se amortizen los restos sepulcrales de uno anterior; las y las fosas excavadas son anteriores al edificio del xiv, aunque para ellas no hemos podido dar con la iglesia que, según la legislación canónica, debe ofrecer la protección al camposanto adyacente.

Por lo tanto, y como este adelanto parece mostrar, sugestivas hipótesis que de confirmarse podrían ayudar a conocer mejor comprender mejor la iglesia de San Pedro y, a través de ella, también de una parte de nuestro pasado.

## **Conclusiones**

— La excavación arqueológica en el interior de esta iglesia puede darse por concluida.

- Haren emaitzak positiboak eta argigarriak izan dira, hala arkeologiaren nola historiaren ikuspegietatik.
- Indusketa eta dokumentazioaren bitartez zuzendu da aurreikusiriko lanek elizaren habearteko ondare arkeologikoan, -70 cm-ko kotaraino, edukiko zuten eragin negatiboa.
- Gutxienik, indarrean iraun behar dute kasu honetan BAE izendapenak eta haren arabera babes-neurriek, ez baillizateke batere harrizkoak izango absideak, atariak, iparraldeko sakristiak edota ondoko errepideak inguru hartan hartzen dituen eremuetan aztarnategi honekin lotura duten hondakinak azaltzea.
- Los resultados de la misma han sido desde el punto de vista arqueológico positivos, y desde el punto de vista histórico relevantes.
- Se ha corregido, mediante excavación y documentación, el impacto negativo que las obras previstas habrían causado en el patrimonio arqueológico hasta - 70 cm. en toda la nave del templo.
- Cuando menos, debe mantenerse la declaración de ZPA y su ámbito de protección, porque es más que probable que bajo su ábside, pórtico, sacristía norte y hasta la carretera inmediata, se extiendan otros restos en relación con este yacimiento.

*José Angel Lecanda*

#### D.2.1.7. **Barrenkale, 46 (Plentzia)**

Zuzendaritza: Jose Luis Ibarra

#### D.2.1.7. **Barrenkale, 46 (Plentzia)**

Dirección: José Luis Ibarra

*Prior to the construction of a new building on the plot in question, José Luis Ibarra conducted the archaeological excavation of it and identified two phases in the history of the piece of land: both of recent chronology, since the last building preserved involved the excavation and regularization of the piece of land to make the foundations and floors of the ground floor firm.*

Orube horretan oin berriko eraikina jaso aurretik, indusketa arkeologiko bat bideratu zuen bertan Jose Luis Ibarra eta bi etapa bereizi ditu horren ondorioz orube horretako historian. Kronologia hurbilekoak dira bi etapak, kontserbaturiko azken eraikina eraitsi ondoren bideratu baitziren eremua induskatu eta berdintzeko lanak, zimentazioak eta behe oineko zoruak bermatzearen.

Antes de la construcción de un edificio de nueva planta en el solar de referencia, José Luis Ibarra realizó la excavación arqueológica del mismo, identificando dos etapas en la historia del solar; ambas de cronología reciente, ya que el último edificio conservado supuso la excavación y regularización del terreno para asentar las cimentaciones y los suelos del piso bajo.

*Iñaki Garcia Camino. Ondare Historikoko Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia*

### D.2.1.8. **Karmeldarren Islako San Jose komentua (Sestao)**

Zuzendaritza: Sonia Aníbarro Sanchez  
Finantzazioa: Garraio eta Herri Lan  
Saila. Bizkaiko Foru Aldundia

### D.2.1.8. **Convento de Carmelitas de San José de la Isla (Sestao)**

Dirección: Sonia Aníbarro Sánchez  
Financiación: Departamento de  
Transportes y Obras Públicas.  
Diputación Foral de Bizkaia

*The current renovation works of the road infrastructure on the left bank of the River Nervion have made it possible to excavate a considerable expanse in the area of the Island of San Jose, using archaeological methodology. This is the spot where a part of the remains of a convent of Carmelite Fathers, which was established in this area in the 18th century, has been recovered.*

Sestaoko Aita Karmeldarren San Jose komentu zaharrak okupatzen zuen eremuaren alde handi bat induskatzeko proiektua onartu zen eta horrenbestez sortu zen Sestaoko Islako Desertuaren inguruan interbentzio arkeologiko bati ekin beharra. Ezinbestekoa zen indusketa hura Ballontiko Ardatzaren adar bat eraiki ahal izateko, eta horrenbestez erabat aldatuko zen balizko eremu arkeologikoa ez ezik, inguru hura guztia, haren izaera arras berezia bazter oro ezaguna zen arren.

Neurri oso handiko indusketa zen, eta 4.892 m<sup>2</sup> inguruko eremua aztertuko zen interbentzioan.

Modu mekanikoen bitartez atera dira depositu gehienak, eta oso murrizta izan da eskuz induskatu den aldea, interes bereziko gune batzuetara mugatu baita lan-molde hori.

Hona hemen interbentzio honetatik une honetan azal ditzakegun emaitzak:

#### ***xvii. mendea***

Aita Karmeldarrek sail hura okupatu aurreko garaiko eraikin batzuen hondakinak dokumentatu dira. Lur haiekin, fraideei saldu arte, espekulazioan ibili ziren partikularren etheen elementuak dira zehatz-mehatz.

Oso kaxkarra da egitura horien egoera eta arras zailak dira, bestalde, interpretatzen, ondoko eraikuntza fase batean berrerabili egin zirelako. Ez da ageri, bestalde, eraikuntza elementu haiekin lotu litekeen materialik.

#### ***xviii. mendea***

Aita Karmeldarren komentuko egiturak eta materialak dokumentatu dira, komentuaren ekialdeko hegala, fraideen gelak zeuden aldea hain zuzen ere

Oin angeluzuzeneko gela edo barrunbeak dira, eta haietan zuen fraide bakoitzak bere bizigune partikularra.

La realización de una intervención en el entorno del Desierto de la Isla de San José de Sestao, se debe a la necesidad de excavación de gran parte de la zona ocupada por el antiguo convento de P.P. Carmelitas de Sestao. Esta excavación resultaba necesaria para la construcción de un ramal del Eje del Ballonti, lo que supone una alteración absoluta no solo de la zona de presunción arqueológica, sino del entorno mismo, en una zona de singularidad reconocida.

Se trata de una excavación de considerables dimensiones, realizándose el análisis de una superficie aproximada de 4.894 m<sup>2</sup>.

La extracción de la mayor parte de los depósitos se ha realizado de manera mecánica, siendo la excavación manual muy reducida y centrada exclusivamente en determinados puntos de interés específico.

Los resultados de la intervención que en este momento podemos señalar, son los siguientes:

#### ***Siglo xvii***

Se han documentado restos de construcciones pertenecientes a un período anterior a la ocupación de la parcela por los Padres Carmelitas, en concreto elementos de viviendas pertenecientes a los particulares que especularon con el terreno, hasta su venta a los frailes.

El estado de conservación de estas estructuras es muy deficiente, a lo que se une, la dificultad de interpretación de estos elementos dada la reutilización en la fase de construcción posterior, así como la ausencia de materiales asociados.

#### ***Siglo xviii***

Documentación de restos estructurales y materiales pertenecientes al convento de P.P. Carmelitas, en concreto el ala este del mismo, destinada a las celdas de los frailes.

Se trata de una serie de recintos o celdas de planta rectangular, en los que cada uno de los frailes tenía su zona de habitación.



Karmeldarren Islako San Jose Komentua (Sestao). Indusketa lanen ikuspegi orokorra.

Convento de Carmelitas de San José de la Isla (Sestao). Vista general de la excavación.

Jatorriz, bitan banatuko ziren gela haiek: alde bata atsedenerako eta bestea otoitzerako.

Gela haietako bakoitzaren atzealdean, itxitura-hor-matik kanpo, norberaren gobernurako baratze txiki bana zuten fraideek. Haien hondakin guztiz partzialak azaldu dira interbentzioan.

Bestalde, erabilera komunerako aretoak zabalduko ziren iparraldeko hegalean, hala nola dolarea, sotoa, jantzitegia, eta abar.

Alde honetako bizilekuaren kota ez da lehengoaren mailakoa, induskaturik ageri baita eremu guztia. Zorupeko egiturak ziren haiek beraz.

xviii. mendearen lehen herenean koka genezakeen eraikuntza faseko elementuak dira hauek guztiak.

### *xix. mendea (lehen erdialdea)*

Komentuaren kanpoaldean aurkitu den eremuan, ekialdean, industria-egituren hondakinak bezala azaldu dira hornen aztarnak, Karmengo Amaren ermitaren hondakinak izan litezkeenak. Fraideek eta Sestako kontzejuak eraberritu zuten ermita hura, oso egoera txarrean zegoelako aurrekoa, Bariko San Nikolasen izena zuena.

En origen estos recintos estarían divididos en dos partes, una para el descanso y otra para la oración.

En la parte posterior de cada una de estas celdas y fuera del muro de cierre, existiría un pequeño huerto de uso individual, de los que hemos localizado algunos restos muy parciales.

Por otra parte, el ala norte, estaría destinada a dependencias de uso común, tales como el lagar, la bodega, ropería etc.

Esta zona no presenta la misma cota de habitación que la anterior, puesto que toda el área está excavada, siendo por tanto estructuras subterráneas.

Estos elementos pertenecen a una fase de construcción centrada en el primer tercio del siglo xviii.

### *Siglo xix (primera mitad)*

En la zona localizada a exteriores del convento, en su zona este, se han encontrado tanto restos de estructuras industriales, como restos de muros, que bien pueden corresponder a la ermita del Carmen, rehabilitada por los frailes y el concejo de Sestao, dado el mal estado de conservación de la ermita preexistente, con advocación a San Nicolás de Bari.



Gurutze latindarreko oina ageri duen egitura baten hondakinak dira. XIX. mendeko lehen urteetan eraiki zuten fraideek eta kontzejuak, eliztarrei kultura eskaintzearen, eta bulego gisa erabili zen ondoren, industrializazioaren garaian.

Gerokoan, 1833. urtean, Fernando VII.a hil ondoko erregetzarako gerraren bitartean, liberalen gotorleku menderaezina izan zen isla, eta ezerezean geratu ziren komentuko egitura gehienak, haien ordeztuak eraikin go-tortuak bideratzeko.

Lubaki edo erretenak bezalako elementu berriak sortzeaz gainera, aldatu, eraberritu eta erabilera berriz hornitu ziren lehengo egiturak.

XIX. mendeko 30. urteen bukaerako une bati dagokio fase hau.

### *XIX. mendea (bigarren erdialdea)*

XIX. mendeko 60. eta 70. urteetako hamarkadetako urteetan, oste britainiarren guda-talde batek okupatu zuen Isla eta, oro har, eraikuntza txiki batzuk alde bat utzirik, komentuko egiturak berrirabili zituzten, hein handian aldarazi eta gero. Leihoak eta hutsarteak zabaldu zituzten eta horma batzuk eraitsi.

### *XIX. mendea (bigarren erdialdea)*

XIX. mendearen bukaeran, arras itxuraldaturik zegoen komentuarien iparralde guztia, eta haren gainean eraiki ziren lehen langile-etxeak, San Francisco Fabrikari atxikirik, enpresa hura baitzen lur haien jabea 1890. urteetatik.

Etxe haietan, hein batean erabili ziren berriro komentuko zorupeko egiturak. Eraldatu eta gero, beste jarduera batzuetarako azalera sortu ziren, espazioa ere bestela banatuz.

Eraikin handienaren azpialdean, fase hartan bete eta erabileratik kanpo geratu zen komentuko dolarea, eta haren hondakinak dokumentatu dira interbentzio honetan.

### *XX. mendea*

Altos Hornos enpresak espazio okupatu zueneko elementuen hondakinak azaldu dira, hala nola urei eusteko urontzi edo putzu handi bat, lehenago karmeldarren komentuko eliza zaharrak okupatzen zuen gunean. Arrazoi horrexegatik ez da fraideen hilobietako hondakin bakar bat ere azaldu.

Fraide karmeldarrak hilobiratzen ziren kapera, Gurutze Santuaren kapera, zimentuetaraino berdindu zuten putzu hura eraiki zen unean. Neurri handiko eraikuntza izateaz gainera (19 x 26 metro), 2,20 metroko kotara beharatu ziren eraikuntzaren mailak orduko obra hartan.

Se trata de los restos de una estructura de planta de cruz latina, que los frailes y el concejo construyeron los primeros años del siglo XIX, para dar culto a los fieles y que en la época de la industrialización se reutiliza como oficinas.

Posteriormente, en el año 1833 durante la guerra de sucesión de Fernando VII la isla se convierte en baluarte inexpugnable de los liberales, arrasando con fortificaciones, la mayor parte de las estructuras del convento existente.

Además de crearse nuevos elementos tales como trincheras o fosos, se reutilizan y modifican parte de las estructuras preexistentes.

Esta fase se corresponde con un momento de fines de los años 30 del siglo XIX.

### *Siglo XIX (segunda mitad)*

Entorno a la década de los años 60 y 70 del siglo XIX, la Isla es ocupada por un destacamento militar británico que en general, salvo pequeñas construcciones, reaprovechan las estructuras pertenecientes al convento, modificándolas en gran medida, abriendo vanos y derribando algunos muros.

### *Siglo XIX (segunda mitad)*

A finales del siglo XIX, toda la zona norte del convento está muy modificada y sobre ella, se construyen las primeras viviendas de obreros, asociadas a la Fábrica de San Francisco, propietaria de los terrenos desde los años 90.

Se trata de viviendas que reutilizan parte de las estructuras subterráneas del convento, modificándolas, creando nuevas superficies de uso y diferente compartimentación del espacio.

La zona inferior del recinto de mayor potencia, los restos documentados del lagar del convento, se rellena y se inutiliza ya en esta fase.

### *Siglo XX*

Restos de elementos vinculados a la ocupación del espacio por Altos Hornos, tales como una balsa para contención de aguas, justamente en la zona ocupada por la antigua iglesia del convento de los carmelitas. Por esta razón, no se ha localizado resto alguno de las sepulturas de los frailes.

La capilla del Santo Cristo donde se enterraban los frailes carmelitas, fue arrasada hasta los cimientos en el momento de construcción de esta balsa, puesto que se trata de una construcción de enormes dimensiones (19 por 26 metros), que rebaja los niveles existentes hasta una cota de 2,20 metros.



Bistan denez, hondakinik bat ere ez da gelditu egitura horretan okupaturiko eremuan.

Putzu edo urontzi handi honi hainbat eraikuntza-elementu zetxezkion, hala nola gangak eta sifoiak –hustutzerakoan erabiltzen zirenak–, eta komentutik ordura arte iraun zuten elementu batzuk ukitu ziren putzuzaren eraikuntza-lan haietan.

Es evidente que en la zona ocupada por esta estructura, no queda resto alguno.

A esta balsa, se asocian varias construcciones, tales como bóvedas o sifones, destinados a vaciarla y cuya construcción afecta a elementos del convento conservados.

Sonia Aníbarro Sánchez

#### D.2.1.9. **Artekale, 8 / Harategi, 9-11 (Urduña)**

Zuzendaritza: Silvia Cajigas Panera  
Finantzazioa: Edergane S.L.

#### D.2.1.9. **Artekale, 8 / Harategi, 9-11 (Urduña-Orduña)**

Dirección: Silvia Cajigas Panera  
Financiación: Edergane S.L.

*What is most noteworthy in Artekale has been the documenting of a significant change in the division of the land into plots, of which all that remains is the impression of the preparation of natural clay as well as a number of structures, even though it is not possible to reconstruct the dimensions of the plots.*

*But the most interesting aspect is undoubtedly the siting of the remains of an old butcher's in Harategi. A building which must have been important, judging not only from the documentary data but also from the exhumed fragmentary material remains. It is a building constructed during the last quarter of the 16th century, which caught fire barely 50 years later and had to be rebuilt. Even royal assistance was requested for rebuilding it.*

Eskuz induskatu dugu Artekaleko 8. orubeko eremua interbentzio arkeologiko honetan. 2001. urtean erre zen etxe batek okupatu zuen lehenago orube hau, eta fatxada nagusiak baizik ez zuen hartatik zutik iraun. xvi. mendeko elementuak suma daitezke hartan, hala nola leiho bizki jarlekudun bat edo mentsula zintzilario batzuk, etxeak xviii. eta xix. mendeetako elementuak ere zituen arren.

Harategi kaleko 9-11. orubea, haren atzealdean dagoena, etxe horretako sarjina edo lorategia izan zen eta bitarteko mekanikoen bidez induskatu da gainazalean. Kasu honetan perimetroko horma baizik ez da kontserbatu, hainbat egite moduak ageri duten harri landu gabez egina, eta gure egunetara iritsi da halaber harrizko sarrera-arku bat, kalitatezkoa baina oso egoera txarrean dagoena. Kapitela aurpegidun molduratu bana ageri duten bi zutabe ageri ditu arkuak alde bati, eta baketoiz hornituriko ate-zango batzuen az-tarnak suma daitezke hartan.

#### **Orubeen bilakaera**

##### **Hegoaldeko orubea, Harategi 9-11**

xvi. mendekotzat har liteke okupazio maila zaharrena. Neurri handiko eraikin arkupe duna izango zen eta hartatik luzera handiko horma bat baizik ez da kontserbatu, abiaburuan enbor oktagonala ageri duten zutabe molduratu batzuen oinarriekin batean. Karez atonduriko zoruan bermatzen ziren zutabe haiek.

La intervención ha consistido en la excavación manual en área de Artekale 8, solar antes ocupado por un edificio que se quemó en 2001 y del que sólo se ha conservado la fachada principal. Esta última conserva restos del siglo xvi como un vano geminado de asiento o ménsulas pinjantes, si bien el edificio tenía también elementos del xviii y xix.

El solar Harategi 9-11 situado en su zaguera fue jardín de dicho edificio y se ha excavado en área con medios mecánicos. En este caso sólo se conserva el muro perimetral de mampostería de diversas facturas, así como un acceso de piedra de calidad, si bien se encuentra en muy mal estado de conservación. Dicho vano está enmarcado por sendas columnas con capitel facetado y moldurado y restos de jambas con baquetón.

#### **Evolución de los solares**

##### **Solar sur, Harategi 9-11**

El nivel más antiguo de ocupación que podría fecharse en el siglo xvi, se corresponde con un edificio porticado de grandes dimensiones del que únicamente se ha conservado un muro de gran longitud, así como basas de columnas molduradas con arranque de fuste octogonal, asociados a un suelo de cal.

Suak suntsitu zuen seguruenik etxe hura eta berdintze eta isolamendu geruza bat zabaldu zen ondoren hondakinen gainetik. Hobi batzuk ageri dira, buztin naturallean zulatuak: lehen etxea hondatu ondoko zaborez bete ziren. Itxura guztien arabera, eremu batzuetan isolamendua ziurtatzeko erabiliko zuten haietatik ateratako lurra.

Beste erabilera maila bat dokumentatu da ondoren, mendebaldean azaldu den enkatxu saila hain zuzen ere. Zortzikoak ageri dituzten zerranda apaingarriak eta egikera preziosista ageri ditu haietako batek, eta palmondo baten marrazkia beste batek (ertzen koloreaz baliatzen da marrazki hori itxuratzeko). Azterketa sakonago baten zain gaudelarik, *xvi.* eta *xviii.* mendeen arteko kronologia zabalean egoki litezke enkatxu hauek, gogoan hartzen baditugu beste eliza eta baselizetan azaldu direnak. Nolanahi ere, *xvii.* mendekotzat har litezke gure ustez enkatxu hauek.

Baratze edo patio bateko landare-lurrez osaturiko betegarri bat azaldu da enkatxuak ageri diren etxearen suntsitze mailen gainean. Une hartan eraikiko zuten sarrerako atariko hesi-horma.

Orubea okupatu zen azken unean, aro garaikidean dagoeneko, baratze bat zegoen patio hartan zuhaitzekin, eta ondoan ageri ziren Artekaleko etxea jo zuen suaren osteko hondakinak.

### *Iparaldeko orubea, Artekale 8*

Harian zulaturiko hobiak eta haien betegarriak ditugu orube honetan dokumentatu diren jardun zaharrenak.

Erdi Aroko kronologia batekin lotu dugu dokumentaturiko lehen erabilera maila: trinkoturiko buztinez atonduriko zorua, han eta hemen ikatz-guneak eta, lursail haiek prestatzeko, buztinean eginiko ebaki batzuekin lotu beharko genituzkeen horma batzuen hondakinak han eta hemen ageri dituena. Hala eta guztiz ere, ezin dokumentatu izan dugu oineko sekuentzia horizontala, ezdeusean utzi baitzuten geroagoko betegarriak eta lurra berdintzeko bideratu zituzten geruzek.

Lehen okupazioaldiko zorua suntsitu eta lurra berriro prestatu/berdindu zuteneko garaia dagokio hurrengo faseari. Maila hauekin lotu beharko lirateke seguruenik molde bateko egitura bat, behin-behinekoa seguruenik, haren lekuko iritsi baitzaizkigu horma bat eta zutoin-zulo bat. Ipar-mendebaldeko izkinan, bestalde, horma-egitura baten hondakinak ageri dituen bitarteko fase bat azaldu da: etxearen ekialdeko itxitura-hormak ebakitzten du eta, beraz, garbi dago lehengo orube banaketaren gure egunetara arteraino iritsi dena ez zirela bat eta bera. *xiv.* eta *xvi.* mendeen arteko kronologia dagokio fase honi.

Ondoren, gutxi gora-behera *xvi.* eta *xviii.* mendeen bitarteko kronologia batez dokumentatu da etxearen hormekin lotu beharko genituzkeen aurreneko okupazioaldia. Trenkada gutxiago salatzen digu, ordea, barne espazioaren banaketak garai hartan. Fase honi dagozkio

Este inmueble debió quedar arrasado por un primer incendio, sobre el que se echó un estrato de nivelación y de aislamiento. Aparecen una serie de fosas en la arcilla natural, rellenas con escombros procedente de la destrucción de ese edificio. Posiblemente se excavaron para sacar arcilla utilizada en algunas zonas con una función aislante.

Posteriormente se documenta otro nivel de uso que se corresponde con una serie de encachados localizados en la zona oeste: uno de ellos con cenefa de ochos y factura preciosista, otro, con un dibujo de palmera y que juega con el color de los cantos para conseguir el dibujo. A la espera de un estudio más profundo en principio estos encachados por paralelismos con otros de iglesias y ermitas pueden tener una cronología amplia entre los siglos *sxvi* y *sxviii*, si bien consideramos que en este caso se podrían fechar en el siglo *xvii*.

Sobre los niveles de destrucción de la casa de los encachados se localiza un relleno de tierras vegetales de un huerto o patio. Este debe ser el momento además en el que se realizó el tapiado de la portada de entrada.

En el último momento de ocupación de este solar en época contemporánea había un huerto con árboles, además de restos del incendio sufrido por la casa de Artekale.

### *Solar norte, Artekale 8*

Las actividades más antiguas documentadas en el solar corresponden a una serie de fosas y sus rellenos excavados en la roca.

A una cronología medieval asociamos el primer nivel de uso documentado: un suelo de arcilla prensada con zonas de carbones puntuales y restos de muros asociados a una serie de cortes excavados en la arcilla para la preparación de las parcelas. Sin embargo, no se ha podido documentar toda la secuencia horizontal en planta ya que se haya destruida por los niveles de relleno o nivelación de épocas posteriores.

La fase siguiente, corresponde al arrasamiento de ese primer suelo de ocupación y la preparación/nivelación del terreno. Posiblemente asociada a estos niveles se localizaría en esta etapa algún tipo de estructura tal vez de tipo perecedero de la que nos ha quedado un muro y un hoyo de poste. También se documenta en la esquina noroeste una interfase con restos de una estructura muraria que esta cortada por el muro este de cierre de la casa, lo cual significa que la antigua parcelación era distinta de la actual. La cronología aproximada de esta fase estaría entre el siglo *xiv* al *xvi*.

Posteriormente, con una cronología aproximada entre el siglo *xvi* al *xviii*, se constata un primer nivel de ocupación asociado a los muros de la casa pero con menor compartimentación. A esta fase corresponden unos fragmentos de encachados localizados en la es-

Artekale 8. (Urduña). Ikuspegi orokorra.



Artekale 8. (Urduña-Orduña). Vista general.

ipar-mendebaldeko izkinan azaldu diren enkatxu hondakin batzuk, tipologiari dagokionez hegoaldeko orubean (zortzikoak ageri zituzten zerrenda apaingarriak aurkitu ziren hartan) azaldu direnen antz handikoak.

Ondoren, xix. mendean seguruenik, enkatxu batzuk azaldu dira erdialdean eta mendebaldean, eta harrizko lauzaz itxuraturiko zoladura ekialdeko habeartean. Etxea banatzerakoan, trenkada gehiago bideratu ziren orduan, hiru habearte luze eta haietako bakoitzean hainbat gela eta areto bereiziz. Fase honi dagozkio orobat etxe-atal horien artean ireki zituzten ateak eta hutsarteak, haien arteko igarobidea ziurtzearren.

Azken etxe honi zegozkion erabilera mailak azaldu dira azkenik, zurezko oholtza eta adreiluzko zoruak, etxe berria suak eraman ondoko suntsitze/erortze mailekin batera.

### ***Konklusioak***

Artekaleko aldeari dagokionez, lur-sailen banaketan bideraturiko aldaketa garrantzitsuen dokumentazioa dugu, beharbada, datu aipagarriena, haietatik soil-soilik buztinezko mailetan zorua prestatzeko lanen

quina noroeste que tipológicamente se asemejan bastante a los localizados en el solar sur (al de cenefa de ochos).

A continuación, posiblemente en el siglo xix, aparecen una serie de encachados en la zona central y oeste y una solería de losas de piedra en la nave este. Esto evidencia una compartimentación mayor de la casa que esta dividida en tres naves longitudinales y cada una de ellas en distintas estancias. También a esta fase corresponden una serie de aperturas en estas compartimentaciones para conseguir el paso entre las distintas subdivisiones.

Por último aparecían los niveles de uso de esta última casa: tarima de madera, suelos de ladrillos, así como los niveles de destrucción/derrumbe de la casa más moderna tras un incendio.

### ***Conclusiones***

En lo referente a Artekale, quizás lo más reseñable sea la documentación de un cambio de parcelación importante del que sólo nos ha quedado la impronta de la preparación realizada en los niveles de

zantzuak eta egitura batzuen hondakin gutxi batzuk iritsi zaizkigun arren. Hala eta guztiz ere, zaila gertatu zaigu lur-sail horien neurriak eta mugak dokumentatzea, ondoko jarduerak guztiz ezabatu dituztelako.

Azkeneko eraikinari, hau da, 2001ean erre zen etxeari dagokionez, xvi. mendeko elementu batzuk kontserbatu dira fatxadaren eta ikusi ere egin daiteke eraikinaren barruan eta perimetroko hormetan aldaketa batzuk izan direla aro moderno eta garaikideetan.

Zera da, zalantzarik gabe, iturri idatzietan eta azterketa arkeologikoan interes bizia duen datua: hegoaldeko orubean, hau da, Harategi kaleko aldean, harategi zaharra izan zitekeen etxearen hondakinak azaldu dira eta, dokumentazioaren arabera, Erlojuaren Dorrea izenekoaren ondoan zegoen etxe hura. Udal artxiboan dauden dokumentu batzuek aipatzen dutenez, xvi. mendean azken laurdenean eraiki zuten etxe hura, 1573an hain zuzen ere<sup>52</sup>, eta egoera txarrean zegoela adierazten dute beste batzuek, suak hartu eta gero (1622)<sup>53</sup>. Ondoren, 1677an, etxe berri bat eraiki nahi izan zuten leku hartan eta erregearen laguntza eskatu zuten horretarako<sup>54</sup>. Proiektu haren arabera, lau arkuko fatxada eta erdian erloju dorre bat eraikiko ziren lana haietan.

Itxura guztien arabera, xvi. mendeko lehen eraikin horren hondakin materialak genituzke mehelin-horma eta oinarri molduraturiko zutabe oktagonalek zituen arkupe edo arku-sail baten aztarnak. Dokumentatu ere egin dugu eraikin hura suntsiarazi zuen su maila, bai eta etxe berri baten eraikuntza lanei ekin ahal izateko bideratu ziren ezabatze, betegarri eta berdintze mailak. Ondoko eraikin berri harenak izango ziren zerranda apaingarriz hornituriko enkatxuz bideraturiko zoruak, fase horretan azaldu direnak. Bestalde, azken etxe honetakoa izango zen orobat orubearen hegoaldeko itxitura-horman zegoen ataria.

Aurkituriko hondakinak harategiarekin identifikatu izanak garrantzia badu Urduñako hirigintzaren gaineko azterketari begira, irakurketa berri bat bideratu ahal izango baita hiriko alde honetako dokumentazioaren argitan, nortasun bereziko eraikin baten, erreferentzia-puntu garrantzitsu baten kokagunea zehaztu baita.

la arcilla así como restos de algunas de las estructuras. Sin embargo, ha sido difícil documentar las dimensiones y límites de estas parcelas ya que se encuentran destruidas por actuaciones posteriores.

Respecto al edificio último, quemado en 2001, y en cuya fachada se conservan elementos desde el siglo xvi, se observa como se han ido produciendo cambios internos e incluso en los muros perimetrales durante toda la edad moderna y contemporánea.

Sin duda, lo más interesante o lo que más promete tanto en las fuentes escritas como en el estudio arqueológico realizado es la localización en el solar sur, en Harategi, de los restos de lo que podría ser el edificio de la antigua carnicería, sita, según la documentación, junto a la denominada Torre del Reloj. En el archivo municipal se encuentran documentos que hacen referencia a la construcción de este edificio en el último cuarto del siglo xvi (1573)<sup>52</sup>, así como a su mal estado de conservación tras el incendio que sufrió (1622)<sup>53</sup>. Posteriormente, en 1677, se pretende la construcción de un nuevo edificio para lo que solicitan la ayuda real<sup>54</sup>, el cual se proyecta con una fachada de cuatro arcos y una espadaña central para el reloj.

Creemos muy probable que el muro medianero y la impronta de un pórtico o arquería con columnas octogonales y basa moldurada documentados en este solar sean los restos materiales de ese primer edificio del siglo xvi. Igualmente, se documenta el nivel de incendio que conllevaría la destrucción de dicho inmueble y los rellenos de nivelación y anulación para la construcción de un nuevo edificio al que corresponderían los suelos de enchachados con dibujos de cenefas exhumados. Del mismo modo, la portada que se encuentra en el muro de cierre sur del solar podría pertenecer también a este último edificio.

Esta identificación de los restos hallados con la carnicería será de gran valor para el estudio del urbanismo de Orduña pues permitirá una nueva lectura de la documentación relativa a esta zona de la villa con la localización de un edificio que sin duda fue de gran entidad y punto de referencia importante.

*Silvia Cajigas; Teresa Campos*

<sup>52</sup> U.U.A. 74. Dok. L/004 31. or. eta hur.

<sup>53</sup> U.U.A. L/007 402 . or.

<sup>54</sup> U.U.A. L/009 5. or.

<sup>52</sup> Doc. 74 A.M.O. L/004 p.31 y siguientes.

<sup>53</sup> A.M.O. L/007 p.402 .

<sup>54</sup> A.M.O. L/009 p.5.

## D.2.2. ZUNDAKETAK

### D.2.2.1. **La Cuesta, 3 (Balmaseda)**

Zuzendaritza: Alesander Maguregi  
Finantzazioa: Construcciones Bemar

*The intervention carried out on plot number 3 in La Cuesta street was aimed at locating the different phases of its occupation and its evolution up until the present day. The data have revealed the existence of a moment of occupation between the 19th and 20th centuries as a result of a pre-existing dwelling.*

La Cuesta kaleko 3. orubeko interbentzio arkeologikoaren helburuaren arabera, Balamasedako hiriko historian zehar orube horretan izan diren okupazio mailak zehaztu nahi genituen.

Arkeologiak emaniko datuen arabera, garbi asko esan daiteke orubea XIX. eta XX. mendeetan okupatu zela. Azalaturiko egiturek, perimetrotako itxitura-hormek, landu gabeko erreka-harriz itxuraturiko zoruen aztarnek, barne-banaketaaren arrastoren batek, eta abarrek argi eramanen gaituzte denbora-kronologia horietara, aurreko agiritan ere okupatuko zen arren. Izan ere, argi dago XIX. mendearan hasieran, oste frantsesek hiria okupatu zuten garaian, etxe hura ere eraman zuen suak guztiz galarazi zituela aurreko egiturak eta materialak, orube honetan bezala Balmasedako beste askotan ere.

*Alesander Maguregi Solana*

### D.2.2.2. **Pío Bermejillo, 12 (Balmaseda)**

Zuzendaritza: Silvia Cajigas Panera  
Finantzazioa: Residencial Los Llamares

*Hardly any structures have been documented in the excavation of this plot of land, the majority of which are fillings of ditches, levelling strata or floors. All of them are coeval with the last building to occupy the plot until before the start of the excavation: a building belonging to the contemporary era. Despite the fact that it is not very old, there are at least four superimposed floors of occupation. The explanation for this must be connected with the problems of damp caused by the natural strata.*

Orubea luzeran zeharkatu zuen zundaketa bat zulatu genuen interbentzioan, hormen ondoan segurtasunerako tarte bat utzirik. 45 m<sup>2</sup>-ko eremua aztertu genuen horrenbestez guztira.

### *Eraikuntzaren bilakaera*

- 1) Hormigoizko zolarri bat da zoru modernoena. Orube guztian zabaltzen zen eta indusketari ekin baino lehentxeago erretiratu zen.

## D.2.2. SONDEOS

### D.2.2.1. **La Cuesta, 3 (Balmaseda)**

Dirección: Alesander Maguregi  
Financiación: Construcciones Bemar

El objetivo de la intervención arqueológica en el solar nº 3 de calle de La Cuesta era comprobar los distintos niveles de ocupación del mismo a lo largo de la historia de la villa de Balmaseda.

Los datos que aporta la arqueología nos permiten hablar de una ocupación del solar durante los siglos XIX y XX. Las estructuras exhumadas; muros de cierre perimetrales, restos de suelo de canto rodado toscos, alguna compartimentación interna, etc. indican ese horizonte temporal aunque probablemente lo fuera en época anterior pero parece claro que el incendio producido a comienzos del XIX durante la ocupación francesa de la villa ha facilitado la pérdida de estructuras y materiales anteriores, tanto en este solar como en otros de Balmaseda.

### D.2.2.2. **Pío Bermejillo, 12 (Balmaseda)**

Dirección: Silvia Cajigas Panera  
Financiación: Residencial Los Llamares

La intervención ha consistido en la excavación de un sondeo que cruzaba el solar longitudinalmente, dejando el espacio de seguridad pertinente junto a los muros, lo cual ha supuesto una superficie de 45 m<sup>2</sup>.

### *Evolución constructiva*

- 1) El suelo más moderno era una solera de hormigón que se extendía por todo el solar y había sido retirado antes del comienzo de la excavación.

Etxearen atzealdea bereziki ukitu zuen su baten arrastoak azaldu ziren haren azpian. Ikusgarri daude oraindik ere su horren aztarnak. belzturik ageri baitira ondoko etxeko hormak.

- 2) Karezko zoru baten hondakinak azaldu ziren orubeko hainbat aldetan, eta hondarrezko geruza bat, lurra berdintzeko betegarri bat hain zuzen ere, azaldu zen haren azpian. Zoru haren gainean bermatu zen behe oina bitan banatu zuen horma bat: erdi batek eratzen zuen hondoa eta beste erdiak aurrealdea. Horma hori mendebaldeko mehelin-hormatik bi metrotara zabaltzen zen ekialdeko mehelin-hormarekin bat egin arte-raino.

Erabilera-zoru horren gainean dokumentatu ziren ikatz-orban batzuk, zepaz beteriko hobi bat, 60 cm-ko sakonerakoa, eta beste zulo bat, angeluzuzena eta ertz kurbatukoak (84 x 130 cm). Sutegi bateko jarduerarekin loturiko instalazioen aztarnak ditugu seguruenik.

- 3) Sutegi edo forja batekin loturiko erabilera haren aurretik, ukilu gisa erabili zen seguruenik behe oin guztia. Metanoaren usaineko betegarri beltztxka bat geratu zaigu hartatik, hondakin organikoen deskonposizioaren emaitza. Belar edo lasto piruak ageri ziren induskaturiko espazio guztian dokumentatu zen betegarri honetan.

Ukuluaren egitekoa amaitu zenean, hondarretan oinarrituriko karezko zoru, arestian deskribatu duguna, bideratu aurretik, lur marroizko geruza bat zabaldu zen ukuluaren erabilera guztiz ezabatze eta maila goratzeko. Halaz ere, ez zen horrenbestez erabilerarako beste zoru bat egin nahi: besterik, gabe, horrenbestez berdinu zuten azalera guztia, karezko zoru hori atontzearren hain zuzen ere.

- 4) Berrero ere dokumentatu zen hainbat aldetan buztinezko okupazio-zoru bat, modu etenean kontserbatu dena. Hezetasun arazo handienak ageri dituzten aldeetan azaltzen da zoru hori, hondarrezko mailen gainean. Zoru harekin loturik ageri zen mendebaldeko mehelinari itsatsirik horma bat, orubearen erdi-erdian, eta 2. puntuan deskribaturiko hormak geroago egingo zuen bezala, bitan banatu zuen honek espazioa, aurreko eta atzeko aldeak bereiziz.

Zoru hura erabiltzeari utzi zioten unean, estali eta mailaz goratu baino lehen, hobi bat zulatu zuten, gure ustez, lohiz eta teilaz betetzeko. Hezetasun handiagoko aldeko bidea zabalduko zuen hobi hark. Izan ere, geroago ikusiko dugun bezala, putzu bat zegoen alde hartan lehenago. Orubean han eta hemen ageri diren zepa eta ikatz-orbanek ere zer ikusi izango zuten honekin guztiarekin.

- 5) Hegoaldean, hondar eta buztinezko zoruaren azpian, buztin-multzo garrantzitsu bat pilatu zen kale ondoan: haren gainean zulatu zen lur naturalean ur-azalerrate garrantzitsu bat dagoen guneraino luzatu zen hobi baten ahoa. Izan

Bajo él quedaban restos de un incendio que debió afectar a la zona zaguera del inmueble, del cual todavía se puede apreciar el ennegrecimiento de las paredes del edificio contiguo.

- 2) En diversas zonas del solar había restos de un suelo de cal bajo el que había un relleno de preparación de arena. Sobre dicho suelo apoyaba un muro que dividía la planta baja en dos mitades, una al fondo y otra delantera, muro que separado unos dos metros con respecto al medianero occidental llegaba hasta adosarse al oriental.

Sobre ese suelo de uso se documentaron varias manchas de carbones y una fosa rellena con escoria que alcanza los 60 cm. de profundidad y una forma cuadrangular con esquinas redondeadas (84 x 130 cm.) Posiblemente se trata de los restos de alguna actividad de forja.

- 3) Antes de ese uso relacionado con una forja, la totalidad de la planta baja debió utilizarse como cuadra, de lo que nos ha quedado un relleno negruzco con olor a metano producto de la descomposición de restos orgánicos que presenta hebras de hierba o tal vez paja, y que se documenta en todo el espacio excavado.

Cuando se terminó con esa función y antes de hacer el suelo de cal con base de arena descrito más arriba se echó un nivel de tierra marrón con el fin posiblemente de anular el uso de cuadra y elevar el nivel, aunque no creemos que se tratase de un suelo de uso, sino simplemente de una nivelación realizada precisamente para echar ese suelo de cal.

- 4) Se documenta de nuevo en varias zonas un suelo de ocupación de arcilla que se ha conservado de forma discontinua, el cual aparece en las zonas donde existen mayores problemas de humedad y asienta sobre niveles de arenas. Asociado a este suelo existía un muro adosado al medianero occidental, situado en la mitad del solar y que al igual que hará más tarde el del punto 2, en el mismo lugar, también divide el espacio en una mitad anterior y otra posterior.

Pensamos que en el momento en que este suelo deja de utilizarse, antes de amortizarlo y elevar el nivel, se hizo una fosa rellena de lodo y tejas con la que tal vez se pretendía acceder a esa zona de mayores humedades donde había un pozo más antiguo como veremos. También las manchas de polvo de escoria y carbón diseminadas por el solar pueden tener algo que ver con eso.

- 5) Bajo el suelo de arcilla y arenas en la zona sur, junto a la calle se echó un importante paquete de arcillas sobre el que se corta la boca de una fosa que llega hasta un importante afloramiento de agua del terreno natural. En realidad esta

ere, hobi hura ura ateratzeko baizik ez zuten erabili, hau da, «putzu» gisa erabili zuten, edo ura bertan bildu zedin zulatu zuten. Baina estali egin zuten ondoren.

- 6) Aurreko mailan amaituko ziren espazio hartako okupazio eta erabilera mailak, denboran lehen-go bideratu ziren geruzak buztin naturaletik hainbat gunetan jarriatzen den urak dakartzan arazoak ekiditeko geruzak –lurra prestatu, berdindu eta egokitzeko betegarriak– baizik ez baitira. Halatan, orubearen «bizigarritasuna» erraztea da haien egitekoa eta kronologiari dagokionez lehen erabilera-zoruaren eta etxe eraikiaren garai berekoak dira.

Halatan, orubea guztian zabaldu zen zepazko geruza bat eta haren oinarrian ageri zen buztin berdexka batez itxuraturiko beste geruza lodi bat. Aurrekoen azpitik, ura azaltzen zen beheagune batzuk eratzen zituen buztin naturalak gune batzuetan, eta estalgarri bereziak bideratu ziren orduan haietan, teilaz eta zepaz.

Beste bi hobi dokumentatu dira, halaber, buztin naturalaren gainean zuzenean, eta orubearen hegoaldean berriro ere. 80 eta 150 cm bitarteko diametro du berrienak eta haren xedea urarekin loturik ageri da oraingoan ere. Hobi honek, aldiz, aurreko beste bat mozten du. Betegarriaren ezaugarriengatik, hobi septikoa izango zen aurreko hura.

## Konklusioak

Indusketa-lanei ekin aurretik eraitsitako etxearen garai berekoak dira dokumentatu diren elementu guztiak. Fatxadaren itxurari erreparatuz gero, garaikidea zen eraikin hau eta interbentzioan azaldu den material arkeologiko urriak berak ere berresten digu kronologia hori.

Nolanahi ere, arestian azaldu dugun bezala, lau okupazio-zoru bereizi dira gutxienez hartan. Okupazio-zoru bakoitzari bere espazio banaketa (espazio bakarra edo bitan banatua) eta bere erabilera (ukui-luarena da argien ageri dena) dagozkio. Gure ustez, lur naturaletik jarriatzen den urarekiko arazoek argituko lituzkete aldaketa horiek. Izan ere, zoladura berriak egin ahala kalea ere goratu behar zen neurrian goratu beharko zen halaber etxe hartako behe oina.

Betegarri antropikoaren lodiera metro erdikoa da batez beste, baina dezente handiagoa zen buztin naturalak beheaguneak eratzen dituen aldeetan.

fosa pudo servir para aprovechar el agua, es decir, como «pozo» o tal vez fue realizada simplemente para que se concentrase ahí el agua, posteriormente fue anulada.

- 6) Con el nivel precedente acabarían las fases propiamente de ocupación y uso del espacio, pues todos los estratos anteriores en el tiempo son rellenos de preparación y acondicionamiento del terreno para evitar los problemas con el agua que mana de la arcilla natural en diferentes puntos. Por lo tanto tienen como función permitir la «habitabilidad» del solar y cronológicamente serán coetáneos del primer suelo de uso y del grueso del edificio.

Así por todo el solar se extendía un nivel de escoria que iba sobre otro importante paquete de arcilla ver-dosa. Bajo los anteriores en zonas puntuales donde la arcilla natural formaba vaguadas con afloramiento de agua, había diferentes rellenos de colmatación compuestos por teja y escoria.

También se han documentado directamente sobre la arcilla natural y de nuevo en la zona sur del solar, dos nuevas fosas. La más moderna tiene entre 80 y 150 cm. de diámetro y su finalidad parece asimismo relacionada con el agua. Esta sin embargo corta otra anterior que por su relleno podría ser una fosa séptica.

## Conclusiones

Todos los elementos documentados son coetáneos del edificio derribado justo antes del comienzo de la excavación, edificio que a juzgar por el aspecto de su fachada era de época contemporánea, cronología que se ve confirmada por el escaso material arqueológico recuperado en la intervención.

En cualquier caso, como se ha explicado se observan al menos cuatro suelos claros de ocupación con compartimentaciones diferentes del espacio (un solo espacio o dos mitades) y usos diferentes (el más claro es el de cuadra). Creemos que la explicación a estos cambios puede estar en los problemas con el agua que aflora del suelo natural, que junto con la elevación de la calle al hacer nuevos pavimentos aconsejaría elevar también el suelo de la planta baja del edificio.

En cuanto al espesor del relleno antrópico es de medio metro de media, si bien era bastante mayor en las zonas donde la arcilla natural del terreno formaba vaguadas.

*Silvia Cajigas*

### D.2.2.3. Udiarragako Jasokunde ermita (Berriz)

Zuzendaritza: Jose Luis Ibarra Álvarez  
Finantzazioa: Berrizko Udala

### D.2.2.3. Ermita de la Ascensión de Udiarraga (Berriz)

Dirección: José Luis Ibarra Álvarez  
Financiación: Ayuntamiento de Berriz

*Owing to the restoration work on the chapel, the surrounding area underwent an archaeological evaluation by means of archaeological sondages. In the excavation report José Luis Ibarra draws the following conclusions:*

- «1) in the stratigraphy of the place there has been no evidence of traces that lead one to suggest a past for the chapel predating the building that one could assume for it on the basis of the recognition of the oldest of the structures which have been identified today. This appears to correspond to the so-called «gothic bonding» which seems to be detected in five rows at the northern end of the construction and in two rows in the western stretch of the southern end, all of which are associated with the lower level of the walls of the chapel.»
- «2) the few material objects salvaged in the different strata that were excavated during the work do not allow, under any circumstances, the occupational chronologies of the enclave to be linked to those medieval ones that were suspected in the Resolution of October 17, 1997, by means of which the Declaration of Presumed Archaeological Zones of Berriz was issued. And that will be the case at least for those material remains that are capable of offering chronological information of interest».

Ermitaren eraberritze lanen bitartean, ingurunearen ebaluazio arkeologikoari ekin zioten zundaketa arkeologikoen bitartez. Honela zehaztu zuen Jose Luis Ibarra indusketaren memorian:

«1] leku honetako estratigrafian ez da ermitarako bere arkitekturan egun bereiz daitekeen eraikuntza-egitura zaharrena baino lehenagoko garaietara eramango gintuzkeen inolako aztarnarik dokumentatu. Ermitaren jatorrizko arkitektura-moldeari dagokionez, «estekadura gotikoa» deituriko egikera ageri zaigu, horixe sumatzen baita erakinaren iparraldeko hormako bost ilaretan eta hegoaldeko hormaren mendebaldeko bi ilaretan, eta ermitako hormen behealdeko mailakoak dira ilara horiek guztiak».

«2) jardueran ginela induskatu genituen geruzetan oso objektu material gutxi azaldu zen eta aukerarik bat ere ez digute ematen ingurune hartako okupazio-kronologiak 1997ko urriaren Ebazpenean, Berrizko Balizko Arkeologia Eremuen Izendapena zehaztu zenean, susmatzen ziren Erdi Aroko kronologiekin lotzeko. Eta horrela da hau guztia, informazio kronologiko interesgarria eman liezaguketen aztarna material guztien kasuan».

Con motivo de las obras de restauración de la ermita se procedió a la evaluación arqueológica del entorno mediante sondeos arqueológicos. En la memoria de la excavación José Luis Ibarra, concluye:

«1) en la estratigrafía del enclave no se han evidenciado rasgos que permitan suponer un pasado para la ermita anterior a aquél que cabría proponer para el mismo desde el reconocimiento de la más antigua de las fábricas que se identifican en la actualidad en su arquitectura y que parece corresponder al denominado «aparejo gótico», que tiende a reconocerse en cinco hiladas del cierre norte de la construcción y en dos hiladas del tramo oeste del cierre meridional, todas ellas asociadas al nivel inferior de los muros de la ermita».

«2) los escasos objetos materiales recuperados en los diferentes estratos que fueron excavados durante la actuación no permiten, en ningún caso, enlazar las cronologías de ocupación del enclave con aquellas medievales que se sospechaban en la Resolución de 17 de octubre de 1997 por la que se emitía Declaración de Zonas de Presunción Arqueológica de Berriz. Y esto sería así al menos para aquellos restos materiales que son susceptibles de ofrecer información cronológica de interés».

*Iñaki García Camino. Ondare Historikoko Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia*



#### D.2.2.4. **Goienkale, 5 (Durango)**

Zuzendaritza: Belen Bengoetxea  
Rementeria  
Finantzazioa: Jabeen  
Komunitatea

#### D.2.2.4. **Goienkale, 5 (Durango)**

Dirección: Belén Bengoetxea  
Rementeria  
Financiación: Comunidad de  
Propietarios

*The intervention carried out owing to the installation of a lift has exposed levels mainly connected with the preparation of the plot of land specifically aimed at alleviating the high degree of dampness that had been discovered. This preparation was conducted by means of slag waste documented both in other zones of the town as well as in documents written in the 18th century. On the other hand, the base of the present post reuses a previous structure.*

Orube hau Goinkaleko 5. orubean dago eta beraz, Durangoko hirigune historikoaren barruan ez ezik, hiri-ko lehen hiru kaleetako bateko orubea da.

Aintzat harturiko lanen arabera, igogailu bat instalatu behar zen etxean eta, beraz, hustu egingo zuten orubearen alde bat. Halatan, 1,50 x 1,65 metroko zundaketa bat egitea deliberatu genuen interbentzio arkeologiko honetan, horixe baitzen zehatz-mehatz ukitu behar zen azalera. Helburu gisa, orubeko interes arkeologikoa zehaztu nahi genuen, bertan azal zitezkeen aztarna arkeologikoen erregistroa ere bideratuz.

Indusketa lan hauen emaitzei dagokienez, argi eta garbi esan dezagun ez digutela ikuspegi arkeologikotik informazio handiegirik eskaini. Sekuentzia estratigrafiko erraz samarra da, hoguei unitate estratigrafiko guztira. Berreskuraturiko materialari dagokionez, antzu azaldu zaizkigu praktikan azaleko unitateak, materialik ez baitzuten ia-ia (metal zatiak eta zepak azaldu dira tartean behin). 11. U.E. eta 13-U.E. geruzak izan dira ikuspegi honetatik emankorrenak, hezur-zatiak (fauna), metal zatiak (iltzeak) eta zeramika eskaini dituztelako. Zeramikak beirastatuak, esmaltatuak eta portzelanak azaldu dira azken horien artean.

Geruza motei dagokionez, zorua berdindu eta goratzeko betegarriak dira gehienak, eremua egokitzeko eta uraren eta hezetasunaren emanari aurre egiteko bideratuak. Aipagarria da guztien artean 16. U.E. geruza, burdinolako zepaz eta buztinez osatua: buztin natural oso hezearen gainean hedatu zen zuzenean. Agiri idatzietan, XVIII. mendean dokumentatu zen egitura molde hau (zepakzko geruzak buztin hezearen gainean hedatzea).

Egiturari dagokionez, aipagarria da zutoin baten euskarria, harriz egina. Zuzekoa da egun ere zutoina. Egungo eraikuntzan erabilia den harroin honek aurreko euskarri baten oinarria berrerabiliko zuen seguruenik.

El solar que nos ocupa está ubicado en el número 5 de Goienkale, dentro del casco histórico de Durango, por lo que se situaría en una de las tres calles iniciales de la villa.

El proyecto de la obra, que consiste en la instalación de un ascensor, contempla el vaciado de parte del solar por lo que la intervención arqueológica ha consistido en la excavación de un sondeo de 1,50 x 1,65 m., que es la superficie exacta que se tocará, con el objetivo de determinar el potencial arqueológico del solar y registrar los posibles restos de interés arqueológico.

En cuanto a los resultados de la excavación, hay que decir que no han dado demasiada información desde el punto de vista arqueológico. Se trata de una secuencia estratigráfica bastante sencilla, compuesta de una veintena de unidades estratigráficas. Respecto al material recuperado, las unidades más superficiales se podrían definir como casi estériles, pues apenas contenían material (fragmentos esporádicos de metal y escorias). Los estratos más ricos en material corresponden a la UE 11 y la UE 13, que contienen fragmentos de tipo óseo (fauna), metálico (clavos) y cerámica. Entre estos últimos aparecen cerámicas vidriadas, esmaltadas y porcelanas.

En cuanto al tipo de estratos se trataría más bien de rellenos de nivelación y elevación del suelo, realizados para acondicionar el terreno y paliar los efectos de la humedad y el agua. Destaca entre ellos la U.E. 16, compuesta de escoria de ferrería y arcilla, que se depositó en contacto con la arcilla natural, muy húmeda. En la documentación escrita, se documenta este tipo de actividad (echar estratos de escoria sobre arcillas húmedas) en el siglo XVIII.

Como estructura, hay que mencionar la base de apoyo, realizada en piedra, de un poste, que actualmente es de madera. Ese apoyo de piedra utilizado en la construcción actual parece reutilizar la base de un apoyo anterior.

*Irantzu Agirre Barrutieta*

#### D.2.2.5. **Patrokua jauregia (Etxebarria)**

Zuzendaritza: Maria Antonia Gereñu  
Urzelai  
Finantzazioa: Hermanos Zubizarreta;  
Bizkaiko Foru Aldundia

#### D.2.2.5. **Palacio Patrokua (Etxebarria)**

Dirección: M<sup>ra</sup> Antonia Gereñu  
Urzelai  
Financiación: Hermanos Zubizarreta;  
Diputación Foral de Bizkaia

*Archaeological intervention was conducted on a rambling, 17th century house in which a number of sondages were carried out, both inside as well as outside the building, where the natural soil was searched to a depth of 0.20 m.*

#### *Interbentzio arkeologikoa*

Patrokua jauregia 800 m<sup>2</sup>-tik gorako etxe handi bat da eta xvii. mende bukaera aldean eraiki zen Etxebarria herriko erdialdean, guneko goratu batean. Ugari dira inguruan ortuak eta fruitu-arbolak ageri dituzten sailak. Etxea eraberritzeko proiektua zela-eta, zundaketa batzuk bideratu genituen kanpoan eta etxe barruan. Saneamendurako zangak baliatu genituen kanpoko bi zundaketak zulatze eta hiru zundaketa bideratu genituen etxe barruan: igogailuaren espazioan lehena, ukuiluak hartzen zuen eremuan (mendebaldean) bigarena, eta ezkaratzeko eremuan hirugarrena. Barruko zundaketetan, 0,20 m eskasetara azaldu zen buztin naturala, eta erreka-harriz itxuraturiko zoru bat erregistratu genuen etxe atarian. Beste hainbestekoa gertatu zen kanpoko zundaketetan, 0,20 metroko sakoneran azaldu baitzen lur naturala.

#### *Intervención arqueológica*

El palacio de Patrokua es un caserón de más de 800 m<sup>2</sup> erigido hacia finales del siglo xvii y ubicado en una zona dominante sobre el centro de la población de Etxebarria, con abundantes terrenos de huerta y frutales en el entorno. La rehabilitación del edificio motivó la realización de sondeos tanto en el exterior como en el interior del mismo. Los dos exteriores se llevaron a cabo coincidiendo con las zanjas para saneamiento, en el interior se efectuaron tres sondeos distribuidos uno en el espacio del ascensor, otro en la zona ocupada por la cuadra (sector occidental) y un tercero en el espacio correspondiente al zaguán. En los sondeos interiores la arcilla natural se encontraba a escasos 0,20 m. de profundidad, registrándose un suelo de cantos rodados en la zona correspondiente al portal del edificio. Lo mismo ocurrió en los sondeos exteriores, detectándose el terreno natural a 0,20 m. de profundidad.

*Marian Gereñu Urzelai*

#### D.2.2.6. **Okerra, 1 (Markina-Xemein)**

Zuzendaritza: Ander Arrese Vitoria  
Finantzazioa: Inmuebles Okerra S.L.

#### D.2.2.6. **Okerra, 1 (Markina-Xemein)**

Dirección: Ander Arrese Vitoria  
Financiación: Inmuebles Okerra S.L.

*The installing of a lift at no. 1 Okerra street in Markina prompted the relevant archaeological intervention. Various structural elements were discovered like paving and walls belonging to buildings and allotments predating the current building, but it was not possible to specify their chronology exactly.*

Markinako Kale Okerreko 1. orubean igogailu bat ezarri behar zutela-eta, zundaketa arkeologiko bat bideratu genuen orube hartan, emaitza positiboak eskaini baitzituzten lehenago Markinako hirigune historikoan eta ondoko orubeetan bideraturiko jarduera batzuek. Igogailua egokitu zen eremura mugatu zen zundaketa eta metro beteko sakonerara mugatu zen hasiera batean, lan haietan ez baitzuten barnago sakonduko. 1,29 x 1,56 metroko eremua landuko genuen bestalde.

La instalación del ascensor en el portal del solar nº 1 de la calle Okerra de Markina, motivó la realización de un sondeo arqueológico en la misma, ya que actuaciones anteriores en el casco histórico de Markina y en solares cercanos a ésta ofrecieron resultados positivos. El sondeo se limitó al área en la que se instalara el ascensor, y a priori limitada a la profundidad de 1 m., dado que en dichos trabajos no se pretendía profundizar más, siendo así la superficie afectada una zona de 1,29 m. x 1,56 m.

Zolarria kendu eta, esana ziguten bestaldera, haren azpian arroka naturala ez zela azaltzen konturatu ginen. Koherentzia bazuen honek guztiak kontuan hartzen bagenituen Belen Bengoetxeak 1993an aldame-neko orubean (Kale Okerra 3-5) eginiko lanak.

Hona hemen azaldu diren unitate estratigrafikoak:

1. U.E.- Arroka naturala.
2. U.E.- Substratuaren deskonposizioaren oinarriko buztinak.
3. U.E.- Zulo itxuraz angeluzuzena, oinarriko buztinetan bideratua. Arroka naturaleraino iristen da.
4. U.E.- Egitura itxuraz angeluzuzena (ezin izan dugu osorik ikusi), adreilu trinkoz eta zementuz egina eta 3. unitate estratigrafikoaren hormetara itsasten dena.
5. U.E.- Egikera traketsoko horma, etxearen mendebaldeko hormaren paraleloan luzatua, erreka-harriz eta itxura irregularreko lauzaz egina, eta 4. unitate estratigrafikoaren ekialdeko hormaren gainean bermatua.
6. U.E.- Harrizko zoladura baten zatia, egikera xumekoa, 2. eta 4. unitate estratigrafikoen gainean bermatua eta mendebaldetik 5. U.E.ari itsatsia.
7. U.E.- Ikatz eta gai organikoen hondakin ugari ageri dituen betegarri iluna. Lur lohi-buztintsu bat da jatorrian, fundizio-zepa ugariz hornitua. 2. U.E.a estaltzen du eta 5. U.E.ari eratxikirik ageri da, ekialdetik.
8. U.E.- Kolore grisaxkako sedimentu hondartsu batez osaturiko betegarria, klasto ugari ageri dituen. 1., 2., eta 3. unitateak estaltzen ditu eta 5. U.E.aren gainean bermatzen da. Betegarri honetan azaldu da kaolinezko pipa-tutu baten puska.
9. U.E.- Hareharrizko lauza handiz itxuraturiko egitura. Etxearen mendebaldeko hormaren eta 5. U.E.aren paraleloan luzatzen da. 8. U.E.aren gainean bermaturik ageri da.
10. U.E.- Zementu eta baldosazko zolarria.

0,97 cm-ko sakonera iritsi dugu gorenik zundaketa lanetan, kota horretan azaldu baita arroka naturala.

### **Lehen konklusioak**

Bi gune desberdin adierazten dituzte 5. U.E.aren bi aldeetan azaldu diren bi betegarri motek: ekialdea barruko gune bati dagokio seguruenik, horixe adierazten digu behinik behin, betegarri horretan ugari azaltzen den materia organikoak.

Mendebaldean azaldu den zoladura zatia harrizkoa da, bazter batean eta oso egoera txarrean dago eta kanpo gune bat iradokitzen digu (patioa edo karkaba), 5. unitatearen egikera txarrak gutiz baztertzen baitu

Al levantar la solera comprobamos que al contrario de lo que nos habían indicado, la roca no afloraba bajo esta, lo cual resultaba más coherente con los trabajos realizados por Belén Bengoetxea en el solar contiguo (Okerra 3-5) en el año 93.

Las unidades estratigráficas localizadas son las siguientes:

- U.E.1- Roca madre.
- U.E 2- Arcillas de base de descomposición del sustrato.
- U.E 3- Una perforación de forma aparentemente rectangular practicada en las arcillas de base, que llega hasta la roca madre.
- U.E 4- Una estructura de apariencia rectangular (no hemos podido verla completa) realizada a base de ladrillo compacto y cemento, que se adosa a las paredes de la unidad estratigráfica nº 3.
- U.E 5- Un muro de mala factura, paralelo a la pared occidental del edificio, levantado con cantos y losas de forma irregular, que se apoya sobre la pared oriental de la unidad estratigráfica nº 4.
- U.E. 6- Una pequeña parte de un empedrado de pobre factura que se apoya sobre la U.E. nº 2 y nº 4 y se adosa a U.E. nº 5 por su cara oeste.
- U.E. 7- Relleno de color oscuro con abundantes carbones y restos de materia orgánica. Parece un sedimento de matriz limo-arcillosa con abundantes restos de escoria de fundición. Cubre la U.E. nº 2 y se apoya en la nº 5 por su lado este.
- U.E.8- Relleno de sedimento arenoso de color grisáceo con abundantes clastos. Cubre las unidades 1, 2 y 4 y se apoya a la U.E nº 5. En este relleno se ha recuperado un fragmento de caña de una pipa de caolín.
- U.E 9- Estructura de losas de arenisca de grandes dimensiones dispuestas de forma paralela a la pared W del edificio y a la u.e. nº 5. Se apoya sobre u.e. nº 8.
- U.E.10- Solera de cemento y baldosas.

La profundidad máxima alcanzada es de 0,97 m, donde nos encontramos con la roca natural.

### **Conclusiones preliminares**

Los dos tipos de relleno encontrados a ambos lados de la U.E. 5 dan a entender dos entornos diferentes; el lado oriental es probable que corresponda a una estancia interior, eso nos indica al menos, la materia orgánica que rebosa el citado relleno.

El fragmento de empedrado encontrado en el lado occidental (muy marginal y deteriorado) sugiere un espacio exterior (patio o carcaba) pero la mala factura de la unidad nº 5 nos hace descartar el que fuera parte

etxeke fatxadaren alde bat izan zitekeelakoa. Ez daki-gu zer helburu zuen adreilu trinkozko egiturak (4. U.E.).

9. unitatea goiko solairurako eskaileren oinarriari dagokio seguruenik. Ezin zehaztu izan ditugu aurkituriko egituren eta etxeke egungo hormen arteko lotura estratigrafikoak, zundaketak, orubearen erdian, ez baitzuen horretarako egokierarik eskaintzen.

Arestian aipatua dugun bezala, kaolinezko pipa baten zatia berreskuratu genuen azken betegarrian (8. U.E.) eta, beraz, betegari horren post quem kronologiara hurbiltzen gaitu datu honek. Ezin zehaztu ahal izan dugu pieza horren tipologia, oso txikia izateaz gainera bere diseinu edo morfologiaren berezitasunik ez baitigu eskaintzen, baina esan dezagun Ingalaterran egiten XVI. mendean hasi baziren ere, Espainian ez zirela XVIII. mendera arte lantzen hasi.

de la fachada del edificio. Desconocemos la finalidad de la estructura de ladrillo compacto (U.E. 4),

La unidad nº 9 es muy probable que corresponda a la base de las escaleras de acceso al piso superior. No se han podido establecer relaciones estratigráficas entre las estructuras halladas y las paredes actuales del edificio, dada la situación del sondeo en medio del solar.

Como antes hemos mencionado, en este último relleno (U.E. 8) recuperamos un fragmento de pipa de caolín que nos da una idea aproximada de la cronología post quem del mismo. No se ha podido determinar la tipología de la pieza dado su reducido tamaño y la ausencia de peculiaridades de diseño o morfología, pero podríamos decir que aunque se empezaran a fabricar en Inglaterra en el siglo XVI, en España no se producen hasta el XVIII.

Ander Arrese Vitoria

D.2.2.7. **Gerrikaizko 17., 19., 24., 26. eta 28. orubeak (Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz)**

Zuzendaritza: F. Rafael Varón  
Hernández  
Finantzazioa: Bizkailur S.A.

D.2.2.7. **Solares, 17, 19, 24, 26 y 28 de Gerrikaitz (Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz)**

Dirección: F. Rafael Varón  
Hernández  
Financiación: Bizkailur S.A.

*The interest of the Town Council of Munitibar in undertaking certain items of building work in the town of Gerrikaitz necessitated the conducting of a series of archaeological sondages in a considerable number of plots of land in this small Bizkaian town. The results of nearly all the plots excavated were structures which, even if they did not provide conclusive data on the morphology of the town itself and of its chronological phases, did nevertheless provide us with clues about its limited role within the post-medieval Bizkaian framework.*

Munitibarko udalak Gerrikaitz auzoan lan batzuk egin nahi zituela-eta, ukituriko eremuen balio arkeologikoaren gaineko azterketa bat bideratu behar izan genuen. Auzoko bost orubeetan bideratu genuen interbentzio arkeologikoa, une haietan, inolako eraikinik ez baitzegoen haietan eta, beraz, askoz erraza-goak izango ziren horrenbestez indusketa lanak.

Esan dezagun, bestalde, oso interbentzio gutxi bideratu zirela ordura arte Gerrikaitz hiribilduaren barruan (B. Bengoetxea, *Arkeoikuska* 1993), eta argi eta garbi pentsatu genuen interbentzio hark datu esanguratsu batzuk eskainiko lizkigukeela kronologia faseei buruz edota hiribilduak 1366an sortu zutenetik izan zituen biziguneen morfologiari buruz. Lorturiko emaitzak, ostera, ez dira seguruenik, indusketen garaian lorturiko datuen azterketa xehearen zain gaudelarik, hiribilduaren iragan urrunenaren isla izango eta eraikin modernoekin berri baidiz ez digute emango. Bizkaiko Erdi Aroko sareko hiri-

Con motivo del interés del ayuntamiento de Munitibar de realizar unas obras en el barrio de Gerrikaitz, se hizo necesaria la realización de un estudio referente al valor arqueológico de las zonas afectadas. La intervención arqueológica se efectuó sobre cinco solares de la villa los cuales, en esos momentos, se encontraban exentos de cualquier tipo de construcción, lo que facilitaba la excavación en conjunto de todos ellos.

Es necesario citar, por otro lado, que son muy escasas las intervenciones practicadas dentro de la villa de Gerrikaitz (B. Bengoetxea, *Arkeoikuska* 1993) lo que nos lleva a pensar que la intervención a realizar nos podría dar algunas pistas sobre distintas fases cronológicas o sobre la morfología de la puebla desde su fundación en 1366. Probablemente los resultados obtenidos, a falta del análisis pormenorizado de los datos obtenidos durante las excavaciones, no sean reflejo del pasado más lejano de la villa y sean solamente atribuibles a edificaciones modernas. Futuras inter-

bildu txiki eta ahantzi honen bilakaerari buruzko datu berriak eskainiko ahal dituzte Etorbizunean Gerrikaizko Hirigune Historikoaren barruan bideratuko diren interbentzioek.

Hiru indusketa-eremutan daude landu diren bost orubeak. B gunea itxuratzen zuten Bekokaleko 26. eta 28. orubeek, eta A gunea kale bereko 24. zenbakidunak. Bestalde, C izeneko gunea handia osatu zuten Goienkaleko 17. eta 19. orubeek.

## A Gunea

Aipaturiko horma horiez gainera, horma nagusiarri loturik, hari hegoaldean itsatsia, *gandola* bat dago. Mendebaldeko muturrean hegoalde-iparralde norabidea du *gandola* horrek eta 90°-ko angelua eratu ondoren hormaren paraleloan doa 13. UE deituriko zaparaino, han, hegoaldeko bidea hartzen du, 90°-ko angeluan berriro ere. Halaz ere, uste dugu, iparralde-hegoalde norabidea duen azken adar hori geroagokoa dela, alondegia zapata egiterakoan eraikiko zuten seguru asko, eta orduan suntsitu egingo zuten hasieran ekialderantz jarraituko zuen *gandola*. Mendebaldean ez zuen estalkirik ageri eta amortizazio maila batekin bete zuten. Gainerakoak bai kontserbatzen zituen estalkiko harri xabalak, 5 cm inguruko lodierako harriek osatuak. Kanalak 20-25 cm-ko zabalera eta 25 cm inguruko sakonera ditu, eta erdi tamainako harriz egina da, kolore beix zurixkako zarpiatu geruza lodi samarrak estaliak.

ba un portal y la línea de muralla que uniendo los ensanches septentrional y meridional incluyó la plaza dentro del recinto amurallado.

En general se pueden clasificar las unidades estratigráficas documentadas en el solar por su pertenencia a dos periodos genéricos, aquellos relacionados con el edificio actual y otros de un periodo anterior, de época moderna.

## *Primera época constructiva*

Se documentan estructuras pertenecientes a un edificio de amplias dimensiones con un espacio interno bastante compartimentado con muros de diferentes momentos, al menos estratigráficamente.

A pesar de que no se ha excavado en área toda la superficie y de que han sido muy alterados por las estructuras posteriores, los fragmentarios datos de los sondeos y de la excavación de las zapatas nos permiten plantear que al igual que el edificio actual la planta tenía forma en «L», por lo tanto tal vez los dos se adapten a algún elemento anterior. El muro que parece principal, al que se adosan todos los demás, tiene dirección este-oeste, es de mampostería de unos 70 cm. de grosor y está enlucido en su cara sur. En el sondeo se ha documentado en una longitud de 9 m., sin embargo parece que su longitud era similar a la del ala sur del edificio actual pues se ha localizado la esquina oriental al excavar una zapata y el negativo del muro de cierre en el extremo oeste.

Dentro de los límites del sondeo, se han localizado tres muros de dirección norte-sur, es decir, perpendiculares al anterior, dos de ellos situados al sur del mismo y otro al norte. Dos de estos muros están enlucidos en una de sus caras y parecen de división interna del espacio.

El límite sur de este edificio no está muy claro pues se han documentado dos fragmentos de muros diferentes más al sur que podrían ser también muros de compartimentación y no perimetrales.

Aparte de los muros mencionados, en relación con el muro principal, pegando a él al sur, hay *un caño*. En el extremo oeste el caño tiene dirección sur-norte y tras un ángulo de 90 ° va en paralelo al muro hasta la zapata UE 13 donde gira hacia el sur de nuevo en un ángulo de 90°. Sin embargo, pensamos que este último ramal norte-sur es posterior, seguramente se hizo precisamente al realizar la zapata de la alhóndiga que destruiría el caño que inicialmente continuaría hacia el este. En la zona oeste no presentaba cubierta y había sido rellenado con un nivel de amortización, mientras que en el resto sí conservaba las lajas de cubierta formadas por piedras de unos 5 cm. de grosor. El canal tiene entre 20-25 cm. de anchura y unos 25 cm. de profundidad y se ha realizado con piedras de tamaño medio recubiertas por una capa bastante gruesa de enlucido beige blanquecino. La parte inferior del canal

Kanalaren azpialdea induskatua zegoen, buztinean sartua, eta geroago lur marroiak osaturiko betegarria bota zuten, oso lur buztintsua, kanalaren alde bakoitzean, haren goiko aldera iritsi arte berdinduz. Gero estalkiak jarri zituzten, eta dirudinez, guztia estalita egon zen buztinezko maila handi batez. Esparru honetako erabilera zorua, behin gandola egin ondoren, 26. UE izango zen, justu buztinezko maila horren gainean.

Gandolaren mendebaldeko muturrean harri batzuek osaturiko egitura dago, kareore lodi batez estaliak daude harriak eta malda sortzen dute ekialderantz eta ertz bat, berriz, iparralderantz. Ura iragazi gabe gandola aldera joatea izango zen horien helburua. Kareore horri ongi begiratu ondoren, ematen du gandolarekin batera egin zela egitura, baina geroago berritu eta erabili ere egingo zuten. Izan ere, badirudi gandola lehen eraikin horrekin batera egin zela, baina alondegia egin zutenean ere erabili zuten haren zati bat.

Azkenik, badirudi eraikin honetan sutea izan zela eta erori egin zela, horixe erakusten baitute arestian aipatu ditugun egitura horietan dokumentaturiko behehota jotako hondakin eta betegarriak.

### ***Eguno eraikinarekin, alondegiaarekin loturiko elementuak***

Orube osoan 1. UE zolarria altza ondoren (azken erabilera zorua beheko solairua erretiratuen kluba zenean, azuleju, hormigoizko zolarri eta prestatzeko zabor-legarrak osatua), burdinazko hiru haberen oinarriak dokumentatu genituen. Indusketan ikusi da geruza naturalera iristen diren planta karratuko landu gabeko harri eta kareozko zapatekin bat datozena; zapata horiek hautsi egin zituzten aurreko garaiko egitura eta geruzak. Baina badira beste bi oinarriko zapata, forma biribilekoak, 12. UEn zati bat aprobetxatzen dutenak, zapata horien zati bat unitate estratigrafiko horretan oinarritzen baita. Era berean, eraikineko ekialdeko hormaren oinarria ikusi ahal izan dugu; landu gabeko harriz eginiko zokaloa da, mailakaturia eta etena, seguru asko gandolak igarotzen uzteko, eraikinaren hego-mendebaldeko ertzean gertatzen den bezala.

Gainera, hodi bat dokumentatu genuen iparraldeko hormaren paraleloan eraikinaren hegoaldean, eta baita gandola bat ere, iparraldean mendebaldeko hormatik abiatu eta eraikinaren hego-ekialdeko ertzean iristen zena. Haren hormak (15 cm-ko lodiera eta 40 cm-ko altuera-koak) landu gabeko harri eta teilaz eginak ziren, kareorez elkartuak, eta 52 cm-ko hutsunea uzten zuten erdian. Zorua adreilu trinkoz egina zen (34x8x3 cm) eta estalkia, berriz, neurri handiko kareharrizko harri xabalak ziren (70 cm zabal, 6 cm lodi eta luzera aldakorra).

Erretiratuen kluba izan aurretik alondegia zen garaiko bane espazioaren banaketaren zati bat egiazatu dugu halaber. Zehatzago adierazteko, iparralde-hegoalde norabideko horma baten oinarriko ilara da; dirudinez, mendebaldeko muturrean zegoen areto baten itxura

estaba excavada y metida en la arcilla y posteriormente se había echado un relleno de tierra marrón muy arcillosa a cada lado del canal nivelando hasta alcanzar la parte superior del mismo. Después se habían puesto las cubiertas y al parecer estuvo todo ello tapado por un importante nivel de arcilla. El suelo de uso de este espacio una vez realizado el caño debía ser el UE 26 justo por encima de ese nivel de arcilla.

En el extremo oeste del caño se sitúa una estructura formada por algunas piedras cubiertas por una argamasa muy gruesa que crean una pendiente hacia el este y una esquina al norte, cuyo objetivo debía ser que el agua vierta hacia el caño sin filtrar. Al observar la argamasa detenidamente da la sensación que esta estructura se hizo con el caño si bien ha debido de ser reformada y utilizada también con posterioridad. De hecho parece que el caño se hizo con este primer edificio pero parte de él fue también utilizado cuando se hizo la alhóndiga.

Por último, parece que este edificio sufrió un incendio y se derribó, de lo que han quedado evidencias en los diferentes derrumbes y rellenos documentados entre las estructuras mencionadas.

### ***Elementos relacionados con el edificio actual, con la alhóndiga***

Al levantar la solera UE 1 en todo el solar, (último suelo de uso cuando la planta baja era el club de jubilados formado por azulejo, solera de hormigón y todo uno de preparación) se documentaron las bases de tres vigas de hierro. En la excavación se ha visto que coinciden con zapatas de mampostería y argamasa de planta cuadrada que llegan hasta el estrato natural cortando las estructuras y estratos del periodo anterior. Pero existen además otras dos zapatas de planta en forma redondeada que aprovechan parcialmente el muro UE 12, apoyándose en parte en él. También se ha podido ver la base del muro occidental del edificio, que es un zócalo de mampostería escalonado y discontinuo, posiblemente para dejar paso a los caños, tal y como ocurre en la esquina suroeste del edificio.

Además se documentó una tubería en paralelo al muro septentrional en la zona sur del edificio y un caño que partía desde el muro occidental en el ala norte hasta la esquina sureste del edificio. Sus paredes (15 cm. de grosor y 40 cm. de altura) estaban realizadas en mampostería de piedra y teja trabadas con argamasa y dejaban un hueco central de 52 cm. El suelo era de ladrillos macizos (34x8x3 cm.) y la cubierta de lajas calizas de grandes dimensiones (70 cm. de ancho, 6 cm. de grosor y longitud variable).

También se ha podido comprobar en parte la compartimentación del espacio interior de la alhóndiga anterior a su uso como club de jubilados. En concreto la hilada de base de un muro de dirección norte-sur que al parecer era el cierre de una estancia que existía en



zen hura eta hantxe egongo zen balantza txiki bat, ahozko dokumentaziotik jakin izan dugun bezala. Izan ere, 4. UE, adreiluzko zoruak osatua eta harri xabal batzuek mugatua, balantza horren oinarria izan zitekeela pentsatzen dugu. Seguru asko, espazioa zatitu zenean eta balantza hori jarri zenean baliogabetuko zuten aurreko garaiko gandola. Horretarako, estratigrafia suntsitu behar izan zen 10 UE hormaren mendebaldeko eremu osoan eta berriro bete behar izan zen buztinezko geruza batez, eta beste betegarri zurixka bat ere egin zen zorua altxatu eta gainerako espazioaren kotarekin berdindu ahal izateko.

Bestalde, alondegia eraikinaren jatorrizko zorua, dirudinez, suntsitu egi zuten zabor-legarra eta hormigoizko geruza bota zituztenean, baina hondar gris eta kare hondakinak dokumentatu dira eremu aski horizontaletan. Harrizko lauzez osaturiko zoruaren oinarria izango ziren horiek.

Azkenik, indusketa arkeologikoarekin egiaztatu ahal izan dugu alondegiko hegoaldeko hormaren ekialdean dagoen leihoa garai batean atea izan zela, horma horren mendebaldeko muturrean dagoenaren berdina, hain zuzen ere, baina haren zati bat bete egin zuten behealdetik, erabilera aldatu eta erretiratuen kluba izatera pasa zenean seguru asko.

## **Konklusioak**

Orube honetan berriro ere egiaztatu dugu plazan eta aduanan ikusi genuen geruza naturalaren perfila, hau ipar-mendebaldetik (30 cm-ko sakoneran) hegoaldealderantz okertzen da eta hantxe du bere kota baxuena ia metro eta erdikoa azken zorutik.

Aurreko arrazoi horregatik, eraikinaren hegoaldeko eremuan besterik ez ditugu dokumentatu aurreko hondakinak, baina iparraldeko muturrean, zapatak egiteko lanak egin zirenean, kubeta bana dokumentatu genituen buztin naturalean induskatuak. Zabortegi gisa interpretatu ditugu horiek.

Dokumentaturiko egiturak bi fasetakoak dira oro har, bata egungo eraikinari dagokiona alondegia gisa erabili zenean, eta bestea lehenagokoa, Aro Modernokoa, seguru asko XVIII. mendekoa. Egitura modernoan planoari erreparatzen badiogu, badirudi pentsa daitekeela, nolabait ere, aro garaikideko eraikinaren espazioaren okupazioa erakusten dutela; horrek «L» bat eratzen du, azaltzeko zaila benetan. Bestalde, behe jotako eta sutea gertatu ondoko geruzen homogeneotasunak pentsarazten du une berean suntsituko zirela Aro Modernoko eraikinak.

Material arkeologikoari dagokionean, azterketa sakonago bat egiteko zain, gehienek modernoak dirudite, XVIII. Mendekoa beharbada, batik bat 9. zapatan berreskuratutako Erdi Aroko zeramika zati batzuk izan ezik.

el extremo oeste donde se situaba una balanza pequeña según hemos sabido por documentación oral. De hecho la UE 4 formada por un suelo de ladrillo delimitado por unas lajas de piedra creemos que pudo ser la base de dicha balanza. Posiblemente cuando se dividió el espacio y se situó esa balanza fue cuando se anuló el caño del periodo anterior. Para ello fue necesario destruir la estratigrafía en toda la zona oeste del muro UE 10 y rellenarlo de nuevo con un estrato de arcilla y otro relleno blanquecino para elevar el suelo hasta equipararlo con la cota del resto del espacio.

Por otra parte, el suelo original del edificio de la alhóndiga al parecer fue destruido al echar el todo uno y la capa de hormigón pero se han documentado restos de arena gris y cal en zonas bastante horizontales que deben ser la base del suelo de losas de piedra.

Por último también se ha podido ver en la excavación arqueológica que la ventana situada al este del muro meridional de la alhóndiga realmente fue una puerta igual a la situada en el extremo oeste de dicho muro, la cual fue parcialmente rellenada en su parte inferior probablemente cuando se cambió el uso a club de jubilados.

## **Conclusiones**

En este solar se ha vuelto a confirmar el perfil del estrato natural que vimos en la plaza y la aduana, el cual buza desde el noroeste (a 30 cm. de profundidad) hacia el sureste donde alcanza su cota más baja de casi metro y medio desde el último suelo.

Por la razón anterior prácticamente sólo se han documentado restos anteriores en la zona sur del edificio, aunque en el extremo norte durante los trabajos para realizar las zapatas se documentaron sendas cubetas excavadas en la arcilla natural que se han interpretado como posibles basureros.

Las estructuras documentadas corresponden en general a dos fases, la correspondiente al edificio actual con su uso como alhóndiga y otra anterior de época moderna, posiblemente del siglo XVIII. De la visión sobre el plano de las estructuras modernas parece que se puede deducir que reproducen en cierto modo la ocupación del espacio del edificio contemporáneo que forma una «L» difícil de explicar. Por otra parte la homogeneidad de los estratos de derrumbe e incendio sugieren la destrucción en un mismo momento del o los edificios de época moderna.

En cuanto al material arqueológico, a la espera de un estudio más profundo, parece en su mayoría moderno, tal vez del siglo XVIII, salvo algunos fragmentos de cerámica medieval recuperados sobre todo en la zapata 9.

### D.2.2.12. Frankos kalea, 29 (Urduña-Orduña)

Zuzendaritza: Alesander Maguregi  
Finantzazioa: Construcciones Cobatabi S.L.

### D.2.2.12. Frankos kalea, 29 (Urduña-Orduña)

Dirección: Alesander Maguregi  
Financiación: Construcciones Cobatabi S.L.

*The aim of this intervention was to monitor the historical development of the plot of land within the urban development of the town of Orduña. The results have provided evidence of a single moment of occupation connected with the dwelling that has occupied the plot until now, a dwelling that can be ascribed to the 19th and 20th centuries.*

Kontrol arkeologikoa egin den bitartean aurkitutako aztarnak aukera eman digute Erdi Aroko orubean oinarrituriko lursail-zatiketa tradizionala dagoela dokumentatzeko, eta zatiketa ia bat ere aldatu gabe iritsi da gure egunetara. Lursailak lau eta sei metro arteko zabalera dute eta hondoa, berriz 14 eta 16 metro artekoa da kaletik hasi eta gandolaraino. Aro Garaikideko harri xabalez osaturiko zorua atzeman dugu eta baita zoru hori oinarritzeko betegarri mailak ere, baina ez dugu espazio hori lehenagoko garaietan erabili zela erakusten digun aztarnarik aurkitu.

Kultura materialeko elementuak ez dira garrantzitsuak, zeramikazko zati berriren bat besterik ez baitugu berreskuratu, egungo plastikoa eta botilekin nahasia. (Ez da jaso). Elementu horiek ez dute XIX-XX. mendeak baino lehenagokoak ematen, dirudienez garai horretan eraiki baitzuten egungo eraikina.

Eraikuntza elementuen artean ikus ditzakegu indusketa arkeologikoak eskaini ez dizkigun datu batzuk; zurezko egituraren elementuen artean «enara» ahokatzek aurkitu ditugu, XVI. eta XVII. mendeetako ezaugarriak, hain zuzen ere. Ezaugarri horiek ditu orubearen aurrealdeko zurezko paldoetakoren batek (Ikus 1. argazkia). Aro Modernoko piezak berriro erabili zirela esan nahi dute elementu horiek, egoera onean zeudelako berriro erabiliko baitzituzten XIX. eta XX. mendeen artean egungo higiezina eraiki zuten garaian.

Horrenbestez, esan dezakegu Aro Garaikidean okupatu zituztela orube horiek, baina lehenagoko okupazioaren frogarik ez dugu (lehen aipaturiko zurezko elementu horiek izan ezik), seguru asko lursailak behin eta berriro erabili izanagatik eta gaur egun zegoen etxebizitza eraikitzeako orduan aurreko maila arkeologikoak kendu egin zituztelako.

Los niveles localizados durante el control arqueológico nos permiten documentar la existencia de una parcelación tradicional basada en el solar medieval que se ha mantenido prácticamente invariable hasta nuestros días. Las parcelas presentan entre cuatro y seis metros de anchura y de fondo entre 14 y 16 metros, desde la calle hasta el caño albañal. Se ha localizado un nivel de suelo de lajas de época contemporánea y niveles de relleno para ubicar este suelo, pero no se han hallado evidencias de utilización de este espacio en periodos anteriores.

Los elementos de cultura material no son relevantes, puesto que solo se ha recuperado algún fragmento cerámico de reciente factura, mezclado con restos de plásticos y botellas actuales. (No se ha recogido). Estos elementos no parecen remontarse a antes de los siglos XIX-XX, momento en que parece se levanto el edificio actual.

Entre los elementos edificativos podemos apreciar datos que no nos ha aportado la excavación arqueológica; entre los elementos de la estructura de madera se han localizado encajes de «golondrina», característicos de los siglos XVI y XVII. Alguno de los postes de madera de la zona delantera del solar presentan estas características (Véase foto 1). Estos elementos indicarían una reutilización de piezas de época moderna, que por mantenerse en buen estado son reutilizadas a la hora de construir el inmueble actual entre los siglos XIX y XX.

Por tanto, podríamos hablar de una ocupación de los solares en época contemporánea, sin pruebas de ocupación anterior, (exceptuando los elementos ligneos antes mencionados) probablemente por la reiterada utilización de los espacios parcelarios y la eliminación de los niveles arqueológicos anteriores a la hora de edificar la vivienda que existía en la actualidad.

*Alesander Maguregi Solana*

### D.2.2.13. **San Pedro Lendoñoaitikoa eta San Roman Zedelikakoa (Urduña-Orduña)**

Zuzendaritza: Jose Luis Solaun  
Bustinza  
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

### D.2.2.13. **San Pedro de Lendoño de Arriba y San Román de Zedelika (Urduña-Orduña)**

Dirección: Jose Luis Solaun Bustinza  
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

*The results achieved in this first phase of studies aimed at determining the origin of the High Medieval settlement in the Orduña valley, in particular those results achieved in the chapel of San Román de Zedelika, can be regarded as important and significant. The intervention conducted on this chapel has made it possible to establish the complete historical development of the temple from the High Medieval period up until the 19th century.*

San Roman Zedelikakoa ermitan eta San Pedro Lendoñoaitikoa elizan, biak era Urduñako udal barrutian, eginiko interbentzio arkeologikoa proiektu zabala go baten barnean dago eta Urduñako haranean Goi Erdi Aroko populatzearen sorrera zehaztea du helburu. Azterketa horretan arkeologiak –beste iturri batzuekin batera, dokumentuak, toponimia eta abar– gaitasun handia erakusten du, izan ere, identifikatzeko elementu errazenetakoak dira elizak eta haiekin beren nekropoliak, eta informazio hermenetiko handiena ematen dute beste errealitate konplexuagoak ezagutzeko, egitura feudalen barnean populazioaren finkatzea, esate baterako.

La intervención arqueológica efectuada en la ermita de San Román de Zedelika y la iglesia de San Pedro de Lendoño de Arriba, ambas en el término municipal de Orduña, se enmarca dentro de un proyecto más amplio que tiene por objeto determinar la génesis del poblamiento altomedieval en el valle de Orduña. Un estudio en el que la arqueología –junto a otras fuentes como las documentales, toponímicas, etc.– muestra una gran potencialidad, en tanto que las iglesias y con ellas sus necrópolis son una de las manifestaciones más fáciles de identificar y de mayor información hermenéutica de cara a conocer otras realidades más complejas como la fijación del poblamiento dentro de las estructuras feudales.



San Pedro Lendoñoaitikoa eta San Roman Zedelikakoa (Urduña-Orduña). Nekropoliaren ikuspegi orokorra indusketa prozesuan.

San Pedro de Lendoño de Arriba y San Román de Zedelika (Urduña-Orduña). Vista general de la necrópolis durante el proceso de excavación.

### *San Pedro Lendoñogoitiko eliza*

San Pedro elizan eginiko interbentzioak emaitza negatiboak eskaini dizkigu egitura, depositu edo hilotzen presentziari dagokionean, inguruetan Erdi Aroko tenplurik zegoenik ez baitute erakusten. Halaz ere, erregistro arkeologikoak bai dokumentatu ahal izan zuen Goi Erdi Aroko eraikuntza maila bat, eta horrek esan nahi du gutxienez garai horretatik aurrera izan zuela okupazioa leku honek.

### *San Roman Zedelikakoa ermita*

Zalantzarik gabe, interbentzio honen emaitzek soberan bete zituzten zehaztutako helburuak, estratigrafia sekuentzia benetan aberatsa dokumentatu baikenuen –erregistraturiko lodiera handiari esker, metro batetik gora–, izan ere, hori ez da bat ere ohikoa, era honetako landa interbentzioetan ia estratigrafiarik ez delako izaten. Azaletik begiratuta, honako hau izan zen interbentzioan atzemaniko sekuentzia.

### *Goi Erdi Aroko nekropolia (VIII-XI. mendeak)*

Zedelikako Goi Erdi Aroko jatorrizko herrixkaren ageriko froga dela esan daiteke ermita honetan erregistraturiko nekropolia, bere parroki eliza zuen gainera herrixka horrek. Zehatzago adierazteko, sei hilobi erregistratu ziren harri xabal edo zista moldekoak; hobi angeluzuzenak ziren, paretetan kareharri xabal bertikalek sendotuak, 4 eta 12 cm artekoak ziren harri horiek, eta beste harri xabal batzuek estaltzen zituzten, horiek ere kareharriak. Hilobi batzuek leku batzuetan estalkirik ez bazuten ere, badirudi logikoa dela pentsatzea jatorrian izango zituztela, eta geroago eraitsiko zituztela. Guztiak ere ekialde-mendebalde norabidean kanonikoki egokituak ziren, baina haietako lauk ez zuten gorpuzkunik barruan.

Arreta berezia merezi du 3. hilobiak. Haren barruan emakume heldu baten gorpuzkina zegoen, ahoz gora, besoak luzean pelbisaren gainean egokituak eta zangoak elkartuak. Eskuineko omoplatoaren gainean burdinazko labaina bat zuen. Gainera, betegarriaren barruan gerriko orratzaren plaka angeluzuzen bat berreskuratuta genuen, kobre edo brontzekoa eta urre kolorea.

### *Nekropolia uztea (XI. mendea- XII. mendearen lehen erdialdea)*

Betegarri buztintsu batek ixten zuen nekropoli osoa, kanposantuaren abandonuaren erakusgarri, XI. mendean edo XII. mendearen lehen erdialdean gertatu zen hori testuinguru horretan berreskuratutako zeramikazko material ugari eginiko azterketak eskaini dituen emaitzen arabera. Nekropoli hori itxi zutenean, koordinatu historikoetan interpretaturik, ermita huts bi-

### *Iglesia de San Pedro de Lendoño de Arriba*

La intervención efectuada en la iglesia de San Pedro ha arrojado resultados negativos en cuanto a la presencia de estructuras, depósitos o sepulturas que demuestren la existencia de un templo medieval en sus inmediaciones. No obstante, el registro arqueológico sí pudo documentar un nivel constructivo altomedieval que indica la ocupación del lugar desde, al menos, esta época.

### *Ermita de San Román de Zedelika*

Sin duda, los resultados de esta intervención cumplieron con creces los objetivos marcados, al documentarse una rica secuencia estratigráfica –gracias a la notable potencia registrada, superior al metro–, muy infrecuente en este tipo de intervenciones rurales donde apenas se registra estratigrafía. A grandes rasgos, la secuencia de la intervención fue la siguiente.

### *Necrópolis altomedieval (siglos VIII-XI)*

La necrópolis registrada en esta ermita debe interpretarse como la prueba palpable de una primitiva aldea altomedieval en Zedelika, dotada de su propia iglesia parroquial. En concreto, se registraron seis sepulturas de las denominadas de lajas o cista, consistentes en una fosa rectangular reforzada en sus paredes por lajas calizas verticales de entre 4 y 12 cm. de grosor, cubiertas a su vez con otras lajas también calizas. Aunque algunas sepulturas carecían de cubiertas en determinadas zonas, parece lógico pensar que en origen debieron tenerlas, siendo desmanteladas posteriormente. Todas estaban canónicamente orientadas este-oeste, si bien cuatro de ellas no presentaban individuo en su interior.

Especial atención merece la sepultura 3, en cuyo interior se depositaba una mujer adulta, en posición de decúbito supino, con los brazos extendidos sobre la pelvis y las piernas juntas. Sobre el omóplato derecho poseía un cuchillo de hierro. Además, formando parte de su relleno se recuperó una placa de broche de cinturón rectangular, en cobre o bronce con sobredorado.

### *Abandono de la necrópolis (siglo XI- 1ª mitad siglo XII)*

Sellando toda la necrópolis se extendía un relleno arcilloso que mostraba el abandono del campo santo, consumado en el siglo XI o la primera mitad del siglo XII a juzgar por el estudio efectuado al abundante material cerámico recuperado en este contexto. La amortización de esta necrópolis, interpretada en coordenadas históricas, marcaría el momento en que la iglesia pa-

lakatuko zen Zedelikako parroki eliza eta bertako biztanleek auzo bat eratuko zuten parroki zentro berrien inguruan.

### ***Ermitaren eraikuntza (xvi. mendearen bigarren erdialdea)***

Aztertutako sekuentzia estratigrafikoan egungo San Roke ermitaren eraikuntza da hurrengo jarduera, landu gabeko harriz eginiko landa eraikin xumea hura. Indusketa lanetan Felipe II.aren garaiko *cornado* bat agertu izanak, 1561 eta 1598 urteen artekoa hura, *postquem* data ematen digu eraikin honen eraikuntzarako, Urduñako kabildoaren 1598ko ordenantzen dokumentu batek, berriz –haren arabera San Roman ermitak ez zuen bataiaririk eta hilerririk– *antequem* data iradokitzen du. Horrenbestez, 1561 eta 1598 urteen artean kokatuko genuke ermita honen eraikuntza.

Ermitaren eraikuntzaz gainera, beharrezkoa da, gure ustetan gutxienez nolabaiteko garrantzia izango duen beste alderdi bat azpimarratzea. Nekropolia utzi eta ermita hau eraiki zuten arteko estratigrafiarik dokumentatu ez izanaz ari gara, hain zuzen ere. Hauxe da, xii. mendearen erdialdetik xvi. mendearen erdialderaino. Edo gauza bera esateko, 400 urteko informazio hutsunea dugu, eta urte horiek lurraren aldaketa handia dute beren baitan, ermita egiteko obren ondorioz, seguru asko.

### ***Ermita berreraikitzea (xix. mendearen azken herena)***

Azken jarduera bat erregistratu dute lan arkeologikoek. Ermitan egindako berreraikuntza edo konponketa batek sorturiko obra hondakinei dagozkien eraikuntza maila gisa interpretatuko genuke hori. Baioneta bat atzeman genuen maila honetan, 1871. urteaz geroztik datatua hura inolako zalantzarik gabe, eta horrek aukera eman zigun obra hau xix. mendearen azken herengan kokatzeko, Urduñan hain eragin latza izan zuen hirugarren eta azken gerra karlistaren testuinguruan behar bada.

rruqial de Zedelika acaba convertida en simple ermita y su población en barriada alrededor de los nuevos centros parroquiales.

### ***Construcción de la ermita (2ª mitad del siglo xvi)***

La siguiente actividad en la secuencia estratigráfica analizada es la construcción de la actual ermita de San Roque, un rústico y sencillo edificio de mampostería. La aparición, en las labores de excavación, de un *cornado* de Felipe II fechado entre 1561 y 1598, aporta la fecha *postquem* para la construcción de este edificio, mientras que un documento de las ordenanzas del cabildo orduñés del año 1598 –según el cual la ermita de San Román no tenía pila bautismal ni enterrorio– sugiere la fecha *antequem*. En consecuencia, cabría fechar la construcción de esta ermita entre los años 1561 y 1598.

Además de la propia construcción de la ermita resulta necesario recalcar otro aspecto que consideramos, cuando menos, de cierta importancia. Nos referimos a la ausencia de estratigrafía documentada entre el abandono de la necrópolis y la construcción de esta ermita. Es decir, desde mediados del siglo xii hasta mediados del siglo xvi. O lo que es lo mismo, 400 años de vacío informativo que entrañan una fuerte alteración del terreno motivada, muy probablemente, por la propia obra de la ermita.

### ***Reconstrucción de la ermita (último tercio del siglo xix)***

Los trabajos arqueológicos han registrado una última actividad que puede interpretarse como un nivel constructivo perteneciente a los restos de obra originados por una reconstrucción o refacción efectuada en la ermita. La aparición de una bayoneta en este nivel, fechada con total seguridad a partir de 1871, permitió datar esta obra en el último tercio del siglo xix, quizás en el contexto de la tercera y última guerra carlista que, con tanta virulencia, afectó a Orduña.

*José Luis Solaun; Mikel Neira*

#### D.2.2.14. **Juduen leizea (Karrantza Harana)**

I. Kanpaina  
Zuzendaritza: Juan Carlos Lopez  
Quintana  
Finantzazioa: Karrantza Haraneko  
Udala

#### D.2.2.14. **Cueva de los Judíos (Valle de Carranza)**

I Campaña  
Dirección: Juan Carlos López Quintana  
Financiación: Ayuntamiento del Valle de Carranza

*The objective of the archaeological intervention conducted on the cave of «Los Judíos» (The Jews) commissioned by the Town Council of Karrantza has been to produce a stratigraphic analysis of its deposit with a view to programming a project to valorise it (the Koben Koba Project). Our plan of action has included the following: (1) a stratigraphic establishing of the vestibule of the cave under the direction of J.C. López-Quintana and A. Guenaga-Lizasu; (2) a detailed prospection of possible changes in the walls of the cave under the direction of C. González-Sainz and D. Garate, and justified by its proximity to an area with a good density of Palaeolithic graphic manifestations; and (3) a survey of the galleries and shafts of the cave in order to detect possible palaeontological evidence of interest, conducted by O. Quintela (potholer from the GAES).*

Juduen leizea Peña Coloradaren mendebaldean dago, 100 metroko altueran, Kalera ibaiaren haranaren gainean. 11,80 metro zabal eta 5 metro altuerako ahoa du, eta arrapala baten ondoren 250 m<sup>2</sup>-ko azalera gora duen areto handi batera iristen da. Karrantza Haraneko Udalak eskatuta egin da interbentzio arkeologikoa Juduen leizean, eta bertako deposituaren azterketa estratigrafikoa egitea izan du helburu, hari balio handiagoa emateko proiektuaren programazioaren aurrean (*Koben Koba Proiektua*). Gure jarduera planaren barruan honako ekintza hauek egin ditugu: (1) leizeko ezkaratzeko estratigrafia zehaztea, J.C. López Quintana eta A. Guenaga Lizasuk zuzendua; (2) leizearen hormetan egon zitezkeen aldaketak zehatz-mehatz miaztea, C. González Sainz eta D. Garatek zuzendua, guztiz ekintza justifikatua adierazpen grafiko paleolitiko ugari dauden eremu batetik gertu dagoela kontuan izanik; eta (3) leizeko galeria eta putzuak azalera miaztea egon zitezkeen intereseko elementu paleontologikoak hautemateko, O. Quintelak egina (GAESeko espeleologoa).

Interbentzio honetan 5 zundaketa estratigrafiko egin ditugu, eta 16 m<sup>2</sup>-ko azalera induskatu dugu guztira. Leizearen sarrerako espazio edo ezkaratzean bost zundaketa egiteko, aurreko interbentzio batean eginiko ebaki estratigrafiko batzuk (1998. urtean, hain zuzen ere, M.J. Yarrantuk zuzenduta) aprobetxatu ditugu, depositu arkeologikoa ahalik eta gutxien ebaki ahal izateko (1998. urteko bost ebaki horiez gainera, oraindik zabalik baitzeuden, 2005. urteko kanpainan beste bost zundaketa estratigrafiko irekiz gero gehiegi zatituko baikenuen leizeko ezkaratzeko betegarri arkeologikoa). 1998ko ebakiak handitu ditugu bai zabaleran (3 m<sup>2</sup> I., II. eta IV. zundaketetan, eta m<sup>2</sup> 1, berriz, III. zundaketan) bai sakoneran, eta 1998ko interbentzioan lortutako garapen estratigrafikoa areagotu genuen kasu guztietan. Zundaketa izan da indusketaren unitate topografikoa (zenbaki erromatarrik jarri dizkiegu unitate horiei, I.tik V.era, hain zuzen ere), eta zundaketa baikoitza metro karratu bateko laukietan zatitu dugu; ho-

La cueva de Los Judíos se localiza en la ladera oeste de Peña Colorada, a 100 m. de altura sobre el valle del río Kalera. Posee una boca de 11,80 m. de anchura por 5 m. de altura, dando acceso en rampa a una gran sala que supera los 250 m<sup>2</sup> de superficie. La intervención arqueológica realizada en la cueva de Los Judíos, por encargo del ayuntamiento del Valle de Carranza, ha tenido como objetivo el análisis estratigráfico de su depósito ante la programación de un proyecto de puesta en valor de la misma (Proyecto *Koben Koba*). Nuestro plan de actuación ha incluido (1) una determinación estratigráfica del vestíbulo de la cueva, dirigida por J.C. López Quintana y A. Guenaga Lizasu; (2) una prospección en detalle de posibles alteraciones en las paredes de la cueva, dirigida por C. González Sainz y D. Garate, y justificada por su cercanía a un área con una buena densidad de manifestaciones gráficas paleolíticas; y (3) un reconocimiento superficial de las galerías y pozos de la cueva con el objeto de detectar posibles evidencias paleontológicas de interés, efectuada por O. Quintela (espeleólogo del GAES).

La intervención ha abarcado un total de 5 sondeos estratigráficos, con una superficie total de excavación de 16 m<sup>2</sup>. La disposición de los cinco sondeos sobre el espacio del vestíbulo de la cueva se ha ejecutado aprovechando una serie de cortes estratigráficos disponibles, procedentes de una intervención anterior (del año 1998, dirigida por M.J. Yarrantu), con el objeto de seccionar lo menos posible el depósito arqueológico (los cinco cortes del año 1998, todavía abiertos, y la apertura de cinco nuevos sondeos estratigráficos dentro de la campaña de 2005 provocarían una excesiva fragmentación del relleno arqueológico del vestíbulo). Las ampliaciones de los cortes de 1998 se han efectuado tanto en extensión (3 m<sup>2</sup> para los sondeos I, II y IV, y 1 m<sup>2</sup> para el sondeo III) como en profundidad, incrementando en todos los casos el desarrollo estratigráfico alcanzado en la intervención de 1998. La unidad topográfica de excavación ha sido el sondeo (numerados con nú-

riei sigla bat jarri diegu (letra + zenbakia) eta 50 cm-ko aldean duten lau koadrantetan zatitu ditugu aurkikuntzen kontrol topografikorako. Leizearen ahoaren aurkako paretan egokitu genuen sakoneren erreferentziarako 0 plano, ezkaratzaren ekialdean, hain zuzen ere.

Hiru sedimentu multzotan banatzen da Juduen leizeko deposituan egiazaturiko estratigrafia, eta horiek islatzen dute, gaingiroki, betegarri horren egituratze prozesua: (1) oinarriko multzoa, bloke handiek osatua, eta horien barnean pseudogaleria batzuk; (2) bigarren sedimentu multzoa protohistoria eta erro-matarren garaiko eduki paleontologikoa duena; (3) eta hirugarren fasearen ezaugarri garrantzitsuena, berriz, leizeko deposituak jasandako aldaketa handiak dira Aro Modernoan izandako meua ustiapenaren ondorioz.

### *Beheko multzo estratigrafikoa (Juduak Ci)*

Leizeko ezkaratzeko Erdi-hegoaldeko sektorean soilik identifikatu dugu Ci multzo estratigrafikoa, eta zehatzago adierazteko I. eta II. zundaketetan. Multzo honetan zati handiak dira nagusi (bloke handiak) kolore marroi ilun eta oso ehundura harroko matrize limo-buztintsuan (zati handien eta matrize limo-buztintsuaren artean ez dago inolako loturarik). Lodiera aldakorra du multzoak, 80 cm I. zundaketan eta 130 cm II. zundaketan. I. zundaketan, Ci multzoaren azpialdean, megablokeen presentzia nabarmentzen da, ohol formakoak dira bloke horiek, leizeko ezkaratzeko higakin konoan daudenen antzekoak. Megabloke multzo hori leizearen sabaikoak dira, han oraindik ikus baitaitezke haustura planoak.

meros romanos de I a V), dividiendo cada sondeo en cuadros de 1 metro cuadrado designados con una sigla (letra + número) y subdivididos en cuatro cuadrantes de 50 cm. de lado para el control topográfico de los hallazgos. El plano 0 para la referencia de las profundidades se instaló en la pared opuesta a la boca de la cueva, en el sector oriental del vestíbulo.

La estratigrafía constatada en el depósito de la cueva de Los Judíos se articula en tres conjuntos sedimentológicos que reflejan, a grandes rasgos, el proceso de configuración de dicho relleno: (1) un primer conjunto de base constituido por grandes bloques que conforman en su interior pseudogalerías; (2) un segundo conjunto sedimentario caracterizado por el contenido paleontológico, de época protohistórica y romana; (3) y una tercera fase cuyo rasgo más relevante son las profundas alteraciones del depósito de la cueva como consecuencia de la explotación minera en época moderna.

### *Conjunto estratigráfico inferior (Los Judíos Ci)*

El conjunto estratigráfico Ci ha sido identificado únicamente en el sector Centro-sur del vestíbulo de la cueva, concretamente en los sondeos I y II. Se caracteriza por el predominio de la fracción más gruesa (grandes bloques) sobre la matriz limo-arcillosa de tonalidad marrón oscura y textura muy suelta (sin cohesión entre la fracción gruesa y la matriz limo-arcillosa). Su potencia varía entre los 80 cm. del sondeo I a los 130 cm. del sondeo II. En el sondeo I, en la parte inferior del conjunto Ci, destaca la presencia de megabloques de formas tabulares, similares a los situados en el cono de derrubios del acceso al vestíbulo. Este conjunto de megabloques proceden del techo de la cueva, en el que todavía se observan los planos de fractura.



Juduen leizeko ezkaratzaren ikuspegia.

Panorámica del vestíbulo de la cueva de Los Judíos.



Multzo estratigrafiko honen eduki arkeologikoa oso tamaina eta garrantzi txikikoa da inolaz ere, makrofauna eta mikrofauna hezur hondakin gutxi batzuk besterik ez baitira agertu. II. zundaketan Blamt-c gisa zehaztu da maila, estratigrafia multzoaren barnean era homogeanoan ageri diren landare makrohondakin ikaztuen dentsitatearengatik.

Material arkeologiko diagnostikorik ez izanak zaildu egiten du, inolaz ere, leizeko sekuentziaren oinarriko zatia dagokion multzo estratigrafiko hau eratu zen unearen kronologia zehazteko lana. Ez dugu baztertu behar Ci multzoan agertutako fauna hondakinak eta hondakin antrakologikoak Cm tarteko multzokoak izateko aukera, batik bat kontuan izanik Blamt egitura kohesio handirik gabe egokitua dagoela.

### *Tarteko multzo estratigrafikoa (Juduak Cm)*

Cm tarteko multzo estratigrafikoa ezkaratzeko azalera osoan ageri da, eginiko bost zundaketa estratigrafikoetan, baina oso kokaera eta baldintza desberdinetan ageri ere: oso ongi definitua dago leizeko ezkaratzean ipar-mendebaldeko eta hego-ekialdeko sektoreetan (III. eta V. zundaketak), baina bazterrekoa da ikerturiko eremuaren erdialdean (I., II. eta IV. zundaketak).

Batik bat III. eta V. zundaketetatik aurrera definitu dira tarteko multzo estratigrafikoaren ezaugarri eta berezitasunak, zundaketa horiek egin ditugun eremuetan estratigrafia ez baitute aldatu mea ustiatze lan modernoek. Irizpide paleontologikoetan oinarritu gara Cm tarteko multzoaren ezaugarriak zehazteko: material arkeologikoak (zeramikazko eta harrizko materialak, material arkeometalurgikoak, fauna eta antrakologia materialak) dituzten maila estratigrafikoak dira, Burdin Arokoak, erromatarren garaiko ekarpen puntual batzuk badituzte ere. Horrenbestez, Cm tarteko multzoa osatzen duten egitura estratigrafiko desberdinen ezaugarriak haien eduki arkeologikoaren arabera zehaztu ditugu. Haren barnean, multzoa interpretatzeko garrantzi handia duten osagai batzuk egiaztatu ditugu: landare makrohondakin ikaztuen ugaritasuna (fazies antrakologikoak osatzera iritsirik) eta beste testigantza arkeometalurgiko batzuk (galena mea hondakinak, burdinurto zepak, toberak izango zirenen zatiak...) leizeko ezkaratzean jarduera metalurgikoak egiten zituztela pentsarazten digute. Bestalde, Cm multzoko aztarna sedimentologikoek aniztasun handia ageri dute beren kokaleku topografikoaren arabera: III. zundaketan maila buztintsuak dira nagusi, kolore marroi eta grisaxka du lurra, eta zati handiak (klastoak eta blokeak) gutxi dira benetan; bestalde, V. zundaketan blokeak eta klastoak dira nagusi kolore marroiko matrice limo-buztintsuaren gainetik.

El contenido arqueológico de este conjunto estratigráfico es exiguo y poco significativo, limitándose a algunos pocos restos óseos de macrofauna y microfauna. En el sondeo II, el nivel se concreta como Blamt-c por la densidad de los macrorrestos vegetales carbonizados que aparecen de forma homogénea en el seno de la asociación estratigráfica.

La ausencia de materiales arqueológicos diagnósticos dificulta la contextualización cronológica del momento de formación de este conjunto estratigráfico, correspondiente al tramo de base de la secuencia de la cueva. No debemos descartar la posibilidad de que los restos faunísticos y antracológicos evidenciados en Ci procedan del conjunto intermedio Cm, sobre todo teniendo en cuenta la disposición poco cohesionada de la estructura Blamt.

### *Conjunto estratigráfico intermedio (Los Judíos Cm)*

El conjunto estratigráfico intermedio Cm aparece representado en toda la superficie del vestíbulo, de acuerdo a los cinco sondeos estratigráficos practicados, aunque en posición y condiciones muy desiguales: está muy bien definido en los sectores Noroeste y sureste del vestíbulo (sondeos III y V), siendo marginal en la parte más central del área investigada (sondeos I, II y IV).

Los caracteres y particularidades del conjunto estratigráfico intermedio se han definido fundamentalmente a partir de los sondeos III y V, situados en sendas áreas de la cueva cuya estratigrafía no ha sido alterada por las labores de explotación minera modernas. La caracterización del conjunto intermedio Cm se ha establecido en base a criterios paleontológicos: se trata de niveles estratigráficos que incluyen materiales arqueológicos (cerámicos, líticos, arkeometalúrgicos, faunísticos y antracológicos) correspondientes a la Edad del Hierro con aportes puntuales de época romana. Por tanto, la asociación de las diferentes estructuras estratigráficas que conforman el conjunto intermedio Cm se ha realizado en base a su contenido arqueológico. Dentro de éste, se han constatado algunos componentes de gran significación para la interpretación del conjunto: la profusión de macrorrestos vegetales carbonizados (llegando a conformar facies antracológicas) y otra serie de testimonios arkeometalúrgicos (restos minerales de galena, escorias de fundición, fragmentos de probables toberas...) cuya asociación parece estar relacionada con la práctica de actividades metalúrgicas dentro del vestíbulo de la cueva. Por su parte, los rasgos sedimentológicos del conjunto Cm muestran una gran diversidad en función de su emplazamiento topográfico: en el sondeo III predominan los niveles arcillosos de tonalidades marrones y grisáceas con escasa representación de los componentes de fracción gruesa (clastos y bloques); por su parte, en el sondeo V prevalecen los bloques y clastos sobre la matriz limo-arcillosa de tonalidad marrón.



### *Goiko multzo estratigrafikoa (Juduak Cs)*

Unitate estratigrafiko nahasi batzuek osatzen dute goiko multzo estratigrafikoa, Aro Modernoko leizearen ustiapenetik etorritako hondakin pilaketa dira, inolaz ere. Leizeko ezkaratzaren erdialdean depositu sedimentologikoaren zati handi baten hustearekin hasten da Cs multzoa. Depositua aldatze zirkunstantzia horrek haustura lerro bat eraten du jatorrizko betegarrarian, bost zundaketetan egiaztatua, eta jatorri antropikoko interfazies gisa kalifikatu daiteke hori. Geroago, bete egin ziren hustutako eremu horiek, pixkanaka-pixkanaka bete ere meatze ustiapenetik etorritako hondakinez. Halatan, hondakinez osaturiko hiru unitate estratigrafiko bereizi ditugu, hondakin fase gisa zehaztuak.

Juduen leizean eginiko interbentzio arkeologikotik jaso ditugun emaitza arkeologikoak berrikuntza gisa har daitezke Euskal Herri atlantikoaren Protohistoria eta Antzinako Historian izandako leizeen okupazioaren fenomenoaren esparruan. Alde batetik, urri dira Burdin Aroko leize okupazioen erreferentziak, soilik 9 leize aipatzen baitira, 2 Kantabrian, 3 Gipuzkoan eta 4 Araban. Leizeen testigantzak ugariagoak dira erromatarren garaian, baina batik bat erromatarren azken garaikoak (K.o. IV.-V. mendeak), eta kasu honetan oso agerpen puntuala da babesa bilatzearekin loturik Behe Inperioaren garaiko ezegonkortasun sozial eta politikoaren ondorioz. Bestalde, mea ustiapenarekin eta jarduera metalurgikoarekin loturiko leize okupazioaren adibide bikaina da hau Burdin Arotik hasi eta Erromatarren Behe Inperioaren garaia bitarteko kronologiarekin (K.a. I. Milurtekoaren bigarren erdialdetik hasi eta K.o. IV.-V. mendera arte). Hala mea ustiapena nola lan metalurgiko osagarriak galenaren erauzketan oinarritzen direla dirudi, mea horren bidez beruna lortzeko, baina azterketa arkeometalurgikoak egin arte itxaron egin beharko dugu hipotesi hori egiaztatu ahal izateko.

### *Conjunto estratigráfico superior (Los Judíos Cs)*

El conjunto estratigráfico superior engloba una serie de unidades estratigráficas de revuelto, constituidas por acumulaciones de escombros procedentes de la explotación minera moderna de la cueva. El conjunto Cs daría comienzo con el vaciado de una parte importante del depósito sedimentológico en el área central del vestíbulo. Esta circunstancia de alteración del depósito establece una línea de ruptura en el relleno original, constatada en los cinco sondeos, que podría calificarse como una interfazies de origen antrópico. Con posterioridad, estos espacios vaciados se rellenan, de forma paulatina, de escombros mineros, habiendo individualizado tres unidades estratigráficas de escombros, determinadas como fases de escombros.

Los resultados arqueológicos derivados de la intervención arqueológica en la cueva de Los Judíos pueden considerarse como novedosos en el marco del fenómeno de la ocupación de cuevas durante la Protohistoria e Historia Antigua del País Vasco atlántico. Por una parte, son escasas las referencias a ocupaciones en cueva de la Edad del Hierro: en la Tesis Doctoral de C. Olaetxea, sobre la tecnología cerámica en la Protohistoria vasca, únicamente se mencionan 9 cuevas, 2 en Cantabria, 3 en Gipuzkoa y 4 en Araba. Más numerosos son los testimonios en cueva de época romana, aunque fundamentalmente tardorromanos (s. IV-V d. C.), y en este caso se trata de una manifestación muy puntual relacionada con la búsqueda de refugio en el contexto de la inestabilidad social y política del Bajo Imperio. Por otra parte, nos encontramos ante una evidencia extraordinaria de una ocupación en cueva vinculada a la explotación minera y a la actividad metalúrgica en una cronología que abarca desde la Edad del Hierro al Bajo Imperio Romano (desde c. la segunda mitad del I milenio a. C. hasta el siglo IV-V d. C.). Tanto la explotación minera como las labores metalúrgicas complementarias parecen centrarse en la extracción de galena para la obtención de plomo, aunque habrá que esperar a la realización de análisis arqueometalúrgicos para confirmar esta hipótesis.

*Juan Carlos López Quintana; Amagoia Guenaga*

#### D.2.2.15. Eguzkiola leizea (Zeanuri)

I. Kanpaina  
Zuzendaritza: Juan Carlos López  
Quintana  
Finantzazioa: Cantera Zeanuri, S.L.

#### D.2.2.15. Cueva de Eguzkiola (Zeanuri)

I Campaña  
Dirección: Juan Carlos López Quintana  
Financiación: Cantera Zeanuri, S.L.

*Archaeological work on the Eguzkiola cave was requested by the company Cantera Zeanuri S. L. (through Team Ingeniería S. L.) as a result of the drawing up of an Environmental Impact Study for the Project to reopen the Xorokil (Zeanuri) quarry. We, for our part, put forward the following aims in the plan of action: (1), an archaeological evaluation of the stratigraphic deposit of the cave's vestibule by means of 2 stratigraphic sondages; (2), a basic parietal survey to identify possible graphic motifs on the walls of the cave; and (3), an exploration for possible archaeological and/or palaeontological remains in the internal shafts.*

Zeanuriko Zubizabal auzoan dago Eguzkiola leizea, Eguzkiolako gainaren hego-ekialdean eta Xorokil harrobiaren ipar-mendebaldean. Sarrerako ahoa 3,40 m-ko zabalera eta 1,50 m-ko altuera ditu, baina harrizko horma batek ixten du eta horregatik zaila da behar bezala identifikatzea. Leizeak lehen zati bat du, kanpoalderago, sekzio trianguluarreko ezkaratz-galeria da eta barne galeria batean luzatzen da. 150 metro ditu guztira, hidrologikoki jardunean ari den barne galeria bat barne. Eguzkiola leizearen azpian 12 bat metrora dago haren iturburua. Gaur egun, aldaketa handiak ageri ditu Eguzkiola leizeko ezkaratzak, ETak azpiegitura gisa erabili izanagatik. Alde batetik, nabari da ezkaratzeko depositua zabaleran hustu egin dela, eta horren ondorioz desagertu egin da depositu estratigrafikoaren goiko zati handi bat (16 m<sup>2</sup> inguru). Bestalde, badirudi, barrunbea ezkutuan geratzeko eraiki zela sarrera ixten duen horma.

Cantera Zeanuri S.L. enpresak eskatu zuen (Team Ingeniería S.L.ren bidez) Eguzkiola leizean jardura arkeologikoa egiteko, Xorokil harrobia (Zeanu-

La cueva de Eguzkiola se localiza en el barrio Zubizabal de Zeanuri, al sureste de la loma de Eguzkiola y al noroeste de la cantera de Xorokil. Posee una boca de acceso de 3,40 m. de anchura por 1,50 de altura, tapada por un muro de piedra que dificulta su identificación. La cueva se compone de un primer tramo, más exterior, definido por un vestíbulo-galería de sección triangular, que se prolonga en una galería interior con un desarrollo total de 150 metros, incluyendo una galería inferior hidrológicamente activa, cuya surgencia se localiza unos 12 metros por debajo de la cueva de Eguzkiola. En la actualidad, el vestíbulo de la cueva de Eguzkiola muestra profundas alteraciones derivadas de su utilización como infraestructura por parte de ETA. Por una parte, se aprecia un vaciado extensivo del depósito vestibular, el cual ha eliminado una buena parte del tramo superior del depósito estratigráfico (unos 16 m<sup>2</sup>, aproximadamente). Por otra parte, el muro que cierra la entrada parece haberse construido con el objeto de camuflar la cavidad.

La actuación arqueológica en la cueva de Eguzkiola fue solicitada por la empresa Cantera Zeanuri S.L. (a través de Team Ingeniería S.L.), con motivo de la re-



A - Eguzkiola leizera sartzeko ahoa.  
B - Zundaketa estratigrafikoen kokalekua Eguzkiola leizean.

A - Boca de acceso a la cueva de Eguzkiola.  
B - Ubicación de los sondeos estratigráficos en la cueva de Eguzkiola.

ri) berriro irekitzeko proiektuaren Ingurumen Eragina-ren Azterketa idatzi behar zutela eta. Gure aldetik, honako helburu hauek genituen jarduera programa honetan: (1) leizearen ezkaratzeko depositu estratigrafikoaren ebaluazio arkeologikoa egitea 2 zundaketa arkeologikoren bidez; (2) paretan oinarritzko miaketa egitea leizeko paretetan motibo grafikorik ote zegoen jakiteko; eta (3) barneko galerietan egon zitezkeen hondakin arkeologiko edo/eta paleontologikoak miatzea.

Deposituan zabaleran egindako lur harrotzeak ukitu ez duen sekuentzia estratigrafikoaren zatietan egin ditugu 2 zundaketa estratigrafikoak (m<sup>2</sup> 1ekoak): I. zundaketa ezkaratzeko hasierako zatian ezkerreko paretan egin genuen; eta II. zundaketa, berriz, ezkaratzaren amaieran eskuineko paretan. Bu multzo estratigrafikotan banatzen da Eguzkiola leizearen ezkaratzean bereizitako estratigrafia, eta multzo horiek islatzen dute, gaingiroki, leizeko ezkaratzeko depositu estratigrafikoa eratzekeo prozesua: oinarritzko multzoa buztinez osatuta da, kolore gris eta horixkako buztinak dira, plastikotasun handikoak, eta arkeologiaren ikuspegitik begiraturata antzuak dira; goiko multzoa, berriz, matrize buztintso marroiak osatzen du, eta leizea hilobirako erabili zelako testigantzak ageri dira bertan.

### ***Beheko multzo estratigrafikoa (Eguzkiola Ci)***

Beheko multzo estratigrafikoan osagai buztintso plastikoak dira nagusi; I. zundaketan kolore grisaxka du lurra eta blokeak ageri ditu, II. zundaketan, berriz, kolore horixka du lurra eta ez dago zati handirik. Leizearen zoru honetan une batean izandako jardura hidrológicoarekin loturik dago maila honen eraketa. II. zundaketaren azpiko aldean hutsune bat ageri da eta handik zailtasunez ikus daiteke azpiko zoru bat, gaur egun jardunean ari dena. Eguzkiola leizearen ahoaren azpian 12 bat metrora dago haren iturburua. Material arkeologikoen gabezia da Eguzkiola Ci beheko multzo estratigrafikoaren ezaugarrietako bat.

### ***Goiko multzo estratigrafikoa (Eguzkiola Cs)***

Goiko multzo estratigrafikoak sedimentu buztintsoa du, lur marroia da, eta blokeak ageri ditu I. zundaketan (leizearen ahotik hurbil egoteagatik), baina II. zundaketan bloke horiek desagertu egiten dira ezkaratzaren barreneko aldean. Material arkeologikoaren presentziak, urria eta sakabanatua badago ere, multzoa definitzen du, eta Holozenoaren barnean garai berri samar batean kokatzeko aukera ematen digu. Nolanahi ere, leizeko ezkaratzaren gehiengoan goiko multzo estratigrafikoa desagertu egin da zabalera osoan kontrolik gabeko huste lanak egin izanagatik,

dación del Estudio de Impacto Ambiental del proyecto de reapertura de la cantera de Xorokil (Zeanuri). Por nuestra parte, en el programa de actuación planteamos los siguientes objetivos: (1) una evaluación arqueológica del depósito estratigráfico del vestíbulo de la cueva por medio de la realización de 2 sondeos estratigráficos; (2) una revisión parietal básica para la identificación de posibles motivos gráficos en las paredes de la cueva; y (3) una exploración de posibles restos arqueológicos y/o paleontológicos en las galerías interiores.

Los 2 sondeos estratigráficos (de 1 m<sup>2</sup>) se han ubicado en tramos de la secuencia estratigráfica no afectados por la remoción extensiva del depósito: el sondeo I se ubicó junto a la pared izquierda del tramo inicial del vestíbulo; y el sondeo II se practicó en la pared derecha de la parte final del vestíbulo. La estratigrafía determinada en el vestíbulo de la cueva de Eguzkiola se articula en dos conjuntos estratigráficos que reflejan, a grandes rasgos, el proceso de configuración del depósito estratigráfico del vestíbulo de la cavidad: un conjunto de base compuesto por arcillas de tonalidades grises y amarillas de gran plasticidad, arqueológicamente estéril; y un conjunto superior constituido por una matriz arcillosa marrón que incorpora testimonios de uso funerario de la cueva.

### ***Conjunto estratigráfico inferior (Eguzkiola Ci)***

El conjunto estratigráfico inferior se define por la preponderancia del componente arcilloso plástico, identificándose en el sondeo I con tonalidades grisáceas y presencia de bloques, y en el sondeo II con coloración amarilla y ausencia de componentes de fracción gruesa. La formación de este nivel está relacionada con un momento de actividad hidrológica en este piso de la cueva, actuando la actual boca como surgencia. En la parte inferior del sondeo II se abre un hueco que permite observar con dificultad un piso inferior que se mantiene activo en la actualidad y cuya surgencia se localiza unos 12 m. por debajo de la boca de Eguzkiola. Uno de los rasgos distintivos del conjunto estratigráfico inferior Eguzkiola Ci es la ausencia de materiales arqueológicos.

### ***Conjunto estratigráfico superior (Eguzkiola Cs)***

El conjunto estratigráfico superior está caracterizado por un sedimento arcilloso de tonalidad marrón, que incorpora bloques en el sondeo I (por su proximidad a la boca de la cueva), desapareciendo éstos en el sondeo II, en la parte más interior del vestíbulo. La presencia de material arqueológico, aunque escaso y disperso, define el conjunto y permite situar su formación en una época relativamente reciente dentro del Holoceno. No obstante, la desaparición del conjunto estratigráfico superior en la mayor parte del vestíbulo de la cueva, como consecuencia de un vaciado extensivo incontro-

eta horrek zailtasunak ematen ditu Eguzkiolan berreskuratutako elementu arkeologikoen kronologia eta kultura zehazteko. Gure zundaketak eskaintako emaitza txikiak, eta 1971ko GEV-en aurkikuntzek, aukera ematen dute hilobi aztarnategia izango zela pentsatzeko, Historiaurreko azken faseetako (Kalkolitikoa-Brontze Aroa) seguru asko.

lado, dificulta la contextualización cronológica y cultural de las evidencias arqueológicas recuperadas en Eguzkiola. Los exiguos resultados de nuestro sondeo, junto con los hallazgos del GEV de 1971, permiten plantear la existencia de un yacimiento sepulcral, correspondiente con toda probabilidad a las últimas fases de la Prehistoria (Calcolítico-Edad del Bronce).

*Juan Carlos López Quintana*

### D.2.3. MIAKETAK

### D.2.3. PROSPECCIONES

#### D.2.3.1. **Olabarritik Rekaldera doan galtzada (Galdakao)**

Zuzendaritza: Amaia Basterretxea.  
Finantzazioa: Galdakako Udala eta Eusko Jaurlaritza

#### D.2.3.1. **Calzada de Olabbarri a Rekalde (Galdakao)**

Dirección: Amaia Basterretxea.  
Financiación: Ayuntamiento de Galdakao y Gobierno Vasco

*During the months of July and August, 2005, a Work Camp was organised in the Municipal Area of Galdakao with the aim of cleaning up and restoring a stretch of the old road that once linked Olabbarri with Rekalde via Elexalde. The results far exceeded initial expectations.*

Jarduera hau aurrera eramateko, Elexalde Kultur Elkartearen laguntza izan dugu alde batetik, eta Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Saileko Landa Lanek eskaintako bi lan-talde ere gurekin izan ditugu beste aldeak. Sonia Anibarrok koordinatu ditu lan taldeak, Bilboko Arkeologi, Etnografi eta Historia Euskal Museoak proposaturiko zuzendari tekniko gisa.

Para acometer esta actuación se ha contado, por una parte con la participación de la Asociación Cultural Elexalde y por otra, con dos grupos de trabajo proporcionados por los Campos de Trabajo del Departamento de Juventud del Gobierno Vasco. Los grupos de trabajo han estado coordinados por Sonia Aníbarro, como directora técnica propuesta por el Museo Arqueológico, Etnográfico e Histórico Vasco de Bilbao.

Benetan onak izan dira eginiko lanetan lortu ditugun emaitzak, hiru harzola tipologia desberdin dituen galtzada baten hondakinak berreskuratu baititugu. XVI-XVIII. mendeetara eramango gintuzkete hondakin horiek.

Los resultados obtenidos en los trabajos realizados han sido realmente gratificantes y se han recuperado los restos de una calzada con tres tipologías diferentes de empedrado que nos situarían en un período de tiempo comprendido entre los siglos XVI-XVIII.

Bi jarduera sektoretan banatu dugu lanen garapena: lehen zatia Olabarritik Aretxondo jatetxeraino; bigarren zatia, berriz, Rekaldeko norantzan eta Galdakako hirigunetik Elexaldera doan errepidearen perpendikularrean, Aretxondo Jatetxearen parean.

El desarrollo de los trabajos se ha dividido en dos sectores de actuación: el primer tramo desde Olabbarri hasta el restaurante Aretxondo; el segundo tramo, en dirección hacia Rekalde y en perpendicular a la carretera que desde el núcleo urbano de Galdakao accede a Elexalde a la altura del Restaurante Aretxondo.

1. *zatia*, Olabarritik datorrena, Elexalde aldera doa Isisiren dorretxea izan zenaren oso hurbiletik igaro ondoren, eta Isisi edo Abusua zubia gisa ezagutzen den zubian barrena igarotzen du erreka. Zubi hori agerian geratu da eta haren zolaren zati bat berreskuratu da.

*El tramo 1*, el que procede de Olabbarri, se dirige hacia Elexalde pasando muy cerca de la que fuera casa torre de Isisi y cruza el arroyo existente mediante un puente conocido como puente de Isisi o Abusua. Este puente ha quedado al descubierto y se ha recuperado su firme parcialmente.

1. zati honetan hiru garai desberdinetaz hitz egiten digu galtzadaren eraikuntza itxurak, XVIII. mendeari dagokiona da berriena; Isisiren etxea izan zenetik hurbil kokatzen da hori, eta eraikin horretara sartzeko bidee-

En este tramo 1 el aspecto constructivo de la calzada nos habla de tres épocas diferentes, siendo la más reciente la correspondiente al s. XVIII y que localizada en las cercanías de la que fuera casa de Isisi, nos



Olabarritik Rekaldera doan galtzada (Galdakao). Bidearen ekialdeko sektorearen ikuspegia.

Calzada de Olabari a Rekalde (Galdakao). Vista del sector oriental del camino.

tan konponketak egin zituztela adierazten digu argi eta garbi.

2. *zatia* izango da beharbada, duen luzeragatik, ikusgarriena. Izan ere, eremu honetan eta beti ere «arrain hezuraren» itxurako galtzada tipologiarekin, 67 metro lineal aurkitu dira guztira. Hemen eta jada barnealdean, bideak bihurgunea eratzen du eta Rekalde aldera zuzentzen da.

xviii. mendearen aurreko uneetan eta orduan ere, garaiko beharren eta herri administrazioen interesen baitan dago beti ere ibilbideen azterketa. Ildo horretatik, gure lurraldeko bideak ezagutzeko orduan interes handia du Tomas Lopezek, hiribildu eta elizateen deskribapen geografikoari buruz horiek bidaltzen dizkieten ohar eta adierazpenetan oinarriturik, antolatatu duen datu bilketak.

Oso gutxi dira eta ez daude ongi definituak xviii. mendea baino lehenagoko erreferentziak lurrean zuten kokalekuari dagokionean, eta askotan aztarna fisikoak berak dira dokumentuetan identifikatzen laguntzen dituztenak.

Bikoitza da eginiko aurkikuntzen interesa.

Alde batetik, gure lurraldean komunikabideen azterketak arkeologia nahiz historia mailan eskaintzen dituen datuak, eta bestalde, eraiki zuen eta dagoen uda-

informa de reparaciones en los caminos de acceso a dicho edificio.

*El tramo 2* será quizá y por su longitud, el más vistoso. En efecto, en esta zona y siempre con la misma tipología de calzada en forma de «espinas de pez» se localizan un total de 67 m. lineales de camino. Aquí y ya en la zona inferior, el camino traza una curva que lo dirige hacia la zona de Rekalde.

El estudio de los itinerarios en momentos anteriores al siglo xviii e incluso entonces, está condicionado a las necesidades de la época y a los intereses de las administraciones públicas. En este sentido es de gran interés en el conocimiento de los caminos en nuestro territorio, la recopilación de datos que Tomás López organiza con base en los comentarios e indicaciones que sobre la descripción geográfica de las villas y anteiglesias le son enviadas por éstas.

Las referencias anteriores a este siglo xviii son escasas y poco definidas en cuanto a su ubicación sobre el terreno y muchas veces son las propias evidencias físicas las que nos ayudan a identificarlas en los documentos.

El interés de los hallazgos realizados es doble.

Por una parte, los datos que aporta al estudio de las vías de comunicación en nuestro territorio tanto a nivel arqueológico como histórico y por otro, las posi-

lerrirako berreskuratutako ondare espazio bat erabil-  
tzeko aukerak.

Udalerrian aisiarako eremu alternatibo gisa erabil-  
tzeko ibilbide historiko gisa berreskuratzea da, zalan-  
tzarik gabe, erakargarri handiena.

bilidades que abre a la utilización de un espacio patri-  
monial recuperado para el municipio que lo construyó  
y en el que se localiza.

Su recuperación como itinerario histórico pensa-  
do para su utilización como zona de esparcimiento  
alternativa en el municipio es, sin duda, su mayor  
atractivo.

*Sonia Aníbarro Sánchez*

#### D.2.3.2. **Kadaguako autobidea. Arbuio-Sodupe zatia (Alonsotegi, Gueñes)**

I. Kanpaina  
Zuzendaritza: Juan Carlos Lopez  
Quintana  
Finantzazioa: Herri Lanen Saila.  
Bizkaiko Foru Aldundia  
- INTERBIAK

#### D.2.3.2. **Autovía del Cadagua. Tramo Arbuio-Sodupe (Alonsotegi, Güeñes)**

I Campaña  
Dirección: Juan Carlos López Quintana  
Financiación: Departamento de Obras  
Públicas. Diputación Foral de Bizkaia -  
INTERBIAK

*The prospection programme with trial excavations along the Arbuio-Sodupe stretch of the project to build the Cadagua Dual Carriageway has been directed towards evaluating the archaeological potential of the three sectors identified during the visual prospection phase in order to minimize possible negative effects of the works on potential Cultural Heritage assets that have so far not been catalogued.*

Kadaguako autobidea eraikitzearen proiektuaren barnean Arbuio-Sodupe zatian egindako kata bidezko miaketa programak, begi miaketa egin genuenean berezitate hiru sektoreen potentzia arkeologikoa ebaluatzen zuten helburu, obra horrek orain arte katalogatu gabeko Kultur Ondarearen balizko ondasunetan izan ditzakeen eragin negatiboak ahalik eta txikiak izan daitezkeen.

#### **I. Sektorea**

Arbuio eta Linaza auzoen arteko ertzeko adarra (Alonsotegi). P3 eta P4 miaketa puntuekin bat dator eremu hau. Homogeneotasun handiko dinamika estratigrafikoa erakusten digute I. sektorean eginiko lau katek, bakoitzak bere berezitasunak baditu ere. Aztertutako zutabe estratigrafikoen edukiari dagokionean, material moderno batzuk besterik ez dugu berreskuratzen (taila zatiak, zeramika esmaltatuzko zati 1 eta beira), testuingurutik kanpo, 1. katararen lurzoruko horizontean. Horrenbestez, I. sektorean eginiko katek ez dute intereseko datu arkeologikorik eskaini, zorupea oso aldatua dagoelako basoberritze lanen ondorioz.

El programa de prospección con catas en el tramo Arbuio-Sodupe del proyecto de construcción de la Autovía del Cadagua se ha orientado a evaluar el potencial arqueológico de los tres sectores identificados durante la fase de prospección visual con el objeto de minimizar los posibles efectos negativos de la obra sobre posibles bienes del Patrimonio Cultural no catalogados hasta el presente.

#### **Sector I**

Estribación de la Esquina (Alonsótegui), intermedia entre los barrios de Arbuio y Linaza. Se corresponde con los puntos de prospección P3 y P4. Las cuatro catas practicadas en el sector I muestran una dinámica estratigráfica de gran homogeneidad, aunque con rasgos particulares en cada caso. Respecto al contenido arqueológico de las columnas estratigráficas analizadas, únicamente se han recuperado algunos materiales modernos (fragmentos de teja, 1 fragmento de cerámica esmaltada y vidrio), fuera de contexto, en el horizonte edáfico de la cata 1. Por tanto, las catas efectuadas en el sector I no aportan datos arqueológicos de interés, debido a la profunda alteración del subsuelo, motivada por las labores de repoblación forestal.





Kadaguako autobioako obren ikuspegia (Arbuio-Sodupe zatia) III. sektoretik begiratuta.

Vista de las obras de la autovía del Cadagua (tramo Arbuio-Sodupe) desde el sector III.

## II. Sektorea

Linaza auzoan dago sektore hau (Alonsotegi), Ribero baserriaren ekialdean eta Patilla Dorrearen inguruetan dauden lauguneetan. P8 miaketa puntuarekin bat dator sektore hau. Bertan, hainbat laugune ageri dira ibai lautadaren gainean, eta elementu arkeologikoak izango dituzte beharbada.

II. sektorean eginiko hiru katek desberdintasunak ageri dituzte beren dinamika estratigrafikoan, substratu litologikoaren ondorioz (1. eta 2. katak hareharrizko substratuaren gainean daude eta 3. kata, berriz, margen gainean). Aztertutako zutabe arkeologikoen eduki arkeologikoari dagokionean, material modernoek osaturiko lagin txiki bat berreskuratu dugu (teila zatiak eta zeramika esmaltatzuko zati bat), testuingurutik kanpo, 1. katarren lurzoru-horizontean (*Lm* maila). Hala bada, II. sektorean eginiko katek ez dute intereseko elementu arkeologikorik eskaini, aztertutako puntuetan higadura eta garraio prozesu handiak gertatu baitira, guztiz arrunta malda handiko magalean egoteagatik.

## Sector II

Localizado en el barrio de Linaza (Alonsótegui), en los rellanos que se localizan al este del caserío Ribero y en la proximidad de la Torre de la Patilla. Se corresponde dicho sector con el punto de prospección P8, identificando una sucesión de rellanos sobre llanura fluvial, con previsible potencialidad arqueológica.

Las tres catas practicadas en el sector II muestran diferencias en su dinámica estratigráfica, derivadas del substrato litológico (las catas 1 y 2 se emplazan sobre substrato de arenisca y la cata 3 sobre margas). En cuanto al contenido arqueológico de las columnas estratigráficas analizadas, se ha recuperado una exigua muestra de materiales modernos (fragmentos de teja y 1 fragmento de cerámica esmaltada), descontextualizados, en el horizonte edáfico (nivel *Lm*) de la cata 1. Así, las catas efectuadas en el sector II no incluyen elementos arqueológicos de interés, constatándose en los puntos examinados enérgicos procesos de erosión y transporte, característicos de una ladera de pendientes pronunciadas.

### III. Sektorea

Miranda izeneko eremuan dago sektore hau, Cuadra de Arriba auzoan (Gueñes). P13 miaketa puntuarekin bat dator, Torre de la Cuadraren hego-ekialdean eta Miranda baserriaren inguruan. Arkeologia potentziala duen eremu gisa kalifikatu genuen, Kadagua ibaiaren gainetik altuera ertainean laugune zabalaren presentziak salatzen duen kokaleku fisiografikoagatik.

III. sektorean eginiko hiru katek dinamika estratigrafiko homogeneoa erakusten dute, bakoitzak bere ezaugarri bereziak baditu ere. Aztertutako zutabe arkeologikoen eduki arkeologikoari dagokionean, material moderno ugari berreskuratu dugu (teila zatiak, Aro Modernoko zeramika esmaltatuzko zatiak, burdinurto zepak, ikatzak...), hori guztia testuingurutik kanpo, lurzoru-horizontean (*Lsmc-Slmc*). Horrenbestez, III. sektorean eginiko katak antzu gisa kalifikatu dira arkeologiaren ikuspegitik begiratuta. 1. katearen kasuan, lurzoru depositu garrantzitsu baten presentzia egiaztatutako dugu (160 cm lodierakoa) bigarren mailako kokalekuan, lurra nekazaritza jardueretarako erabiltzeko maza berdintzeko eginiko betegarri da, hain zuzen ere. Osagarri gisa, III. sektoreko azalera nahasiak miatu ditugu, baina ez dugu emaitza garrantzitsurik lortu arkeologiaren ikuspegitik begiratuta.

### Sector III

Sector comprendido en la zona denominada Miranda, en el Barrio de la Cuadra de Arriba (Gueñes). Se corresponde con el punto de prospección P13, al sureste de la Torre de la Cuadra y en las inmediaciones del caserío Miranda. Se calificó como zona con potencial arqueológico por el tipo de emplazamiento fisiográfico que denuncia la presencia de rellanos de cierta amplitud a media altura sobre el río Cadagua.

Las tres catas practicadas en el sector III indican una dinámica estratigráfica homogénea, aunque con rasgos específicos en cada caso. En cuanto al contenido arqueológico de las columnas estratigráficas analizadas, se ha recuperado una buena serie de materiales modernos (fragmentos de teja, frags. de cerámica esmaltada moderna, escorias de fundición, carbones...), todo ello descontextualizado, en el horizonte edáfico (*Lsmc-Slmc*). Por tanto, las catas efectuadas en el sector III se califican como estériles desde el punto de vista arqueológico. En el caso de la cata 1, se certifica la presencia de un importante depósito edáfico (160 cm. de espesor) en posición secundaria, relleno procedente del aterramiento de la ladera para el acondicionamiento del terreno para el uso agrario. Complementariamente, se han prospectado las superficies removidas del sector III, sin obtener resultados arqueológicos reseñables.

*Juan Carlos Lepez Quintana; Juan Carlos Zallo Uskola; Ruben García Iglesias*

## D.2.4. OBREN KONTROLAK

### D.2.4.1. Arantzazu-Areatza kolektorea

Zuzendaritza: Jose Ángel Fernandez Carvajal  
Finantzazioa: Pagoa S.L.

## D.2.4. CONTROLES DE OBRAS

### D.2.4.1. Colector Arantzazu-Areatza

Dirección: José Ángel Fernández Carvajal  
Financiación: Pagoa S.L.

*The passing of a new sewage treatment system between the Bizkaian towns of Arantzazu, Artea and Areatza prompted the conducting of exhaustive archaeological monitoring along the whole route of the works. During the archaeological monitoring, special emphasis was given to the Presumed Archaeological Zones located and affected by the route of the works; a brief archaeological intervention was even made in the Molino de Bildosola Ironworks located in the Bizkaian town of Arantzazu. This action focussed on the locating and protection of the ironworks, the whole of which is affected by the route of the works.*

Arantzazu eta Areatza udalerrien artean saneamendu kolektore berria eraiki behar zutela eta, interbentzio arkeologikoa egin genuen. Alde batetik, obra berriaren ibilbide osoaren kontrol arkeologiko zehatza egin genuen, eta bestetik, ibilbide horretako leku zehatz batzuetan esku hartu genuen, ibilbide hori ustez arkeologikoak diren eremuetatik igarotzen zelako.

Con motivo de la construcción de un nuevo colector de saneamiento entre las localidades de Arantzazu y Areatza, se procedió a la realización de una intervención arqueológica que constaba, por un lado, de un exhaustivo control arqueológico de todo el recorrido de la nueva obra, y la intervención en puntos concretos del recorrido como consecuencia del paso de la misma por zonas declaradas de presunción arqueológica.



Batik bat Arantzazu eta Artea udalerrietatik pasako zen proiektaturiko kolektorea (udalerrri horiek erabat ukitzen baitituzte obrek), Igorre eta Arantzazuren arteko mugan, eta Artea eta Areatza arteko mugan, bata iparraldean eta bestea hegoaldean, hurrenez hurren, beste kolektoreekin elkartzeko.

4 kilometro baino zertxobait gehiagoko luzera du kolektorea, Arratia ibaiaren eskuinaldean sortzen da, Arantzazuko udal barrutiaren hasieran, eta udalerriko herrigune osoan barrena jarraitzen du, ibaiaren ezker alde osoan zehar Bildosola auzora iritsi arte, Artea-ko udalerrian. Azken honetan, Arratia ibaiaren paraleloan doa kolektorea, gero herriaren zati batean sartzeko Areatzako hiribilduarekin elkartu arte.

Lurra egokitzeko lanak egiten hasi aurretik eta kolektorea jarri aurreko urrats gisa, halako jarduera batzuk aurrera eraman genituen obrek kalte zitzaketen elementu berriak aurkitu ahal izateko. Horrenbestez, begi miaketa egin genuen ibilbide osoan, eta ukituriko udalerrien inguruan zegoen dokumentazioa aztertu genuen, ustez arkeologikoak ziren eremuei zegokien guztian arreta berezia jarriz. Behin obra hasi ondoren,

El colector proyectado discurría, básicamente, por los municipios de Arantzazu y Artea (municipios íntegramente afectados por las obras), produciéndose la unión con los otros colectores en el límite entre Igorre y Arantzazu, y en el límite entre Artea y Areatza en el norte y sur respectivamente.

El colector cuenta con una longitud de algo más de 4 kilómetros naciendo en la margen derecha del río Arratia al comienzo del término de Arantzazu, continuando por todo el núcleo poblacional del municipio, para finalizar buscando toda la margen izquierda del río hasta el barrio de Bildosola en el término de Artea. En este último, el colector discurría paralelo al río Arratia para posteriormente adentrarse en parte de la localidad hasta su unión con la villa de Areatza.

Antes del comienzo de los trabajos de acondicionamiento del terreno y como paso previo a la colocación del colector, se realizaron una serie de actuaciones con el objetivo de localizar nuevos elementos que pudieran verse dañados por las obras y que comprendían desde la prospección visual de todo el recorrido, hasta el análisis de la documentación existente sobre los municipios afectados, haciendo especial énfasis en



Arantzazu-Areatza kolektorea. 1.- Bildosolako urtegia. 2.- 03 zundaketa Agerian utzitako burdinolaren egitura. 3.- 06 zundaketa Bildosolako burdinola zaharraren itxitura hormetako baten xehetasuna. 4.- Obren kontrola Areatzatik gertu.

Colector Arantzazu-Areatza. 1.- Presa de Bildosola. 2.- Sondeo 03 Estructura exhumada perteneciente a la ferrería. 3.- Sondeo 06 Detalle de uno de los muros de cierre de la antigua ferrería de Bildosola. 4.- Control de obras en las cercanías de Areatza.

interbentzio arkeologikoa egin genuen hodiak ukituriko ustezko eremu arkeologiko bakarrean, Bildosolako Burdinola-Errotan, hain zuzen ere. Horren ondoren, kolektorea ezarri aurreko lur iraultze guztien kontrol arkeologikoa egin genuen.

Kontrol arkeologiko hori sistematikoki egin genuen lurra egokitzeko lanak egiten zituzten ibilbide osoan, kolektorea eraiki aurreko urrats gisa.

### ***Bildosolako Burdinola-Errota***

Hauxe da kolektorea eraikitzeke obrek ukitutako eremu arkeologiko bakarra, eta horregatik, hainbat zundaketa arkeologiko egin genituen eremuan, Bildosolako burdinola eta errota zaharraren egiturak aurkitzeko asmoz. 6 zundaketa mekaniko egin genituen guztira, oraindik kontserbatzen diren kanal eta antepara hondakinei loturik. Egindako zundaketa horietatik lautan eraikuntza berarekin loturiko egiturak atzeman genituen, neurri handikoak gainera. Agerian utzitako horma horiek landu gabeko harri irregularrez eginak ziren, kareharriak hondar eta karez eginiko kareorez elkartuak, eta 0,75-0,85 metroko zabalera zuten; 22x19 metro inguruko eraikina osatzen zuten. Agerian utzitako egituren neurriak eta egoera oraindik agerian zeuden burdinolako gainerako elementuekin erlazioan jarririk, kanala eta antepara, esate baterako, egiazta dezakegu, Bildosolako burdinola zaharraren eraikinekoak direla egitura horiek.

Emaitza horiek inolako zalantzarik gabe positiboak zirela ikusita, kolektorea desbideratu egin behar izan zen aurkitutako egitura horien aldameneko segurtasun eremu batean barrena, baina egoera hori proiektuaren hasiera-hasieratik konpon zitekeen hasierako miaketak eremuan agerian zeuden egiturak kontuan eduki izan balitu.

Bestalde, ustez bederen Bildosolako errota hartzen duen eremuan egokitu ziren eginiko zundaketa horietako bi. Kolektorea desbideratu ondoren eginiko zundaketek eta kontrol arkeologikoak ez digute errota buruzko daturik eman, eremua aspaldi ez dela nahasi egin baitzuten lur iraultza handiak eginez.

todo lo concerniente a las zonas de presunción arqueológica. Una vez comenzada la obra se acometió la intervención arqueológica en la única zona de presunción afectada por la conducción, la Ferrería-Molino de Bildosola. Tras esta se realizó el control arqueológico exhaustivo de todo el movimiento de tierra previo a la colocación del colector.

Este control arqueológico se realizó sistemáticamente a lo largo de las tareas de acondicionamiento del terreno como paso previo a la colocación del colector. Durante el mismo no se detectaron elementos de interés.

### ***Ferrería-Molino de Bildosola***

Se trata de la única zona de presunción amenazada por las obras del colector lo que conlleva la realización de una serie de sondeos arqueológicos en el área con el fin de localizar estructuras pertenecientes a la antigua ferrería y molino de Bildosola. Se abrieron un total de 6 sondeos mecánicos replanteados en relación con los restos del canal y la antepara aún conservados. En cuatro de los sondeos efectuados se localizaron estructuras relacionadas con una misma construcción de considerables dimensiones. Estos muros exhumados, realizados en mampostería irregular mediante piedras calizas y argamasa de arena y cal, presentaban una anchura de 0,75-0,85 metros; delimitando un edificio de aproximadamente 22x19 metros. Poniendo en relación las dimensiones y la situación de las estructuras exhumadas con los otros elementos aún visibles de la ferrería, como son el canal y la antepara, podemos afirmar que estas se corresponden con el edificio de la antigua ferrería de Bildosola.

Estos resultados, claramente positivos, provocaron el desvío del colector por una zona de seguridad alejada a las estructuras localizadas, situación que podría haberse solventado desde el comienzo del proyecto si la prospección inicial hubiese tenido en cuenta las estructuras emergentes existentes en la zona.

Por otro lado dos de los sondeos realizados se dispusieron en la zona presumiblemente ocupada por el molino de Bildosola. Ni los sondeos ni el control arqueológico efectuado tras el desvío del colector arrojaron datos sobre el molino, ya que la zona había sido recientemente alterada por grandes remociones de tierra.

*José Ángel Fernández Carvajal*

#### D.2.4.2. **Bildosola poligonoa (Artea-Arantzazu)**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea  
Finantzazioa: Sprilur

#### D.2.4.2. **Polígono de Bildosola (Artea-Arantzazu)**

Dirección: Alfredo Moraza Barea  
Financiación: Sprilur

*The intervention conducted has made it possible to document photogrammetrically a series of minor alterations carried out on the Bildosola dam. The works have made it necessary to carry out some alterations on the watershed line of the dam, which was restored as faithfully as possible on completion of the works.*

Bildosolako industri poligono berria eta haren sarbideak eraiki behar zituztela eta eginiko lan arkeologikoek ondare intereseko hainbat elementutan zuten eragina hasiera batean, eta zehatzago adierazteko, Andre Maria Gaztelukoa jatorrizko elizaren eta Bildosolako urtegiaren kokalekuan, Artea udalerrian biak ere (Gaztelu-Elexabeitia).

Hasieran Bildosolako urtegian eta haren inguruetan egin genituen lanak, kontuan izanik haren osotasuna neurri batean uki zezaketen jarduera batzuk egin behar zituztela: gailurra irauli behar zuten poligonorako hainbat hiri azpiegitura bertatik igarotzeko; eta arraintzako eskala bat eraikitzeko asmoa zuten era berean (jarduera hori azkenean ez zen aurrera eramán). Kontuan izanik bi lan horiek hondatu eta aldatu zezaketela urtegia, haren dokumentazio xehea egin genuen, eta fotogrametrikoki erregistratu genuen jatorrizko irudiaren testigantza grafikoa eduki ahal izateko. Halaber, gai genuen elementu horren argazki erreportaje xehea egin genuen lan hori osatzeko.

Arratia ibaiaren gainean zegoen urtegia eta 20 metroko luzera eta 5,56 metroko altuera zuen gutxi gora-behera; arku erdizirkular bana ageri zituen erdiko horma bularraren bi aldeetan. Elementu horren kanpoko azala kalitate handiko hareharri landuz egina zen, eta aldamenean zituen izen bereko burdinola eta errotako elementu hidraulikoak mugitzea zen bere egitekoa. Elementu horiek XVIII. mendean erdialdean aipatzen dira lehen aldiz dokumentuetan, eskualdeko leinu nagusienetako bati loturik beti ere, eta datazio hori guztiz bat dator gaur egun ageri diren hondakinekin. Haren parlamentuan, asko ongi kontserbatua hura, nabari da orain dela berrogeita hamar bat urte berritze lan garrantzitsua egin zutela, urtegi honen barneko azalaren zati handi bat eta mendebaldeko erdialdeko gailurra berritu baitzituzten, uholde handi batek bertan kalteak eragin ondoren.

Urtegi jatorrizko gailurra kendu, burdinazko grapas loturiko tamaina handiko hareharrizko lauzez egina hura, eta haren lekuan sendotasun handiagoko beste bat ipintzea izan zen eginiko jarduera. Aipatzen da harri xabal horiek urtegiaren ekialdeko erdialdean baino ez zirela kontserbatu, lehen adierazi den bezala, eta beste erdiak zementuzko zolarria ageri

Los trabajos arqueológicos abordados con motivo de la ejecución del nuevo polígono industrial de Bildosola y sus accesos incidían inicialmente sobre varios elementos de interés patrimonial, y en concreto sobre la ubicación de la primitiva iglesia de Santa María de Castillo y la presa de Bildosola, ambas en la localidad de Artea (Castillo-Elejabeitia).

Los trabajos se desarrollaron inicialmente en la presa de Bildosola y su entorno teniendo en cuenta la realización inicialmente de una serie de actividades que podían afectar parcialmente a su integridad: remoción de su cumbrera para el paso de diferentes infraestructuras urbanas destinadas al polígono; y adosamiento de una escala para peces (actuación que finalmente no se llevó a cabo). Ante el posible deterioro y alteración que ambos trabajos podían tener sobre la presa se procedió a efectuar una documentación detallada de la misma, registrándola fotogrametricamente con el fin de preservar un testigo gráfico de su imagen original. Una labor que fue completada con un detallado reportaje fotográfico del elemento en cuestión.

La presa estaba dispuesta sobre el río Arratia y presentaba unas dimensiones de unos 20 metros de longitud por 4,65 de altura, con sendos arcos semicirculares a ambos lados del contrafuerte central. El elemento estaba ejecutado con un forro exterior de sillería arenisca de gran calidad, habiendo sido destinado a mover los ingenios hidráulicos de la cercana ferrería y molinos de su mismo nombre. Estos elementos aparecen referidos por la documentación por primera vez a mediados del siglo XVIII, ligados a uno de los principales linajes de la comarca, datación que coincidiría perfectamente con los restos actualmente observables. En su parlamento, relativamente bien conservado, se observaba la realización hace una cincuentena de años de una importante reforma que afectó a buena parte del forro interior y la zona de la cumbrera de la mitad oeste de esa presa, la cual fue debida a los daños causados en la misma por una fuerte avenida de aguas.

La actuación realizada consistió en la sustitución de parte de la primitiva cumbrera primitiva de esa presa, ejecutada mediante losas areniscas de gran tamaño sujetas con grapas de hierro, por otra de mayor consistencia. Es necesario señalar que estas lascas únicamente estaban conservadas en la mitad oriental de la presa, tal y como se ha señalado anteriormente, mientras que la otra mitad presentaba una solera de

zuen. Oraingo obra hauek, azpiegiturak bertatik igarotzeaz gainera, lanean hasi aurretik urtegiak zituen egonkortasun eta irazpen arazo larriak konpontzea zuten helburu. Gero, aurrealdearen gainerakoan zuden antzeko kalitateko hareharrizko plakez estali zen gailurra, obra horien begi inpaktua ahalik eta txikiena izan zedin.

Aipatutako beste eremuan, jada desagerturiko Gaztelu elizaren kokalekuan, alegia, oraindik ez da lurra irauli eta urte honetan zehar egingo da lan hori. Nolanahi ere, aski urriak dira perspektibak, kontuan izanik egungo hilerria egin eta herrigune nagusira sartzeko bidea eraiki ondoren eremua oso aldatua zegoela.

cemento. Estas obras además de permitir el paso de esas infraestructuras estaban encaminadas a solventar una serie de graves problemas de estabilidad y filtraciones que presentaba la presa antes del comienzo de las obras. Esa cumbrera fue posteriormente forrada con placas de arenisca de similar calidad a las del resto del frente con el fin de reducir al mínimo el impacto visual de esas obras.

En la otra de las áreas señaladas, la del emplazamiento de la desaparecida iglesia de Castillo, la remoción del terreno aún no se ha llevado a cabo quedando pendiente de su realización durante el año en curso. A pesar de ello las perspectivas son bastante escasas teniendo en cuenta el elevado nivel de alteración que ya presentaba la zona tras la ejecución del actual cementerio y la posterior apertura del acceso al núcleo principal de población.

*Alfredo Moraza Barea; Miren García Dalmau*

#### D.2.4.3. **Arrolako kastroa (Arratzu)**

Zuzendaritza: Miguel Unzueta  
Finantzazioa: Bizkaiko Foru  
Aldundia

#### D.2.4.3. **Castro de Arrola (Arratzu)**

Dirección: Miguel Unzueta  
Financiación: Diputación Foral de  
Bizkaia

*Archaeological monitoring of the restoration process of the walled gate of the Arrola fort dating back to the second Iron Age.*

Arrolako kastroko (Bigarren Burdin Aroa) ate harretuaren berritze eta sendotze partzialen kontrol arkeologikoa. Interbentzioa izan zen 1980. urteetan eginiko indusketei zegozkien ebakietatik eroritako lurra kentzea eta leku horretan orain arte eginiko interbentzio desberdinak plantan dokumentatzea. Babeserako hormatala berritu aurretik, atearen okermendua- ren barnealdean, hormaren hiru metro lineal garbitu genituen eta eroritako landu gabeko harriak kendu genituen, barnealdeko ataletik etorriak horiek. Ez genuen material arkeologiko mugikorrik atzeman.

Control arqueológico de la restauración y consolidación parciales de la puerta amurallada del castro de Arrola (Segunda Edad del Hierro). La intervención consistió en la retirada de la tierra caída de los cortes correspondientes a las excavaciones practicadas en los años 1980 así como la documentación en planta de las distintas intervenciones realizadas en el lugar hasta la fecha. De manera previa a la restauración del lienzo defensivo, en la zona interna del esviaje de la puerta, se procedió a la limpieza de tres metros lineales de muro acompañada de la retirada de los mampuestos caídos procedentes del macizado interior. No se recuperaron materiales arqueológicos muebles.

*Miguel Unzueta; Juan José Cepeda*



Arrolako Kastroko atea (Arratzu, Bizkaia) berritze prozesuan. Okermenduaren barnealdeko hormatalari dagozkion eroritako materialen garbiketa.

Puerta del Castro de Arrola (Arratzu, Bizkaia) en proceso de restauración. Limpieza del derrumbe correspondiente al lienzo interno del esviaje.

#### D.2.4.4. **San Joan plaza (Balmaseda)**

Zuzendaritza: Alesander Maguregi  
Finantzazioa: Balmasedako  
Udala

#### D.2.4.4. **Plaza de San Juan (Balmaseda)**

Dirección: Alesander Maguregi  
Financiación: Ayuntamiento de  
Balmaseda

*The remodelling of the Square of San Juan has necessitated the monitoring of the works. This space was found to be occupied by plots of land similar to those of the rest of the town and which were eliminated when the square was built at the end of the 19th century. In the course of the archaeological monitoring no evidence emerged in connection with the said occupation and all that was found were contemporary elements: inspection chambers, drainage systems, holes dug for trees, etc.*

Balmasedako hiribilduko etxe-sail baten lursail zati-keta osoa aurkitzeko aukera eskaintzen zuen San Joan plaza urbanizatzeko obren kontrolak. Kontrol horien emaitzak negatiboak izan dira, izan ere, badirudi, plaza eta Eskola Publikoak egin zirenean desagertu egin zirela aurreko eraikuntzen aztarna guztiak. Eskolen aldameneko muturrean haien zimenduak aurkitu ditugu buztin naturaletan induskatuak eta plazaren gainerakotan, buztin horiek berak ageri dira asfaltozko eta berdintzeko eginiko betegarri mailen azpian. Horrenbestez, hiribilduko beste leku batzuetan gertatzen den bezala, eraikuntza edo elementu publikoa berriak egiteko orduan, gai dugun plaza hau bezala, erabat suntsitu ziren depositu arkeologikoak lur naturalera iritsi arte, haren gainean berreraiki baitzuten.

El control de las obras de urbanización de la plaza de San Juan ofrecía la posibilidad de localizar toda la parcelación de una manzana de la villa de Balmaseda. Los resultados de estos controles han sido negativos, parece que en el momento de realizarse la plaza y las Escuelas públicas se eliminaron todos los vestigios de construcciones anteriores. En el extremo junto a las escuelas se ha localizado la cimentación de las mismas excavadas en las arcillas naturales y en el resto de la plaza, bajo los niveles de asfalto y de relleno de nivelación se localizan estas mismas arcillas. Por tanto, como ocurre en otros emplazamientos de la villa, a la hora de realizar nuevas edificaciones o elementos públicos como la plaza que nos ocupa, se produce un arrasamiento de los depósitos arqueológicos hasta alcanzar el terreno natural sobre el que se reedifica.

*Alesander Maguregi Solana*



#### D.2.4.5. **Saneamendu sarea berritzea (Bermeo)**

Zuzendaritza: Alberto Plata Montero  
Diru-laguntza emalea: Idom Ingeniería  
eta Consultoría S.A.

#### D.2.4.5. **Renovación red de saneamiento (Bermeo)**

Dirección: Alberto Plata Montero  
Subvención: Idom Ingeniería y  
Consultoría S.A.

*The archaeological intervention conducted in the old part of Bermeo has revealed the existence of certain remains of interest, which we believe contribute fresh information to the knowledge of the history and urban development of the town. They include a fragment of foundations located in one of the stretches studied which could well correspond –bearing in mind its location, bonding and building technique– to the old wall that used to encircle the town.*

Bermeoko hiribilduan kontrol arkeologikorako lanak egin genituen Bizkaiko Foru Aldundiak eta herriko udalak berak saneamendu sarea berritzeko lanak egin behar zituztela eta. Lan horiek hiribilduko zorupea zuzenean ukitzen zuten eta herrigune historikoko hainbat zati zeharkatu behar zituztenez, arestian aipaturiko enpresa hori gurekin harremanetan jarri zen beharreko lan arkeologikoak aurrera eraman ahal izateko.

Gure lana bideratzeko, hondakin arkeologikoak izan zitzaizketen zatiak miatu genituen, eta zangak egin eta betegarriak ateratzen zituzten unean oinarritu genuen gure jardura.

Obra hainbat zatitan egin behar ziren, baina haietako lau soilik (I-01, I-03, I-04 eta I-05) izango zuten eragina arkeologiaren ikuspegitik begiratuta interesa zuten eremuetan (alde historikoaren mendebaldea eta portu aldea), eta horrenbestez, eremu horietan egin dugu kontrol arkeologikoa.

#### **I-01 Zatia**

Lamerako kanpoalde osoa hartzen du zati honek eta hiru fasetan gauzatu da. Lehenengo eta behin, gurutzatzen zuen zatia egin zen –San Migel eskailere-tatik hasi eta badiaraino–. Bigarren fasean Lamera kanpoalde osoa hartu zen, badiaren paraleloan jarraituz (mendebalde-ekialde) portu zaharreko ateraino iritsi arte. Azkeneko fasean, berriz, zanga bat egin da Kasiko eta portuko hegoaldeko fatxadaren paraleloan San Frantzisko kaleko biribilgunera iritsi arte.

Zati honetan dokumentaturiko hondakinek ez dute inolako interesik arkeologiaren ikuspegitik begiratuta. Esparru honetatik igarotzen zen Aro Modernoko harrizko kanalizazio baten aurkikuntza izan da aipagarriena, eta saneamendu sare berria instalatzeko berriro aprobetxatu da kanalizazio hori. Aurkitutako betegarri gehienak hondartzako hondar eta errekarritz osatuak zeuden, eta Lamerako parkea eraikitzeke lurra berdintzeko asmoz bota zituzten eremu honetan.

Las labores de control arqueológico realizadas en la villa de Bermeo fueron motivadas por la renovación de la red de saneamiento efectuada por la Diputación Foral de Bizkaia y el propio ayuntamiento de la localidad. Como estos trabajos afectaban directamente el subsuelo de la villa y atravesaban varios tramos del núcleo histórico, la citada empresa se puso en contacto con nosotros para llevar a cabo las labores arqueológicas necesarias.

El trabajo realizado se ha basado en el control de aquellos tramos susceptibles de presentar restos arqueológicos, centrando nuestra actividad en los momentos de excavación de las zanjas y durante la evacuación de sus rellenos.


La ejecución de las obras estaba planteada en varios tramos, pero sólo 4 de ellos (I-01, I-03, I-04 e I-05) interferían en las zonas interés arqueológico (parte occidental del casco histórico y zona portuaria), por lo que es en ellos donde se ha llevado a cabo el control.

#### **Tramo I-01**

Es el tramo que abarca toda la parte exterior de la Lamera y su ejecución se ha realizado en tres fases. En primer lugar se efectuó el tramo que la cruzaba -desde las escaleras de San Miguel hasta la bahía-. La segunda fase afectó toda la parte exterior de la Lamera, discurriendo de forma paralela a la bahía (oeste-este) hasta llegar a la puerta de acceso al puerto viejo. La última fase ha consistido en la ejecución de una zanja paralela a la fachada sur del Casino y el puerto que llegaba hasta la rotonda de la calle San Francisco.

Los restos documentados en este tramo no presentaban interés arqueológico. Lo más significativo ha sido la localización de una canalización pétreo de época moderna que transcurría por este espacio y que ha sido reaprovechada para la instalación de la nueva red de saneamiento. La mayor parte de los rellenos localizados estaban formados por arena de playa y cantos rodados, siendo depositados en esta zona con el fin de nivelar la zona para construir el parque de la Lamera.

Saneamendu sarea berritzea (Bermeo). Kontrolaturiko zatien kokalekua plantan.



Renovación red de saneamiento (Bermeo). Ubicación en planta de los tramos controlados.

### ***I-03 Zatia***

Portu zaharreko eremua hartzen du bigarren zati honek eta bi fasetan egin da. Lehenengo fasean portu zaharrean hegoaldeen zegoen zatia gauzatu da, gaztelua gisa ezaguturiko eremutik hasi –Santa Eufemia Elizaren atzealdean– eta Nardiztar Benantzio kaleraino. Arestian aipaturiko kale hori ukitu zuen bigarren faseak, eta zangak portu zaharraren paraleloan egin ziren Frantxun Atxak kalearekiko kantoira iritsi arte.

Aurreko kasuan gertatu den bezalaxe, kontrol arkeologikoa egin dugun bitartean ez dugu intereseko elementurik atzeman. Horren arrazoia zera da, espazio oso honen zorupean portua osatzen duten arkuteriak aurkitu direla, azalera sakonera txikian, eta horrek ez du aukerarik ematen portua eraiki aurreko estratigrafia-rik atzemateko.

### ***I-04 Zatia***

Bi fasetan planifikatu dira zati honetako obrak. Haz ere, fase horietako bat besterik ez da egin, proiektuaren bigarren etapan gauzatu baina gainerakoa. Kaian ekialdeen dagoen aldea ukitu dute zangek, haren mugatik Frantxun Atxak kaleraino, hain zuzen ere, eta zanga horietan ez da hondakin arkeologikorik dokumentatu.

### ***I-05 Zatia***

Lehenengo, kata bat egin da Erremedio eta Arresi kaleen arteko kantoian –Filelato plazaren gainean– kolektore bat egokitzeko, baina emaitzak negatiboak izan dira. Gero, eta arestian aipaturiko kata horrekin

### ***Tramo I-03***

Este segundo tramo comprende la zona del puerto viejo y ha sido realizado en dos fases. Durante la primera se ha ejecutado el que interfería la parte más meridional del puerto viejo, desde la zona conocida como el castillo –detrás de la Iglesia de Santa Eufemia– hasta la calle Nardiz y Venancio. La segunda fase afectó a la citada calle, discurriendo las zanjas de forma paralela al puerto viejo hasta llegar a la esquina con Frantxun Atxak.

Al igual que ocurría en el caso anterior, durante el control arqueológico no se han registrado evidencias de interés. La razón de ello es que en el subsuelo de todo este espacio se han localizado, a escasa profundidad de la superficie, las arcadas que conforman el puerto, lo que imposibilita el hallazgo de estratigrafías anteriores a su construcción.

### ***Tramo I-04***

Las obras de este tramo estaban planificadas en dos fases. Sin embargo, sólo se ha realizado una de ellas, puesto que la restante se ejecutará durante la segunda etapa del proyecto. Las zanjas han afectado la parte más oriental del puerto, desde su límite hasta Frantxun Atxak, y en ellas no se han documentado restos arqueológicos.

### ***Tramo I-05***

Primeramente se ha realizado una cata para la instalación de un colector en la esquina de la calle Remedios y Arresi –sobre la plaza Filelato– con resultados negativos. Posteriormente, y enlazada con la mencio-

loturik, zanga bat egin da Arresi kalean zehar, iparraldeko norantzan, Intxausti kalearekiko bidegurutzera iritsi arte. Ibilbide horretan, Arresi eta Nardiztar Jon kaleen arteko bidegurutzetik metro gutxira, horma bat dokumentatu dugu. 1,50 metroko altuerako egitura da, tamaina handiko kareharriek osatua, harri horiek ilara irregularretan egokituak eta kalitate eta gogortasun handiko kareoz elkartuak.

Dokumentaturiko horma horren kokaera eta norantzak –Arresi kaleko fatxaden paraleloan doa hegomendebalde/ipar-ekialde norabidean–, eta haren lodiera, aparailua eta eraikuntza teknikak, hiribildua inguratzen duen harresiaren zimenduak direla pentsarazten digute hipotesi gisa.

Dagoen dokumentazioak, beste ikerlari batzuek eginitako azterketek eta aurkitutako hondakin arkeo-logikoen aukera ematen digute ustez 1334. urte inguruan eraikitzen hasi eta bere morfologia XIX. mendera arte mantendu zuen harresiaren trazatua zer-nolakoa izan zen pentsatzeko. Mende horretan pixkanaka-pixkanaka desagertzen joan zen Kontzejuak 1827. urtetik aurrera eraisteko erabakia hartu zuen arte.

Oro har, jakin badakigu harresiaren perimetroa Santa Eufemiaren inguruetan hasten zela, ustez bederen hortxe baitzegoen lehen atea Fraile Leku deituriko eremuan; herrigunean hegoalderantz zegoen aldera jarraitzen zuen, eta hiru sARBIDE ZEUDEN HAN: Gerra, San Migel eta San Frantzisko atea. Leku horretatik aurrera harresia iparralderantz igotzen hasten zen, eta Erremedio eta Santa Barnara sARBIDEAK ZEUDEN HAN. Azkenik, hiribilduan iparraldean zegoen aldean gaur egun oraindik kontserbatu da harresian ezagutzen den azken sARBIDEA, San Juan atea, hain zuzen ere.

nada cata, se ha excavado una zanja que recorría la calle Arresi en dirección norte hasta llegar al cruce con Intxausti. En su recorrido, a escasos metros de la intersección entre las calles Arresi y Jon Nardiz, se ha documentado la presencia de un muro. Se trata de una estructura de 1,50 m. de altura que está construida con piedras calizas de gran tamaño dispuestas en hiladas irregulares y trabadas con una argamasa de alta calidad y dureza.

La disposición y orientación del muro documentado –corriendo paralelo a las fachadas de la calle Arresi en dirección SSW-NNE–, así como su grosor, aparejo y técnica constructiva, nos hacen plantear como hipótesis que se trate de los cimientos de la muralla que cercaba la villa.

La documentación existente, los estudios realizados por otros investigadores y los restos arqueológicos localizados nos permiten intuir como fue el trazado de una muralla que supuestamente comenzó a erigirse en torno a 1334 y que mantuvo su morfología hasta el siglo XIX, centuria en la que fue desapareciendo paulatinamente hasta que el Concejo decidió su derribo a partir de 1827.

En líneas generales, se sabe que el perímetro amurallado comenzaba en las inmediaciones de Santa Eufemia, donde supuestamente se encontraba una primera puerta en el paraje llamado Fraile Leku; continuaba hacia la parte más meridional del núcleo, donde se localizaban tres accesos: el portal de Guerra, San Miguel y San Francisco. Desde este punto la muralla comenzaba a ascender hacia el norte, donde se situaban los accesos de Remedios y de Santa Bárbara. Finalmente, en la parte más septentrional de la villa se conserva todavía a día de hoy el último acceso conocido de la muralla, la puerta de San Juan.

*Alberto Plata Montero; Mikel Neira Zubieta*

#### D.2.4.6. **Areatzako aparkalekua (Bilbo)**

I. Kanpaina  
Zuzendaritza: Diego Garate Maidagan  
Diru-laguntza emailea: UTE Arenal

#### D.2.4.6. **Parking del Arenal (Bilbao)**

I Campaña  
Dirección: Diego Garate Maidagan  
Subvención: UTE Arenal

*This report provides data resulting from the archaeological intervention to monitor the works carried out between October 2003 and October 2005 on the car park in the Arenal quarter of Bilbao, built by the company UTE Arenal (Lauki – Viuda de Sainz – Olabari).*

### **Kokalekua**

Eraikuntza proiektuak azalerako ondare elementuetan eragina izango zuenez, udaletxeko zubiaren ondoran, autobus geltokiko tingladuan, esate baterako, Kul-

### **Localización**

Dado que el proyecto de construcción afectaba a elementos patrimoniales emergentes como el tinglado de la parada de autobuses junto al puente del ayunta-



tur Ondasun gisa deklaratu hura, eta Areatzako on-tziola eta kai zaharra bezalako lurpeko ondare elemen-tuak ere ukituko zituenez, obraren kontrol arkeologikoa egiteko baimena eman zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondare Historikoko Zerbitzuak (A091/03 espediente). Hiru fasetan egin zen obra hori:

Obraren lehen fasea pantailak egiteko lanari dago-kio, eta honako egiteko hauek sartzen dira fase hone-tan: zerbitzuak desbideratzea, kolektore berria eta pantaila-horma perimetralak eraikitzea. Fase honek 2003ko urritik 2005eko apirila arte iraun zuen gutxi gora-behera. Lana izugarri luzatu den denboran eta hainbat aldaketa gertatu ziren proiektuaren zuzendaritza arkeologikoari dagokionean (2003ko urritik 2004ko otsaila bitarteko denboraldian J.A. Lecanda izan zen zuzendaria; 2004ko martxotik 2005eko otsaila bitarte-ko denboraldian J.M. Jimenez izan zen zuzendaria; 2005eko martxotik 2005eko apirila bitarteko denboral-dian D. Garate izan zen zuzendaria).

Bigarren fasean, berriz, aparkalekuaren azaleraren indusketa orokorra egin da, eta pantaila-hormen arte-ko eremua hustu da. 2005eko maiatzetik urrira arte iraun du gutxi gora-behera fase honek (D. Garatek zu-zendua denboraldi osoan).

## **Metodologia**

Obren kontrol arkeologiko gisa definitua dago ga-raturiko interbentzio arkeologikoa, Euskal Kultur Onda-rearen 7/1990 legearen 45-2 artikulua zehazturikoa-ren ildotik.

Hauxe da, gure lana izan da Areatzako aparkale-kua eraikitzekeo prozesuan aurrera eramaneko lur iraul-tze guztiak gainbegiratzea, agerian geratzen ziren inte-res arkeologikoko elementu guztiak dokumentatuz, eta elementu horiek kontserbatzeko edo metodologia ar-keologikoaren bidez ateratzeko beharra baloratu.

## **Kontrolaren emaitzak**

10.000 m<sup>2</sup> inguruko azaleran egin da interben-tzioa, 375x20 metro inguruko planta angeluzuzen ba-tek mugatzen du azalera hori, eta itsasadarraren ibil-guaren paraleloan du luzerako ardatza. Eraikuntzaren sakonera 12 metrora iristen da egungo zoruaren ko-tatik behera eta gutxi gora-behera 3 metro substratu geologikoaren azpitik, azalera osoan oso antzeko ko-tetan azaleratzen baita substratu hori.

Aparkalekua husteko erabilitako makineria tonaje handiko hainbat hondeamakina izan dira –bi eta lau artean– eta makina horiek aldi berean lan egin dute kamioiak kargatzen. Zalantzarik ez dago gure lana mugatu dutela aipaturiko baldintzek, interes handiene-ko aztarna arkeologikoak bildu eta dokumentatzea

miento, declarado como Bien Cultural y presuntamen-te a elementos patrimoniales subterráneos como el antiguo astillero y muelle del Arenal, el Servicio de Pa-trimonio Histórico de la Diputación Foral de Bizkaia au-torizó la intervención de control arqueológico de obra (expediente A091/03), que se desarrolló en dos fases:

La primera fase de la obra, se correspondió con la ejecución de las pantallas, y constaba de las labores de desvío de servicios, de la construcción del nuevo colector y de los muros-pantalla perimetrales. Su du-ración aproximada fue desde octubre de 2003 hasta abril de 2005. Se trató de un periodo muy dilatado en el tiempo y en el que se produjeron variaciones en re-lación a la dirección arqueológica del proyecto (el pe-riodo comprendido entre octubre de 2003 y febrero de 2004 fue dirigido por J.A. Lecanda; el periodo com-prendido entre marzo de 2004 y febrero de 2005 fue dirigido por J.M. Jiménez; el periodo comprendido en-tre marzo de 2005 y abril de 2005 fue dirigido por D. Garate).

La segunda fase, se ha correspondido con la excava-ción general de la superficie del parking, vaciando el área comprendido entre los muros-pantalla. Su duración apro-ximada ha sido desde mayo hasta octubre de 2005 (diri-gido por D. Garate durante todo el periodo).

## **Metodología**

La intervención arqueológica desarrollada está téc-nicamente definida como un control arqueológico de obras, en el sentido que se establece en el artículo 45-2.d de la ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco.

Es decir, nuestra labor se ha centrado en supervi-sar todas las remociones de tierra llevadas a cabo du-rante el proceso de construcción del parking del Are-nal, documentando todos aquellos elementos emergentes de interés arqueológico, y valorando la posible necesidad de conservarlos o exhumarlos me-diante metodología arqueológica.

## **Resultados del control**

La intervención se ha desarrollado en una superfi-cie de unos 10.000 m<sup>2</sup> limitada por una planta de for-ma rectangular de unas dimensiones aproximadas de 375x20 metros, con el eje longitudinal paralelo al curso de la ría. La profundidad de la construcción alcanza los 12 metros por debajo de la cota actual de suelo y aproximadamente 3 metros por debajo del sustrato geológico que aflora a cotas muy similares en toda la superficie.

La maquinaria utilizada para el vaciado del parking ha consistido en varias –entre dos y cuatro– excava-doras de alto tonelaje que han trabajado de manera simu-ltánea cargando los camiones. No cabe duda que nues-tra labor se ha visto limitada por las condiciones mencionadas, a la recogida y documentación –precisa

–modu zehatzean ahal zen neurrian– izan da lan hori. Nolanahi ere, eta une jakin batzuetan sedimentua ateratzeko lanak une baterako gelditzeko eskaera egin bada ere gure dokumentazio eta kontserbazio lana behar bezala egin ahal izateko, inoiz ere ez da aparkalekua induskatzeko lana aldi baterako uzteko eskaera egin behar izan, tratamendu berezia behar duten eta metodologia arkeologikoaren arabera atera beharreko material arkeologikorik ez delako azaldu. Garaturiko interbentzio arkeologiko mota eta genituen baldintzak kontuan hartzen baditugu, garbi dago informazio arkeologiko mugatu eta txikia eskaintzen dutela emaitzek. Hala eta guztiz ere, bete egin dira garrantzi handieneko material arkeologikoak dokumentatu eta kontserbatzeko helburuak.

### ***Material arkeologikoak eta sekuentzia estratigrafikoa***

Bildu eta dokumentaturiko material arkeologiko gehienak ezin izan ditugu maila estratigrafiko espezifiko batean kokatu, azaleran edo hondeamakinek iraultako eremuetan aurkitu ditugulako, eta horrexegatik ezin dugu jatorrizko kokaera zein zen zehaztasunez jakin. Beste batzuetan –askoz ere gutxiagotan– hondeamakinaz induskatzeko prozesuak eraturiko ezpondetatik zuzenean atera behar izan ditugu piezak, eta 22 leku kok osaturiko multzoa bildu ahal izan dugu. Sedimentuaren sekuentzia estratigrafikoari eta material arkeologikoei buruzko informazioa eskaini digute horiek.

Nolanahi ere, gaikako bilketa egin dugu, hareatzako betelan antropikoaren eraginez sorturiko goiko maillek material kopuru eskergak eskaintzen baitzituzten –batik bat teilak eta zeramika arruntak–, baina horien portzentaje txiki bat baino ez da kontserbatu, izan ere, indusketa prozesuak ez zuen aukerarik ematen, eta gainera, ez zuten interes arkeologiko handirik eskaintzen betelanaren ezaugarriak zehazteaz gain. Aitzitik, azterturiko testigantzetan askoz ere zehatzagoa izan da material bilketa, maila arkeologiko desberdinen ezaugarriak bereizi eta horietako bakoitzak izan duen eragin antropikoaren maila zehaztu ahal izateko, ondoren laburbiltzen dugun bezala:

— *Betelan hondakindegia*: Goiko mailak alde batera utzi ondoren, aurretik zegoen aparkalekua prestatu eta asfaltatzeko mailak baitziren horiek eta arkeologiaren ikuspegitik begiratuta ez baitzuten inolako interesik, kota igotzeko eta lur buztintsu eta ezegonkorra atontzeko, hiribilduko harresiz kanpoko urbanizazio prozesuetan, xvii. mendeaz geroztik pixkanaka-pixkanaka Areatzan egokitu den hondakindegia mailan geldituko gara lehenengo. Lur deposituak dira eta tamaina txikiko harkosko ugari ageri dituzte material antropikoez gainera, esate baterako, teilak hondakinak, burdin zepak, mala-

en la medida de lo posible– de los vestigios arqueológicos de mayor interés. De todas maneras, y aunque en determinados momentos se ha solicitado el cese momentáneo de las labores de extracción de sedimento para poder desarrollar nuestra labor de documentación y conservación, en ningún caso ha sido necesaria la solicitud de la interrupción temporal de la excavación del parking al no localizar materiales arqueológicos que requirieran un tratamiento especial o una exhumación bajo los postulados de la metodología arqueológica. Si consideramos el tipo de intervención arqueológica desarrollada y los condicionantes asumidos es evidente que los resultados ofrecen una información arqueológica limitada y sesgada. Aún así se han cumplido los objetivos de documentación y conservación de los materiales arqueológicos detectados de mayor relevancia.

### ***Materiales arqueológicos y secuencia estratigráfica***

La mayoría de los materiales arqueológicos recogidos y documentados no han podido ser adscritos a un nivel estratigráfico específico puesto que se han localizado en superficie o en zonas removidas por las excavadoras, sin poder así determinar con exactitud su posición original. En otras ocasiones –mucho menores– las piezas han sido extraídas directamente de los taludes formados por el proceso de excavación mecánica, pudiendo así establecer una serie de 22 testigos que nos han aportado información referente a la secuencia estratigráfica del sedimento y de los materiales arqueológicos.

De todas maneras, nuestra recogida ha sido selectiva puesto que los niveles superiores formados por el terraplén antrópico del arenal ofrecían una cantidad ingente de materiales –sobre todo tejas y cerámicas comunes– que solamente se han conservado en un porcentaje mínimo puesto que ni el proceso de excavación lo permitía ni ofrecían un interés arqueológico relevante más allá de la caracterización del terraplén. Por el contrario, en los testigos estudiados la recogida de material ha sido más exhaustiva con la intención de poder caracterizar los distintos niveles arqueológicos y poder determinar el grado de influencia antrópica en cada uno de ellos, tal y como resumimos a continuación:

— *Escombrera de terraplén*: Si omitimos los niveles superiores correspondientes al preparado y asfaltado del parking que existía con anterioridad y de nulo interés arqueológico, debemos detenernos en primer lugar en el nivel correspondiente a la escombrera que progresivamente se ha depositado en el Arenal con el fin de elevar la cota y acondicionar el terreno fangoso e inestable, en los sucesivos procesos de urbanización extramuros de la villa, por lo menos desde el siglo xvii. Está compuesto por depósitos terrígenos con una densidad alta de cantos de pequeño tamaño además de materiales an-

kofauna, ardi eta ahuntz hezurak, harriak, hormigoizko blokeak, plastikozko hoditeriak, burdin puskak, adreiluak eta abar, guztiak ere elkarrekin nahasiak. Horietako batzuk kanalizazio modernoan fruitu dira –azken hamarkadetako kanalizazioak, hain zuzen ere– eta obrakoak ere badira, baina ezin dira, inolaz ere, fase desberdinak bereizi betelan historikoan. 3 metro inguruko lodiera du maila honek, baina ez da erregularra eta itsasadar aldera okermendua nabari da leku batzuetan. Gainera, Areatzako sektorea (HM) hondarrez osaturiko azpiko mailen gainean oinarritzen bada, Udaletxe aldeko sektorean (IE) ibai terrazaren gainean dago zuzenean, 5 bat metroko sakoneran, eta itxura buztintsua hartzen du leku horretan. Aurkitutako materiala bigarren kokalekuan dago gutxienez eta ez dugu ezagutzen jatorrizko lekua, baina nolahi ere hurbil izan zitekeen –bai aldameneko eremuetakoa bai itsasadarraren dragatzekoa ere–.

Zeramika oso gaizki kontserbatu da ibai higaduragatik, baina gehiena herri zeramika beiratu da –zuri, berde eta horia batik bat, eta batzuetan motibo pintatuak ageri ditu–. Alde honetan oso arruntak diren mota espezifikoak dira nagusi, baina haien kronologia eta ekoizpen lekua ez ditugu oraindik zehaztu. Nolanahi ere, Erdi Aro ondoko data emango genuke, xvii. eta xix. mende artekoa, hain zuzen ere, Areatzan garai horretan dokumentatzen direlako antropizazio prozesuak. Soilik bi ez datoz besteekin bat, aparkalekura sartzeko tuneletik etorriak horiek, –hondo lau bat barnealdean beiratu gradientean marroi eta berdean eta ertza ia nabari ez den sigi-saga moduko ziztada batek irekia, kanpoko esmaltea, berriz, grisa, beste pieza bakar batean ere ikusi ez dena–, pareta kurbatua beiratu berdearekin eta inskripzio bat grabatua, fondo bat zurian beiratu motibo zirkular marroiekin eta pareta kurbatua, grisa, motibo urdin eta filigranarekin, inportazio materiala beharbada. Material hori aski modu homogean banatua dago Areatzako sektore osoan, baina ez gara leku zehatzetan pilaketak daudela esatera ausartzen, Udaletxeko sektorean teilak zeramikak baino askoz ere ugariagoak badira ere. Pieza gutxi batzuek lehenagokoak direla ematen dute, baina oso zaila da zehazten, oso txikiak direlako eta gaizki kontserbatu direlako. Fauna hondakin gehienak etxe espezieei dagozkie –ardi eta ahuntzak, behiak, txerriak, zaldiak eta abar– edo malakofaunari, baina taxon anatomiko zehatzik ez da nagusitzen. Era berean, burdin zepa eta zati ugari azaldu dira –goetita–, era askotako jatorria izan dezakete horiek, baina beti ere itsasadarretik gora garaturiko meatze lan eta benakeroen joan-etorriekin loturik egongo liriteke –Erdi Aroko eta Aro Modernoko udal dekretu desberdinak aipatu dira, Areatzaren parean burdin mea uretaratzeko debekua ezarri–. Sukarri natural aloktono nodulu txiki batzuk agertu izana, berriz, itsas jarduerarekin loturik egon liteke, itsasontzien lasta gisa erabiliko baitzuten. Era berean, zurezko enbor batzuk atzeman ditugu –naturalak eta leunduak–, baina itxuraz bederen ez

trópicos con restos de tejas, escorias de hierro, malacofauna, huesos de ovicaprinos, piedras, bloques de hormigón, tuberías de plásticos, ferrallas, ladrillos, etc., todos ellos entremezclados. Algunos son fruto de canalizaciones modernas –canalizaciones de las últimas décadas– e incluso de la propia obra sin que sea posible discernir distintas fases en el terraplenado histórico. Su potencia aproximada es de unos 3 metros, aunque no es regular y se reconoce un buzamiento hacia la ría en algunos puntos. Además, si en el sector del Arenal (SW) se asienta sobre niveles inferiores de arenas, en el sector del Ayuntamiento (NE) está en contacto directo con la terraza fluvial a unos 5 metros de profundidad donde adopta un aspecto fangoso. El material localizado se encuentra, cuando menos, en posición secundaria sin que conozcamos el lugar de abastecimiento, que pudo ser cercano –bien de zonas limítrofes o bien del propio dragado de la ría–.

La cerámica, muy mal conservada por la erosión fluvial, es en su mayoría popular vidriada –en blanco, verde y amarillo principalmente, con motivos pintados en algunos casos–, destacando la presencia de tipos específicos muy comunes en la zona y cuya cronología y lugar de producción son todavía imprecisos, aunque en todo caso se admite una fecha postmedieval, entre los siglos xvii y xix, periodo en el que se documentan los procesos de antropización del Arenal. Solamente desentonan dos procedentes del túnel de acceso al parking –un fondo plano con vidriado interior en gradiente a marrón a verde y un borde abierto con una incisión casi inapreciable en zig-zag y un esmaltado exterior gris no observado en ninguna otra pieza–, una pared curva con vidriado verde y una inscripción grabada, un fondo vidriado en blanco con motivos circulares marrones y una pared curva en gris con motivos azules y filigrana, quizás material de importación. Su distribución es más o menos homogénea por todo el sector del Arenal sin que nos atrevamos a asignar concentraciones en lugares concretos aunque en el sector del Ayuntamiento son mucho más comunes las tejas que las cerámicas. Un número reducido de piezas ofrecen aspecto más antiguo pero difícil de precisar dada su escasa entidad y mala conservación. Los restos faunísticos se corresponden en su mayoría a especies domésticas –ovicaprinos, bovinos, porcinos, equinos, etc.– o a malacofauna, sin que domine ningún taxón anatómico concreto. Se detecta también una alta densidad de escorias y fragmentos de hierro –goetita– cuyo origen puede ser diverso, aunque sin duda relacionado con las labores de minería desarrolladas ría arriba y con el tránsito de los venaqueros –se han comentado los diversos decretos municipales de época medieval y moderna prohibiendo la botadura de vena de hierro a la altura del Arenal–. La presencia de pequeños nódulos de sílex natural aloctono podría estar en relación con la actividad marítima habiendo sido utilizado como lastre de los barcos. Se han localizado igualmente algunos troncos de madera –naturales

dute inolako egiturarik eratzen. Nolanahi ere, ezin da baztertu batzuk bederen lur jauzirik gerta ez zedin sar-tuak izateko aukera.

— *Areatza (A)*: Areatzako sektorean soilik doku-mentatu dugu maila hau, eta itsasadarra bidera-tzeko proiektua aurrera eramateko xix. mendea-ren amaieran Sendeja kalearen parean betetako espazioan ez da ageri ere. Hondarrez osatua dago, hainbat geruza dira bata bestearen gaine-an, geruza horiak, grisak eta laranja kolorekoak, eta limo zati txikiak eta materia organikoa ere –hosto eta adar prentsatuak– ageri dira han eta hemen. Oso lodiera aldakorra du, metro bat in-guru gehienez –3 eta 4 metro arteko sakone-ran–, baina desagertu egiten da itsasadarraren egungo ibilguaren ertzetan.

Batik bat teilak eta zeramikazko zati batzuk atera ditugu hondar artetik, oso zeramika trauskila da, baina horiek ez dira aski eta ez dira diagnostikoak, Aro Mo-dernoko betelan antropikoaren bidez itxi aurretik, ha-reatza jardunean egon zen unea zehazteko. Nolanahi ere, aipatzekoa da, oso gutxi direla hondarrei loturiko zeramika beiratuak eta horiek goiko mailatik etorriak ere izan litezke, hondarren eta ibai terrazaren artean aurkitutakoetan bakar bat ere ez baita beiratua. Fauna hondakinei eta zurezko enborrei dagokienean, oso dentsitate txikia dute eta ez da ezberdintasun handirik sumatzen betelan hondakindegirako aipaturikoari da-gokionean. Era berean, burdin zepak agertu dira; ho-riek jarduera antropiko batean pentsarazten digute, eta hori inguruetan garatu bazen ere (Estufa kalea, 150 metrora) ezin dugu ziur esan horixe dela haien ja-torri bakarra, itsasadarrean ibiltzen ziren itsasontzi be-nakeroen deskarga eta joan-etorrien emaitza ere izan baitaitezke (aski litekeena hurbiltasun irizpidea man-tenduz gero). Sukarri naturala ere ageri da hondarren artean. Gainera, IX. lekukoan, ore plastiko beltzean bildutako sukarriz osaturiko sedimentu paketea bereizi dugu, ore hori galipot edo antzeko erregairen bat izan daitekeela pentsatzen dugu. Taila eta zeramika zatiren bat agertu da halaber. Jasotako lagina, gaika ez ba-dugu bildu ere, honako hau izan da: hogei bat sukarri zati, 5-10 cm ingurukoak, zeramikazko gider bat, ze-ramika beiratua eta txuria eta beste zati txikiago bat. Oraindik zehaztu gabeko kronologia moderno batean itsasontzietan jarritako lasta izango zen hori guztia.

Zalantzarik ez dago antropizazio maila nabarmen txikiagoa dela hondakindegian baino. Hondakin mate-rialak askoz ere txikiagoak dira eta ez dira diagnostiko-ak. Gainera, aurrerago ikusiko den bezala, ez dago beste inolako egiturarik. Kontuan hartzen badugu indusketa eremua paraleloan luzatzen dela itsasadarra-ren egungo ibilbidearen ondotik, uraren mailak itsasgo-rra dagoenean 2-3 metro gainditzen duela hareatza dagoen kota, eta erreferentzia historikoen arabera Pla-za Berriaren egungo kokalekuraino sartzen zela hareat-za, itxura guztien arabera, itsasadarraren ondoko er-tzetakoa izango zen aztertutako hareatza, eta

y pulidos-, pero sin que aparentemente formen estruc-turas de ningún tipo aunque no se puede descartar que en algún caso hayan sido introducidos para evitar corrimientos de tierra.

— *Arenal (A)*: Solamente se documenta en el sec-tor del Arenal estando ausente en el espacio ter-raplenado a finales del siglo xix durante el pro-yecto de encauzamiento de la ría a la altura de la calle Sendeja. Está compuesto por arenas en capas sucesivas amarillas, grises y naranjas además de finas infiltraciones de limos y materia orgánica -hojas y ramas prensadas-. Su poten-cia es muy variable, alrededor del metro como máximo –entre los 3 y 4 metros de profundi-dad–, aunque tiende a desaparecer en los már-genes del cauce actual de la ría.

Se han exhumado mayoritariamente tejas y algunas cerámicas muy toscas asociadas a las arenas aunque no son suficientes ni diagnósticas para poder estimar el momento en el que el arenal estuvo activo, previo a su sellado mediante el terraplenado antrópico de época moderna. De todas maneras, destaca el hecho de que sean muy pocas las cerámicas vidriadas asociadas a las arenas que incluso podrían haberse filtrado del nivel superior, puesto que las localizadas en el contacto entre las arenas y la terraza fluvial en ningún caso cuentan con vidriado. Respecto a los restos faunísticos y de los troncos de madera su densidad es escasa y no se de-tectan diferencias importantes respecto a lo comentado para la escombrera de terraplenado. También aparecen escorias de hierro que hacen referencia a una actividad antrópica que aunque se desarrollo en las inmediacio-nes (calle Estufa a 150 metros) no podemos asegurar que sea su único origen puesto que también podrían ser el resultado de la descarga y tránsito de barcos ve-naqueros en la ría (más probable manteniendo el criterio de proximidad). El sílex natural está igualmente presente en las arenas. Además en el testigo IX, se reconoce un paquete sedimentario formado por sílex envuelto en una masa plástica negra que interpretamos como bre-a o algún combustible similar. Apareciendo también algún fragmento de teja y de cerámica. La muestra recogida, no selectiva, es de una veintena de fragmentos de sílex de unos 5-10 cms., un asa cerámica vidriada en blanco y otro fragmento menor. Todo ello se correspondería con lastre depositado por los barcos en una cronología moderna por determinar.

Sin duda el grado de antropización es sensible-mente menor al de la escombrera. Los restos materia-les son mucho menores y muy poco diagnósticos. Además, como se verá adelante no existen estruc-turas de ningún otro tipo. Si consideramos que el área de excavación discurre en paralelo junto al cauce ac-tual de la ría, que el nivel del agua en pleamar supera en 2-3 metros la cota en la que se sitúa el arenal y que las referencias históricas indican la penetración del arenal hasta la ubicación actual de la Plaza Nueva, todo parece indicar que el arenal estudiado corres-pondería a los márgenes inmediatos de la ría sin que

horrenbestez, ezin izango zen eremu horretan ekonomia jarduerarik garatu, ez baita bat ere logikoa lehorretik urrun egoteagatik.

— *Lokatza*: Jada adierazi dugu Udaletxeko sektorean hareatzarik ez zegoela; <harresiz kanpoko> eremua izango zen hori XIX. mendearen amaieran Sendeja kalean dikea zabaldu aurretik. Leku honetan betelan hondakindegia bestelako osadera du inolaz ere, zeramika gutxiago eta teila gehiago ageri du oraingoan, eta baita kareharrizko klastoak ere, horrelako bakar bat ere ez zegoen aurreko sektorean. Haren azpian, lohiek osaturiko maila dago, oso antropizatua, era guztietako materialekin lehen adierazi bezala –oraingo honetan ugari dira zeramika beiratuak–, eta azpiko ibai terrazarekin nahasten da pixkanaka-pixkanaka. Lokatzaren lodiera aldatu egiten da, baina beti ere hareatzarena baino handiagoa da, eta leku batzuetan ibai terraza ez da hasten 5 metroko sakoneraraino. Aipatzekoa da, Miguel de Unamunok *zinguiricai* terminoa –zingirako kaia– jasotzen duela, antzina halaxe deitzen baitzioten leku honi.

— *Ibai terraza*: Areatzako sektorean ibai terrazaren gainean egokitzen dira hondarrak, terraza hori 3 bat metroko sakoneran hasten da eta 4 eta 5 metro arteko lodiera du, gehienez ere 8 metro inguru. Aurkitutako material bakarrak teila eta zeramika trauskil batzuk dira, eta horiek goiko mailetatik etorriak izan daitezke. Malakofauna hondakinak ere agertu dira, oso sakabanatuak, eta baita zurezko enborrak ere. Enbor horietako gehienek jatorri naturala dute inolako zalantzarik gabe, kontuan hartzen badugu morfologia formagabea eta tamaina askotakoak direla, adar eta konkorak dituztela, orientazio desberdina dutela, antolatuta gabea, eta ez direla egitura egonkor bat osatzeko bezain sendoak. Enbor horiek ez dute inolako burdin material, zulo, ziri edo beste inolako aldaketa antropikorik ageri.

Aipatu dugun bezala, udaletxe aldeko sektoreak antropizazio handia ageri du ibai alubioiaren goiko kotean. Lehenbiziko 2 eta 3 metroak hondakin materialez beterik daude, esate baterako, teilak, hezurak, malakofauna, sukarrak naturalak, burdin zepak, formarik gabeko burdinazko blokeak eta abar, sedimentua egonkortzeko enbor bertikalen bat ere ageri da, eta baita zorrozta-rriren bat ere hareharrizko harri zirkularrean, 6 metro inguruko sakoneran. Azpian hondarrezko maila bat dago, harkoskoekin, baina maila horretan oraindik nabari da taila batzuen presentzia; 8 metro inguruko sakoneran, berriz, beste ibai alubioi bat hasten da eta horretan jada ez da material antropikorik ageri. Aipatzekoa da, bi sektore horien arteko ukimen eremuko zati zehatz batean, baina harresi barruan Sendeja kaleko zabalkuntza egin arte, sekuentzia estratigrafikoa Udaletxeko sektorean antzekoa dela –hondarrik gabe–. Baliteke lehen-go ibilgua eremu honetan barrera sartzea Epalzaren Alarguna kalearen paraleloan edo bestela, oso eremu

fuesen posible ni lógico el desarrollo de actividades económicas ante su lejanía con respecto a la tierra firme.

— *Fangal*: Hemos indicado la ausencia de arenal en el sector del Ayuntamiento que se correspondería con la zona <extramuros> con anterioridad a la ampliación del dique en la calle Sendeja a finales del siglo XIX. Aquí la escombrecera de terraplenado tiene una composición diferente con menos cerámica y más tejas además de clastos calizos totalmente ausentes en el otro sector. Bajo él se sitúa en nivel de fangos muy antropizado con todo tipo de materiales indicados con anterioridad –en este caso las cerámicas vidriadas son abundantes– que se mezcla progresivamente con la terraza fluvial inferior. La potencia del fangal es variable pero en todo caso mayor que la del arenal y en determinados puntos la terraza fluvial no se inicia hasta los 5 metros de profundidad. Cabe reseñar que Miguel de Unamuno recoge el término de *zinguiricai* –muelle de fango– con el que tradicionalmente se conocía dicho lugar.

— *Terraza fluvial*: En el sector del Arenal las arenas se sitúan sobre la terraza fluvial que comienza a unos 3 metros de profundidad y tiene una potencia de entre 4 y 5 metros, hasta los 8 aproximadamente. Los únicos materiales localizados son algunas tejas y cerámicas toscas que han podido percolarse desde niveles superiores. También aparecen restos de malacofauna muy dispersos además de troncos de madera de los que la mayoría son de claro origen natural por su morfología informe, por la variedad de tamaños, por la existencia de ramas y protuberancias, por su orientación diversa no ordenada o por su poca consistencia como para formar una estructura estable. Todos ellos carecen de cualquier tipo de restos de materiales férricos, orificios, cuñas o cualquier otro tipo de alteración antrópica.

Como se ha comentado, el sector del ayuntamiento presenta una fuerte antropización en las cotas superiores del aluvión fluvial. Los primeros 2 y 3 metros están repletos de materiales de desecho como tejas, huesos, malacofauna, sílex natural, escorias de hierro, bloques informes de hierro, etc., algún tronco vertical de estabilización del sedimento e incluso una afiladera sobre piedra circular de arenisca a unos 6 metros de profundidad. Debajo se sitúa un nivel de arenas con cantos pero en el que todavía se reconoce la presencia de algunas tejas, mientras que a unos 8 metros de profundidad comienza un nuevo aluvión fluvial en el que los materiales antrópicos dejan de aparecer. Cabe reseñar que en un tramo concreto de la zona de contacto entre ambos sectores, pero intramuros con anterioridad a la ampliación de Sendeja, la secuencia estratigráfica se asemeja a la del sector del Ayuntamiento -sin arenas-. Es posible que el antiguo cauce se adentrara por esta zona en paralelo a la calle

dragatua edo aldatua izan liteke hemendik hurbil dagoen Estufa kalean garaturiko industri jardueren ondorioz.

— *Hareatza (B)*: Ezustean, aparkalekuaren gailurreko habearekiko 8 metroko sakoneran eta 4 metro lodierako ibai terrazaren azpian, Areatzako sektorean –udaletxeko sektorean ez da hain garbi ageri– beste hareatza bat azaldu da –(B) hareatza–, hondar lodiz osatua dago, ez du inolako material antropikorik ageri eta limoek eta orbel prentsatuak osaturiko hainbat geruza –oso finak– ditu bata bestearen gainean. Ez du metro erdiko lodiera baino gehiago, eta malakofauna, enbor natural eta hazi ugari eskaini dizkigu. Hondarrekin tartekaturiko lohi geruzetako batean orein heldu baten adar zatia atzeman dugu eta ez du aldaketa antropikorik nabari (Pedro Castaños Ugarte paleontologoaren komunikazio pertsonala).

(B) hareatzaren azpian hondar, lohi eta harkoskoek osaturiko geruza finak ageri dira –ibai terraza txikiak–, guztiak ere oso aberatsak bioklastoei dagokienean. Baina gainera, harri aman oinarrituriko eta harkosko dezimetroko eta hondar lodiek osaturiko azpiko mailan ostreido kopuru handia bereizi dugu, horietako batzuk harkoskoei itsatsiak eta beste batzuk margoluitiek osaturiko substratu geologiko harritsuari itsatsiak. Ostreido horiek agertu izanak itsasoaren eragina handia izan zela erakusten digu, Areatzaraino iritsiko baitzen estuario moduan. Itsasoa haraino igotzeko aukera egungoa bezalako pultsazio bero interglaziarretan soilik eman daiteke edo Riss-Würm bezalakoetan orain dela 125.000 urte inguru. Goiko ibai terrazaren lodiera kontuan hartzen badugu –4 eta 5 metro artean– ezin izango litzateke bigarren aukera baztertu. Ezezaguna bakandu ahal izateko, material organikoen lagin batzuk jaso dira erradiokarbono bidezko dataketa egiteko, eta sedimentu laginak ere jaso ditugu OSL bidez datatzeko eta xafla mehearen azterketa mikroskopikoa egiteko, EHUko Sedimentologia Saileko geologian doktore Alejandro Cearreta eta Eneko Iriarte garatzen ari diren Bilboko itsasadarraren estuarioa aztertzeko proiektuaren laguntzarekin.

### **Egiturako materialak**

Aurkitutako egiturako material higiezinak dokumentatu soilik egin ahal izan ditugu, ez kontserbatu, tamaina handiko horma eta dikeak direlako. Hala harrizko nola zurezko egiturak agertzea azterketa elementu garrantzitsuenetako bat da nolabaiteko garrantziak aztertu baitaitezke horiek, obraren indusketa prozesuak berak baldintza batzuk jarri arren. Gainera, benetako hareatza izatetik hiri parke bilakatu arte eraldatzeko sistemari eta une desberdinei buruzko informazioa eskaintzen dute.

Viuda de Epalza o bien podría tratarse de una zona muy dragada o alterada por las actividades industriales desarrolladas en la cercana calle de La Estufa.

— *Arenal (B)*: Inesperadamente, a 8 metros de profundidad con respecto a la viga de coronación del parking y bajo la terraza fluvial de 4 metros de potencia, se ha detectado en el sector del Arenal –en el del ayuntamiento no se da con tanta claridad– un segundo arenal –arenal (B)– compuesto por arena gruesa sin ningún tipo de material antrópico y laminaciones sucesivas de limos y de capas –muy finas– de hojarasca prensada. Su potencia no es superior al medio metro siendo rico en malacofauna, en troncos naturales y semillas. En una de las capas de fangos intercaladas con las arenas se ha localizado un fragmento de asta de ciervo maduro sin evidencias de alteración antrópica (comunicación personal del paleontólogo Pedro Castaños Ugarte).

Por debajo del arenal (B) se suceden finas capas de arenas, fangos y cantos –terrazas fluviales menores–, todos ellos muy ricos en bioclastos. Pero además, en el nivel inferior apoyado sobre la roca madre y formado por cantos decimétricos y arenas gruesas, se reconoce una cantidad considerable de ostreidos, parte de ellos adheridos a los cantos y incluso otros adheridos al sustrato geológico rocoso formado por margoluitas. La aparición de estos ostreidos revela una fuerte influencia marina que llegaría hasta el Arenal en forma de estuario. La posibilidad de que el mar remonte hasta allí solamente se puede dar en pulsaciones cálidas interglaciares como la actual o como el Riss-Würm hace aproximadamente 125.000 años. Si consideramos la potencia de la terraza fluvial superior –entre 4 y 5 metros– no se podría descartar la segunda opción. Con la intención de despejar la incógnita se han recogido varias muestras de materiales orgánicos para su datación radiocarbónica, muestras de sedimento para su datación mediante OSL y para su análisis microscópico de lámina delgada, en colaboración con el proyecto de estudio del estuario de la ría de Bilbao que desarrollan los doctores en geología del Departamento de Sedimentología de la U.P.V.-E.H.U., Alejandro Cearreta y Eneko Iriarte.

### **Materiales estructurales**

Los materiales estructurales inmuebles localizados solamente han podido ser documentados y no conservados ya que se trata de muros y diques de considerable envergadura. La aparición de estructuras, tanto de piedra como de madera, es uno de los elementos de estudio más interesantes, ya que puede ser analizado con relativa garantía a pesar de los condicionamientos establecidos por el propio proceso de excavación de la obra. Además aporta información referente al sistema y a los momentos en los que se ha ido transformando el área, desde un verdadero arenal a un parque urbano.

Hona hemen egitura garrantzitsuenak HM-tik IE-ra:

- Lehenengoa kare eta harkoskoz eginiko horma bat da, pantaila-horma dagoen itsasadarraren alboaren paraleloan luzatzen da, hartan hondakin batzuk geratu dira 10 bat metroko zatian, HM-ko hormatik 15 bat metrora. Hasiera batean itsasadarreko dike zaharraren zatia izango zela pentsatzen dugu, kontserbaturiko hondakinak oso gutxi badira ere.
- Bigarren egitura kolektorearen amaieran dago. Kolektore hori orain dela hamar urte eraiki zuten eta itsasadarraren paraleloan doa 70 bat metro-tan, baina orain desegina dago. 5 metro inguru-ko espazioa da, eta bertan zurezko hainbat enbor ageri dira, bi tamainakoak batik bat,  $-15 \times 15$  cm eta  $30 \times 30$  metro lodierakoak—. Lehenengoa in situ zeuden, pantaila-hormaren ondo-ondoan bertikalean. Haren goiko kota 3 metroko sakoneran dago eta batez beste 60 cm-ko distantzian lerrotatuak daude, 5,10 metroko sakoneraraino jaitsiaz. Paldo bertikal horien zati batzuek hareharrizko lauzak kontserbatu dute gaingarria, eta haren gainean kare eta harkoskoz osaturiko horma bat egokituko zen, haren hondakin batzuk geratu baitira pantaila-hormaren paretari itsatsiak. Bigarrenak, berriz, hondeamakinaren palak nahasiak agertu dira. Elkarren artean lotu edo elkartutako enborrak dira. Oso zaila da jatorrizko egitura berreraikitzea enborren kokaera eta HM-ra, han baitzegoen kolektorea, izango zuen garapena ez ditugulako ezagutzen.
- Aurreko egituratik metro gutxira, IE-ko norabidean, harlanduzko horma bat atzeman dugu, 1,50 metro zabalerakoa, aurrekoaren antzekoa oso, hari loturik egongo baitzen uneraren batean. Apar-kalekuaren altuera du ia eta  $180^\circ$ -ko angelua eratzen du. Ongi zaindutako harlandua ageri du kanpoaldera –itsadarra–, kare eta harkoskoz osaturiko betegarria eta berriro ere harlandua, oraingoan trauskilagoa, barnealdera. Goiko estalkia harlanduzkoa du halaber. Harlanduzko horma hori oinarritzen den zurezko egitura heso-lez osatua da, 3 metroko sakoneran hasten da eta 5 metrora iristen da gutxienez.  $15 \times 15$  cm-ko hesola bertikalez osaturiko 5 lerroak baditu gutxienez; horiek dikearen zabalera hartzen dute, 50 cm-ko tartea utzirik ilara bakoitzeko hesolen artean. Horien gainean horizontalean kokatuak daude  $30 \times 30$  cm-ko enborrak, eta horiek, era berean,  $15 \times 15$  cm-ko enborrek zeharkatzen dituzte zeharrean, 2 metrotik 2 metrora. Enbor horien gainean daude hareharrizko lauzak eta gero kare eta harkoskoz osaturiko horma, harlanduz estalia. Hesolez osaturiko oinarrian trenbide era-bilera nabari da –zeramika beiratu batzuk ager-tzeaz gainera–, eta horrenbestez, Sendejan itsa-sadarra murrizteko proiektua egin zen garai berean eraikiko zuten, XIX. mendearen amaieran, hain zuzen ere. Baliteke itsasadarreko dike zaha-

Las estructuras más relevantes de SW a NE son las siguientes:

- El primero es un muro de cal y canto que discurre paralelo al lateral de la ría del muro-pantalla, en el que han quedado algunos resquicios en un tramo de unos 10 metros, a unos 15 de la pared SW. En principio formaría parte del antiguo dique de la ría aunque los restos conservados son mínimos.
- La segunda estructura se localiza al finalizar el colector que discurre paralelo al lateral de la ría durante unos 70 metros, construido hace una década y ahora desmantelado. Se trata de un espacio aproximado de 5 metros, donde han aflorado varios troncos de madera de dos tamaños principales  $-15 \times 15$  cms. y  $30 \times 30$  cms. de grosor—. Los primeros se han localizado in situ, yuxtapuestos en vertical al muro-pantalla. Su cota superior se sitúa a 3 metros de profundidad y están alineados a una distancia media de 60 cms., descendiendo hasta los 5,10 metros de profundidad. Parte de estas estacaduras verticales conservan una losa de arenisca superpuesta sobre la que se asentaría un muro de cal y canto del que quedan algunos resquicios adheridos a la pared del muro pantalla. Los segundos han aparecido removidos por la pala excavadora. Son troncos enlazados o trabados entre sí. Resulta complejo reconstruir la estructura originaria puesto que desconocemos la posición de los troncos y el posible desarrollo tanto a SW donde se encontraba el colector.
- A pocos metros en dirección NE de la estructura anterior se localiza un muro de sillería de 1,5 metros de anchura muy similar al anterior, al que se uniría en algún momento. Tiene una altura prácticamente como la del parking y se dispone en ángulo de  $180^\circ$ . Se compone de una sillería cuidada hacia el exterior –ría–, un relleno de cal y canto y de nuevo sillería más tosca hacia el interior, además de una cubierta superior también en sillería. La estructura de madera sobre la que se asienta el muro de sillería consiste en un entramado de estacaduras que comienza a 3 metros de profundidad y alcanza al menos los 5 metros. Se trata de, al menos, 5 alineaciones de estacaduras verticales de  $15 \times 15$  cms. que abarcan la anchura del dique, con una distancia de 50 cms. entre las estacaduras de cada fila. Por encima se disponen en horizontal los troncos de  $30 \times 30$  cms., que a su vez, están atravesados transversalmente por troncos de  $15 \times 15$  cms., cada 2 metros. Sobre éstos se sitúan las losaduras de arenisca y posteriormente el muro de cal y canto revestido en sillería. En la base de estacaduras se reconoce la utilización de un raíl de tren como tal –además de algunas cerámicas vidriadas–, por lo que su construcción coincidiría con el proyecto de recorte de la ría en Sendeja, finales del siglo XIX. Cabe la posi-

rren arteko lotura zati hau birmoldatu edo berregitea itsasadarra murrizteko proiektua aurrera eraman zenean (oso esanguratsua da habe bat bakarrik agertzea eta gainera puntu honetan azaltzea), halaxe pentsarazten digu behintzat 1866ko Bilboko Udal Akta Liburuan jasotako albiste batek, J.I. Salazar Arechaldek jasoa (2003: 160), itsasadarra murrizteko obrak zirela eta Areatzako oholesia eraitsi zela aipatzen baitu. Kontuan hartzen badugu horma diagonalak itsasadarraren ibilgu zaharrari jarraitzen diola eta urak itsasadarrean hustuko zituen kanalizazio bat ere baduela, ez litzateke ulergarria izango XIX. mendearen amaieran egindako itsasadarra murrizteko proiektuan eraiki izatea, trenbidea agertu bada ere. Zeharkako datu batzuek –batik bat Teofilo de Guirardek idatzitako obrak– XVII. mendean kokatuko lukete, zurezko egitura zaharren ordean oraingo sendoago hauek jarri zituzten garaian, hain zuzen ere, XVI. eta XVII. mendeetako kronikek aipatzen dituzten ezin konta ahala uholdeei eusteko, uholde horiek hainbat alditan suntsitu baitzuten hiribildua. Aparkalekura sartzeko tunelean ere ageri zen egitura hori, eremu horretan argi ikusten da oholezko sendogarri bat jarri ziotela, 3 - 5 metro arteko sakoneran harlanduzko horma diagonalaren kanpoaldea estaltzen baitute horiek.

- Udaletxeko sektorean garai berrietan erabat aldatutako eremu bat ageri da, bertan kolektore bat zegoen erdialdean eta plastikozko hainbat hodi Sendeja kaleko alboan. Metro inguruko lodierako horma bat ageri da, kareharri eta hareharrizkoa, eta kareorez landua. Haren kanpoaldea –itsasadarra– harlanduz estalia dago. 24 bat metro daude agerian eta kotarik altuena egungo zoruaren mailan geratzen da ia. IE-ko muturraren ondoan, IE-ko hormatik 40 bat metrora, harlanduzko horma batekin elkartzen da, hareharrizkoa da hura eta metro erdi zabalagoa kanpoaldera. Gutxi gora-behera 32 metro egin ondoren moztu egiten da horma 1,50x1,50 metroko harlanduzko pilare karratu batez, kareharrizko harlanduz estaliriko hormaren lerro berean dago eta ez dago barnealdera emana beste muturrean dagoen beste pilarea ez bezala. Lehen hipotesi gisa esango genuke bigarren kai lerroa litzatekeela itsasadarra murrizteko proiektuaren (1860-1869) planoaren arabera. Hasiera batean, uste dugu, kaia mugi zezaketen lur mugimenduei eustea izango zuela helburu.
- Udaletxeko sektorean halaber, HM-ko hormatik 192 bat metrora, beste horma perpendikular bat agertu da, aparkalekuaren azaleraren altuera eraginean. Horma hori Sendeja kale aldera sartzen da aparkalekura iristeko tunelerraino gutxienez. Oso zatitua dago, baina kare eta harkoskoz eginko bi hormak osatzen dutela ematen du, elkarren artean metro bateko tartearrekin, eta hareharrizko lauza bat du gailurrean. Kanalizazioaren

bilidad de que este tramo de unión entre los antiguos diques de la ría fuese remodelado o recompuesto al ejecutar el proyecto de recorte de la ría (resulta significativo que solamente aparezca una viga y que sea en ese punto) como podría desprenderse de una noticia de los Libros de Actas Municipales de Bilbao en 1866, recogida por J.I. Salazar Arechalde (2003: 160), en la que se menciona el derribo de la empalizada del Arenal con motivo de las obras de recorte de la ría. Si tenemos en cuenta que el muro diagonal sigue el antiguo cauce de la ría y que incluso cuenta con una canalización que desaguaría en la ría, no sería comprensible que fuese construido en el recorte de la ría de finales del siglo XIX, a pesar de la aparición del raíl. Algunos datos indirectos –principalmente las obras escritas por Teófilo de Guirard– lo situarían en el siglo XVII al sustituir las antiguas estructuras de madera por estas más consistentes con el fin de frenar los innumerables aguaduchos que citan las crónicas de los siglos XVI y XVII, y que devastaron la villa en sucesivas ocasiones. La estructura también se localiza en el túnel de acceso al parking donde se observa con detalle un refuerzo de tablonos que desde los 3 a los 5 metros de profundidad cubren el exterior del muro diagonal de sillería.

- En el sector del ayuntamiento se localiza una zona totalmente alterada en épocas recientes, donde se localizaba un colector en la zona central y varias tuberías de plástico en el lateral de la calle Sendeja. Se reconoce la existencia de un muro de aproximadamente un metro de espesor y levantado de caliza y arenisca trabajada con argamasa de cal. Su lado exterior –ría– está revestido con sillería. Quedan a la vista unos 24 metros y su cota más alta se sitúa prácticamente a nivel del suelo actual. Junto a su extremo NE, a unos 40 metros de la pared NE, enlaza con un muro de sillería arenisca medio metro más ancho hacia el interior. El muro se corta tras 32 metros aproximadamente, con un pilar cuadrado de sillería de 1,50x1,50 metros, alineado con el muro calizo revestido y no desplazado hacia el interior como el otro pilar situado en el otro extremo. Una primera hipótesis sería la de segunda línea de muelle en función del plano del proyecto de recorte de la ría (1860-1869). En principio su finalidad consistiría en la contención de posibles movimientos de tierra que puedan desplazar el muelle.
- También en el sector del ayuntamiento unos 192 metros de la pared SW se ha detectado otro muro perpendicular y a media altura de la superficie del parking, que se mete hacia la calle Sendeja por lo menos hasta el túnel de acceso al parking. Se encuentra muy fragmentado pero parece estar compuesto por dos muros de cal y canto con un metro de separación y una losa de arenisca de coronación. Es posible que se





Areatzako aparkalekua (Bilbo). Harlanduzko horma udaletxeko sektorean.

Parking del Arenal (Bilbao). Muro de sillería en el sector del ayuntamiento.

bat izango zen beharbada, baina eskura dugun informazioarekin oso zaila da ziur jakitea.

- Azkenik, hainbat puntutan enbor pilaketak agertu dira eta egituraren bat egongo zela pentsarazten digute horiek, guztiak irregularrak diren arren forma eta tamainari dagokienean –koaka era ere ez da bat ere uniforme–, eta inolako material arkeologikorik ez dugu aurkitu lotura zuzen edo zeharrean –material paleontologikorik ere ez dugu atzeman–. Beharbada, kasu batzuetan, lurren desplazamendu edo mugimenduak gerta ez zitezkeen hondarrei eusteko oso oinarritzeko sistema bat besterik ez zen izango, batik bat Epalzaren Alarguntsa kalearen paraleloan doanaren kasuan, dakigun bezala, XVIII. mendera arte ez baitzen urbanizatu. Nolanahi ere, ez dugu baztertzen enborren pilaketa naturala izateko aukera, ibai korronteen ondorioz eremu berean eta norabide berean pilatu zirenak. Gainera, hosto eta egur adarrez osaturiko geruza fin batzuek bilduak daude, korrontek arrastan ekarri eta bertan egokitutako landaredia izan liteke hori.

trate de algún tipo de canalización, difícil de precisar con la información disponible.

- Por último, en varios puntos se han localizado acumulaciones de troncos que sugieren la posible existencia de algún tipo de estructura, aunque todos ellos son irregulares en cuanto a forma y tamaño –su disposición tampoco es uniforme–, carecen de modificaciones antrópicas evidentes –presentan protuberancias naturales– y no se ha localizado ningún material arqueológico en relación directa o indirecta –tampoco paleontológico–. Quizás, en alguno de los casos, se trate simplemente de un sistema muy básico de contención de las arenas para evitar desplazamientos o movimientos de tierra, sobre todo en el caso paralelo a la calle Viuda de Epalza que, como es conocido, no se urbanizó hasta el siglo XVIII. De todas maneras, tampoco descartamos que se trate de una acumulación natural de troncos que, debido a las corrientes fluviales, se han asentado en una misma zona y con una misma orientación. Además, aparecen envueltos en finas capas formadas de hojas y ramas de madera, que podrían indicar una redeposición de la vegetación arrastrada por la corriente.

## Balorazioa

Azken batean, hala material arkeologikoa nola dokumentaturiko egitura elementuak bat datoz eta osatu egi-ten dituzte Bilboko Areatzari buruz ditugun datu histori-koak. Lehenengoek interbentzio eremuaren izaera antropiko txikia erakusten dute Aro Modernoan eginda-ko betelanaren aurretik, eta bigarrenek, berriz, itsasada-rreko euste dikeen eraikuntza sistema ezagutzeko auke-  
ra ematen digute. Era berean, aipatzekoa da, bigarren hareatza bat aurkitu izana, oso kronologia zaharrekoa seguru asko eta, arkeologiaren ikuspegitik begiratuta in-tereseke daturik eskaintzen ez badu ere, itsasadarraren bilakaeraren inguruan informazio baliotsua eskain dieza-  
guke haren azterketak.

## Valoración

En definitiva, tanto el material arqueológico como los elementos estructurales documentados se corres-ponden y complementan los datos históricos referentes al Arenal de Bilbao. Los primeros evidencian el escaso carácter antrópico del área de la intervención con ante-rioridad al terraplenado de época moderna, mientras que los segundos permiten conocer el sistema cons-  
tructivo de los diques de contención de la ría. Asimis-mo cabe destacar la localización de un segundo arenal, probablemente de cronología muy antigua, que a pesar de no aportar datos de interés arqueológico, su estudio puede ofrecer información valiosa sobre la evolución de la ría.

*Diego Garate Maidagan*

### D.2.4.7. **Artekale kalea (Gernika-Lumo)**

Zuzendaritza: Mikel Neira Zubieta  
Diru-laguntza emalea: Bizkaiko Foru  
Aldundia

### D.2.4.7. **Calle Artekale (Gernika-Lumo)**

Dirección: Mikel Neira Zubieta  
Subvención: Diputación Foral de  
Bizkaia

*The monitoring of the works conducted in Artekale street in Gernika produced only negative results, since the area subjected to monitoring had previously undergone intervention.*

Gernikako herrigune historikoan saneamendu sa-rea berritu behar zutela eta, obren kontrola egin ge-nuen Artekale kalean. Kontrol lan horietan lortutako emaitzak guztiz negatiboak izan dira, ez baitugu inol-ko elementu arkeologikorik dokumentatu.

Saneamendu sarea berritzeko lan horietan hodi bat aldatu eta haren orde bestea bat handiagoa jarri zuten, eta horrenbestez, kontrolatu beharreko eremua jada irauli zen lehenengo hodi hori jarri zenean. Azken bate-an, guztiz negatiboak izan ziren emaitzak, eta garbi ikusi genuen lehen instalazio hori egin zenekoak zirela ateratako betegarriak.

Con motivo de la instalación de la red de sana-miento en el núcleo histórico de Gernika, se realizó un control de obras en la calle Artekale. Los resultados obtenidos en las labores de control han sido absoluta-mente negativos, no habiéndose documentado evi-dencia arqueológica alguna.

Los trabajos de renovación del saneamiento con-sistieron en la sustitución de una tubería por otra de mayor tamaño, de ahí que la zona a controlar ya ha-bía sido removida cuando se instaló la primera de las tuberías. En definitiva, los resultados fueron absoluta-mente negativos, evidenciándose que los rellenos ex-tráidos pertenecían a dicha primera instalación.

*Mikel Neira Zubieta*

D.2.4.8. **Arbolada, Tortola, Beheko eta Sokamuturra kaleak (Lekeitio)**

Zuzendaritza: Juan Jose Cepeda  
Ocampo  
Finantzazioa: Errazten S.A.

D.2.4.8. **Calles Arbolada, Tortola, Beheko y Sokamuturra (Lekeitio)**

Dirección: Juan José Cepeda Ocampo  
Financiación: Errazten S.A.

*The monitoring of the urban development works in the old quarter of Lekeitio has failed to produce any archaeological results. A contemporary filling of anthropic origin and an outcrop of limestone substratum almost on the surface in some sectors have been documented.*

Lekeitioko herrigune historikoan egin beharreko urbanizazio obraren kontrola egin genuen, baina arkeologiaren ikuspegitik begiratuta ez genuen inolako emaitzarik lortu. Aro Garaikideko jatorri antropikoko betegarri bat dokumentatu genuen eta kareharrizko substratua ia azalera ageri zen sektore batzuetan.

Control de las obras de urbanización en el casco histórico de Lekeitio, sin resultados arqueológicos. Se documenta un relleno de origen antrópico contemporáneo y el afloramiento del substrato calizo, casi en superficie en algunos sectores.

*Juan José Cepeda*

D.2.4.9. **Kanttoipe (Ondarroa)**

Zuzendaritza: Belen Bengoetxea  
Rementeria  
Finantzazioa: Ondarroako  
Udala

D.2.4.9. **Kanttoipe (Ondarroa)**

Dirección: Belén Bengoetxea  
Rementeria  
Financiación: Ayuntamiento de  
Ondarroa

*The archaeological monitoring prompted by the installing of a public lift in the Kanttoipe area of Ondarroa has made it possible to document the late occupation of this space won from the sea some time in the 19th century for the installation of urban drainage systems. It was subsequently occupied by humble installations linked to huts or small businesses.*

Ondarroako hiribilduko Kanttoipe kalean kontrol arkeologikoa egin genuen, hiribilduko Udalaren ekimenez, eremu horretan igogailu publikoa jarri behar zutela eta.

Dokumentaturiko unitate estratigrafiko guztiak Aro Garaikidekoak badira ere, hainbat eraikuntza fase bereizi ahal izan ditugu. Horietan lehenengoa XIX. mendeko uneren batekoa da, hiribilduko eremu hau lehen aldiz okupatu zen garaikoa, hain zuzen ere. Hiri azpiegituren instalazioarekin zuen zerikusia okupazio motak; euskal hiribilduetan aski ohiko gertakizuna XIX. mende osoan zehar. Zehatzago adierazteko, gutxi gora-behera iparraldetik hegoaldera doan kanalizazio baten instalazioaz ari gara, harriz egina, bi hormatxoaren eraikuntzaren bidez (12. eta 13. UEak); horizontalean zeuden harri xabalek osaturiko estalkiari (5. UE) eusten zioten hormatxo horiek. Harri xabal horiek azpialdea eta gainaldea lauak zituzten eta ertzak, berriz, erregularizatuak; aski ilara erregularra osatzen zuten, 20 eta 25 cm arteko lodierekin. Kolore hori argiko kareoz elkartuak ziren piezak. 110 eta 0,90 cm arteko luzera zuten harri xabalek.

El control arqueológico llevado a cabo en la zona de Kanttoipe de la villa de Ondarroa tuvo lugar con motivo de la instalación de un ascensor público en la zona, por iniciativa del ayuntamiento de la villa.

A pesar de que todas las unidades estratigráficas documentadas son de época contemporánea, se han podido diferenciar diversas fases constructivas. La primera de ellas pertenece a algún momento del siglo XIX, cuando se ocupa por primera vez esta zona de la villa. El tipo de ocupación tiene que ver con la instalación de infraestructuras urbanas; hecho bastante frecuente en las villas vascas durante todo el siglo XIX. Nos referimos concretamente a la instalación de una canalización que discurre aproximadamente de norte a sur, realizada en piedra mediante la construcción de dos muretes (U.E. 12 y 13) que sostienen una cubierta de lajas colocadas en horizontal (U.E. 5). Las lajas presentaban las caras inferior y superior planas y los bordes regularizados, formando una hilada bastante regular con grosores que van entre los 20 y 25 cm. Las piezas aparecen unidas con argamasa de color amarillento claro. Las dimensiones de las lajas son de 110 a 0,90 cm. de longitud.

Kanalizazioa egokitzeko 9. UE deituriko geruza ebaki zuten lehenengo; jatorrizko kostalde mailari dagokionean espazioa irabazteko erantsitako betegarria besterik ez da geruza hori. Ageri zituen eraikuntza material zatiei erreparatzen badiegu, oso urri baziren ere, XIX. mendeko uneren batekoa da lehen adierazi dugun bezala.

Aipaturiko egitura hori bada ere eraikuntza fase honen hondakin zaharren eta garbiena, 4. UE aipatzekoa da halaber. Erdi tamainako kareharriek (30-32 cm artean) osaturiko horma da, kanpoaldea pixka bat arbasua dute harriek eta ilara erregularra eratzen dute. Kolore horixkako mortairu trinkoz elkartuak dira piezak. Aurreko paragrafoan deskribaturiko kanalizazioa baino lehenagokoa edo geroagokoa den aski garbi dago, estalkiko harri xabalek osaturiko mailaren (5. UE) gainean oinarritzen baita. Elizako horma bularren artean zegoen eraikuntza txiki baten hondakinekin identifikatu dugu egitura hau. Izan ere, hiribilduko argazki zahar batzuetan ikus daitekeen bezala, estalpe edo etxola txiki batzuk zeuden tenpluko horma bularren artean, hainbat xedetarako erabiltzen zirenak.

XX. mendean gertatu ziren azken aldaketak. Izan ere, udaletxera iristeko eskailera egin aurretik, eskailera horiek desegin egin dira orain igogailua jartzeko, hain zuzen ere, eta haien trazatua aldatu egingo da, merkataritza establezimendu bat izan zen eremu honetan. Haren hondakin bat kontserbatu da, hormigoizko zolarri trinko bat, burdinazko sarearekin, 14 eta 16 cm lodierakoa. Era berean, establezimendu horrekin loturik daude 6. eta 7. UEak. Lehenengoa adreilu eta hormigoiz eginiko hormatxo bat da, berriki egin, eta bigarrena, berriz, zoru bat, 32 x 32 x 0,5 cm-ko industria moldeko baldosaz egin.

Ikerturiko eremua aurkitu genuen lekuraino iristeko hurrengo urratsa, lehen aipatu dugun udaletxera iristeko eskailera horren instalazioa da, eta hormigoizko geruza baten erabilera (1. UE), espazioa bete eta trinkotzeko zorua leun eta berdindua gera zedin. Horixe da, hain zuzen ere, gaur egun zapaltzen duguna.

Azken konklusio gisa, aski garai berantiarrean itsasoari kendutako eremua dela esango genuke.

Para la instalación de la canalización se procedió inicialmente a cortar el estrato U.E. 9, que no es más que un relleno añadido para ganar espacio respecto al nivel de costa original. Atendiendo a los fragmentos de material constructivo que presentaba, muy escasos, pertenece, como ya hemos señalado, a algún momento del siglo XIX.

A pesar de que la mencionada estructura es el resto más evidente y más antiguo de esta fase constructiva, también hay que mencionar la U.E. 4. Se trata de un muro de piedras calizas de tamaño medio (entre 30-32 cms.), con la cara exterior ligeramente desbastada, y que forman una hilada regular. Las piezas aparecen trabadas con un mortero de tonalidad amarillenta de consistencia fuerte. La relación de anteroposterioridad respecto a la canalización descrita en el párrafo anterior, es evidente, ya que se apoya sobre el nivel de lasjas de la cubierta (U.E. 5). Esta estructura la hemos identificado con los restos de una pequeña edificación existente entre los contrafuertes de la iglesia. Efectivamente, según se aprecia en algunas fotografías antiguas de la villa, existían pequeños cobertizos o casetas entre los contrafuertes del templo, empleados con diversos fines.

Los últimos cambios se produjeron en el siglo XX. Efectivamente, antes de la instalación de las escaleras de acceso al ayuntamiento que se han desmontado precisamente para la instalación del ascensor, y cuyo trazado será modificado, existió en esta zona un establecimiento comercial cuyos restos conservados son una solera de hormigón compacta con mallazo de hierro con un espesor de entre 14 y 16 cms. Relacionadas con este establecimiento también se encuentran la U.E. 6 y la 7. La primera es un murete realizado con ladrillos y hormigón de factura muy reciente, y la segunda un suelo realizado a base de baldosas de factura industrial de 32 x 32 x 0,5 cms.

El siguiente paso hasta llegar al punto en el que encontramos el área investigada fue la instalación de la escalera de acceso al ayuntamiento al que hacíamos referencia, y la utilización de una capa de hormigón (U.E. 1) para rellenar y compactar el espacio para conseguir un suelo alisado y nivelado, que es el que podemos pisar actualmente.

Como conclusión final, se podría señalar que se trata de una zona ganada al mar en una época bastante tardía.

*Belén Bengoetxea Rementeria*

#### D.2.4.10. **Propano gasa banatzeko sarea (Otxandio)**

Zuzendaritza: Iñaki Pereda García  
Finantzazioa: Repsol Butano S.A.

#### D.2.4.10. **Red de distribución de gas propano (Otxandio)**

Dirección: Iñaki Pereda García  
Financiación: Repsol Butano S.A.

*The archaeological monitoring carried out in Otxandio (Bizkaia) has enabled us to identify the remains of the canal of the Mañarrota mill of modern chronology. Opposite the old mill and under the existing road a domed tunnel 5 metres long was located.*

Kontrol arkeologiko honen alderdi garrantzitsuenak aipatuko ditugu ondoren:

Mainerrota kalean eta kaleari izena ematen dion errota zahar baten (*Mañarrota*) aurrealdean, kanalaren hondakinak sumatu genituen kalearen zorupean. Eraikuntza gangaduna da, 5 metroko luzera eta 1,40 metroko altuerakoa, kronologia modernokoa. Kanal hori itxia dago, bai ekialdera bai mendebaldera, Aro Garaikidean eginiko obregatik. Andikona Plazako IE-ko angeluan ere agertu ziren kanal horren hondakinak izan zitezkeenak, baina kasu honetan, bestean ez bezala, oso txarra da kontserbazio egoera.

Urkiola ibaiaren gainean dagoen zubian, (BI-623 errepedea) lehenagoko zubi baten hondakinak bereizi genituen. Traza desberdina zuen, horma bularrean zabalagoa eta arkuaren gainean meharragoa. Zabaltze obretan berrerabili zuten egitura zahar hori. Zubiaren alde bat zabalduta eta erregularizatu egin zuten hormigoizko egitura baten bidez. Gerra zibilaren ondoren egingo zen obra hori, ibilgailu motordunen joan-etorriak areagotu zirenean.

Bideen azpian erregistraturiko 73 unitateek, berriz, Aro Garaikideko kronologia dute gehienek. Askok dira deposizio ondoko deposituak, hiribilduan ugari ziren burdinoletoak azpiproduktuen ondorio. Bideak atondu eta egokitzeko berrerabili zituzten material horietako asko. Bide zaharren hondakinak ere erregistratu genituen (espaloiz zaharren galtzadarriak eta ertzak).

Azkenik, esan behar da, ez dugula harresi bat izango zela pentsarazteko moduko egitura eta hormarik aurkitu.

Reseñamos los aspectos más significativos del presente control arqueológico:

En la calle Mainerrota y frente a un antiguo molino que da nombre a la calle (*Mañarrota*) se detectaron, en el subsuelo de la calle, restos del canal. Se trata de una construcción abovedada de unos 5m de longitud y 1,40m de altura, de cronología moderna. Dicho canal está cegado, tanto hacia el este como al oeste, por obras de época contemporánea. En el ángulo NE. de la Plaza Andikona también se localizaron posibles restos de ese canal, aunque en este caso, y a diferencia del otro, su estado de conservación es muy deficiente.

En el puente situado sobre el río Urkiola, (carretera BI-623) se identificaron restos de un puente anterior. Disponía de una traza diferente, más ancho en los estribos y más estrecho sobre el arco. Esa estructura antigua fue reutilizada en las obras de ampliación. Se ensanchó y regularizó uno de los lados del puente mediante la colocación de estructura de hormigón. Esta obra se debió de realizar tras la guerra civil, al intensificarse el paso de vehículos motorizados.

De las 73 unidades registradas bajo los viales, la mayoría son de cronología contemporánea. Abundan los depósitos postdeposicionales, procedentes de los subproductos de las forjas y herrerías que abundaron en la villa. Muchos de estos materiales fueron reutilizados para acondicionar los viales. También se registraron restos de antiguos viales (adoquines y bordillos de antiguas aceras).

Finalmente, indicar que no se ha localizado ninguna estructura ni muro que nos haga pensar en la existencia de una muralla.

*Iñaki Pereda García*

#### D.2.4.11. **Burgos kalea (Urduña-Orduña)**

Zuzendaritza: Silvia Cajigas Panera  
Finantzazioa: Urduñako  
Udala

#### D.2.4.11. **Calle Burgos (Urduña-Orduña)**

Dirección: Silvia Cajigas Panera  
Financiación: Ayuntamiento de Urduña-Orduña

*This intervention has consisted of monitoring the redevelopment works of the street. Its results have been of limited historical interest, except for the fact that they have enabled the profile of natural stratum to be documented.*

Burgos kaleko urbanizazio obren kontrol arkeologikoari esker, kale osoko estratigrafia ikusi ahal izan dugu, eta baita estratu naturalaren ezaugarriak eta perfila ere. Hala bada, estratu naturalera iritsi aurretik dagoen betegarri antropikoak 70 cm-ko lodiera du iparraldean, Foru Plazaren ondoan, eta 40 cm-koa, berriz, kalearen hegoaldean.

xx. mendekoak dira dokumentaturiko elementu guztiak eta ez dute inolako historia edo hirigintza interesik (ur zikinen hoditeriak, burdinazko hodi batentzako hormigoizko kutxa modukoa eta aglomeratuzko zoru bat bere prestatze mailak azpian zituela).

Con el control arqueológico de las obras de urbanización de la calle Burgos ha sido posible ver la estratigrafía de toda la calle así como las características y perfil del estrato natural. Así el potencial del relleno antrópico antes de llegar al estrato natural oscila entre los 70 cm. al norte junto a Foru Plaza y los 40 al sur de la calle.

Todos los elementos documentados son del siglo xx y carecen de todo interés histórico o urbanístico (tubería de fecales, encajonado de hormigón para una tubería de hierro y un suelo de aglomerado con sus niveles de preparación subyacentes).

*Silvia Cajigas*

#### D.2.4.12. **Antiguako Andra Mari ikastetxea (Urduña-Orduña)**

Zuzendaritza: Silvia Cajigas Panera  
Finantzazioa: P.P. Josefinos de  
Murialdo

#### D.2.4.12. **Colegio Nuestra Sra. de la Antigua (Urduña-Orduña)**

Dirección: Silvia Cajigas Panera  
Financiación: P.P. Josefinos de  
Murialdo

*This intervention has consisted of monitoring small-scale improvements whose results have been of limited historical interest.*

Interbentzio honetan ezponda baten induskatze eta egokitze obren kontrola egin dugu ikastetxeko patioa bi aldetan, eta horrenbestez, oso mugatuak izan dira lanak. Ikastetxeak aukera handiak eskaintzen bazituen ere, haren goiko aldean gaztelu bat baitzegoen garai batean, oso urriak izan dira emaitzak historiaren ikuspegitik begiratuta, kronologiari dagokionean xix. mendea baino lehenagoko egitura edo betegarririk ez baitugu dokumentatu, izan ere, pentsatzen dugu garai horretakoa dela pilotaleku eraikinetik abiatzen zen landu gabeko harritz eginiko tutua. xx. mendearen bigarren erdialdean eta fenomenoak dira dokumentaturiko gainerako betegarri eta fenomenoak eta ikastetxea egokitzeko obrei erantzuten die beti ere.

Esta intervención ha consistido en el control de las obras de excavación y acondicionamiento de un talud en dos zonas del patio del colegio, por lo tanto han sido muy restringidas. A pesar de las perspectivas históricas del colegio en cuya parte superior se situó un castillo, los resultados han sido muy escasos desde el punto de vista histórico ya que no se han documentado estructuras ni rellenos anteriores cronológicamente al siglo xix, fecha en la que creemos que podría fecharse un caño de mampostería que partía del edificio de frontón. El resto de los rellenos y fenómenos documentados han sido ejecutados a lo largo de la segunda mitad del siglo xx y responden a obras de acondicionamiento del colegio.

*Silvia Cajigas*

#### D.2.4.13. **Kale Zaharra, 6 (Urduña-Orduña)**

Zuzendaritza: Silvia Cajigas Panera  
Finantzazioa: Kale Zaharreko 6.  
zenbakiko Jabekideen Komunitatea.

#### D.2.4.13. **Zaharra, 6 (Urduña-Orduña)**

Dirección: Silvia Cajigas Panera  
Financiación: Comunidad de  
Propietarios de Zaharra nº 6.

*The archaeological intervention has consisted of the monitoring of the manual excavation of 10 trial excavations carried out to see the state of preservation of the wooden beams of the structure. This is why it has only been possible to reach the natural stratum in the places required by the building works. In general, a simple, homogeneous stratigraphy has been documented through which all we have been able to discover are the changes that took place on the ground floor of the building when a pharmacy was built early in the 20th century.*

Interbentzio arkeologiko honetan egituraren zurezko habeen kontserbazio egoera ikusteko egindako 10 kataran eskuzko indusketaren kontrol arkeologikoa egin dugu, eta arrazoi horregatik, obrak hala eskatzen zuelako beharrezkoa izan den lekuetan baino ez gara geruza naturalera iritsi, eta zehatzago adierazteko, 6. kataran hegoaldean, harri naturala jo baita alde horretan. 60 cm inguru izan da katen batez besteko sakonera.

Batik bat XIX. eta XX. mendekoa da berreskuratutako materiala, XVIII. mendeko zeramikazko zati batzuk ere azaldu diren arren.

Botikaren eta haren dendaostearen eremu osoan pinuzko xaflaz osaturiko zoruak ageri da, establezimendu hau ireki zen garaiko zoruak, hain zuzen ere, XX. mendearan hasieran itxura guztien arabera. Eremu honetan egindako zundaketa guztietan dokumentatu dira horrenbestez zoru hori nahiz berau egokitzeko habe eta zeharkako egurrek osaturiko egitura. Gainera, elementu horiei esker, jakin izan dugu botika egin zenean nabarmen igo zutela zoruak, metro erdia gutxi gorabehera. Igotze hori egiteko, betegarria bota zuten, oso harroa, lur grisaxkak osatua eta hondakin ugariarekin (teñlak, adreilu trinkoak, harriak, igeltsu eta luzitu hondakinak...), une horretan etxe osoan egingo zen berri-tze lan garrantzitsu baten ondorio izango dira segurasko. Gainera, betegarri horri eusteko, hainbat lodieratako hormatxo baxu batzuek zatitu zuten esparrua, iparralde-hegoalde nahiz ekialde-mendebalde norabidean eta harriak eta eraikuntza materialak berrerabili ziren orduan ere. Hala hormatxoak nola betegarria, zurezko habeen oinarri diren harriei eratzirikirik daude, eta baita habeei ere, eta beharbada, horixe izango da denboran zehar usteltzen joateko arrazoia, zura lur betegarriak ukitzen ez egotea izango bailitzateke logikoa. Orubearen hondoko kata guztietan habea, hormatxoak eta lur eta hondakin betegarri hori zoru buztintu baten gainean dago, lur marroia da, oso trinkoa, eta ikatz hondakinak ageri ditu. Atzealde osoan zegoen zoru hori, eta segurasko soto edo ukilu erabilera izango zuen eraikina egin zen unean, XVIII. mendean seguruena. Beharbada, 1727. urtean, Kale Zaharreko etxe batean hasi eta kale horretako hamalau etxe eta Francos kaleko zortzi etxe ukitu zituen sutetik etorriko dira ikatz hondakin horiek (AMO L/016 f 151 v).

La intervención arqueológica ha consistido en el control arqueológico de la excavación manual de 10 catas realizadas con el fin de ver el estado de conservación de las vigas de madera de la estructura, por esa razón no se ha llegado al estrato natural más que allí donde ha sido necesario por imposición de la obra, en concreto en la zona sur de la cata 6, donde se ha alcanzado la roca natural. La profundidad media alcanzada por las catas ha rondado los 60 cm.

El material recuperado corresponde básicamente al siglo XIX y XX, con algunos fragmentos cerámicos del XVIII.

Toda la zona de la farmacia y la trastienda de la misma presentan un suelo de láminas de pino original del momento en el que se abrió ese establecimiento al parecer a comienzos del siglo XX. Dicho suelo y la estructura de vigas y maderos transversales para su colocación se ha documentado por lo tanto en todos los sondeos realizados en esa zona. Además éstos han permitido saber que cuando se hizo la farmacia se elevó considerablemente el suelo, aproximadamente medio metro. Para llevar a cabo esa elevación se echó un relleno muy suelto de tierra grisácea con abundantes restos de escombros (tejas, ladrillos macizos, piedras, restos de yesos y enlucidos...) posiblemente procedente de una reforma importante de la misma casa llevada a cabo en ese momento. Pero además con la finalidad de dar sujeción a ese relleno se dividió el espacio con muretes bajos de distintos grosores de dirección tanto norte-sur como este-oeste que reutilizan también piedra y materiales constructivos. Tanto los muros como el relleno se adosan a las piedras que sirven de base a las vigas de madera, así como a estas últimas y es posible que esta sea la razón de que se hayan ido pudriendo a lo largo del tiempo pues lo lógico sería que la madera no estuviese en contacto con rellenos de tierra. En todas las catas del fondo del solar la base de la viga, los muretes y ese relleno de tierra y escombros van sobre un suelo arcilloso marrón muy compacto que presenta restos de carbones. Es el suelo que había en toda la zona trasera, seguramente con un uso de bodega, sótano o cuadra en el momento en el que se hizo el edificio posiblemente en el siglo XVIII. Tal vez incluso esos restos de carbones procedan de un incendio que se inició en una casa de la calle Zaharra y que afectó a catorce casas de dicha calle y a ocho de la calle Francos en 1727 (AMO L/016 f 151 v).

Oro har, oso uniformea izan da kata guztietan dokumentaturiko estratigrafia, atariaren eta dendaostearen arteko espazioa banatzen den eremuan izan ezik, alde horretan zertxobait zailagoa baita, elkarren gainean hainbat betegarri eta zoruren bat agertzen direlako (enkatxua, zeramikazko baldosa, buztin zapaldua). Nolanahi ere, esandakoaz gainera, buztin zapalduz osaturiko zoru hori da aipagarriena, buztin berdeak dira, eta egungo eraikina baino lehenagokoa izan liteke zorua, harri naturalarekin batera moztua baitago zurezko habearen oinarria eta espazioaren banaketa-horma egokitzeko.

En general la estratigrafía documentada en todas las catas ha sido muy uniforme, excepto en la zona en la que se divide el espacio entre el portal y la trastienda donde es algo más complicada, al aparecer distintos rellenos superpuestos y algún suelo (encachado, baldosa cerámica, arcilla pisada). En cualquier caso lo más destacable además de lo ya comentado es un suelo apisonado de arcillas de color verde que puede ser anterior al edificio actual pues ha sido cortado junto con la roca natural para asentar la base de la viga de madera y el muro de división del espacio.

*Silvia Cajigas*

## D.2.5. *BESTE JARDUERA BATZUK*

## D.2.5. *OTRAS ACTIVIDADES*

### D.2.5.1. **Andra Mari eliza (Urduña-Orduña)**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez  
Zufiaurre  
Diru-laguntza emailea: Bizkaiko Foru  
Aldundia

### D.2.5.1. **Iglesia de Santa María (Urduña-Orduña)**

Dirección: Leandro Sánchez  
Zufiaurre  
Subvención: Diputación Foral de  
Bizkaia

*The study of the historical and building development of the Church of Santa Maria of Orduña was conducted entirely through chronotypological analysis. From the technical-typological features studied in the building it was possible to build up its historical sequence, grouped together in five moments, which start with the building of the church as part of the town's fortress until the works in the 19th century, which gave the temple its final appearance.*

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ondare Historikoa Zerbitzuaren Arkeologia Sailaren ekimenez sortu da lan hau. 2003. urtean egin zen landa-lana, eta 2004. urte amaiera edo 2005. urte hasierarako aurreikusitako indusketa arkeologiko batzuk egin arte atzeratu da emaitzen aurkezpena. Indusketa horiek ez zirenez egin, azterketa kronotipologikoaren emaitzak berex aurkeztea erabaki zen.

El presente trabajo surge por iniciativa de la Sección de Arqueología del Servicio de Patrimonio Histórico, Diputación Foral de Bizkaia. El trabajo de campo fue realizado durante el año 2003, posponiéndose la presentación de resultados hasta la realización de unas excavaciones arqueológicas previstas para finales de 2004 o principios de 2005. Dado que dichas excavaciones no fueron realizadas, se decidió la presentación de los resultados del análisis cronotipológico de manera independiente.

Interbentzio honek hilerri zaharraren inguruko defentsa esparruaren irakurketa estratigrafikoan izan du abiapuntua, elizaren kanpoaldea ekialderantz aztertu zenean, hain zuzen ere. Une horretan halako proposamen batzuk egin ziren elizaren bilakaerarako kanpoko hormen irakurketaren arabera, baina hori egiaztatu egin behar zen barnealdean azterketa xeheagoa egirik. Eraikina berritzeko obrak zirela eta, azterketa hori egiteko aukera ikusi zen, baina elizaren ezaugarriak (hormak ia erabat igeltsutatuak baitzituen) eta aurrekontu urria genuela ikusita, era kronotipologikoko azterketa egitea erabaki zen, Gasteizko Santa Maria Katedralaren esperientzian inspiratuta (AZKARATE *et alii* 2002).

La intervención tiene su punto de partida en la lectura estratigráfica del recinto defensivo en torno al antiguo cementerio, cuando se analizó el exterior de la iglesia hacia el este. En ese momento se hizo una serie de propuestas para la evolución de la iglesia en función de la lectura de los muros exteriores, que debía ser sometida a contrastación con un análisis más detallado del interior. Con motivo de las obras de restauración del edificio se vio la posibilidad de llevar a cabo dicho estudio; pero dadas las características de la iglesia (con sus muros prácticamente enlucidos por completo) y la escasez de presupuesto, se optó por la elaboración de un análisis de tipo cronotipológico inspirado en la experiencia de la Catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz (AZKARATE *et alii* 2002).



Azterketa horren bidez elizaren eraikuntza bilakaera zein izan zen jakin nahi genuen, aldaera tekniko-tipologikoak espazioan bilduta. Era honetako azterketen oinarria zera da, une historiko bakoitzean badirela oso ongi zehaztutako elementuak, elementu teknikoak nahiz tipologikoak, gainerako momentuetan zehazten diren multzoen aldean guztiz desberdinak direnak. Eraikinean ageri diren aldagaiak banan-banan definitu eta ondoren espazioan egokitzeak aukera ematen digu etapa bakoitza zehazten duten multzoak ezagutzeko. Horregatik, kontua ez zen izan obran ageri diren Unitate Estratigrafiko guztiak xehe irakurtzea, denboran zehar izandako fase nagusiak definitzea baizik.

Lau urrats izan zituen ikerketa hau egiteko jarraituriko sekuentziak:

- Aldagai bakoitzaren banakako azterketa, elementu bakoitzeko fitxa bat eginez.
- Gaikako planoak egitea aldagai mota bakoitzaren banaketarekin elizaren planoan.
- Aldagai multzoak egitea (*clusters*), haien espazio artikulazioaren arabera maila esanguratsuan.
- Elizaren eraikuntza sekuentzia zehaztea, haren fase orokorretan oinarrituta.

### ***Eraikuntza faseak***

Eraikinean aldagaien banaketa aztertu ondoren, garaia da artikulazio hori islatzen ari den eraikuntza sekuentzia zehazteko. Azterketa kronotipologikoa eta elizaren kanpoaldearen irakurketa konbinaturik (Arkeoikuska 2002an aurkeztua, 417-128 or.), bost fase nagusi bereiziko genituzke Andra Mari elizaren fabrikan bilakaeran.

#### ***1. Fasea. Elizaren ingurua eraikitzea. Gotorleku eliza***

Hauxe da multzoan sumaturiko lehen eraikuntza, eta burualdearen planta osoa eta gurutzadura, iparraldeko itxituraren lehen hiru zatiak eta hegoaldeko bi lehenengoak egin ziren une honetan. Eliza eta gotorlekuaren ezaugarriak biltzen dituen eraikin baten aurrean geundeke horrenbestez.

Kronologiari dagokionean, uste dugu, kanpoaldeko irakurketan eginiko proposamena mantentzeko ez dagoen oro har, lortutako datu berriek indartu egiten baitute proposamen hori. Horrenbestez, <sup>xiii</sup>. mendearan erdialdean eginiko obraren emaitza izan liteke eliza, hiriarren neurriak nabarmen handitzen dituen iparraldeko harresia eraiki zen garaian seguru asko.

Con este estudio se pretendía establecer una propuesta de evolución constructiva de la iglesia a partir de la agrupación espacial de variables técnico-tipológicas. La base de este tipo de estudio está en la concepción de que en cada momento histórico existe una serie muy definida de elementos tanto técnicos como tipológicos, diferentes de las agrupaciones que se establecen en los demás momentos. El hecho de definir individualizadamente las variables presentes en el edificio, estableciendo seguidamente su correspondencia en el espacio, nos permite conocer las agrupaciones que definen a cada etapa. Por ello no se trató de una lectura detallada de todas las Unidades Estratigráficas presentes en la obra, sino que el objetivo se centró en definir las fases principales por las que aquella había pasado a lo largo del tiempo.

La secuencia seguida para la elaboración de esta investigación constó de cuatro pasos:

- Análisis individualizado de cada variable, elaborando una ficha por elemento.
- Elaboración de planos temáticos con la distribución de cada tipo de variable en el plano de la iglesia.
- Elaboración de los conjuntos de variables (*clusters*), en función de la articulación espacial de las mismas en un grado significativo.
- Establecimiento de la secuencia constructiva de la iglesia, articulada en sus fases generales.


### ***Las Fases constructivas***

Una vez analizada la distribución de las variables en el edificio, es el momento de establecer la secuencia constructiva que dicha articulación está reflejando. De la combinación del análisis cronotipológico y la lectura del exterior de la iglesia (presentada en Arkeoikuska 2002, p. 417-128), podemos establecer la presencia de cinco fases principales en la evolución de las fábricas de la iglesia de Santa María.

#### ***Fase 1. Construcción del contorno de la iglesia. Iglesia fortaleza***

Se trata de la primera construcción detectada en el conjunto, consistente en la planta completa de la cabecera y el crucero, los tres primeros tramos del cierre norte y los dos primeros del sur. Estamos ante un edificio que aúna las características de iglesia y fortaleza.

En cuanto a la cronología, creemos que es posible mantener en términos generales la propuesta efectuada en la lectura del exterior, ya que los nuevos datos obtenidos la refuerzan. La iglesia podría ser por lo tanto el resultado de obras realizadas hacia mediados del siglo <sup>xiii</sup>, probablemente en relación con la construcción del recinto norte que amplía sustancialmente las dimensiones de la ciudad.



Urduñako Andra Mari eliza. Elizaren kanpoaldeko ikuspegia eliz ataritik begiratuta eta fabriken eraikuntza bilakaera.

Iglesia de Santa María de Orduña. Aspecto exterior de la iglesia desde el pórtico y evolución constructiva de las fábricas.

Lehen fase hau ez zuten amaituko hasierako eraikitzaileek, baizik eta beste eskulan batek hartuko zuen, 2. fasearen ezaugarriek islatzen duten bezalaxe.

Esta primera fase no sería acabada por sus iniciales constructores, sino que sería retomada por una mano de obra diferente tal y como lo reflejan las características de la fase 2.

## 2. Fasea. Habearteak eta lehen gangak eraikitzea

Hasierako eraikitzaileek bukatu gabe utzi zuten lehen fasea, esku aldaketa argi eta garbi nabari baita jarritako elementuen ezaugarriari erreparatzen badiegu. Aldaketa nabarmenetako bat harrizko materiala ateratzeko harrobien aldaketa da, hain zuzen ere, lehen fasean kareharri arrosa erabili baitzuten, eta bigarreanean, berriz, kareharri gris iluna.

Bigarren une hau ez da lehenengoa bezain homogéneoa, eta nabari da esku bat baino gehiago ibili zirela obra egiterakoan, baina proiektu bakarrari erantzuten dio beti ere. Horregatik nahi izan ditugu alde horiek islatu, proiektu honen barnean hiru azpifase (a, b eta c) bereizirik.

## Fase 2. Construcción de las naves y primeras bóvedas

La fase inicial queda inacabada por sus constructores iniciales, reflejándose un claro cambio de manos en función de las características de los elementos implicados. Uno de los rasgos más significativos es el cambio de canteras de extracción de material lítico, pasando de la caliza rosa de la primera fase a una caliza gris oscura de la segunda.

Este segundo momento no es tan homogéneo como el primero, reflejándose más de una mano a lo largo de la ejecución de la obra, que responde sin embargo a un mismo proyecto unitario. Por eso hemos querido reflejar esas diferencias, señalando la presencia de tres subfases (a, b y c) dentro de este proyecto.

Aurreko fasean amaitu gabe utzitako eraikina bukatzeko asmoa da une honetan garrantzitsua; habeak eraiki zituzten lehenengo, eta horretarako, lehen hiru pilare pareak egokitu zituzten alboetako habeartekak erdiko habeartetik bereizteko. Hegoaldeko alboko habeartean itxituraren bigarren zatia osatu zuten halaber, aurreko fasean egin gabe geratu baitzen.

Fase honetako gangen tipologia ezaugarriak dira, neurri handi batean, autoreek eliza hau xv. mendeko obra gisa hartzeko arrazoia; egia esan ez zebiltzan oso oker, mende horretan amaitu baitzen fase hau, seguruenik aurreko mendean hasi ondoren.

### **3. Fasea. Eraikinaren itxitura oinaldera**

Eraikina amaitu zuten fase honetan, eta haren planta itxi zen mendebalderantz gaur egungo neurriak lortu arte. Horregatik, eraikineko egungo itxitura horma eraiki zen, eta haren ezaugarriek ongi asko bereizten dute aurreko obretatik, guztiak harlanduz eginak zirelako, oinarri, soslai eta kapitela forma bereziekin.

Lehen eliz ataria eraiki zen elizaren itxiturari loturik, seguru asko kanpandorre lanak beteko zituen horrek, dirudinez atari-dorreen ohiko ezaugarria baita hori Bizkaian xv. mendean eta xvi. mendean hasieran. Une horretan amaitu zen eliza estaltzeko lana habeartean bigarren eta hirugarren tarteetako alboetako nahiz goiko gangen eraikuntzarekin.

xiii. mendean hasitako obra baten amaiera da, ia 250 urte geroago amaitu zena, hau da, xv. mendean azken herenean edo xvi. mendean hasieran.

### **4. Fasea. Oinaldera handitzeko proiektu amaitu gabea, alboetako kaperak eta sakristia eraikitzea**

Generikoki «xvi. mendean» errotularen pean sar litezke fase honetako obrak, elkarren artean inolako loturarik gabeko jarduera batzuk hartzen baititu, izan ere, egin ziren kronologia esparrua beste loturarik ez dute horiek. Oinaldera handitzeko proiektu bukatu gabea dugu lehenengo, oso ongi bereizten diren ezaugarriak dituzten pilare eta pilastrak dira, eta 3. fasean eginiko oinaldeko obra ebakitzen dute. Gainerako obrek ez dute ezaugarri komunik, haietako bakoitza ekimen independentea baita; alboetako kaperak irekitzea da lan hori, xvi. mendean zehar egina Kristoren Eskolarena izan ezik. Era berean, mende horretan eraiki zuten sakristia, eraikinaren HE-ko ertzean eratxikia, burualdearen eta gurutzaduraren artean.

Eraikuntza jarduera biziko unea izan zen hau, fabriketan nahiz dokumentazio idatzian ongi asko ikus dai-

Lo principal de este momento es que supone la intención de terminar el edificio inacabado de la fase anterior, comenzando con la construcción de las naves por medio de la erección de los tres primeros pares de pilares que separarán las naves laterales de la nave central. Se completa también el segundo tramo del cierre de la nave lateral sur, no levantado en la fase anterior.

Las características tipológicas de las bóvedas de esta fase son las que en gran medida llevaron a muchos de los autores a considerar la iglesia como una obra del siglo xv; en realidad no estaban del todo equivocados, ya que es la centuria en la que esta fase concluye, habiendo empezado con toda probabilidad en el siglo anterior.

### **Fase 3. Cierre del edificio hacia los pies**

Se trata de la finalización del edificio, de su cierre en planta hasta adquirir sus dimensiones actuales hacia el oeste. Para ello se construye el muro de cierre actual del edificio, con unas características que permiten diferenciarlo claramente de las obras anteriores al estar hechas enteramente de sillaría, con unas formas en basas, perfiles y capiteles diferenciados.

Unido al cierre de la iglesia se construye el primer pórtico, que cumplía seguramente funciones de campanario, siendo al parecer un rasgo característico de las torres-pórtico en Vizcaya en el siglo xv e inicios del xvi. En este momento se termina de cubrir la iglesia con la construcción de las bóvedas tanto laterales como altas del segundo y tercer tramo de la nave.

Se trata de la culminación de una obra empezada en el siglo XIII, finalizada casi 250 años después, es decir, en torno al último tercio del siglo xv o inicios del xvi.

### **Fase 4. Proyecto inacabado de ampliación hacia los pies, construcción de capillas laterales y sacristía**

Las obras de esta fase podrían englobarse genéricamente bajo el rótulo de «Siglo xvi», ya que se incluye una serie de actuaciones sin relación entre sí con el único nexo de unión del marco cronológico en el que fueron realizadas. En primer lugar encontramos un proyecto inacabado de ampliación hacia los pies, reflejado por la presencia de unos pilares y pilastras con unas características bien diferenciadas, que cortan a la obra de los pies realizada en la fase 3. El resto de las obras no comparte rasgos comunes, siendo cada una de ellas una iniciativa independiente; se trata de la apertura de las capillas laterales, abiertas a lo largo del siglo xvi a excepción de la de la Escuela de Cristo. En esta centuria se construye también la sacristía, adosada en la esquina SE del edificio, entre la cabecera y el crucero.

Se trata de un momento de una actividad constructiva febril, tanto por lo que podemos ver en las

tekeen bezala. Garbi dago hiriak ekonomia goraldia izan zuen garaia dela, eta horregatik, eliza handitzeko beharra zuten (azkenean horrelakorik ez bazen egin ere), eta Urduñako erlijio eraikin nagusian kaperarik hoberena lortzeko borrokatzen ziren familia dirudunak.

### **5. Fasea. Egungo eliz ataria eraikitzea, dorrea altxatzea eta Kristoren Eskolaren kapera**

Azken fase honetan sartuko ditugu XVI. mendeko eraikuntza jardura handiaren ondoko obra guztiak; era askotako ekintzak dira, elkarren artean inolako loturarik ez dutenak. Haietako bat salbu (ganga bat aldatzea), elizaren kanpoaldean eginak dira guztiak. Honako obra hauek dira: sakristiaren barnealdea berritzea (XVIII. mendea), egungo eliz ataria eraikitzea (1789), Kristoren Eskolaren Kapera eraikitzea (XVIII-XIX. mendeak), dorrea gaur egungo egoeraraino altxatzea (XIX. mendea), estalkien kokaera aldatzea (XIX. mendea), egungo korua eraikitzea (1818-1819), oinaldeko goiko ganga aldatzea (1818-1819).

propias fábricas como en la documentación escrita. Es evidente que nos encontramos ante una etapa de auge económico para la ciudad, por lo que se hace necesaria la ampliación de la parroquia (aunque no se llega a realizar), y las familias acomodadas pugnan por ver quién es el que tiene una capilla mejor dotada en el principal edificio religioso orduñés.

### **Fase 5. Construcción del pórtico actual, elevación de la torre y capilla de la Escuela de Cristo**

En esta última fase incluimos todas las obras posteriores a la gran actividad constructiva del siglo XVI, por lo que se trata de acciones muy variadas y sin relación entre sí. A excepción de una de ellas (sustitución de una bóveda), todas están realizadas al exterior de la iglesia. Se trata de las siguientes obras: reforma del interior de la sacristía (siglo XVIII), construcción del pórtico actual (1789), construcción de la Capilla de la Escuela de Cristo (ss. XVIII-XIX), elevación de la torre hasta su estado actual (s. XIX), modificación de la disposición de las cubiertas (s. XIX), construcción del coro actual (1818-1819), sustitución de la bóveda alta del tramo de los pies (1818-1819).

*Leandro Sánchez Zufiaurre*

#### **D.2.5.2. Ventalaperra, El Rincon eta El Bortal leizeak (Karrantza Harana)**

III. Kanpaina  
Zuzendaritza: Diego Garate  
Finantzazioa: Canteras y  
Construcciones de Vizcaya, S.A.

#### **D.2.5.2. Cuevas de Venta Laperra, El Rincón y El Bortal (Valle de Carranza)**

III Campaña  
Dirección: Diego Garate  
Financiación: Canteras y  
Construcciones de Vizcaya, S.A.

*The cave, El Rincón, whose palaeolithic parietal complex has been discovered recently, has been added to the project to monitor the state of preservation of the caves of Venta Laperra and El Bortal. No alterations worthy of mention have been detected in any of them.*

2005. urtean hirugarren interbentzioa egin dugu Ventalaperra eta El Bortal leizeen kontserbazio egoera aztertzeko proiektuaren barnean.

Lehen bi kanpainak ez zuten aukerarik eman Ventalaperrako harrobiko lanekin lotu litekeen aldaketa nabarmenik sumatzeko, ez baita leizeen haitzaren edo hormetako grabatuen kontserbazio egoera oztopatu.

Oraingo honetan eta aurrerantz, beste leize bat sartu dugu proiektuan –El Rincon–, administrazioak berak eskatuta. Horren arrazoia zera izan da, leize horren hormetan (ikus *Arkeoikuska 04*) arte adierazpenak

Durante el año 2005 hemos desarrollado la tercera intervención del proyecto de seguimiento del estado de conservación de las cuevas de Venta Laperra y El Bortal.

Las dos primeras campañas no permitieron detectar alteraciones reseñables en el estado de conservación de la roca encajante o de los grabados, en relación con los trabajos de la cantera <Venta La Perra>.

En esta ocasión y en adelante, se ha añadido una nueva cavidad al proyecto –El Rincón– por indicación de la propia administración. La razón radica en el hallazgo de manifestaciones artísticas parietales en dicha

aurkitu izana 2004ko udan Jesus Ruiz Cobo buru zuen arkeologo talde batek, Ason ibaiaren goiko arroan miaketa arkeologikorako proiektua aurrera eramaten ari ziren bitartean.

Ramon Montes Barquínek zuzendu zuen elementu grafikoen azterketak, aukera eman zuen 17 unitate grafiko dokumentatzeko. Honako hauek izan ziren zehatz adierazteko: hiru irudi grabatu –oreina, uroa eta zehaztu gabeko animalia bat–, trazu hurbilkorren bidez grabaturiko zeinu bat, irudiak ez ziren bi grabatu eta irudiak ez ziren hamaika pintura gorri –orbanak eta trazuak–. Gure kontserbazio egoeraren jarraipen prozesuan sartu dira horiek guztiak.

## Metodologia

Beraz, jarduerarako protokolo bat garatu dugu xede horretan, hiru hilean behin ikustaldiak eginez eta harrobian noizean behin egiten diren leherketen unean jarraipen lanak eginez, ebazpenean xedatzen den bezala. Begiz aztertzen dira orduan leizeko haitza, espeleotemak eta lurteko gainerako formazioak, eta, Ventalaperraren eta El Rinconen kasuan, haitzuloko agerraldiak ere kontrolatzen dira, hondatzeko arrisku gehien duten eremu egongaitzenen eta grabatuen beren dokumentazio grafikoa atereaz, izaniko aldaketa eta haren gutxi gora-beherako data zehaztu ahal izateko. Aurrez zehazturiko baldintza jakin batzuetan (angelua, tartea, argia) eginiko argazkien azterketa alderatzailea, irudietan argazkiak lantzen eta ukitzen diren programa informatikoen bitartez bideraturiko tratamendua eta erregistrorako prestaturiko fitxak (aztertutako aldean ezaugarriak zehazten dira fitxa horietan) dira aldaketa horiek frogatzeko erabiltzen ditugun bitartekoak. Aldaketak gertatuz gero, berehala jakinarazi eta emango zaie haien berri Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailaren Ondare Historikorako Zerbitzuaren arduradunei, beharreko neurriak har ditzaten.

## Emaitzak

2005. urtean zehar lau ikustaldi egin ditugu hiru hilean (05/3/07, 05/6/10, 05/9/09 eta 05/12/08). Hona hemen emaitzak:

### 05/3/075:

El Rincon leizearen kontserbazio egoera guztiz baldintzatua dago behera etorritako kareharrien eta leizeko haitzaren lehortasunaren ondorioz. Horrez gainera, esan behar da, galeria tamaina txikikoa dela, eta horregatik zaila da grafiak ukitu gabe igarotzea. Hondatzeko arriskua agerikoa da, eta horrenbestez, guztiz beharrezko da kontrola. Ventalaperra leizean sumatu da jarduera hidrikoaren urtaroen araberrako suspertzea leizearen barnealdean. 5. unitate grafikoa –har-

cueva (ver *Arkeoikuska 04*) producido durante el verano de 2004 por un equipo de arqueólogos encabezado por Jesús Ruiz Cobo, en el transcurso de un proyecto de prospección arqueológica de la cuenca alta del río Asón.

El estudio del dispositivo gráfico, dirigido por Ramón Montes Barquín, permitió la documentación de 17 unidades gráficas, siendo tres figurativas grabadas –ciervo, uro y animal indeterminado–, un signo grabado mediante trazos convergentes, dos grabados no figurativos y once pinturas rojas no figurativas –machas y trazos–. Todos ellos han sido incluidos en nuestro proyecto de seguimiento del estado de conservación.

## Metodología

#### **Obren gaineko kontrola eta erregistro-lanak**

Eliza berritzeko lanek aurrera egin ahala, obren gaineko jarraipen xehea egin genuen, eta prozesu osoa zehatz-mehatz erregistratu genuen fitxa eta argazkien bidez. Tenpluaren erdialdeko habearteko tarima altxatutakoan, ez genuen inolako hilobirik aurkitu kaxaduretara, geuk bestela izango zela uste bagenuen ere.

Itxura guztien arabera, XX. mendearren lehenengo erdialdean berritze lan handi bat egin zuten elizan, zoru altxatu zuten eta erabat hustu zuten hilobi eremua, ehorzketak tartean, eta dena zementuz eta burdinazko parrilla batez bete zuten. Aipatutako hilobiak bereizteko balio zuten egiturak eta hormatxoak baizik ez zituzten ukitu gabe utzi.

#### **Zundaketa lanak**

##### **Zundaketaren kokalekua**

Obren gaineko berrikuntze eta jarraipen lanek zehaztu zuten zein lekutan egingo genituen zundaketak,

## D.3.2. SONDEOS

### D.3.2.1. **San Martín de Tours (Ataun)**

Dirección: Etor Telleria Sarriegi  
Subvención: Diputación Foral de  
Gipuzkoa

Las reformas y la instalación de la calefacción en la iglesia parroquial de San Martin de Tours de Ataun motivó la realización de un control de las obras y la pertinente intervención arqueológica. La iglesia parroquial de Ataun está calificada como zona de presunción arqueológica y en el sondeo arqueológico realizado se encontraron enterramientos del siglo XVIII.

Las reformas consistían en levantar el entarimado afectado por la humedad, retirar el empedrado y rellenar anterior e instalar un sistema de calefacción radial. Esto suponía el vaciado parcial de todo el espacio interior de la iglesia, lo cual podía acarrear la destrucción de estos enterramientos y estructuras asociadas a ellas. Por lo que se intervino hasta la cota de obra y se profundizó en un sondeo realizado en la zona del altar.

#### **Control de obras y trabajos de registro**

A medida que se iban realizando los trabajos de reforma de la iglesia, se ha echo un exhaustivo seguimiento de las obras y se ha registrado todo el proceso mediante fichas y fotografías. Al levantarse el entarimado de la nave central del templo, al contrario de lo previsto, no se encontró ninguna sepultura en encajonamientos.

Al parecer, en la primera mitad del siglo XX se realizó otra gran reforma en la iglesia, se levantó el suelo y se vació totalmente el espacio funerario con sus inhumaciones, rellenándolo con cemento y un emparrillado de hierro. Se dejaron solamente las estructuras y muros que servían para la compartimentación de dichas sepulturas.

#### **Trabajos de sondeo**

##### **Situación del sondeo**

Los trabajos de supervisión y seguimiento de las obras definieron la zona en la que iba a realizarse el

tenpluaren erdialdeko habeartean ez baitzegoen ehorzketarik. Beraz, aldare aldeak piztu zuen gure arreta.

Aldarearen inguruan ez zen inolako berrikuntzarik egin lehenagotik, eta tarima altxatutakoan eta zementua kendutakoan burura eraman beharreko zundaketa planteatu genuen. Honenbestez, 2 x 2 metroko zundaketa bat ireki genuen aldarearen hego-mendebaldean, hileta espazioa bereizteko alboko horma baten eta aldarearen aurrean zegoen beste horma baten perpendikularrean.

Aldarearen pareko horma ere interesgarria zen, eliza eraikitzeke aldi ezberdinetan haren norabidean aldaketak egin zituztelako, hau da, egun elizako abside alde dena lehen elizaren oina zen, edo elizarako sarrera, eta egun sarrera neoklasikoa eta korua direnek absidearenak egiten zituen lehen. Horrexez, hain zuzen ere, ez dago egungo aldarea ekialdera begira, mendebaldera baizik. Eta elizako egungo burualdea geroago erantsirik gorputza da, aurreko eliza txikiagoa baitzen. Beraz, egungo aldare alde tenpluaren jatorrizko oinplanotik kanpora geratuko zen.

Burura eramandako zundaketan hainbat hilobi bereizi ziren, eta haien irakurketa estratigrafikoa da jarrarian azalduko duguna. Unitate estratigrafikoak eta argazki guztiak geroago azalduko ditugu, azken memorian.

### ***Zundaketaren estratigrafia***

Lehenengo 30 zentimetroak lurrezko depositu batek hartzen ditu. Lurra kolorez marroi iluna da, harroa, errekarriekin eta morteroarekin, eta betegarri gisa erabilia da. Sedimentu honen azpian lur horiagoko ageri da, eta apur bat trinkoagoa (horretan zuzeneko eragina izan dezake gaineko betegarriaren pisuak). Lur heze eta garbi honetan ageri dira aurreneko ehorzketak. Hildakoei leku egiteko behin eta berriz erabilitako eremua dela hautematen da, hezurtegi bat, non gorpuak nahasita ageri diren, lotura anatomikorik gabe.

Sakondu ahala, alboko hormaren paraleloan zegoen ehorzketa bat aurkitu genuen *ahoz gorako* etzaneran, eskuak pelbis aldean gurutzaturik. Testuinguru honetan ez genuen material arkeologikorik aurkitu. Aldez aurreko irakurketa kronoestratigrafikoa egiten baldin badugu, eskeleto hau berau inguratzen duten hormen garai berekoa dela esan dezakegu.

Azpiko lurrak bestelako ezaugarriak ditu, marroia-goa eta ilunagoa da, errekarriekin eta teila zatiek. Ondo asko ikusten da horma biak azken sedimentuzko deposituaren gainean bermatzen direla. Honenbestez, bestelako hilobi batzuekin egiten dugu topo, oraingoan hobi soiletan antolatutak, inolako loturarik ez duten hezurrezko multzoei leku egiten dietenak.

Hala eta guztiz ere, jatorrizko egokieran zegoen ehorzketa bat aurkitu genuen; burezurrik eta oinik

sondeo, ya que en la nave central del templo no existía inhumación alguna, la zona que atrajo nuestro interés fue la zona del altar.

En la zona del altar no se había realizado ninguna reforma previa y una vez se había levantado el enterrado y retirado el cemento, se planteó el sondeo arqueológico a realizar. De este modo se abrió un sondeo de 2m x 2m en el sur-oeste de la zona del altar, perpendicularmente a uno de los muros laterales que servían como separación del espacio funerario y por otro al que estaba situado frente al altar.

La zona frontal del altar resultaba también interesante por el hecho de que en las distintas fases constructivas de la iglesia, se modificó la orientación de la misma, es decir que, lo que actualmente es la zona absidial de la iglesia antes eran los pies de la iglesia o entrada y lo que actualmente es la entrada neoclásica y el coro antes era el abside. Es por ello que el altar actual no está orientada hacia el este sino que al oeste. Incluso la cabecera actual de la iglesia es un añadido posterior, la iglesia anterior era más corta, por lo que se puede decir que la actual zona del altar quedaría fuera de la planta original del templo.

En el sondeo realizado se vieron varios enterramientos, cuya lectura estratigráfica se describe a continuación, la unidades estratigráficas y el archivo fotográfico completo se expondrá posteriormente en el la memoria definitiva.

### ***Estratigrafia del sondeo***

Los primeros 30 centímetros están compuestos por un depósito de tierra marrón oscura, suelta, con cantos y mortero utilizado como relleno. Debajo de este sedimento se apreciaba una tierra más amarillenta, y algo más compacta (el peso del depósito de relleno apoyado sobre la misma puede influir en ello). Es esta tierra húmeda y limpia la que alberga las primeras inhumaciones. Se aprecia que es una zona donde continuamente ha sido utilizada para los enterramientos, un osario donde los cuerpos aparecen revueltos, sin conexión anatómica alguna.

A medida que profundizamos se halló una inhumación paralelamente al muro lateral, dispuesto en conexión anatómica *de cúbito supino*, con la manos entrelazadas en la zona pélvica. No se encontró ningún material arqueológico en este contexto. Si realizamos una lectura cronoestratigráfica previa, se puede decir que este esqueleto es contemporáneo respecto a los muros que lo rodean.

La tierra subyacente presenta unas características distintas, siendo esta más marronácea oscura con cantos y cascotes de tejas. Se puede apreciar con claridad que los dos muros apoyan sobre este último sedimento. De este modo, nos encontramos con otro tipo de enterramientos, esta vez en fosas simples que albergan un conjunto de huesos inconexos.

Aun así se encontró una inhumación en posición original, ya que aunque carecía de cráneo y pies,



San Martin Tourskoa (Ataun). Hegoaldeko hormaren paraleloan egokitutako gorpua, ahoz gorako etzaneran.

San Martín de Tours (Ataun). Enterramiento dispuesto paralelamente al muro sur en posición decúbito supino.

kontserbatzen ez zituen arren, enborrak eta zangoek lotura anatomikoari erantzuten zioten, *ahoz gorako* etzaneran. Ehorzketa honi leku egiten zion hobia induskatu ondoren, oinarriko buztin horiak geratzen ziren agerian.

Interbentzio honek hileta eremuko egitura elementuen ezaugarriak zein ziren ahal neurrian argitzea zuen beste helburu bat. Halatan, ondo baino hobeto hautematen da nola ageriko hormak xviii. mendean egindako banaketaren emaitza direla.

Zundaketaren perimetro osoa induskatu ahala geratzen dira agerian aipatutako espazioaren egiazko mugak: mendebaldean beste horma bat dago, l. arekin ekialdetik uztartzen dena, formaren eta egituraren ikuspuntuetatik berdintsua; bestalde, iparraldean zurezko ohol bat aurkitu genuen alboko hilobietatik bereizteko edo. Honenbestez, 2 x 2 metroko zundaketaren trazua xviii. mendean egindako banaketarekin bat egiten duela esan dezakegu, eta induskatutako laukiko eredu segurua asko aldarearen inguru osoan errepikatu daitekeela.

conservaba el tronco y las extremidades en conexión anatómica en posición *de cúbito supino*. Tras la excavación de la fosa donde se encontraba este enterramiento nos encontramos con las arcillas amarillas de base.

Otro de los objetivos de esta intervención era discernir en la medida de lo posible la caracterización de los elementos estructurales de la zona funeraria. De este modo se percibe que los muros que estaban visibles correspondían a la compartimentización realizada en el siglo xviii.

A medida que se excava la totalidad del perimetro del sondeo se hallan los límites reales de dicha compartimentización: al oeste se encuentra otro muro que se adosa a l del este, de características formales y estructurales similares y por otro lado al norte se encontró un tablón de madera a modo de separación respecto a las tumbas adyacentes. De este modo podemos afirmar que el trazado del sondeo 2m x 2m es coincidente con la compartimentización realizada en el siglo xviii y que seguramente el patrón del cuadrante excavado se podría repetir en todo la zona del altar.

## Azken balorazioa

Behin-behineko irakurketa kronoestratigrafiko batean esan dezagun hileta espazioaren erabileran bi une bereizten direla.

Batetik, gorpuak oinarriko buztinaren gainean induskatutako hobi soiletan hobiratzten zituzten aldia dugu, eta espazio hori gorpu askori lur emateko erabiltzen zuten. Bestetik, hileta espazioaren antolamendua erabatekoa den aldia bereizten da, banaketa eta konpartimentazio berriekin, aurreko ehorzketen gainean hilobi berriak antolatuz; bigarren hauek XVIII.-XIX. mendeetakoak izan daitezke.

Ez dakigu espazioaren antolamendu berri hau tenpluaren eraikuntza aldi ezberdinekin bat ote datorren, hau da, arestian adierazitako konpartimentazio hori lehen azaldutako elizaren norabide aldaketaren garaiarekin bat ote datorren.

Nolanahi ere den, osatu dugun erregistro estratigrafikoaren ostean Ataungo parrokia-elizako hileta espazioaren erabilera aldi ezberdinak baloratu ahal izan ditugu, egiturak erregistratu ahal izan ditugu eta hobien tipologia bereizi ahal izan dugu. Halatan, oso datu interesgarriak bildu ditugu, izan ere, ondo mugatutako espazio batean ari gara, logika kronoestratigrafiko guztiz argigarria eskaintzen duen espazioan. Honenbestez, honakoa Aro Modernotik aurrera euskal tenpluetan hileta espazioek bizi izan zuten kudeaketa eta antolamenduaren testigantza bikaina dela uste dugu.

## Valoración final

En una lectura cronoestratigráfica provisional, podemos decir que se aprecian dos momentos distintos en la utilización del espacio funerario.

Por un lado está la que se realiza en las fosas simples apoyadas sobre la arcilla de base, siendo este espacio reutilizado en otras muchas inhumaciones. Por otro lado, se elabora una reorganización del espacio funerario, se trazan nuevas divisiones y compartimentaciones, levantando nuevas estructuras sepulcrales sobre los enterramientos anteriores, pudiendo ser estos del siglo XVIII-XIX.

Lo que se desconoce por ahora es si esta reorganización del espacio coincide con las distintas fases constructivas del templo, es decir, si dicha compartimentación coincide con el cambio de orientación de la iglesia anteriormente comentada.

Sea como fuere, tras el registro estratigráfico que se ha ido elaborando hemos podido valorar las distintas fases de uso del espacio funerario de la iglesia parroquial de Ataun, registrar estas estructuras y estudiar la tipología de los nichos. Lo cual nos ha proporcionado datos de sumo interés al encontrarnos con un espacio bien delimitado y con una lógica cronoestratigráfica esclarecedora. Lo consideramos pues como un buen testimonio de la gestión y organización de los espacios funerarios acaecido a partir de la Edad Moderna en los templos vascos.

*Etor Telleria; Ander Arrese*

### D.3.2.2. **Kale nagusia, 77 (Azkoitia)**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea  
Finantzazioa: Construcciones y Promociones Arrola Berri, S.L.,  
Gipuzkoako Foru Aldundia

### D.3.2.2. **Nagusia, 77 (Azkoitia)**

Dirección: Alfredo Moraza Barea  
Financiación: Construcciones y Promociones Arrola Berri, S.L.,  
Diputación Foral de Gipuzkoa

*The intervention carried out has made it possible to identify a small fragment of the old walls that demarcated the town of Azkoitia in the medieval era. This Wall, 1.30 metres wide and barely a metre high, had been built in a way that was very similar to other examples in the area: double outer thickness with semi-carved blocks and the inner one with materials of inferior quality, all of which had been bonded with a very solid, calcareous mortar.*

Kale nagusiko 77. zenbakiko orubea Azkoitiko Hirigune Historikoaren mendebaldeko muturrean dago, fundazioari dagokion hirigune historikoan. Orubea hartzen duen etxea «Ollerokua» izenez ezagutzen da, baina jatorrian etxe horrek eta albokoak, ekialdekoak, 79. zenbakikoak, eraikin bakarra osatu zuten, geroago botan banatu bazen ere, bigarren eraikineko sarrera arkuan ondo baino hobeto hautematen den bezala. Orubean hasitako berreraikuntza lanek etxea erabat

El solar de Kale Nagusia nº 77 se localiza en el extremo oeste del Casco Histórico de Azkoitia, dentro del tramo fundacional del mismo. La casa había sido tradicionalmente conocida con el nombre de «Ollerocua», aunque originalmente esta casa y la adyacente por el lado este, la nº 79, habían formado parte de una única edificación que posteriormente será compartimentada en dos, tal y como perfectamente se aprecia a través del arco de acceso apreciable en esa segun-

Kale nagusiko (Azkoitia) 77. zenbakiko orubean aurkitutako hormaren ikuspegia, elkarren gainean egokitutako atalak agerian..



Vista del alzado de la muralla localizada en el solar de Nagusia nº 77 (Azkoitia) con las dos fábricas superpuestas.

eraistea eskatzen zuten, eta ondorioz, zorupeko ustezko depositu arkeologikoak kalteak jasan zitzakeen.

Halatan, orubearen erdialdean zanga bat zabaldu genuen, zanga gutxi gora-behera 1,20 metro zabal eta orubearen luzerarekin. Zundaketa honetan zalantzarik gabe gure garaikoak ziren hainbat depositu dokumentatu genituen; ikuspuntu arkeologikotik ez zuten inolako interesik (zementuzko zolak, hodiak, betegarriak) eta orubearen azken okupazio aldiarekin jarri behar dira harremanetan deposituok. Hauek zuzenean ageri ziren lur eremuko buztin naturalaren gainean, ia betegarririk gabe.

Halako garrantzia zuen egitura bakarra orubearen iparraldeko muturrean aurkitu genuen, Iriarte Margolaria kaleari zabalitzen zaion aldean; etxeak, jatorrian, beste sarrera bat zuen alde honetan. Egitura hau horma txiki eta aski hondatu bat da, ebakita ageri dena eta teoriarik bederen, alboko orubera luzatzen dena; guztira 3,20 metro luze izango zen. Hormak

da edificación. Las obras de reedificación abordadas en el solar conllevaban su completo derribo, quedando afectado de esta manera el posible depósito arqueológico subyacente.

La intervención consistió en la apertura en la parte central del solar una zanja de aproximadamente 1,20 metros de anchura a lo largo de toda la longitud del mismo. En este sondeo se pudieron documentar varios depósitos de cronología claramente contemporánea que no ofrecían ningún interés desde el punto de vista arqueológico (soleras de cemento, tuberías, rellenos), y que pueden relacionarse con las últimas fases de ocupación del solar. Estos se apoyaban directamente sobre la arcilla natural del terreno sin apenas relleno.

La única estructura de cierta relevancia fue localizada en el extremo norte del solar, en la parte abierta a la calle Iriarte Margolaria y a la cual el edificio presentaba originalmente otro acceso complementario. Esta estructura se correspondía con un pequeño y bastante deteriorado fragmento de muro que aparecía prácticamente cortado y que teóricamente se

ekialdetik mendebaldera egiten du eta haren garapean ondo bereizten diren atalak daude. Hormaren beheko alde nola edo hala landutako kareharrizko blokeekin egindako errenkada bik osatzen dute, eta erdian kalitate txikiagoko materialak pilatzen dira, hori guzti hori oso solidoa den kareoz batua; 1,30 eta 1,40 metro bitarteko lodiera du. Horma honen goiko aldeak beste egitura bat du, kareharrizko blokeez egina dago, baina askoz ere ahulagoa den kareoreak batzen ditu harriok. 0,90 eta metro bete bitarteko lodiera du alde honetan.

Eraikuntza eredu ezberdin biren emaitza diren horma hauek Azkoitiko hiribilduko lehen gunea ixten zuen jatorrizko harresi atal gisa identifikatu genituen, Azkoitia alde honetan fundatu baitzuten xiv. mende hasieran (1324an). Hiribildu honetan bururatutako beste interbentzio batzuetan ere harresi honen beste atal isolaturen bat identifikatu ahal izan zen, horietan guztietan aipagarriena jatorrizko itxitura eta sarrera ate batekin zerikusia zuena, Idiakenez Atearekin, Jesusen Bihotzaren Plazatik gertu, 1998an A. Ibañez zuzendari izan zuen indusketan aurkitua. Atal bien ezaugarriak aski berdintsuak dira, horma bien behe parteari bagagozkio bederen; hortaz, eraikuntza aldi berekoak direla uste dugu (fundazio garaikoak, akaso?). Aitzitik, interbentzio arkeologiko honetan dokumentatu dugun hormaren goiko atal hori segurua asko aipatutako harresian geroago egin zuten berrikuntza lan baten emaitza da.

prolongaba hacia el solar contiguo, disponiendo una envergadura total de escasamente 3,20 m. Este muro estaba dispuesto en un sentido E-O y presentaba en su trazado varias fábricas perfectamente diferenciadas. La inferior estaba ejecutada con sendas alineaciones exteriores de bloques calizos semilabrados y el interior con material de menos calidad, todo ello ligado con una argamasa calcárea muy sólida, disponiendo de una anchura de 1,30-1,40 metros. La parte superior de esta estructura muraria presentaba un lienzo de fábrica diferenciada, el cual estaba formado por bloques de piedra caliza trabados con una argamasa mucho más endeble. Su anchura era de 0,90-1 metro.

Estos muros con sus dos fábricas bien diferenciadas fueron identificados como parte de la primitiva muralla que originalmente cerraba el tramo original de la villa de Azkoitia, la cual fue fundada en este emplazamiento a principios del siglo xiv (1324). En otras intervenciones realizadas en esta villa se habían podido identificar algún otro resto aislado de esta muralla, siendo el más destacado el correspondiente con uno de los primitivos cierres y vano acceso, el Portal de Idiakenez, localizado en las proximidades de la Plaza del Sagrado Corazón en la excavación dirigida por A. Ibañez en el año 1998. Las características de ambos tramos fueron bastante similares entre si, al menos a lo que al tramo inferior se refiere, por lo que hemos de suponer que se corresponden con un mismo momento constructivo (¿el fundacional?), siendo la parte superior documentada en esta presente intervención arqueológica fruto presumiblemente de una reforma tardía de ese cerco amurallado.

*Alfredo Moraza Barea; Nerea Sarasola Etxegoien*

#### **D.3.2.3. Enparan kalea, 16 (Azpeitia)**

Zuzendaritza: Pía Alkain Sorondo  
Finantzazioa: Jabekideen komunitatea,  
Gipuzkoako Foru Aldundia

#### **D.3.2.3. Enparan kalea, 16 (Azpeitia)**

Dirección: Pía Alkain Sorondo  
Financiación: Comunidad de  
copropietarios, Diputación Foral de  
Gipuzkoa

*The aim of the sondages was to document the stratigraphic sequence of the plot and locate remains of ramparts or a medieval wall; however, the archaeological sondages conducted have provided no evidence of the wall, nor of deposits predating the 19th-20th centuries.*

Enparan kaleko 16. zenbakiko orubean bururatutako zundaketa arkeologikoek bertako sekuentzia estratigrafikoa eta, kontserbatuz gero, Erdi Aroko hiribilduko harresiaren hondakinak erregistratzea zuen xede nagusi. Helburu horren bila, hainbat zundaketa egin genituen bitarteko mekanikoak baliaturik eta orubearen luzeran zehar, ahalik eta espazio handiena aztertzeke asmoz.

Los sondeos arqueológicos llevados a cabo en el solar 16 de Enparan kalea tenían como objetivo registrar la secuencia estratigráfica del mismo y localizar, en el caso de conservarse, los restos de la cerca medieval de la villa. Con este fin se realizaron varios sondeos con medios mecánicos de forma longitudinal al solar con el fin de cubrir el mayor espacio posible.

Interbentzioaren xede zen aldea hirigune historikoren baitan eta harresiaren hegoaldeko perimetrotik oso gertu dagoen arren, burura eramandako zundaketa arkeologikoetan ez genuen harresiaren arrastorik aurkitu, ez eta XIX.-XX. mendeen aurreko depositurik ere.

Interbentzio arkeologikoaz gainera, eta eraikinaren eraispen lanak aprobetxaturik, geure Dendrokronologia Laborategiak eraikineko zurezko habe garrantzitsuenetatik 16 lagin jaso zituen, azterketa dendrokronologikoa egitearren.

A pesar del marco en el que se ubica la zona de la intervención, en el interior del casco histórico y muy próximo al perímetro sur de la muralla, los sondeos arqueológicos realizados no han evidenciado rastro alguno de la muralla ni de depósitos anteriores a los siglos XIX-XX.

Además de la intervención arqueológica y aprovechando el derribo del edificio, nuestro Laboratorio de Dendrocronología recogió 16 muestras de las vigas de madera de las piezas más significativas del edificio, con el fin de poder llevar a cabo un análisis dendrocronológico.

#### *Pía Alkain Sorondo*

#### **D.3.2.4. Erdikale, 14 (Azpeitia)**

Zuzendaritza: Pía Alkain  
Finantzazioa: Arrite S.L., Gipuzkoako  
Foru Aldundia

#### **D.3.2.4. Erdikale, 14 (Azpeitia)**

Dirección: Pía Alkain  
Financiación: Arrite S.L., Diputación  
Foral de Gipuzkoa

*The results obtained in the three archaeological sondages conducted have been similar in all the cases. They lack any interest from an archaeological point of view and fail to provide data that make it possible to provide fresh information about the town.*

Orube hau Azpeitia fundatu zuten garaiko kale batean dago, eta sortu zenetik ardatz nagusia izaki, itxura batean potentzial arkeologo handiko espazioa zen. Aztertu beharreko espazioak gutxi gora-behera 115 metro koadro zituen, eta bertan hiru zundaketa egin genituen orubearen espaziorik handiena hartzeko xedean. Zundaketok etxea eraitsi ondoren egin genituen.

Aro garaikidekoak ziren bertan bereizitako testu-guru arkeologikoak, eta ordezkaturako etxea eraiki zuten garaikoak dira, XX. mende hasierakoak; zaborrezko deposituak dira, lur eremu naturalaren gainean egokituak, drainatzeko eta hormigoizko zola paratu aurretik lur eremua berdintzeko baliatuak. Aurreko aldietan okupazio garrantzitsurik izan ez zelako edo espazio honetan zeuden maila arkeologiko interesgarriak erabat desagerrarazi zituztelako izan liteke lehenagoko aztarna arkeologikoak ez izatearen arrazoia.

Este solar se localiza en una de las calles fundacionales de la población y, al ser la arteria principal desde su creación, se presentaba como espacio de alto potencial arqueológico. El espacio a análisis presentaba una planta aproximada de 115 metros cuadrados, en los que se realizaron tres sondeos, procurando abarcar la mayor extensión posible del solar y realizándose tras el derribo del edificio.

Los contextos arqueológicos localizados fueron de época contemporánea y se correspondían al momento de edificación de la casa sustituida, a comienzos del siglo XX; se corresponden a depósitos de escombros asentados sobre el terreno natural, para servir de drenaje y base niveladora de la solera de hormigón. La ausencia de evidencias arqueológicas anteriores puede deberse a que el solar no tuvo una ocupación importante en periodos anteriores o a un arrasamiento de los niveles arqueológicos de interés existentes en este espacio.

#### *Pía Alkain Sorondo*



#### D.3.2.5. **Erdikale, 21 (Azpeitia)**

Zuzendaritza: Miren García Dalmau  
Finantzazioa: Doigore, S.A.,  
Gipuzkoako Foru Aldundia

#### D.3.2.5. **Erdikale, 21 (Azpeitia)**

Dirección: Miren García Dalmau  
Financiación: Doigore, S.A., Diputación  
Foral de Gipuzkoa

*The intervention conducted has made it possible to identify a series of archaeological remains corresponding roughly to the last two hundred years of the occupation of the plot of land. The most important among the finds are several pits excavated in the natural clay common in urban contexts and associated with them fillings that lack any special interest from an archaeological point of view.*

Erdikale kaleko 21. zenbakiko orubean bururatutako interbentzio arkeologikoa bertan zegoen eraikina eraisteko eta berri bat eraikitzeke obrek eragin zuten. Halatan, zundaketa bat egin genuen, nola bitarteko mekanikoak hala eskuak erabiliz, orubearen ardatz nagusiaren luzeran.

Orube honetan ordurako hainbat aldaketa eginak ziren, eta ondorioz, geruza arkeologikoa itxura guztien arabera nahasita egongo zen, interbentzio arkeologikoa honetan egiaztatu ahal izan genuen bezala. Aipatutako aldaketek batez ere orubearen mendebaldean izan zuten eragina, alde horretan ia ez zen depositurik kontserbatzen, eta berehala ageri zen paleozoru naturala. Sektore honetan lur eremuko buztinean induskatutako zulo biren presentzia da salbuespen: 106.U.E.ko zuloak arrautzaren itxurako oina du, 2 x 1,20 metro neurtzen du eta 0,95 m sakon da; tipologiari erreparatu gero, eskuarki hirien testuinguruan dokumentatzen diren zulo edo kubeta arrunt bat da. 104. U.E.ko zuloa ere arrautzaren itxurakoa da (1,24 x 1,13 m eta 0,93 m sakon), eta eraikuntza sendoko horma egitura bati leku egiteko sortua izan zen, esate baterako, zutarri baten pisuari eusteko, edo oraingo funtzio guztiz ezezaguna izango zuen ekoizpen egitura motaren bati (107. U.E.) eusteko, oinarrari edo antzeko bati leku egiteko.

Orubearen lehen erdialdean hautemandako estratigrafia guztiz apalaren aurrean, ekialdeko sektorean apur bat konplexuagoa zen estratigrafia bereizi genuen, nahiz eta azken emaitzak ere aski pobreak geratu diren. Sektore honetan buztin naturalean berriaz induskatu zutela (108. U.E.) hautematen da, 18 cm baizik ez. Baina haren sakonera emendatu egiten zen ekialdera egin ahala, eta ia 45 cm-ko sakonera mailaraino iristen zela egiaztatu genuen. Jangune honetan bestelakoak ziren hiru betegarri bereizi ahal izan genituen: goikoa arbel eta kareharri puskekin osatua zegoen, zaborrezko betegarriarenak egiteko (109. U.E.), aurreko zuloan dokumentatutakoaren (106. U.E.) antzekoa oso; erdikoa lur buztintsuaz osatuta zegoen, kolorez marroia, mortero eta ikatz zati ugarirekin, eta gure ustez zola antzeko batekin zuen zerikusia (110. eta 111. U.E.ak); eta bukatzeko, behekoa lur harroz osatutako betegarria zen, kolorez marroia baina argiagoa, desintegrazio prozesuan zeuden egur hondakin askorekin (112. U.E.). Zoritxa-

La intervención arqueológica llevada a cabo en el solar de Erdikale 21 estaba motivada por las obras de derribo y nueva construcción de la edificación allí existente con anterioridad. Con ese objetivo se practicó un sondeo dispuesto longitudinalmente al eje mayor del solar, el cual fue ejecutado mediante medios mixtos.

El solar había sido ya objeto de numerosas modificaciones por lo que el substrato arqueológico se encontraba previsiblemente alterado, tal y como se pudo comprobar a través de la presente intervención. Esas alteraciones habían afectado especialmente a la mitad occidental del solar donde ese depósito era prácticamente inexistente aflorando prontamente en paleosuelo natural. En este referido sector la única excepción vendrá dada por la presencia de dos fosas excavadas en esa arcilla del terreno: la UE 106, de planta oval y con unas dimensiones de 2 por 1,20 m. y una profundidad de 0,95, la cual por su tipología se corresponde con las típicas fosas o cubetas habitualmente documentadas en contextos urbanos; y la UE. 104, ésta también de forma oval (1,24 por 1,13 m. por 0,93 de profundidad, y que había sido realizada con objeto de acoger una estructura muraria de sólida construcción, y mas en concreto una especie de basa o similar destinada a soportar el peso de algún pilar o quizás algún tipo de estructura productiva de función totalmente desconocida en la actualidad (UE. 107).

Frente a la pobreza estratigráfica observada en la primera mitad del solar el sector oriental disponía de una complejidad algo mayor, si bien los resultados finales son del mismo bastante pobres. En este sector se pudo documentar un rebaje intencionado de la arcilla natural (UE. 108) de escasamente 18 cm. Pero cuya potencia aumentaba conforme avanzábamos hacia el este hasta alcanzar los casi 45 cm. En ese rebaje se pudieron identificar con claridad una sucesión de rellenos, en número de tres, de diferente naturaleza, de los cuales el superior estaba compuesto íntegramente por cascotes de pizarra y caliza a modo de relleno de escombros (UE. 109) y muy similar al documentado en la anteriormente referida fosa UE 106, el intermedio formado por una tierra arcillosa de coloración marrón con numerosos fragmentos de mortero y partículas de carbón a la que se asociaba una especie de solera o similar (UUEE. 110 y 111), y finalmente un relleno compuesto de una tierra muy suelta de coloración también marrón aunque algo



rrez, betegarri hauetako bakar batean ere ezin izan genuen material arkeologikorik bereizi, eta ondorioz, ezin izan genuen betegarrion kronologia iradoki

Laburbilduta eta behin-behinean bada ere, ez dirudi dokumentaturiko depositu arkeologikoak orube netako azken bi mendeetako okupaziotik harantzago eraman gaitzakeenik; agian eraikina berritzeko prozesu batekin dute harremana. Prozesu hori ondo baino hobeto hautematen da eraikinaren hormetan, hormetan eraikuntza eredu ezberdinak bereizten baitira.

más clara entremezclada con abundantes restos de madera en proceso de desintegración (UE. 112). Lamentablemente ninguno de estos rellenos pudo ofrecer material arqueológico alguno que nos permitiera ofrecer una cronología aproximada de los mismos.

En resumen, y de un modo provisional, el depósito arqueológico documentado no parece remontarnos más allá de las dos últimas centurias de ocupación del presente solar, coincidiendo quizás con un proceso de reconstrucción del edificio. Un proceso que se pudo apreciar perfectamente en los muros perimetrales del edificio donde se apreciaban una clara diferencia entre las fábricas del mismo.

*Miren García Dalmau; Arantxa Agirre Urteaga*

#### D.3.2.6. **Erdikale, 23-25 (Azpeitia)**

Zuzendaritza: Miren Garcia Dalmau  
Finantzazioa: Izar Eder, S.L.,  
Gipuzkoako Foru Aldundia

#### D.3.2.6. **Erdikale, 23-25 (Azpeitia)**

Dirección: Miren Garcia Dalmau  
Financiación: Izar Eder, S.L.,  
Diputación Foral de Gipuzkoa

*The intervention conducted has made it possible to identify archaeological remains linked to the last phase of occupation with natural palaeosol outcropping at a few centimetres.*

Erdikale kaleko 23-25 zenbakietako orubeak Azpeitiko Hirigune Historikoaren erdialdean daude, hiribildua ipar-mendebaldetik hego-ekialdera ebakitzen zuten aspaldiko kantoietatik batekin izkina eginez. Bertan zeuden etxe biak eraitsi egin zituzten, eta gero berre-raikuntza prozesuari ekin zioten. Aipatutako etxeetatik 23. zenbakiko orubeko etxeari zegokion horma atal txiki bat kontserbatu da; bertan sarrera dobeladuna duen arku zorrotza dago, eta berau eraikin berrira bildu nahi zuten.

25. zenbakiko orubean aurreikusitako interbentzioa ez zen bururatu lehenagotik soto bat izan zelako eta soto horren eraikuntzak betikoz galarazi zuelako zorupean egon zitekeen geruza arkeologikoa. 23. zenbakiko orubean, berriz, gurutze formako zundaketa bat egin genuen, baina eskuarki oso pobrea eta garrantzirik gabea izan zen bertan erregistratutako estratigrafia; gainera, berehala azaltzen zen paleozoru naturala. Dokumentatutako unitate edo depositu urriak nagusiki orubearen azken okupazioaldikoak ziren.

Los solares de Erdikale 23-25 se ubican en la parte central del Casco Histórico de Azpeitia, haciendo esquina a uno de los antiguos cantones que cortaban la villa en sentido NW-SE. Las dos edificaciones allí existentes fueron derribadas, iniciándose tras ello un proceso de reconstrucción de las mismas. De las mismas únicamente se procedió a la conservación de un pequeño lienzo de pared perteneciente al solar 23, y en el que existía un arco apuntado de acceso adovelado con objeto de reintegrarlo en la nueva edificación.

La intervención prevista en el número 25 finalmente no se llevó a cabo debido a la existencia previamente de una planta asotanada que había destruido completamente el substrato arqueológico subyacente. En la efectuada en el solar nº 23 se efectuó un sondeo en forma de cruz, el cual globalmente ofreció una estratigrafía sumamente pobre y sin apenas relevancia desde el punto de vista estratigráfico aflorando en seguida el paleosuelo natural. Las escasas unidades o depósitos documentados se asociaban mayormente a los últimos períodos de ocupación del solar.

*Miren García Dalmau; Arantxa Agirre Arteaga*

Erdikale kaleko 23. orubeko sarrera  
dobeladuneko arkuaren xehetasuna (Azpeitia).



Detalle del arco adovelado de acceso situado en  
el solar 23 de Erdikale (Azpeitia).

#### D.3.2.7. **Plaza nagusia, 1 (Azpeitia)**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe Irizar  
Finantzazioa: Cnes. San Pedro Oria

#### D.3.2.7. **Plaza Mayor, 1 (Azpeitia)**

Dirección: Miren Ayerbe Irizar  
Financiación: Cnes. San Pedro Oria

*The archaeological intervention conducted on the property at Plaza Mayor 1 (Azpeitia) has made it possible to record a building structure that was once again used to build part of the foundations of the existing building. We associate this structure with the town's medieval walls.*

2005eko urriaren amaieran interbentzio arkeologiko bi bururatu genituen Azpeitiko Plaza Nagusiko 1. zenbakiko orubean, Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorenaren Historia, Arte eta Arkeologia Ondarearen Sailari aurkeztutako proiektuaren arabera.

Orube hau hirigune historikoaren hego-ekialdeko muturrean dago, Urola ibaiari begira dagoen etxadia-  
ren kanpoko aldeko izkinan, hau da, Erdi Aroko hiribil-  
dua inguratuko zuen harresiaren trazu hipotetikoaren  
gainean.

A finales del mes de octubre de 2005 se llevaron a cabo los trabajos arqueológicos programados para el solar nº1 de Plaza Mayor de Azpeitia según proyecto presentado al Departamento de Patrimonio Histórico-Artístico y Arqueológico de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.

El solar se encuentra en el extremo SE del casco histórico, coincidiendo con la esquina de la manzana exterior de casas que mira al río Urola, es decir, sobre el hipotético trazado de la muralla que rodeaba la villa medieval.

Egun orubea hartzen duen eraikinak apur batean trapezoido itxurako oinplanoa du, fatxada nagusia du alderik luzeena (16,25 m) eta gibelaldekoa laburragoa du (12,67 m). Lau isuriko teilatuarekin, behe-oina, hori solairu eta estalkipea zituen. Kanpoko hormak 1,50 m lodi dira eta, nola fatxada nagusian hala gibelaldekoan, kareharrizko harlanduekin eginak dira, baina ibaiari begira dagoen horma beste material batez egin dago –hareharrizko harlandu txikiekin–, eta beste eraikuntza aldi bati dagokiola iradokitzen du.

Esan dezagun estalkipeko solairuak bikain kontserbatu duela eraikineko zurezko haberia.

Eraikinaren barruko aldean lau zundaketa egin genituen eraikineko zimentarriari buruzko datuak jasotzeko eta interes arkeologikoko balizko hondakinak, batez ere Erdi Aroko harresiaren trazuarekin zerikusia izan zezaketen aztarnak, aurkitzeko asmoz.

Zundaketa arkeologiko horiek eginda, munta handiko eraikuntza egitura bat eraikinaren fatxada nagusiariki eusteko zimentarriarenak egiten zituela egiaztatu ahal izan genuen. Landu gabeko kareharrizko egitura hori gutxienez 1,50 metro zabal zen, eta 2,40 metro sakontzen zen; Erdi Aroko Azpeitiko hiribilduko harresiaren trazuaren atal bat osatzen zuen. Horma atal honen eraikuntza izaerako ezaugarriak antzekoak dira oso hirigunean egindako beste interbentzio arkeologikoetan erregistratutakoekin.

Geruza arkeologikoei dagokienez, zundaketetan egindako erregistroak antzeko estratigrafia eskaini zuen, antzua. Egungo zoruaren azpian limo buztintsuak ageri ziren, oso garbiak eta trinkoak, material arkeologikorik gabe.

Zundaketak bururatzen genituen aldi berean, estalkipeko zurezko haberiaren erregistro planimétriko xehea egin genuen.

El edificio que ocupa actualmente el solar es de planta ligeramente trapezoidal, siendo su fachada principal el lado más largo (16,25 m) y reduciéndose la largura en la fachada posterior (12,67 m). Con cubierta a cuatro aguas, tenía planta baja, tres pisos y bajo cubierta. Sus muros exteriores presentan una anchura de 1,50 m. y están contruidos, –la fachada principal y trasera–, en sillaría de piedra caliza mientras que la fachada que mira al río está levantada con otro tipo de aparejo, –sillarejo de arenisca–, lo que parece indicar que pertenece a un momento constructivo distinto.

Es de destacar que en la planta bajo cubierta conservaba perfectamente una magnífica viguería de madera del edificio.

En el interior del edificio se realizaron cuatro sondeos con objeto de obtener datos relativos a la cimentación del edificio y a la localización de posibles restos de interés arqueológico, principalmente relacionados con el trazado de la muralla medieval.

La realización de dichos sondeos arqueológicos permitió constatar el aprovechamiento de una estructura constructiva de gran entidad como cimentación de la fachada principal del edificio. Dicha estructura realizada en mampostería de caliza de, al menos 1.50 m. de anchura y 2,40 m. de profundidad, la identificamos como parte del trazado de la muralla medieval de la villa de Azpetia. Sus características constructivas son semejantes a las registradas en otras intervenciones arqueológicas realizadas en el casco urbano.

En cuanto a los estratos arqueológicos, el registro realizado en los distintos sondeos ofreció una estratigrafía similar y estéril. Bajo el suelo actual, se localizaron los limos arcillosos muy limpios y compactos caracterizados por la ausencia de material arqueológico.

Paralelamente a la realización de los sondeos se llevó a cabo el registro planimétrico detallado de la viguería de madera de la planta bajo cubierta.

*Miren Ayerbe Irizar*

#### D.3.2.8. **Agirre Jauregia (Deba)**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe Irizar  
Finantzazioa: Debako Udala

#### D.3.2.8. **Palacio Agirre (Deba)**

Dirección: Miren Ayerbe Irizar  
Financiación: Ayuntamiento de Deba

*The archaeological intervention conducted on the property at Plaza Mayor 1 (Azpeitia) has made it possible to record a building structure that was once again used to build part of the foundations of the existing building. We associate this structure with the town's medieval walls.*

Debako hiribilduko harresiz kanpoko espazioan dagoen Agirre jauregia birgaitzeko proiektua abian jarri zutenez, azterketa arkeologiko bat egin beharra zegoen lur mugimenduak hasi baino lehen.

A raíz de la puesta en marcha del proyecto de rehabilitación del palacio Agirre, monumento situado en el espacio extramuros de la villa de Deba, se abordó la necesidad de realizar un estudio arqueológico, previo a la realización de cualquier movimientos de tierras.

Harresiz kanpora dagoen higiezin hau Maxpe errabaleran bidean dago, GI.634 errepidearen ondoan, Debako itsasadarraren ertzean, eta monumentu gisa dago kalifikatuta (1964ko otsailaren 29ko EAO), eta babestuta dago 2001eko uztailaren 30eko 158/2001 dekretuaren bidez. Beraz, Euskal Kultur Ondareari buruzko 1990eko 7/1990 Legearen xedapenei egokituta dago, eta Kalifikatutako Kultura Ondare gisa ageri da Monumentuaren kategoriarekin.

Lana 2004ko abenduan hasi genuen dokumentuak bilatzen, eta zundaketa arkeologikoak 2005eko martxoan bururatu genituen.

Dokumentuei dagokienez, Agirre etxeari buruzko lehen aipamen idatziak 1537. urtekoak dira; jakin badakigu urte horretan Juan Diaz de Aguirre jabe zuen etxe bat egon bazegoela. Bi urte geroago, 1539. urtean, ama Maria Joan de Irazabalek «etxea erre zitzaidan unea» aipatzen du testamentua egitean. Gure ustez, bere etxe nagusia zuen hizpide, hau da Agirre etxea. Horixe izan zen gure abiapuntua, xvi. mendearen erdialdeko etxea, agian aurreko beste baten gainean eraikia. Juan Diaz de Aguirre merkatari joria izan zen, eta hiribilduko alkatea 1558., 1561. eta 1565. urteetan, azken urte horretan herioak eraman zuen arte. Kontsultaturiko dokumentazioak adierazten digu non zuen etxe nagusia, hiribilduko errabalean edo hareatzen, harresiz kanpora, Debako ontziola zaharren ondoan eta lonja-etxetik oso hurbil. Zalantzarik ez dago gure azterketaren xede den higiezinaz ari dela dokumentua.

Nolanahi ere, 1623 eta 1645 bitartean berreraikuntza lan garrantzitsua bururatu zuten higiezin honetan. Francisco Ochoa de Irazabalek itun bat izenpetu zuen Domingo de Idoeta hargin maisuarekin eta haren emazte Ana de Lasalderekin, Agirre etxearen «eraikineko» «hargintza» lanak egiteko. Garai hartan eraiki zuten fatxada nagusia, kaleari begira dagoena, bikain landutako harriekin, baita ate nagusi koadroa eta baratzeria iristeko beste artea, hau da, fatxada nagusia. Itxura guztien arabera, gorabeherarik gabe bururatu zuten obra hau. Bi urte geroago, 1625ean, Francisco Ochoa de Otorak beste kontratu bat izenpetu zuen 1629an berriro ere hasteko hargintza lanekin. Kasu honetan Domingo de Idoeta hargin maisuari kaira begira egongo zen harlanduzko arku batzuk egitea agindu zioten. Ezezagun ditugun arrazoiengatik hargin maisuak ezin izan zuen obra amaitu, eta arazoari soluzio bat bilatzen ari zitzaizkionean zendu egin zen. Denborak aurrera egiten zuenez eta obrak amaitzen ez zirenez, Juana de Otorala, alargundua jada, eta haren seme Agustín de Irazababal akordio batera iritsi ziren Juan Ortiz de Olaetarekin falta ziren landu gabeko harrizko eta harlanduzko obrak amaitzeko, hau da, harlanduzko leihoak eta arkuak eta patioko eskailerak amaitzeko. 1645. urtean bukatu zituzten obra horiek.

Arkeologiaren ikuspuntutik, erregistratutako aztarnek aukera ematen digute 5 une kronologiko ezberdin bereizteko eraikin honetan. Batetik, ageriko eraikuntza unitate bat erregistratu dugu A sektorearen hego-ekialdean.

El inmueble que se localiza extramuros, hacia el arrabal de Maxpe junto a la carretera GI-634, al borde de la ría de Deba, está declarado monumento (BOE de 29 de febrero de 1964) y está protegido por el decreto 158/2001, de 30 de julio, por el que se adapta a las prescripciones de la Ley 7/1990, de 3 de julio de 1990, del Patrimonio Cultural Vasco, el expediente de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento.

El estudio comenzó en el mes de diciembre de 2004 con el trabajo de búsqueda documental y los sondeos arqueológicos se llevaron a cabo en el mes de marzo de 2005.

Desde el punto de vista documental, no hemos hallado referencias a la casa Agirre hasta 1537, fecha en la que sabemos que existe una casa de Juan Diaz de Aguirre. Dos años más tarde, en 1539, sabemos que la madre María Joan de Irazababal al hacer testamento cita «al tiempo que se me quemó la casa». Suponemos que se refiere a su casa principal, en este caso la casa Aguirre. Ese fue nuestro punto de partida, la existencia de una casa a mediados del s. xvi, tal vez levantada sobre otra anterior. Juan Diaz de Aguirre fue un próspero comerciante y alcalde de la villa en los años 1558, 1561 y 1565, año este último en el que falleció. La documentación consultada nos indica dónde estaba su casa principal, en el arrabal o arenal de la villa, extramuros junto a los astilleros viejos de Deba y muy próxima a la casa-lonja. No cabe duda que se refiere al inmueble, objeto de nuestro estudio.

Sin embargo, la obra de reconstrucción importante se llevará a cabo entre los años 1623 y 1645. Francisco Ochoa de Irazababal firma un concierto con el maestro cantero Domingo de Idoeta y Ana de Lasalde, su mujer, para hacer los trabajos de «cantería» para la «edificación» de su casa Aguirre. En esta fecha se construye la fachada principal, la que mira a la calle, de piedra sillar bien labrada así como la puerta principal cuadrada y otra puerta para pasar a la huerta, es decir, la fachada principal. Parece ser que esta obra se llevó a cabo sin contratiempos. Dos años más tarde, en 1625 Francisco Ochoa de Otorala suscribe otro contrato para comenzar, de nuevo en 1629, con las obras de cantería. En esta ocasión el encargo al maestro cantero Domingo de Idoeta se centraba en la realización de unos arcos de piedra labrada hacia el muelle. Por motivos que desconocemos, el maestro cantero no pudo acabar la obra y falleció mientras se resolvía el problema. Para solucionarlo y como pasaba el tiempo y las obras no concluían Juana de Otorala, ya viuda y su hijo Agustín de Irazababal llegaron a un acuerdo con Juan Ortiz de Olaeta para concluir las obras de sillería y mampostería que faltaban, es decir, las ventanas y los arcos de piedra labrada y escalera del patio. Estas obras finalizaron en 1645.

Desde el punto de vista arqueológico, las evidencias registradas nos permiten aventurar la convivencia de 5 momentos cronológicos distintos. De una parte, registramos la estructura constructiva emergente que



Agirre jauregia (Deba). 3. zundaketa. Zoladura.

Palacio Agirre (Deba). Sondeo 3. Pavimento.

deko muturrean. Landu gabeko kareharriz egindako «ostiko» bat da, ostiko moztua, konponketa ugari islatzen dituen gainazalarekin. Horma hau berau inguratzen duten hormen aurrekoa da, eta 5. zundaketan egiaztatu ahal izan genuen harri naturalaren gainean egokitzen dela eta hari arbelezko harri xabalez egindako zoru-maila bat atxikitzen zaiola. 4. zundaketan ere –aipatutako ostikotik gertu egindakoa– oso lodia den horma (1,30 m) egitura baten zimentarria erregistratu dugu; honen lerroak bat etor liteke ostikoarenarekin. Egitura hauek 1537. urtekoak baino lehenagokoak dira, eta agian «erre» egin zen etxeari dagozkio, gero berriro ere aprobetxatu ahal izan zituztela. Etxearen barruko aldean egindako ikustaldi batean egiaztatu ahal izan genuen «ostiko» antzeko egitura lehenengo eta bigarren solairuan ageri dela. Hirugarren solairua ez ginen igo higiezina egun oso kontserbazio egoera kaskarrean dagoelako.

Bigarren eraikuntza aldia iparraldeko fatxadarekin eta mehelinarekin lotzen dugu; mehelin esaten diogu, baina sotoaren oinean, mendebaldeko muturrean, kokatzen den fatxada nagusia da. Lehen begiratu batean, antzekotasun batzuk hautematen dira, esate baterako, eraikuntza materiala –landu gabeko kareharria– eta bao batzuk, antzeko ezaugarriak dituzten gezi-leihoen itxu-

se localiza en el extremo SE del sector A. Se trata de una especie de «machón» construido en mampuesto de caliza, cortado, presentando una superficie de arrasamiento con abundantes reparaciones. Este muro es anterior a los muros que le circundan y a través del sondeo 5 hemos podido comprobar que se asienta sobre la roca natural y que tiene asociado un nivel de suelo a base de lajas de pizarra. También en el sondeo 4, –localizado muy cerca de esta machón–, hemos registrado la cimentación de una estructura muraria de gran grosor (1,30 m.) cuya alineación podría corresponderse con el machón. Estas estructuras las asociamos al momento anterior a 1537 y quien sabe si pueden responder a la casa que se «quemó» y cuyas estructuras se pudieron reaprovechar. En una visita ocular al interior de la casa pudimos comprobar que esta especie de «machón» se mantiene en planta primera y segunda. A la tercera no accedimos por el precario estado de conservación actual del inmueble.

Diru-laguntza emaila: Atzegi,  
Gipuzkoako Foru Aldundia

D.3.3.2. **Eliz kalea, 40. Antxieta Etxea (Azpeitia)**

Dirección: M<sup>a</sup> Antonia Gereñu  
Urzelai  
Subvención: Atzegi, Diputación Foral  
de Gipuzkoa

*Archaeological monitoring of the elevator well and the sewer, in which archaeological deposits belonging to the contemporary era were found, revealed little of archaeological interest.*

Interbentzio arkeologikoa orubearen hego-mendebaldean bururatu genuen. Iggailuaren zuloan egindako lur mugimenduak eta saneamendurako irekiriko zangan egindako mugimenduak kontrolatu genituen. Erregistraturiko depositu arkeologikoak gure garaikoak ziren, eta 1963. urteko urriaren 3an etxea behera etorri ondoren eraikina birgaitu zuten unekoak dira. Beheko mailetan betegarriak dokumentatu genituen, eta betegarri horiek aipatutako eraispenaren ostean bururatu-tako obren edo higiezinaren historian zehar bertan egindako berritze lanen emaitza izan daitezke.

La intervención arqueológica se realizó en la zona suroeste del solar y consistió en el control de los movimientos de tierra del foso del ascensor y zanja para saneamiento. Los depósitos arqueológicos registrados eran de época contemporánea y se correspondían con el momento en que se rehabilitó la casa tras el derrumbe ocurrido el 3 de octubre de 1963. Los niveles inferiores se relacionan con niveles de relleno, que pueden ser fruto de las obras llevadas a cabo tras el derrumbe mencionado, o de las sucesivas reformas realizadas a lo largo de la historia del inmueble.

*Marian Gereñu Urzelai*

D.3.3.3. **Santiago kalea (Azpeitia)**

Zuzendaritza: Arantxa Agirre Urteaga  
Finantzazioa: Euskaltel

D.3.3.3. **Santiago kalea, (Azpeitia)**

Dirección: Arantxa Agirre Urteaga  
Financiación: Euskaltel

*The archaeological intervention has produced data of scant importance.*

Santiago kalearen iparraldeko muturrean Euskaltelen telefono linearen atal berria –2004. urtean instalatutakoekin bat egiteko– lurperatzeko obrak tarteko bururatu-tako kontrol arkeologikoak ez du ondare izaerako datu esanguratsurik eskaini.

Egungo asfaltozko zolaren azpian, aurreko galtzadaria lurrezko betegarri baten gainean ageri zen. Betegarri hori gure garaiko lur mugimenduek nahasita ageri zen, eta kota beheenetan horma baten egitura eta kanalizazio bi erregistratu genituen, denak azken okupazio aldiari dagozkiola.

El control arqueológico efectuado en el tramo más septentrional de la calle Santiago con motivo de las obras de soterramiento de un nuevo tramo de la línea de teléfono Euskaltel, que enlaza con los ya instalados en 2004, no ha generado datos de especial relevancia patrimonial.

Bajo la actual solera de asfalto, el adoquinado anterior apoyaba sobre un relleno de tierra sumamente alterado por recientes remociones, llegándose a constatar en las cotas bajas los restos de una estructura muraria y dos canalizaciones atribuibles a la última fase de ocupación.

*Arantxa Agirre Urteaga; Alfredo Moraza Barea*

#### D.3.3.4. **Artekale (Bergara)**

Zuzendaritza: Pía Alkain  
Finantzazioa: Bergarako Udala

#### D.3.3.4. **Artekale (Bergara)**

Dirección: Pía Alkain  
Financiación: Ayuntamiento de Bergara

*The archaeological intervention in Artekale and Harruriaga streets has not produced results of archaeological interest with the works affecting fillings of the modern, contemporary era.*

Bergarako hiribilduko Artekale eta Harruriaga kaleak birgaitzeko lanak zirela-eta, lan horien gaineko jarraipena egin behar genuen, eta horretarako kontrol arkeologikoa egitea erabaki genuen. Zorupeko balizko maila arkeologikoak erregistratzeko xedean Arreseko kantoia eta Artekale kalearen amaieraren arteko atala husteko prozesua gainbegiratu genuen. Aipatutako kale atala bitarteko mekanikoak baliaturik hustu zuten, eta kalearen sestra mailatik abiatuz gero gehienez -1,50 metroko sakoneraraino induskatu zuten.

Espazio interesgarrienak kantoien ondoko guneak ziren, kantoien ondoan egongo baitziren Erdi Aroko jatorrizko barrutira egiteko sarrerak; hala eta guztiz ere, interbentzio arkeologikoak ez zuen itxitura horien arrastorik bereizteko modurik eskaini, alde honetan egotera kota garaiagoetan egongo zirelako (gogora dezagun buztin naturalak kaleko gaitzadarriaren azpian ageri direla, kanalizazioek okupatzen duten espazioetan izan ezik) edo xx. mendea baino lehen bururatutako kanalizazio obrek betikoz galarazita egongo zirelako.

Con motivo de las obras de rehabilitación de las calles Artekale y Harruriaga de la villa de Bergara fue necesaria la realización de un seguimiento de las mismas, planteándose para ello, la figura del control arqueológico. Para registrar los posibles niveles arqueológicos del subsuelo se supervisó el proceso de vaciado del tramo comprendido entre el cantón de Arrese y el final de Artekale, labores que se ejecutaron con medios mecánicos, alcanzándose una profundidad máxima de -1,50 metros, con respecto a la rasante de la calle.

Los espacios que ofrecían un mayor interés se situaban en las zonas adyacentes a los cantones, puesto que junto a estos se situarían los accesos al primitivo recinto medieval; sin embargo, la intervención arqueológica no ha permitido localizar evidencias de estos cerramientos que, de hallarse en éste área, o bien se encontraban en cotas superiores (recordemos que las arcillas naturales afloran debajo del adoquinado de la calle, salvo en los espacios ocupados por canalizaciones) o bien han sido arrasadas por las obras de canalización realizadas con anterioridad al siglo xx.

*Pía Alkain Sorondo*

#### D.3.3.5. **Ondarretako kaia (Donostia-San Sebastián)**

Zuzendaritza: Jesús Manuel Pérez Centeno eta Xabier Alberdi Lonbide  
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

#### D.3.3.5. **Nasa de Ondarreta (Donostia-San Sebastián)**

Dirección: Jesús Manuel Pérez Centeno y Xabier Alberdi Lonbide  
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

*In 2005 we concluded the digs carried out in 2003 and 2004 in connection with the fish trap or fishery of Ondarreta corresponding to the final phase of use and operation of a structure documented since the 12th century.*

Donostiako Ondarretako hondartzan harrizko egitura baten hondakinak azaltzen direnez eta hedabideetan hari buruzko hainbat azalpen gutxi gora-behera zentzudun eman direnez, eta kontuan izanik geuk hainbat ikerketa lan egin ditugula gure Herriko iraganeko itsas munduaren inguruan, 2003an aipatutako egitura aztertzeari ekin genion. Halatan, 2004. urtean zehar datazio erradiokarboniko bat egin genuen C-14ren bidez (AMS) eta

El recurrente afloramiento de los restos de una estructura lúnea en la playa donostiarra de Ondarreta y de diversas explicaciones acerca de su naturaleza más o menos juiciosas en los medios de comunicación, así como nuestra línea de investigación sobre el pasado marítimo del País, nos impulsaron a emprender su estudio en 2003. De esta forma, a lo largo de 2004, se procedió a la realización de una datación radiocarbónica por



Interbentzio arkeologikoaren ikuspegi orokorra Ondarretako hondartzan (Donostia-San Sebastián).

Vista general del área de la intervención arqueológica en la playa de Ondarreta (Donostia-San Sebastián).

Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturik. Hilabete batzuk geroago, 2005eko apirilean hain zuzen ere, Ondarretako hondartzan obra batzuk egiten ari zirela Ingurumen Ministerioako Kosta Zuzendaritzak sustaturik, hain oroitzapen goibelak dakarzkigun Ondarretako Espetxea eta Maniobretarako Zelaiko hormari dagozkion harriak eta egiturak eraisteko xedearekin, kontrol arkeologiko bat bururatu genuen. Obretan zehar hareazko paketeak irauli egin zituzten eta horri esker dagokigun egituraren hedadura eta egokitzapen espaziala dokumentatu eta topografiatu ahal izan genituen. Interbentzio honek aukera eman zuen geure hipotesia berresteko, hau da, harritzko egitura jardunearan egon zen azken aldiko kaiaren egituraren hondakinak direla. Kai honi buruzko lehen aipamen idatziak XII. mendekoak dira.

C-14 (AMS) con financiación de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Meses después, en abril de 2005, al realizarse unas obras en la playa de Ondarreta, promovidas por la Dirección de Costas del Ministerio de Medio Ambiente, con el objeto de eliminar las piedras y estructuras correspondientes al muro del Campo de Maniobras y de la Cárcel de Ondarreta, de tan triste recuerdo, se efectúa este control arqueológico. Merced a las remociones de arena realizadas en el curso de la obra se ha podido documentar y topografiar la extensión y la disposición espacial de la estructura. Esta intervención ha permitido confirmar nuestras hipótesis acerca de que la citada estructura lúnea se corresponde con los restos de la última fase en que estuvo en explotación la nasa o pesquera, cuyas primeras noticias documentales se retrotraen al siglo XII.

*Jesús M. Pérez Centeno; Xabier Alberdi Lonbide*

#### D.3.3.6. **Herriko Enparantza, 10 (Erresteria)**

Zuzendaritza: Nerea Sarasola  
Etxegoien  
Diru-laguntza emaila: Biteri Berri S.L

#### D.3.3.6. **Herriko Enparantza, 10 (Erresteria)**

Dirección: Nerea Sarasola  
Etxegoien  
Subvención: Biteri Berri S.L

*As a result of the construction of a new building on the plot at Herriko Enparantza nº 10, archaeological monitoring was conducted but only yielded negative results.*

Zundaketa arkeologikoaren xede izan zen orubea, Herriko Enparantzako 10. zenbakia, Erresteriako hirigu-

El solar Herriko Enparantza nº 10 donde se ha realizado el sondeo arqueológico se localiza en el centro



ne historikoaren erdialdean dago, udaletxeko plazan. Zundaketa hori bitarteko mekanikoak baliatuta bururatu genuen orubearen erdialdean, iparraldetik hegoaldera, eta eraitsitako eraikineko zolaren azpian zentimetro gutxi batzuetara lur naturala ageri zen, oso buztin trinko batez osatutako lur naturala.

del casco histórico de Errenteria, en la plaza del ayuntamiento. Dicho sondeo se ejecuta con medios mecánicos en el centro del solar dirección norte-sur localizando a escasos centímetros bajo la solera del edificio derribado el terreno natural compuesto por arcilla muy compacta.

Nerea Sarasola

#### D.3.3.7. **Vitoria/Gasteiz-Eibar autopista (Eskoriatza, Leintz Gatzaga)**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe  
Finantzazioa: Arlaban ABEE

#### D.3.3.7. **Autopista Vitoria-Gasteiz/Eibar (Eskoriatza, Leintz-Gatzaga)**

Dirección: Miren Ayerbe  
Financiación: UTE Arlaban

*Archaeological work was carried out before and during the project to build the Vitoria-Gasteiz/Eibar Motorway. The Arlaban-Eskoriatza stretch has facilitated the stratigraphy of an extensive area, as a result of the earth moving works taking place. The most salient find has been a deposit containing fish-shaped fossils.*

Vitoria/Gasteiz-Eibar Autopistaren Eraikuntza proiektuan onartutako trazua miatzeko eta haren gaineko kontrol arkeologikoa egiteko proiektua egin genezan eskatu zigun Arlaban ABEEk 2005. urtean. Atala: Arlaban-Eskoriatza (giltzarria 1-AU-/98-F-AT). Jarduera esparrua Leintz Gatzagako eta Eskoriatzako udal barutiak izan ziren.

Gure lanaren xede zen autopista atala Gipuzkoan garatzen da. Arlaban Arlabango tunelaren hegoaldeko ahoa eta tunel honen hasierako atala baizik ez zituen ukitzen.

Oro har Deba ibaiaren haranaren ezkerretik egiten du trazua. Lur eremua malkartsua da oso, eta gainera, Deba ibaiarekiko hiru haran ortogonalen gainetik egiten du.

Proiektuak Arlabango tunelean du abiapuntua. Tunel hau 112+960 eta 116+337 bitarteko kilometro puntuen artean dago, 3.377 metro luze da, horietatik 1.300 m Arabako herrialdean eta beste 2.077 metroak Gipuzkoakoan. Tunelak sekzio zirkularra du, 6,02 metroko erradioarekin.

Arlabango tunelaren irteeratik eta 120+400 kilometro puntura bitartean autopistaren trazua zenbaitetan lur eremuaren gainean egiten du, baina besteetan Marín, Zarimutz eta Mazmela haranak gainditzen ditu bitariko tipologiako zubi ikusgarriekin, zubiak 548, 468 eta 404 metroko luzerarekin, hurrenez hurren.

122+000 kilometro puntutik aurrera autopista Eskoriatzatik ere ikusten da. Hirigunearen mendebaldetik egiten du. Trazuaren amaiera aldera ibarbide bi igarotzen ditu alderik alde Apotzaga eta Uztarreta izeneko zubien bidez.

En el año 2005, la UTE Arlaban nos encargó la realización del proyecto de prospección y control arqueológicos del trazado aprobado en el proyecto de Construcción de la Autopista Vitoria/Gasteiz-Eibar. Tramo: Arlaban-Eskoriatza (clave 1-AU-/98-F-AT). El ámbito de actuación han sido los términos municipales de Leintz-Gatzaga y Eskoriatza.

El tramo de la autopista, objeto de nuestro trabajo, se desarrolla en Gipuzkoa. En Álava se afecta únicamente la boca sur del túnel de Arlaban y el tramo inicial de este túnel.

En líneas generales, el trazado se desarrolla por la margen izquierda del valle del Deba. El terreno es abrupto y, además, se cruza sobre tres valles ortogonales al del río Deba.

El proyecto se inicia en la boca sur del túnel de Arlabán. Este túnel, que se encuentra situado entre los P.K. 112+960 y 116+337, tiene una longitud de 3.377 m., de los cuales 1.300 m. se encuentran en la provincia de Alava y 2.077 m. en la de Gipuzkoa. La sección del túnel es circular con un radio de 6,02 m.

A la salida del túnel de Arlabán hasta el P.K. 120+400 el trazado combina tramos en los que se apoya en el terreno, y otros en que cruza los valles de Marín, Zarimutz y Mazmela mediante viaductos singulares de tipología mixta, con unas longitudes de 548, 468 y 404 m., respectivamente.

A partir del P.K. 122+000 la autopista empieza a ser visible desde Eskoriatza. Se desarrolla al oeste del núcleo urbano. En la parte final del trazado cabe reseñar el cruce de dos vaguadas mediante dos viaductos, el de Apotzaga y el de Uztarreta.



123+100 eta 123+750 kilometro puntuen artean dago San Bernabe lotunea, Eskoriatzatik eta Aretxabaletatik autopistarako sarrera errazten duena. Lotune hau tronpeta moldekua da, ordainlekua lotune bidean dagoela. Aipatutako biribilgunea Deba ibaiaren gainean dago.

Proiektuaren amaiera 123+800 kilometro puntuan dago, eta Vitoria/Gasteiz-Eibar autopistako lpar Eskoriatza-Hego Bergara atalaren hasierarekin lotzen du. 10.480 metrokoa da autopistako enberraren guztizko luzera.

2005. urtean zehar lehen miaketa lanak egin eta gero, hilerro-hilerro kontrol arkeologikoak egin genituen lur mugimenduak bururatzeko zituzten lekuak berrikus-teko; artean lan hauek egiten jarraitzen dugu. Ildo honetatik, esan dezagun arrain formako fosilak zituen aztarnategi bat aurkitu genuela ustekabearen. Lur eremua argilitek osatua zen, milimetroko hareharriek tartekaturik. Baliteke fosil hauek Kretaziko aldikoak izatea, aldi hartan jarduera orogenikoa bizi-bizia baitzen. Egungo Euskal Herriko lurraldearen parte handi batek aipatutako Aldia banatzen den sail geologiko ezberdinetan osatutako itsas sedimentuetan du jatorria; horrexegatik, hain zuzen ere, aurkitutako hondakin fosilen aniztasun handia aldi hartako itsas fauna oparoaren isla da. Nolanahi ere, gaian aditua den espezialista baten esku utzi genituen nola laginketa hala lagin horien azterketa.

Entre el P.K. 123+100 y el P.K. 123+750 se sitúa el enlace de San Bernabé que permite el acceso a la autopista desde Eskoriatza y Aretxabaleta. Este enlace es de tipo trompeta con el área de peaje sobre la vía de enlace. La mencionada glorieta se sitúa sobre el río Deba.

El final del proyecto se sitúa en el P.K. 123+800 que conecta con el origen del tramo Eskoriatza norte-Bergara sur de la autopista Vitoria/Gasteiz-Eibar. La longitud total del tronco de la autopista es de 10.480 m.

Una vez realizada la prospección de campo inicial durante el año 2005 llevamos a cabo controles arqueológicos mensuales revisando los lugares donde se llevan cabo movimientos de tierras, labor que continuamos actualmente. En este sentido destacaremos el hallazgo casual de un yacimiento de fósiles pisciformes. Se trataba de un terreno compuesto por argillitas con intercalaciones de areniscas milimétricas. Es posible que estos fósiles pertenecieran al periodo Cretácico, tiempo de intensa actividad orogénica. Gran parte del territorio actual de Euskal Herria proceden de sedimentos marinos formados en los diferentes pisos geológicos en que se divide este Periodo, motivo por el cual la mayor diversidad de restos fósiles hallados son réplicas de la abundante fauna marina de esa época. No obstante, tanto la recogida de las muestras como su estudio se encomendó a un especialista en la materia.

Miren Ayerbe

#### D.3.3.8. **San Nikolas gotorlekua (Hondarribia)**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe  
Finantzazioa: Hondarribiko  
Udala, Gipuzkoako Foru  
Aldundia

#### D.3.3.8. **Baluartea de San Nicolás (Hondarribia)**

Dirección: Miren Ayerbe  
Financiación: Ayuntamiento de  
Hondarribia, Diputación Foral de  
Gipuzkoa

*The archaeological intervention conducted on the countermine tunnel of the Fortress of San Nicolas has produced interesting data on the features of such an unusual, little-known construction. All members of the public will be able to visit it once the tunnel, which was totally silted up with rubble, has been cleaned and got ready.*

San Nikolas gotorlekua, ondoko Erreginaren gotorlekuarekin batera, Hondarribian 1530. urtetik aurrera erregeren borondateari jarraiki eta Gipuzkoako Kapitain Nagusi Sancho Martínez de Leyvaren aginpidean abiaraziriko berpizkundeko gotorlekuko elementu garrantzitsuena da. Aipatutako egitura horiek Lope de Isturizaga hargin maisuak eta Pedro del Peso Artilleria kontadoreak eraiki zituzten. Ez dakigu zein izan ziren egitura horien trazuak egin zituztenak, baina gure ustez Gabriel Tadino di Martinengoren ingurukoak izan behar zuten. Era berean, Benedito de Rávena eta Pedro de Guevara aipatzen dira, biak Hondarribian baitziren

El Baluarte de San Nicolás, junto con el contiguo de la Reina, constituyen los elementos más importantes de la fortificación renacentista emprendida en Hondarribia a partir de 1530 por voluntad real, bajo el mandato de Sancho Martínez de Leyva, Capitán General de Gipuzkoa, siendo construidos por el maestro cantero Lope de Isturizaga y Pedro del Peso, contador de Artillería. No se conocen los autores de sus trazas pero podríamos suponerlos cercanos al círculo de Gabriel Tadino di Martinengo. También se ha relacionado con Benedito de Rávena y Pedro de Guevara, presentes ambos en Hondarribia en 1533. Como fuere

1533an. Nolanahi ere den, 1539. urtean Francisco de Holandaren marrazki zoragarria dugu, amaitu berria zen San Nikolas gotorlekuaren irudi bikaina.

Historiaren, ondarearen eta turismoaren ikuspuntu-tik oso erakargarri eta ikusgarri egiten duten hainbat alderdi biltzen dira San Nikolas gotorlekura. Batetik, baluarte baten itxurako eraikina da, hein handi batean bere jatorrizko ezaugarriak kontserbatzen dituena. Al-daketa gutxi bizi izan dituenek, ia ukitu gabe iritsi da gure garaira. Ildo honetatik, hura berreskuratuta datu garrantzitsuak izanen ditugu hobeto ezagutzeko. Egitura hainbat alditan berreskuratuzeko asmoa dugu, eta kontramina galeria garbitzen hasi gara. Tunel hau gutxi gora-behera 2 m zabal da, 3 m garai eta 85 metro luze, gotorleku osoa azpiko aldetik eta alderik alde igarotzeko.

Galeria honetan egindako miaketa batean egiaztatu ahal izan genuen barruko aldea zaborrez beterik zegoela. 5 metro barrurata gatz pilaketa handia zegoela ikusi genuen; gatz hori orain dela urte asko metatu zuten bertan elurte handi batzuk tarteko. Betegarri hori oztopo izan genuen galerian aurrera jarraitzeko.

Honenbestez, galeriaren barruan utzitako zaborrak garbitzea izango zen gure lehen egitekoa, eta ondoren hura txukun utziko genuen bisitatu ahal izateko. Egun lan hori ari gara betetzen.

tenemos ya en 1539 el testimonio del hermoso dibujo de Francisco de Holanda que nos representa el baluarte de San Nicolás recién terminado.

En el Baluarte de San Nicolás confluyen una serie de factores que lo hacen muy atractivo e interesante desde el punto de vista histórico, patrimonial y turístico. De una parte, se trata de una construcción abaluartada que conserva en gran medida sus características originales. La escasa alteración que ha sufrido ha permitido que llegue hasta nuestros días casi intacto. En este sentido, su recuperación nos aporta importantes datos para su conocimiento más exhaustivo. Dicha recuperación está prevista realizarla en fases comenzando con la limpieza de la galería contraminas. Se trata de un túnel de aproximadamente 2 m. de anchura x 3 m. de altura x 85 m. de longitud que recorre todo el baluarte por su parte baja.

En una visita ocular a esta galería pudimos comprobar que su interior se encontraba totalmente colmatado de diversos escombros. Avanzando escasamente 5 metros se hallaba una acumulación importante de sal almacenada hace muchos años con motivo de unas fuertes nevadas. Dicho relleno impedía avanzar más en el trayecto de la galería.

Como primera fase, nuestro cometido fue la limpieza de los escombros depositados en el interior de la galería y posterior acondicionamiento de la misma para la visita, labor que estamos desempeñando en la actualidad.

*Miren Ayerbe Irizar*

#### D.3.3.9. **Santiago kalea, 33 (Irun)**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe  
Finantzazioa: Jabekideen komunitatea

#### D.3.3.9. **Santiago kalea, 33 (Irun)**

Dirección: Miren Ayerbe  
Financiación: Comunidad de propietarios

*Archaeological intervention carried out on the property at no. 33 in Santiago Kalea in Irun has made it possible to establish the absence of strata containing materials dating back to the Roman era, to a depth of at least 1.90 m.*

Irungo (Gipuzkoa) Santiago kaleko 33. zenbakiko orubeko higiezinaren jabekideek eskatura interbentzio arkeologiko bat egin genuen 2005eko urriko hilabete-an. Izan ere, orube horretan etxebizitzetara leku egingo zien eraikin bat altxatzeko proiektu bat aurkeztu zuten, aurreko eraikina guztiz eraitsi eta gero.

Higiezin hau Oiasso Portu ezagunaren ondoan dagoenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak promotoreei eskatu zien indarrean dagoen legeriari jarraiki zegoen proiektu arkeologikoa burura eramanez zezatela.

A petición de los copropietarios del inmueble sito en Santiago Kalea 33, en Irun (Gipuzkoa) realizamos una intervención arqueológica en el mes de octubre de 2005. Dicha intervención estaba motivada por la realización de un proyecto de construcción de una edificación de viviendas que sustituyera la anterior, previa demolición integral de todo el edificio.

Este inmueble se sitúa en el entorno del ya conocido Puerto de Oiasso por lo que la Diputación Foral de Gipuzkoa solicitó a los promotores la ejecución del correspondiente proyecto arqueológico atendiendo a la legislación vigente.

Higiezin honen inguruetan erromatarren garaiko hondakin arkeologikoak azaldu zirenez, hasiera batean jarduera oso interesgarria gerta zitekeen.

Santiago kaleko 33. zenbakian dagoen higiezin hau Irungo hirigunearen iparraldeko muturrean dago, Santiago auzoan. Eraikina mehelinen artean zegoen, eta behe-oina eta hiru solairu zituen. Arkitekturaren ikuspuntutik ez zuen inolako interesik, nahiz eta haren fisio-nomiak halako koherentzia estatikoa zuen inguruko eraikinekiko. Orubeak oinplano angeluzuzena du eta 200 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen du.

Interbentzio arkeologikoan zehar 1,90 metroko sakonera mailara iritsi ginen. Limoen gainean egokiturik aro garaikideko betegarriei zegozkien geruzak erregistratu genituen. Aurkitutako eraikuntza izaerako egiturak eraitsitako higiezinaren fatxadako zimentarriak ziren. Ez genuen erromatarren garaiko aztarna bakar bat ere erregistratu. Beraz, orube honetan erromatarren garaiko aztarnak kontserbatzen baldin badira, horiek are kota sakonagoetan behar dute egon.

El hallazgo de restos arqueológicos de época romana en las inmediaciones de este inmueble conferirían a esta actuación un gran interés.

El inmueble sito en Santiago Kalea 33 se localiza en el extremo norte del casco urbano de Irun, en el barrio de Santiago. Edificio situado entre medianeras constaba de planta baja y tres alturas. Desde el punto de vista arquitectónico carecía de interés aunque su fisonomía guardaba cierta coherencia estética con las edificaciones circundantes. El solar tiene planta rectangular y ocupa una superficie de 200 m<sup>2</sup>.

En la intervención arqueológica se alcanzó una profundidad de 1,90 m. Se registraron los estratos correspondientes a rellenos de época contemporánea asentados sobre limos. Las estructuras constructivas localizadas responden a las cimentaciones de las fachadas del inmueble derribado. No se ha registrado ningún vestigio de época romana por lo que se puede concluir que en este solar, si se conservan restos de época romana, éstos se encontrarán a cotas más profundas.

*Miren Ayerbe Irizar*

#### D.3.3.10. **Hirigune historikoa (Leintz Gatzaga)**

Zuzendaritza: Arantxa Agirre Urteaga  
Finantzazioa: Leintz Gatzagako  
Udala

#### D.3.3.10. **Casco Histórico (Leintz-Gatzaga)**

Dirección: Arantxa Agirre Urteaga  
Financiación: Ayuntamiento de Leintz-Gatzaga

*Archaeological intervention involved a series of sondages in which deposits from the postmedieval age were recorded. However, unlike on the nearby plots of land, no remains of the Roman era occupation have been found.*

Leintz Gatzagako hiribilduko fundazio eremuaren hegoaldea inguratzen duen Portaleta errekaen ibilguan zehar hiriko azpiegitura batzuk zorupean berregokitzeko xedean bururatutako obren lehen fasean eta Santiago eta Rosario kaleen arteko erretenaren perpendikularrean garatzen den trazuan egindako kontrol arkeologikoak ez zituen emaitza esanguratsuak eskaini.

Obra prozesuan zehar batez beste metro bete eta 0,80 metro bitartean induskatutako ondoz ondoko zanga ataletan ez genuen maila arkeologiko interesgarriarik erregistratu. Fenomeno hau erretenaren espazioran ere errepikatzen da; izan ere, alde honetan orain ez asko saneamendu sareak eta edateko ur eroaleak egokitu zituzten, eta horiek zeharo nahasi zuten bertako ustezko geruza arkeologikoa, batez ere hegoaldeko muturrean, ez baikenuen fundazio eremua inguratzen zuen harresiaren hondakin bakar bat ere dokumentatu ahal izan.

El control arqueológico efectuado durante el transcurso de la primera fase de actuación de las obras destinadas a la readecuación subterránea de una serie de infraestructuras urbanas llevadas a cabo a lo largo del trazado de regata de Portaleta, que bordea la mitad meridional del núcleo fundacional de la villa de Leintz-Gatzaga, así como en el trazado perpendicular de la cárcava existente entre las calles Santiago y Rosario, ha ofrecido resultados poco significativos.

Los sucesivos tramos de zanja excavados durante el proceso de obra hasta una profundidad media de entre 0,80-1m evidenciaban la ausencia de niveles arqueológicos de interés. Este fenómeno se hace extensible incluso al espacio de cárcava, en donde la conducción de una red de saneamiento y agua potable habilitada en época no muy lejana contribuyó a la alteración del posible substrato arqueológico y de manera especial en el extremo sur donde no se pudo documentar resto alguno de la muralla que circundaba el núcleo fundacional.

*Arantxa Agirre Urteaga; Alfredo Moraza Barea*

## D.4. ARABA / BIZKAIA

### D.4.1. Haro-Lemoa gasbidea EAEn barna

Zuzendaritza: M<sup>a</sup> Asunción Antoñanzas  
eta Pilar Iguácel  
Finantzazioa: Enagas

### D.4.1. Gasoducto Haro-Lemoa a su paso por la CAV

Dirección: M<sup>a</sup> Asunción Antoñanzas y  
Pilar Iguácel  
Financiación: Enagas

*As part of the project to build a gas pipeline from Haro to Lemoa, surface archaeological surveys were made to evaluate and correct the possible impact caused by a building project with a linear route, as is the case of this gas pipeline. This article publishes the results of the digs accompanied by bibliographical documentation, as well as the proposed corrective measures.*

Gainazaleko miaketa arkeologikoko lanen helburu nagusia trazatu linealeko obra batek eragin dezakeen inpaktu arkeologikoa neurtzea eta zuzentzea da, Haro-Lemoako kasuan bezala, esate baterako. Beren erai-kuntza izaerako ezaugarriengatik egitura mota hauek, *a priori*, eragin mugatua baldin badute aztarnategi arkeologikoen benetako espazioan, ibilbide lineal luzea dutenez eta eskualde geografiko ezberdinak alderik alde igarotzen dutenez –zenbaitetan arkeologia izaerako arazo ezberdinekin–, ezin baztertu daitekeen ondarearen gaineko inpaktu garrantzitsua izan dezakete. Pisu espezifiko handiko herrilanak direnez, gizarte interes eta interes estrategiko handikoak, eta beraz, Administrazioak erabakitakoak eta berak kudeatutakoak, Ondare Historikoaren gaineko inpaktua gutxienera murriztea da gure xede nagusia. Hala eta guzti ere, eta inpaktua zenbaitetan saihestezina dela kontuan izanik, aipatutako inpaktua arlo arkeologikoan gehiago jakiteko baliatu behar da.

Azken batean, artikulua honetan aurkezten diren datuak aztergai den gasbideari begira Euskadin barrena proposatutako trazatuaren ardatz eta erradioetara mu-

El principal objetivo de los trabajos de prospección arqueológica superficial es la evaluación y corrección del impacto arqueológico que pueda ser generado por una obra de trazado lineal, como es el caso del Haro-Lemoa. Si bien, *a priori*, este tipo de conducciones suponen, por sus características constructivas, una afección limitada en el espacio real de los propios yacimientos arqueológicos, el hecho de que presenten un amplio recorrido lineal atravesando regiones geográficas diversas, con problemáticas arqueológicas en ocasiones distintas, puede tener como resultado un impacto patrimonial importante que no debe olvidarse. Puesto que se trata de obras públicas con un peso específico considerable, de interés social y estratégico, y como consecuencia, pretendidamente sancionadas por la Administración, nuestro objetivo prioritario debe encaminarse a la minimización de la agresión del Patrimonio Histórico. Sin embargo, y puesto que en ocasiones éste es inevitable, la solución debe pasar por la transformación productiva de dicha agresión en conocimiento arqueológico.

Los datos que se presentan en este artículo son, en última instancia, el resultado de la realización de prospecciones arqueológicas de carácter superficial a

gatutako azaleko miaketa arkeologikoen emaitzak dira. Honako udal barruti hauetan barrena luzatzen da aipatutako azpiegitura: Bastida, Zanbrana, Berantevilla, Armiñón, Iruña Oka, Vitoria-Gasteiz, Zigoitia eta Legutiano Arabako herrialdean; eta Ubide, Otxandio, Dima, Zeanuri, Igorre, Areatza eta Lemoa Bizkaiko herrialdean.

### **Jarduera arkeologikoaren metodologia**

Haro-Lemoa Gasbidearen xehetasun proiektuari dagokion Inpaktu Arkeologikoaren Txostena egiteko beharrezkoak izan ziren lan arkeologikoen bi jarduera aldi izan zituzten:

#### **Aurreko azterketa**

Miaketa lanei ekin baino lehen, aztergai genituen eremuen inguruan eskuragarri zegoen informazio guztia aztertu genuen. Gasbidearen trazuak ukitzen dituen udal barrutiak gogoan, Errioxako Gobernuaren, Euskadiko Gobernuaren eta Gaztela eta Leongo Juntaren Arkeologia Inbentarioetan jasotako dokumentazioa izan genuen abiapuntu. Aldi berean, teknika tradizionalen laguntza osagarria izan genuen, esate baterako toponimiaren azterketaren laguntza, tokien izen bereziek aztarnategi arkeologikoen presentzia iradokitzen baitute zenbaitetan.

Aurreko azterketa honen emaitzak Eragin Arkeologikoaren Oinarrizko Txostenera jaso ziren. Aipatutako txosten horretan gasbideak ondarean izan zezakeen inpaktuari buruzko lehen hurbilketa egiten zen kokalekuzerrendak zehazturik, betiere azpiegituraren trazuarekiko aztarnategien gertutasunetik abiatuta. Gisa honetan definitzen dira aipatutako zerrendak:

- Zuzeneko eraginpeko zerrenda, trazuaren ardatzaren alde bakoitzera gehienez 50 metroko zabalarekin.
- Eraginpeko zerrenda, trazuaren ardatzaren alde bakoitzera 50 eta 500 metro bitarteko zabalarekin.
- Laginketa zerrenda, trazuaren ardatzaren alde bakoitzera 500 eta 1000 metro bitarteko zabalarekin.

#### **Gainazaleko miaketa arkeologikoa gasbidearen trazuan**

Arkeologia Inbentarioetan jada dokumentaturik eta egiaztatuta dauden eta kanalizatorako obrek ukitu zitzaizkien aztarnategiak mugatzea zuen helburu, haien gaineko eragina gutxienera murrizteko xedean. Gainera, jarduera horren ondorioz, ezagutu gabeko aztarnategi arkeologiko batzuk aurkitu eta mugatu genituen, eta haien gaineko eragina saihestu ahal izan genuen.

lo largo del eje y radio de afección del trazado propuesto para la conducción en estudio, a su paso por País Vasco; por los términos municipales de Labastida, Zambrana, Berantevilla, Armiñón, Iruña de Oca, Vitoria-Gasteiz, Zigoitia y Legutiano en la provincia de Álava; y Ubide, Otxandio, Dima, Zeanuri, Igorre, Areatza y Lemoa en la provincia de Bizkaia.

### **Metodología de actuación arqueológica**

Los trabajos arqueológicos que fueron necesarios para la realización del Informe de Impacto Arqueológico, correspondiente al proyecto de detalle para el *Gasoducto Haro-Lemoa*, constaron de dos fases de actuación:

#### **Análisis previo**

Consistió en examinar, con anterioridad a la propia prospección, toda la información disponible sobre las zonas en cuestión. El punto de partida necesario fue la documentación recogida en los Inventarios Arqueológicos del Gobierno de La Rioja, del Gobierno del País Vasco y de la Junta de Castilla-León en lo referente a los términos municipales por los que discurre el trazado. Al mismo tiempo se contó con la ayuda complementaria de técnicas auxiliares tradicionales como el estudio de la toponimia, pues los nombres propios de lugares pueden ser indicativos, en ciertas ocasiones, de la existencia de yacimientos arqueológicos.

Los resultados de este análisis previo se reflejaron en el Informe Básico de Impacto Arqueológico. En dicho informe, se establecía una primera aproximación al impacto patrimonial del gasoducto mediante el establecimiento de bandas de ubicación, a partir de la proximidad de los yacimientos respecto al trazado. Estas bandas se definen como:

- Banda de afección directa, con una anchura máxima de 50 metros a cada lado del eje del trazado.
- Banda de incidencia, con una anchura entre 50 metros y 500 metros a cada lado del eje del trazado.
- Banda de muestreo, con una anchura entre 500 metros y 1000 metros a cada lado del eje del trazado.

#### **Una prospección arqueológica superficial en el recorrido del gasoducto**

La finalidad de la misma fue la delimitación espacial de aquellos yacimientos que estando ya documentados y constatados en los Inventarios Arqueológicos pudieran verse afectados por las obras de canalización, buscando así la mínima afección de los mismos. Además, el objetivo inmediato se cifró en la detección y delimitación de sitios arqueológicos inéditos con el fin de poder evitar su alteración.

Landa lanetan zehar zuzenean eta xehetasun osoz miatu genuen, era sistematiko batez, gasbidearen trazu osoa. Halatan, miaketa lan horri esker, 100 metro zabaleko zerrenda batean aztertu genuen lur eremua, ardatza lehendik itxuratutako kanalizazioaren lerroak zehaztua. Kasu honetan, miaketa lan egileek, hiru lagunek, lur eremua alderik alde aztertu zuten artean 30 metroko tartea utzirik. Gisa honetan, aztarnategiak txikiak izanagatik eta hauek ibilitako bideen artean egonagatik ere, miaketa egileren batek ikus edo hauteman zitezkeen alboetara begiratuz gero ikusirismenaren baitan geratzen zirelako.

Aurreko lerroetan deskribatutako metodologia praktikara eramanda informazio sorta garrantzitsua bildu genuen, eta horrek nahikoa behar zuen Historia eta Arkeologia Ondarearen gaineko eragina neurtzeko eta zuzentzeko.

Inpaktuaren balorazioari eta neurri zuzentzaileei dagokionez, inpaktuak –jasangarria, ertaina, handia, larria– baloratzeko orduan erabilitako irizpideak lekuaren ondare izaerako garrantziaren, kontserbazio egoeraren eta gasbidearen trazarekin berarekin sor zitezkeen espazio izaerako gatazken araberakoak izan ziren.

Bukatzeko, eta azpiegiturak aztarnategietan izan zezakeen eragin mailaren arabera, eraikuntza jardueraren ondare izaerako eragin negatiboak ezerezean uzteko, murrizteko edo konpentsatzeko beharrezkoak ziren neurriak proposatu genituen.

## ***Erregistro arkeologikoa***

### ***Bastida (Araba)***

Jakin bagenekien kanalizazioaren trazutik hurbil aztarnategi bat zegoela, Haro-Lemoa Gasbide honi buruzko «Eragin Arkeologikoaren Oinarrizko Txostenean» islatuta geratu zen bezala. Buradon Gatzagakoa *San Joan Finkamendua*, eraginpeko zerrendan kokatua, trazutik aski gertu zegoen, baina kanalizazio obren eraginpeko eremutik nahikoa urrutira.

### ***Berantevilla (Araba)***

*Lacervilla* aztarnategia eraginpeko zerrendara jaso zen, baina gasbidearen trazutik aski urrutira geratzen zen, haren eraginpetik at beraz. Gainera, gainazaleko miaketa lanek aukera eman zuten izaera etnologikoko ondare elementu bi hautemateko: iturri bat eta garbitoki bat *Bosque El Prado* izeneko aurkientzan eta mahasti zaindegi bat *Cara*-n, guztiak gasbidearen trazuren eraginpeko eremuetatik kanpora.

### ***Armiñón (Araba)***

Landa lanetan zehar Inventario Arkeologikoan erregistratu gabeko ustezko aztarnategi berri bi hauteman

El trabajo de campo consistió en una prospección sistemática intensiva de cobertura total, es decir, en la inspección directa y exhaustiva del trazado del gasoducto. Dicha prospección supuso el reconocimiento del terreno en una banda de 100 metros de anchura, cuyo eje fue marcado por la línea de canalización ya trazada. En este caso los prospectores, en número de tres, recorrieron el terreno con una separación equidistante de 30 metros. De esta manera, aunque los yacimientos sean de dimensiones reducidas y aún cuando éstos estuvieran situados en el punto medio de los caminos recorridos, podían ser detectados por alguno de los prospectores en su alcance visual hacia los lados.

La puesta en práctica de la metodología descrita en las líneas precedentes tuvo como resultado un cúmulo de información, cuya finalidad última debía ser la evaluación y corrección del impacto sobre el Patrimonio Histórico-Arqueológico.

En cuanto a la valoración del impacto y las medidas correctoras del mismo, los criterios a la hora de valorar los distintos impactos –compatible, moderado, severo y crítico– estuvieron en función de la propia importancia patrimonial del sitio, de su estado de conservación y de su grado de conflictividad espacial con el propio trazado del gasoducto.

Finalmente, y dependiendo de la fijación del impacto, se propusieron las medidas necesarias para eliminar, reducir o compensar los efectos patrimoniales negativos de la actividad constructiva.

## ***Registro arqueológico***

### ***Labastida (Álava)***

Sabíamos de la existencia de un yacimiento próximo a la traza de la canalización que se vio reflejado en el «Informe Básico de Impacto Arqueológico» de este Gasoducto Haro-Lemoa. El yacimiento de *Asentamiento de San Juan*, localizado en Salinillas de Buradón y recogido en la banda de incidencia, se encontraba relativamente próximo al trazado, pero lo suficientemente alejado del mismo como para no verse afectado en ningún caso por las obras de canalización.

### ***Berantevilla (Álava)***

El yacimiento de *Lacervilla* fue incluido en la banda de incidencia encontrándose alejado del trazado y fuera, por tanto, de la afección del mismo. Además, las prospecciones superficiales permitieron detectar dos elementos patrimoniales de carácter etnológico: una fuente y lavadero en el paraje del *Bosque El Prado* y un guardaviñas en *Cara*, que dada su ubicación no sufrirán impacto alguno.

### ***Armiñón (Álava)***

Durante el trabajo de campo se pudo observar la existencia de dos nuevos posibles yacimientos no re-

genituen landa lanetan zehar: *Ribañez* eta *Berganzo*. Gainazalean erromatarren garaiko eta Erdi Aroko zeramikazko hondakinak ageri dira hurrenez hurren, baina kopuru aldetik oso gutxi zirenez eta gainera kronologia berriagoko materialekin nahasita zeudenez, gure ustez kasu bietan bigarren mailako deposizioaren emaitza dira. Nolanahi ere, zorupeko egiturak ez kaltetzearren, kanalizazio obrei ekin baino lehen zundaketa arkeologikoak egitea gomendatzen dugu.

### ***Iruña Oka (Araba)***

*Sanzoornil/San Saturnino/San Sazornil tenplua*, Goi Erdi Aroko eliza, eta erromatarren garaiko aztarnategia, *Trespondeko Errota Finkamendua* izenekoa, gasbideari buruzko oinarritzko txostenera jaso ziren. Aztarnategi biak gasbidearen trazutik aski urrutira daude, haren eraginpetik kanpora. Era berean, erromatarren garaiko *Arambalza* aztarnategia ere kanalizazioaren obraren eraginpetik at geratzen zen. Aztarnategi hau ez zegoen «Eusko Jaurlaritzaren Arkeologia Inbentarioan» jasota, baina gainazaleko miaketa lanetan zehar hauteman genuen.

Bukatzeko, badira beste bi aztarnategi, bere garaian Oinarritzko Txostenera bildu zirenak eta kanalizazioaren obraren eragina jaso zezaketenak, gasbidearen trazurik gertu zeudelako: *La Teja* eta *ekialdeko La Teja* eta *Jundizko Herrixka* izeneko aztarnategiez ari gara. Zorupeko egiturak ez kaltetzearren, kanalizazio obrei ekin baino lehen zundaketa arkeologikoak egitea gomendatzen dugu.

Gasbideari buruzko «Oinarritzko Txostenean», laginketa zerrendaren baitara *Retenaga herrixka* izeneko aztarnategia jaso genuen. Nolanahi ere, kanalizazioaren trazurik aski urrutira dago, eta ez du haren eraginik jasango.

Era berean, gainazala miatzeko lanetan zehar «Eusko Jaurlaritzaren Inbentarioan» erregistratu gabeko aztarnategi berri bat aurkitu genuen, Alto Carasol izenekoa (Gasteiz), gainazalean erromatarren garaiko zeramikak zituen.

### ***Zigoitia (Araba)***

*Apodakako finkamendua* gasbideari buruzko «Oinarritzko Txostenean» jasotzen da, baina gasbidearen trazutik urrutira dago, haren eraginpeko eremutik at.

### ***Otxandio (Bizkaia)***

*Mekoletako Errota-Burdinola* gasbideari buruzko oinarritzko txosteneko eraginpeko zerrendaren baitan jasotzen da, baina kanalizazioaren trazutik aski urrutira egonik, haren eraginpetik kanpora geratzen da.

gistrados en el Inventario Arqueológico: *Ribañez* y *Berganzo*. En superficie aparecen restos cerámicos, de cronología romana y medieval respectivamente, pero su escasa cantidad y su mezcla con materiales de cronología más reciente, nos lleva a pensar en una posible deposición secundaria en ambos casos. No obstante, con el fin de evitar cualquier deterioro de estructuras en el subsuelo, recomendamos la realización de sondeos arqueológicos con anterioridad a las obras de canalización.

### ***Iruña de Oca (Álava)***

El *Templo de Sanzoornil/San Saturnino/San Sazornil*, iglesia de la Alta Edad Media, y el yacimiento romano *Asentamiento del Molino de Trespuentes*, fueron recogidos en el informe básico del gasoducto, encontrándose ambos lo suficientemente alejados del trazado como para no verse afectados por el mismo. Tampoco se vería alterado por las obras de canalización debido a su alejada ubicación, el yacimiento de *Arambalza*, de cronología romana, no registrado en el «Inventario Arqueológico del Gobierno Vasco», pero detectado durante las prospecciones superficiales.

Por último, existen dos yacimientos que ya en su momento fueron incluidos en el Informe Básico y que podrían verse afectados durante las obras de canalización, puesto que se encuentran muy próximos al trazado. Son el *Asentamiento de La Teja* y *La Teja este*, y el *Poblado de Jundiz*. Con el fin de evitar cualquier deterioro de estructuras en el subsuelo, recomendamos la realización de sondeos arqueológicos con anterioridad a las obras de canalización.

En el «Informe Básico» del gasoducto, dentro de la banda de muestreo, recogimos el yacimiento del *Poblado de Retegana*, que finalmente se encuentra lo suficientemente alejado de la traza de la canalización como para no verse afectado por la misma.

Asimismo, durante las prospecciones superficiales se detectó un nuevo yacimiento no registrado en el «Inventario del Gobierno Vasco», con presencia de material cerámico de cronología romana en superficie, el *Alto Carasol* (Vitoria-Gasteiz).

### ***Zigoitia (Álava)***

El *Asentamiento de Apodaca* fue recogido en el «Informe Básico» del gasoducto, encontrándose lo suficientemente alejado del trazado como para no verse afectado por el mismo.

### ***Otxandio (Bizkaia)***

El *Molino-Ferrería de Mekoleta* se encontraba recogido dentro de la banda de incidencia del informe básico de este gasoducto, pero su alejada ubicación con respecto a la traza de la canalización le deja fuera de cualquier afección.

### Zeanuri (Bizkaia)

Gasbideari buruzko «Oinarrizko Txostenean» eraginpeko zerrendara bildu genuen *Landaburuko Errota*, baina kanalizazioaren trazutik aski urrutira egonik, ez du haren eraginik jasango. Era berean, gainazaleko miaketa lanek aukera eman zuten *Akauri* baserriaren ondoan zubi txiki bat dokumentatzeko; gasbidearen trazutik hurbil dagoen arren, zubiak ez du gasbidearen eraikuntza lanen eragina jasango.

### Dima (Bizkaia)

*Illunbreko Kastroa* eraginpeko zerrendara jaso genuen gasbideari buruzko txostenean, baina gasbidearen trazurik aski urrutira dagoenez ez du haren eraginik jasango. Era berean, gainazaleko miaketa lanetan zehar dokumentatutako *Kubuluko karobiak* ere ez du kanalizatorako obren eraginik jasango, hartatik aski tarte handia baitago.

### Konklusioak

Haro-Lemoa gasbideak, *a priori*, halako eragina izango zuen haren bideko udal barrutietako ondare arkeologikoan.

Gasbidearen trazua atal batzuetan zundaketa arkeologikoak egin behar ziren zanga ireki baino lehen, erregistraturiko aztarnategi arkeologikoetan izan zitekeen balizko eragina saihesteko xedean:

- V-VI-132.6 eta V-VI-132.7 muturren artean, Armiñongo udal barrutian (Araba), *Ribañez* aztarnategiaren inguruan.
- V-VI-140 eta Estavilloko muturren artean, Armiñongo udal barrutian (Araba), *Berganzo* aztarnategiaren inguruan.
- V-VI-230.2 eta V-VI-230.3 muturren artean, *La Teja eta ekialdeko La Teja finkamenduaren* inguruan, Iruña Okako udal barrutian (Araba).
- V-VI-230.10 eta V-VI-230.11 muturren artean, *Jundizko Herrixkaren* inguruan, Iruña Okako udal barrutian (Araba).
- V-VI-224.2 eta V-VI-224.3 muturren artean, *Alto Carasol* aztarnategiaren inguruan, Gasteizko udal barrutian (Araba).

Interes arkeologikoko eremu hauetako bakoitzean bideratu beharreko zundaketa arkeologikoen emaitzek adieraziko dute aztarnategia zein neurritaraino eragina jasan dezakeen eta, eragina garrantzitsua izatera, zein neurri zuzentzaile aplikatu behar diren.

### Zeanuri (Bizkaia)

En el «Informe Básico» del gasoducto incluimos dentro de la banda de incidencia el *Molino Landaburu*, que finalmente se encuentra lo suficientemente alejado de la traza de la canalización como para no verse afectado. Asimismo, las prospecciones superficiales permitieron la detección de un pequeño puente junto al caserío de *Akauri* que, aunque próximo al trazado, no se vería alterado durante la construcción del gasoducto.

### Dima (Bizkaia)

